## Basogintza-sektorearen amaierako ekoizpena




| 2017-2022 aldia | | Balorazio globala | |
|---|---|---|---|
| Gutxieneko maila | 100,0 | | Oso ona |
| Gehieneko maila | 208,2 | | |
| Bataz besteko maila | 141,7 | | |
| Azken datua | 208,2 | | |
| Urte arteko aldakuntza tasa (%) | 21,9 | | |
| Oinarrizko urtearekiko aldakuntza tasa (%) | 108,2 | | |

## Ekoizpen gordina fabrikako irteeran (baxurako + alturako arrantza)




| 2017-2021* aldia | | Balorazio globala | |
|---|---|---|---|
| Gutxieneko maila | 90,0 | | Txarra |
| Gehieneko maila | 127,3 | | |
| Bataz besteko maila | 103,3 | | |
| Azken datua | 92,5 | | |
| Urte arteko aldakuntza tasa (%) | 2,8 | | |
| Oinarrizko urtearekiko aldakuntza tasa (%) | -7,5 | | |

*** Kasu honetan, eskuragarri dagoen azken informazioa 2021eko ekitaldiari dagokio.**



LABORAL kutxa

# HEZKUNTZA




| 2017-2022 aldia | | Balorazio globala | |
|---|---|---|---|
| Gutxieneko maila | 100,0 | | Oso ona |
| Gehieneko maila | 105,2 | | |
| Bataz besteko maila | 102,2 | | |
| Azken datua | 105,2 | | |
| Urte arteko aldakuntza tasa (%) | 1,9 | | |
| Oinarrizko urtearekiko aldakuntza tasa (%) | 5,2 | | |




| 2017-2022 aldia | | Balorazio globala | |
|---|---|---|---|
| Gutxieneko maila | 97,1 | | Oso txarra |
| Gehieneko maila | 100,1 | | |
| Bataz besteko maila | 99,0 | | |
| Azken datua | 97,1 | | |
| Urte arteko aldakuntza tasa (%) | -0,7 | | |
| Oinarrizko urtearekiko aldakuntza tasa (%) | -2,9 | | |



LABORAL kutxa

## GARRAIOA

**Errepideko garraioa - garraiatutako merkantziak**




| 2017-2022 aldia | | Balorazio globala | |
|---|---|---|---|
| Gutxieneko maila | 96,7 | | Oso ona |
| Gehieneko maila | 108,5 | | |
| Bataz besteko maila | 103,0 | | |
| Azken datua | 108,5 | | |
| Urte arteko aldakuntza tasa (%) | 2,6 | | |
| Oinarrizko urtearekiko aldakuntza tasa (%) | 8,5 | | |

**Itsas garraioa - garraiatutako merkantziak Bilboko Portua**




| 2017-2022 aldia | | Balorazio globala | |
|---|---|---|---|
| Gutxieneko maila | 86,4 | | Txarra |
| Gehieneko maila | 104,0 | | |
| Bataz besteko maila | 96,9 | | |
| Azken datua | 95,9 | | |
| Urte arteko aldakuntza tasa (%) | 5,1 | | |
| Oinarrizko urtearekiko aldakuntza tasa (%) | -4,1 | | |

**Itsas garraioa - garraiatutako merkantziak Pasaiako Portua**




| 2017-2022 aldia | | Balorazio globala | |
|---|---|---|---|
| Gutxieneko maila | 100,0 | | Ona |
| Nivel Máximo | 118,9 | | |
| Nivel medio periodo | 107,8 | | |
| Último dato | 111,4 | | |
| Variación interanual (%) | -6,3 | | |
| Oinarrizko urtearekiko aldakuntza tasa (%) | 11,4 | | |



LABORAL kutxa




| 2017-2022 aldia | | Balorazio globala | |
|---|---|---|---|
| Gutxieneko maila | 100,0 | | Oso ona |
| Gehieneko maila | 119,0 | | |
| Bataz besteko maila | 107,7 | | |
| Azken datua | 119,0 | | |
| Urte arteko aldakuntza tasa (%) | 1,8 | | |
| Oinarrizko urtearekiko aldakuntza tasa (%) | 19,0 | | |




| 2017-2022 aldia | | Balorazio globala | |
|---|---|---|---|
| Gutxieneko maila | 34,1 | | Ona |
| Gehieneko maila | 119,9 | | |
| Bataz besteko maila | 87,6 | | |
| Azken datua | 107,6 | | |
| Urte arteko aldakuntza tasa (%) | 100,7 | | |
| Oinarrizko urtearekiko aldakuntza tasa (%) | 7,6 | | |

# TURISMOA




| 2017-2022 aldia | | Balorazio globala | |
|---|---|---|---|
| Gutxieneko maila | 42,1 | | Oso ona |
| Gehieneko maila | 124,2 | | |
| Bataz besteko maila | 92,2 | | |
| Azken datua | 124,2 | | |
| Urte arteko aldakuntza tasa (%) | 68,0 | | |
| Oinarrizko urtearekiko aldakuntza tasa (%) | 24,2 | | |




| 2017-2022 aldia | | Balorazio globala | |
|---|---|---|---|
| Gutxieneko maila | 42,8 | | Oso ona |
| Gehieneko maila | 131,5 | | |
| Bataz besteko maila | 94,5 | | |
| Azken datua | 131,5 | | |
| Urte arteko aldakuntza tasa (%) | 77,4 | | |
| Oinarrizko urtearekiko aldakuntza tasa (%) | 31,5 | | |


LABORAL kutxa

# FINANTZA SEKTOREA

## Kredituak guztira




| 2017-2022 aldia | | Balorazio globala | |
|---|---|---|---|
| Gutxieneko maila | 96,6 | | Nahiko txarra |
| Gehieneko maila | 100,0 | | |
| Bataz besteko maila | 98,3 | | |
| Azken datua | 98,6 | | |
| Urte arteko aldakuntza tasa (%) | -0,5 | | |
| Oinarrizko urtearekiko aldakuntza tasa (%) | -1,4 | | |

## Gordailuak guztira




| 2017-2022 aldia | | Balorazio globala | |
|---|---|---|---|
| Gutxieneko maila | 100,0 | | Oso ona |
| Gehieneko maila | 122,6 | | |
| Bataz besteko maila | 111,7 | | |
| Azken datua | 122,6 | | |
| Urte arteko aldakuntza tasa (%) | 1,5 | | |
| Oinarrizko urtearekiko aldakuntza tasa (%) | 22,6 | | |



LABORAL kutxa




# 2. ESPARRU OROKORRA

# 1. LABURPEN-BALANTZEA

2022ko emaitzek erakusten dutenez, jarduera guztiak erabat suspertu ziren ezohiko biurtekoaren (2020-2021) ondoren. Baina, batez ere, Errusiaren eta Ukrainaren arteko gerra-gatazkak baldintzatu zuen urtea. Beste ondorio batzuen artean, are gehiago desegonkortu zen energiaren prezioen ibilbidea, 2021eko udazkenetik goranzko joera zuena. Faktore horien eta sortutako ezegonkortasun geopolitikoaren ondorioz, ekonomia eta enplegua hazteko aurreikuspenak etengabe jaisten joan dira. Izan ere, azken hamarkadetan ez bezalakoa da inflazioa, eta horrek inpaktua izan du.

EAEko, Nafarroako eta Estatuko hazkunde ekonomikoa % 4,4, % 4,3 eta % 5,5ekoa izan zen. Zifra positiboak izan arren, hasierako aurreikuspenetatik urruti geratu ziren, hazkunde ekonomikoa % 6tik gorakoa izatea espero baitzen. Enpleguak (lanaldi osoaren baliokidea) portaera erresilientea izan zuen, eta % 3tik gorako urte arteko hazkundea izan zuen EAEn, Nafarroan eta Estatuan (% 3,1, % 3,4 eta % 3,8).

**1. koadroa BPGaren eta enpleguaren bilakaera**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*

| | BPG | | Enplegua (LOB) | |
|---|---|---|---|---|
| | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 |
| EAE | 5,9 | 4,4 | 5,9 | 3,1 |
| Nafarroa | 5,9 | 4,3 | 5,0 | 3,4 |
| Estatua | 5,5 | 5,5 | 6,6 | 3,8 |

*Iturria: EIN, Eustat eta Nafarroako Estatistika Institutua. Geuk egina.*

Gizarte Segurantzako afiliazio-datuek erakusten dutenez % 1,3ko hazkundea izan zen EAEn eta Nafarroan, eta % 2,3koa Estatuan. Afiliazioak eskuratutako neurria nabarmendu zen hiru lurralde eremuetan; izan ere, 2008ko krisiaren aurretik erregistratutako zifrak gainditu ziren eta, hortaz, gehieneko historikoak eskuratu ziren.

Kontratazio berriaren emaitzak ezin dira aurreko urteetakoekin alderatu, orain dela gutxiko lan-erreformaren ondorioz[1]. Kontratazio mugagabeari emandako paper nagusia eta aldi baterako modalitateak mugatu izana da lan-erreformaren aldaketa nagusia, behin-behinekotasun tasak jaisteko helburu orokorrarekin. Hala, 2022an zehar erregistratutako kontratu berrien % 30 inguru mugagabeak izan ziren eta, hortaz, enpleguaren egiturazko oinarria finkatu egin zen. Aipatutako erreformaren aurretik, tasa hori ozta-ozta iristen zen % 10era.

[1] 32/2021 Errege Lege Dekretua, abenduaren 28koa, lan-erreformarako, enpleguaren egonkortasuna bermatzeko eta lan-merkatua eraldatzeko premiazko neurriei buruzkoa. Berehala aplikatzekoa izan arren, aldi iragankor bat izan zuen benetan ezartzeko (2022ko martxoak 30).

**2. koadroa** **Gizarte Segurantzako afiliazioaren eta erregistratutako kontratazioaren bilakaera**

| | Datua | | | Urte batetik besterako aldakuntza (%) | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2020 | 2021 | 2022 | 2020 | 2021 | 2022 |
| **Afiliazioa** | | | | | | |
| EAE | 953.183 | 975.229 | 987.718 | -2,2 | 2,3 | 1,3 |
| Nafarroa | 283.636 | 292.235 | 296.178 | -0,8 | 3,0 | 1,3 |
| Estatua | 18.904.852 | 19.703.812 | 20.159.317 | -1,9 | 4,2 | 2,3 |
| **Kontratazioa** | | | | | | |
| EAE | 703.355 | 861.726 | 815.719 | -30,2 | 22,5 | -5,3 |
| Nafarroa | 305.030 | 362.337 | 334.321 | -23,5 | 18,8 | -7,7 |
| Estatua | 15.943.061 | 19.384.359 | 18.310.343 | -29,2 | 21,6 | -5,5 |

*Oharra: Urte bakoitzeko abenduaren 31ko afiliatu kopurua (erregimen guztietan) eta urte bakoitzaren itxieran metatutako kontratuak.*

*Iturria: Gizarte Segurantza eta SEPE. Geuk egina.*

**1. grafikoa** **Gizarte Segurantzako afiliazioa eta erregistratutako kontratuak. Hileko bilakaera**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*







*Iturria: Gizarte Segurantza eta SEPE. Geuk egina.*

Erregimen Orokorreko afiliazioak hazkunde esanguratsua izan zuen EAEn eta Estatuan (+% 1,7 eta +% 3,3). Hazkunde horiek konpentsatu egin zuten Autonomoen Erregimeneko mugimendu eza (-% 0,5 eta % 0,0) eta gainerako erregimenetako jaitsiera (-% 0,3 eta -% 4,2). Hala, bi lurralde eremuetan, 10 pertsonatik ia 8 Erregimen Orokorrean afiliatuta daude. Horrek agerian uzten du besteren konturako enpleguaren pisua hazten ari dela.

**3. koadroa Gizarte Segurantzako afiliazioa, erregimenaren arabera**

| | EAE | | | Estatua | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2022 | % | ∆ 22/21 | 2022 | % | ∆ 22/21 |
| Erregimen orokorra | 785.913 | 79,6 | 1,7 | 15.691.796 | 77,8 | 3,3 |
| Autonomoa | 168.582 | 17,1 | -0,5 | 3.324.048 | 16,5 | 0,0 |
| Gainerakoak[1] | 33.223 | 3,3 | -0,3 | 1.143.473 | 5,7 | -4,2 |
| **Afiliazioa, guztira** | **987.718** | **100,0** | **1,3** | **20.159.317** | **100,0** | **2,3** |

*[1] Barnean hartzen ditu: Itsasoko Langileen Erregimen Berezia, Etxeko Langileen Sistema Bereziaren Erregimen Orokorra, Nekazaritzako Langileen Sistema Berezia, Nekazaritzako Langileen Sistema Bereziaren Erregimen Orokorra.*
*Oharra: Afiliatuak, urte bakoitzeko abenduaren 31n.*
*Iturria: Gizarte Segurantza. Geuk egina.*

**4. koadroa Gizarte Segurantzako afiliazioa, jarduera arloen arabera. EAE**

| | 2021 | 2022 | | |
|---|---|---|---|---|
| | Afiliazioa | Afiliazioa | % | ∆ 22/21 |
| Lehen sektorea | 11.235 | 11.168 | 1,1 | -0,6 |
| Erauzketa-industriak | 552 | 533 | 0,1 | -3,4 |
| Manufaktura-industria | 168.403 | 170.656 | 17,3 | 1,3 |
| Energia-hornidura | 1.593 | 1.618 | 0,2 | 1,6 |
| Ur-hornidura eta hondakinak | 6.540 | 6.464 | 0,7 | -1,2 |
| Eraikuntza | 56.409 | 57.675 | 5,8 | 2,2 |
| Ibilgailuen merkataritza eta konponketa | 137.149 | 135.878 | 13,8 | -0,9 |
| Garraioa eta biltegiratzea | 43.080 | 44.538 | 4,5 | 3,4 |
| Ostalaritza | 64.794 | 66.809 | 6,8 | 3,1 |
| Informazioa eta komunikazioa | 24.396 | 25.574 | 2,6 | 4,8 |
| Finantza- eta aseguru-jarduerak | 16.912 | 16.780 | 1,7 | -0,8 |
| Higiezinen arloko jarduerak | 4.197 | 4.290 | 0,4 | 2,2 |
| Jarduera profesional zientifiko-teknikoak | 58.943 | 60.781 | 6,2 | 3,1 |
| Administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak | 65.914 | 65.715 | 6,7 | -0,3 |
| Adm. Publikoa eta Gizarte Segurantza | 50.353 | 51.416 | 5,2 | 2,1 |
| Hezkuntza | 77.919 | 79.255 | 8,0 | 1,7 |
| Osasun jard. eta gizarte-zerbitzuak | 112.889 | 113.427 | 11,5 | 0,5 |
| Artearen, aisialdiaren eta entretenimenduaren arloko jarduerak | 17.667 | 18.820 | 1,9 | 6,5 |
| Beste zerbitzu batzuk | 27.262 | 27.276 | 2,8 | 0,1 |
| Etxeko langileak | 28.945 | 28.967 | 2,9 | 0,1 |
| Lurraldez kanpoko erakundeak | 77 | 78 | 0,0 | 1,3 |
| **Afiliazioa, guztira** | **975.229** | **987.718** | **100,0** | **1,3** |

*Oharra: Afiliatuak, urte bakoitzeko abenduaren 31n.*
*Iturria: Iturria: Gizarte Segurantza. Geuk egina.*

Jarduera arlo gehienek bilakaera ona izan zuten, eta honako hauek baino ez zuten behera egin: lehenengo sektorea (-67), erauzketa-industriak (-19), ur-hornidura eta hondakinak (-

76), merkataritza eta ibilgailuen salmenta eta konponketa (-1.271), finantza- eta aseguru-jarduerak (-132) eta administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak (-199).

Aitzitik, enpleguak manufaktura-industrian (+% 1,3; +2.253 afiliatu) eta eraikuntzan (+% 2,2; +1.266 afiliatu) izandako hazkundea nabarmendu behar da, sektore horiek beste jarduera ekonomiko batzuei eragiten dietelako. Bigarren bloke batean sartuko genituzke hezkuntza-jarduerak (+% 1,7; +1.336 afiliatu), osasungintzako eta gizarte-zerbitzuetako jarduerak (+% 0,5; +538 afiliatu) eta Administrazio Publikoa (+% 2,1; +1.063 afiliatu), duten neurriagatik eta pertsonei eta gizarteari arreta ematen dietelako. Hirugarren blokeak zeharkako jarduerak hartzen ditu barne, hala nola jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak (+% 3,1; +1.838 afiliatu) eta informazio- eta komunikazio-jarduerak (+% 4,8; +1.178 afiliatu).

Azkenik, arte-, jolas- eta entretenimendu-jardueretako (+% 6,5; +1.153 afiliatu), ostalaritzako (+% 3,1; +2.015 afiliatu) eta garraio eta biltegiratzeko (+% 3,4; +1.458 afiliatu) afiliazioak gora egin zuen eta horrek agerian uzten du horien jarduera normalizatu egin zela, pandemiaren osteko fasean atzean geratu baziren ere.

**5. koadroa** **Erregistratutako langabeziaren eta langabezia-tasaren bilakaera**

| | Datua | | | Urte batetik besterako aldaketa (%) | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2020 | 2021 | 2022 | 2020 | 2021 | 2022 |
| **Erregistratutako langabezia (perts. kop.)** | | | | | | |
| EAE | 129.240 | 114.845 | 110.798 | 13,2 | -11,1 | -3,5 |
| Nafarroa | 40.637 | 32.026 | 31.610 | 22,4 | -21,2 | -1,3 |
| Estatua | 3.888.137 | 3.105.905 | 2.837.653 | 22,9 | -20,1 | -8,6 |
| **Langabezia-tasa (%)** | | | | | | |
| EAE | 10,0 | 8,4 | 8,7 | 0,9 | -1,5 | 0,2 |
| Nafarroa | 11,7 | 9,9 | 10,1 | 2,6 | -1,7 | 0,2 |
| Estatua | 16,1 | 13,3 | 12,9 | 2,4 | -2,8 | -0,5 |

*Oharra: urte bakoitzeko abenduan erregistratutako langabezia eta urte bakoitzeko laugarren hiruhilekoko langabezia-tasa. Langabezia-tasaren aldakuntza ehuneko puntutan adierazi dugu.*
*Iturria: SEPE eta EIN (BAI, Biztanleria Aktiboaren Inkesta). Geuk egina.*

Erregistratutako langabeziaren bilakaerak[1] osatzen du lan-merkatuaren panoramika hau. Argi eta garbi, langabeziak behera egin zuen kontuan hartutako hiru eremuetan. Estatuan erregistratutako beherakada nabarmentzen da (-% 8,6); EAEn ere behera egin zuen (-% 3,5) eta Nafarroan ere bai, neurri txikiagoan (-% 1,3). Hala, EAEko langabezia-tasa % 10etik beherakoa izan zen ondoz ondoko bigarren urtez (% 8,7). Nafarroan antzeko gorakada izan zuen adierazle horrek (ehuneko +0,2 puntu), eta % 10etik gora kokatu zen.

---

[1] Kontuan izan behar da "aldizkako finkoak" modalitatean kontratatutako pertsonen sailkapenarekin indarrean dagoen gatazka. Batetik, "langabezia egoera eta SEPEn inskribatuta ez egotea" baldintzak langabezia gutxiesten duela esaten dute *(itxura hobea langabeziaren jaitsierari dagokionez)*. Bestetik, horrelako harreman batean enpleguarekiko lotura gailentzen dela ulertzen da. Momentuz, eztabaida ez da amaitu. Estatuaren kasuan, aldizkako finkoak diren 423 mila pertsona inguru gehituko lizkioke langabeziari –egoera horretan daudenean, noski–.

Dena den, Estatuan erregistratutako tasa (% 12,9) baino nabarmen baxuagoak izan zituzten bi kasuetan, EAEn eta Nafarroan. Nolanahi ere, historikoki baxuak izan ziren hiru eremuetako erregistroak.

Bestetik, urtean zehar gailendu zen ziurgabetasuna islatzen dute sektoreko datuek, baita pandemiaren ostean sektore bakoitzak izan zuen inpaktuaren eta suspertzearen erritmo ezberdina ere. Orokorrean, 2021ean baino profil baxuagoa izan zuen langabeziak eta, hiruhilekotik hiruhilekora geldotu egin zen. Eraikuntza izan zen salbuespena, hazkunde jarraitua izan baitzuen. Halaber, Euskadiko ekonomiaren termometroaren hileko bilakaerak baieztatu egin zuen hobekuntza hori; profil nahiko egonkorra izan zuen, baina beheranzko joera apalarekin. Hala, azken hiruhilekoan eskuratu ziren erregistrorik baxuenak.

**2. grafikoa Sektoreko adierazle nagusien bilakaera. EAE**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*




*[1] Industria Ekoizpenaren Indizeari, Zerbitzuen Indize Koiunturalari, Txikizkako Merkataritzaren Indizeari eta Eraikuntzaren Indize Koiunturalari dagozkie adierazleak.*
*[2] Egutegiaren arabera zuzendutako datuak oinarri hartuta.*
*Iturria: Eustat. Geuk egina.*

**3. grafikoa Euskadiko ekonomiaren termometroa**




*Oharra: hileko ehun aldagai inguru konbinatzen dituen adierazle sintetikoa. Adierazlea 50 baino baxuagoa bada, ekonomiak behera egin duela esan nahi du; 50 eta 100 artean kokatzen bada, apur bat hazi dela; eta 100etik gorakoa bada, ekonomiak hazkunde sendoa izan duela.*

*Iturria: Ekonomia eta Ogasun Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritza).*

Sortutako ziurgabetasunak EAEko familiei eragin zien eta haien konfiantza maila asko jaitsi zen. Balio positiboak izatetik guztiz balio negatiboak izatera pasatu zen (+8tik -23ra, lehenengo hiruhilekotik laugarren hiruhilekora). Etengabe zailtasunak (ekonomia orokorra, langabezia eta prezioak) aipatzen zituen informazioarekiko sentikortasunak eta haien egoera propioaren gaineko ezagutzak (familiako ekonomia eta aurrezteko gaitasuna) okertu zituzten familien itxaropenak, eta pandemian zehar erregistratutakoaren antzekoa izan zen familien ezkortasuna. Dena den, enpleguaren emaitzak, hazkunde ekonomikoa eta inflazioaren[1] nolabaiteko eustea –azkenean gertatu diren benetako gertaerak– elementu giltzarriak izango dira 2023an familien konfiantza berreskuratzeko.

**4. grafikoa Familien konfiantza-indizea. EAE**




*Oharra: honela interpretatu ditugu eskuratutako datuak: indizea positiboa bada (100 arte), egoerak hobera egingo duela uste dute familia gehienek; indizea negatiboa bada (-100 arte), berriz, egoerak okerrera egingo duela uste dute familia gehienek.*
*Iturria: Laboral Kutxa. Geuk egina.*

**5. grafikoa BPGaren hiruhilekoko bilakaera. EAE**




*Oharra: bolumen-indize kateatua, urtaroen eta egutegiaren arabera zuzendutako datuak oinarri hartuta.*
*Iturria: Hiru hilez behingo kontu ekonomikoak. Eustat. Geuk egina.*

---

[1] KPI orokorraren eta azpiko KPIaren urte arteko % 3,3ko eta % 7,4ko hazkundea, EAEn 2023ko martxoan, EIN.

EAEko ekonomiako BPGak urte arteko % 4,4ko hazkundea izan zuen 2022an (kateatutako bolumenaren indizea). Urtearen bigarren zatia (+% 0,1 eta +% 0,5, hiruhileko arteko tasari dagokionez) lauagoa izan zen lehenengoa baino (+% 1,1 lehenengo bi hiruhilekoetan).

EAEko aurreikuspen[1] ekonomikoak ere zuhurrak[2] dira. Hala, 2023an eta 2024an % 1,5eko eta % 2,1eko hazkunde ekonomikoak izango direla aurreratu dute, eta enpleguak % 0,9ko hazkunde garbia izango duela (lanaldi osoaren baliokidea). Halaber, barne-eskaria handitu egingo da (% 1,8 eta % 2,5 2023an eta 2024an); horrek bultzatu egingo du ekonomia, eta konpentsatu egingo du kanpoko saldo negatiboa (-% 0,3 eta -% 0,4). Hobekuntza horretan funtsezkoak izango dira zerbitzuen sektorea (% 1,8 eta % 2,3) eta industria eta energia (% 1,1 eta % 1,8). Azkenik, aurreikuspenen arabera, BPGaren deflazioa handiagoa izango da 2023an, 2024an baino (+% 3,9 eta +% 3,0), gaur egungo espiral inflazionista gelditzea espero baita.

**6. koadroa EAEko aurreikuspen ekonomikoak**

*(%)*

| | 2023 | | | | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | I | II | III | IV | | |
| **BPG (kateatutako bolumenaren indizea)** | **2,1** | **0,9** | **1,5** | **1,6** | **1,5** | **2,1** |
| Azken kontsumoaren gastua | 1,7 | 1,2 | 1,3 | 1,5 | 1,4 | 2,1 |
| Familien kontsumo gastua | 1,6 | 0,1 | 1,0 | 1,6 | 1 | 2,3 |
| Administrazio Publikoen kontsumoaren gastua | 2,3 | 5,0 | 2,4 | 1,2 | 2,7 | 1,3 |
| Kapitalaren eraketa gordina | 1,6 | 2,0 | 3,0 | 2,9 | 2,4 | 4,1 |
| **Barne-eskariaren ekarpena** | **1,8** | **1,3** | **2,4** | **1,8** | **1,8** | **2,5** |
| **Kanpoko saldoaren ekarpena** | **0,4** | **-0,3** | **-0,9** | **-0,3** | **-0,3** | **-0,4** |
| Lehen sektorea | 4,0 | -4,8 | -3,2 | 5,1 | 0,0 | 1,2 |
| Industria eta energia | 1,0 | 0,2 | 2,8 | 0,7 | 1,1 | 1,8 |
| Eraikuntza | 1,4 | 1,0 | 0,4 | -0,2 | 0,6 | 1,6 |
| Zerbitzuak | 2,6 | 1,4 | 1,4 | 1,9 | 1,8 | 2,3 |
| *Balio erantsi gordina* | *2,2* | *1,0* | *1,6* | *1,5* | *1,6* | *2,1* |
| *Produktuen gaineko zergak* | *2,0* | *0,7* | *0,9* | *1,1* | *1,2* | *1,8* |
| **BPG nominala** | **6,5** | **5,4** | **4,9** | **4,9** | **5,4** | **5,1** |
| BPGaren deflatorea | 4,3 | 4,4 | 3,4 | 3,3 | 3,9 | 3,0 |
| **Lanpostuak (LOB)** | **1,5** | **0,7** | **0,7** | **0,6** | **0,9** | **0,9** |

*Iturria: Eusko Jaurlaritza.*

Inflazioak ekonomia bakoitzean duen ibilbideak eta haren posizio erlatiboak baldintzatzen dituzte aurreikuspen hauek. Atxikitako koadroak KPI orokorraren eta azpiko KPIaren urte arteko hazkundea (abenduan) jasotzen du. 2022an bilakaera positiboagoa izan zuen Espainiak, energiaren prezioei eusteko hartutako neurriei esker. Europako ekonomia nagusiek, ordea, zifra kezkagarriak eskuratu zituzten. Alemaniaren emaitza nabarmentzen da (+% 9,6 KPI orokorra eta +% 7,3 azpiko KPIa). Horrek azaltzen du 2023rako espero den desazelerazioa, beste faktore batzuen artean.

[1] Eusko Jaurlaritza, 2023ko martxoaren 16an aurkeztua.
[2] Industria Abagunearen Behatokiak (EAEko 16 kluster) aurreratu duenez, salmentak eta eskarien zorroa hobetu egingo dira (2023), eta murriztu egingo da 2022ko bigarren zatian sortutako ziurgabetasuna.

**7. koadroa Prezioen bilakaeraren testuingurua**

(%)

| | KPI orokorra[1] | | | Azpiko KPI[2] | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2020 | 2021 | 2022 | 2020 | 2021 | 2022 |
| **Eurogunea** | **-0,3** | **5,0** | **9,2** | **0,4** | **2,7** | **6,9** |
| Alemania | -0,7 | 5,7 | 9,6 | 0,0 | 4,0 | 7,3 |
| Frantzia | 0,0 | 3,4 | 6,7 | 0,5 | 1,9 | 5,4 |
| Italia | -0,3 | 4,2 | 12,3 | 0,4 | 1,5 | 6,5 |
| Danimarka | 0,4 | 3,4 | 9,6 | 1,0 | 1,5 | 7,4 |
| Herbehereak | 0,9 | 6,4 | 11,0 | 1,9 | 2,3 | 8,4 |
| Portugal | -0,3 | 2,8 | 9,8 | -0,2 | 1,9 | 8,0 |
| Suedia | 0,6 | 4,5 | 10,8 | 1,4 | 1,8 | 8,2 |
| Espainia | -0,6 | 6,6 | 5,5 | 0,1 | 2,2 | 6,7 |
| EAE | -0,3 | 6,4 | 5,4 | 0,2 | 2,2 | 6,7 |
| Nafarroa | -0,6 | 6,6 | 6,4 | 0,3 | 2,1 | 7,3 |

*[1] (HICP) – KPI orokor bateratua*
*[2] (HICP) – KPI, prestatu gabeko elikagaiak eta produktu energetikoak barne hartu gabe.*
*Iturria: Eurostat eta EIN. Geuk egina (urte arteko tasa, abendutik abendura).*

Europako aurreikuspenen arabera, ekonomia % 1 haziko da (2023), eta Espainia[1] izango da muga hori gaindituko duen ekonomia handi bakarra. Dena den, finantza-sistemako ezegonkortasun-gertaerek[2] eta horiek sisteman zehar izandako hedapenak ez zuten aldatu agintaritza arduradunaren[3] moneta-politika. Hala, oinarrizko 50 puntu igo zituen tasak (2023ko martxoan, % 3,5 arte), eta honakoa adierazi zuen: *"beharrezkoa izanez gero,.Euroguneko finantza-sistema likideziaz hornitzeko beharrezkoak diren moneta-politikako tresna guztiak ditugu".*

Hortaz, inflazioari eusteko estrategia gailentzen da eta epe laburrean inflazioa *"altuegia"* izaten jarraituko duela uste da, *"denbora gehiegiz"*. EBZren aurreikuspenen arabera, inflazioa % 5,3, % 2,9 eta % 2,1ekoa izango da 2023, 2024 eta 2025ean Eurogunean.

**8. koadroa Egindako ekonomia-aurreikuspenak**

(%)

| | Europako Batzordea | | | NDF | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2022 | 2023 | 2024 | 2022 | 2023 | 2024 |
| **Eurogunea** | **3,5** | **0,9** | **1,5** | **3,5** | **0,8** | **1,4** |
| Alemania | 1,8 | 0,2 | 1,3 | 1,8 | -0,1 | 1,1 |
| Frantzia | 2,6 | 0,6 | 1,4 | 2,6 | 0,7 | 1,3 |
| Italia | 3,9 | 0,8 | 1,0 | 3,7 | 0,7 | 0,8 |
| Espainia | 5,5 | 1,4 | 2,0 | 5,5 | 1,5 | 2,0 |
| **Munduko ekonomia** | **-** | **-** | **-** | **3,4** | **2,8** | **3,0** |
| AEB | - | - | - | 2,1 | 1,6 | 1,1 |
| Txina | - | - | - | 3,0 | 5,2 | 4,5 |

*Iturria: Europako Batzordea (2023ko otsaila) eta NDF (2023ko apirila). Geuk egina.*

[1] Maiatzean, % 1,9 inguru berrikusten ari dira (Europako Batzordea, Espainiako Bankua, etab.).
[2] Sillicon Valley Bank eta Credit Suisseren (UBSk erosi zuen 2023ko martxoaren 20an) porrotak.
[3] Europako Banku Zentrala.

# 2. INGURUNE EKONOMIKOA (NAZIOARTEKOA ETA ESTATUKOA)

## 2.1 NAZIOARTEKO EKONOMIA

**Ezaugarri nagusiak: ekoizpen-jarduera**

Munduko ekonomiak hazkunde nabarmena izan zuen 2021ean (% 6,3ko hazkundea; aurreko ekitaldian, berriz, -%2,8ko jaitsiera, pandemiaren inpaktuaren ondorioz). 2022an, aldiz, hazkunde-erritmoa % 3,4ra jaitsi zen, ziurgabetasun handiaren eta tentsio geopolitikoen ondorioz, bereziki, Errusiak Ukraina inbaditu ondoren.

Agertoki horretan, dinamismoaren galera orokortua izan zen. Ekonomia aurreratuen zein merkatu berrien eta garapen bidean dauden merkatuen hazkundeak egin zuen behera (2022an % 2,7 eta % 4, eta 2021ean % 5,4 eta % 6,9). Bigarren horiek, ordea, hazkunde maila handiagoa mantendu zuten.

Herrialde industrializatuei dagokienez, ELGAren ekaineko aurreikuspenen arabera, 2022an % 3ra jaitsi zen herrialde horien hazkundea (aurreko ekitaldian % 5,7koa izan zen), ekonomia nagusiek bultzada galdu baitzuten, oro har.

**9. koadroa Barne Produktu Gordinaren bilakaera**

*(% Δ)*

| Herrialdea | 2020 | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|
| Estatu Batuak | -2,8 | 5,9 | 2,1 |
| Japonia | -4,3 | 2,2 | 1,0 |
| Alemania | -4,1 | 2,6 | 1,9 |
| Frantzia | -7,7 | 6,4 | 2,5 |
| Italia | -9,0 | 7,0 | 3,8 |
| Erresuma Batua | -11,0 | 7,6 | 4,1 |
| Kanada | -5,1 | 5,0 | 3,4 |
| **Eurogunea** | **-6,2** | **5,2** | **3,5** |
| **ELGA, guztira** | **-4,4** | **5,7** | **3,0** |

*Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2023ko ekaina)*

Ipar Amerikako ekonomiak % 2,1eko hazkundea izan zuen 2022an, hau da, 2021eko hazkundearen (% 5,9) herena. Izan ere, kontsumo pribatuaren hazkundea murriztu egin zen (% 2,7ko hazkundea izan zuen, eta aurreko ekitaldian % 8,3koa) eta kontsumo publikoak zein inbertsioak behera egin zuten (-% 0,2 eta -% 0,5, hurrenez hurren).

Japonia, bestalde, ez zen ia hazi 2022an (% 1), baina kasu honetan kontsumo pribatua indartu egin zen (% 2,1eko hazkundea, eta 2021ean % 0,4koa). Dena den, kontsumo

publikoa ahuldu egin zen (% 1,5eko hazkundea, eta aurreko ekitaldian % 3,5ekoa), eta inbertsioaren beherakadaren erritmoa handitu egin zen (-% 1,1eko beherakada, eta -% 0,1ekoa aurreko urtean).

Merkatu berrien eta garapen bidean dauden merkatuen ekonomien testuinguruan, Indiaren eta Brasilen hazkundea apaldu egin zen mundu mailako ziurgabetasunaren ondorioz (% 6,8ko eta % 2,9ko hazkundeak 2022an, eta % 9,1 eta % 5ekoak 2021ean, hurrenez hurren). Errusiak, berriz, behera egin zuen (-% 2,1), Ukraina inbaditu izanaren ondorioz nazioartean ezarritako neurri zorrotzak direla eta.

**10. koadroa Kontsumo pribatuaren, kontsumo publikoaren eta inbertsioaren bilakaera**

*(% Δ)*

| Herrialdea | Kontsumo pribatua | | | Kontsumo publikoa | | | Inbertsioa | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2020 | 2021 | 2022 | 2020 | 2021 | 2022 | 2020 | 2021 | 2022 |
| Estatu Batuak | -3,0 | 8,3 | 2,7 | 2,2 | 1,3 | -0,2 | -1,2 | 5,7 | -0,5 |
| Japonia | -4,7 | 0,4 | 2,1 | 2,4 | 3,5 | 1,5 | -3,6 | -0,1 | -1,1 |
| Alemania | -5,9 | 0,4 | 4,9 | 4,0 | 3,8 | 1,2 | -3,0 | 1,0 | 0,5 |
| Frantzia | -6,7 | 5,2 | 2,2 | -4,2 | 6,5 | 2,6 | -7,1 | 10,2 | 2,3 |
| Italia | -10,4 | 4,7 | 4,6 | 0,0 | 1,5 | 0,0 | -8,0 | 18,6 | 9,7 |
| Erresuma Batua | -13,2 | 6,3 | 5,6 | -7,3 | 12,5 | 1,8 | -10,5 | 6,1 | 8,6 |
| Kanada | -6,1 | 5,0 | 4,8 | 1,3 | 6,4 | 2,0 | -2,4 | 7,4 | -1,5 |
| **Eurogunea** | **-7,8** | **3,7** | **4,4** | **0,9** | **4,4** | **1,4** | **-6,2** | **3,5** | **3,8** |
| **ELGA, guztira** | **-5,3** | **6,5** | **4,3** | **1,3** | **4,0** | **1,2** | **-3,7** | **5,0** | **1,8** |

*Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2023ko ekaina)*

Europari jarriko diogu orain arreta. Errusiako petrolioarekiko duen mendekotasun handia dela eta, Ukrainako gerrak bereziki eragin dio Europari. 2022an, Eurogunearen hazkunde-erritmoa % 3,5era jaitsi zen (aurreko ekitaldian % 5,2koa zen), kontsumo pribatua (% 4,4) eta, neurri txikiagoan, inbertsioa (% 3,8) indartsu mantendu baziren ere. Dena den, kontsumo publikoaren hazkundea nabarmen jaitsi zen (% 1,4, eta 2021ean % 4,4).

## Kanpo-merkataritza

Hazkunde ekonomiko txikiagoaren testuinguru horretan, 2022an kanpo-merkataritzak ez zuen izan aurreko ekitaldian adinako indarrik; ELGAko herrialdeen esportazioak eta inportazioak aurreko ekitaldian baino gutxiago hazi ziren. Hala, kanpora egindako salmenten hazkundea % 6,8ra jaitsi zen, eta kanpotik egindako erosketen hazkundea % 8,3ra (2021ean % 8,9 eta % 9,9ko hazkundeak, hurrenez hurren).

Herrialdearen arabera, Japoniaren eta Erresuma batuaren inportazioak eta Estatu Batuen, Erresuma Batuaren eta Kanadaren esportazioak alde batera utzita, honako taula honetan aintzat hartutako herrialde guztien (ELGAkoak dira) hazkundeak egin zuen behera, bai kanpora egindako salmentei dagokienez, bai kanpotik egindako erosketei dagokienez. Bereziki nabarmena izan zen Ipar Amerikako inportazioen hazkundeak izandako



LABORAL kutxa

beherakada (% 8,1eko hazkundea, eta % 14,1ekoa aurreko ekitaldian), baita Japoniara egindako esportazioena ere (% 5,1eko hazkundea, eta 2021ean % 11,9koa).

**11. koadroa Ondasun eta zerbitzuen truke-bolumenaren aldakuntzak**

*(% Δ)*

| Herrialdea | Inportazioak | | | Esportazioak | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2020 | 2021 | 2022 | 2020 | 2021 | 2022 |
| Estatu Batuak | -9,0 | 14,1 | 8,1 | -13,2 | 6,1 | 7,1 |
| Japonia | -6,8 | 5,1 | 8,0 | -11,6 | 11,9 | 5,1 |
| Alemania | -9,1 | 8,9 | 7,0 | -10,1 | 9,5 | 3,5 |
| Frantzia | -12,6 | 9,2 | 8,7 | -17,1 | 10,9 | 7,2 |
| Italia | -12,7 | 15,3 | 12,5 | -14,3 | 14,1 | 10,2 |
| Erresuma Batua | -16,0 | 6,2 | 13,3 | -12,1 | 2,2 | 9,9 |
| Kanada | -9,3 | 7,8 | 7,5 | -8,9 | 1,4 | 2,8 |
| **ELGA, guztira** | **-8,7** | **9,9** | **8,3** | **-9,4** | **8,9** | **6,8** |

*Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2023ko ekaina)*

## Prezioak

Aintzat hartutako herrialde guztietan modu orokortuan egin zuen gora kontsumo-prezioen hazkundearen erritmoak. Izan ere, petrolioa nabarmen garestitu zen (Brent upelak 71,1 dolar balio zuen 2021ean, eta 103,7 dolar 2022an), bereziki, Ukraina inbaditu izanagatik Errusiako gasari eta petrolioari ezarritako nazioarteko betoaren eta lehengai jakin batzuen bat-bateko garestitzearen ondorioz.

Hala, ELGAren arabera, 2022an kontsumoko prezio-indizearen hazkundea % 8ra igo zen Estatu Batuetan, eta % 8,4ra Eurogunean (% 4,7ko eta % 2,6ko hazkundeak, hurrenez hurren, 2021ean).

**12. koadroa Kontsumoaren prezio-indizearen bilakaera**

*(% Δ)*

| Herrialdea | 2020 | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|
| Estatu Batuak | 1,3 | 4,7 | 8,0 |
| Japonia | 0,0 | -0,2 | 2,5 |
| Alemania | 0,4 | 3,2 | 8,7 |
| Frantzia | 0,5 | 2,1 | 5,9 |
| Italia | -0,1 | 1,9 | 8,7 |
| Erresuma Batua | 0,9 | 2,6 | 9,1 |
| Kanada | 0,7 | 3,4 | 6,8 |
| **Eurogunea** | **0,3** | **2,6** | **8,4** |

*Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2023ko ekaina)*

Hala, tentsio inflazionista horien aurrean, Estatu Batuetako Erreserba Federalak eta Europako Banku Zentralak hainbatetan igo zituzten haien esku-hartzerako tasak 2022an zehar (bereziki, bigarren hiruhilekoan). Ekitaldiaren amaieran % 2,5ekoa eta % 4,5ekoa ziren tasak, hurrenez hurren.

### Lan-merkatua

Ekonomiaren hazkundea mantsotu zen arren, herrialde industrializatuetako lan-merkatuak sendo agertu ziren 2022an, eta modu orokortuan egin zuen behera langabezia-tasak. Zehazki, Estatu Batuen kasuan, langabezia-tasa % 5,4koa zen 2021ean eta % 3,6ra murriztu zen 2022an; Eurogunean % 7,7tik % 6,7ra jaitsi zen; eta, ELGAko herrialdeen artean, % 6,2tik % 5era.

**13. koadroa Langabezia-tasa**

*(biztanleria aktiboaren %)*

| Herrialdea | 2020 | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|
| Estatu Batuak | 8,1 | 5,4 | 3,6 |
| Japonia | 2,8 | 2,8 | 2,6 |
| Alemania | 3,7 | 3,6 | 3,1 |
| Frantzia | 8,1 | 7,9 | 7,3 |
| Italia | 9,3 | 9,5 | 8,1 |
| Erresuma Batua | 4,6 | 4,5 | 3,7 |
| Kanada | 9,7 | 7,5 | 5,3 |
| **Eurogunea** | **7,9** | **7,7** | **6,7** |
| **ELGA, guztira** | **7,2** | **6,2** | **5,0** |

*Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2023ko ekaina)*

### Diru- eta aurrekontu-politika

Pandemiaren garaiko agertokia hobetu egin zen (2023aren hasieran pandemiaren amaiera aitortu zuen OMEk) eta, ondorioz, 2022an nabarmen jaitsi ziren gastu-beharrak; hala ere, defizitak jarraitu zuen joera nagusia izaten (kasu batzuetan, oraindik ere, oso altua da defizita). Zehazki, 2022an Estatu Batuek haien BPG nominalaren -% 4,2ko defizita erregistratu zuten (2021ean -% 12,1ekoa). Euroguneak eta ELGAk, berriz, -% 3,6ko defizita erregistratu zuten (aurreko ekitaldian -% 5,3 eta -% 7,5ekoa, hurrenez hurren).

**14. koadroa Administrazio Publikoen finantzaketa-beharrak (finantzaketa-ahalmena (+) edo finantzaketa-beharra (-), BPG nominalaren ehunekoaren arabera)**

*(BPGaren %)*

| Herrialdea | 2020 | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|
| Estatu Batuak | -14,9 | -12,1 | -4,2 |
| Japonia | -9,0 | -6,2 | -5,9 |
| Alemania | -4,3 | -3,7 | -2,6 |
| Frantzia | -9,0 | -6,5 | -4,7 |
| Italia | -9,7 | -9,0 | -8,0 |
| Erresuma Batua | -13,1 | -8,0 | -5,2 |
| Kanada | -10,9 | -4,4 | -0,8 |
| **Eurogunea** | **-7,1** | **-5,3** | **-3,6** |
| **ELGA, guztira** | **-10,2** | **-7,5** | **-3,6** |

*Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2023ko ekaina)*

Moneta-politikari dagokionez, aurrez esan dugun moduan, 2022an zehar pixkanaka igotzen joan ziren Erreserba Federalaren eta Europako Banku Zentralaren erreferentziazko tasak; hala, ekitaldiaren amaieran % 2,5ekoa eta % 4,5ekoa ziren, hurrenez hurren.

**6. grafikoa Interes-tasen aldakuntza**




*Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2023ko ekaina)*

## Europar Batasuna

Europako Batzordearen udaberriko aurreikuspenen arabera, 2022an % 3,5era jaitsi zen Batasunaren hazkunde-erritmoa (2021ean % 5,4ko hazkundea izan zuen, 2020an pandemiaren inpaktuaren ondorioz % 5,6ko jaitsiera erregistratu ostean), ziurgabetasuna eta tentsio geopolitikoak nagusi baitziren nazioarteko testuinguruan. Ildo horretatik,

kontuan izan behar da barne-eskariak eta kanpo-sektoreak aurreko ekitaldian baino hazkunde txikiagoa izan zutela. Barne-eskaria % 3,8 hazi zen, eta aurreko ekitaldian % 4,6. Bestalde, esportazioak % 7,1 eta inportazioak % 7,9 hazi ziren, eta 2021ean, berriz, % 10,5 eta % 9,1, hurrenez hurren.

Barne-eskariari dagokionez, kontsumo pribatua indartsu mantendu zen, eta % 4ko hazkundea izan zuen 2021ean zein 2022an. Aldiz, kontsumo publikoaren hazkundea % 1,1era jaitsi zen (aurreko ekitaldian % 4,2) eta inbertsioaren hazkunde-erritmoa apur bat igo zen, % 4ra (2021ean % 3,8).

**15. koadroa        Adierazle nagusiak (EB)**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*

| Kontzeptua | 2020 | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|
| **Jarduera** | | | |
| – Kontsumo pribatua | -7,1 | 4,0 | 4,0 |
| – Kontsumo publikoa | 1,0 | 4,2 | 1,1 |
| – Kapital Finkoaren Eraketa Gordina | -5,4 | 3,8 | 4,0 |
| – Barne-eskaria | -5,3 | 4,6 | 3,8 |
| – Esportazioak | -8,4 | 10,5 | 7,1 |
| – Inportazioak | -7,9 | 9,1 | 7,9 |
| – BPG | -5,6 | 5,4 | 3,5 |
| **Prezioak eta soldatak** | | | |
| – BPGaren deflatorea | 2,0 | 2,4 | 5,4 |
| – Kontsumo pribatuaren deflatorea | 0,8 | 2,5 | 7,6 |
| – Banakako lan-kostu errealak | 2,3 | -2,3 | -1,8 |

*Iturria: European Economy. Europako Batzordea (2023ko udaberria).*

Batasuneko kideei dagokienez, 2022an Estoniaren BPGak bakarrik egin zuen behera (-% 1,3). Batasuneko gainerako kideen BPGak gora egin zuen, neurri handiagoan edo txikiagoan. Irlandak izan zuen hazkunderik handiena (% 12) eta Luxenburgok txikiena (% 1,5). Alemaniako ekonomiaren kasuan, hau da, Batasuneko traktore ekonomiko nagusiaren kasuan, % 1,8ra murriztu zen ekonomiaren hazkundea (2021ean % 2,6koa izan zen). Eragin handia izan zuen Errusiako gasarekiko duen mendekotasunak.



LABORAL kutxa

**16. koadroa Barne Produktu Gordinaren (BPG) hazkundea (Europar Batasuna)**

*(Urte arteko aldakuntzaren %)*

| Herrialdea | 2020 | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|
| Irlanda | 6,2 | 13,6 | 12,0 |
| Malta | -8,6 | 11,8 | 6,9 |
| Portugal | -8,3 | 5,5 | 6,7 |
| Kroazia | -8,5 | 13,1 | 6,2 |
| Grezia | -9,0 | 8,4 | 5,9 |
| Zipre | -4,4 | 6,6 | 5,6 |
| Espainia | -11,3 | 5,5 | 5,5 |
| Eslovenia | -4,3 | 8,2 | 5,4 |
| Polonia | -2,0 | 6,9 | 5,1 |
| Austria | -6,5 | 4,6 | 5,0 |
| Errumania | -3,7 | 5,8 | 4,7 |
| Hungaria | -4,5 | 7,2 | 4,6 |
| Herbehereak | -3,9 | 4,9 | 4,5 |
| Danimarka | -2,0 | 4,9 | 3,8 |
| Italia | -9,0 | 7,0 | 3,7 |
| **EB** | **-5,6** | **5,4** | **3,5** |
| Bulgaria | -4,0 | 7,6 | 3,4 |
| Belgika | -5,4 | 6,3 | 3,2 |
| Letonia | -2,3 | 4,3 | 2,8 |
| Frantzia | -7,8 | 6,8 | 2,6 |
| Suedia | -2,2 | 5,4 | 2,6 |
| Txekiar Errepublika | -5,5 | 3,6 | 2,5 |
| Finlandia | -2,4 | 3,0 | 2,1 |
| Lituania | 0,0 | 6,0 | 1,9 |
| Alemania | -3,7 | 2,6 | 1,8 |
| Eslovakia | -3,3 | 4,9 | 1,7 |
| Luxenburgo | -0,8 | 5,1 | 1,5 |
| Estonia | -0,6 | 8,0 | -1,3 |

*Iturria: European Economy. Europako Batzordea (2023ko udaberria).*

Per capita BPGari dagokionez, erosketa-ahalmenaren parekotasuna kontuan hartuta, 2022an oraindik ere ezberdintasun handiak zeuden Batasuneko herrialdeen artean. Hala, Luxenburgok zuen mailarik altuena (261; EB-27 osoari dagokion indizea 100 da), eta Bulgariak txikiena (59); hala, bata bestea baino lau aldiz handiagoa zen. Herrialde hauek gainditu zuten Batasuneko batezbestekoa (neurri ezberdinetan): Irlanda (234), Danimarka (136), Herbehereak (130), Austria (125), Belgika (121), Suedia (119), Alemania (117), Finlandia (109), Malta (102) eta Frantzia (101). Gainerako herrialdeak batezbestekotik behera geratu ziren. Horrekin lotuta, aipatzekoa da EBn bata bestearen segidan kide berriak sartzearen ondorioz nabarmen jaitsi zela Batasuneko batez besteko per capita BPGa.

**17. koadroa Europar Batasuneko *per capita* BPGa(PPS) 2022**

| Herrialdea | EB-27=100 |
|---|---|
| Luxenburgo | 261 |
| Irlanda | 234 |
| Danimarka | 136 |
| Herbehereak | 130 |
| Austria | 125 |
| Belgika | 121 |
| Suedia | 119 |
| Alemania | 117 |
| Finlandia | 109 |
| Malta | 102 |
| Frantzia | 101 |
| **EB-27 guztira** | **100** |
| Italia | 96 |
| Zipre | 92 |
| Eslovenia | 92 |
| Txekiar Errepublika | 91 |
| Lituania | 90 |
| Estonia | 87 |
| Espainia | 85 |
| Polonia | 79 |
| Hungaria | 77 |
| Portugal | 77 |
| Errumania | 77 |
| Letonia | 74 |
| Kroazia | 73 |
| Grezia | 68 |
| Eslovakia | 67 |
| Bulgaria | 59 |

*Iturria: Eurostat (2023ko maiatza).*

## Aurreikuspenak

Errusiak Ukrainari eraso egin zion 2022ko otsailean eta horrek gerra-gatazka eragin zuen, oraindik ere irekita dagoena. Kolpea izan zen mundu mailan, eta ziurgabetasun handia eragin zuen, baita presio inflazionista handiak ere. Hasieran energiaren prezioei eragin zien inflazioak, baina ekonomia osora zabaldu zen gero. Ondorioz, banku zentral nagusiek interes-tasak igo zituzten. Gainera, 2023aren hasieran bazirudien munduko ekonomia gai izango zela inflazioa kontrolatzeko eta sendo hazteko, hartutako neurriei esker; baina prezioen azpian dauden presioek eta orain dela gutxiko nahaste finantzarioek agertoki konplexua utzi dute ekitaldi honetarako eta, ziur asko, 2024rako ere bai.



LABORAL kutxa

Ildo horretatik, nazioarteko erakunde nagusien aurreikuspen ekonomikoen arabera, hazkunde-erritmoa apaldu egingo da, argi eta garbi. NDFk 2023ko apirilean aurreikusi zuenez, munduko ekonomia % 2,8 haziko da martxan den ekitaldian, eta 2024ean % 3ra igo liteke hazkundea.

ELGAk ekainean egindako aurreikuspenen arabera, herrialde industrializatuen hazkundea % 1,4koa izango da 2023an eta 2024ean. Inflazio-tasek altuak izaten jarraituko dute 2023an Estatu Batuetan (% 4,2) eta, bereziki, Eurogunean (% 5,8). 2024rako, ordea, jaistea aurreikusten da (% 2,6 eta % 3,2, hurrenez hurren).

Dena den, kontuan izan behar da egungo egoera oso aldakorra dela eta Ukrainako gerraren bilakaeran gertatzen den edozein aldaketak asko aldatu dezakeela agertoki ekonomikoa.

**18. koadroa Ekonomia-aurreikuspenak (industrializatutako herrialdeak)**

*(%)*

| Kontzeptua | 2023 | 2024 |
|---|---|---|
| – BPG erreala (% Δ) | | |
| Estatu Batuak | 1,6 | 1,0 |
| Japonia | 1,3 | 1,1 |
| Eurogunea | 0,9 | 1,5 |
| ELGA, guztira | 1,4 | 1,4 |
| – Inflazioa (kontsumoaren prezio-indizea) (%Δ) | | |
| Estatu Batuak | 4,2 | 2,6 |
| Japonia | 2,8 | 2,0 |
| Eurogunea | 5,8 | 3,2 |
| – Langabezia-tasa (biztanleria aktiboaren %) | | |
| Estatu Batuak | 3,7 | 4,4 |
| Japonia | 2,5 | 2,4 |
| Eurogunea | 6,7 | 6,6 |
| ELGA, guztira | 5,0 | 5,2 |
| – Defizit publikoa (BPGaren %) | | |
| Estatu Batuak | -5,1 | -5,1 |
| Japonia | -5,3 | -3,5 |
| Eurogunea | -2,9 | -2,2 |
| ELGA, guztira | -3,6 | -3,1 |

*Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2023ko ekaina)*

## 2.2 ESPAINIAKO EKONOMIA

### Ezaugarri nagusiak

2020an jaitsiera historikoa izan zuen Espainiako ekonomiak, pandemiaren inpaktuaren ondorioz (-% 11,3), eta 2021ean % 5,5 hazi zen. 2022an mantendu egin zen hazkunde maila hori (% 5,5eko hazkundea), baina ekitaldiaren amaieran Estatuko Barne Produktu Gordina pandemiaren aurrekoa baino baxuagoa zen oraindik.

Eskariaren ikuspegitik, 2022an Espainiako ekonomiaren hazkundeari ekarpen positiboa egin zioten barne-eskariak zein kanpo-sektoreak. Barne-eskaria ehuneko 3,1 puntutan kokatu zen (aurreko ekitaldian ehuneko 5,2 puntu positibo), eta kanpo-sektorea ehuneko 2,4 puntu positibotan (2021ean ehuneko 3 hamarren positibo).

Lan-merkatuari dagokionez, lehen sektorean izan ezik, gainerako sektore handietan enpleguak gora egin zuen 2022an, eta, ondorioz, biztanleria okupatuaren kopurua % 3,1 hazi zen (aurreko ekitaldian, % 3). Bestetik, langabetuen kopurua -% 11,8 murriztu zen; hala, 3.024.600 pertsona langabetu zenbatu ziren 2022an, hau da, langabezia-tasa % 12,9koa izan zen (2021ean % 14,8koa).

Prezioei dagokienez, 2022aren itxieran (abendutik abendura), KPIaren urte batetik besterako aldakuntza % 5,7koa izan zen (aurreko ekitaldiaren itxieran, % 6,5ekoa zen). Urteko batezbestekoa, berriz, % 8,4ra igo zen (2021eko batezbestekoa % 3,1ekoa izan zen).

Azkenik, aurrekontuen gauzatzeari dagokionez, Administrazio Publikoek BPGaren -% 4,73ko defizita izan zuten 2022an (finantza-erakundeei emandako laguntza kontuan hartu gabe), aurreko ekitaldiko emaitza baino ehuneko bi puntu baxuagoa (2021ean -% 6,77ko defizita izan zen).

### Agregatu makroekonomiko nagusiak

2022ko ondoz ondoko hiruhilekoetan zehar, Espainiako ekonomiaren hazkunde-erritmoa apaltzen joan zen. Estatuko BPGaren urte arteko aldakuntza % 6,3koa izan zen lehen hiruhilekoan, % 7,7koa bigarrenean, % 4,9koa hirugarrenean eta % 3,1ekoa laugarrenean.

Aurreko txostenei jarraipena emanez, jarraian ikuspegi hauen arabera aztertuko dugu jardueraren bilakaera: eskaria (norakoa), eskaintza (jarduera) eta errenta (banaketa).

- 2022an, Estatuko guztizko BPGa 1.327.108 milioi eurokoa[1] izan zen. Azkeneko kontsumoari dagozkio 1.029.316 milioi (742.766 etxebizitzena, 14.096 etxebizitzen

[1] Prezio korronteak.

zerbitzura dauden irabazi-asmorik gabeko gizarte-erakundeena eta 272.454 administrazio publikoena), inbertsioari 266.351 (137.219 eraikuntzan, 79.755 ekipo-ondasunetan, 4.019 landatutako baliabide biologikoetan eta 45.358 jabetza intelektualaren produktuetan) eta izakinen aldakuntzari 12.736. Hala, barne-eskaria 1.308.403 milioi eurokoa izan zen. Esportazioak (551.431 milioi euro) eta inportazioak (532.726 milioi euro) ere kontuan izanda, haien arteko aldea kanpo-eskaria izanik, guztizko eskaria kalkulatzen da.

- Barne-eskariak hazkunde orokorrari egindako ehuneko 3,1 puntuko ekarpen positiboari, kanpo-eskariak egindako ehuneko 2,4 puntuko ekarpen positiboa gehitu behar zaio. Barne-eskariari dagokionez, kontsumo pribatuaren hazkundea apaldu egin zen (2022an % 4,5eko hazkundea eta 2021ean % 6koa), kontsumo publikoa murriztu egin zen (-% 0,7, eta aurreko ekitaldian % 2,9) eta inbertsioaren hazkundea % 4,6ra igo zen (2021ean % 0,9koa izan zen).
- Sektorearen araberako banaketari erreparatuta, 31.961 milioi euro zegozkion lehen sektoreari, 212.364 milioi euro industriari, 63.162 milioi euro eraikuntzari eta 899.048 milioi euro hirugarren sektoreari. Zifra horiei zerga garbiak (120.573 milioi euro) gehituta, guztizko ekoizpena kalkulatzen da.
- Lehen sektoreak -% 1,1eko beherakada izan zuen 2022an (2021ean % 2,1eko hazkundea), baina gainerako hiru sektore handiak hazi egin ziren. Industria aurreko ekitaldian baino gutxiago hazi zen (% 3, eta aurreko ekitaldian % 6,6), eraikuntzak gora egin zuen (% 4,1, eta 2021ean -% 3) eta zerbitzuak aurreko urtean baino gehiago hazi ziren (% 6,5, eta aurreko ekitaldian % 6).

**19. koadroa Barne-produktu gordina eta haren osagaiak (Eskaria eta Eskaintza)**

*(urte arteko tasaren %, bolumen kateatua)*

| | Eragiketak | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|
| ESKARIA | Azken kontsumoaren gastua | 5,1 | 3,0 |
| | – Etxebizitzena | 6,0 | 4,5 |
| | – EZIAGGE-ena | 2,5 | -0,3 |
| | – Administrazio publikoena | 2,9 | -0,7 |
| | Kapital finkoaren eraketa gordina | 0,9 | 4,6 |
| | – Eraikuntza | -3,7 | 4,7 |
| | – Ekipo-ondasunak eta armamentu-sistemak | 6,3 | 4,0 |
| | Izakinen aldakuntza* | 1,0 | -0,2 |
| | Barne-eskaria* | 5,2 | 3,1 |
| | Ondasunen eta zerbitzuen esportazioa | 14,4 | 14,4 |
| | Ondasunen eta zerbitzuen inportazioa | 13,9 | 7,9 |
| **Barne-produktu gordina, merkatu-prezioan** | | **5,5** | **5,5** |
| ESKAINTZA | Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza | 2,1 | -1,1 |
| | Industria | 6,6 | 3,0 |
| | Eraikuntza | -3,0 | 4,1 |
| | Zerbitzuak | 6,0 | 6,5 |
| | Produktuen gaineko zerga garbiak | 6,7 | 4,6 |

*(*): Merkatuko prezioen BPGaren hazkundeari egindako ekarpena.*
*Iturria: EIN.*

Errentaren ikuspegitik, 2022an guztizko BPGaren % 46,9 hartu zuen soldatapekoen ordainketak, % 43,2 ustiapenaren soberakin gordinak eta, gainerako % 9,9a, ekoizpenaren eta inportazioaren gaineko zerga garbiek.

**20. koadroa Barne Produktu Gordinaren banaketa (Errenta)**

*(% Δ nominala)*

| Eragiketak | 2020 | 2021 | 2022 | 2022 (M eurotan) |
|---|---|---|---|---|
| Soldatapekoen ordainketa (1) | -4,1 | 5,3 | 6,5 | 622.703 |
| Ustiapenaren soberakin gordina(2) | -14,5 | 7,8 | 15,4 | 572.840 |
| Ekoizpenaren eta inportazioaren gaineko zerga garbiak(3) | -20,1 | 23,2 | 4,7 | 131.565 |
| Barne-produktu gordina, merkatu-prezioan(4) | -10,2 | 7,9 | 10,0 | 1.327.108 |

*(4) =(1)+(2)+(3).*
*Iturria: EIN.*

## Kanpo-merkataritza

Ziurgabetasunak markatutako nazioarteko testuinguruan, Estatuko esportazioek mantendu egin zuten aurreko ekitaldian eskuratutako indarra (% 14,4ko hazkundea 2021ean eta 2022an). Aldiz, Espainiaren inportazioen hazkunde-erritmoa % 7,9ra jaitsi zen (2021ean % 13,9koa zen).

Hala, esportazioen hazkundea inportazioena baino handiagoa izan zela kontuan izanda, kanpo-eskariak hazkunde orokorrari egindako ekarpena ehuneko 2,4 puntu positibora igo

zen (aurreko ekitaldian ehuneko hiru hamarren positibokoa izan zen). Hiruhilekoaren arabera, kanpo-eskariak hazkunde orokorrari egindako ekarpen positiboa ehuneko 1,7 puntukoa izan zen lehen hiruhilekoan, 3,9koa bigarrenean, 2koa hirugarrenean eta 1,9koa laugarrenean.

### Laneko prezioak eta kostuak

Errusiak Ukraina inbaditu izanak baldintzatu zuen 2022a. Testuinguru horretan, % 45,8 garestitu zen Brent petrolio-upela. Hala, Estatuko prezioen hazkundearen urte arteko tasak ia % 6koak edo handiagoak izan ziren ekitaldiko hilabete guztietan. Zehazki, KPIaren urte batetik besterako aldakuntza % 6,1ekoa izan zen urtarrilean, % 7,6koa otsailean, % 9,8koa martxoan, % 8,3koa apirilean, % 8,7koa maiatzean, % 10,2koa ekainean, % 10,8koa uztailean, % 10,5ekoa abuztuan, % 8,9koa irailean, % 7,3koa urrian, % 6,8koa azaroan eta % 5,7koa abenduan.

Hala, 2022aren amaierako inflazioa (abendutik abendurako urte arteko tasa) % 5,7koa izan zen (2021aren amaieran % 6,5ekoa), baina ekitaldi osoa kontuan hartuz gero, 2022an % 8,4koa izan zen prezioen batez besteko hazkundea (aurreko ekitaldi osoan % 3,1ekoa izan zen). Gainera, nabarmendu beharrekoa da azpiko inflazioa % 5,2ra igo zela urtean zehar (2021ean, batez beste, % 0,8).

ELGAren arabera 2022an Eurogunearen inflazio-tasa (kontsumoko prezio-indizearen aldakuntzaren bidez neurtuta) ere % 8,4koa izan zela kontuan izanda (2021ean % 2,6koa), euroa duten herrialdeen eta Espainiako ekonomiaren arteko aldea desagertu egin da (aurreko ekitaldian, ehuneko bost hamarren positiboko aldea izan zen).

Ondasun taldeen azterketari dagokionez, nazioarteko testuinguruarekin bat etorriz, elikagaiek eta energiarekin lotutako produktuek inflazio handia izan zuten. Hala, etxebizitzaren atzetik (% 15,5), garraioek izan zuten prezioen bigarren igoerarik handiena (% 12,1); jarraian elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak (% 11,6) kokatu ziren, lehengai jakin batzuen prezioaren igoerak tenkatuta. Honakoak kokatu ziren ondoren: hotelak, kafetegiak eta jatetxeak (% 6,4), etxeko tresneria (% 6,3), alkoholdun edariak eta tabakoa (% 3,9), beste batzuen taldea (% 3,5), aisialdia eta kultura (% 2,8), jantziak eta oinetakoak (% 2,7), irakaskuntza (% 1,2) eta osasungintza (% 1,1). Bestetik, komunikazioen prezioek baino ez zuten egin behera (-% 1,3).

**21. koadroa Kontsumoko Prezioen Indizea (KPI) eta Industriako Prezioen Indizea (IPRI)**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*

| Kontzeptua | 2020 | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|
| KPI | | | |
| – Indize Orokorra(1) | -0,5 | 6,5 | 5,7 |
| – Indize Orokorra(2) | -0,3 | 3,1 | 8,4 |
| Elikagaiak | 2,1 | 1,7 | 10,7 |
| Elikagaiak ez direnak | -1,0 | 3,6 | 7,6 |
| Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak | 2,4 | 1,8 | 11,6 |
| Alkoholdun edariak, tabakoa | 0,5 | 0,3 | 3,9 |
| Jantziak eta oinetakoak | 1,0 | 1,0 | 2,7 |
| Etxebizitza | -3,5 | 11,1 | 15,5 |
| Etxeko tresneria | 0,4 | 0,9 | 6,3 |
| Osasuna | 0,4 | 0,7 | 1,1 |
| Garraioak | -3,8 | 7,3 | 12,1 |
| Komunikazioak | -1,2 | -3,0 | -1,3 |
| Aisialdia eta Kultura | -0,6 | 0,2 | 2,8 |
| Irakaskuntza | 0,6 | 0,2 | 1,2 |
| Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak | 1,1 | 0,9 | 6,4 |
| Beste batzuk | 1,4 | 1,0 | 3,5 |
| Azpikoa | 0,7 | 0,8 | 5,2 |
| IPRI | | | |
| – Indize orokorra | -4,3 | 17,3 | 35,5 |
| Kontsumo-ondasunak | 1,1 | 3,3 | 10,8 |
| Ekipo-ondasunak | 0,9 | 2,1 | 5,4 |
| Bitarteko ondasunak | -1,7 | 13,2 | 20,0 |
| Energia | -13,3 | 42,7 | 84,8 |

*(1): Abendutik abendura.*
*(2): Urteko batez besteko aldakuntza.*
*Iturria: EIN.*

Industriako prezioei dagokienez, 2022an % 35,5era igo zen indize orokorraren hazkunde-erritmoa (2021ean % 17,3koa zen). Izan ere, energiaren prezioak asko igo ziren (% 84,8). Era berean, bitarteko ondasunen, kontsumo-ondasunen eta ekipo-ondasunen prezioen hazkunde-erritmoa handitu egin zen (% 20, % 10,8 eta % 5,4ko hazkundeak, eta aurreko ekitaldian % 13,2, % 3,3 eta % 2,1ekoak, hurrenez hurren).

Laneko kostuei dagokienez, produktibitatea % 1,7 igo zen 2022an (KPIaren % 5,5eko igoerak eta lanaldi osoko lanpostu kopuruaren % 3,8ko igoerak eraginda), eta soldatapeko bakoitzeko ordainketa % 2,2 hazi zen. Ondorioz, lan-kostu unitarioa % 0,5 baino ez zen hazi (2021ean % 0,4).

**22. koadroa** **Errenten eta soldata-kostuen adierazleak**

*(% Δ)*

| Kontzeptua | 2020 | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|
| BPG erreala | -11,3 | 5,5 | 5,5 |
| Enplegua guztira* | -6,8 | 6,6 | 3,8 |
| Produktibitatea | -4,5 | -1,1 | 1,7 |
| Soldatapekoen ordainketa | -4,1 | 5,3 | 6,5 |
| Soldatapeko enplegua* | -6,4 | 6,0 | 4,3 |
| Soldatapeko bakoitzeko ordainketa | 2,3 | -0,7 | 2,2 |
| Lan-kostu unitarioa | 6,8 | 0,4 | 0,5 |

*(*): Kontabilitate Nazionaleko enpleguaren datuak erabili dira: Lanaldi osoko lanpostu baliokideak.*

*Iturria: Guk geuk eginiko balioespena, EINen datuetatik abiatuta.*

### Lan-merkatua

Estatuko KPIak izandako hazkundearekin bat etorriz (% 5,5eko hazkundea), 2022an gora egin zuen okupazioak eta behera langabeziak. Hala, langabezia-tasa murriztu egin zen.

Zehazki, Estatistikako Institutu Nazionalaren (EIN) Biztanleria Aktiboa Inkestaren (BAI) arabera, biztanleria okupatuak % 3,1 egin zuen gora 2022an (2021ean % 3). Biztanleria aktiboaren guztizkoak, berriz, % 0,9 egin zuen gora (aurreko ekitaldian % 2,1).

Gauzak hala, jarduera-tasa oso gutxi igo zen 2021etik 2022ra, % 58,5etik % 58,7ra. Gizonezkoen zein emakumezkoen tasek egin zuten gora, apur bat (% 63,6tik % 63,7ra eta % 53,7tik % 53,8ra, hurrenez hurren).

Sektorearen arabera, 2022an % 3,1 hazi zen okupazioa, 20.390.600 langilera iritsi arte. Sektore guztiek egin zuten gora, lehen sektoreak izan ezik (-% 3,5). Zerbitzuen sektoreko langile kopuruak % 3,6 egin zuen gora, industriakoak % 2,6 eta eraikuntzakoak %2,3.

Horrekin lotuta, kontuan izan behar da, termino absolutuei dagokienez, zerbitzuek izan zutela sektoreko enpleguaren hazkunderik handiena, alde handiarekin (2021ean baino 544.100 pertsona okupatu gehiago). Hala, 2022an sortutako enpleguaren ia % 90 zerbitzuen sektoreari zegokion.

**23. koadroa Lan-magnitude nagusien bilakaera. Urteko batezbestekoak**

*(mila pertsona eta %)*

| Kontzeptua | 2022 | % Δ 2020 | % Δ 2021 | % Δ 2022 |
|---|---|---|---|---|
| Biztanleria aktiboa | 23.415,2 | -1,3 | 2,1 | 0,9 |
| Biztanleria okupatua | 20.390,6 | -2,9 | 3,0 | 3,1 |
| – Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza | 774,8 | -4,0 | 4,9 | -3,5 |
| – Industria | 2.771,3 | -2,3 | 0,1 | 2,6 |
| – Eraikuntza | 1.321,0 | -2,6 | 3,8 | 2,3 |
| – Zerbitzuak | 15.523,4 | -3,0 | 3,3 | 3,6 |
| Biztanleria langabetua | 3.024,6 | 8,7 | -2,9 | -11,8 |
| Langabezia-tasa* | 12,9 | 10,1 | -4,8 | -12,6 |

*(*): Biztanleria aktiboaren %.*

*Iturria: EIN (Biztanleria Aktiboaren Inkestako biztanleria-oinarria, 2011. 2023ko martxoko datuak.*

Biztanleria okupatuaren esparruan, soldatapeko langileak % 3,8 ugaritu ziren, eta soldatapekoak ez zirenak, aldiz, -% 0,3 murriztu ziren. Kontratu motaren arabera, 2022an nabarmen hazi zen kontratu mugagabea zuten soldatapeko pertsonen kopurua (% 9,2). Aldiz, aldi baterako kontratua zuten pertsonen kopurua asko jaitsi zen (-% 12,6). Hori guztiz lotuta dago lanean egonkortasun handiagoa bilatzen duen lan-merkatuaren erreformarekin. Halaber, lanaldi motaren arabera, askoz ere hazkunde handiagoa izan zuen lanaldi osoak (% 3,5) lanaldi partzialak baino (% 0,6). Bilakaera hori ere lotuta dago aipatutako erreformarekin.

Biztanleria langabetua -% 11,8 murriztu zen 2022an, eta 3.024.600 langabetu zenbatu zituzten. Hala, langabezia-tasa % 12,9ra jaitsi zen 2022an (2021ean % 14,8koa zen), baina Europakoa baino altuagoa izaten jarraitzen du.

**24. koadroa Enplegua, lan-egoeraren eta kontratu motaren arabera Urteko batezbestekoak**

*(mila pertsona eta %)*

| Kontzeptua | 2022 | % ∆ 2020 | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|---|
| Biztanleria okupatua | 20.390,6 | -2,9 | 3,0 | 3,1 |
| Soldatapekoak | 17.251,8 | -3,4 | 3,2 | 3,8 |
| – Sektore pribatua | 13.763,2 | -4,7 | 2,8 | 4,5 |
| – Sektore publikoa | 3.488,6 | 2,3 | 4,6 | 1,1 |
| Soldatapekoak ez direnak* | 3.138,8 | -0,5 | 1,8 | -0,3 |
| – Enplegu-emaileak | 986,1 | -7,0 | 6,4 | 4,4 |
| – Autonomoak | 2.036,4 | 2,9 | -1,1 | -2,2 |
| – Kooperatibistak | 27,1 | -12,5 | 18,4 | 2,7 |
| – Familia-laguntza | 76,2 | -6,8 | 14,2 | -5,0 |
| Soldatapekoak, kontratu mugagabea | 13.606,0 | -0,5 | 1,8 | 9,2 |
| Soldatapekoak, aldi baterako kontratua | 3.645,8 | -11,4 | 7,6 | -12,6 |
| Lanaldi osoko okupazioa | 17.632,8 | -2,2 | 3,2 | 3,5 |
| Lanaldi partzialeko okupazioa | 2.757,8 | -6,9 | 1,6 | 0,6 |

*(*): Batura ez dator bat guztizkoarekin, bertan sailkatu ezin direnak ere sartu baitira.*

*Iturria: EIN (Biztanleria Aktiboaren Inkestako biztanleria-oinarria, 2011. 2023ko martxoko datuak).*

## Sektore publikoa eta interes-tasak

2023ko martxoaren amaieran Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioak emandako informazioaren arabera, 2022an BPGaren -% 4,73 adinako defizita erregistratu zuten administrazio publikoek (finantza-erakundeei emandako laguntzak kontuan hartu gabe). Hala, ehuneko bi puntu baino gehiago hobetu zen aurreko ekitaldian erregistratutako saldo negatiboa: -% 6,77ko defizita 2021ean; izan ere, pandemiaren egoera hobetu zenez, gastu publikoaren beharra txikiagoa zen.

Erakundeak kontuan hartuta, 2022an denek izan zuten saldo defizitarioa haien kontuetan. Administrazio Zentralak izan zuen defizit handiena (-% 3,02) eta, jarraian, Autonomia Erkidegoek (-% 1,14), Gizarte Segurantzak (-% 0,45) eta Tokiko Udalbatzek (-% 0,12). Urte arteko aldakuntzari dagokionez, Administrazio Zentralaren eta Gizarte Segurantzaren saldo defizitarioa murriztu egin zen. Aldiz, Autonomia Erkidegoena eta Tokiko Udalbatzena handitu egin zen.

**25. koadroa Defizit publikoa**

*(BPGaren %)*

| Kontzeptua | 2021 | 2022 |
|---|---|---|
| Administrazio zentrala | -6,01 | -3,02 |
| Autonomia-erkidegoak | -0,05 | -1,14 |
| Tokiko udalbatzak | 0,29 | -0,12 |
| Gizarte Segurantza | -1,00 | -0,45 |
| **Administrazio Publikoak guztira** | **-6,77** | **-4,73** |
| Finantza-erakundeei laguntzea | -0,10 | -0,07 |
| **Finantza-laguntza duten Administrazio Publikoak guztira** | **-6,87** | **-4,81** |

*Iturria: Ogasun Ministerioa (2023ko martxoak 30).*

Azkenik, 2022aren itxieran Europako Banku Zentralaren eta Erreserba Federalaren erreferentziazko tasak % 2,5era eta % 4,5era igo ziren, hurrenez hurren, etengabeko inflazioa gelditzeko gauzatutako igoera ugarien ondoren.

**7. grafikoa Interes-tasa ofizialen bilakaera: Europako Banku Zentrala eta Erreserba Federala**




*Iturria: EBZ, Erreserba Federala*

## Aurreikuspenak

Ukrainako gerra-gatazka denboran zehar mantentzearen eta hark eragindako tentsio geopolitikoen ondorioz, etorkizuneko agertokia ziurgabea izango da. Hala, Ekonomia eta Eraldaketa Digitaleko Ministerioak 2023ko apirilaren amaieran argitaratutako agertoki makroekonomikoaren arabera, Espainiako ekonomiaren hazkunde-erritmoak geldotzen jarraituko du 2023an, eta baliteke 2024an gora egitea.

Zehazki, 2023an BPGa % 2,1 haziko dela, lanaldi osoko lanpostu kopurua % 2,1 haziko dela eta langabezia-tasa oraindik ere % 12tik gora mantenduko dela aurreikusten da.

**26. koadroa Espainiako ekonomiaren aurreikuspenak (2023)**

| Kontzeptua | Urte batetik besterako aldakuntza-tasa |
|---|---|
| **BPG eta ESKARI-AGREGATUAK** | |
| Nazio mailako azken kontsumo pribatuaren gastua | 2,1 |
| Administrazio publikoen azken kontsumoko gastua. | 1,9 |
| Kapital finkoaren eraketa gordina | 0,9 |
| – Barne-eskaria (BPGaren hazkundeari egindako ekarpena) | 1,7 |
| – Ondasunen eta zerbitzuen esportazioa | 1,5 |
| – Ondasunen eta zerbitzuen inportazioa | 0,7 |
| – Kanpo-saldoa (BPGaren hazkundeari egindako ekarpena) | 0,4 |
| – BPG | 2,1 |
| **LAN MERKATUA** | |
| – Enpleguaren aldakuntza %-tan(*) | 2,1 |
| – Langabezia-tasa | 12,2 |

*(*): Lanaldi osoko enplegua edo baliokidea*

*Iturria: Ekonomia eta Eraldaketa Digitaleko Ministerioa (2023ko apirilak 28)*

# 3. IKUSPEGI OROKORRA

Nazioartean, ziurgabetasuna eta desazelerazio ekonomikoa gailentzen ziren. Testuinguru horretan, 2022an % 4,4ra jaitsi zen EAEko BPGaren hazkunde-erritmoa (aurreko ekitaldian % 5,9ko hazkundea izan zuen, 2020an pandemiaren inpaktuaren ondorioz erregistratutako -% 9,6ko beherakada handiaren ondoren).

**27. koadroa Bilakaera orokorra**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*

| Kontzeptua | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|---|---|
| **EAE** | | | | | |
| – BPG | 3,1 | 2,2 | -9,6 | 5,9 | 4,4 |
| – Enplegua | 2,1 | 1,4 | -2,0 | 1,1 | 2,3 |
| – Langabezia-tasa(1) | 10,0 | 9,2 | 9,5 | 9,8 | 8,6 |
| – KPI(2) | 1,0 | 1,2 | -0,3 | 6,4 | 5,4 |
| **NAFARROA** | | | | | |
| – BPG | 2,9 | 2,7 | -8,3 | 5,9 | 4,3 |
| – Enplegua | 1,2 | 2,4 | -3,6 | 1,9 | 2,9 |
| – Langabezia-tasa(1) | 10,0 | 8,2 | 10,1 | 10,6 | 9,6 |
| – KPI(2) | 1,3 | 1,3 | -0,6 | 6,6 | 6,4 |
| **ESPAINIA** | | | | | |
| – BPG | 2,3 | 2,0 | -11,3 | 5,5 | 5,5 |
| – Enplegua | 2,7 | 2,3 | -2,9 | 3,0 | 3,1 |
| – Langabezia-tasa(1) | 15,3 | 14,1 | 15,5 | 14,8 | 12,9 |
| – KPI(2) | 1,2 | 0,8 | -0,5 | 6,5 | 5,7 |

*(1): Biztanleria aktiboaren %.*
*(2): Aldakuntza abendutik abendura.*
*Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua, EIN (BAI, Biztanleria Oinarria, 2011).*

Hala, aintzat hartuta EAEko hazkundea askoz ere handiagoa izan zela Eurogunekoa baino (% 3,5eko hazkundea, ELGAren arabera), 2022an aurrera jarraitu zuen Europako ekonomia nagusiekin bat etortzeko prozesuak.

Bestetik, FUNCAS Aurrezki Kutxen Fundazioak 2023ko martxoan egindako aurreikuspenen arabera, 2022an % 3tik gorako hazkundea izan zuten Espainiako autonomia-erkidego guztiek, modu orokortuan. Balear Uharteek eta Kanariek izan zuten hazkunderik handiena (% 12koa eta % 10ekoa, hurrenez hurren), bereziki, pandemiaren ostean turismoa berreskuratzeak bultzatuta. Jarraian, honako hauek kokatu ziren Estatuko batezbestekotik gora: Madrilgo Erkidegoa, Nafarroako Foru Erkidegoa, EAE eta Valentziako Erkidegoa (% 5,7ko hazkundea lehenengo hiru kasuetan eta % 5,5ekoa azken kasuan). Bestetik, Extremadurak (% 4), Kantabriak (% 3,9) eta Gaztela eta Leonek (% 3,1) izan zituzten hazkunderik txikienak.



LABORAL kutxa

Lan-merkatuari dagokionez, EINen Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera, 2022an % 2,5 igo zen okupazio-tasa Euskal Herrian (% 2,3 EAEn eta % 2,9 Nafarroan). Estatuan handiagoa izan zen hazkundea (% 3,1).

Gauzak hala, langabezia-tasak behera egin zuen oro har: Euskal Herriko langabezia-tasa % 10ekoa zen 2021ean eta % 8,8ra jaitsi zen 2022an (% 9,8tik % 8,6ra EAEn eta % 10,6tik % 9,6ra Foru Erkidegoan). Estatu mailan, berriz, 2021ean % 14,8koa izatetik 2022an % 12,9koa izatera igaro zen.

**8. grafikoa BPGaren bilakaera**




*Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua, EIN.*

Prezioei dagokienez, goranzko joera argia zuten 2021aren amaieratik, eta Errusiak Ukraina inbaditu izanak eta horrek eragindako tentsio geopolitikoek azkartu egin zuten prezioen gorakada. Dena den, 2022aren amaieran apur bat mantsotu zen prezioen igoera, helburu horretarako hartutako neurriei esker. Hala, 2022an, inflazio-tasa metatua (abendutik abendura) % 5,4koa izan zen EAEn, % 6,4koa Nafarroan eta % 5,7koa Estatuan (2021aren itxieran % 6,4, % 6,6 eta % 6,5ekoa, hurrenez hurren).

Azkenik, aipatzekoa da 2023ko lehen hiruhilekoan EAEko BPGak urte arteko % 2,3ko hazkundea izan zuela. Hala, jarraitu egin zuen 2022ko ondoz ondoko hiruhilekoetan erregistratutako hazkunde-erritmoa apaltzeko joerak. Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak 2023ko ekainean egindako aurreikuspenetan % 1,6ko hazkundea aurreikusi du ekitaldi honetarako, eta hazkunde handiagoa, % 2,1ekoa, 2024rako.

## 3.1 PRODUKZIOA

EAEko BPGak igoera nabarmena izan zuen 2021ean (% 5,9), eta 2022an % 4,4ra jaitsi zen hazkunde-erritmoa. Nafarroan ere behera egin zuen BPGaren hazkunde erritmoak (% 4,3, eta aurreko ekitaldian % 5,9). Espainiako ekonomiak, berriz, mantendu egin zuen hazkundea (% 5,5eko hazkundea 2021ean zein 2022an).

**28. koadroa Barne produktu gordinaren (BPG) bilakaera**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa erreala)*

| Kontzeptua | 2020 | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|
| **EAE (*)** | | | |
| – Nekazaritza | -16,9 | 21,9 | 0,8 |
| – Industria | -12,2 | 6,1 | 4,6 |
| – Eraikuntza | -14,4 | 4,5 | 2,0 |
| – Zerbitzuak | -7,9 | 5,8 | 4,7 |
| – Guztira | -9,6 | 5,9 | 4,4 |
| **NAFARROA(*)** | | | |
| – Nekazaritza | -2,2 | 2,1 | 2,3 |
| – Industria | -9,5 | 6,5 | 3,5 |
| – Eraikuntza | -7,6 | 4,3 | 4,3 |
| – Zerbitzuak | -7,9 | 6,1 | 5,2 |
| – Guztira | -8,3 | 5,9 | 4,3 |
| **ESPAINIA(*)** | | | |
| – Nekazaritza | 4,5 | 2,1 | -1,1 |
| – Industria | -13,1 | 6,6 | 3,0 |
| – Eraikuntza | -13,2 | -3,0 | 4,1 |
| – Zerbitzuak | -11,4 | 6,0 | 6,5 |
| – Guztira | -11,3 | 5,5 | 5,5 |

*(*): Oinarrizko prezioetarako balio erantsi gordina sektoreen kasuan, merkatu-prezioetarako BPGa guztizkoaren kasuan.*

*Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua eta EIN.*

Hiruhilekoen arabera aztertuz gero, EAEko ekonomia hiruhilekoz hiruhileko indarra galtzen joan zela ikus daiteke. Hala, urte arteko aldakuntza-tasa % 5,8koa izan zen lehen hiruhilekoan, % 5ekoa bigarrenean, % 3,8koa hirugarrenean eta % 2,9koa laugarrenean. Halaber, Nafarroako ekonomiaren hazkunde-erritmoak ere behera egin zuen hiruhilekotik hiruhilekora. Urte arteko hazkundeak % 6,5, % 4,5, % 3,2 eta % 3koak izan ziren ondoz ondoko hiruhilekoetan, hurrenez hurren.

Eskaintza kontuan hartuta, oro har, lau sektore nagusiek gora egin zuten 2022an EAEn, Nafarroan eta Estatuan; Estatuko lehen sektorea izan zen salbuespen bakarra.

EAEn 2022an sektore guztien hazkunde-erritmoak behera egin zuen aurreko ekitaldiarekin alderatuta: lehen sektorea % 21,9tik % 0,8ra, industria-sektorea % 6,1etik % 4,6ra, eraikuntza % 4,5etik % 2ra eta zerbitzuen sektorea % 5,8tik % 4,7ra.



LABORAL kutxa

Nafarroan, industria eta hirugarren sektorea ez ziren 2021ean bezainbeste hazi 2022an (% 3,5 eta % 5,2ko hazkundeak 2022an, eta % 6,5 eta % 6,1ekoak 2021ean, hurrenez hurren). Eraikuntzak aurreko ekitaldiko hazkunde-erritmoa mantendu zuen (% 4,3ko hazkundea 2021ean zein 2022an), eta lehen sektorea aurreko urtean baino gehiago hazi zen (2022an % 2,3 eta aurreko urtean % 2,1).

Fokua industria-sektorean jarrita, 2022an Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) hazkundea jaitsi egin zen EAEn zein Nafarroan (2022an % 5,7 eta % 3,7, eta 2021ean % 10,5 eta % 10,4, hurrenez hurren). Bestetik, industria-enplegua jaitsi egin zen bi eremu geografikoetan: -% 3,1 EAEn (Eustaten BJAren arabera, -% 2,5) eta -% 3,4 Foru Erkidegoan. Azken eremu geografiko horretan, klima industriala zifra negatiboetara itzuli zen (2022an -2 eta 2021ean 1). Aldi berean, uneko eskarien bilakaera negatiboa indartu egin zen (-6, eta urtebete lehenago -4), eta aurreikusitako eskarien hazkundea jaitsi egin zen (3, eta 2021ean 10).

**29. koadroa Industria Sektoreko Adierazleak**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*

| Kontzeptua | 2020 | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|
| **EAE** | | | |
| – Industria Produkzioaren Indizea (IPI) (1) | -13,4 | 10,5 | 5,7 |
| – Industria-enplegua(2) | -0,4 | 7,0 | -3,1 |
| – Industria-enplegua(3) | -1,4 | 0,3 | -2,5 |
| **NAFARROA** | | | |
| – Industria Produkzioaren Indizea (IPI) (1) | -10,9 | 10,4 | 3,7 |
| – Industria-giroa(4) | -10 | 1 | -2 |
| – Egungo eskaerak(4) | -22 | -4 | -6 |
| – Aurreikusitako eskaerak(4) | 4 | 10 | 3 |
| – Industria-enplegua(2) | 1,1 | 4,1 | -3,4 |

*(1): Egutegiaren arabera zuzendutako datuak.*
*(2): EIN.*
*(3): BJA (Eustat)*
*(4): Erantzunen saldoak.*
*Iturria: Eustat, EIN eta Nafarroako Estatistika Institutua.*

Eraikuntzari dagokionez, 2022an % 8,3ra igo zen EAEko guztizko ekoizpen-indizearen hazkunde erritmoa (aurreko ekitaldian % 7,8). Izan ere, obra zibilak gora egin zuen (% 19,9) eta, neurri txikiagoan, etxegintzak ere bai (% 6,5). Bestetik, lizitazio ofiziala aurreko urtean baino gutxiago hazi zen (2022an % 35,3ko hazkundea, eta aurreko ekitaldian % 63,1ekoa), hasitako etxebizitzen hazkunde-erritmoak gora egin zuen (2022an % 7,1 eta 2021ean % 6,3) eta amaitutako etxebizitzek behera egin zuten (-% 12,6, eta aurreko ekitaldian % 12,9ko hazkundea). Dena den, sektoreko enplegua % 12,2 hazi zen (Eustaten BJAren arabera, % 8,9ko hazkundea).

Nafarroan ere aurreko ekitaldian baino gutxiago hazi zen lizitazio ofiziala 2022an (% 20,8ko hazkundea 2022an eta % 69,1ekoa 2021ean). Bestalde, eremu honetan behera

egin zuten hasitako etxebizitzek (-% 10) eta amaituek (-% 18,5). Testuinguru horretan, Nafarroako sektoreko enpleguaren hazkunde-erritmoa % 9,8ra jaitsi zen (2021ean % 17,9koa zen).

**30. koadroa Eraikuntza Sektoreko Adierazleak**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*

| Kontzeptua | 2020 | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|
| **EAE** | | | |
| – Ekoizpen-indizea [(1)] | -8,1 | 7,8 | 8,3 |
| – Etxegintza | -8,4 | 8,4 | 6,5 |
| – Obra zibila | -6,1 | 4,3 | 19,9 |
| – Zementuaren itxurazko kontsumoa* | -13,4 | 10,6 | 1,8 |
| – Lizitazio ofiziala[(2)] | -21,0 | 63,1 | 35,3 |
| – Hasitako etxebizitzak[(3)] | -28,3 | 6,3 | 7,1 |
| – Amaitutako etxebizitzak[(3)] | -16,9 | 12,9 | -12,6 |
| – Enplegua[(4)] | -3,2 | -12,1 | 12,2 |
| – Enplegua[(5)] | -2,9 | 5,8 | 8,9 |
| **NAFARROA** | | | |
| – Zementuaren itxurazko kontsumoa* | -13,4 | 10,6 | 1,8 |
| – Lizitazio ofiziala[(2)] | -44,7 | 69,1 | 20,8 |
| – Hasitako etxebizitzak[(3)] | -11,8 | 12,6 | -10,0 |
| – Amaitutako etxebizitzak[(3)] | 14,7 | 22,6 | -18,5 |
| – Enplegua[(4)] | -3,7 | 17,9 | 9,8 |

*(*): Oficemen-eko bazkideen (Ipar Eremua: Aragoi, Nafarroa, EAE eta Errioxa) zementuaren itxurazko kontsumoari egiten dio erreferentzia.*

*(1): Eraikuntzaren koiunturazko indizea (EUSTAT). Oinarria 2010=100*

*(2): SEOPAN.*

*(3): Eustat eta Etxebizitza Ministerioa. (2023ko uztailaren 7ko datuak).*

*(4): EIN.*

*(5): BJA (Eustat)*

*Iturria: Eustat, EIN, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila eta Nafarroako Gobernua.*

Zerbitzuei dagokienez, sektorea heterogeneoa denez, aldeak daude aztertutako azpisektoreetako adierazleen artean. Dena den, 2022an hazkunde apala gailendu zen.

Hala, EAEn, behera egin zuen honako hauen hazkunde erritmoak: hoteletako gaualdiak, txikizkako merkataritzaren salmentak eta portuetako salgaiak (2022an % 54,2, % 2,9 eta % 4,1, eta 2021ean % 73,4, % 3,5 eta % 6,6, hurrenez hurren). Aldiz, aire-trafikoko bidaiarien hazkunde-erritmoa % 98,9ra igo zen (aurreko urtean % 56,4). Testuinguru horretan, sektoreko enplegua % 3 hazi zen 2022an (% 3,1 Eustaten BJAren arabera).



LABORAL kutxa

Halaber, Nafarroan ere aurreko ekitaldian baino gutxiago hazi ziren hoteletako gaualdiak (% 37ko hazkundea 2022an, eta 2021ean % 79,8koa) eta aire-trafikoko bidaiarien hazkundea, berriz, nabarmen hazi zen (% 52,8ko hazkundea 2022an, eta % 33,8koa 2021ean). Hala, Nafarroako sektoreko enplegua % 5,5 hazi zen.

**31. koadroa Zerbitzuen Sektoreko Adierazleak**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*

| Kontzeptua | 2020 | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|
| **EAE** | | | |
| – Hoteletako gaualdiak | -61,5 | 73,4 | 54,2 |
| – Aire-trafikoko bidaiariak | -71,4 | 56,4 | 98,9 |
| – Txikizkako merkataritzaren salmenten indizea | -4,9 | 3,5 | 2,9 |
| – Portuetako salgaiak | -15,8 | 6,6 | 4,1 |
| – Enplegua(1) | -2,1 | 0,5 | 3,0 |
| – Enplegua(2) | -2,3 | 1,3 | 3,1 |
| **NAFARROA** | | | |
| – Hoteletako gaualdiak | -63,1 | 79,8 | 37,0 |
| – Aire-trafikoko bidaiariak | -65,5 | 33,8 | 52,8 |
| – Enplegua(1) | -5,2 | 0,1 | 5,5 |

*(1): EIN.*
*(2): BJA (Eustat)*
*Iturria: AENA, EUSTAT, EIN, Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Estatistika Institutua.*

## 3.2 ESKARIA

**Barne-eskaria**

Desazelerazio ekonomikoak markatutako agertoki honetan (2022an % 4,4ra jaitsi zen EAEko BPGaren hazkunde-erritmoa; aurreko ekitaldian % 5,9koa izan zen), barne-eskariaren hazkundea % 2,7ra jaitsi zen (2021ean % 5,4ko hazkundea).

Osagaiei dagokienez, kontsumo pribatua zein inbertsioa aurreko ekitaldian baino gutxiago hazi ziren: % 3 eta % 4,4, hurrenez hurren. 2021ean, berriz, % 5,6ko eta % 6ko hazkundeak izan zituzten, hurrenez hurren. Aldi berean, kontsumo publikoa -% 0,4 murriztu zen (% 3,9 hazi zen aurreko ekitaldian).

**32. koadroa Barne-eskariaren adierazleak**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*

| Kontzeptua | 2020 | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|
| **EAE** | | | |
| – Kontsumo pribatua | -12,1 | 5,6 | 3,0 |
| – Kontsumo publikoa | 2,9 | 3,9 | -0,4 |
| – Kapital Eraketa Gordina | -12,1 | 6,0 | 4,4 |
| – Barne-eskaria | -9,7 | 5,4 | 2,7 |
| **NAFARROA** | | | |
| – Kontsumo pribatua | -8,9 | 4,9 | 4,0 |
| – Kontsumo publikoa | 5,1 | 2,9 | -0,1 |
| – Kapital Eraketa Gordina | -13,2 | 8,0 | 4,6 |

*Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua.*

Era berean, Nafarroako ekonomiaren hazkunde-erritmoa ere apaldu egin zen 2022an (% 4,3, eta aurreko ekitaldian % 5,9). Barne-eskariak ehuneko 3,2 puntuko ekarpen positiboa egin zion hazkunde globalari (2021ean ehuneko 4,9 puntu positiboko ekarpena). Osagaiei dagokienez, kontsumo pribatuaren eta, bereziki, inbertsioaren hazkunde-erritmoa murriztu egin zen (2022an % 4 eta % 4,6, eta aurreko ekitaldian % 4,9 eta % 8, hurrenez hurren). Kontsumo publikoak, berriz, behera egin zuen apur bat (2022an -% 0,1, eta 2021ean % 2,9ko hazkundea).

**33. koadroa Kontsumo- eta inbertsio-adierazleak**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*

| Kontzeptua | 2020 | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|
| **EAE** | | | |
| – Kontsumo-ondasunen IPIa(1) | -6,6 | 12,0 | 4,5 |
| – Turismoen matrikulazioa | -22,0 | -19,8 | -8,8 |
| – Ibilgailu industrialen matrikulazioa | -22,3 | 7,1 | -13,3 |
| – KPI(2) | -0,3 | 6,4 | 5,4 |
| – Soldata-igoera(3) | 1,55 | 0,88 | 5,36 |
| – Ekipo-ondasunen IPIa(1) | -12,5 | 13,3 | 9,4 |
| **NAFARROA** | | | |
| – Turismoen matrikulazioa | -28,5 | -18,7 | -7,0 |
| – KPI(2) | -0,6 | 6,6 | 6,4 |
| – Soldata-igoera(3) | 1,67 | 1,56 | 4,65 |
| – Ibilgailu industrialen matrikulazioa | -32,1 | 9,1 | -13,0 |

*(1): Egutegiaren arabera zuzendutako datuak.*
*(2): Aldakuntza-tasa abendutik abendura.*
*(3): Hitzarmenetan itundua.*
*Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua, EIN eta Enplegu eta Gizarte Ekonomiako Ministerioa.*

## Kanpo-merkataritza

2022an nabarmen hazi zen ekonomia eta, testuinguru horretan, EAEko kanpo-merkataritzaren hazkunde erritmoa handitu egin zen: % 25 hazi ziren esportazioak eta % 38,2 inportazioak (% 23,2ko eta % 34,1eko hazkundeak aurreko ekitaldian, hurrenez



LABORAL kutxa

hurren). Dena den, osagai bakoitzaren bilakaera ezberdina izan zen: eragiketa energetikoen hazkunde-erritmoa indartu egin zen (esportazio energetikoak % 43,8 hazi ziren 2021ean eta % 104,6 2022an; eta inportazio energetikoen hazkundea % 65,3tik % 84,4ra igo zen, hurrenez hurren); eragiketa ez-energetikoena, berriz, murriztu egin zen (esportazio ez-energetikoek % 22,2ko hazkundea izan zuten 2021ean eta % 20,5ekoa 2022an; eta inportazio ez-energetikoen hazkundea % 27,4tik % 25,3ra jaitsi zen, hurrenez hurren).

Zehazki, guztizko esportazioak 32.538,4 milioi eurora iritsi ziren (2.850,7 milioi euro energia-esportazioei dagozkie); hau da, urte arteko % 25eko igoera izan zuten. Guztizko inportazioak, berriz, 29.411,5 milioi eurora igo ziren (horietatik 8.586 milioi euro energia-inportazioei dagozkie), hau da, urte arteko % 38,2ko hazkundea izan zuten. Horrekin lotuta, gogoratu beharrekoa da 2021erako pandemiaren aurreko maila gainditu zutela esportazioek zein inportazioek.

Dinamika horrekin bat, merkataritza-balantzaren saldo positiboa 3.126,9 milioi eurora murriztu zen 2022an (2021ean 4.739,5 milioi eurokoa zen). Inportazioen gaineko esportazioen estaldura-tasa, berriz, nabarmen murriztu zen (% 110,6, eta aurreko ekitaldian % 122,3).

**34. koadroa Kanpo-merkataritzaren bilakaera Euskal Herrian**

*(M euro)*

| Kontzeptua | 2020 | 2021 | 2022* | % ∆ 22/21 |
|---|---|---|---|---|
| **EAE** | | | | |
| – ESPORTAZIOAK, guztira | 21.124,2 | 26.021,9 | 32.538,4 | 25,0 |
| – Energia-esportazioak, guztira | 968,8 | 1.393,0 | 2.850,7 | 104,6 |
| – Esportazio ez-energetikoak, guztira | 20.155,4 | 24.628,9 | 29.687,7 | 20,5 |
| – INPORTAZIOAK, guztira | 15.868,4 | 21.282,4 | 29.411,5 | 38,2 |
| – Energia-inportazioak, guztira | 2.817,1 | 4.656,8 | 8.586,0 | 84,4 |
| – Inportazio ez-energetikoak, guztira | 13.051,3 | 16.625,6 | 20.825,5 | 25,3 |
| – SALDOA, GUZTIRA | 5.255,8 | 4.739,5 | 3.126,9 | -34,0 |
| **NAFARROA** | | | | |
| – ESPORTAZIOAK, guztira | 8.917,7 | 9.620,8 | 10.700,7 | 11,2 |
| – INPORTAZIOAK, guztira | 4.646,4 | 5.742,1 | 7.281,4 | 26,8 |
| – SALDOA, GUZTIRA | 4.271,3 | 3.878,6 | 3.419,3 | -11,8 |

*(*): Behin-behineko datuak.*
*Iturria: Eustat (Aduana eta Zerga Berezien Sailaren datuen arabera), eta Nafarroako Estatistika Institutua.*

Merkataritza bloke handiei dagokienez, Euroguneak jarraitu zuen EAEko kanpo-sektorearen merkataritza-bazkide nagusia izaten. Eurogunera egin ziren esportazioen % 56,3, eta handik egin ziren inportazioen % 40. Zentzu horretan, nabarmentzekoa da Alemaniara eta Frantziara egin zirela kanpo-salmenten guztizkoaren % 30,6, eta handik erosi zela kanpotik egindako erosketen guztizkoaren % 21,2.

2022an salerositako produktuei dagokienez, esportazioen % 41,4 makineria eta garraio-ekipamendua izan zen, eta % 32,7 manufaktura-artikuluak. Inportazioei dagokienez ere nabarmendu zen makineria eta garraio-ekipamendua (guztizkoaren % 21,2). Dena den, kasu honetan, aurretik kokatu ziren erregai eta lubrikatzaile mineralak (% 29,2) eta manufaktura-artikuluak (% 22,3).

**35. koadroa EAEko esportazioak eta inportazioak, herrialdeen eta sekzioen arabera**

*(M euro)*

| Kontzeptua | ESPORTAZIOAK | | | | | INPORTAZIOAK | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2020 | 2021 | 2022* | % | % ∆ 22/21 | 2020 | 2021 | 2022* | % | % ∆ 22/21 |
| **GUZTIRA (guztizkoak)** | **21.124,2** | **26.021,9** | **32.538,4** | **100,0** | **25,0** | **15.868,4** | **21.282,4** | **29.411,5** | **100,0** | **38,2** |
| HERRIALDEEN ARABERA (guztizkoak) | | | | | | | | | | |
| – Frantzia | 3.362,4 | 4.168,7 | 4.957,8 | 15,2 | 18,9 | 1.602,0 | 2.057,5 | 2.465,8 | 8,4 | 19,8 |
| – Alemania | 3.660,7 | 4.131,8 | 5.000,4 | 15,4 | 21,0 | 2.669,2 | 3.131,7 | 3.770,1 | 12,8 | 20,4 |
| – Italia | 1.104,0 | 1.377,2 | 1.753,4 | 5,4 | 27,3 | 858,9 | 1.148,3 | 1.325,5 | 4,5 | 15,4 |
| – Erresuma Batua | 1.355,8 | 1.701,7 | 1.983,5 | 6,1 | 16,6 | 513,8 | 680,6 | 965,6 | 3,3 | 41,9 |
| – Eurogunea | 11.627,1 | 14.669,8 | 18.329,0 | 56,3 | 24,9 | 7.698,7 | 9.723,5 | 11.775,7 | 40,0 | 21,1 |
| – ELGA | 17.832,8 | 22.094,0 | 27.538,2 | 84,6 | 24,6 | 11.343,5 | 14.376,5 | 18.835,6 | 64,0 | 31,0 |
| – Beste helmuga batzuk | 3.291,4 | 3.927,9 | 5.000,2 | 15,4 | 27,3 | 4.524,9 | 6.905,9 | 10.575,9 | 36,0 | 53,1 |
| SEKZIOEN ARABERA (guztizkoak) | | | | | | | | | | |
| – Elikagaiak eta animalia biziak | 724,7 | 962,2 | 1.309,6 | 4,0 | 36,1 | 834,1 | 1.000,2 | 1.302,1 | 4,4 | 30,2 |
| – Edariak eta tabakoak | 249,3 | 270,4 | 279,2 | 0,9 | 3,3 | 23,4 | 49,4 | 39,6 | 0,1 | -19,8 |
| – Jateko ez diren erregai gordinak, erregaiak salbu | 276,4 | 385,7 | 448,3 | 1,4 | 16,2 | 1.248,7 | 2.005,5 | 2.337,8 | 7,9 | 16,6 |
| – Erregaiak eta lubrifikatzaile mineralak eta horiei lotutako produktuak | 968,8 | 1.393,0 | 2.850,7 | 8,8 | 104,6 | 2.817,1 | 4.656,8 | 8.586,0 | 29,2 | 84,4 |
| – Olioak, koipeak eta argizariak (animalienak eta landareenak) | 158,7 | 258,0 | 406,4 | 1,2 | 57,5 | 185,0 | 271,2 | 456,2 | 1,6 | 68,2 |
| – Produktu kimikoak eta haiei lotutako produktuak, beste inon zehaztu gabeak | 815,4 | 1.143,6 | 1.444,5 | 4,4 | 26,3 | 1.404,2 | 1.750,1 | 2.393,4 | 8,1 | 36,8 |
| – Artikulu manufakturatuak, batez ere materialaren arabera sailkatuak | 6.558,1 | 8.529,6 | 10.646,9 | 32,7 | 24,8 | 3.817,2 | 5.081,0 | 6.552,8 | 22,3 | 29,0 |
| – Makineria eta garraio-ekipamendua | 10.435,7 | 11.862,4 | 13.475,5 | 41,4 | 13,6 | 4.471,7 | 5.213,1 | 6.237,6 | 21,2 | 19,7 |
| – Hainbat artikulu manufakturatu | 742,6 | 942,0 | 1.098,8 | 3,4 | 16,6 | 1.026,2 | 1.238,4 | 1.426,0 | 4,8 | 15,1 |
| – NMSUren beste kontzeptu batean sailkatu gabeko salgaiak eta elikagaiak | 194,6 | 275,0 | 578,5 | 1,8 | 110,4 | 40,8 | 16,8 | 80,0 | 0,3 | 376,2 |

*(*): Behin-behineko datuak.*
*Iturria: Eustat (Aduana eta Zerga Berezien Sailaren datuen arabera).*

Nafarroako kanpo-merkataritzaren kasuan ere, 2022ko joera nagusia hazkundearen igoera izan zen. Hala, kanpora egindako salmentak zein kanpotik egindako erosketak aurreko urtean baino gehiago hazi ziren (% 11,2ko eta % 26,8ko hazkundeak 2022an, eta % 7,9ko eta % 23,6ko hazkundeak aurreko ekitaldian, hurrenez hurren). Zehazki, 2022an Nafarroako esportazioak 10.700,7 milioi eurora iritsi ziren, hau da, % 11,2 hazi ziren aurreko ekitalditik. Nafarroako inportazioak, berriz, 7.281,4 milioi eurora igo ziren, hau da, urte arteko % 26,8ko igoera izan zuten. Hala, kanpotik egindako erosketek pandemiaren aurreko bolumena (2019koa) gainditu zuten, eta kanpora egindako salmentek baxuagoak izaten jarraitu zuten.

Bilakaera horrekin bat, Nafarroako merkataritza-balantzaren saldo positiboa 3.419,3 milioi eurora murriztu zen 2022an (2021ean 3.878,6 milioi eurokoa zen). Inportazioen gaineko esportazioen estaldura-tasa, berriz, % 147ra jaitsi zen (% 167,5ekoa zen aurreko ekitaldian). EAEren kasuan bezala, Nafarroarentzat ere Europa (EB-27) izan zen kanpo-merkataritzaren jatorri eta helmuga nagusia. 2022an, Europara egin zituzten esportazioen % 70,7, eta handik inportatu zuten guztizkoaren % 72,2.

Zentzu horretan, Frantziara eta Alemaniara egin ziren kanpo-salmenten % 18,7 eta % 15,4, eta handik egin ziren kanpoko erosketen % 17,1 eta % 12,7, hurrenez hurren.

Muga-zergen partidei dagokienez, 2022an garraiorako materiala izan zen adierazgarriena, alde handiarekin, esportazioen % 38,4 eta inportazioen % 16,7 hartu baitzuen. Horrek neurri handian baldintzatu zuen Nafarroako kanpo-merkataritzaren etorkizuna.

**36. koadroa Nafarroako esportazioak eta inportazioak, herrialdeen eta sektoreen arabera**

*(M euro)*

| Kontzeptua | ESPORTAZIOAK | | | | | INPORTAZIOAK | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2020 | 2021 | 2022* | % | % Δ 22/21 | 2020 | 2021 | 2022* | % | % Δ 22/21 |
| **GUZTIRA (guztizkoak)** | **8.917,7** | **9.620,8** | **10.700,7** | **100,0** | **11,2** | **4.646,4** | **5.742,1** | **7.281,4** | **100,0** | **26,8** |
| HERRIALDEEN ARABERA (guztizkoak) | | | | | | | | | | |
| – Frantzia | 1.554,8 | 1.768,3 | 2.003,7 | 18,7 | 13,3 | 536,3 | 655,2 | 767,5 | 10,5 | 17,1 |
| – Alemania | 1.451,7 | 1.348,3 | 1.653,2 | 15,4 | 22,6 | 1.138,6 | 1.500,2 | 1.691,1 | 23,2 | 12,7 |
| – Italia | 790,2 | 757,2 | 961,8 | 9,0 | 27,0 | 283,4 | 368,8 | 448,8 | 6,2 | 21,7 |
| – Erresuma Batua | 539,5 | 603,1 | 599,0 | 5,6 | -0,7 | 112,0 | 69,8 | 116,9 | 1,6 | 67,5 |
| – Portugal | 396,7 | 471,0 | 609,2 | 5,7 | 29,3 | 191,6 | 250,8 | 310,9 | 4,3 | 24,0 |
| – EB-27 guztira | 5.578,4 | 6.033,3 | 7.564,0 | 70,7 | 25,4 | 3.505,2 | 4.292,8 | 5.257,8 | 72,2 | 22,5 |
| – Europako gainerakoak | 971,3 | 1.138,2 | 1.054,8 | 9,9 | -7,3 | 240,7 | 239,9 | 354,0 | 4,9 | 47,6 |
| – Estatu Batuak | 534,0 | 737,6 | 479,1 | 4,5 | -35,0 | 127,0 | 135,0 | 190,1 | 2,6 | 40,8 |
| – Beste helmuga batzuk | 1.834,0 | 1.711,7 | 1.602,8 | 15,0 | -6,4 | 773,5 | 1.074,4 | 1.479,5 | 20,3 | 37,7 |
| SEKTOREEN ARABERA (guztizkoak) | | | | | | | | | | |
| – Lehen sektorea | 736,9 | 883,4 | 965,2 | 9,0 | 9,3 | 411,1 | 425,2 | 572,9 | 7,9 | 34,7 |
| – Nekazaritzako elikagaien industria | 641,7 | 609,5 | 645,9 | 6,0 | 6,0 | 227,9 | 225,3 | 250,2 | 3,4 | 11,1 |
| – Industria kimikoa | 209,9 | 178,2 | 260,3 | 2,4 | 46,1 | 387,9 | 637,7 | 796,5 | 10,9 | 24,9 |
| – Material plastikoak, kautxua | 356,1 | 393,2 | 467,9 | 4,4 | 19,0 | 256,3 | 322,4 | 379,6 | 5,2 | 17,7 |
| – Metal komunen manufaktura | 687,9 | 908,0 | 1.086,3 | 10,2 | 19,6 | 484,0 | 754,1 | 930,3 | 12,8 | 23,4 |
| – Makinak, material elektrikoa | 2.040,4 | 2.162,9 | 2.258,4 | 21,1 | 4,4 | 1.402,0 | 1.743,0 | 2.283,6 | 31,4 | 31,0 |
| – Garraiorako materiala | 3.615,7 | 3.739,2 | 4.106,1 | 38,4 | 9,8 | 944,6 | 999,8 | 1.216,5 | 16,7 | 21,7 |
| – Gainerakoak | 629,1 | 746,4 | 910,6 | 8,5 | 22,0 | 532,6 | 634,6 | 851,8 | 11,7 | 34,2 |

*(*): Behin-behineko datuak.*
*Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua.*

## 3.3 PREZIOAK ETA SOLDATAK

2020an jardueraren jaitsiera historikoa erregistratu zen pandemiaren inpaktuaren ondorioz, eta 2021ean nabarmen suspertu zen jarduera. 2022an, berriz, prezioak asko igo ziren, bereziki, Errusiak Ukraina inbaditu zuenean sortutako tentsio geopolitikoengatik. Dena den, kontuan izan behar da prezioek goranzko joera argia zutela 2021aren amaieratik. Izan ere, ekitaldi horretako azken hiru hilabeteetan KPIa % 5ekoa edo handiagoa izan zen EAEn zein Nafarroan.

Testuinguru horretan, 2022an zehar % 45,8 handitu zen Brent petrolio-upelaren balioa. Hala, ekitaldi horretako uztailera arte, prezioek goranzko joera argia izan zuten bi eremu geografikoetan, urte arteko hazkundeei dagokienez. Uztailean eskuratu zuen gehieneko maila urte arteko hazkundeak: % 10,5 EAEn eta % 11,4 Foru Erkidegoan. Ordutik, jaisten hasi zen. Nolanahi ere, KPIaren urte arteko hazkunde-erritmoa % 5,4koa edo handiagoa izan zen 2022ko hilabete guztietan EAEn, eta % 6,3 edo handiagoa Nafarroan.

Gauzak hala, 2022an metatutako inflazio-tasa (abendutik abendura) % 5,4koa izan zen EAEn eta % 6,4koa Nafarroan (% 6,4 eta % 6,6 aurreko ekitaldiaren itxieran, hurrenez hurren). Ekitaldi osoko urteko batez besteko tasa % 8ra igo zen EAEn (% 3,1ekoa 2021ean) eta % 8,8ra Foru Erkidegoan (% 3,4koa aurreko ekitaldian).

**37. koadroa    Prezioen bilakaera EAEn eta Nafarroan**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*

| EAE | 2020 | 2021 | 2022 | NAFARROA | 2020 | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **KPI** | | | | **KPI** | | | |
| Orokorra(1) | -0,1 | 3,1 | 8,0 | Orokorra(1) | -0,6 | 3,4 | 8,8 |
| Orokorra(2) | -0,3 | 6,4 | 5,4 | Orokorra(2) | -0,6 | 6,6 | 6,4 |
| – Elik. eta alkoh. gabeko edariak | 1,8 | 4,7 | 15,1 | – Elik. eta alkoh. gabeko edariak | 1,5 | 5,1 | 15,9 |
| – Alkoholdun edariak, tabakoa | -0,1 | 1,7 | 6,9 | – Alkoholdun edariak, tabakoa | 0,2 | 0,7 | 7,7 |
| – Jantziak eta oinetakoak | 0,7 | 1,1 | 1,9 | – Jantziak eta oinetakoak | 0,7 | 1,1 | 3,5 |
| – Etxebizitza | 0,2 | 24,1 | -5,3 | – Etxebizitza | -1,7 | 24,6 | 0,1 |
| – Etxeko tresneria | 0,5 | 3,2 | 8,6 | – Etxeko tresneria | 0,8 | 3,0 | 9,8 |
| – Osasuna | 0,1 | 1,3 | 0,8 | – Osasuna | 0,9 | 1,9 | 1,2 |
| – Garraioak | -4,1 | 10,2 | 3,0 | – Garraioak | -5,0 | 10,2 | 4,6 |
| – Komunikazioak | -4,0 | -0,3 | -1,8 | – Komunikazioak | -4,2 | -0,4 | -2,0 |
| – Aisialdia eta Kultura | -2,2 | 1,5 | 4,3 | – Aisialdia eta Kultura | -2,1 | 4,0 | 4,3 |
| – Irakaskuntza | 0,4 | 1,6 | 1,9 | – Irakaskuntza | 1,7 | -5,5 | 2,4 |
| – Hotelak eta jatetxeak | 1,0 | 3,0 | 6,3 | – Hotelak eta jatetxeak | 0,9 | 3,1 | 6,2 |
| – Beste batzuk | 0,8 | 2,3 | 4,6 | – Beste batzuk | 2,0 | 2,0 | 4,1 |
| **Industria Prezioen Indizea (IPRI)** | | | | **Nekazariek Jasotako Prezioen Indizea** | | | |
| Orokorra | -3,1 | 7,3 | 21,8 | Orokorra | 2,0 | 1,5 | 18,3 |
| Kontsumoa | 1,9 | 2,8 | 9,5 | Nekazaritza-produktuak | 0,0 | 5,2 | 22,9 |
| Ekipamendua | 0,8 | 0,1 | 4,2 | Baso-produktuak | 7,3 | 5,8 | 21,5 |
| Bitartekoak | -0,5 | 7,1 | 18,5 | Animalia-produktuak | 4,2 | -4,3 | 11,5 |
| Energia | -5,1 | 20,6 | 52,4 | | | | |

*(1): Urteko batez besteko aldakuntza.*
*(2): Abendutik abendura.*
*Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua eta EIN.*

Azterketa 2022ko abenduko urte arteko aldakuntzan zentratuta eta ondasunen taldeei dagokienez, EAEn eta Nafarroan elikagaien eta alkoholik gabeko edarien prezioa igo zen gehien (% 15,1 eta % 15,9, hurrenez hurren), eta bi kasuetan etxeko tresneria izan zen bigarrena (% 8,6 EAEn eta % 9,8 Foru Erkidegoan). Edari alkoholdunak eta tabakoa eta hotelak eta jatetxeak izan ziren hurrengoak bi eremu geografikoetan; kasu guztietan, % 6,2ko hazkundea edo handiagoa izan zuten. Bestalde, garraioen prezioak % 3 igo ziren EAEn eta % 4,6 Nafarroan. Aitzitik, komunikazioen eta etxebizitzaren prezioek behera egin zuten EAEn (-% 1,8 eta -% 5,3, hurrenez hurren). Foru Erkidegoan, berriz, komunikazioek bakarrik egin zuten behera (-% 2). Etxebizitzen prezioak jaitsi egin ziren 2022aren itxieran EAEn, baina kontuan izan behar da 2021aren itxieran % 24,1 hazi zirela.

Prezioen tentsioek ondasun mota guztiei eragin zieten pixkanaka 2022an zehar. Hala, EAEko industriako prezioen goranzko erritmoa nabarmen indartu zen, modu orokortuan, eta, bereziki, energiarekin lotutako prezio industrialen kasuan. Zehazki, indize orokorraren hazkunde-erritmoa % 21,8ra igo zen (2021ean % 7,3ko hazkundea). Izan ere, handitu egin zen energiaren (% 52,4, eta aurreko ekitaldian % 20,6), bitarteko ondasunen (% 18,5, eta aurreko ekitaldian % 7,1), kontsumo-ondasunen (% 9,5, eta aurreko ekitaldian % 2,8) eta ekipo-ondasunen (% 4,2, eta aurreko urtean % 0,1) prezioen hazkundea.

Era berean, Nafarroako nekazariek 2022an jasotako prezioen hazkunde-erritmoa ere indartu egin zen, orokorrean. Zehazki, % 18,3ra igo zen hazkundea (2021ean % 1,5), nekazaritzako, basogintzako eta animaliekin lotutako produktuen prezioen hazkundeak izandako gorakada nabarmenaren ondorioz (2022an % 22,9, % 21,5 eta % 11,5, eta aurreko ekitaldian % 5,2, % 5,8 eta -% 4,3, hurrenez hurren).

**38. koadroa Soldata-adierazleak**

| Kontzeptua | 2020 | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|
| **EAE** | | | |
| Soldata-kostuak (urte arteko aldakuntza-tasa) | | | |
| – Soldata-kostua ordu efektibo bakoitzeko | 5,0 | -2,4 | 2,8 |
| – Soldata-kostua langile eta hilabete bakoitzeko | -1,9 | 4,9 | 2,9 |
| Hitzarmenak | | | |
| – Hitzarmen kopurua | 552 | 474 | 419 |
| – Eragina jasandako langileak | 278.679 | 247.935 | 201.813 |
| – Adostutako soldata-igoera | 1,55 | 0,88 | 5,36 |
| **NAFARROA** | | | |
| Soldata-kostuak (urte arteko aldakuntza-tasa) | | | |
| – Soldata-kostua ordu efektibo bakoitzeko | 5,6 | -1,9 | 2,5 |
| – Soldata-kostua langile eta hilabete bakoitzeko | -0,1 | 2,3 | 3,8 |
| Hitzarmenak | | | |
| – Hitzarmen kopurua | 212 | 173 | 140 |
| – Eragina jasandako langileak | 108.781 | 96.632 | 79.923 |
| – Adostutako soldata-igoera | 1,67 | 1,56 | 4,65 |

*Iturria: Lan Kostuaren Hiruhilekoko Inkesta (EIN) eta Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioa (2023ko otsaileko hitzarmenetako datuak).*

Azkenik, laneko kostuei dagokienez, 2022an ordu efektibo bakoitzeko soldata-kostua % 2,8 igo zen EAEn eta % 2,5 Foru Erkidegoan (2021ean -% 2,4 eta -% 1,9 egin zuen behera, hurrenez hurren). Langile eta hilabete bakoitzeko soldata-kostuaren hazkunde-erritmoa, berriz, ehuneko bi puntu jaitsi zen EAEn (2022an % 2,9 eta aurreko ekitaldian % 4,9) eta ehuneko puntu eta erdi hazi zen Nafarroan (2022an % 3,8 eta aurreko ekitaldian % 2,3).

## 3.4 LAN-MERKATUA ETA DEMOGRAFIA

### Lan-merkatua Euskal Herrian

2020an jaitsiera historikoa izan zuen jarduerak, pandemiaren inpaktuaren ondorioz, eta 2021ean indartsu suspertu zen. 2022an hazkunde ekonomikoa orokorra izan zen, baina aurreko ekitaldian baino apalagoa. Hala, okupazioak gora egin zuen EAEn, Nafarroan eta Estatuan. Langabetuen kopuruak, berriz, hiru eremuetan egin zuen behera.

Lehenik eta behin, biztanleria aktiboa aztertuko dugu. 2022an % 1,1 hazi zen biztanleria aktiboa Euskal Herrian, eta 1.361.200 pertsonara iritsi zen. Horietatik 1.241 mila pertsona

okupatuak ziren (aurreko ekitaldian baino % 2,5 gehiago) eta 120,2 mila pertsona langabezian zeuden (aurreko urtean baino -% 10,8 gutxiago). Halaber, estatu mailan ere hazi egin ziren biztanleria aktiboa (% 0,9) eta okupazioa (% 3,1) 2022an, eta langabetuen kopurua jaitsi egin zen (-% 11,8).

Sexuaren arabera, 2022an Euskal Herrian okupatuen kopurua gehiago hazi zen gizonen artean, emakumeen artean baino (% 4,1 eta % 0,7). Estatu mailan, aldiz, emakume okupatuen kopurua gehiago hazi zen gizonena baino (% 3,3 eta % 2,9). Langabetuen kopuruari dagokionez, bi sexuen kasuan modu orokortuan murriztu zen Euskal Herrian zein estatu mailan. Bi kasuetan, jaitsiera handiagoa izan zen gizonen artean (-% 12,9 bi eremu geografikoetan), emakumeen artean baino (-% 8,5 Euskal Herrian eta -% 10,9 Estatuan). Hala, gizonezkoen artean biztanleria aktiboa hazi egin zen Euskal Herrian (% 2,4), eta emakumeen artean jaitsi egin zen (-% 0,2). Estatu mailan, berriz, gizonen (% 0,9) zein emakumeen (% 1) kasuan hazi egin zen.

Testuinguru horretan, 2022an % 57,1era igo zen jarduera-tasa Euskal Herrian (aurreko ekitaldian % 56,6koa zen), gora egin baitzuen EAEn (% 56,5, eta 2021ean % 56) zein Nafarroan (% 59, eta aurreko ekitaldian % 58,6). Estatu mailan jarduera-tasa % 58,5etik (2021) % 58,6ra igo zen 2022an. Hala, 2022an murriztu egin zen Euskal Herriaren eta estatuaren arteko aldea (2022an ehuneko 1,5 puntu eta 2021ean 1,9).

Sexuaren arabera, Euskal Herrian hazi egin zen gizonen jarduera-tasa (% 61,9, eta aurreko ekitaldian % 60,6), eta jaitsi egin zen emakumeena (% 52,6, eta 2021ean % 52,9). Estatuan, berriz, gora egin zuen gizonen (% 63,7, eta aurreko ekitaldian % 63,6) zein emakumeen (% 53,8, eta aurreko ekitaldian % 53,7) kasuan. Sakonago aztertuta, Foru Erkidegoko jarduera-tasa EAEkoa baino handiagoa izan zela ikus daiteke, gizonen zein emakumeen kasuan. Estatuan, bestalde, gizonen eta emakumeen jarduera-tasa handiagoak erregistratu zituzten (% 63,7 eta % 53,8, hurrenez hurren) Euskal Herrian baino (% 61,9 eta % 52,6, hurrenez hurren).

Euskal Herriko biztanleria langabetua -% 10,8 murriztu zen 2022an, eta 120,2 mila pertsonara iritsi zen. Hala, eten egin zen 2020an pandemiaren agerpenarekin hasitako hazkunde-ibilbidea (% 6,4ko hazkundea ekitaldi hartan, eta % 5,3koa 2021ean). Zehazki, 2022an langabetuen kopurua -% 11,7 jaitsi zen EAEn eta -% 8 Nafarroan. Era berean, Estatuan -% 11,8 murriztu zen biztanleria langabetua.

Gauzak hala, 2022an langabezia-tasak behera egin zuen, orokorrean: % 9,8tik % 8,6ra EAEn, % 10,6tik % 9,6ra Foru Erkidegoan (% 10etik % 8,8ra Euskal Herri osoan), eta % 14,8tik % 12,9ra Estatuan. Aldi berean, langabezia-tasa gizonen zein emakumeen kasuan jaitsi zen, eremu guztietan, Nafarroako emakumeen kasuan izan ezik.

**39. koadroa Biztanleria aktiboa, enplegua eta langabezia**

*(urteko batezbestekoak, milakotan)*

| Eremua | | 2021 | | | 2022 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Gizonak | Emakumeak | Guztira | Gizonak | Emakumeak | Guztira |
| EAE | Potentzialki aktiboak | 881,0 | 955,3 | 1.836,3 | 881,9 | 956,8 | 1.838,8 |
| | Aktiboak | 528,6 | 500,2 | 1.028,8 | 541,1 | 497,5 | 1.038,6 |
| | Okupatuak | 477,6 | 450,1 | 927,7 | 495,6 | 453,7 | 949,3 |
| | Langabeak | 51,0 | 50,1 | 101,1 | 45,5 | 43,8 | 89,3 |
| | Jarduera-tasa | 60,0 | 52,4 | 56,0 | 61,4 | 52,0 | 56,5 |
| | Langabezia-tasa | 9,6 | 10,0 | 9,8 | 8,4 | 8,8 | 8,6 |
| | Erregistratutako langabezia* | 51,2 | 63,6 | 114,8 | 47,8 | 63,0 | 110,8 |
| Nafarroa | Potentzialki aktiboak | 266,9 | 274,7 | 541,5 | 268,7 | 278,3 | 547,0 |
| | Aktiboak | 166,8 | 150,4 | 317,2 | 170,7 | 151,9 | 322,6 |
| | Okupatuak | 147,7 | 135,8 | 283,6 | 155,2 | 136,5 | 291,7 |
| | Langabeak | 19,0 | 14,6 | 33,6 | 15,5 | 15,4 | 30,9 |
| | Jarduera-tasa | 62,5 | 54,8 | 58,6 | 63,5 | 54,6 | 59,0 |
| | Langabezia-tasa | 11,4 | 9,7 | 10,6 | 9,1 | 10,1 | 9,6 |
| | Erregistratutako langabezia* | 13,3 | 18,7 | 32,0 | 12,7 | 18,9 | 31,6 |
| Euskal Herria | Potentzialki aktiboak | 1.147,9 | 1.230,0 | 2.377,8 | 1.150,6 | 1.235,1 | 2.385,8 |
| | Aktiboak | 695,4 | 650,6 | 1.346,0 | 711,8 | 649,4 | 1.361,2 |
| | Okupatuak | 625,3 | 585,9 | 1.211,3 | 650,8 | 590,2 | 1.241,0 |
| | Langabeak | 70,0 | 64,7 | 134,7 | 61,0 | 59,2 | 120,2 |
| | Jarduera-tasa | 60,6 | 52,9 | 56,6 | 61,9 | 52,6 | 57,1 |
| | Langabezia-tasa | 10,1 | 9,9 | 10,0 | 8,6 | 9,1 | 8,8 |
| | Erregistratutako langabezia* | 64,5 | 82,3 | 146,8 | 60,5 | 81,9 | 142,4 |
| Espainia | Potentzialki aktiboak | 19.270,8 | 20.383,4 | 39.654,2 | 19.386,4 | 20.538,7 | 39.925,1 |
| | Aktiboak | 12.250,6 | 10.952,6 | 23.203,2 | 12.357,8 | 11.057,4 | 23.415,2 |
| | Okupatuak | 10.651,7 | 9.121,9 | 19.773,6 | 10.965,2 | 9.425,4 | 20.390,6 |
| | Langabeak | 1.598,9 | 1.830,7 | 3.429,6 | 1.392,6 | 1.632,0 | 3.024,6 |
| | Jarduera-tasa | 63,6 | 53,7 | 58,5 | 63,7 | 53,8 | 58,6 |
| | Langabezia-tasa | 13,1 | 16,7 | 14,8 | 11,3 | 14,8 | 12,9 |
| | Erregistratutako langabezia* | 1.281,9 | 1.824,0 | 3.105,9 | 1.147,5 | 1.690,1 | 2.837,7 |

*(*): Abendua.*
*Iturria: EIN (Biztanleria Aktiboaren Inkestako biztanleria-oinarria, 2011. 2023ko martxoko datuak) eta SEPE.*

Txostenaren aurreko edizioetan bezala, langabeziaren bilakaera aztertuko dugu jarraian, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan (SEPE) erregistratutako langabeziaren ikuspegitik. Horretarako, aintzat hartu beharko da, kasu zehatz honetan, aurkeztutako informazioa abenduari dagokiola, eta ez ekitaldi osoari. Hala, aipatutako iturriaren arabera, SEPEren Euskal Herriko bulegoetan 142,4 mila pertsona langabetu zeuden erregistratuta 2022ko abenduan, hau da, 2021eko amaieran baino % 3 gutxiago. Horietatik 110,8 mila pertsona EAEkoak ziren (urte arteko -% 3,5eko jaitsiera) eta 31,6 mila pertsona Nafarroakoak (urte

arteko -% 1,3ko jaitsiera). Halaber, Estatuari dagokionez, 2022ko abenduan 2.837,7 mila langabetu zeuden erregistratuta, aurreko urtean baino -% 8,6 gutxiago.

**40. koadroa Langabezia-tasa adin-tarteen arabera. Urteko batezbestekoak**

*(%)*

| Eremua | Urtea | 16-19 | 20-24 | 25-54 | 55 eta gehiago | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EAE | 2020 | 41,4 | 32,0 | 8,7 | 6,8 | 9,5 |
| | 2021 | 50,0 | 29,1 | 8,4 | 8,3 | 9,8 |
| | 2022 | 37,6 | 23,9 | 7,6 | 7,0 | 8,6 |
| Nafarroa | 2020 | 23,5 | 26,4 | 9,6 | 7,0 | 10,0 |
| | 2021 | 40,9 | 20,3 | 10,2 | 8,0 | 10,6 |
| | 2022 | 43,3 | 19,0 | 9,2 | 6,4 | 9,6 |
| Euskal Herria | 2020 | 37,3 | 30,5 | 8,9 | 6,9 | 9,7 |
| | 2021 | 48,4 | 26,8 | 8,8 | 8,2 | 10,0 |
| | 2022 | 38,9 | 22,6 | 8,0 | 6,9 | 8,8 |
| Espainia | 2020 | 54,3 | 35,1 | 14,5 | 12,1 | 15,5 |
| | 2021 | 50,8 | 31,6 | 13,5 | 12,9 | 14,8 |
| | 2022 | 45,9 | 26,2 | 11,7 | 11,4 | 12,9 |

*Iturria: EIN (Biztanleria Aktiboaren Inkestako biztanleria-oinarria, 2011. 2023ko martxoko datuak).*

Biztanleria Aktiboaren Inkesta berriro ere aintzat hartuta (urteko batezbesteko datuak), kontuan hartu behar da langabezia-tasa nabarmen aldatzen dela adinaren arabera; hala, gazteenek dituzte maila altuenak. Hala, Euskal Herrian, 16 eta 19 urte artekoen artean langabezia-tasa % 38,9koa zen 2022an. Zerrendan hurrengoak 20 eta 24 urte artekoak izan ziren (% 22,6), ondoren 25 eta 54 urte artekoak (% 8) eta, azkenik, 55 urte edo gehiago zituztenak (% 6,9).

Aurreko ekitaldiarekiko bilakaerari dagokionez, Euskal Herrian zein estatuan modu orokortuan jaitsi zen langabezia-tasa, adin-tarte guztietan. Euskal Herrian, gazteenen langabezia-tasa % 48,4tik (2021) % 38,9ra jaitsi zen 2022an (Estatuan % 50,8tik % 45,9ra); 20 eta 24 urte artekoen langabezia-tasa % 26,8tik % 22,6ra jaitsi zen (Estatuan % 31,6tik % 26,2ra); 25 eta 54 urte arteko pertsonena, % 8,8tik % 8ra (Estatuan % 13,5etik % 11,7ra); eta adin nagusieneko pertsonena % 8,2tik % 6,9ra (Estatuan % 12,9tik % 11,4ra).

**41. koadroa Enpleguaren bilakaera, sektore ekonomikoen arabera. Urteko batezbestekoak**

*(m pertsona)*

| Eremua | Urtea | Lehen sektorea | Industria | Eraikuntza | Zerbitzuak |
|---|---|---|---|---|---|
| EAE | 2020 | 8,4 | 190,0 | 51,2 | 668,0 |
| | 2021 | 8,1 | 203,3 | 45,0 | 671,3 |
| | 2022 | 10,4 | 196,9 | 50,5 | 691,4 |
| Nafarroa | 2020 | 9,4 | 75,7 | 15,6 | 177,8 |
| | 2021 | 8,4 | 78,8 | 18,4 | 177,9 |
| | 2022 | 7,8 | 76,1 | 20,2 | 187,7 |
| Euskal Herria | 2020 | 17,8 | 265,7 | 66,8 | 845,8 |
| | 2021 | 16,5 | 282,1 | 63,4 | 849,2 |
| | 2022 | 18,2 | 273,0 | 70,7 | 879,1 |
| Espainia | 2020 | 765,3 | 2.698,2 | 1.244,1 | 14.494,8 |
| | 2021 | 802,7 | 2.700,1 | 1.291,5 | 14.979,3 |
| | 2022 | 774,8 | 2.771,3 | 1.321,0 | 15.523,4 |

*Iturria: EIN (Biztanleria Aktiboaren Inkestako biztanleria-oinarria, 2011. 2023ko martxoko datuak). (EJSN-09).*

Biztanleria okupatuaren sektorekako dinamikari dagokionez, Euskal Herrian 2022an industriari lotutako enpleguak baino ez zuen behera egin (-% 3,2). Enpleguak gora egin zuen lehenengo sektorean (% 10,3), eraikuntzan (% 11,5) eta zerbitzuetan (% 3,5). Kopuru absolutuei dagokienez, hirugarren sektorean igo zen gehien enplegua (2021ean baino 29.900 pertsona okupatu gehiago). Euskal Herriko enpleguaren % 70,8 dagokio sektore horri.

Estatu mailan, 2022an lehenengo sektorean baino ez zen murriztu enplegua. Gainerako sektoreetan gora egin zuen: industrian % 2,6, eraikuntzan % 2,3 eta zerbitzuetan % 3,6. Kasu honetan ere, hirugarren zerbitzuan izan zen hazkunde absoluturik handiena (aurreko ekitaldian baino 544.100 okupatu gehiago).

SEPEn erregistratutako kontratuak aintzat hartuta, 2022an behera egin zuten aztertu ditugun geografia-eremu guztietan. Hala, ekitaldi horretan 1.150.040 kontratu jakinarazi zituzten Euskal Herrian, aurreko ekitaldian baino -% 6 gutxiago (-% 5,3 EAEn; -% 7,7 Foru Erkidegoan). Estatuan, berriz, 18.310.343 kontratu jakinarazi zituzten, aurreko ekitaldian baino -% 5,5 gutxiago.

Kontratu motaren arabera, orokorrean, nabarmen ugaritu ziren kontratu mugagabeak (% 159,3 Euskal Herrian eta % 232,5 Estatuan). Aldi baterako kontratuak, berriz, asko gutxitu ziren (-% 21,6 Euskal Herrian eta -% 34,7 Estatuan). Hortaz, kontratu mugagabeen pisu erlatiboa hazi egin zen, aldi baterako kontratuen aurrean. Nolanahi ere, kontuan izan behar da 2022an indarrean sartu zela lan-erreformarako, enplegu-egonkortasuna bermatzeko eta lan-merkatua eraldatzeko presazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege Dekretua, eta horregatik gertatu zela dinamika hori. Haren bidez, arau berriak ezarri zituzten aldi baterako kontratoziorako, eta mugatu egin zuten.



LABORAL kutxa

**42. koadroa SEPEren bulegoetan erregistratutako kontratuak**

| Eremua | Urtea | Mugagabeak | | | Aldi baterakoak | | | | KONTRATUAK GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Mugagabea | Konbertsioak | Guztira | Obra eta Zerbitzua | Produkzio-baldintzak | Gainerakoak | Guztira | |
| EAE | 2020 | 36.502 | 22.946 | 59.448 | 179.023 | 322.650 | 142.234 | 643.907 | 703.355 |
| | 2021 | 46.829 | 33.716 | 80.545 | 210.160 | 404.749 | 166.272 | 781.181 | 861.726 |
| | 2022 | 155.518 | 44.477 | 199.995 | 37.517 | 397.762 | 180.445 | 615.724 | 815.719 |
| Nafarroa | 2020 | 10.446 | 8.836 | 19.282 | 75.109 | 137.937 | 72.702 | 285.748 | 305.030 |
| | 2021 | 12.644 | 12.164 | 24.808 | 78.036 | 183.447 | 76.046 | 337.529 | 362.337 |
| | 2022 | 56.455 | 16.682 | 73.137 | 12.869 | 158.570 | 89.745 | 261.184 | 334.321 |
| Euskal Herria | 2020 | 46.948 | 31.782 | 78.730 | 254.132 | 460.587 | 214.936 | 929.655 | 1.008.385 |
| | 2021 | 59.473 | 45.880 | 105.353 | 288.196 | 588.196 | 242.318 | 1.118.710 | 1.224.063 |
| | 2022 | 211.973 | 61.159 | 273.132 | 50.386 | 556.332 | 270.190 | 876.908 | 1.150.040 |
| Espainia | 2020 | 936.513 | 609.097 | 1.545.610 | 6.241.088 | 6.777.227 | 1.379.136 | 14.397.451 | 15.943.061 |
| | 2021 | 1.235.476 | 877.865 | 2.113.341 | 6.998.685 | 8.683.539 | 1.588.794 | 17.271.018 | 19.384.359 |
| | 2022 | 5.694.246 | 1.332.914 | 7.027.160 | 1.305.148 | 7.746.692 | 2.231.343 | 11.283.183 | 18.310.343 |

*Iturria: SEPE.*

Bestetik, aipamen txiki bat egin behar dugu autonomoei buruz. Horrekin lotuta, EINek egindako BAIren arabera, Estatuan 7.200 pertsonako jaitsiera izan zuen norberaren konturako langileen kopuruak 2021 eta 2022 artean (urteko batezbestekoak kontuan hartuta). Euskal Herrian, aldiz, 10.500 pertsonako igoera izan zuen kopuru horrek.

Estatuan ugaritu egin ziren negoziazio kolektiboaren eraginpeko langileak (% 4,3), baina 2022an hitzarmen gutxiago negoziatu ziren eta horiek langile gutxiagori eragin zieten, orokorrean. Zehazki, 2022an negoziatutako hitzarmenek urte arteko jaitsiera hauek izan zituzten: EAEn -% 11,6, Nafarroan -% 19,1 eta Estatuan -% 14,5. Bestalde, hitzarmen horien eraginpeko langileak -% 18,6 murriztu ziren EAEn eta -% 17,3 Foru Erkidegoan. Estatuan, berriz, % 4,3 areagotu ziren. Aldi berean, inflazio altuko testuinguru horretan, hitzartutako soldata-igoerak nabarmen hazi ziren EAEn (2022an % 5,36 eta 2021ean % 0,88), Nafarroan (2022an % 4,65 eta 2021ean % 1,56) eta Estatuan (2022an % 3,02 eta 2021ean % 1,68).

**43. koadroa Hitzarmen kolektiboak eta grebak**

| Eremua | Urtea | Hitzarmen kolektiboak: Kopurua | Hitzarmen kolektiboak: Eragindako langileak | Hitzarmen kolektiboak: Adostutako soldata-igoera | Grebak*: Kopurua | Grebak*: Parte hartu zuten langileak | Grebak*: Greba bakoitzeko langileak | Grebak*: Lan egin gabeko lanaldiak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| EAE | 2020 | 552 | 278.679 | 1,55 | 178 | 25.723 | 145 | 59.377 |
| | 2021 | 474 | 247.935 | 0,88 | 224 | 14.051 | 63 | 141.267 |
| | 2022 | 419 | 201.813 | 5,36 | 320 | 107.125 | 335 | 385.128 |
| Nafarroa | 2020 | 212 | 108.781 | 1,67 | 37 | 1.249 | 34 | 3.653 |
| | 2021 | 173 | 96.632 | 1,56 | 59 | 2.130 | 36 | 5.068 |
| | 2022 | 140 | 79.923 | 4,65 | 58 | 2.911 | 50 | 11.964 |
| Espainia | 2020 | 4.915 | 10.700.757 | 1,74 | 487 | 151.496 | 311 | 540.579 |
| | 2021 | 4.039 | 10.160.948 | 1,68 | 606 | 199.026 | 328 | 422.815 |
| | 2022 | 3.453 | 10.593.527 | 3,02 | 679 | 192.751 | 284 | 709.099 |

** 2020 eta 2021 ekitaldiek ez dituzte barne hartzen greba orokorretako datuak. 2022ko datuak urtarrila-abendua bitarteko aurrerapenari dagozkio.*

*Iturria: Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioa. 2023ko otsaileko hitzarmenen datuak. 2023ko apirileko greben datuak.*

Laneko gatazkei dagokienez, 2022an grebak ugaritu egin ziren EAEn zein Estatuan (% 42,9 eta % 12, hurrenez hurren), baina behera egin zuten Foru Erkidegoan (-% 1,7). Bestetik, greben eraginpeko pertsonak ugaritu egin ziren EAEn (% 662,4) eta Nafarroan (% 36,7), eta murriztu egin ziren Estatuan (-% 3,2). Lan egin gabeko lanaldiak, berriz, hiru kasuetan hazi ziren (% 172,6 EAEn, % 136,1 Foru Erkidegoan eta % 67,7 Estatuan).

## Biztanleria

Eskuragarri dagoen azkeneko behin betiko informazioaren arabera, 2021ean -% 0,2 murriztu zen Euskal Herriko biztanleria; EAEn behera egin zuen (-% 0,3), eta Nafarroan gora (% 0,1). Zehazki, 2.875.530 biztanlera iritsi ziren ekitaldi horretan: 2.213.993 biztanle EAEn eta gainerako 661.537ak Foru Erkidegoan. Estatuan ere behera egin zuen biztanleriak 2021ean (-% 0,1) eta 47.385.107 biztanle zenbatu ziren.

2021ean 19.389 jaiotza (aurreko ekitaldian baino % 2 gutxiago) eta 28.857 heriotza (aurreko ekitaldian baino % 6,7 gutxiago) erregistratu ziren Euskal Herrian. Hori kontuan hartuta, saldo begetatiboa negatiboa izan zen, -9.468 pertsonakoa. Hala, 2014an hasitako hazkunde begetatibo negatiboen ibilbidea moteldu egin zen.



LABORAL kutxa

**44. koadroa Biztanleriaren mugimendu naturala. Jaiotza- eta heriotza-tasak, 2021**

| Eremua | Jaiotzak | Heriotzak | Hazkunde begetatiboa | Jaiotza-tasa (‰) | Heriotza-tasa (‰) |
|---|---|---|---|---|---|
| Araba | 2.369 | 2.972 | -603 | 7,1 | 8,9 |
| Bizkaia | 6.972 | 12.493 | -5.521 | 6,0 | 10,8 |
| Gipuzkoa | 4.935 | 7.621 | -2.686 | 6,8 | 10,5 |
| EAE | 14.276 | 23.086 | -8.810 | 6,4 | 10,4 |
| Nafarroa | 5.113 | 5.771 | -658 | 7,7 | 8,7 |
| Euskal Herria | 19.389 | 28.857 | -9.468 | 6,7 | 10,0 |
| Espainia | 337.380 | 450.744 | -113.364 | 7,1 | 9,5 |

*Iturria: Biztanleriaren mugimendu naturala (EIN). 2022ko abenduko datuak.*

Hala, Euskal Herrian jaisten jarraitu zuen jaiotza-tasak (2021ean ‰ 6,7 eta 2020an ‰ 6,9). Heriotza-tasaren hazkundea, berriz, eten egin zen (2021ean ‰ 10,0 eta aurreko ekitaldian ‰ 10,7). Estatuko jaiotza-tasa handiagoa izan zen (‰ 7,1), eta heriotza-tasa apur bat txikiagoa (‰ 9,5).

Ezkontza kopurua asko hazi zen 2021ean Euskal Herrian; % 54,9ko hazkunde nabarmena izan zuen eta 7.756 ezkontza izan ziren. Estatuan, berriz, 143.515 erregistratu zituzten, aurreko ekitaldian baino nabarmen gehiago: % 64,1 gehiago.

Nolanahi ere, azalpen labur bat eman behar da 2021ean hildako pertsonen kopuruak (eta, hortaz, heriotza-tasak) izandako jaitsiera nabarmena eta ezkontza kopuruaren igoera handia ulertzeko. Aipatu beharrekoa da COVID-19ak heriotza askoz ere gutxiago eragin zituela 2021ean, 2020an baino, urte hartan bizi izan baitziren pandemiaren unerik okerrenak (bereziki hilgarria zen orduan). Ezkontzak, berriz, nabarmen ugaritu ziren, horiek ospatzeko mugak kendu zituztelako.

**45. koadroa Euskal Herriko biztanleriaren mugimenduaren bilakaera**

| Urtea | Biztanleria | Ezkontzak | Jaiotzak | Jaiotza-tasa (‰) | Heriotzak | Heriotza-tasa (‰) | Hazkunde begetatiboa | Migrazio-saldoa* (autonomia artekoa) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2011 | 2.826.657 | 10.304 | 27.902 | 9,9 | 24.990 | 8,8 | 2.912 | 4.362 |
| 2012 | 2.837.659 | 10.171 | 27.264 | 9,6 | 25.657 | 9,0 | 1.607 | 3.875 |
| 2013 | 2.836.159 | 9.286 | 25.191 | 8,9 | 25.043 | 8,8 | 148 | 2.920 |
| 2014 | 2.829.775 | 9.595 | 25.562 | 9,0 | 25.677 | 9,1 | -115 | 4.078 |
| 2015 | 2.829.733 | 9.861 | 24.856 | 8,8 | 27.191 | 9,6 | -2.335 | 3.138 |
| 2016 | 2.830.181 | 9.763 | 24.141 | 8,5 | 26.951 | 9,5 | -2.810 | 3.305 |
| 2017 | 2.837.392 | 9.733 | 22.823 | 8,0 | 27.478 | 9,7 | -4.655 | 1.052 |
| 2018 | 2.846.642 | 9.187 | 21.498 | 7,6 | 27.582 | 9,7 | -6.084 | 682 |
| 2019 | 2.861.990 | 9.079 | 20.820 | 7,3 | 27.134 | 9,5 | -6.314 | 147 |
| 2020 | 2.881.701 | 5.008 | 19.779 | 6,9 | 30.914 | 10,7 | -11.135 | -539 |
| 2021 | 2.875.530 | 7.756 | 19.389 | 6,7 | 28.857 | 10,0 | -9.468 | -2.463 |

** 2017tik aurrera, 0 adinari eragiten zion barne-migrazioaren akatsa zuzentzen da.*

*Iturria: Biztanleriaren mugimendu naturala (EIN). Migrazio-mugimenduak (EIN) 2022ko abenduko datuak.*

Azkenik, aipatu behar da 2021ean Euskal Herriak migrazio-saldo (autonomia artekoa) negatiboa izan zuela, -2.463 pertsonakoa, immigrazio kopurua txikiagoa izan zelako emigrazio kopurua baino. Zehazki, EAEk -2.721 pertsonako migrazio-saldo negatiboa izan zuen, eta Nafarroak, berriz, 258 pertsonako migrazio-saldo positiboa.



# 3.INDUSTRIA

# 1. IKUSPEGI OROKORRA

Euskal Herriko industria-sektoreko enpresek jarduera suspertzeko bidean jarraitzen dute pandemiaren ostean, egindako analisiak erakusten duen moduan. Haien jarduerak hobetzen jarraitzen du, 2021ean baino geldoago izan arren.

Eremu geografikoak kontuan hartuta, EAEn zein Nafarroan sektoreko balio erantsi gordina hazi egin zen 2022an, baina aurreko ekitaldian baino gutxiago. Zehazki, 2022an % 4,6 hazi zen EAEn (2021ean % 6,1) eta, Nafarroan, apur bat gutxiago, % 3,5 (2021ean % 6,5).

2022ko hiruhilekoei dagokienez, EAEn ongi hasi zuen urtea, lehen hiruhilekoan % 6,5 hazi baitzen. Hurrengo hiruhilekoetako hazkundeak ez ziren hain handiak izan (% 5,9, % 3,6, % 2,5). Nafarroan antzeko bilakaera izan zuen. Urtea ongi hasi zuen, baina urtean zeharreko bilakaera ez zen hain esanguratsua izan (% 7,4, % 2,1, % 2,0, % 2,3).

EAEn eta Nafarroan bezalaxe, 2022an Estatuan ere behera egin zuen balio erantsi gordinaren hazkunde-erritmoak (2022an % 3,8 eta 2021ean % 8,9). Hiruhilekoen arabera, Estatuko bilakaera antzekoa izan zen, baina, kasu honetan, sektoreko guztizko balioa asko igo zen urteko bigarren hiruhilekoan (% 4,3, % 6,0, % 3,3, % 1,9).

### Ekoizpen-indizeak

Industria Ekoizpenaren Indizeak (IPI) EAEn, Nafarroan eta Estatuan izandako bilakaeraren analisiak erakusten duenez, bilakaera positiboa mantendu zuen 2022an, baina industriaren adarretako ekoizpen-jarduera ez zen 2021eko mailara iritsi. Izan ere, 2021ean enpresek suspertze argia izan zuten, pandemiaren ostean.

EAEren kasuan, IPIa % 5,7 hazi zen 2022an (2021ean % 10,5), Nafarroan % 3,7 hazi zen (2021ean % 10,4) eta Estatuan antzeko bilakaera izan zuen, baina apalagoa, eta IPIa % 2,9 hazi zen (2021ean % 7,3).

**46. koadroa** **Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera**

*(%)*

| Urtea | EAE IPI(*) | Nafarroa IPI(*) | Estatua IPI(*) |
|---|---|---|---|
| 2015 | 3,2 | 2,2 | 3,4 |
| 2016 | 2,9 | 0,7 | 1,8 |
| 2017 | 5,9 | -2,1 | 3,2 |
| 2018 | 2,2 | -0,5 | 0,2 |
| 2019 | 1,6 | 9,8 | 0,7 |
| 2020 | -13,4 | -10,9 | -9,6 |
| 2021 | 10,5 | 10,4 | 7,3 |
| 2022 | 5,7 | 3,7 | 2,9 |

*(*): Egutegiaren arabera zuzendutako datuak.*
*Iturria: Geuk egina, Eustaten, Nafarroako Estatistika Institutuaren (NEI), EINen eta Iberdrolaren datuetatik abiatuta.*

Jomuga ekonomikoaren arabera, Industria Ekoizpenaren Indizeak (IPI) izandako bilakaera baieztatu zen. Hala, kasu guztietan moteldu egin zen ekoizpen-jardueraren hazkunde-erritmoa, EAEn zein Nafarroan. Dena den, balio positiboak mantendu zituen (Nafarroako bitarteko ondasunen kasuan izan ezik).

**47. koadroa** **Euskal Herriko Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, ondasunen jomuga ekonomikoaren arabera**

*(%)*

| Urtea | Bitarteko ondasunak | | Ekipo-ondasunak | | Kontsumo-ondasunak | | Energia | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | EAE* | Nafarroa | EAE* | Nafarroa | EAE* | Nafarroa | EAE* | Nafarroa |
| 2015 | 1,1 | -0,8 | 7,0 | 4,9 | 3,4 | 2,4 | 1,4 | 6,9 |
| 2016 | 2,3 | 0,9 | 8,5 | -0,3 | 1,6 | 0,8 | -3,6 | 12,8 |
| 2017 | 7,8 | 7,4 | 3,2 | -4,5 | 5,4 | -0,5 | 3,0 | 2,7 |
| 2018 | 0,5 | 7,3 | 4,2 | -2,8 | 4,9 | 0,9 | 1,4 | -12,1 |
| 2019 | 0,1 | -2,1 | 2,0 | 18,4 | 2,8 | 0,0 | 5,6 | 45,5 |
| 2020 | -15,4 | -6,7 | -12,5 | -18,0 | -6,6 | -7,6 | -11,9 | -12,3 |
| 2021 | 10,4 | 6,6 | 13,3 | 13,8 | 12,0 | 5,5 | 0,3 | 19,4 |
| 2022 | 2,1 | -1,7 | 9,4 | 4,6 | 4,5 | 3,0 | 11,2 | 11,4 |

*(*): Egutegiaren arabera zuzendutako datuak.*
*Iturria: Geuk egina Eustaten eta Nafarroako Estatistika Institutuaren (NEI) datuetatik abiatuta.*

EAEren kasu zehatzean, IPIa % 2,1 hazi zen bitarteko ondasunetan (2021ean % 10,4), % 9,4 ekipo-ondasunetan (2021ean % 13,3) eta % 4,5 kontsumo-ondasunetan (2021ean % 12,0). Energiaren ekoizpenak izandako hobekuntza nabarmena azpimarratu behar da, 2021ean % 0,3koa izatetik 2022an % 11,2koa izatera igaro baitzen.

Nafarroako kasuan ere, jomuga ekonomiko gehienetako ekoizpenaren bilakaera positiboa izan arren, ekoizpen-erritmoa apur bat jaitsi zen 2021arekiko. Gainera, bitarteko ondasunen kasuan, ekoizpena pixka bat jaitsi zen 2022an (-% 1,7, eta 2021ean % 6,6ko hazkundea). Bestetik, ekipo-ondasunen ekoizpena % 4,6 hazi zen (2021ean % 13,8),

kontsumo-ondasunen ekoizpena % 3,0 igo zen (2021ean % 5,5) eta energiaren ekoizpena % 11,4 hazi zen 2022an, 2021ean (% 19,4) baino gutxiago.

Industria Ekoizpenaren Indizearen (IPI) bilakaera EAEko jarduera-adarren arabera aztertuta, sektore gehienetan ekoizpenak bilakaera positiboa izan zuela ikus daiteke.

Hala ere, honako hauen ekoizpenak izandako hazkunde ikaragarria nabarmendu zen: Koke-fabrikak eta petrolio-finketa (2022an % 16,5 eta 2021ean -% 0,1), Informatika- eta elektronika-produktuak (2022an % 7,0 eta 2021ean -% 4,4) eta Energia elektrikoa, gasa eta lurruna (2022an % 10,8 eta 2021ean % 0,7). Hala, 2022an horien suspertzea baieztatu zen, 2020an pandemiak izandako eraginaren ondoren.

Beste muturrean, ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta oinetakoak (%-0,1), Industria kimikoa (%-2,8), Kautxua eta plastikoak (%-0,4) eta Altzariak eta beste manufaktura-industriak ( % 0,2) daude, 2022an produkzio-erritmoan beherakada txiki bat izan dutenak 2021en izandako hazkunde nabarmenarekin alderatuz (% 33,7, % 13,7, % 11,0 eta % 27,0, hurrenez hurren).

**48. koadroa EAEko Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, jarduera-adarraren arabera***

*(%)*

| Kontzeptua | 2020 | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|
| Erauzketa-industriak | 2,6 | 3,9 | 0,2 |
| Elikagai, edari eta tabakoaren industriak | -7,1 | 7,0 | 1,6 |
| Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta oinetakogintza | -20,5 | 33,7 | -0,1 |
| Zura, papera eta arte grafikoak | -6,5 | 3,8 | -0,7 |
| Koke-fabrikak eta petrolio-finketa | -15,9 | -0,1 | 16,5 |
| Industria kimikoa | -9,3 | 13,7 | -2,8 |
| Farmaziako produktuak | 10,1 | 15,1 | 18,2 |
| Kautxua eta plastikoak | -13,4 | 11,0 | -0,4 |
| Metalurgia | -19,9 | 12,0 | 4,9 |
| Informatika- eta elektronika-produktuak | -9,7 | -4,4 | 7,0 |
| Material eta ekipo elektrikoa | -9,1 | 5,9 | 4,1 |
| Makineria eta ekipamendua | -7,0 | 14,8 | 11,0 |
| Garraiorako materiala | -15,1 | 10,5 | 10,3 |
| Altzariak eta beste manufaktura batzuk | -7,0 | 27,0 | 0,2 |
| Energia elektrikoa, gasa eta lurruna | -12,0 | 0,7 | 10,8 |

*(*): Egutegiaren arabera zuzendutako datuak.*
*Iturria: Eustat.*

**49. koadroa Nafarroako Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, jarduera-adarraren arabera**

*(%)*

| Kontzeptua | 2020 | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|
| Nekazaritzako elikagaien industria | -6,5 | 3,6 | 2,1 |
| Metalurgia eta produktu metalikoak | -10,9 | 17,8 | -0,8 |
| Papera, zura eta altzariak | -9,5 | 13,4 | -0,7 |
| Garraiorako materiala | -22,6 | -5,2 | 13,8 |
| Beste manufaktura-industria batzuk | -2,1 | 4,9 | -2,4 |

*Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua (NEI).*

Nafarroan 2022an erregistratutako bilakaera EAEkoaren antzekoa izan zen, eta industriako sektore gehienetan behera egin zuen ekoizpenaren hazkunde-erritmoak. Gainera, ekoizpen-jarduerak behera egin zuen honako hauetan: Metalurgia eta produktu metalikoak (2021ean % 17,8 eta 2022an -% 0,8), Papera, zura eta altzariak (% 13,4tik -% 0,7ra) eta Beste manufaktura-industria batzuk (% 4,9tik -% 2,4ra).

Dena den, garraiorako materialaren ekoizpenak hazkunde handia izan zuen. 2021ean -% 5,2ko jaitsiera izan zuen, eta 2022an % 13,8ko hazkundea. Hala, jarduera horren suspertzea baieztatu zen, pandemian zehar izandako eroriko handiaren ondoren.

## Enpresen emaitzak

Industria-jarduerak izandako moteltzeak eragina izan zuen euskal enpresen emaitzen kontuan ere, jarraian ikus daitekeen moduan:

**50. koadroa Ratio batzuen bilakaera, euskal industria-enpresen lagin baterako**

*(%)*

| Ratioak | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|---|---|
| Bitarteko kontsumoak/salmentak | 53,8 | 58,8 | 59,0 | 60,1 | 60,4 |
| Langileen kostuak/salmentak | 22,3 | 19,9 | 20,0 | 21,1 | 20,6 |
| Finantza-karga garbia/salmentak | 0,9 | 0,8 | -0,6 | -0,9 | -0,6 |
| Mozkinak/salmentak | 8,0 | 5,7 | -0,2 | 3,0 | 2,0 |
| Mozkinak/berezko funtsak | 15,6 | 10,5 | -0,4 | 6,3 | 4,7 |
| Cash flow/salmentak | 12,7 | 9,7 | 5,3 | 7,7 | 6,3 |
| Salmentak/langileak (m euro) | 174,5 | 230,9 | 214,4 | 226,9 | 166,2 |

*Iturria: CNMV eta geuk egina.*

Aztertutako EAEko enpresa industrial nagusien jardueraren analisiak erakusten duenez, jarduera moteldu egin zen 2021ean, pandemiaren ostean, erregistratutako suspertzearekin alderatuta. Enpresen emaitzak mantsotu egin ziren 2022an eta, testuinguru horretan, apur bat igo zen bitarteko kontsumoak/salmentak ratioa (% 60,4an kokatu zen, eta 2021ean % 60,1ekoa zen) eta apur bat jaitsi zen langile-kostuak/salmentak ratioa.

Zentzu horretan, Mozkinak/salmentak, Mozkinak/berezko funtsak eta Cash flow/salmentak ratioak % 2,0an (2021ean % 3,0), % 4,7an (2021ean % 6,3) eta % 6,3an (2021ean % 7,7) kokatu ziren 2022an, hurrenez hurren. Halaber, Salmentak/langileak (m euro) ratioak beherakada nabarmena izan zuen 2021etik 2022ra: 226,9 milioi eurotik 166,2 milioi eurora jatsi zen.

**9. grafikoa Industria-errentagarritasuna**




*Iturria: Geuk egina.*

Aurrez aipatutako euskal industria-enpresa nagusien laginaren emaitzetan ikusten den bilakaera bat dator Espainiako Bankuaren Hiruhilekoko Balantzeen Zentralak emandako emaitzekin. Emaitza horiek Espainiako 950 enpresa ez-finantzariok osatutako lagin batetik ateratakoak dira, 2022ko lehen hiru hiruhilekoetan bildutako datuen araberakoak. Enpresa horiek enpresa ez-finantzarioen sektorearen balio erantsi gordinaren % 12,7 ordezkatzen dute.

Balantzeen Zentralaren hiruhilekoko laginean jasotako informazioaren arabera, 2022ko lehenengo hiru hiruhilekoetan enpresen fakturazioak % 48,7ko hazkunde nominala izan zuen aurreko ekitaldiko aldi berarekin alderatuta; aurreko urtean, berriz, hazkundea % 16,2koa izan zen. 2022ko lehen hiru hiruhilekoetan erregistratutako hazkundea (orain arteko handiena) asko baldintzatu zuen salmenta-prezioen igoerak. Dinamika bera izan zuen bitarteko kontsumoen bilakaerak, aldi horretan izandako hazkunde-tasa are handiagoa izan baitzen, % 54,3koa. Izan ere, asko igo ziren energiaren eta beste lehengai batzuen kostuak. Ondorioz, 2022ko irailera arte % 21,1 hazi zen BEG (aurreko urtean % 12). Soberakin honek inoiz erregistratutako hazkunderik handiena da.

**51. koadroa Emaitzen kontua. Urte arteko bilakaera (enpresa berei dagozkien hazkunde-tasak, aurreko urteko aldi berarekiko)**

| OINARRIAK | Hiruhilekoko Balantzeen Zentrala(*) | | |
|---|---|---|---|
| | 2021 I-IV / 2020 I-IV | 2021 I- III / 2020 I- III | 2022 I- III / 2021 I- III |
| **Enpresa kopurua/ Nazioko guztizko estaldura** | **978/% 12,1** | **991/% 12,4** | **950/% 12,7** |
| 1. Produkzioaren balioa (diru-laguntzak barne) | 17,0 | 13,0 | 44,0 |
| Negozio-zifraren zenbateko garbia eta ustiapenaren bestelako diru-sarrerak | 21,1 | 16,2 | 48,7 |
| 2. Bitarteko kontsumoak (tributuak barne) | 18,8 | 13,5 | 54,3 |
| Erosketa garbiak | 29,9 | 22,4 | 71,0 |
| Beste ustiapen-gastu batzuk | 8,1 | 5,7 | 23,0 |
| S.1. BALIO ERANTSI GORDINA FAKTOREEN KOSTUAREKIKO (1-2) | 13,0 | 12,0 | 21,1 |
| 3. Langile-gastuak | 3,1 | 2,3 | 6,9 |
| S.2. USTIAPENAREN EMAITZA EKONOMIKO GORDINA (S.1.-3) | 28,4 | 27,2 | 38,5 |
| 4. Diru-sarrera finantzarioak | -28,6 | -17,5 | 62,6 |
| 5. Gastu finantzarioak | -4,1 | -8,2 | 11,2 |
| 6. Amortizazioak eta ustiapen-hornidurak | -4,0 | -2,1 | 4,7 |
| S.3. OHIKO EMAITZA GARBIA (S.2 + 4 –5 –6) | 33,9 | 84,1 | 94,7 |
| 7. Besterentzeen eta narriaduraren ondoriozko emaitzak | — | — | -24,5 |
| 8. Arrazoizko balioaren aldakuntzak eta gainerako emaitzak | — | 9,4 | — |
| 9. Mozkinen gaineko zergak | -6,4 | -2,6 | -7,0 |
| S.4. EKITALDIAREN EMAITZA (S.3 + 7 + 8 -9) | 140,9 | 89,6 | 15,0 |
| EKITALDIAREN EMAITZA / BEG (S.4 / S.1) | — | — | 68,2 |
| ERRENTAGARRITASUNAK | | | |
| R.1. Aktibo garbiaren ohiko errentagarritasuna (zergen aurretik) | 4,0 | 2,7 | 4,2 |
| R.2. Jasotako finantzaketa interesak/kostua duten besteren baliabideak | 1,7 | 1,6 | 1,6 |
| R.3. Baliabide propioen ohiko errentagarritasuna (zergen aurretik) | 5,9 | 3,5 | 6,3 |
| R.4. Aldea: errentagarritasuna – kostu finantzarioa (R.1. - R.2.) | 2,4 | 1,1 | 2,6 |

*(*): Zutabe horietako datu guztiak hiruhilekoko datuen batezbesteko haztatu moduan kalkulatu dira.*
*Iturria: Espainiako Bankua.*

Datuak sektoreka banatuta, BEG honako sektore hauetan igo zen gehien: industrian (% 32,6), finketaren azpisektoreak izandako hazkundeari esker, enpresa horiek haien salmenta-prezioetara eraman ahal izan zutelako petrolio gordinak izandako prezioaren igoera handia; merkataritza eta ostalaritzan (% 25,1); eta beste jarduera batzuk barne hartzen dituen multzoan (% 24,2), garraio enpresek izandako bilakaera onaren eraginez. Energiaren adarrean eta informazio eta komunikazioaren adarrean ere gora egin zuen BEGak, baina neurri txikiagoan: % 16,2 eta % 2,6, hurrenez hurren.

BEGak 2022an hazkunde nabarmena izan zuen arren, hirugarren hiruhilekoko datuek agerian uzten dute hazkunde-erritmo hori jaitsi egin zela aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Bilakaera hori bat dator jarduera ekonomikoak izandako desazelerazio handiarekin, aldi horretako BPGaren aurretiazko estimazioak erakusten duenez. Datuak sektoreka banatuta, jarduera-adar gehienek bilakaera bera izan zutela ikus daiteke. Bereziki, industriari eragin zion eta, neurri txikiagoan, merkataritza eta ostalaritzari eta garraioari.

Langile-gastuek urte arteko % 6,9ko hazkundea izan zuten 2022ko urtarrilaren eta irailaren artean. Batez besteko plantilla eraginkorren hazkundeak (% 3,6) eta ordainsarien igoerak (% 3,2) bultzatu zuten aipatutako bilakaera.

BEGaren igoera handiaren eta langile-gastuen igoera apalagoaren ondorioz, laginaren emaitza ekonomiko gordina asko hazi zen (% 38,5) 2022ko lehen hiru hiruhilekoetan. Hiruhilekoetako datuak jasotzen hasiz geroztiko aldakuntzarik handiena da. Industrian, aipatutako emaitza % 64,7 hazi zen. Dena den, petrolio-finketaren azpisektoreak izandako hazkundeak baldintzatu zuen emaitza hori. Izan ere, industriako azpisektore gehienetan murriztu egin zen emaitza ekonomiko gordina. Era berean, hazkundeak nabarmenak izan ziren merkataritza eta ostalaritzan (% 56,2) eta, neurri txikiagoan, energiaren sektorean (% 20,3) ere. Aldiz, informazioa eta komunikazioaren adarrean % 1,4 bakarrik hazi zen emaitza ekonomiko gordina.

2022ko urtarrilaren eta irailaren artean % 62,6 hazi ziren diru-sarrera finantzarioak, aurreko urtearekin alderatuta. Jasotako dibidenduek (% 75,5 hazi ziren) eta kobratutako interesek (% 33 hazi ziren) izandako bilakaeraren ondorioa izan zen hori. Bestetik, gastu finantzarioak % 11,2 hazi ziren, batez ere, zorpetze maila altuagoa zelako. Izan ere, 2022ko lehen hiru hiruhilekoetan aurreko urteko aldi berean baino apur bat handiagoa izan zen enpresen zor biziaren batez besteko kostua. Kostu horren hiruhilekoko bilakaerak erakusten duenez, gora egin zuen urtean zehar. 2022ko lehen hiruhilekoan % 1,5ekoa zen eta, hirugarren hiruhilekoan, % 1,7koa. Horrek esan nahi du merkatuko interes-tasen igoera pixkanaka aplikatzen joaten dela, interes-tasa aldakorreko finantzaketa-baldintzak eguneratzen diren heinean edo amaitutako zorrak berritzen diren heinean.

Horren guztiaren ondorioz, ohiko emaitza garbia ia bikoiztu egin zen 2022ko lehenengo bederatzi hilabeteetan zehar (% 94,7). Horri esker, lagina osatzen duten enpresek pandemiaren aurretiko ohiko emaitza garbiaren antzekoa erregistratu zuten.

## 2. ENERGIA

2022ko azaroaren 6tik 18ra Aldaketa Klimatikoari buruzko Konferentzia (COP27) egin zuten Nazio Batuek Sharm el Sheikhen (Egipto), "Ezarpenerako elkarrekin" lelopean. COP27k 35.000 pertsona baino gehiago bildu zituen: gobernuen ordezkariak, behatzaileak eta gizarte zibila. Ideiak eta irtenbideak partekatu zituzten, eta aliantzak eta koalizioak sortu zituzten.

Hala, krisi energetikoa areagotzen ari den honetan, berotegi-efektuko gasen kontzentrazioa inoiz baino handiagoa den honetan eta muturreko fenomeno meteorologikoak ugaritzen ari diren honetan, 2015eko Pariseko Hitzarmenen historikoan eskuratutako akordioak berritzea izan zen COP27ren helburua. Hortaz, mundu mailako tenperatura industriaren aurreko maila baino 1,5 gradu zentigradu gehiagora mugatzeko konpromisoa berretsi zuten parte-hartzaileek. Hala, herrialdeen ekimena indartu zuten berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko eta aldaketa klimatikoaren ondorio saihestezinetara egokitzeko. Dena den, COP27k ez zuen apenas aurrerapausorik eman berotze globalaren arrazoiekin lotutako beste gai giltzarri batzuetan, bereziki, erregai fosilen desagertze progresiboarekin lotuta.

Hala ere, akordio erabakigarria lortu zuen COP27k, hondamendi klimatikoek gogor astindutako herrialde zaurgarriei finantzaketa emateko, "galera eta kalteengatik". Gobernuek, era berean, «trantsizio-batzorde» bat ezartzea adostu zuten, finantzaketari eta funtsei buruzko akordio berriak datorren urteko COP28an nola martxan jarri gomendatzeko. Halaber, kezka handia adierazi zuten kideek, 2020rako denen artean urtean 100.000 milioi USD mobilizatzeko helburua ez delako bete oraindik, eta helburu hori betetzeko presatu zituzten herrialde garatuak. Gainera, klimarentzako finantzaketa mobilizatzeko eskatu zieten garapenerako banku multilateralei eta nazioarteko finantza-erakundeei.

Beste gauza batzuen artean, Goi Mailako Aditu Taldearen lehen txostena aurkeztu zuten, Estatu mailakoak Ez diren Erakundeen Zero Emisio Garbien Konpromisoei buruzkoa (greenwashing deritzona salatzen du). Era berean, bost sektore handiren Deskarbonizazioa Azkartzeko Plan Maisua aurkeztu zuen COP27ko Egiptoko presidentetzak; honakoak dira bost sektore horiek: energia, errepide bidezko garraioa, altzairua, hidrogenoa eta nekazaritza. Gainera, lehen aldiz, Goi-bilerak nekazaritzari buruzko egun bat izan zuen. Izan ere, berotegi-efektuko emisioen heren bat nekazaritzari dagokio, eta irtenbidearen funtsezko zatia izan behar du.

EBren energia-politikari dagokionez, hiru helburu nagusi izaten jarraitzen du: hornikuntza-segurtasuna, lehiakortasuna eta jasangarritasuna. Dena den, 2030erako, EBk gai izan beharko luke honakoetarako:

- Negutegi-efektuko gasen emisioak 2030erako, gutxienez, % 55 murrizteko, eta 2050erako % 80-95, 1990eko mailarekin alderatuta.
- Energiaren % 32, gutxienez, berriztagarria izateko.
- Eta eraginkortasun energetikoa, gutxienez, % 32,5 hobetzea lortzeko.

Halaber, 2021eko apirilean, Europako Kontseiluak eta Parlamentuak behin-behineko akordio bat erdietsi zuten Klimari buruzko Europako Legearen gainean. 2030erako emisioak gutxitzeko helburua legealdian lortzea da haren helburua. EBko ministroek 2021eko ekainean ezarri zuten akordioa.

Anbizio klimatiko handiago honek, EBko industria eraldatu beharraz gain, honakoak lortuko ditu:

- Hazkunde ekonomiko jasangarria bultzatzea.
- Enplegua sortzea.
- Osasun eta ingurumen arloan onurak sortzea EBko hiritarrentzat.
- EBko ekonomiak mundu mailan duen epe luzeko lehiakortasunari laguntzea, teknologia ekologikoen arloko berrikuntza sustatzearen bidez.

## 2.1. EAEKO BALANTZE ENERGETIKOA

Energiaren Euskal Erakundea (EEE) arduratzen da jarraian aurkeztuko dugun balantze energetikoa egiteaz. Eurostaten metodologia erabiltzen du EAEko balantze energetikoa kalkulatzeko. Balantze horretan, energia mota ezberdinen jarraipen xehea azaltzen da: jatorria (erauzketa edo inportazioa), eraldaketa eta kontsumoa. Hala, balantzea bi ataletan bereizten da. Lehenengo atalean (1-5 puntuak) lehen mailako iturrien energia-hornikuntza jasotzen da, erauzketak (1. Lehen mailako energiaren ekoizpena) eta inportazioak (2. Sarrera guztiak) kontuan izanda. Kopuru horien guztizkoa stocken mugimenduarekin (3), esportazioekin (4) eta itsas-garraioarekin (5) doitzen du, eta emaitza barne-kontsumorako eskuragarri dagoen energia da (6. puntua=1+2+3-4-5). Balantzearen bigarren atalak energiaren eraldaketa-prozesuak eta kontsumorako erabilgarri dagoen energia hartzen ditu kontuan (12=6-7+8+9-10-11), konbertsio-prozesuen (7 eta 8), trukeen (9), energia-sektorearen kontsumoaren (10) eta galeren (11) ostean. Kontsumorako eskuragarri dagoen energiari (12) azken kontsumo ez-energetikoa (13) kendu ondoren, azken kontsumo energetikoa geratzen zaigu (14).

**52. koadroa EAEko balantze energetikoa (2022)**

*(ktep)*

| Sektorea | Ikatza eta deribatuak | Petrolioa eta deribatuak | Gas naturala | Energia deribatuak | Energia berriztagarriak | Energia elektrikoa | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. Lehen mailako energiaren ekoizpena | 0 | 0 | 0 | 23 | 652 | 0 | 675 |
| 2. Sarrera guztiak | 0 | 8.643 | 5.000 | 0 | 3 | 439 | 14.103 |
| 3. Stocken mugimendua | 0 | 92 | -448 | 0 | 0 | 0 | -356 |
| 4. Irteera guztiak | 0 | 5.698 | 2.105 | 0 | 58 | 0 | 7.861 |
| 5. Bunkerrak (itsas-garraioa) | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| *6. Barne-kontsumo gordin erabilgarria | 18 | 3.037 | 2.447 | 23 | 597 | 439 | 6.561 |
| 7. Eraldaketara sarrerak | 0 | 8.792 | 1.391 | 9 | 131 | 0 | 10.322 |
| 7.1. Zentral termoelektrikoak | 0 | 30 | 1.151 | 0 | 44 | 0 | 1.226 |
| 7.2. Kogenerazioa | 0 | 26 | 197 | 9 | 87 | 0 | 318 |
| 7.3. Koke-fabrikak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 7.4. Findegiak | 0 | 8.736 | 43 | 0 | 0 | 0 | 8.779 |
| 8. Eraldaketatik irteerak | 0 | 8.634 | 0 | 0 | 0 | 806 | 9.440 |
| 8.1. Zentral termoelektrikoak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 644 | 644 |
| 8.2. Kogenerazioa | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 162 | 162 |
| 8.3. Koke-fabrikak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 8.4. Findegiak | 0 | 8.634 | 0 | 0 | 0 | 0 | 8.634 |
| 9. Trukeak | 0 | 0 | 0 | 0 | -62 | 62 | 0 |
| 10. Sektore energetikoaren kontsumoa | 0 | 401 | 86 | 0 | 0 | 109 | 595 |
| 11. Garraio eta banaketako galerak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 42 | 42 |
| **12. Azken kontsumorako erabilgarri dagoena | 18 | 2.479 | 970 | 14 | 404 | 1.156 | 5.042 |
| 13. Azken kontsumo ez-energetikoa | 0 | 139 | 0 | 0 | 0 | 0 | 139 |
| *****14. Azken kontsumo energetikoa** | **18** | **2.340** | **970** | **14** | **404** | **1.156** | **4.903** |

*Behin-behineko datuak.*
** 6=1+2+3-4-5*
*** 12=6-7+8+9-10-11*
****14=12-13*
*Iturria: Energiaren Euskal Erakundea (EEE)*

EEEk emandako informazioaren eta 2022ko balantze energetikoaren arabera (behin-behineko datuak), EAEko energiaren amaierako kontsumoa 4.903 mila tepekoa izan zen, 2021eko mailaren oso antzekoa (-% 0,4). Barneko kontsumo gordina, berriz, 6.561 mila tepekoa izan zen, % 2,1eko hazkunde txikia izan ondoren.

**53. koadroa EAEko azken kontsumoa energia moten arabera**

*(ktep)*

| Sektorea | 2020 | 2021 | 2022 | % ∆ 22/21 |
|---|---|---|---|---|
| Ikatza eta deribatuak | 17 | 26 | 18 | -30,8 |
| Petrolioa eta deribatuak | 2.036 | 2.198 | 2.340 | 6,5 |
| Gas naturala | 914 | 1.067 | 970 | -9,1 |
| Energia deribatuak | 13 | 12 | 14 | 16,7 |
| Energia berriztagarriak | 382 | 408 | 404 | -1,0 |
| Energia elektrikoa | 1.110 | 1.212 | 1.156 | -4,6 |
| **Guztira** | **4.472** | **4.923** | **4.903** | **-0,4** |

*Iturria: EEE. Geuk egina.*

Informazioa energia-iturriaren arabera banakatuta, 2022an berriz ere igo zen petrolioaren eta deribatuen kontsumoa (+% 6,5), eta horiei zegokien amaierako guztizko kontsumoaren ia erdia (% 47,7). Bigarren eta hirugarren lekuan, antzeko pisu erlatiboekin, energia elektrikoa (% 23,6) eta gas naturala (% 19,8) kokatu ziren. Biek atzera egin zuten 2021eko balioekin alderatuta (-% 4,6 eta -% 9,1). Energia berriztagarrien kontsumoa aurreko ekitaldikoaren ia berdina izan zen (-% 1,0) eta horien parte-hartzea askoz ere txikiagoa izan zen (% 8,2). Bestetik, ikatza eta deribatuen ekarpena (% 0,4) eta energia deribatuen ekarpena (% 0,3) hondarrekoa izan zen ia.

**10. grafikoa EAEko azken kontsumoa energia moten arabera (ktep)**




*Iturria: Energiaren Euskal Erakundea (EEE)*

Informazioaren analisian sakonduz eta sektoreen araberako kontsumo energetikoari dagokionez, garraioa nabarmendu zen, bai haren pisu espezifikoagatik (% 44,4), bai urte arteko aldakuntzagatik (+% 6,3). Kontsumoak goranzko bilakaera izan zuen sektore bakarra izan zen. Industria izan zen energiaren bigarren kontsumitzailerik handiena (% 35,6ko partaidetza), eta % 4,7ko beherakada izan zuen. Behera egin zuten etxebizitza-sektoreak (% 11,4 eta -% 7,5) eta zerbitzuen sektoreak ere (% 8 eta -% 1,5). Azkenik, lehen sektorearen kontsumoak behera egin zuen ondoz-ondoko bigarren urtez, eta 2021ean baino neurri handiagoan (2021ean -% 9,3 eta 2022an -% 31,0); hala, haren partaidetza % 0,5era jaitsi zen.

**54. koadroa EAEko azken kontsumoa sektoreen arabera**

*(ktep)*

| Sektorea | 2020 | 2021 | 2022 | % ∆ 22/21 |
|---|---|---|---|---|
| Lehen sektorea | 43 | 39 | 27 | -31,0 |
| Industria | 1.531 | 1.830 | 1.745 | -4,7 |
| Garraioa | 1.935 | 2.050 | 2.179 | 6,3 |
| Zerbitzuak | 395 | 400 | 394 | -1,5 |
| Etxebizitzak | 568 | 604 | 558 | -7,5 |
| **Guztira** | **4.472** | **4.923** | **4.903** | **-0,4** |

*Iturria: EEE. Geuk egina.*

Halaber, eta aurreko txostenetan azaldu bezala, 2030erako Euskadiko Energia Estrategiak zehaztuko du datozen urteetarako euskal politika energetikoa. Hala, EEEk argitaratutako informazioaren arabera, estrategia horren epe luzerako helburua geroz eta jasangarriagoa izango den sistema energetikoa lortzea da: lehiakorragoa, hornidura bermatzen duena eta karbono maila baxukoa.

Horretarako, hauek dira 2050erako finkatutako helburuak:

- Euskadiren negutegi-efektuko gasen emisioak, gutxienez, % 40 murriztea 2030erako, eta % 80 2050erako, 2005eko mailarekin alderatuta.
- 2050erako, amaierako kontsumoaren % 40 energia berriztagarria izatea.
- Euskal Herriaren klima-aldaketarekiko erresilientzia bermatzea.

Klima-aldaketaren arintzea eta negutegi-efektuko gasen emisioen murrizketa hain zuzen ere aurreztearekin, energia-eraginkortasunarekin eta energia berriztagarriekin oso lotuta dagoenez, 2050erako Klima Aldaketaren Euskadiko Estrategiak hurrengo jarraibideak ezartzen ditu Estrategia Energetikoaren helburuak lortzeko:

- Energia-eraginkortasuna hobetzea eta eskari energetikoa kudeatzea.
- Energia berriztagarriak sustatzea.
- Hirietan energia-eraginkortasun eta energia berriztagarriekin lotutako irizpideak sustatzea, "emisiorik gabeko eraikuntzara" hurbiltzeko.
- Intermodalitatea eta negutegi-efektuko gas gutxien isurtzen dituzten garraiobideak sustatzea.
- Petrolioaren deribatuen kontsumoa ordezkatzea.
- Karbono baxuko eredu energetiko baten alde egitea.
- Emisiorik gabeko garraiorako aurrerapausoak ematea.
- Lehen sektorearen emisioak murriztea.
- Berrikuntza sustatzea, eta ezagutza zientifikoa hobetzea eta transferitzea.

EEEk ebaluazio-txosten bat argitaratu du, lehen aldiz, 2030eko Euskadiko Energia Estrategiaren baitako 2016-2021 aldian egindako jardueren jarraipena egiteko. Txostenak ondorioztatzen duenez, lortutako aurrerapenak energia-eraginkortasunaren arloan

aurreikusitakotik gertu daude, eta aurreikusitako energia berriztagarrien aprobetxamendu mailatik gora. Dena den, petrolioaren deribatuen kontsumoaren murrizketa txikiagoa izaten ari da garraioan, pandemiaren osteko suspertzearen ondoren. 2021. urtearen amaieran metatutako aurrerapen maila orokorra % 31,3koa zen, hau da, urte horretarako aurreikusitako helburuaren % 90.

Halaber, Euskadiko Energia Estrategiaren ildotik eta Europako Itun Berdearekin (European Green Deal) bat eginez, Basque Green Deal aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzak: garapen ekonomiko justu eta jasangarri baterako euskal eredua. Europar Batasunak proposatutako Europako Itun Berdearen espiritua berreskuratzean datza, 2050ean Europar Batasunak neutraltasun klimatikoa lortzea ahalbidetuko duen hazkunde-estrategia baten gisa.

Eusko Jaurlaritzak argitaratutako informazioaren arabera, Basque Green Dealek barne hartzen ditu emisioak murrizteko eta energia berriztagarriak sortzeko helburuak, baina ez da alderdi horietara mugatzen. Izan ere, industria eta teknologia palanka nagusi dituen eredu ekonomiko gisa jaio da. Hortaz, zientzia, teknologia, ekonomia zirkularra, industria, trantsizio energetikoa edo elikagaien katea bera helburu baten bueltan lerrokatzen dira: garapen justua eta jasangarria.

Hauek dira Europako Itun Berdearen oinarri nagusiekin lerrokatutako lan-ildoak:

- Energia berriztagarrien aldeko apustua:
    - Ekiola, energia fotovoltaikorako kooperatibak sortzea
    - Energia berriztagarriei buruzko Lurralde Plan Sektoriala
    - Parke eoliko berriak
    - Gauzatu Energia programa, Euskadiko udalerrietan energia berrien arloko inbertsioak finantzatzeko
- Industria jasangarria:
    - Ekonomia Zirkularrari buruzko Hub-a
    - Basque Ecodesign Centre
    - Karbono-aztarna murrizteko tresna

## 2.2. ENERGIA ELEKTRIKOA

Errusiaren eta Ukrainaren arteko gerra-gatazkak markatu zuen 2022ko ekitaldia, eta, ondorioz, asko igo ziren lehengaien eta energiaren prezioak. Energiaren amaierako batez besteko prezioa 204,79 €/MWh-koa izan zen Estatuko merkatu elektrikoan, historiako baliorik altuena, 2021eko prezioaren ia bikoitza eta 2018ko eta 2019ko prezioen hirukoitza baino handiagoa.

Hortaz, testuinguru horretan, kostuak altuak ziren eta, ziurgabetasuna, handia. Ondorioz, Estatuko eskari elektrikoa[1] murriztu egin zen (-% 2,4), 250.421 GWh-ra arte. Hala, aurreko biurtekoan baino askoz ere txikiagoa izan zen eskaria. Energia elektrikoaren ekoizpena, berriz, % 6,3 hazi zen eta 276.315 GWh-ra iritsi zen 2022an.

Energia motaren araberako ekoizpenari dagokionez, energia berriztagarrien ekoizpena 116.583 GWh-koa izan zen, aurreko urtean baino apur bat baxuagoa (-% 4). 2022an Estatuko ekoizpen osoaren % 42,2 zegokion (2021ean errekorra eskuratu zuen: % 46,7). Energia eolikoa energia elektrikoaren iturri nagusia izan zen 2021ean, eta bigarren postuan kokatu zen 2022an (ziklo konbinatuaren ondoren). Hala, % 22,1eko pisu espezifikoa izan zuen, 2021arekiko ia aldakuntzarik gabe (+% 1,1). Eguzki-energia fotovoltaikoak eta energia hidraulikoak ere partaidetza handia izan zuten (% 10,1 eta % 6,5, hurrenez hurren), eta aurkako bilakaerak izan zituzten (+% 32,8 eta -% 39,7). Hala, honako hauek osatu zuten energia berriztagarrien ekoizpena: energia hidroeolikoa, beste energia berriztagarri batzuk, hondakin berriztagarriak eta eguzki-energia termikoa. % 0,1 eta % 1,7 arteko pisu erlatiboak izan zituzten horiek.

Bestetik, energia ez-berriztagarrien ekoizpena[2] % 15,3 hazi zen aurreko urtetik, eta 159.733 GWhra iritsi zen; ondorioz, % 57,8ko partaidetza erregistratu zuen (ehuneko +4,5 puntu 2021arekiko). Energia ez-berriztagarrien kasuan, ziklo konbinatuaren bilakaera nabarmendu zen. Energia elektrikoaren sorkuntzaren buruan kokatu zen 2022an (guztizkoaren % 24,7), urte arteko hazkunde nabarmena izan ondoren (+% 53,1). Oso distantzia laburrera kokatu zen energia nuklearra (% 20,3), 2022an gutxi hazi zena (+% 3,6). Kogenerazioaren ekarpena askoz ere txikiagoa izan zen (% 6,4), asko murriztu baitzen (-% 31,9). Gainerako energien partaidetza askoz ere txikiagoa izan zen: ikatza, turbina-ponpaketa, gas- eta lurrun-turbinak, diesel motorrak, fuel-olioa eta gasa, edota hondakin ez-berriztagarriak.

Hori guztia kontuan hartuta, 5,9 GW-ko potentzia berri berriztagarria sortu zen. Energia eolikoaren eta eguzki-energia fotovoltaikoaren ekoizpenak gehieneko balioak erregistratu zituzten eta horrek, neurri batean, konpentsatu egin zuen ekoizpen hidraulikoaren jaitsiera, gutxieneko balioetatik gertu kokatu baitzen. Hala, Red Eléctricaren estimazioen arabera, 2023a urte giltzarria izango da trantsizio ekologikorako, eta urteko ekoizpen elektrikoaren % 50era iritsi daiteke energia berriztagarrien ekoizpena.

Analisi hori bera Euskal Herrira ekarrita, eta Iberdrolak emandako informazioaren arabera, energia elektrikoaren ekoizpena ez zen batere hazi 2022an, eta 2.545,2 milioi kWh-koa izan zen (-% 0,7). Aldiz, guztizko kontsumoa hazi zen (+% 4,2), 7.458,9 milioi kWh-ra iritsi arte. Horren guztiaren ondorioz, auto-sorkuntzaren tasa % 34,12ko izan zen.

---

[1] Red Eléctrica de Españaren urteko txostena, 2022.

[2] Ez-berriztagarriak: turbina-ponpaketa, nuklearra, ikatza, fuel-olioa/gasa, ziklo konbinatua, kogenerazioa eta hondakin ez-berriztagarriak.

**55. koadroa** **Energia elektrikoaren ekoizpena eta eskaria Euskal Herrian**

*(M kWh)*

| Urtea | Ekoizpena, guztira<br>Hidraulikoa<br>1 | Termikoa<br>2 | Eolikoa<br>3 | Mini hidraulikoa<br>4 | Kogenerazioa<br>5 | Guztira: (1+2+3+4+5)<br>6 | Kontsumo guztia<br>7 | Auto-sorkuntzaren %<br>(6/7) x 100 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2019 | 340,1 | 106,3 | 312,8 | 10,5 | 459,8 | 1.229,5 | 7.189,7 | 17,10 |
| 2020 | 283,3 | 664,5 | 347,9 | 23,8 | 370,0 | 1.689,6 | 7.090,5 | 23,80 |
| 2021 | 297,7 | 1.267,9 | 555,1 | 26,6 | 415,3 | 2.562,6 | 7.160,1 | 35,80 |
| 2022 | 218,1 | 1.378,8 | 571,0 | 8,3 | 368,9 | 2.545,2 | 7.458,9 | 34,12 |

*'turria: Iberdrola.*

Ekoizpen-datuetan sakonduta, energia motaren arabera urte arteko aldakuntzak ezberdinak izan zirela ikus daiteke. Hala, ekoizpen termikoa (+% 8,8 eta % 54,2ko pisua) eta eolikoa (+% 2,9 eta % 22,4ko partaidetza) nabarmendu ziren, haien bilakaeragatik eta guztizkoari egindako ekarpenagatik. Bestalde, kogenerazioaren eta energia hidraulikoaren ekoizpen mailek behera egin zuten 2022an (-% 11,2 eta -% 26,7). Ekoitzitako energia guztiaren % 14,5 eta % 8,6 zegokien, hurrenez hurren. Mini-hidraulikoak osatu zuen ekoizpen-mapa, presentzia ia hutsalarekin (% 0,3); gainera, haren ekoizpena nabarmen murriztu zen 2022an (-% 68,8).

Lurralde bakoitzak energiaren ekoizpenari egindako ekarpenari dagokionez, Bizkaia nabarmendu zen, 2022an ekoizpen termikoari egin zion ekarpenagatik. Ekoizpen osoaren ia % 80aren erantzulea izan zen (+% 35,3) eta Nafarroak osatu zuen mapa (% 20,7), balioak nabarmen murriztuta (-% 37,8). Energia eolikoaren kasuan ere Bizkaia nabarmendu zen, izan zuen bilakaeragatik (+% 17,6 eta %11,3ko partaidetza). Era berean, gora egin zuen Gipuzkoaren ekoizpenak (+% 21,2 eta % 15,2). Dena den, Nafarroa eta Araba izan ziren Euskal Herrian energia eoliko gehien ekoitzi zuten lurraldeak (% 46,4 eta % 27,1), 2022an haien ekoizpen-gaitasuna apur bat murriztu zen arren (-% 2,4 eta -% 1,5). Ekoizpen hidraulikoaren bilakaerari dagokionez, lurralde guztietako zifrak murriztu ziren modu nabarmenean. Dena den, Bizkaia buruan mantendu zen, jardueraren % 42,3arekin (-% 33,4). Jarraian, Araba (% 35,2 eta -% 25,9), Nafarroa (% 16,6 eta -% 35,1) eta Gipuzkoa (% 6) kokatu ziren. Gipuzkoaren kasuan, 2021ean ez zuen mota horretako energiarik ekoitzi, eta 2022an ekoizpena berreskuratu zuen. Kogenerazioaren kasuan, Araba izan zen ekoizpen-mapako lurralde nagusia, ekoizpenaren % 92arekin, % 7,5eko murrizketa izan zuen arren. Nafarroak (% 5,2) eta Gipuzkoak (% 3,3) ordezkaritza txikia izan zuten, eta, gainera, ia % 40ko jaitsierak izan zituzten. Azkenik, mini-hidraulika Araban bakarrik garatu zuten eta haren ekoizpena murriztu egin zen (-% 19,5); Gipuzkoako ekoizpen-mapatik desagertu egin zen.

Kontsumoari dagokionez, eskaria 7.458,9 milioi kWh-ra igo zen (+% 4,2), eta Araba (+% 11,1) eta Nafarroa (+% 6,4) izan ziren hazkunde horretara gehien lagundu zutenak.

**56. koadroa Energia elektrikoaren kontsumo garbia lurraldearen arabera**

*(M kWh)*

| Lurraldea | 2019 | 2020 | 2021 | 2022(1) | % ∆ 22/21 |
|---|---|---|---|---|---|
| Araba | 1.166,3 | 977,1 | 1.069,6 | 1.188,8 | 11,1 |
| Bizkaia | 2.410,1 | 2.532,1 | 2.514,8 | 2.549,5 | 1,4 |
| Gipuzkoa | 1.710,8 | 1.661,4 | 1.687,6 | 1.712,7 | 1,5 |
| EAE | 5.287,3 | 5.170,6 | 5.272,0 | 5.451,0 | 3,4 |
| Nafarroa | 1.902,4 | 1.919,9 | 1.888,1 | 2.007,9 | 6,4 |
| Euskal Herria(2) | 7.189,7 | 7.090,5 | 7.160,1 | 7.458,9 | 4,2 |

*(1): Behin-behineko datuak.*

*(2): Fakturatutako energia elektrikoa. Ez da kontuan hartzen Iberdrola ez den beste hornitzailerik, ezta Iberdrolaren kontsumoa ere.*

*Iturria: Iberdrola.*

Kapituluarekin amaitzeko, Iberdrolak 2022rako emandako zifra nagusiak bilduko ditugu jarraian. Hamarnaka herrialdetako ia 100 milioi pertsona energiaz hornitzen dituen taldea da, 600.000 akziodun baino gehiago dituena. 40.000 langile baino gehiago ditu, eta 155.000 milioi eurotik gorako aktiboak.

Hala, enpresak argitaratutako informazioaren arabera, historiako ekitaldirik onena izan zen 2022a, 4.339 milioi euroko etekin garbiak izan baitzituen. Dena den, Espainian % 19 murriztu ziren emaitzak, neurri erregulatzaileen eta fiskalen ondorioz, eta enpresak ez dielako bezeroei egotzi kostuen igoera.

Hortaz, Estatu Batuen eta Brasilen hazkundeari esker, Espainiako jaitsiera konpentsatu zuen enpresak. Hala, EBITDA % 10 hazi zen, 13.228 milioi eurora arte. Halaber, kutxako fluxua % 25 hazi zen, 11.123 milioira iritsi arte. Hortaz, enpresak 23.500 milioi euroko likidezia zuen.

Bestetik, inbertsioak % 13 hazi ziren, 10.730 milioi eurora iritsi arte. Guztizkoaren % 38 Europar Batasunera bideratu zuten (ia 3.000 milioi Espainiara eta 1.200 milioi beste herrialde batzuetara, hala nola Alemaniara, Frantziara edo Portugalera), % 25 Estatu Batuetara, % 20 Latinoamerikara eta % 13 Erresuma Batura. Inbertsioaren % 90 berriztagarrietara eta sare adimendunetara bideratu zuten, elektrifikazioa azkartzeko eta autonomia energetikoa sustatzeko, horiek baitira enpresaren lehentasunezko helburuak.

Hori guztia kontuan hartuta, krisi energetikoak eta mundu mailako hornikuntza-kateen zailtasunek markatutako urte honetan, enpresak jarduera eta enplegua sortzen jarraitu zuen, 17.800 milioi euroko balioa (errekorra) zuten erosketen bidez.

Mundu mailako krisiaren testuinguru honetan, elektrifikazioa azkartzeko beharra inoiz baino nabarmenagoa dela adierazi du enpresak, erregai fosilekiko mendekotasuna gutxitzeko biderik eraginkorrena delako. Ildo beretik, 2023-2025 aldirako Plan Estrategikoaren eguneraketak 47.000 milioi euroko inbertsioak aurreikusten ditu,

trantsizio energetikoa bultzatzeko. Guztizko horretatik, 27.000 miloi euro bideratuko dituzte Sareen jarduerara, eta berriztagarrien inbertsioak 17.000 milioi eurora iritsiko dira.

Hala, 2025erako 16.500 eta 17.000 milioi euro arteko ustiapeneko irabazi gordina (EBITDA) eskuratzea aurreikusten du Iberdrolak –urte arteko batez besteko % 8 eta % 9 arteko igoera–. Era berean, 2025ean 5.200 eta 5.400 milioi euro arteko irabazi garbia eskuratzea aurreikusten du –urte arteko % 8 eta % 10 arteko hazkundea, batez beste–.

# 3. SIDERURGIA

## 3.1 IKUSPEGI OROKORRA

Errusia-Ukraina gerra-gatazkak markatu zuen 2022a. Horrek areagotu egin zuen 2021ean hasitako mundu mailako krisi energetikoa eta, ondorioz, inflazioa asko igo da merkatu guztietan. Inflazioaren igoerak inpaktu berezia izan du sektore siderurgikoan.

Europan, agintariek larrialdietarako hainbat neurri onartu zituzten krisi energetikoari aurre egiteko. Neurri horien artetik, "salbuespen iberiarra" nabarmentzen da; prezioen igoerari eustea ahalbidetu zuen neurri horrek Espainian eta Portugalen, kostu energetikoak erlaxatzea erraztu zuen mekanismo baten bidez. Ondorioz, merkatu elektrikoan arindu egin zen inflazioa. Gainera, Karbonoaren Mugak Doitzeko Mekanismoa (CBAM) onartzeko izapideak hasi zituzten. Emisio Eskubideen Salerosketa Sistemaren (ETS) erreforma onartzeko izapideak ere hasi zituzten, eta 2023aren amaierarako aurreikusten da.

Bestetik, *World Steel Association*en ustez, karbono maila baxua duten altzairuzko produktuen salerosketa bideragarria izango den merkatuak garatzeko aukera emango duten teknologiak ezarri behar ditu industria siderurgikoak. Alde horretatik, epe luzerako jasangarritasunaren aldeko konpromisoa mantentzen du elkarteak eta haren politikak eguneratzen jarraitzen du arlo hauetan: ingurumena, segurtasuna, osasuna, hezkuntza eta prestakuntza eta gobernu etikoa, besteak beste. Hala, Pariseko Hitzarmenaren[1] esparruan dituzten helburuak indartu ditu.

Sektoreak 2022an izandako bilakaerari dagokionez, eta *World Steel Association* elkarteak argitaratutako datuen arabera, jarduera siderurgikoaren hazkunde-erritmoa jaitsi egin zen nazioartean eta bilakaera negatiboa izan zuten mundu mailako altzairu gordinaren ekoizpenak zein produktu siderurgikoen kontsumoak.

Hala, 2022an zehar, mundu mailako altzairu gordinaren ekoizpena 1.885,4 milioi tonakoa izan zen eta, kontsumoa, 1.768,2 milioi tonakoa. Horrek esan nahi du altzairuaren ekoizpenak urte arteko % 3,9ko jaitsiera izan zuela eta, mundu mailako altzairuaren kontsumoak, urte arteko % 4,0ko jaitsiera.

---

[1] Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmeneko (COP21) kideek 2015ean Parisen egindako batzarra. Lehen aldiz, herrialde garatuek zein garapen-bidean daudenek konpromisoa hartu zuten berotegi efektuko gasen isurpenak murrizteko, batez ere, karbono dioxidoaren (CO2) isurpenak. 2015ean 195 naziok sinatu zuten eta, 2021aren hasieran, 189k berretsi zuten.

**57. koadroa** **Altzairu gordinaren ekoizpena**

| Herrialdea | 2021 | | | 2022 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | M Tm | % Δ | % | M Tm | % Δ | % |
| AEB eta Kanada | 98,8 | 18,0 | 5,0 | 92,6 | -6,3 | 4,9 |
| Japonia | 96,3 | 15,7 | 4,9 | 89,2 | -7,4 | 4,7 |
| Txina | 1.035,2 | -2,8 | 52,8 | 1.018,0 | -1,7 | 54,0 |
| India | 118,2 | 17,8 | 6,0 | 125,3 | 6,0 | 6,6 |
| Alemania | 40,2 | 12,6 | 2,0 | 36,8 | -8,5 | 2,0 |
| Italia | 24,4 | 19,6 | 1,2 | 21,6 | -11,5 | 1,1 |
| Frantzia | 13,9 | 19,8 | 0,7 | 12,1 | -12,9 | 0,6 |
| Erresuma Batua | 7,2 | 1,4 | 0,4 | 6,0 | -16,7 | 0,3 |
| Espainia | 14,2 | 29,1 | 0,7 | 11,5 | -19,0 | 0,6 |
| EB-27 | 152,8 | 9,7 | 7,8 | 136,2 | -10,8 | 7,2 |
| **Mundu osoa** | **1.962,3** | **4,4** | **100,0** | **1.885,4** | **-3,9** | **100,0** |

*turria: World Steel Association*

Herrialdeen araberako analisiak erakusten duenez, herrialde gehienetan izan zuen bilakaera negatiboa altzairuaren ekoizpenak. Hala, Txina mantendu zen herrialde ekoizle nagusi gisa (guztizkoaren % 54,0), eta 1.018,0 milioi altzairu ekoitzi zuen urtean zehar. Bigarren lekuan India kokatu zen, ekoizpen askoz ere baxuagoarekin: 125,3 milioi tona altzairu (% 6,6). Herrialde ekoizle nagusien hirugarren postuan, berriz, AEB eta Kanada kokatu ziren, 92,6 milioi tonarekin (guztizkoaren % 4,9).

Azterketa eremua hurbilduz gero, EB-27k 136,2 miloi tona altzairu ekoitzi zituen, mundu osoan ekoitzitako altzairu guztiaren % 7,2: Alemania kokatu zen Europako rankingaren buruan (36,8 milioi tona), eta jarraian, hauek: Italia (21,6 milioi tona), Frantzia (12,1 milioi tona), Espainia (11,5 milioi tona) eta Erresuma Batua (6,0 milioi tona). Horiek dira Europa mailan altzairu-ekoizpen handiena duten herrialdeak.

Aurreko urtearekin alderatuta, altzairu gehien ekoizten duten bederatzi herrialdeen artetik, Indiak bakarrik hazi zuen altzairuaren ekoizpena 2021arekiko (+% 6,0). Aitzitik, gainerako herrialdeetan behera egin zuen ekoizpenak. Jaitsierak handiagoak izan ziren Europako ekonomietan, Amerikako eta Asiakoetan baino. Hala, altzairuaren ekoizpenak behera egin zuen Espainian (-% 19), Erresuma Batuan (-% 16,7), Frantzian (-% 12,9), Italian (-% 11,5) eta Alemanian (-% 8,5). Jaitsierak apur bat txikiagoak izan ziren Japonian (-% 7,4) eta AEBn eta Kanadan (-% 6,3). Jaitsierarik txikiena, berriz, Txinak izan zuen, ehunekoetan (-% 1,7); hala ere, herrialde ekoizle nagusia denez, zifra absolutuetan ekoizpena gehien murriztu zuen herrialdea izan zen (2021ean baino 17,2 milioi tona gutxiago).

**11. grafikoa** **Altzairuaren mundu mailako ekoizpena**




*Iturria: World Steel Association.*

Altzairuaren mundu mailako kontsumoari dagokionez, aurrez aipatu dugun moduan, 2022an % 4,0 jaitsi zen 2021arekiko. Herrialdeen araberako analisiak erakusten duenez, altzairuaren ekoizle nagusia izateaz gain, altzairu gehien kontsumitzen duen herrialdea ere bada Txina, eta produktu siderurgikoen mundu mailako kontsumoaren % 52,1 dagokio (urte arteko -% 3,5eko jaitsiera). Indiak % 8,2 hazi zuen altzairuaren kontsumoa eta AEBk eta Kanadak % 3,1eko jaitsiera erregistratu zuten.

Bestetik, aztertutako EB-27ko ekonomietan bilakaera negatiboa izan zuen produktu siderurgikoen kontsumoak: behera egin zuen Frantzian (-% 26,8), Erresuma Batuan (-% 14,8), Alemanian (-% 11,0), Italian (-% 6,4) eta Espainian (-% 4,6). Ondorioz, produktu siderurgikoen kontsumoa 2021ean baino % 9,9 baxuagoa izan zen EB-27.

**58. koadroa** **Siderurgia-produktuen kontsumoa**

| | 2021 | | | 2022 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | M Tm | % Δ | % | M Tm | % Δ | % |
| AEB eta Kanada | 111,7 | 20,9 | 6,1 | 108,0 | -3,1 | 6,1 |
| Japonia | 57,4 | 9,1 | 3,1 | 55,0 | -4,2 | 3,1 |
| Txina | 953,9 | -5,4 | 51,8 | 920,9 | -3,5 | 52,1 |
| India | 106,2 | 18,9 | 5,8 | 114,9 | 8,2 | 6,5 |
| Alemania | 35,5 | 13,4 | 1,9 | 31,6 | -11,0 | 1,8 |
| Italia | 26,6 | 30,4 | 1,4 | 24,9 | -6,4 | 1,4 |
| Frantzia | 13,8 | 13,1 | 0,7 | 10,1 | -26,8 | 0,6 |
| Erresuma Batua | 10,8 | 20,0 | 0,6 | 9,2 | -14,8 | 0,5 |
| Espainia | 13,0 | 12,1 | 0,7 | 12,4 | -4,6 | 0,7 |
| EB-27 | 154,0 | 17,8 | 8,4 | 138,8 | -9,9 | 7,8 |
| **Mundu osoa** | **1.841,7** | **2,9** | **100,0** | **1.768,2** | **-4,0** | **100,0** |

*Iturria: World Steel Association*

## 3.2 ESPAINIAKO SIDERURGIA

Nazioarteko siderurgia bezalaxe, Espainiakoa ere markatu zuen gerra-gatazkak. Izan ere, gerra-gatazkak elektrizitatearen prezioa baldintzatu zuen eta prezioak asko igo ziren. Horrek zuzenean eragin zien Espainiako siderurgia-enpresei. Dena den, gobernuak "salbuespen iberiarra[1]" izeneko neurri multzo bat jarri zuen martxan, eta horrek lagundu egin zuen prezio energetikoen igoera kontrolatzen.

Bestetik, 2022aren amaieran deskarbonizazio industrialerako PERTE bat onartu zuten Gobernuak, Ministroen Kontseiluan[2]. Enpresek berariazko plan eta proiektu batzuk landu ahal izatea da helburua. 2023an zehar egiaztatuko da haren emaitza eta irismena.

Testuinguru horretan, altzairu gordinaren ekoizpena 11,5 milioi tonakoa izan zen, aurreko urtean baino % 19,0 baxuagoa. Ageriko kontsumoa, berriz, 12,4 milioi tonakoa izan zen, aurreko urtekoa baino % 4,9 baxuagoa.

[1] Espainiako Gobernuak aurkeztu zuen eta Europako Batzordeak onartu zuen 2022ko ekainean; 2023ko maiatzera arte egongo da indarrean eta Espainiari eta Portugali eragiten die. Elektrizitatea ekoizteko erabiltzen den gas naturalaren prezioa mugatzean datza neurria, eta Errusiaren eta Ukrainaren arteko gatazka lehertu ondoren energiaren prezioek 'pool' elektrikoan izandako igoeraren ondorioak arintzea da helburua. Hala, elektrizitatea ekoizteko behar den gasaren prezioa (beste energia mota batzuen bidez sortzen ez denean) dagoeneko ez du merkatuak erregulatuko; aldiz, haren prezioa gobernu zentralak markatutako topera mugatuta dago: 40 euro/MWh.

[2] 2022ko abenduaren 27an onartua. 2022ko abenduaren 22an egindako Ministroen Kontseiluak onartu zuen deskarbonizazio industrialerako Suspertze eta Eraldaketa Ekonomikorako Proiektu Estrategikoa (PERTE), 3.100 milioi euroko inbertsio publikoarekin.

**59. koadroa Espainiako siderurgia-sektoreko magnitude nagusiak***

*(mila Tm)*

| Urtea | Produkzioa | Esportazioa | Inportazioa | Ageriko kontsumoa |
|---|---|---|---|---|
| 2015 | 14.888 | 9.628 | 8.989 | 13.043 |
| 2016 | 13.658 | 9.415 | 9.447 | 12.957 |
| 2017 | 14.441 | 9.710 | 9.972 | 13.258 |
| 2018 | 14.320 | 9.649 | 10.761 | 13.838 |
| 2019 | 13.588 | 9.494 | 10.286 | 13.236 |
| 2020 | 11.141 | 7.974 | 8.988 | 11.691 |
| 2021 | 14.205 | 9.461 | 10.070 | 13.081 |
| 2022 | 11.507 | 8.106 | 9.819 | 12.445 |

*(*): Ekoizpena eta ageriko kontsumoa altzairu gordinari dagozkio, eta kanpo-merkataritza, berriz, siderurgia-produktu guztiei.*

*Iturria: Unesid.*

Produktu siderurgikoen kanpo-merkataritzaren bilakaera antzekoa izan zen. Hala, sektoreak kanpora egindako salmentak 8,1 milioi tonara jaitsi ziren, aurreko ekitaldiarekiko jaitsiera handiarekin (-% 14,3). Beste herrialde batzuei egindako erosketak, berriz, 9,8 milioi tonara jaitsi ziren (-% 2,5).

**12. grafikoa Espainiako siderurgia-sektoreko magnitude nagusiak**




*Iturria: Unesid.*

Honako taula honetan ikus daitekeen moduan, inportatutako lehengai nagusien bilakaerak agerian uzten ditu sektoreak ekitaldian zehar izandako zailtasunak. Izan ere, aztertutako hiru lehengaietatik biren kasuan, kontsumoa eta prezioa jaitsi egin ziren 2021arekiko. Hala, koke bihur daitekeen harrikatzaren (inportatutako lehengaien % 18,1 dagokio) prezioa eta kontsumoa % 109,3 eta % 21,6 hazi ziren, hurrenez hurren. Dena den, burdin-mearen eta pelletaren kontsumoak eta prezioak bilakaera negatiboa izan zuten aurreko ekitaldiaren alderatuta (-% 15,8 eta -% 13,3, hurrenez hurren). Txatarraren

bilakaera, berriz, desberdina izan zen: kontsumoak behera egin zuen (-% 26,0) eta prezioak gora (+% 11,4).

**60. koadroa Inportatutako lehengaiak**

| Urtea | Koke bihur daitekeen harrikatza | | Burdin-mea eta pelleta | | Txatarra | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Kontsumoa (m Tm) | Prezioa (euro/Tm) | Kontsumoa (m Tm) | Prezioa (euro/Tm) | Kontsumoa (m Tm) | Prezioa (euro/Tm) |
| 2013 | 2.528 | 128,9 | 6.259 | 102,9 | 4.925 | 318,1 |
| 2014 | 1.632 | 105,2 | 5.699 | 73,7 | 4.960 | 331,7 |
| 2015 | 1.720 | 102,0 | 6.288 | 50,7 | 5.144 | 292,2 |
| 2016 | 1.768 | 107,5 | 6.010 | 52,0 | 4.004 | 263,5 |
| 2017 | 1.767 | 207,3 | 6.572 | 76,3 | 4.242 | 321,0 |
| 2018 | 1.621 | 191,7 | 6.556 | 74,5 | 4.040 | 345,1 |
| 2019 | 780 | 188,2 | 5.557 | 91,6 | 4.024 | 304,4 |
| 2020 | 360 | 118,8 | 3.564 | 101,9 | 3.385 | 298,0 |
| 2021 | 1.421 | 177,9 | 5.650 | 155,3 | 4.122 | 444,3 |
| 2022 | 1.728 | 372,3 | 4.759 | 134,7 | 3.052 | 495,0 |
| Hazkundea % 22-21 | 21,6 | 109,3 | -15,8 | -13,3 | -26,0 | 11,4 |

*turria: Unesid.*

Sektore siderurgikoak bizitako testuinguru zaila ez zen apenas islatu sektoreari lotutako enpleguan. Ondorioz, UNESIDeko kide diren enpresek enpleguaren zatirik handiena mantentzea lortu zuten. Zehazki, UNESIDeko bazkide diren enpresek, lehen eraldaketako azpisektorea barne hartuta, 20.784 langile izan zituzten zuzenean kontratatuta. Hortaz, langile kopurua % 0,4 murriztu zen aurreko urtearekiko (80 langile gutxiago, zifra absolutuetan).

Bi gertakarik zaildu egin zuten langile kopurua mantentzea. Batetik, inflazioak enpresa-hitzarmenen negoziazioan izandako inpaktua; eta, bestetik, energiaren prezioaren igoera. Bi faktore horiek egoera zailean kokatu zituzten enpresa batzuk, eta Enplegua Erregulatzeko Espedienteak (ABEEE) aurkeztu behar izan zituzten.

Nabarmentzekoa da UNESIDen bazkide diren enpresek haien ezbehar-tasa hobetzen jarraitu zutela eta 2022an murriztu egin zirela laneko istripuak: 14,7 izan ziren. Gainera, ez zen hildakoak eragin zituen istripurik izan haien instalazioetan.

Azkenik, laneko absentismoari dagokionez, lan egin gabeko ordu kopurua 2 milioitik gorakoa izan zen UNESIDen bazkide diren enpresetan (orduen % 48 lotuta zeuden gaixotasun arruntekin). Hortaz, langile bakoitzak batez beste 12 egun egin zituen bajan 2022an, arrazoi horrengatik.

## 3.3. EUSKAL SIDERURGIA

Euskal siderurgiari ere eragin dio testuinguru orokor konplikatuak eta, hortaz, gerragatazkak, krisi energetikoak eta agertoki inflazionistak kaltetu egin dute, espero zen moduan. Emaitzek erakusten dutenez, baldintzatzaile horien guztien ondorioz, euskal sektore siderurgiko osoak dinamikotasuna galdu zuen 2022an. Hala ere, sektoreko euskal enpresa batzuen emaitzak oso positiboak izan ziren, atal honetan ikusiko dugun moduan.

**13. grafikoa Euskal Herriko siderurgia-establezimendu nagusien kokapena**

**BIZKAIA**
- Arcelor Mittal
- Nervacero (Celsa)
- Befesa Aluminio Bilbao
- Tubos Reunidos
- Layde Steel slu
- Aurubis
- Aceros Inoxidables Olarra
- Sidenor

**GIPUZKOA**
- Arcelor Mittal
- Ampo
- Hijos de Juan de Garay
- Lasaomallas (Grupo Industrial CL)
- Fagor Ederlan
- Sidenor



**ARABA**
- Sidenor
- Tubos Reunidos
- Tubacex Tubos Inoxidables
- Celsa Atlantic
- Arcelor Mittal
- I.E.S.A. (Inoxidables de Euskadi)
- Aratubo

**NAFARROA**
- Arcelor Mittal
- Schmidt-Clemens Spain
- Fagor Ederlan
- Hydro estruded solutions Navarra

*Iturria: Geuk egina.*

Euskal Herriko enpresa siderurgikoen kanpo-merkataritzari dagokionez, 2022an 1.992,1 mila tonara jaitsi ziren esportazioak, hau da, kanpora egindako salmentak % 11,2 murriztu ziren 2021arekin alderatuta, eta pandemiaren unerik gogorrenetan erregistratutako zifretara gerturatu ziren. Bestetik, inportazioak 3.077,1 mila tonara jaitsi ziren: urte arteko % 9,7ko jaitsiera.

Gainera, termino ekonomikoetan, esportazioek zein inportazioek bilakaera positiboa izan zuten. Hala, inportazioen balioa % 23,7 hazi zen eta, esportazioena, % 30,3. Esportatutako tona bakoitzaren batez besteko prezioa 1.413,9 mila eurokoa izan zen, 2021ean baino % 46,7 altuagoa; esportazioen batez besteko preziorik altuena da, 1991z geroztik. Inportazioen kasuan, berriz, tona bakoitzaren prezioa 981,8 mila eurokoa izan zen, aurreko ekitaldian baino % 37,1 altuagoa.

**61. koadroa EAEko siderurgia-industriaren kanpo-merkataritza**

| Urtea | Inportazioak | | Esportazioak | |
|---|---|---|---|---|
| | m Tm | M euro | m Tm | M euro |
| 2013 | 4.085,3 | 1.856,8 | 2.340,8 | 1.690,9 |
| 2014 | 4.330,5 | 1.951,4 | 2.791,9 | 1.852,9 |
| 2015 | 4.595,9 | 1.879,8 | 2.810,3 | 1.745,3 |
| 2016 | 3.375,0 | 1.467,3 | 2.436,7 | 1.406,0 |
| 2017 | 3.540,5 | 1.831,4 | 2.114,2 | 1.497,4 |
| 2018 | 3.430,9 | 2.012,2 | 2.237,3 | 1.829,6 |
| 2019 | 3.493,3 | 1.933,6 | 2.187,7 | 1.663,0 |
| 2020 | 2.763,0 | 1.425,2 | 1.798,1 | 1.270,6 |
| 2021 | 3.409,4 | 2.441,3 | 2.243,2 | 2.162,6 |
| 2022 | 3.077,1 | 3.021,0 | 1.992,1 | 2.816,8 |

*turria: Eusko Jaurlaritza, Ogasun eta Ekonomia Saila eta Eustat.*

Siderurgia-jarduerak duen garrantzi ekonomikoa Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) Industria Kontuetan emandako informazioarekin osatu dugu. Aurreko txostenetan bezala, garrantzitsua da kontuan izatea estatistika-sailkapena ezin dela zuzenean alderatu kapitulu honetan jasotakoarekin; izan ere, hau Eustatek merkataritza eta/edo produktuen sailkapen baten aurrean egiten duen A-86 sailkapena da, eta siderurgia integralari, ez-integralari, altzairu bereziei eta soldadurarik gabeko hodiei dagokie.

Zentzu horretan, galdaketarekin eta forjaketa eta estanpazioarekin lotutako euskal jarduera siderurgikoak 2.041,1 milioi euroko BEGa sortu zuen 2021ean, 2020an baino % 46,7 handiagoa; izan ere, une horretan jasan zuen sektoreak pandemiaren ondoriozko krisiaren inpakturik handiena (1.391,7 milioi euro, 2002az geroztiko baliorik baxuena). Ingeniaritza metalikoak eta metalezko artikuluek 1.959 milioi euroko ekarpena egin zuten, urte arteko % 11,6ko hazkundearekin. Modu horretan, euskal industriak sortutako BEGaren % 31,0 jarduera siderometalurgikoen multzoaren ekarpena izan zen, eta 67.030 pertsonari eman zien enplegua.



LABORAL kutxa

**62. koadroa Siderurgia-jarduerak EAEko industriari egindako ekarpena**

| Kontzeptua | BEGa (M euro) | | | Enplegua (pertsona kopurua) | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2019 | 2020 | 2021 | 2019 | 2020 | 2021 |
| Siderurgia eta burdinarekin egiten ez den metalurgia | 729 | 603 | 1.171 | 9.753 | 9.296 | 9.718 |
| Galdaketa | 430 | 359 | 385 | 6.963 | 6.532 | 6.697 |
| Metalezko eraikuntzak | 487 | 429 | 477 | 10.016 | 9.444 | 9.517 |
| Forjaketa eta estanpazioa | 468 | 429 | 486 | 7.057 | 6.757 | 6.769 |
| Ingeniaritza mekanikoa | 1.154 | 965 | 1.097 | 20.610 | 20.161 | 20.289 |
| Metalezko artikuluak | 917 | 791 | 861 | 15.339 | 14.476 | 14.040 |
| **Multzo siderometalurgikoa, guztira** | **4.185** | **3.577** | **4.476** | **69.738** | **66.666** | **67.030** |
| **Industria** | **15.295** | **13.073** | **14.455** | **207.004** | **200.699** | **201.950** |
| Partaidetza (%) | | | | | | |
| – *Siderurgia/Industria* | *4,8* | *4,6* | *8,1* | *4,7* | *4,6* | *4,8* |
| – *Siderometalurgia/Industria* | *27,4* | *27,4* | *31,0* | *33,7* | *33,2* | *33,2* |

*Iturria: Industria Kontuak (Eustat).*

### Altzairu arrunta eta altzairu bereziak

Altzairuaren ageriko kontsumoaren bilakaera, negatiboa izan zen 2022an. Izan ere, 2021eko ekitaldia oso modu positiboan itxi arren, 2019an eta 2020an galdutako kontsumoaren zati bat baino ez zen berreskuratu. Hala, 2022an, 2016ko mailara gerturatu zen altzairuaren ageriko kontsumoa, baina urte hartakoa baino baxuagoa izan zen. Hortaz, 2022an 12,4 milioi tonakoa izan zen altzairuaren ageriko kontsumoa, aurreko urtean baino % 4,3 baxuagoa.

Aintzat hartutako produktu gehienek dinamikotasuna galdu zuten, eta horrek eragin zuen beherakada. Lingoteen eta amaitugabeen kontsumoak (altzairuaren guztizko kontsumoaren % 3,2) bakarrik izan zuen bilakaera positiboa azken urtean (+% 5,4). Hala, produktu luze amaituen kontsumoak (guztizkoaren % 26,8) urte arteko % 0,8ko jaitsiera izan zuen eta 3.329 mila tonan kokatu zen. Produktu lau beroen kontsumoak (guztizkoaren % 35,0) eta produktu hotz eta estalien kontsumoak (guztizkoaren % 35,0) jaitsiera handiagoa izan zuten (-% 5,1 eta -% 6,9, hurrenez hurren).

**63. koadroa Altzairuaren ageriko kontsumoa, produktuen arabera**

*(m Tm)*

| Produktuak | Ageriko kontsumoa | | | |
|---|---|---|---|---|
| | 2020 | 2021 | 2022 | % ∆ 22/21 |
| Amaitutako produktu motaren arabera* | | | | |
| – Lingoteak eta amaitugabeak | 215 | 381 | 401 | 5,4 |
| – Produktu luze amaituak | 2.841 | 3.357 | 3.329 | -0,8 |
| – Produktu lau beroak | 4.241 | 4.591 | 4.357 | -5,1 |
| – Produktu lau hotzak eta estaliak | 4.392 | 4.679 | 4.358 | -6,9 |

*(*): Altzairu arruntak eta bereziak barne.*
*Iturria: Unesid.*

Beroan ijeztutako produktuei dagokienez, bi talde handiek azken urtean izandako bilakaerak agerian uzten du sektoreak bizitako egoera zaila, bi kasuetan jaitsiera handiak izan baitziren. Zehazki, beroan ijeztutako produktu lauen ekoizpena % 24,9 murriztu zen, 3.520 mila tonara arte. Beroan ijeztutako produktu luzeek jaitsiera apur bat txikiagoa izan zuten, % 16,3koa, eta 7.406 mila tonarekin itxi zuten ekitaldia.

Azken kasu honetan, produktu mota guztiek egin zuten behera, eta horrek baldintzatu zuen ekoizpenaren jaitsiera: alanbre-burdin biribildua (-% 26,5), egiturazko profilak (-% 17,4), beste merkataritza-profil batzuk (-% 6,2), hormigoirako biribilak (-% 5,8) eta trenbideetako materiala (-% 9,8).

**64. koadroa Beroan ijeztutako produktuen ekoizpena***

*(m Tm)*

| Produktuak | Produkzioa | | | |
|---|---|---|---|---|
| | 2020 | 2021 | 2022 | % ∆ 22/21 |
| **Beroan ijeztutako produktu luzeak** | **7.619** | **8.847** | **7.406** | **-16,3** |
| – Trenbideetako materiala | 256 | 251 | **226** | **-9,8** |
| – Egiturazko profilak | 2.360 | 2.668 | **2.205** | **-17,4** |
| – Alanbre-burdin biribildua | 2.525 | 3.029 | **2.227** | **-26,5** |
| – Hormigoirako biribilak | 1.343 | 1.464 | **1.380** | **-5,8** |
| – Beste merkataritza-profil batzuk | 1.135 | 1.435 | **1.346** | **-6,2** |
| **Beroan ijeztutako produktu lauak** | **3.352** | **4.686** | **3.520** | **-24,9** |

*(*): Bi altzairu-kalitateak barne: altzairu arrunta eta altzairu berezia.*
*Iturria: Unesid.*

*CIE Automotive*

Euskal Herrian lantegiak dituen sektore siderurgikoko enpresetako bat CIE Automotive da. 2002an sortu zen, Afora (Acerías y Forjas de Azkoitia) eta Egaña enpresek bat egin zutenean, eta automobilgintzako osagaien eta azpimultzoen fabrikazioan erreferentziazko talde bilakatzea zen haren helburua. Mundu mailan egiten du lan, eta presentzia eraginkorra du Amerikan (Brasil, AEB eta Mexiko), Europan (Espainia, Portugal, Alemania, Frantzia, Italia, Txekiar Errepublika, Lituania, Eslovakia, Errumania eta Errusia), Asian (Txina eta India) eta Afrikan (Maroko).

Haren jarduera arloa siderurgiaz haragokoa da eta 112 ekoizpen-lantegi ditu. Guztira 24.986 pertsonak lan egiten dute horietan. Jarduera hori honako segmentuetan egituratzen da: estanpazioa eta hodien konformazioa (22 lantegi), forjaketa (18 lantegi), galdaketa (3 lantegi), aluminio-injekzioa (11 lantegi), mekanizazioa (28 lantegi), plastikoa (13 lantegi) eta sabai-sistemak (17 lantegi).

2022ko ekitaldiari dagokion taldearen memoriaren arabera, *"oztopoek eta ziurgabetasunak markatu dute urtea, irabazien errekor historikoarekin eta Gizartearen, Ingurumenaren eta Gobernu Onaren arloko aurrerapen garrantzitsuekin. Krisi inflazionista,*

*arazo logistikoak eta ibilgailuak ekoizteko intsumoen gabeziak izan arren, ezbeharren aurrean dugun erresilientzia erakutsi zuten berriz ere lortutako emaitzek".* Zentzu horretan, automobilgintza-sektoreko salmentak 3.838,6 milioi eurora iritsi ziren. Aldi berean, irabazi garbia 300,1 milioi eurokoa izan zen (2021ean baino % 12,2 handiagoa).

Erronkei dagokienez, 2022rako ezarritako helburu guztiak bete zituen CIE Automotivek eta 2025erako Plan Estrategikoan finkatutako ASG helburuak (Ingurumen, Gizarte eta Gobernu Onaren arlokoak) betetzeko lanean jarraitu zuen. Gainera, mantendu egiten ditu 2025erako konpromiso operatiboak, eta horretarako lau jarduera-ildo ezarri ditu: elektrifikazioa, 4.0 industria, konforta eta nazioartekotzea.

Ingurumen arloan, Basquevot egitasmoan parte hartu du CIE Automotivek, egoera solidoko bateriak ekoizteko eta, hala, garraioaren deskarbonizazio-prozesuan aurrerapausoak emateko. Gainera, Pariseko Hitzarmenaren esparruan, epe ertain eta luzerako helburu berriak onartu ditu, "Supply Chain Race to Zero" proiektuaren bidez 2050erako, luze jota, berotegi-efektuko gasen isurpen garbiak zerora murrizteko konpromisoarekin.

Azkenik, hainbat egitasmo sozial gauzatu ditu eta 78.000 pertsona baino gehiagori mesede egin diete horiek. Bi programa korporatibo berri nabarmentzen dira: CIE STEM Planet, Euskal Herrian zientzia-zaletasuna sustatzeko; eta UNHCR ACNUR, lanbide-heziketan eta enpleguaren sustapenean oinarritutako proiektua, Brasilgo errefuxiatu eta migratzaileei zuzendua.

**Soldadurarik gabeko hodiak**

Soldadurarik gabeko hodien kanpo-merkataritzarekin lotutako datuen arabera, gora egin zuten produktu horien esportazioak zein inportazioak. Hala, esportazioek urte arteko % 42,6ko igoera erregistratu zuten, eta inportazioak % 7,4 hazi ziren azken urtean. Hala, kanpo-merkataritzak 2019 eta 2020an izandako jaitsiera handien ondoren, eta bi ekitalditan gora egin ondoren, esportazioek 2018ko kanpo-salmenten maila berreskuratu zuten 2022an.

**65. koadroa Soldadurarik gabeko hodien kanpo-merkataritza**

*(m Tm)*

| Urtea | Esportazioa | Inportazioa |
|---|---|---|
| 2013 | 223 | 106 |
| 2014 | 275 | 120 |
| 2015 | 226 | 113 |
| 2016 | 196 | 117 |
| 2017 | 271 | 130 |
| 2018 | 280 | 170 |
| 2019 | 228 | 159 |
| 2020 | 173 | 109 |
| 2021 | 195 | 121 |
| 2022 | 278 | 130 |

*turria: Unesid.*

Soldadurarik gabeko hodien salmenten helmugari arreta jarrita, AEB mantendu zen helmugako herrialde nagusi gisa (guztizkoaren % 55,5) eta hazkunde handia erregistratu zuen 2021arekiko (+% 161,4). 1995az geroztiko esportazio-zifrarik altuena eskuratu zuen, 2018ko balioa gaindituta –ordura arteko esportazio-zifrarik altuena eskuratu zen 2018an–. Bigarren postuan EB-27 kokatu zen, esportazioen % 32,4rekin (urte arteko +% 9,7ko hazkundea). Hala, soldadurarik gabeko hodien esportazioen % 24,0 Alemaniara, Italiara eta Frantziara egin ziren. Azkenik, Poloniako (+% 200,8), Turkiako (+% 192,5) eta Saudi Arabiako (+% 145,1) merkatuek izan zuten hazkunderik handiena, guztizkoaren gaineko partaidetza askoz ere txikiagoa izan arren.

**66. koadroa Soldadurarik gabeko hodien esportazioak, helmugako herrialdeen arabera**

*(m Tm)*

| Eremua | 2020 | 2021 | 2022 | % | % ∆ 22/21 |
|---|---|---|---|---|---|
| Estatu Batuak | 33,0 | 53,0 | 138,5 | 55,5 | 161,4 |
| Alemania | 15,6 | 21,1 | 25,2 | 10,1 | 19,3 |
| Italia | 12,9 | 22,1 | 20,7 | 8,3 | -6,4 |
| Frantzia | 8,8 | 13,9 | 14,0 | 5,6 | 0,5 |
| Herbehereak | 7,2 | 3,3 | 5,2 | 2,1 | 57,2 |
| Portugal | 3,4 | 4,4 | 4,5 | 1,8 | 4,2 |
| Hego Korea | 5,5 | 6,2 | 3,6 | 1,5 | -41,2 |
| Saudi Arabia | 2,9 | 1,3 | 3,2 | 1,3 | 145,1 |
| Polonia | 0,8 | 0,9 | 2,8 | 1,1 | 200,8 |
| Erresuma Batua | 3,2 | 2,3 | 2,7 | 1,1 | 19,1 |
| Arabiar Emirerri Batuak | 4,7 | 5,0 | 2,5 | 1,0 | -49,7 |
| Suedia | 0,9 | 1,5 | 2,3 | 0,9 | 51,1 |
| Turkia | 0,8 | 0,7 | 2,2 | 0,9 | 192,5 |
| Australia | 2,6 | 1,6 | 1,8 | 0,7 | 10,7 |
| Taiwan | 0,3 | 1,5 | 1,7 | 0,7 | 15,0 |
| EB-27 guztira | 54,5 | 73,7 | 80,8 | 32,4 | 9,7 |
| **Mundua, guztira** | **147,5** | **166,3** | **249,8** | **100,0** | **50,2** |

*turria: Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren kanpo-merkataritzako estatistikak.*

*Tubacex*

Tubacex taldearen memoriaren arabera, pandemiaren krisiaren ondorioek asko kaltetu zituzten taldearen emaitzak ondoz ondoko bi ekitalditan, baina 2022an *"azken 14 urteetako emaitzarik onenak"* erregistratu zituen eta 92,3 milioi euroko EBITDArekin itxi zuen ekitaldia. Izan ere, salmentak 714,7 milioi eurora igo ziren, hau da, aurreko urtekoak (365,0 milioi euro) baino % 95,8 handiagoak izan ziren. Gainera, irabazi garbia 20,2 milioi eurokoa izan zen (2021ean 32,2 milioi euroko galerak) eta langile kopurua 2.360ra igo zen (2021ean baino % 7,6 gehiago, eta 166 langile gehiago zifra absolutuetan).

Tubacex taldearen kanpo-salmenten banaketa geografikoa ez zen ia aldatu, hortaz, Asiak jarraitu zuen merkatu nagusia izaten, eta salmenten % 36 jaso zituen. Jarraian, Europa (% 31), Amerika (% 29) eta munduko gainerakoak (% 4) kokatu ziren.

**14. grafikoa Salmenten banaketa geografikoa 2022an**




*Iturria: Tubacex taldea.*

2022an Tubacexek 2022-2025 aldirako plan estrategikoa finkatu zuen, jasangarritasuna, errentagarritasuna eta lehiakortasuna ardatz hartuta. Honako hauek dira planaren helburuak: "lehiakortasuna bultzatzea, likidezia eta kaudimena bermatuz; merkataritza arloko posizionamendua hobetzea; eta produktu industrial sofistikatuen eta balio erantsi altuko zerbitzuen hornitzailea bihurtzea energia-eta mugikortasun-sektoreentzat".

Gizarte eta ingurumen arloko egitasmoei dagokienez, *"Tubacexek mantendu egiten du garapen jasangarrirako erronka handiak bultzatzeko konpromisoa, Agenda 2030en bidez eta Garapen Jasangarrirako Helburuen (GJH) bidez".* Horretarako hainbat helburu finkatu dituzte: karbono-isurpenen neutraltasunera gerturatzea eta negozioaren zirkularitatea sustatzea, trantsizio energetikorako soluzio berritzaileak garatzen laguntzea, pertsonak

eta gertuko ingurunea zaintzea, eta gardentasuna eta gobernu ona. Gainera, Tubacex fundazioaren bidez, proiektuak bultzatzen dituzte hiru jarduera arlotan: kalitatezko prestakuntza, eta talentua erakartzea eta mantentzea; aniztasun korporatiboa eta berdintasuna; eta tokiko komunitateen garapena.

*Tubos Reunidos*

Errusia-Ukraina gerra-gatazken ondorioz, ohiko hornidura-kanalak eten egin ziren eta energiaren, lehengaien eta garraioaren prezioa igo egin zen. Horrek ekitaldia markatu zuen. Hala ere, Tubos Reunidos taldeak *"emaitza positibo garbiak"* izan zituen eta 2022aren itxiera oso positiboa izan zen, salmentak igo egin zirelako eta 2021-2026 aldirako Plan Estrategikoan jasotako ekintzak martxan jarri zituelako.

Alde horretatik, Tubos Reunidos taldeak 513,7 milioi euroko negozio-zifrarekin itxi zuen 2022a, hau da, 2021eko emaitzaren bikoitza eskuratu zuen (+% 111,4). Ustiapenaren emaitza, berriz, +54 milioi eurokoa izan zen (2021ean baino 41,1 milioi euro handiagoa).

Jarduera aurrera eraman ahal izateko, Tubos Reunidos taldeak 4 ekoizpen-lantegi –Iruñeko eta Amurrioko hotzean luzatzeko unitateak Amurrioko lantegiak bateratu ondoren– eta 1.415 langile ditu; aurreko urtearekin alderatuta, langileen kopurua hazi egin zen (+90 langile berri). Gainera, Tubos Reunidoseko langileen % 91k kontratu mugagabea dute. Nabarmentzekoa da 2022an Tubos Reunidos taldeak pertsonak garatzeko eta kudeatzeko programa bat jarri zuela martxan (2024 arte luzatuko dena). Talentua indartzea eta ibilbide profesionala Tubos Reunidos taldean garatzeko aukera ematea da programaren helburua.

Taldeak mundu mailako merkatuetan duen presentziari dagokionez, merkataritza-delegazioak ditu 11 herrialdetan, eta merkataritza-agentziak 20 herrialdetan. Zentzu horretan, salmenta nazionalek pisu erlatiboa galtzen jarraitzen dute eta 2022an salmenta guztien % 6 izan ziren (2021ean % 12); aldiz, salmenten % 94 kanpora egin ziren, eta kanpo-salmentak pisua irabazten ari dira urtetik urtera. Hala, 2022an honakoa izan zen taldearen salmenten banaketa: Ipar Amerikara egin ziren salmenten erdiak baino gehiago (% 53), gero Europar Batasuna kokatu zen (% 38) eta, pisu erlatibo txikiagoarekin, Ekialde Urruna (% 7), Ekialde Ertaina eta Afrika (% 1) eta Beste batzuk (% 1).

**67. koadroa Negozio arloak eta enpresa-unitateak. Tubos Reunidos taldea. 2022**

| Negozio arloak | Unitateak/establezimenduak |
|---|---|
| Soldadurarik gabeko altzairuzko hodiak | Tubos Reunidos Industrial (Amurrio, Araba) |
| | Productos Tubulares (Trapagaran, Bizkaia) |
| Hariztaketa | Tubos Reunidos Premium Threads (Iruña Oka, Araba) |
| Akabera eta hariztaketa | RDT, Inc (Beasley, Texas) |
| Banaketa | Madrid (Madril, Espainia) |
| | Bilbao (Bilbo, Espainia) |
| | TR América (Houston, Ameriketako Estatu Batuak) |
| | TR Beijing Office (Pekin, Txina) |
| | TR Malasia (Malaysia, Asia) |
| | TR Italia (Milan, Italia) |
| | TR Alemania (Alemania) |
| | TR Dubai Office (Dubai) |
| | TR Seúl (Hego Korea) |
| | TR México (Mexico) |
| | TR Colombia (Kolonbia) |

*turria: Urteko Txostena-Jardueren Memoria. Tubos Reunidos taldea*

# 4. ONTZIGINTZA

## 4.1. NAZIOARTEKO EGOERA

Jardueraren moderazioa ezaugarri duen nazioarteko esparru batean, 2022an munduko itsas merkataritzak -% 0,5 egin zuen behera. Dena den, petrolioarekin lotutako produktuen garraio-eskaria hazi egin zen; izan ere, Ukrainako gerraren ondorioz, aldatu egin ziren jatorri eta helmuga nagusiak.

Bestetik, itsasontzi berrien mundu mailako kontratazioak 88,7 milioi tonako pisu hila izan zuen, aurreko urtean baino -% 36,1 txikiagoa, baina aurreko bost ekitaldietako batez besteko maila baino % 20,8 handiagoa. Aldi berean, entregek 81,3 milioi tonako pisu hila izan zuten.

**68. koadroa Munduko merkataritza-flota**

*(MGT)*

| Urtea | Tonak | % ∆ |
|---|---|---|
| 2012 | 991,2 | 8,9 |
| 2013 | 1.027,0 | 3,6 |
| 2014 | 1.067,1 | 3,9 |
| 2015 | 1.107,8 | 3,8 |
| 2016 | 1.148,0 | 3,6 |
| 2017 | 1.182,8 | 3,0 |
| 2018 | 1.221,3 | 3,3 |
| 2019 | 1.263,0 | 3,4 |
| 2020 | 1.324,7 | 4,9 |
| 2021 | 1.353,8 | 2,2 |
| 2022 | 1.400,0 | 3,4 |

*Iturria: ANAVE.*

Munduko merkataritzako ontzidiari dagokionez, 2022an 1.400 milioi tona gordin eskuratu zituen; hau da, urte arteko hazkundea % 3,4koa izan zen, 2020an (% 4,9) erregistratutako hazkundea baino txikiagoa eta 2021ekoa (% 2,2) baino handiagoa.

Aurreko urteetan bezala, Panama izan zen protagonista nagusia, eta hari egokitu zitzaion 2022ko munduko merkataritzako ontzidiaren % 15,9. Liberia eta Marshall Uharteak izan ziren hurrengoak, distantzia apur batera, % 14,5eko eta % 12,1eko pisu erlatiboekin, hurrenez hurren. Europa mailan Malta nabarmendu zen, guztizkoaren gaineko % 5,8ko kuotarekin. Hala, alde handiarekin gainditu zituen Greziaren (% 2,5) eta Zipreren (% 1,5) partaidetzak.



LABORAL kutxa

**69. koadroa Munduko merkataritza-flota, jatorrizko herrialdearen arabera**

| Herrialdea | 2020 | | 2021 | | 2022 | | % Δ 22/21 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | MGT | % | MGT | % | MGT | % | |
| Panama | 211,4 | 16,0 | 221,4 | 16,4 | 222,9 | 15,9 | 0,7 |
| Liberia | 171,6 | 13,0 | 184,0 | 13,6 | 203,5 | 14,5 | 10,6 |
| Marshall Uharteak | 155,4 | 11,7 | 159,6 | 11,8 | 169,7 | 12,1 | 6,4 |
| Hong Kong | 127,3 | 9,6 | 128,8 | 9,5 | 129,8 | 9,3 | 0,8 |
| Singapur | 89,0 | 6,7 | 84,9 | 6,3 | 83,9 | 6,0 | -1,2 |
| Malta | 79,9 | 6,0 | 79,4 | 5,9 | 81,2 | 5,8 | 2,2 |
| Txina | 54,1 | 4,1 | 57,2 | 4,2 | 61,2 | 4,4 | 7,0 |
| Bahamak | 55,0 | 4,2 | 53,3 | 3,9 | 52,0 | 3,7 | -2,5 |
| Grezia | 39,5 | 3,0 | 37,1 | 2,7 | 35,4 | 2,5 | -4,4 |
| Japonia | 28,7 | 2,2 | 27,9 | 2,1 | 27,9 | 2,0 | 0,1 |
| Danimarka | 21,2 | 1,6 | 22,1 | 1,6 | 22,8 | 1,6 | 3,0 |
| Zipre | 24,5 | 1,8 | 21,3 | 1,6 | 21,4 | 1,5 | 0,2 |
| Erresuma Batua | 15,5 | 1,2 | 17,1 | 1,3 | 19,5 | 1,4 | 13,7 |
| Portugal | 22,5 | 1,7 | 22,5 | 1,7 | 22,5 | 1,6 | -0,1 |
| Indonesia | 16,6 | 1,3 | 18,0 | 1,3 | 17,3 | 1,2 | -4,2 |
| Norvegia | 16,3 | 1,2 | 16,8 | 1,2 | 16,2 | 1,2 | -3,5 |
| Italia | 10,9 | 0,8 | 12,2 | 0,9 | 12,6 | 0,9 | 2,7 |
| Hego Korea | 14,0 | 1,1 | 13,7 | 1,0 | 13,3 | 0,9 | -3,1 |
| Iran | 10,9 | 0,8 | 11,6 | 0,9 | 11,4 | 0,8 | -1,6 |
| Bermuda | 9,2 | 0,7 | 9,1 | 0,7 | 9,2 | 0,7 | 1,6 |
| India | 9,7 | 0,7 | 10,2 | 0,8 | 10,0 | 0,7 | -1,5 |
| Estatu Batuak | 9,0 | 0,7 | 8,9 | 0,7 | 8,7 | 0,6 | -1,9 |
| Frantzia | 6,0 | 0,5 | 6,3 | 0,5 | 7,2 | 0,5 | 15,3 |
| Alemania | 7,7 | 0,6 | 7,0 | 0,5 | 6,4 | 0,5 | -8,3 |
| Holanda | 6,5 | 0,5 | 6,1 | 0,4 | 5,9 | 0,4 | -1,7 |
| Belgika | 5,4 | 0,4 | 4,4 | 0,3 | 4,5 | 0,3 | 2,5 |
| Espainia | 2,4 | 0,2 | 2,4 | 0,2 | 2,4 | 0,2 | 2,2 |
| Suedia | 2,0 | 0,2 | 2,1 | 0,2 | 2,1 | 0,2 | 2,0 |
| Finlandia | 1,6 | 0,1 | 1,6 | 0,1 | 1,6 | 0,1 | 1,5 |
| Kroazia | 1,2 | 0,1 | 1,0 | 0,1 | 1,0 | 0,1 | 2,0 |
| Gainerako herrialdeak | 99,6 | 7,5 | 106,0 | 7,8 | 116,4 | 8,3 | 9,9 |
| EB, guztira | **227,2** | **17,1** | **224,3** | **16,6** | **227,4** | **16,2** | **1,4** |
| **Mundu osoa** | **1.324,7** | **100,0** | **1.353,8** | **100,0** | **1.400,0** | **100,0** | **3,4** |

*turria: ANAVE.*

Itsasontzi mota aintzat hartuta, 2022an solteko salgaien ontziek jarraitu zuten protagonista nagusiak izaten; haiei zegokien munduko merkataritzako ontzidiaren % 35,9. Jarraian, honako hauek kokatu ziren, ordena honetan: petrolioa garraiatzekoak, edukiontziak garraiatzekoak, merkataritzako beste ontzi batzuk, gasa garraiatzekoak eta kargaontziak, % 21,3, % 18,8, % 12,5, % 6,6 eta % 4,9ko kuotekin, hurrenez hurren.

Urte arteko bilakaerari dagokionez, aurreko ekitaldietan bezala, gasa garraiatzeko ontziek izan zuten hazkunderik handiena (% 7,6ko hazkundea). Dena den, aintzat hartu behar da ontzi mota horiek mundu mailako guztizko merkataritza-ontzidiaren % 6,6 baino ez dutela ordezkatzen.

**70. koadroa** **Munduko merkataritza-flota, itsasontzi motaren arabera**

*(MGT)*

| Itsasontzi mota | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|---|
| Petrolioa garraiatzekoak | 271,2 | 287,5 | 292,3 | 297,7 |
| Gasa garraiatzekoak | 77,5 | 82,3 | 85,9 | 92,4 |
| Solteko salgaienak | 451,9 | 473,8 | 484 | 502,8 |
| Kargaontziak | 63,5 | 64,8 | 67,3 | 68,3 |
| Edukiontziak garraiatzekoak | 237,1 | 246,9 | 252,8 | 263,5 |
| Beste merkataritzako ontzi batzuk | 161,8 | 169,3 | 171,6 | 175,3 |
| **Merkataritzako ontziak guztira** | **1.263,0** | **1.324,7** | **1.353,80** | **1400** |

*Iturria: ANAVE.*

Azkenik, munduko merkataritzako ontzidiaren batez besteko adina 19,7 urtera igo zen 2022an berriz ere (2021ean 19,3). Izan ere, enpresa armadoreak ez ziren animatu ontzi zaharrenak kentzera, pleiten egoera ona zelako. Ontzi motaren arabera, metanoa garraiatzeko ontziak izan ziren ontzidiko gazteenak (10,1 urte), eta hozkailuak, berriz, zaharrenak (32,4 urte).

## 4.2. ONTZIGINTZA ESPAINIAN

2022an -% 4,3 murriztu zen ontzi berrien Estatuko ekoizpena (aurreko ekitaldian % 15,8ko hazkundea), eta 112 mila tona konpentsatura iritsi ziren[1]. Hala ere, ekoizpen-fasearen arabera, kontuan izan behar da hasitako tonajea eta ureratutako tonajea hazi egin zirela (% 17,8 eta % 26,1, hurrenez hurren), baina entregatutako tonajea nabarmen jatsi zela (-% 48,4).

[1] Atal honetako informazioa tona konpentsatuetan jasotzen da, kontrakoa adierazi ezean.

**71. koadroa Espainiako itsasontzien ekoizpena**

*(mCGT)* (1)

| Urtea | Tonaje haztatua(2) | Hasitako tonajea | Uretaratutako tonajea | Entregatutako tonajea | Konpentsazio-koefizientea(3) |
|---|---|---|---|---|---|
| 2013 | 161 | 153 | 161 | 169 | 0,48 |
| 2014 | 154 | 181 | 137 | 159 | 0,43 |
| 2015 | 179 | 280 | 169 | 99 | 0,92 |
| 2016 | 103 | 84 | 103 | 124 | 0,48 |
| 2017 | 130 | 142 | 122 | 133 | 0,75 |
| 2018 | 201 | 136 | 246 | 178 | 0,98 |
| 2019 | 160 | 188 | 123 | 207 | 0,87 |
| 2020 | 101 | 92 | 124 | 64 | 0,48 |
| 2021 | 117 | 101 | 92 | 182 | 0,49 |
| 2022 | 112 | 119 | 116 | 94 | 0,48 |

*(1): CGT: tona gordin konpentsatuak. Erregistroko tonaje gordin konpentsatuaren neurria, tona gordinekin erlazionatuta, itsasontzi mota eta neurri bakoitzerako koefiziente baten bidez. Koefiziente horrek eraikitzeko konplexutasuna hartzen du aintzat, itsasontzia egiteko erabilitako lanorduak oinarri hartuta.*

*(2): Tonaje haztatua = (Hasitako tonajea + 2 Uretaratutako tonajea + Entregatutako tonajea)/4.*

*(3): Ratioa (tona gordinak/tona gordin konpentsatuak).*

*Iturria: Industria eta ETE-en Idazkaritza Nagusia. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa. Geuk egina.*

Espainiako ontziolen eskarien zorroari dagokionez, 2018an hasitako beheranzko joerari amaiera eman zion eskariak 2022an, eta % 5,2 hazi zen. Hala, 306 mila tonara iritsi zen, zorro nazionalaren hazkunde handiak eraginda (% 110,3); esportazioek, aldiz, behera egin zuten (-% 11,1). Hala, kanpo-merkatuak Estatuko guztizko zorroarekiko zuen partaidetza-kuotak behera egiten jarraitu zuen (2022an guztizkoaren % 73, eta % 87 aurreko ekitaldian).

**72. koadroa Eskarien zorroa urtearen amaieran**

| Urtea | Barne-merkatua | | Esportazioak | | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| | mCGT | % | mCGT | % | mCGT |
| 2013 | 21 | 8 | 238 | 92 | 259 |
| 2014 | 19 | 7 | 271 | 93 | 290 |
| 2015 | 171 | 37 | 288 | 63 | 459 |
| 2016 | 209 | 45 | 259 | 55 | 468 |
| 2017 | 233 | 46 | 273 | 54 | 506 |
| 2018 | 126 | 28 | 322 | 72 | 448 |
| 2019 | 27 | 7 | 350 | 93 | 377 |
| 2020 | 38 | 11 | 318 | 89 | 356 |
| 2021 | 39 | 13 | 252 | 87 | 291 |
| 2022 | 82 | 27 | 224 | 73 | 306 |

*Iturria: Geuk egina, Industria eta ETE-en Idazkaritza Nagusiaren datuak oinarri hartuta. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa.*

Ontziei dagokienez, 2022aren amaieran Estatuko guztizko eskaera-zorroa osatzen zuten 56 itsasontzietatik 16 merkatu nazionalera bideratutakoak ziren, eta gainerako 40ak kanpo-merkatura bideratutako itsasontziak ziren.

**73. koadroa Eskarien zorroa itsasontzi motaren arabera, urtearen amaieran. 2022**

| Itsasontzi mota | Barne-merkatua | | Esportazioak | | Guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Itsasontzi kopurua | CGT | Itsasontzi kopurua | CGT | Itsasontzi kopurua | CGT |
| Petrolio gordina garraiatzekoak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Petrolio- eta kimika-produktuak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Kargaontziak | 4 | 22.576 | 0 | 0 | 4 | 22.576 |
| Hozkailuak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Ferryak | 2 | 22.036 | 9 | 10.332 | 11 | 32.368 |
| Bidaiariak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Arrantza-ontziak | 3 | 11.020 | 12 | 77.946 | 15 | 88.966 |
| Beste itsasontzi batzuk | 7 | 26.123 | 19 | | 26 | 161.603 |
| **Guztira** | **16** | **81.755** | **40** | **223.758** | **56** | **305.513** |

*Iturria: Industria eta ETE-en Idazkaritza Nagusia. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa.*

Estatuko eskari-zorroa itsasontzi motaren arabera aztertuta, 2022aren amaieran honakoek osatzen zuten barne-merkatua: lau kargaontzi, bi ferry, hiru arrantza-ontzi eta beste mota bateko zazpi ontzi. Kanpo-zorroa, berriz, honakoek osatzen zuten: bederatzi ferry, hamabi arrantza-ontzi eta beste mota bateko hemeretzi ontzi.

Azkenik, Estatuko ontziolei dagokienez, 2023an gidari gabeko urpeko ibilgailuen lerro bat garatzeko asmoa dutela iragarri dute Navantia, SAES (urpeko akustikan eta elektronikan aitzindaria) eta Perseok (gidari gabeko ibilgailuetan, zenbakizko simulazioan, ontzien elektronikan, prototipoetan, fabrikazio aditiboan, IoT eta adimen artifizialean espezializatua) FEINDEF Defentsa eta Segurtasun azokan. Ibilgailu horiek azken belaunaldiko sentsoreak izango lituzkete, arakatzeko eta zaintzarako gaitasunak areagotzeko. Hala, Navantiak bide-orri bat jarri du martxan, konpainiaren Horizonte 5.0 planaren esparruan. Epe luzeko plana da, eta enpresaren Sistemen negozioa indartzea da haren helburua (jarduera nagusi gisa), itsasontzien eraikuntza, zerbitzu adimendunak eta energia berdeak indartzearekin batera.

## 4.3. ONTZIGINTZA EUSKAL HERRIAN

Estatu mailan ez bezala (ekoizpenak behera egin zuen Estatuan), 2022an % 52,9ra igo zen Euskal Herriko ontzigintza-sektoreko ekoizpenaren hazkunde-erritmoa (aurreko ekitaldian % 13,3koa izan zen), 26 mila tona gordinera arte. Ekoizpen-fase guztietan egin zuen gora jarduerak, entregatutako tonajearen kasuan izan ezik, egonkor mantendu baitzen. Zehazki, ureratutako tonajea % 138,5 hazi zen, eta hasitako tonajea % 9,1.

**74. koadroa Ontzigintza Euskal Herrian**

*(mGT)*

| Urtea | Tonaje haztatua | Hasitako tonajea | Uretaratutako tonajea | Entregatutako tonajea |
|---|---|---|---|---|
| 2013 | 28 | 17 | 19 | 55 |
| 2014 | 27 | 36 | 24 | 23 |
| 2015 | 42 | 77 | 35 | 19 |
| 2016 | 23 | 13 | 26 | 28 |
| 2017 | 25 | 15 | 30 | 26 |
| 2018 | 23 | 17 | 20 | 35 |
| 2019 | 18 | 16 | 17 | 20 |
| 2020 | 15 | 21 | 16 | 5 |
| 2021 | 17 | 22 | 13 | 19 |
| 2022 | 26 | 24 | 31 | 19 |

*Iturria: Industria eta ETE-en Idazkaritza Nagusia. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa. Geuk egina.*

Halaber, tonaje konpentsatuaren ikuspegitik, Euskal Herriko ontzi-ekoizpenak ere gora egin zuen 2022an (% 42,4). Ondorioz, Euskal Herriko ontzigintza-sektoreak Estatuko guztizkoaren gainean zuen partaidetza-kuota igo egin zen (2022an % 42 eta 2021ean % 28).

**75. koadroa Ontzigintza Euskal Herrian. Estatuko partaidetza. Tonaje konpentsatua**

| Kontzeptua | 2021 | | 2022 | |
|---|---|---|---|---|
| | mCGT | Espainiako % | mCGT | Espainiako % |
| Tonaje haztatua | 33 | 28 | 47 | 42 |
| Hasitako tonajea | 41 | 41 | 41 | 34 |
| Uretaratutako tonajea | 25 | 28 | 57 | 49 |
| Entregatutako tonajea | 39 | 21 | 34 | 35 |

*Iturria: Industria eta ETE-en Idazkaritza Nagusia. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa.*

Tonaje konpentsatuaren ikuspegitik jarraituz, 2022an ez zen aldatu hasitako tonajea. Uretaratutako tonajea, aldiz, % 128 hazi zen, eta entregatutako tonajea -% 12,8 murriztu zen.

Dinamika hori Estatuan erregistratutako dinamikarekin lotzen badugu, ikus daiteke Euskal Herriak guztizko nazionalaren gainean zuen partaidetza-kuota jaitsi egin zela hasitako tonajearen kasuan (2021ean % 41 eta 2022an % 34). Uretaratutako tonajearen pisu erlatiboa, berriz, igo egin zen (2022an % 49, eta aurreko ekitaldian % 28), baita entregatutako tonajearena ere (% 35, eta aurreko urtean % 21).

**15. grafikoa** **Ontzigintzako eskaera-zorroaren eta ekoizpen haztatuaren bilakaera (mCGT)**







*Iturria: Industria eta ETE-en Idazkaritza Nagusia. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa. Geuk egina.*

Euskal Herriko ontziolen eskari-zorroari dagokionez, 2022aren amaieran -% 8,3 murriztu zen, hau da, 99 mila tona konpentsatura jaitsi zen. Hala, eten egin zen 2020an hasitako goranzko ibilbidea (% 53,8ko hazkundea 2020an eta % 8koa 2021ean).

**76. koadroa Eskarien zorroa Euskal Herrian**

| Urtea | mCGT |
|---|---|
| 2013 | 100 |
| 2014 | 119 |
| 2015 | 148 |
| 2016 | 161 |
| 2017 | 171 |
| 2018 | 73 |
| 2019 | 65 |
| 2020 | 100 |
| 2021 | 108 |
| 2022 | 99 |

*Iturria: Industria eta ETE-en Idazkaritza Nagusia. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa. Geuk egina.*

Euskal Herriko ontzigintza enpresen egoerari dagokionez, lehenik eta behin, Sestaoko La Naval enpresa aztertuko dugu, dagoeneko desagertuta dagoena. 2023ak giltzarria izan behar luke haren lursailak berreskuratzeko, baina eragiketa konplexua dela kontuan hartuta, gerta daiteke 2024ra arte jarduera ekonomikoa Sestaoko lursail horretara ez itzultzea. Gaur egun, eraiste-lanak eta lurzorua deskutsatzeko lanak amaitzen ari dira. Ondoren, eremua urbanizatzea eta instalazio berriak eraikitzea da helburua. Ziur asko, ontzien eraikuntzarekin eta konponketarekin lotutako jarduerak hartuko dituzte instalazio horiek, eta energia berriztagarriekin lotuak ere bai.

**77. koadroa Eskarien zorroa, amaitutako ontziak eta hasitako ontziak, enpresen arabera**

*(CGT unitateak)*

| Enpresa | Eskarien zorroa | | Amaitutako itsasontziak | | Hasitako itsasontziak | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 |
| Astilleros Murueta | 28.168 | 44.440 | 28.656 | 5.948 | 5.948 | 27.864 |
| Astilleros Balenciaga | 28.860 | 19.405 | 6.448 | 9.455 | 13.589 | 0 |
| Astilleros Zamakona | 50.517 | 34.934 | 3.671 | 18.168 | 21.718 | 13.216 |
| CNN Sestao | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |

*Iturria: Industria eta ETE-en Idazkaritza Nagusia. Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa.*

Euskadiko ontziola txikiagoei dagokienez, lehendabizi Astilleros Murueta ontziolari jarriko diogu arreta. Nabarmentzekoa da 2023aren hasieran *Katuxa NM* (*Mundaka NMren* bikia) kargaontzia uretaratu dutela; askotariko funtzioetarako diseinatutako kargaontzia da, diesel-elektrizitate bidezko propultsio-sistema duena. Bi sorgailu nagusi eta bi sorgailu osagarri konbinatzen ditu, une bakoitzean behar den propultsio-potentzia eta erregaiaren kontsumoa optimizatzeko aukera ematen dutenak.

Astilleros Balenciaga ontziolarekin lotuta, nabarmentzekoa da 2022aren amaieran *Edda Brint* ontzia entregatu ziola Edda Windi. Industria eolikoari laguntzeko helburuarekin Gipuzkoan eraikitako lehen ontzia da. Etorkizunean, hidrogenoari esker, gai izango da parke eolikoak martxan jartzeko, karbono isurpenik sortu gabe.

Astilleros Zamakonari dagokionez, 2023ko ekainean *Heroínas de Sálvora* (Itsas Salbamenduarentzat eraikia) alturako atoiontzia uretaratu zuen. Itsasoko salbamenduan, atoian eramatean eta kutsaduraren aurkako borrokan espezializatuta dago, eta itsaso zabalean droneekin bilaketak egiteko prestatuta dagoen lehen ontzia da (9 metrora arteko droneak aireratzeko prestatutako ontzigaina du, eta aldi berean bi drone gorde ahal izateko edukiera duen hangarra).

Kapitulu hau amaitzeko, Euskal Herriko ontzigintza-sektoreak 2023an hazteko aurreikuspena duela adierazi zuen orain dela gutxi Euskal Herriko Itsas Foroak XXVI. Batzar Nagusian. Dena den, sektoreak baditu erronkak ere, hala nola inflazioa, I+G+b arloko inbertsioa eta diseinurako eta ekoizpenerako teknologia aurreratuetako inbertsioa handitzeko beharra, langile gabezia eta profesionalak erakartzeko eta prestatzeko premia.

# 5. AUTOMOBILGINTZA

2022ekitaldia oso konplexua izan zen automobilgintza-sektorearentzat oraindik ere. Sektorearen eraldaketa sakonari (auto autonomoa, elektrikoa eta konektatua) erronka berriak batu zitzaizkion (Errusiaren eta Ukrainaren arteko gerra eta haren ondorioak). Ondorioz, nabarmen murriztu zen automobilgintzako fabrikatzaile handi askoren ekoizpen- eta merkataritza-gaitasuna.

Oztopoz betetako bide horri, mugikortasun jasangarriarekiko konpromisoa batu behar zaio, 2050en karbono-neutraltasuna lortzeko. Auto berrien CO2 emisioak murriztea da Europar Batasunaren lehenengo helburua: 2030erako % 55 eta 2035erako % 100. Urte horretan debekatu egingo da errekuntzako motorrak dituzten autoak fabrikatzea eta merkaturatzea. Dena den, hainbat herrialderen presioa dela eta, oraingoz ez da baztertzen erregai sintetikoak erabiltzea, betiere airearen kalitatearentzat mehatxua ez direnean. Hala, 2035erako asmo handiko helburu horiek bete arte, zero emisio garbiko erregai horiek erabiltzeko aukera eman lezake EBk, errekuntzako motorrak alde batera ez uzteko; hori baieztatuko balitz, oxigeno-baloi bat izango litzateke automobilgintzarentzat.

Halaber, auto elektrikoen merkatuaren aurreikuspenaren aurrean, Europar Batasunak behin-behineko akordio bat sinatu zuen 2022aren amaieran, 2006ko Bateriei buruzko Zuzentaraua aldatzeko eta fokua zirkularitatean jartzeko, ingurumen-inpaktua murrizteko helburuz. Horretarako, erregelamendu berriak kontuan hartzen du baterien fabrikazio-prozesu osoa, haien bizitza erabilgarria eta, batez ere, berrerabilpena. Bitartean, egoera solidoko bateriak izan litezke beste aukera bat. Oraindik garatzen ari dira, eta egungo baterien ordezkoak izango lirateke. Gainera, segurtasun eta autonomia handiagoak eskaintzen dituzte, eta karga azkarragoak.

Horren harira, Europako fabrikatzaileek haien inbertsioak handitu dituzte bateria elektrikoak ekoizteko duten ahalmena handitzeko, araudi berriaren eskakizunak betez. Dena den, 2030erako Europako lursailetan 50 gigafaktoria egiteko proiektua bazegoen ere, finantzaketa-faltaren ondorioz arriskuan dago plan horiek bete ahal izatea. Horren guztiaren ondorioz, talde handiak, hala nola Volkswagen, haien baterien lantegientzako kokapen berriak aztertzen ari dira, eta AEB da hautagai handietako bat. Izan ere, 2022ko abuztuan onartutako Inflazioa Murrizteko Legeak pizgarri handiak ematen ditu. Lege horrek 437.000 milioi dolarreko funtsa du, 10 urtean inbertitzeko. Horietatik 369.000 milioi eraldaketa energetikoa azkartzeko dirulaguntza eta pizgarrietara bideratuko dituzte. Zalantzarik gabe, Amerikako lurretan inbertitzeko pizgarri garrantzitsua da. Gainera, energiaren prezio askoz ere lehiakorragoak dituzte han, eta ez dago emisio-eskubideen merkatu nazionalik.

Hala, nolabaiteko protekzionismoa antzematen da, Amerikaren planteamenduari erantzuteko. Inbertsioak erakartzeaz gain, AEBko produktuen erosketa bultzatu nahi da. Gai honetan jarrera hartu duen lehenengo herrialdea Frantzia izan da. 2024tik aurrera Gobernuak dirulaguntzak emango ditu auto elektrikoak erosteko, eta, iragarri duenez, Europan egindako modeloetara bakarrik egongo dira zuzenduta.

Bitartean, automobilgintza-industria eraldaketa handia jasaten ari da, hainbat helburu tartean direla, hala nola: deskarbonizazioa, elektrifikazioa, eraldaketa digitalak, konektagarritasuna, zibersegurtasuna, autonomia... Eta, hori guztia, hornitzaileei arreta jarrita; izan ere, azken gertakariak ikusita, are protagonistagoak eta estrategikoagoak bihurtu dira automobilgintza-industriarentzat.

## 5.1 NAZIOARTEKO EGOERA

2021ean, pandemiaren ondoren, erdieroaleen hornidura-faltak eragin zien, batez ere, automobilgintza-fabrikei. 2022an, berriz, Errusia-Ukraina gerra-gatazkaren ondorioek arriskuan jarri zuten ekoizpen-erritmoa; gatazkak inpaktu askoz ere handiagoa izan zuen Europako fabrikatzaileen artean.

Hala, 2022an 85 milioi ibilgailu ekoitzi zituzten mundu osoan, aurreko urtean baino % 6 gehiago, baina covidaren aurreko balioetatik urrun (-% 7,7). Emaitzak lurraldeen arabera aztertuta, Asia-Ozeania eremuak baino ez zuen lortu 2019ko erregistroak apur bat gainditzea (+% 1,4), batez ere, Txinako ekoizpen-jarduerari esker, ibilgailuen munduko fabrikatzailerik handiena baita Txina.

Gauzak hala eta Europako datuak aztertzen hasita, 2022an agertoki zaila izan zuen Europako industria osoak haren jarduera garatzeko: lehengaien prezioen igoera, energia-merkatuaren aldakortasuna eta hornidura-kateen etengabeko etenaldiak. Neurri handiagoan edo txikiagoan, fabrikatzaile guztiei eragin zien gerra-gatazkak, eta egoera are zailagoa izan zen bi herrialdeekin harreman handiena zuten fabrikatzaileentzat. Logikoa den moduan, ondorioak larriagoak izan ziren Errusian fabrikak zituzten enpresentzat, (jarduera bertan behera uztea erabaki baitzuten aho batez) eta gatazka eremuko hornitzaileekin merkataritza-harremanak zituzten enpresentzat.

Hala, 16,2 milioi ibilgailu ekoitzi zituzten Europan guztira. Gainerako lurraldeek baino bilakaera okerragoa izan zuen 2022an, haren ekoizpen-gaitasuna apur bat jaitsi baitzen (-% 0,7); gainerakoek hainbat neurritako igoerak izan zituzten. Covidaren aurreko balioetatik oso urruti kokatu zen Europa (-% 24,7); garai hartan, ekoizpen mailak erraz gainditzen zuen 21 milioi unitateko muga. Dena den, herrialdeen arabera dinamikak oso ezberdinak izan ziren. Alemania kokatu zen sailkapenaren buruan, 3.677.820 ibilgailu eraikita (% 11,2ko hazkundea 2021arekiko). Espainia (2.219.462 unitate; % 5,8ko hazkundea), Frantzia

(1.383.173 ibilgailu; % 2,3ko hazkundea) eta Turkia (1.352.648 ibilgailu; % 6ko hobekuntza) izan ziren hurrengoak. Bosgarren lekuan Txekiar Errepublika geratu zen, 1.224.456 unitate ekoitzita eta urte arteko % 10,2ko hazkundea izan ondoren. Eta seigarren postuan Eslovakia kokatu zen; milioi bat unitatera iritsi zen, urte arteko % 2,9ko murrizketa izan arren.

Milioi bat unitateren mugaren azpitik kokatu ziren Erresuma Batua (876.614 ibilgailu) eta Italia (796.394), % 6ko eta % 0,1eko murrizketekin, hurrenez hurren. Halaber, gerra-gatazka argi eta garbi islatzen da Ukrainaren (-% 81,7) eta Errusiaren (-% 61,2) ekoizpen mailetan. Europako rankingeko hirugarren postuan zegoen Errusia 2021ean, ia 1,6 milioi unitate ekoitzita, eta 2022an bederatzigarren postura jaitsi zen, 608.460 ibilgailu ekoitzita.

**78. koadroa Ibilgailuen ekoizpena Herrialde nagusiak**

*(unitateak)*

| Herrialde nagusiak | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | % Δ 22/21 | % Δ 22/19 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Txina | 25.750.650 | 25.225.242 | 26.121.712 | 27.020.615 | 3,4 | 4,9 |
| AEB | 10.892.884 | 8.821.026 | 9.157.205 | 10.060.339 | 9,9 | -7,6 |
| Japonia | 9.684.507 | 8.067.943 | 7.836.908 | 7.835.519 | 0,0 | -19,1 |
| India (1) | 4.524.366 | 3.381.819 | 4.399.112 | 5.456.857 | 24,0 | 20,6 |
| Hego Korea | 3.950.614 | 3.506.774 | 3.462.404 | 3.757.049 | 8,5 | -4,9 |
| Alemania | 4.947.316 | 3.742.570 | 3.308.692 | 3.677.820 | 11,2 | -25,7 |
| Mexiko | 4.013.137 | 3.177.251 | 3.194.858 | 3.509.072 | 9,8 | -12,6 |
| Brasil | 2.944.988 | 2.014.055 | 2.248.253 | 2.369.769 | 5,4 | -19,5 |
| Espainia | 2.822.632 | 2.268.185 | 2.098.133 | 2.219.462 | 5,8 | -21,4 |
| Thailandia | 2.013.710 | 1.427.074 | 1.685.705 | 1.883.515 | 11,7 | -6,5 |
| Indonesia | 1.286.848 | 690.176 | 1.121.967 | 1.470.146 | 31,0 | 14,2 |
| Frantzia | 2.172.515 | 1.315.997 | 1.352.226 | 1.383.173 | 2,3 | -36,3 |
| Turkia | 1.461.244 | 1.297.878 | 1.276.140 | 1.352.648 | 6,0 | -7,4 |
| Kanada | 1.916.585 | 1.376.127 | 1.115.002 | 1.228.735 | 10,2 | -35,9 |
| Txekiar Errepublika | 1.433.961 | 1.159.151 | 1.111.432 | 1.224.456 | 10,2 | -14,6 |
| Eslovakia | 1.107.902 | 990.598 | 1.030.000 | 1.000.000 | -2,9 | -9,7 |
| Erresuma Batua | 1.381.405 | 987.044 | 932.488 | 876.614 | -6,0 | -36,5 |
| Italia | 915.291 | 777.057 | 797.243 | 796.394 | -0,1 | -13,0 |
| Europa | 21.531.339 | 16.904.429 | 16.338.165 | 16.216.888 | -0,7 | -24,7 |
| Amerika | 20.160.401 | 15.692.927 | 16.190.835 | 17.756.263 | 9,7 | -11,9 |
| Asia-Ozeania | 49.333.841 | 44.276.549 | 46.768.800 | 50.020.793 | 7,0 | 1,4 |
| Afrika (2) | 1.095.151 | 776.247 | 907.302 | 1.022.783 | 12,7 | -6,6 |
| Mundua, guztira | **92.120.732** | **77.650.152** | **80.205.102** | **85.016.728** | **6,0** | **-7,7** |

*(1): Indian ez daude marka guztiak kontabilizatuta.*
*(2): Afrika, Egipto aintzat hartu gabe.*
*Iturria: OICA*

Asia-Ozeaniako fabrikatzaileek agertoki mesedegarriagoan garatu zuten haien jarduera. 2022an nazioarteko hegemonia mantendu zuten, 50 milioitik gora unitate ekoitzita (urte arteko % 7ko hazkundea). Hortaz, Asia-Ozeanian ekoitzi ziren mundu osoan ekoitzitako 10 ibilgailutik ia 6 (% 58,8). Posizionamendu pribilegiatu hori, neurri handi batean, Txinaren ekoizpen-ahalmenari dagokio. Munduko ibilgailu-fabrikatzaile nagusia da Txina; 2022an

27 milioi unitate eraiki zituen, 2021ean baino % 3,4 gehiago eta munduko ekoizpenaren % 31,8. Eremuaren barruan, halaber, Japoniaren pisu espezifikoa nabarmentzen da. 2022an 7,8 milioi ibilgailu ekoitzi zituen Japoniak (urte arteko % 0,0ko aldakuntza). Indiaren jarduera ere nabarmendu behar da. 5,4 milioi ibilgailu ekoitzi zituen, % 24,0ko hazkunde handia izan ondoren. Hego Koreak ere garrantzia izan zuen, ia 3,8 milioiko ekoizpena izan baitzuen, urte arteko % 8,5ko hazkundearen ostean.

Ipar Amerikan 14.798.146 ibilgailu eraiki zituzten, eta erreferentziazko herrialdeen ekoizpena % 10 inguru hazi zen. Zehazki, datuak herrialdearen arabera banatuta, AEBk % 9,9ko hazkundea izan zuen eta 10 milioiko langa gainditu zuen. Mexikok % 9,8ko hazkundea erregistratu zuen, eta 3,5 milioi unitate ekoitzi zituen. Eta, azkenik, Kanadak % 10,2ko hazkundea izan zuen, eta 1,2 milioi ibilgailu ekoitzi zituen.

Hego Amerikak eta Afrikak osatu zuten ekoizpen maila. Hego Amerikan 2.958.117 unitate ekoitzi zituzten (+% 8,6), horietatik % 80 Brasilgo fabriketan. Bestetik, Afrikan, 1.022.783 ibilgailu muntatu zituzten, 2021ean baino % 12,7 gehiago.

Ibilgailuen mundu mailako matrikulazio-datuak aztertuko ditugu orain. 2022an hobetu egin zen matrikulazio-erritmoa, baina bultzada hori ez zen nahikoa izan ekitaldia balio positiboekin amaitzeko. Mundu osoan 81,6 milioi ibilgailu matrikulatu zituzten (2021arekiko -% 1,4), pandemiaren aurretik baino % 10,5 gutxiago (2019an 91,2 milioi). Ekoizpenaren kasuan bezala, Asia-Ozeania eremuak bakarrik berreskuratu zuen covidaren aurreko merkatuaren tamaina (2019arekiko +% 1,9).

Hala, 2022an Europan % 10,7 murriztu ziren matrikulazioak, 2021arekin alderatuta; 15.083.088 unitate matrikulatu zituzten. Ekitaldi zaila izan zen; batetik, ekoizpenak behera egin zuen eta, bestetik, ziurgabetasuna eta oso azkar handitzen ari zen inflazioa gailentzen ziren testuinguru sozioekonomikoan.

Emaitzak herrialdearen arabera aztertuta, Alemaniak lehen postua mantendu zuen, ia 3 milioi matrikulaziorekin eta 2021arekiko % 0,3ko murrizketa apalarekin.

Bigarren eta hirugarren postuetan Erresuma Batua eta Frantzia kokatu ziren, ia 2 milioi unitate salduta. Bi merkatuek murrizketak izan zituzten haien balioetan, 2021arekin alderatuta (-% 5,1 eta -% 9,9). Italiak, laugarren postuan, 1,5 milioi ibilgailu matrikulatu zituen, urte arteko % 9,8ko beherakada izan ondoren. Espainia, bestalde, Europako rankingaren bosgarren postuan zegoen, 958.813 ibilgailu salduta, 2021ean baino % 7,3 gutxiago.

Ekoizpenaren atalean bezala, Asia-Ozeaniak izan zituen bilakaera-daturik onenak. Hala, matrikulazioak % 4,3 hazi ziren eremu horretan, eta ia 44,6 milioi ibilgailu matrikulatu zituzten; hala, ibilgailuen mundu mailako merkatuaren erdia baino zerbait gehiago

zegokion (% 54,6). Txinan ia 27 milioi ibilgailu matrikulatu zituzten, aurreko ekitaldian baino gehiago (+% 2,1), eta covidaren aurreko datuak gainditu zituen ondoz ondoko bigarren urtez. 2022aren amaieran gobernuak kendu egin zituen ibilgailuak erosteko pizgarriak, eta horrek azaltzen du, neurri batean, eskariaren hazkundea; izan ere, posible da erabaki horrek merkatuaren zati baten erosketa-asmoak aurreratu izana. Halaber, Indiako salmenten bilakaera nabarmendu zen, 4,7 milioi unitatera iritsi baitziren, urte arteko % 25,7ko hazkunde nabarmenaren ondoren (% 23,8ko hobekuntza 2019arekiko). Kasu honetan ere gobernuaren pizgarri-programa batek bultzatu zituen salmentak. Aldiz, Japonian eta Hego Korean behera egin zuten matrikulazioek. Japonian 4,2 milioi unitate matrikulatu zituzten, aurreko urtean baino % 5,6 gutxiago, eta Hego Korean ia 1,7 milioi unitate, aurreko urtean baino % 2,9 gutxiago.

Halaber, 2022ko azken hiruhilekoan hazkunde txiki bat izan arren, Amerikako matrikulazioek urte arteko % 5,1eko jaitsiera izan zuten; 20,9 milioi unitate matrikulatu zituzten (2019arekiko -% 17,7). Bilakaera bera izan zuten AEBko salmentek (-% 7,6). Arazo logistikoen eta hornidura-katearen arazoen ondorioz, ekoizpenak behera egin zuen eta eskaria 14,2 milioi ibilgailukoa izan zen 2022an. Kanadako matrikulazioek ere behera egin zuten (-% 8,3), baina salmenten bolumena askoz ere baxuagoa izan zen (ia 1,6 milioi ibilgailu). Aldiz, Mexiko aldendu egin zen joera nagusitik, eta % 8,4ko hazkundea izan zuen matrikulazioetan; hala, milioi bat unitateren langa gainditu zuen.

Bestetik, Hego Amerikako ibilgailuen eskaria apur bat igo zen, % 2,8, eta ia 4 milioi ibilgailu saldu zituzten. Dena den, oraindik ere urrun geratu ziren covidaren aurreko erregistroak berreskuratzetik (-% 13,2). Brasil da eremu horretako merkaturik handiena eta 2,1 milioi unitate salduta itxi zuen ekitaldia. Ez zuen ia aldakuntzarik izan 2021arekiko (-% 0,7), baina oraindik ere oso urruti zegoen 2019ko matrikulazioetatik: 2,8 milioi (-% 24,5).

Afrikari dagokionez, matrikulazioek milioi bat unitateren muga gainditu zuten ozta-ozta, urte arteko beherakada izan ondoren (-% 3,8). Covidaren aurreko maila baino % 9,1 beherago kokatu ziren matrikulazioak.

**79. koadroa Ibilgailuen matrikulazioa. Herrialde nagusiak**

*(unitateak)*

| Herrialde nagusiak | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | % ∆ 22/21 | % ∆ 22/19 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Txina | 25.796.931 | 25.311.069 | 26.314.263 | 26.863.745 | 2,1 | 4,1 |
| AEB | 17.488.154 | 14.881.356 | 15.408.565 | 14.230.324 | -7,6 | -18,6 |
| India | 3.816.858 | 2.938.575 | 3.759.398 | 4.725.472 | 25,7 | 23,8 |
| Japonia | 5.195.216 | 4.598.615 | 4.448.340 | 4.201.320 | -5,6 | -19,1 |
| Alemania | 4.017.059 | 3.266.759 | 2.973.319 | 2.963.748 | -0,3 | -26,2 |
| Brasil | 2.787.850 | 2.058.437 | 2.119.851 | 2.104.461 | -0,7 | -24,5 |
| Erresuma Batua | 2.736.559 | 1.964.660 | 2.049.005 | 1.943.572 | -5,1 | -29,0 |
| Frantzia | 2.755.728 | 2.100.030 | 2.142.284 | 1.929.554 | -9,9 | -30,0 |
| Hego Korea | 1.795.134 | 1.905.972 | 1.734.581 | 1.683.657 | -2,9 | -6,2 |
| Kanada | 1.976.440 | 1.586.474 | 1.704.850 | 1.562.965 | -8,3 | -20,9 |
| Italia | 2.132.630 | 1.564.756 | 1.669.855 | 1.505.978 | -9,8 | -29,4 |
| Mexiko | 1.360.008 | 977.650 | 1.046.732 | 1.134.442 | 8,4 | -16,6 |
| Australia | 1.062.867 | 916.968 | 104.9831 | 1.081.429 | 3,0 | 1,7 |
| Indonesia | 1.030.486 | 532.077 | 887.205 | 1.048.040 | 18,1 | 1,7 |
| Espainia | 1.501.244 | 1.030.792 | 1.034.064 | 958.813 | -7,3 | -36,1 |
| Thailandia | 1.007.552 | 792.146 | 748.580 | 849.388 | 13,5 | -15,7 |
| Turkia | 491.947 | 796.150 | 772.850 | 827.163 | 7,0 | 68,1 |
| Errusia | 1.778.841 | 1.631.163 | 1.741.965 | 808.604 | -53,6 | -54,5 |
| Europa | 20.930.134 | 16.714.115 | 16.882.466 | 15.083.088 | -10,7 | -27,9 |
| Amerika | 25.389.729 | 20.817.485 | 22.014.634 | 20.888.241 | -5,1 | -17,7 |
| Asia-Ozeania | 43.724.043 | 40.330.258 | 42.724.577 | 44.566.542 | 4,3 | 1,9 |
| Afrika | 1.200.291 | 925.708 | 1.133.520 | 1.090.662 | -3,8 | -9,1 |
| **Mundua, guztira** | **91.244.197** | **78.787.566** | **82.755.197** | **81.628.533** | **-1,4** | **-10,5** |

*Iturria: OICA.*

## 5.2 SEKTOREA ESPAINIAN

Estatu osoan zehar banatutako 16 ekoizpen-lantegik osatzen dute Estatuko automobilgintza-industria. Zalantzarik gabe, sektore estrategikoa da ekonomia nazionalarentzat. 2022an, BPGaren % 8 inguru eta enpleguaren % 9 inguru zegozkion, fabrikatzaileak eta hornitzaileak aintzat hartuta.

Haren jarduera garatzeko orduan, aurreko biurtekoan baino hobea izan da testuingurua. Hala ere, sektorea egoera zailean kokatu dute hainbat faktorek: osagai batzuen aldizkako gabezia, energiaren prezioen aldakortasuna, lehorreko eta itsasoko garraio-arazoak eta azkar handitzen ari den inflazioa. Horren guztiaren ondorioz, matrikulazioen hirugarren jaitsierarik handiena izan zuen herrialdea izan zen Espainia, pandemiaren aurreko etaparekin alderatuta, eta ezin izan zuen milioi bat matrikulazioren muga gainditu. Hala, 2019ko bolumenekin alderatuta (1.258.251 matrikulazio izan ziren orduan), agerikoa da salmentek okerrera egin dutela.

Ekitaldian zehar, pixkanaka, hobetu egin zen lehengaien eta osagaien hornidura, eta horrek ekoizpen-erritmoa handitzea ahalbidetu zuen. Hala ere, salmentak oztopatu

zituzten Errusiaren eta Ukrainaren arteko gerra-gatazkaren ondoriozko inflazio handiak eta nazioarteko ziurgabetasun ekonomikoak, beste faktore batzuen artean.

Agertoki gorabeheratsua izan arren, sektoreak haren bide-orriarekin jarraitu zuen 2022an, deskarbonizazioan zentratuta eta elektrifikazioa protagonista nagusi zela. Aldi berean, Estatuko inbertsioa eta modelo berrien garapena mantentzea lortu zuen sektoreak.

Sektoreko magnitude nagusiak aztertuko ditugu jarraian, ekoizpenarekin hasita. Fabrikek aldizkako hornidura-arazoak jasan arren, 2022an 2,2 milioi ibilgailu ekoitzi zituzten Estatuan, 2021ean baino % 5,8 gehiago (2019arekin alderatuta, -% 35,4). Bestetik, zero emisioko eta emisio baxuko 359.573 ibilgailu ekoitzi zituzten (+% 65,2), eta horietatik 266.496 elektrikoak ziren.

Hala, produktu motaren araberako analisiak erakusten duenez, turismoak eta ibilgailu industrialak ekoizteko ahalmena % 8 hazi zen, eta 1.787.197 turismo eta 56.251 ibilgailu industrial ekoitzi zituzten. Merkataritza-ibilgailuek, berriz, behera egin zuten berriz ere (-% 1,8), 375.988 unitate ekoitzita.

Analisi hori bera esportazioetara eramanda, kanpo-merkataritzaren jardueraren bilakaerak agerian utzi zituen ekoizpenaren mugak. Izan ere, ekoitzitako 10 ibilgailutik ia 9 nazioarteko merkatuetara bideratzen dira. 2022an zehar Estatuko industriak 1.932.629 ibilgailu esportatu zituen, aurreko urtean baino % 2,9 gehiago; turismoen esportazioek (+% 4,7) zein ibilgailu industrialen esportazioek (+% 6,8) egin zuten gora. Zehatzago esanda, 1.583.558 turismo eta 48.098 ibilgailu industrial saldu ziren mugaz kanpora. Merkataritza ibilgailuen esportazioak, ordea, murriztu egin ziren (-% 6); 300.973 unitate esportatu zituzten.

Hala ere, matrikulazioek ez zuten izan ekoizpenak izandako erresilientziarik, eta urte arteko % 7,3ko jaitsiera izan zuten. 2022an salmentak ez ziren milioi bat unitatera iritsi, eta ia duela hamarkada bateko zifretara itzuli ziren. Hala, 2019arekiko jaitsiera % 35,4koa izan zen.

Ibilgailu motaren arabera, ekitaldiaren gorabeherak islatzen ditu turismoen (-% 5,4) eta merkataritza-ibilgailuen (-% 21,3) bilakaerak. Ondoz ondoko hirugarren urtez, turismoen salmentak ez ziren milioi bat unitatera iritsi. Merkataritza-ibilgailuak, berriz, zifra "normaletatik" urrundu ziren, eta haien eskaria ez zen 150.000 unitatera heldu. Dena den, ibilgailu industrialak nabarmendu ziren, izan zuten igoeragatik (+% 13,8). Halere, horien pisu erlatiboa askoz ere txikiagoa zen eta 2022an 25.911 ibilgailu industrial matrikulatu zituzten.

Bestalde, ibilgailu alternatiboen merkatuak ia % 11ko hazkundea izan zuen eta 345.000 unitate inguru matrikulatu ziren, guztizko merkatuaren herena baino zerbait gehiago.

. koadroa Espainiako automobil-industriaren ekoizpena, matrikulazioa eta kanpoko merkataritza

*(unitateak)*

| Azpisektorea | Produkzioa | | | Esportazioak | | | Matrikulazioak | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2021 | 2022 | %∆ | 2021 | 2022 | %∆ | 2021 | 2022 | %∆ |
| Turismoak eta lur orotakoak | 1.663.199 | 1.787.197 | 7,5 | 1.512.763 | 1.583.558 | 4,7 | 859.477 | 813.374 | -5,4 |
| Merkataritza-ibilgailuak | 382.711 | 375.988 | -1,8 | 320.053 | 300.973 | -6,0 | 151.823 | 119.528 | -21,3 |
| Industria-ibilgailuak* | 52.223 | 56.251 | 7,7 | 45.040 | 48.098 | 6,8 | 22.764 | 25.911 | 13,8 |
| **Guztira** | **2.098.133** | **2.219.436** | **5,8** | **1.877.856** | **1.932.629** | **2,9** | **1.034.064** | **958.813** | **-7,3** |

*(*): Autobusak ere barne hartzen ditu.*

*Iturria: Anfac.*

Matrikulazio-datuetan sakontzeko, marken arabera aztertuko dugu orain matrikulazioen bilakaera. Hainbat zirkunstantziak izan zuten eragina, baina, bereziki, hornidura-faltak, ziurgabetasunak eta espiral inflazionistak oztopatu zuten turismoen salmenta. Halere, fabrikatzailearen arabera emaitzak ezberdinak izan ziren.

Testuinguru horretan, bi fabrikatzaile asiar nabarmendu ziren, Toyota (Japonia) eta Kia (Hego Korea). 2021arekiko salmentak hobetzeaz gain, pandemiaren aurreko matrikulazio bolumena berreskuratu zuten. Emaitza horiek baieztatzen dituen faktoreetako bat erdieroaleen horniduraren kudeaketa izan zen. Izan ere, Asiako fabrikek itogune txikiagoak zituzten Europako lehiakideek baino.

Hala, Toyota kokatu zen Estatuko zerrendaren buruan, 73.505 turismo salduta, 2021ean baino % 17,9 gehiago eta 2019an baino % 2,5 gehiago. KIA marka bigarren postuan kokatu zen, 63.345 matrikulaziorekin eta urte arteko % 10,7ko hazkundearekin (2019arekiko +% 6,4). Eta Hyundai izan zen hurrengoa, 59.503 unitate salduta eta balioak % 3,5 handituta (2019arekiko -% 5,2). Era berean, bilakaera positiboa izan zuten Daciak (37.682 unitate; +% 2,5), Mercedesek (36.480; +% 8,3) eta Audik (35.137; +% 1,2).

Bi enpresa talde handiek, Volkswagen taldeak (179.920 turismo salduta) eta Stellantis taldeak (149.376 unitate saldu zituzten haren baitako marka nagusiek) urte arteko jaitsierak izan zituzten: -% 12 eta -% 13,6, hurrenez hurren. Hala, covidaren aurreko balioetatik oso urrun geratu ziren (-% 37,3 eta -% 46,9).

Volkswagen taldearen datuen bilakaera aztertuta, Seatek lidergoa galdu zuela ikus daiteke, ez baitzen 50.000 matrikulaziotara iritsi (-% 30,2). Volkswagenen zifrak, berriz, hobeak izan ziren: 58.853 matrikulazio (-% 4,7). Testuinguru horretan, Cupra, 2020az geroztik merkatuan dagoena eta ibilgailu elektrikoen merkatuan zentratzen dena, posizioak irabazten ari da, Seaten Premium marka gisa (13.476 unitate; +% 21,5).

Stellantisi dagokionez, haren lau erreferentziazko markek presentzia galdu zuten Estatuko merkatuan, salmentak nabarmen jaitsita: Peugeot (54.737; -% 18,6), Citroën (43.161; -% 8,3), Opel (26.583; -% 12,4) eta Fiat (24.895; -% 11,8).

Honakoek osatu zuten gehien saldutako marken rankinga: Renault (45.515; -% 12), BMW (30.682; -% 12,8) eta Ford (28.963; -% 1,3).

**80. koadroa Turismoen matrikulazioa marken arabera**

*(unitateak)*

| Marka nagusiak | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | %∆ 22/21 | %∆ 22/19 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Toyota | 71.696 | 57.580 | 62.329 | 73.505 | 17,9 | 2,5 |
| KIA | 59.523 | 47.624 | 57.235 | 63.345 | 10,7 | 6,4 |
| Hyundai | 62.766 | 45.405 | 57.508 | 59.503 | 3,5 | -5,2 |
| Volkswagen | 94.328 | 66.817 | 61.724 | 58.853 | -4,7 | -37,6 |
| Seat | 111.982 | 68.721 | 70.523 | 49.200 | -30,2 | -56,1 |
| Audi | 51.114 | 37.285 | 34.732 | 35.137 | 1,2 | -31,3 |
| Škoda | 29.388 | 22.667 | 26.439 | 23.254 | -12,0 | -20,9 |
| Cupra | -- | 933 | 11.090 | 13.476 | 21,5 | -- |
| *Volkswagen taldea** | *286.812* | *196.423* | *204.508* | *179.920* | *-12,0* | *-37,3* |
| Peugeot | 97.939 | 65.699 | 67.266 | 54.737 | -18,6 | -44,1 |
| Opel | 69.101 | 30.223 | 30.350 | 26.583 | -12,4 | -61,5 |
| Citroën | 67.151 | 43.820 | 47.072 | 43.161 | -8,3 | -35,7 |
| Fiat | 47.115 | 28.516 | 28.231 | 24.895 | -11,8 | -47,2 |
| *Stellantis taldea** | *281.306* | *168.258* | *172.919* | *149.376* | *-13,6* | *-46,9* |
| Renault | 86.420 | 56.138 | 51.701 | 45.515 | -12,0 | -47,3 |
| Dacia | 55.692 | 39.395 | 36.771 | 37.682 | 2,5 | -32,3 |
| Mercedes | 53.719 | 42.375 | 33.676 | 36.480 | 8,3 | -32,1 |
| Ford | 57.168 | 34.776 | 29.336 | 28.963 | -1,3 | -49,3 |
| Nissan | 51.554 | 34.761 | 26.058 | 18.122 | -30,5 | -64,8 |
| BMW | 46.887 | 35.229 | 35.193 | 30.682 | -12,8 | -34,6 |
| **Marka nagusiak, guztira** | **1.113.543** | **757.964** | **767.233** | **723.113** | **-5,8** | **-35,1** |
| Gainerako markak | 144.708 | 93.246 | 92.244 | 90.283 | -2,1 | -37,6 |
| **Matrikulazioak, guztira** | **1.258.251** | **851.210** | **859.477** | **813.396** | **-5,4** | **-35,4** |

*(*) Taldeko marka nagusiak soilik daude sartuta.*
*Iturria: Anfac.*

Analisiarekin jarraituz eta Estatuko produktuen helmugako merkatuei dagokionez, 2022an honakoek jarraitu zuten lehen postuetan: Alemania (kuotaren % 18,7), Frantzia (% 16,8), Italia (% 12,5) eta Erresuma Batua (% 11,9). Lau herrialde horiei dagokie Estatuko eskariaren zatirik handiena (% 60). Hala, Alemaniak (+% 8,6) eta Italiak (+% 5,8) hobetu egin zituzten aurreko ekitaldiko erregistroak. Frantziaren (-% 6,2) eta Erresuma Batuaren (-% 3,0) kasuan, berriz, behera egin zuen eskariak. Datuak 2019koekin alderatuz gero, Italia gainerako herrialdeak baino gehiago gerturatu zen covidaren aurreko balioetara (-% 3,6). Gainerako herrialdeek askoz ere balio baxuagoak izan zituzten, -% 29,8 eta -% 24,7 artekoak.

Jarraian, bosgarren postuan, Turkia kokatu zen, % 5,1eko partaidetzarekin. Bilakaera oso ona izan zuen (+% 15,6) eta alde handiarekin gainditu zituen covidaren aurreko erregistroak (+% 174,7). Inportatzaile nagusien mapa osatu zuten hurrengo herrialdeek % 3,2 (Belgika) eta % 1,7 (Austria) arteko pisu erlatiboa zuten eta, gehienen kasuan, handitu egin zen produktu nazionalen erosketa. Hala ere, kasu bakar batean ere ez ziren iritsi 2019ko erregistroetara. Esportatutako 10 ibilgailutik ia 9 Europara bideratu ziren.

**81. koadroa Ibilgailuen esportazio nazionalen jomugako herrialde nagusiak**

*(unitateak)*

| Herrialdea | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | %∆ 22/21 | %∆ 22/19 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Alemania | 480.687 | 386.341 | 333.381 | 361.906 | 8,6 | -24,7 |
| Frantzia | 437.550 | 397.641 | 345.904 | 324.549 | -6,2 | -25,8 |
| Italia | 250.455 | 225.748 | 228.202 | 241.534 | 5,8 | -3,6 |
| Erresuma Batua | 327.186 | 241.848 | 236.623 | 229.534 | -3,0 | -29,8 |
| Turkia | 35.560 | 71.791 | 84.499 | 97.676 | 15,6 | 174,7 |
| Belgika | 87.695 | 66.116 | 55.490 | 61.140 | 10,2 | -30,3 |
| Herbehereak | 53.573 | 43.989 | 41.421 | 46.498 | 12,3 | -13,2 |
| Polonia | 55.702 | 42.129 | 40.297 | 42.764 | 6,1 | -23,2 |
| Portugal | 47.194 | 36.341 | 33.441 | 39.838 | 19,1 | -15,6 |
| Austria | 49.516 | 38.259 | 33.760 | 33.322 | -1,3 | -32,7 |
| **10 herrialde nagusiak, guztira** | **1.825.118** | **1.550.203** | **1.433.018** | **1.478.761** | **3,2** | **-19,0** |
| Gainerakoak | 484.952 | 401.245 | 387.709 | 453.868 | 17,1 | -6,4 |
| **Esportazioak, guztira** | **2.310.070** | **1.951.448** | **1.820.727** | **1.932.629** | **6,1** | **-16,3** |

*Iturria: Anfac.*

Merkataritza-balantzari dagokionez, esportazioen balioak gora egin zuen (+% 4,3); izan ere, partida nagusiak, turismo eta lur orotakoenak, % 9,8ko hazkundea izan zuen.

Zatiek, piezek eta osagarriek ere bilakaera positiboa izan zuten (+% 12,2). Merkataritza-ibilgailuek, industria-ibilgailuek eta autobusek (-% 27,5) eta motorrek eta abiadura-kaxek (-% 3,7), ordea, behera egin zuten. Bestetik, inportazioek balio gorakorrekin itxi zuten urtea (+% 14,0); izan ere, partida guztiak hazi ziren, neurri handiagoan edo txikiagoan. Hala, merkataritza-saldoa 9.497 milioi eurokoa izan zen, aurreko ekitaldian baino % 21,3 txikiagoa.

**82. koadroa Automobilgintza-sektoreko esportazioak eta inportaziok (ibilgailuak gehi osagarriak)**

*(M euro)*

| Kontzeptua | Esportazioak | | | Inportazioak | | | Saldoa: Esportazioak - Inportazioak | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2021 | 2022 | %∆ | 2021 | 2022 | %∆ | 2021 | 2022 | %∆ |
| Turismoak eta lur orotakoak | 27.734 | 30.462 | 9,8 | 13.662 | 16.008 | 17,2 | 14.072 | 14.454 | 2,7 |
| Merkataritza-ibilgailuak, industria-ibilgailuak eta autobusak | 6.485 | 4.702 | -27,5 | 2.615 | 2.699 | 3,2 | 3.869 | 2.003 | -48,2 |
| Zatiak, piezak eta osagarriak | 8.354 | 9.377 | 12,2 | 12.153 | 13.318 | 9,6 | -3.799 | -3.941 | 3,7 |
| Motorrak eta abiadura-kaxak | 1.533 | 1.477 | -3,7 | 3.601 | 4.496 | 24,9 | -2.068 | -3.019 | 46,0 |
| **Guztira** | **44.106** | **46.018** | **4,3** | **32.031** | **36.521** | **14,0** | **12.075** | **9.497** | **-21,3** |

*Iturria: Anfac.*

Hala, sektoreak urte zaila bizi izan zuen. Hornidura-arazoek ekoizpen-erritmoa mantsotu zuten, baina urtearen bigarren zatian hobera egin zuen egoerak. Hala ere, hobekuntza hori ez zen islatu matrikulazio-datuetan. ANFACen arabera, EBko laugarren ekonomia da Espainia eta merkatua 1,2 edo 1,3 milioi turismo ingurukoa izango da, eta 1,5 edo 1,6 ingurukoa, merkataritza-ibilgailuak, autobusak eta ibilgailu astunak kontuan hartuta. Halaber, ANFACek ohartarazi zuenez, elektromugikortasunaren garapenari dagokionez, Europako azken postuetan amaitu zuen 2022a Espainiak. Ibilgailu elektrikoen presentzia eskasa zen, eta kargatzeko azpiegituren garapena ez zen nahikoa.

Automobilgintzako hornidura-industriaren jarduera aztertuko dugu orain. Sernautok[1] argitaratutako informazioa aintzat hartuta, ekitaldian zailtasunak izan arren, sektoreak oso emaitza onekin itxi zuen 2022a. Fakturazioa 37.668 milioi eurora iritsi zen, urte arteko % 17,4ko hazkundea izan ondoren. Hala, 2019ko datuak gainditu zituen (+% 5,2). Enpleguak ere gora egin zuen, baina neurri txikiagoan (+% 0,8). 203.000 langile zituen sektoreak, eta 329.950 langile, zeharkako enplegua kontuan hartuta. Gainera, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza arloko inbertsioa indartu zuten hornitzaileek 2022an (+% 5,8), 1.231,5 milioi eurora iritsi arte: guztizko fakturazioaren % 3,3.

Merkatu nazionalak zein kanpoko merkatuak lagundu zuten emaitza horiek lortzen. Hala ere, esportazioek bakarrik lortu zuten guztiz suspertzea, 2019arekiko. Hala, 2022an nabarmen hazi ziren salmenta nazionalak (2021arekiko, +% 20,8) eta 14.999 milioi eurora iritsi ziren (2019arekiko, -% 0,5).

Merkatu nazionalaren osaerari dagokionez, ekipo originalaren segmentuak izan zuen ekarpen erlatiborik handiena (% 60,7) eta urte arteko aldakuntzarik onena (+% 24,9). Ordezkoen merkatuak, berriz, pisu espezifiko txikiagoarekin (% 39,3), hazkunde txikiagoa izan zuen (+% 14,9), baina covidaren aurreko balioak gainditzeko adinakoa (+% 11,7).

[1] Automobilgintzako Hornitzaileen Espainiako Elkartea

**83. koadroa Automobilgintzako ekipoen eta osagaien Espainiako industriaren zifra nagusiak**

*(M euro)*

| Kontzeptua | 2020 | 2021 | 2022 | %∆ 22/21 | %∆ 22/19 |
|---|---|---|---|---|---|
| Fakturazioa | 30.200 | 32.085 | 37.668 | 17,4 | 5,2 |
| Merkatu nazionaleko salmentak | 12.300 | 12.416 | 14.999 | 20,8 | -0,5 |
| - Ekipo originala | 7.740 | 7.291 | 9.110 | 24,9 | -7,0 |
| - Ordezkoak | 4.560 | 5.125 | 5.889 | 14,9 | 11,7 |
| Esportazioak | 17.879 | 19.669 | 22.669 | 15,3 | 9,2 |
| I+G+b inbertsioa | 1.075 | 1.164 | 1.231 | 5,8 | -15,6 |
| Enplegua (langile kopurua) | 212.500 | 201.450 | 203.000 | 0,8 | -9,9 |

*Iturria: Sernauto.*

Esportazioen kapituluak ere gora egin zuen (+% 15,3), eta esportazioen balioa 22.669 milioi eurokoa izan zen: fakturazioaren % 60,1. Estatuko esportazioen helmuga nagusia izaten jarraitu zuen EBk, 15.135 milioi euroko balioarekin (+% 15,9). Kanpora saldu ziren 10 produktutik ia 7 EBra saldu ziren.

Testuinguru horretan, Frantziaren hazkundea nabarmendu zen, Estatuko produktuen 4.005 milioi euro inportatu baitzituen (+% 29,9). Hala, rankingeko lehen postua kendu zion Alemaniari; 3.699 milioi euroko balioa izan zuten hara egindako esportazioek (+% 9,6). Portugal eta Italia kokatu ziren hirugarren eta laugarren postuetan: 1.947 eta 1.222 milioi euro, hurrenez hurren. Horiek ere hobetu egin zituzten erregistroak, 2021arekin alderatuta (+% 16,2 eta +% 18,2, hurrenez hurren).

Europako mugetatik kanpo, AEBk lehen postua kendu zion Erresuma Batuari. Izan ere, AEBk Estatuko industriarekin izan zuen merkataritza-harremana 1.469 milioi eurokoa izan zen (+% 35,1), eta Erresuma Batuarena 1.122 milioi eurokoa (+% 2). Honako herrialde hauek nabarmendu ziren, bi digituko hazkundeak izan zituztelako: Mexiko, Turkia, Hegoafrika eta Brasil (+% 27,2, +% 23,2, +% 16,1 eta +% 12,7, hurrenez hurren). Aitzitik, Asiako merkatuek industria hornitzailearekin izandako merkataritza-fluxuak ahuldu egin ziren. Asiako erraldoiak, 577 milioi eurorekin, murriztu egin zituen inportazioak (-% 0,9), eta jaitsiera handiagoa izan zen Japonian (-% 10,2) eta Hego Korean (-% 15).

Hala, sektoreko adierazleak suspertu egin ziren 2022an eta horietako batzuek covidaren aurreko balioak gainditu zituzten. Joera horrek jarraipena izan lezake 2023an, presio inflazionistek behera egiten jarraitzen badute eta mundu mailako hornidura-kateen jarduera normaltzen bada. Dena den, honakoa aipatu du Sernautok: *"Faktore exogenoek eragindako ziurgabetasun-testuinguru honetan, beharrezkoa da herrialdeko estrategia bat izatea, gure enpresei laguntzeko eta inbertitzaileen eta kontsumitzaileen artean konfiantza sortzeko. Hori dela eta, hazkunde-aurreikuspenak betetzeko eta industria lehiakorra izaten jarraitzeko, 2023an funtsezkoa izango da Europako funtsak enpresetara iristea, finantzaketa arloan nolabaiteko marjina izatea ahalbidetuko baitie horrek".*

## 5.3 AUTOMOBILGINTZAKO HORNIDURA-INDUSTRIA EAEN

EAEko automobilgintzako hornidura-sektoreak % 22,2ko urte arteko hazkundea izan zuen salmentetan 2022an, eta 22.423 milioi euroko fakturazioa lortu zuen sektore osoak. Jarduera agertoki konplikatuan garatu arren, 2021eko salmentak gainditzeaz gain, sektoreak aise gainditu zituen 2019ko salmentak ere (+% 10). Espainiako automobilgintzako osagaien enpresen % 50 dira sektore honetakoak.

Zalantzarik gabe, balantze positiboa izan zen EAEko ekonomiarentzat estrategikoa den sektore honentzat. Zehazki 300 enpresaz osatuta dago sektorea, EAEko BPGaren % 25 dagokio eta enplegu-tasa handiak ditu, zueneko langileak zein zeharkakoak aintzat hartuta. Zehatzago esanda, EAEko fabrikatzaileek mundu osoan zehar martxan dituzten 740 ekoizpen-lantegietan 120.000 pertsonak lan egiten dute; horietatik 38.414k Euskal Herrian egiten zuten lan 2022an (2021arekiko +% 1).

Zifra horiei Gasteizko Mercedes-Benz lantegiaren pisu espezifikoa gehitu behar zaie. 5.000 pertsona inguruei ematen die zuzeneko lana (zeharka, 30.000 pertsonari) eta 141.000 unitate inguruko ekoizpena izan zuen 2022an. Halere, aurreikusi baino txikiagoa izan zen ekoizpena, hornidura-faltaren ondorioz ekoizpena eten behar izan zutelako.

Hortaz, EAEko jardueraren emaitzak, neurri handi batean, bat datoz Estatuaren kasuan aipatu ditugun giltzarriekin. Dena den, erreferentziazko bi adierazleen (fakturazioa eta enplegua) bilakaerak erakusten duenez, EAEko agertokia hobea izan zen.

Sektorearen ezaugarri berezi bat haren izaera esportatzailea da: ekoizpenaren % 90 kanpora bidaltzen da, eta % 50 baino gehiago Europako mugez harago. Horretarako, EAEko hornidura-industriak presentzia handia du kanpoan; zehazki, 32 herrialdetan dute ordezkaritza. Bestalde, 48 multinazional daude EAEko lurretan. Zentzu horretan, Errusia-Ukraina gerra-gatazkak kaltetu egin zuen Gestamp edo CIE Automotiven gisako enpresen ekoizpena, Errusian zituzten fabriketako jarduera eten baitzuten.

Informazioa bezero-segmentuen arabera aztertuta, eta ACICAEk[1] argitaratutako informazioaren arabera, sektoreko salmenten % 74,8 ibilgailu-ekoizleei bideratuta zeuden, % 17,5 lehen mailako hornitzaileei eta % 7,7 baino ez zegokion ordezko piezen merkatuaren eskariari.

[1] ACICAE: Euskadiko Automobilgintza Klusterra.

**84. koadroa Automobilgintzako euskal hornidura-sektorearen bilakaera**

| Kontzeptua | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022(*) |
|---|---|---|---|---|---|
| Fakturazioa (M euro) | 19.311 | 20.375 | 16.605 | 18.351 | 22.423 |
| Enplegua (pertsona kopurua) | 40.924 | 40.488 | 39.255 | 38.142 | 38.414 |

*(*): Behin-behineko datuak.*

*Iturria: ACICAE.*

**16. grafikoa Sektoreko fakturazioaren bilakaera**

*(M euro)*




*Iturria: ACICAE*

Etorkizun hurbilari dagokionez, merkatua ezegonkorra eta konplexua den honetan, 2023an salmentak % 6,1 inguru igo litezkeela aurreikusten du ACICAEk.

Bien bitartean, balio-kate osoan presente dago ibilgailu-elektrikoetarako trantsizioa. Testuinguru horretan, garrantzi berezia dute bateriek. Orain arte elektrolito likido batez eginda zeuden, baina material hori suharbera da; gainera, oso kostu altua du, eta horrek ibilgailuaren amaierako prezioa garestitzen du. Zentzu horretan, solido egoeran dagoen litiozko baterien hurrengo belaunaldiaren Europako liderra bihurtu nahi du EAEko BASQUEVOLT enpresak; haren kapitalaren % 25 publikoa da. 2027tik aurrera bateria mota horiek seriean fabrikatzea da proiektuaren helburua, seguruagoak direlako, gaitasun handiagoa dutelako eta kostu baxuagoa dutelako.

# 6. MAKINA-ERREMINTAK ETA FABRIKAZIO-TEKNOLOGIAK

## 6.1 MAKINA-ERREMINTEN EUROPAKO INDUSTRIA

CECIMOk (Makina-erreminten eta lotutako Fabrikazio Teknologien Industrien Europako Elkartea) argitaratutako informazioaren arabera, makina-erreminten ekoizpena % 12 inguru hazi zen 2022an, eta urte amaierarako aurreikuspenak gainditu zituen. Dena den, fabrikatzaile guztiei eragin zien nolabait gas eskasiak, osagai batzuk lortzeko zailtasunak eta interes-tasen igoerak. Faktore horiek ahuldu egin zuten makina-erreminten mundu mailako eskaria.

Hala, 2022an 25.000 milioi euro ingurukoa izan zen makina-erreminten Europako industriaren ekoizpena: mundu maiako ekoizpenaren herena da, ia.

Dena den, herrialdearen arabera era batekoa edo bestekoa izan zen bilakaera. Zehatzago esanda, Europan, nabarmentzekoa da Ekialdeko Europako herrialdeen jarduera apalagoa izan zela, neurri handi batean, Errusiarekin duten merkataritza-harremana dela eta. Aldiz, Italian asko hazi zen makineriaren erosketa, inbertsioa sustatzeko helburuz Gobernuak bultzatutako neurri publikoei esker. Kontsumoaren balioa 18.400 milioi euro ingurukoa izan zen 2022an (2021arekiko +% 23,4) CECIMOko herrialdeetan, eta makina-erreminten mundu mailako kontsumoaren laurdena zegokien, ia.

Makina-erreminten esportazioei dagokienez ere, jarduerak gora egin zuen. Hala, 2022an ia 19.100 milioi euroko balioa izan zuten esportazioek, 2021ean baino % 11,7 handiagoa. Testuinguru horretan, AEB eta Txina kokatu ziren Europako produktuen helmuga nagusien rankingeko lehen postuetan.

Inportazioei dagokienez, 2021ean oso txikia izan zen hazkundea, eta 2022an asko hazi ziren (+% 28,8), 12.400 milioi eurora arte. Japonia, Txina eta Taiwan izan ziren CECIMOko herrialdeen produktuen inportazio-merkatu nagusiak.

CECIMOk argitaratutako azken datuen arabera, 2023an ekoizpena % 8 inguru haztea espero da, betiere inflazioari eustea lortzen bada, hornikuntza-arazoak konpontzen badira eta enpresen egoera hobetzen da.

## 6.2 MAKINA-ERREMINTAK ETA FABRIKAZIO-TEKNOLOGIAK

2022an bilakaera oso ona izan zuen fabrikazio-teknologia aurreratuen eta makina-erreminten sektoreak, jarduera ziurgabetasun-testuinguru batean garatu arren. Hala, ekitaldi zaila izan zen, espiral inflazionistaren eta hornikuntza-arazoen ondorioz, baina

sektoreak ekoizpena % 8,8 handitzea lortu zuten, eta 1.710,2 milioi euro fakturatu zituen. Hazkunde hori, batetik, 2021ean pilatutako zorroari esker lortu zuten eta, bestetik, 2022an erregistratutako eskari kopuru altuari esker. Izan ere, energia-sektorearen hazkundeak, aeronautikaren eta automobilgintzaren suspertzeak eta ekipo-ondasunen eskariak mesede egin zioten sektoreari.

Gauzak hala, bi azpisektore nagusiak aztertzen hasiko gara: abioa eta deformazioa. Bien ekoizpen maila hazi zen 2022an, baina erritmo ezberdinetan. Zehatzago esanda, abioaren azpisektoreari dagokio sektoreko ekoizpen osoaren ia % 50, eta haren balioak % 18,4 hazi ziren. Hala, 807,7 milioiko fakturazioa eskuratu zuen 2022an, azken urteetako erregistrorik onena. Deformazio-makineriari dagokionez, ondoz ondoko hainbat ekitalditan zehar behera egin zuen ekoizpenak –automobilgintza-sektorearen ondoz ondoko krisialdiek baldintzatuta, neurri handi batean–, baina 325 milioi euroko ekoizpenarekin itxi zuen 2022a (guztizkoaren % 19), 2021ean baino % 9,8 handiagoarekin.

Gainerako sektoreei dagokienez, ekitaldia oso ona izan zen osagaientzat (263,1 milioi euro; +% 5,3) eta erremintentzat (134,0 milioi euro; +% 2,5). Aldiz, beste makina batzuen (107,8 milioi euro; -% 16,6) eta beste zerbitzu batzuen (88,4 milioi euro; -% 10,9) balioek behera egin zuten 2021arekin alderatuta.

**85. koadroa Makina-erreminten eta fabrikazio-teknologien sektorearen ekoizpena**

*(M euro)*

| Produkzioa | 2021 | 2022 | %∆ 22/21 |
|---|---|---|---|
| Makina-erremintak | 977,9 | 1.132,8 | **15,8** |
| · Abioa | 681,9 | 807,7 | 18,4 |
| · Deformazioa | 295,9 | 325,0 | 9,8 |
| Osagaiak | 249,9 | 263,1 | 5,3 |
| Erremintak | 130,7 | 134,0 | 2,5 |
| Beste makina batzuk | 129,2 | 107,8 | -16,6 |
| Beste zerbitzu batzuk | 99,2 | 88,4 | -10,9 |
| **Ekoizpenaren guztizkoa(*)** | **1.571,2** | **1.710,2** | **8,8** |

*(*): Makina-erreminta nazionaletan txertatutako osagaiak eta osagarriak salbu.*
*Iturria: AFM.*

Esportazioen bilakaerari dagokionez, ekoizpenari buruzko kapituluan aipatutakoaren ildo beretik, esportazioek ere gora egin zuten 2022an (+% 3,8), eta 1.288,3 milioi eurora iritsi ziren.

Abioen makineria kokatu zen esportazio-maparen buruan, 690,4 milioi eurorekin, bai haren pisu espezifikoagatik (guztizkoaren % 53,6), bai izandako hazkundegatik (+% 8,3 2021arekiko). Deformazio-azpisektorean ere gora egin zuten esportazioek (+% 3), eta ia 200 milioi euroko balioa izan zuten (guztizkoaren % 15,5). Halaber, joera bera izan zuten osagaiek (+% 2,7), baina erremintek izan zuten urte arteko hazkunderik handiena (+% 8,7).

Kanpoko eskariaren balioa 174,7 milioi eurokoa izan zen osagaien kasuan, eta 76,2 milioi eurokoa erreminten kasuan.

Ekoizpenari buruzko atalean esandakoarekin bat etorriz, beste makina batzuen eta beste zerbitzu batzuen esportazioek behera egin zuten (-% 10,9 eta -% 17,3, hurrenez hurren). Horien esportazioen balioa 94,2 milioi eurokoa eta 52,9 milioi eurokoa izan zen ekitaldiaren amaieran, hurrenez hurren.

**86. koadroa Makina-erreminten eta fabrikazio-teknologien sektorearen esportazioa**

*(M euro)*

| Esportazioak | 2021 | 2022 | %∆ 22/21 |
|---|---|---|---|
| Makina-erremintak | 831,5 | 890,37 | 7,1 |
| · Abioa | 637,4 | 690,4 | 8,3 |
| · Deformazioa | 194,1 | 199,9 | 3,0 |
| Osagaiak | 170,1 | 174,7 | 2,7 |
| Erremintak | 70,1 | 76,2 | 8,7 |
| Beste makina batzuk | 105,7 | 94,2 | -10,9 |
| Beste zerbitzu batzuk | 64,0 | 52,9 | -17,3 |
| **Esportazioen guztizkoa** | **1.241,4** | **1.288,3** | **3,8** |

*Iturria: AFM.*

## 6.3 MAKINA-ERREMINTA EUSKAL HERRIAN

Estatuko makina-erreminten sektoreak oso posizio esanguratsua du industriaren barruan. Makina-erreminten Europar Batasuneko hirugarren ekoizlerik eta esportatzailerik handiena da Espainia, eta mundu mailako bederatzigarrena.

Espainiako makina-erreminta eta fabrikazio-teknologien sektoreko enpresen % 90 ordezkatzen ditu AFM[1] elkarteak eta, hark argitaratutako informazioaren arabera, 2022ko agertokia zaila izan zen hainbat faktoreren ondorioz: inflazioa, lehengaien eta energiaren kostuen igoera, eta hornikuntza-arazo erraldoiak (Ukrainako gerraren ondorioz larriagotuak). Hala eta guztiz ere, sektoreko adierazle nagusiek balio positiboekin amaitu zuten ekitaldia, bezero-sektore nagusien makineriako inbertsioa suspertu izanari esker.

[1] Makina-erreminta, Osagarri, Osagai eta Erreminten Fabrikatzaileen Espainiako Elkartea.

**87. koadroa** **Espainiar Estatuko makina-erreminten sektorearen aldagai nagusien bilakaera**

*(M euro)*

| Kontzeptua | 2020 | 2021 | 2022 | %∆ 22/21 |
|---|---|---|---|---|
| 1. Produkzioa | 870,5 | 977,9 | 1.132,80 | 15,8 |
| 2. Barne-salmentak | 252,3 | 239,3 | 278,1 | 16,2 |
| 3. Esportazioak | 714,7 | 831,5 | 890,3 | 7,1 |
| 4. Inportazioak | 314,7 | 332,6 | 493,0 | 48,2 |
| 5. Ageriko kontsumoa(*) | 480,7 | 510,8 | 771,1 | 51,0 |
| 6. Esportazio-proportzioa = 3/1 | % 82,10 | % 85,03 | % 78,60 | -6,43pp |
| 7. Inportazio-proportzioa = 4/5 | % 65,47 | % 65,11 | % 63,93 | -1,18pp |

**): Ekoizpena – esportazioak (erabilitako makineria salbu, 35,6 m€) + inportazioak.*
*Iturria: AFM.*

Hala, ekoizpena 1.100 milioi eurotik gorakoa izan zen (+% 15,8), barne-eskariaren hazkundearen (+% 16,2) eta kanpo-merkatuen bilakaera onaren (+% 7,1) ondorioz. Horiek dira sektoreko jardueraren traktore nagusiak. Inportazioek, bestalde, aise gainditu zituzten aurreko biurtekoko balioak, eta 493,0 milioi euroko balioa izan zuten (+% 48,2). Horren guztiaren ondorioz, ageriko kontsumoa 771,1 milioi eurokoa izan zen, hortaz, asko hazi zen 2021arekiko (+% 51).

Hala, esportazioen proportzioa (esportazioak/ekoizpena) % 78,6ra jaitsi zen 2022an. Inportazioen proportzioa (inportazioak/ageriko kontsumoa) ere murriztu egin zen, baina jaitsiera txikiagoa izan zuen; hala, % 63,93ko tasa izan zuen, esportazioen tasa baino askoz ere baxuagoa.

**17. grafikoa** **Makina-erreminten sektoreko merkataritza-balantza**

*(M euro)*




*Iturria: AFM.*

Kanpo-merkataritzako datuetan sakonduta, eta denbora-tarte zabalagoa kontuan hartuta, makina-erreminten sektoreko esportazioek eta inportazioek antzeko hazkunde-sekuentzia izan zuten. 2018an izan zituzten baliorik altuenak, eta 2020an hondoratu egin ziren. Ekitaldi hartatik aurrera, balioak suspertzen hasi ziren, partzialki.

Esportazioen suspertzearen zati bat lotuta dago Estatuko produktuen helmuga nagusien hazkundearekin. 2022an Italia, Alemania, AEB, Frantzia eta Txina izan ziren helmuga nagusiak. Gainera, hauek osatu zuten lehenengo hamar merkatuen mapa: Mexiko, Portugal, Turkia, Erresuma Batua eta Polonia. Esportazioen guztizkoaren % 60,8 jaso zuten guztien artean.

Italiaren bilakaera nabarmendu zen 2022an (+% 58,9). Makineriaren erosketa sustatzea helburu zuen gobernuko plan bati esker, aurrera egin zuen eta rankingeko lehen postua kendu zion Alemaniari. Hala, Italiara egin ziren esportazioen % 14,8. Dena den, Alemaniak ere bilakaera oso ona izan zuen (+% 47,1) eta haren parte-hartzea % 13,7koa izan zen. Batez ere, abioen makineria erosten du Alemaniako merkatuak.

**88. koadroa Espainiako makina-erreminten esportazioen jomugako herrialde nagusiak**

*(M euro)*

| Herrialdea | 2021 | 2022* | %∆ 22/21 |
|---|---|---|---|
| Italia | 82,8 | 131,6 | 58,9 |
| Alemania | 82,6 | 121,5 | 47,1 |
| Estatu Batuak | 83,1 | 86,2 | 3,7 |
| Frantzia | 49,7 | 63,1 | 27,0 |
| Txina | 79,3 | 62,7 | -21,0 |
| Mexiko | 33,8 | 52,0 | 53,8 |
| Portugal | 34,3 | 49,5 | 44,3 |
| Turkia | 43,4 | 38,1 | -12,2 |
| Gainerako herrialdeak | 342,5 | 258,8 | -24,4 |
| **Guztira** | **831,5** | **890,3** | **7,1** |

*(*): Behin-behineko datuak.*
*Iturria: AFM.*

Azkenik, etorkizuneko aurreikuspenei dagokienez, agertokia ziurgabea izan arren, AFM baikorra da 2023arekiko, eta ia % 5eko hazkundea aurreikusten du. Hala, honakoa adierazi du Klusterrak: *"Zuhurrak garen arren, apur bat baikorrak ere bagara, eta gure egungo zorroek eta sektore estrategikoetan (hala nola energia, sektore aeroespaziala, ekipo-ondasunak edo automobilgintza) dugun posizionamenduak urteari ongi eustea ahalbidetuko digutela uste dugu. Bestetik, hornidura-kateak eta "friendshoring" deritzona ziurtatu ahal izateko, inbertsio berriak eta interesgarriak egin behar dira ekipamenduan, eta hori aprobetxatu behar dugu hazten jarraitzeko".*

## 6.4 ESKU-ERREMINTA

ESKUIN[1] Burdindegi eta industria-hornikuntzaren klusterreko enpresek (eskuzko eta burdindegiko erreminten fabrikatzaileak dira) 443 milioi euroko fakturazioa eskuratu zuten 2022an, 2021eko zifraren ia berdina; errekor-urtea izan zen 2021a, 400 miloi eurotik gorakoa izan baitzen fakturazioa lehen aldiz.

Barne-merkatuaren hazkundeak lagundu zuen, nagusiki, emaitza hori lortzen. Urte arteko ia % 3ko hazkundea izan zuen 2022an barne-merkatuak, eta 208,3 milioi eurora iritsi zen. Esportazioek, bestalde, aurkako bilakaera izan zuten eta balioak apur bat murriztu ziren (-% 2,7). Hala, ia 235 milioi euroko balioarekin itxi zuten ekitaldia esportazioek.

Hortaz, 2022a konplikatua izan zen. Agertoki horretan, fakturazioa sendotu egin zen eta bi merkatu handiak elkarrengana gerturatu ziren; izan ere, barne-salmenten pisua hazi egin zen eta guztizkoaren % 47 egokitu zitzaien. Dena den, egoera hobetzen denean esportazioek haien indarra berreskuratzea espero da, egungo ziurgabetasun-egoerak kalte egin baitie.

Estatuko industriaren bezero-sektoreen bilakaerari dagokionez, eraikuntza-sektorearen hazkundea nabarmendu zen, haren balioak % 8,4 hazi baitziren, batez ere, etxebizitzak berritzeko eta birgaitzeko lanak hazi zirelako. Zehazki, barne-merkatuan 96,5 milioi euroko balioa eskuratu zuen aipatutako sektoreak 2022an. Hala, industria-sektoreari egindako salmentak bigarren postuan geratu ziren, antzeko neurriarekin (94,5 milioi euro). Izan ere, haren balioek urte arteko murrizketa txiki bat izan zuten (-% 2). Nekazaritza-sektoreak osatu zuen barne-eskariaren mapa. Merkatu hori apur bat hazi zen (+% 1,8), baina gainerako segmentuak baino askoz ere txikiagoa da (17,3 milioi euro).

**89. koadroa Sektorearen magnitude nagusien bilakaera.**

*(M euro)*

| Kontzeptua | 2020 | 2021 | 2022(*) | % 22/21 |
|---|---|---|---|---|
| Produkzioa | 358,6 | 443,8 | 443,1 | -0,2 |
| Barne-salmentak | 173,3 | 202,5 | 208,3 | 2,9 |
| -Industria | 84,2 | 96,4 | 94,5 | -2,0 |
| -Eraikuntza | 75,1 | 89,0 | 96,5 | 8,4 |
| -Nekazaritza | 14,0 | 17,0 | 17,3 | 1,8 |
| Esportazioak | 185,2 | 241,2 | 234,7 | -2,7 |

*(*): Behin-behineko datuak.*
*Iturria: ESKUIN –Burdindegi eta industria-hornikuntzaren klusterra–.*

[1] Espainian eskuzko erremintak eta burdindegiko produktuak fabrikatzen dituzten 22 enpresa ordezkatzen ditu ESKUIN Burdindegi eta industria-hornikuntzaren klusterrak.

Estatuko produktuen helmugari dagokionez, Europar Batasuna izan zen merkatu nagusia, hara esportatu baitzen zatirik handiena (% 74), batez ere, Frantziara, Portugalera eta Alemaniara. Amerikako kontinentea izan zen hurrengoa, % 10arekin, nagusiki AEBk bultzatuta. Ekialde Ertainaren eta Ekialdeko Europaren kasuan, % 5eko pisu erlatiboa izan zuten biek; Afrikak % 4ko pisu erlatiboa eta Ozeaniak % 2koa.

Etorkizuneko aurreikuspenei dagokienez, honakoa esan du ESKUINek: *"2023ko lehen hiru hilabeteak ia pasatu diren honetan, aurreikuspenak nahiko onak dira eta, oraingo gorabehera finantzarioek onera egiten badute, salmentak mantentzea edo apur bat haztea aurreikusten dugu. Lehengaien eta energiaren kostuen hazkundeak kaltetutako errentagarritasun-tartea berreskuratzea izango da enpresen helburu nagusia".*

# 7. PAPERA

## 7.1 NAZIOARTEKO EGOERA

Confederation of European Paper Industries-ek (CEPI) emandako datuetatik abiatuta, eta Paper eta Ore Fabrikatzaileen Espainiako Elkarteak (ASPAPEL) emandako informazioaren arabera, 2022an 85.024 mila tonara jaitsi zen nazioartean ekoitzitako paper eta kartoi kopurua; hau da, aurreko urtean baino -% 6,1 gutxiago ekoitzi zen. Hala, eten egin zen aurreko ekitaldian erregistratutako igoera (% 6,2).

**90. koadroa Paperaren eta kartoiaren ekoizpena (CEPIko kideak)**

| Urtea | m Tm | % ∆ |
|---|---|---|
| 2017 | 92.173 | 1,3 |
| 2018 | 92.200 | 0,0 |
| 2019 | 89.581 | -2,8 |
| 2020 | 85.208 | -4,9 |
| 2021 | 90.531 | 6,2 |
| 2022* | 85.024 | -6,1 |

*(*): Behin-behineko datuak.*

*Iturria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkartea, CEPIren (Confederation of European Paper Industries) datuetan oinarrituta.*

Paperaren ekoizpena herrialdeen arabera aztertuta, eta datuak 2021ari dagozkiola kontuan izanda, Txinaren eta Estatu Batuen artean ekoitzi zuten guztizko bolumenaren erdia baino gehiago (% 54). Europa mailan Alemania, Italia eta Suedia nabarmendu ziren, baina partaidetza askoz ere txikiagoekin (% 6,8, % 2,8 eta % 2,6, hurrenez hurren).

**91. koadroa Paperaren eta kartoiaren ekoizpena, herrialdeka**

*(m tona)*

| Herrialdea | 2021* | % Δ |
|---|---|---|
| Alemania | 23.121 | 8,3 |
| Austria | 2.068 | 7,4 |
| Belgika | 1.798 | 11,7 |
| Bulgaria | 244 | -0,4 |
| Danimarka | 73 | 2,8 |
| Espainia | 6.659 | 6,2 |
| Finlandia | 8.659 | 5,0 |
| Frantzia | 7.356 | 7,0 |
| Grezia | 288 | 8,7 |
| Hungaria | 802 | -0,3 |
| Italia | 9.669 | 11,5 |
| Holanda | 2.941 | 2,5 |
| Polonia | 5.220 | 5,8 |
| Portugal | 2.338 | 9,9 |
| Erresuma Batua | 3.640 | 0,3 |
| Txekiar Errepublika | 901 | 0,9 |
| Eslovakia | 933 | 34,1 |
| Suedia | 8.924 | -4,4 |
| Norvegia | 1.008 | 11,3 |
| Suitza | 1.024 | 5,8 |
| Brasil | 10.771 | 4,1 |
| Kanada | 8.671 | 1,1 |
| Txina | 115.524 | 5,1 |
| Estatu Batuak | 69.131 | 1,9 |
| India | 16.319 | 8,7 |
| Japonia | 23.953 | 4,7 |
| Errusia | 10.086 | 6,3 |

*(*): Herrialdeen araberako banaketaren kasuan, 2021eko informazioa baino ez dago eskuragarri.*

*Iturria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkartea.*

Arreta orearen ekoizpenean jarrita, 2021ean Estatu Batuak, Brasil, Txina eta Kanada izan ziren protagonista nagusiak; horien artean osatu zituzten ekoizpen osoaren bi heren inguru (% 63,9). Europan, Suediak eta Finlandiak % 7ko kuotak baino apur bat handiagoak eskuratu zituzten bi kasuetan.

**92. koadroa Ore-ekoizpena, herrialdeen arabera**

*(m tona)*

| Herrialdea | 2021* | % Δ |
|---|---|---|
| Alemania | 2.327 | 2,6 |
| Austria | 1.620 | 2,5 |
| Belgika | 490 | 18,1 |
| Bulgaria | 196 | 17,4 |
| Danimarka | 0 | -- |
| Espainia | 1.777 | 7,7 |
| Finlandia | 10.706 | 3,5 |
| Frantzia | 1.613 | 4,4 |
| Grezia | 0 | -- |
| Hungaria | 0 | -- |
| Italia | 201 | 10,4 |
| Holanda | 35 | 0,0 |
| Polonia | 1.201 | 0,9 |
| Portugal | 2.623 | 5,1 |
| Erresuma Batua | 220 | 5,8 |
| Txekiar Errepublika | 611 | 8,0 |
| Eslovakia | 802 | 10,6 |
| Suedia | 11.303 | -3,2 |
| Norvegia | 889 | 6,7 |
| Suitza | 120 | 66,7 |
| Brasil | 22.505 | 7,4 |
| Kanada | 14.115 | -1,7 |
| Txina | 16.599 | 7,5 |
| Estatu Batuak | 43.045 | -0,7 |
| India | 2.075 | 7,8 |
| Japonia | 7.612 | 7,9 |
| Errusia | 8.030 | -3,5 |

*(*): Herrialdeen araberako banaketaren kasuan, 2021eko informazioa baino ez dago eskuragarri.*
*Iturria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkartea.*

## 7.2 SEKTOREA ESPAINIAN

ASPAPELen Txosten Estatistikoaren arabera, 2022an paperaren eta kartoiaren ekoizpena -% 4,6 murriztu zen Espainian, 6.354,6 mila tonara arte. CEPIren eremuan nahiko antzekoa izan zen dinamika (paperaren eta kartoiaren ekoizpena -% 6,1 gutxitu zen).

Halaber, 2022an paperaren esportazioek (2.492,6 mila tona) ere behera egin zuten Espainian (-% 11,7). Inportazioak (3.176,9 mila tona) eta ageriko kontsumoa (7.038,9 mila tona), berriz, hazi egin ziren (% 3,6 eta % 2, hurrenez hurren). Hala, 2022an Estatuko paperaren merkataritza-balantzaren saldo negatiboa -684,3 mila tonara hazi zen (aurreko ekitaldian -244,4 mila tonakoa izan zen saldo negatiboa).

**93. koadroa** **Paperaren eta kartoiaren ekoizpena eta kontsumoa. Espainia, guztira.**

*(m Tm)*

| Urtea | Produkzioa | Inportazioa | Esportazioak | Ageriko kontsumoa |
|---|---|---|---|---|
| 2013 | 6.181,5 | 2.950,8 | 3.047,4 | 6.084,9 |
| 2014 | 6.035,7 | 3.136,7 | 2.915,1 | 6.257,4 |
| 2015 | 6.195,2 | 3.208,3 | 2.796,2 | 6.607,3 |
| 2016 | 6.218,6 | 3.256,0 | 2.830,1 | 6.644,5 |
| 2017 | 6.217,8 | 3.266,6 | 2.681,4 | 6.802,9 |
| 2018 | 6.156,6 | 3.288,4 | 2.584,9 | 6.860,1 |
| 2019 | 6.436,6 | 3.088,4 | 2.651,1 | 6.873,9 |
| 2020 | 6.268,5 | 2.877,3 | 2.592,9 | 6.552,9 |
| 2021 | 6.658,9 | 3.067,7 | 2.823,3 | 6.903,3 |
| 2022 | 6.354,6 | 3.176,9 | 2.492,6 | 7.038,9 |

*'turria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkartea.*

**18. grafikoa** **Paperaren sektorearen aldagai nagusien bilakaera Espainian**

*(Indizea: 1985= 100)*




*Iturria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkartea.*

Geografikoki, ohiko joerari jarraituz, 2022an ere EB izan zen Estatuaren merkataritza-bazkide nagusia. EBtik egin ziren kanpo-erosketen % 89, eta EBra egin ziren kanpo-salmenten % 70. Zehatzago esanda, Frantziari dagokio inportazioen % 16, Alemaniari % 15 eta Finlandiari % 14. Bestetik, Frantziari eta Portugali dagozkie esportazioen % 23 eta % 22, hurrenez hurren.

Paper mota bakoitzaren ekoizpenaren bilakaera heterogeneoa izan zen 2022an. Higienikoen eta sanitarioen ekoizpena % 4,4 hazi zen, eta prentsa eta inprimatzea eta idazketari dagokiona, % 0,9. Aldiz, behera egin zuen honako paper moten ekoizpenak: beste paper batzuk eta bereziak; uhin-kartoia; eta beste ontzi batzuk eta kartoi iztukatua (-% 10,7, -% 7,7 eta -% 0,6, hurrenez hurren).

**94. koadroa Ekoizpena eta kontsumoa, paper motaren arabera**

*(m Tm)*

| Mota | Produkzioa | | Inportazioa | | Esportazioak | | Ageriko kontsumoa | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2022 | % Δ 22/21 | 2022 | % Δ 22/21 | 2022 | % Δ 22/21 | 2022 | % Δ 22/21 |
| Prentsa eta inprimatzea eta idazketa | 746,6 | 0,9 | 883,6 | 0,1 | 821,3 | -8,5 | 809,0 | 11,7 |
| Higienikoak eta sanitarioak | 848,8 | 4,4 | 152,6 | -0,1 | 223,7 | -1,0 | 777,7 | 4,4 |
| Uhin-kartoirako | 3.411,2 | -7,7 | 1.037,6 | 2,4 | 811,9 | -6,6 | 3.636,9 | -2,6 |
| – Uhinetarako | 1.551,6 | -7,6 | 318,8 | 2,4 | 300,3 | -9,3 | 1.570,1 | -5,4 |
| – Test Liner eta Kraft Liner | 1.436,5 | -9,7 | 695,0 | 2,7 | 448,4 | -21,4 | 1.683,2 | -0,9 |
| – Bikoak eta larruak | 423,0 | 0,0 | 23,7 | -4,5 | 63,2 | -12,7 | 383,5 | 2,1 |
| Beste ontzi batzuk eta kartoi iztukatua | 870,0 | -0,6 | 995,8 | 12,7 | 571,6 | -9,6 | 1.294,3 | 14,8 |
| Beste paper batzuk eta bereziak | 478,0 | -10,7 | 107,2 | -21,0 | 64,1 | -34,6 | 521,1 | -9,1 |
| **Papera eta kartoia, guztira** | **6.354,6** | **-4,6** | **3.176,9** | **3,6** | **2.492,6** | **-11,7** | **7.038,9** | **2,0** |

*turria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkartea.*

Paper-orearen azpisektoreari dagokionez, 2022an behera egin zuen haren ekoizpenak ere (-% 13,1), 1.544,4 mila tonara arte. Eta esportazioak ere murriztu egin ziren (-% 25,4), 809,3 mila tonara arte. Aitzitik, hazi egin ziren inportazioak eta ageriko kontsumoa (% 8,2 eta % 7,4, hurrenez hurren), 1.221,9 eta 1.957 mila tonara arte, hurrenez hurren.

Gauzak horrela, orearen Estatuko merkataritza-balantzaren saldo negatiboa -412,6 mila tonara arte handitu zen 2022an (-44,9 mila tonako saldo negatiboa zuen 2021ean), eta estaldura-tasa % 66,2koa izan zen (aurreko ekitaldian % 96koa).

Berreskuratutako paperaren ageriko kontsumoa -% 5,5 jaitsi zen 2022an eta 5.058 mila tonatan kokatu zen.

**95. koadroa Ekoizpena eta kontsumoa, ore motaren arabera**

*(m Tm)*

| Mota | Produkzioa | | Inportazioa | | Esportazioak | | Ageriko kontsumoa | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2022 | % Δ 22/21 | 2022 | % Δ 22/21 | 2022 | % Δ 22/21 | 2022 | % Δ 22/21 |
| Ore birjinak, guztira | 1.544,4 | -13,1 | 1.221,9 | 8,2 | 809,3 | -25,4 | 1.957,0 | 7,4 |
| Paper zaharra (ageriko bilketa) | 4.346,9 | -1,3 | 1.488,7 | -10,1 | 777,6 | 10,5 | 5.058,0 | -5,5 |

*Iturria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkartea.*

Txosten honen aurreko edizioetan egindakoari jarraipena emate aldera, berreskuratutako paperaren erabilera aztertuko dugu jarraian, adierazle hauen arabera: ageriko bilketa-tasa, erabilera-tasa eta birziklapen-tasa. Ageriko bilketa-tasa (paper zaharraren ekoizpena/paperaren eta kartoiaren kontsumoa): 2022an % 68,7 (2021ean % 63,8). Erabilera-tasa (paper zaharraren kontsumoa/paperaren eta kartoiaren ekoizpena): 2022an % 79,6 (aurreko ekitaldian % 80,4). Birziklapen-tasa (paper zaharraren kontsumoa/paperaren eta kartoiaren kontsumoa): 2022an % 79,9 (aurreko ekitaldian % 77,6).

## 7.3 SEKTOREA EUSKAL HERRIAN

CEPIren eremuan (-% 6,1) eta Estatuan (-% 4,6) erregistratutako jaitsieren ildotik, Euskal Herrian ere behera egin zuen paperaren sektoreko paperaren eta kartoiaren ekoizpenak 2022an. -% 3ko jaitsiera erregistratu zen; hala, 1.435,2 mila tonara egin zuen atzera ekoizpenak. Hala, termino erlatiboetan, Euskal Herriko murrizketa txikiagoa izan zen Estatukoa baino, eta, ondorioz, Euskal Herriko paperaren sektorearen partaidetza-kuota apur bat igo zen (2022an Espainiako ekoizpenaren % 22,6, eta aurreko ekitaldian, % 22,2).

**96. koadroa Paperaren eta orearen ekoizpena Euskal Herrian**

*(m Tm)*

| Kontzeptua | 2020 | 2021 | 2022 | % ∆ 22/21 |
|---|---|---|---|---|
| Papera eta kartoia, guztira | 1.383,9 | 1.478,8 | 1.435,2 | -3,0 |
| Orea, guztira | 446,3 | 510,9 | 492,8 | -3,5 |

*Iturria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkartea.*

Oreari dagokionez, Estatuko jaitsierarekin bat (-% 13,1), Euskal Herrian -% 3,5 jaitsi zen orearen ekoizpena 2022an, hau da, 492,8 mila tonara murriztu zen. Ondorioz, Estatuko ekoizpenaren gaineko kuota hazi egin zen: 2022an % 31,9 eta 2021ean eta % 28,8.

Kanpo-merkataritzako elkartrukeei dagokienez, eta kasu honetan aurkezten diren zifrak monetarioak direla aintzat hartuta, 2022an hazi egin ziren Euskal Herriko paperaren eta orearen esportazioak zein inportazioak. Hala, kanpora egindako salmentak % 33,2 igo ziren, 1.307.393 mila eurora arte, eta kanpotik egindako erosketak % 45,4 hazi ziren, 927.595 mila eurora arte. Gauzak hala, merkataritza-balantzaren saldo positiboa 379.798 mila eurora arte hazi zen (aurreko ekitaldian 343.464 mila eurokoa zen).

Azkenik, paperaren sektoreko Euskal Herriko enpresa nagusiak ageri dira jarraian, modu sintetikoan, eta bakoitza non dagoen eta zer paper mota ekoizten duen adierazten da.

**97. koadroa Euskal Herriko paperaren sektoreko enpresa nagusiak**

| Enpresak | Kokapena | Produkzioa |
| --- | --- | --- |
| Papresa | Errenteria | Prentsarako papera |
| Smurfit Kappa Nervión | Iurreta | Orea, kraft papera |
| Smurfit Kappa Navarra | Zangoza, Cordovilla | Orea, kraft papera, uhin-kartoia eta zakuak |
| Sca Hygiene Spain (Essity Operations Allo) | Allo | Tisu papera |
| Papelera Guipuzcoana de Zikuñaga (Iberpapel) | Hernani | Inprimatzeko eta idazteko orea eta papera |
| Munksjö Paper DECOR (Ahlstrom-Munksjo Paper) | Berastegi | Laminatuetarako oinarri-papera |
| Papelera del Oria | Zizurkil | Inprimatzeko eta idazteko papera |
| Papelera del Ebro | Viana | Uhin-papera eta -kartoia |
| Bertako | Uharte | Uhin-papera eta -kartoia |
| Newark San Andrés (Solidus Solutions San Andrés) | Atarrabia | Uhin-kartoia |

*turria: Fomento de la Producción, "Las 2,500 mayores empresas españolas", eta enpresen memoriak.*

# 8. KAUTXUA

## 8.1 NAZIOARTEKO EGOERA

International Rubber Study Groupen arabera, mundu mailan jarduera ekonomikoa moteldu egin bazen ere, kautxu naturalaren munduko kontsumoa % 3,6 hazi zen 2022an, eta 14,4 milioi tonara iritsi zen.

**98. koadroa Kautxu naturalaren eta sintetikoaren munduko kontsumoa***

*(M Tm)*

| Kontzeptua | Kautxu naturala | | | Kautxu sintetikoa | | | Guztira | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2021 | 2022 | % Δ 22/21 | 2021 | 2022 | % Δ 22/21 | 2021 | 2022 | % Δ 22/21 |
| Guztira | 13,9 | 14,4 | 3,6 | 15,7 | -- | -- | 29,6 | -- | -- |

** Kautxu sintetikoaren kasuan, txosten hau egiteko unean ez zegoen 2022ari buruzko informaziorik eskuragarri.*
*Iturria: International Rubber Study Group.*

## 8.2 KAUTXUAREN ERALDAKETA-SEKTOREA ESPAINIAN ETA EAEN

Pandemiaren inpaktuaren ostean, 2021ean suspertu egin zen jarduera, eta kautxuaren eratorrien ekoizpena eta ageriko kontsumoa nabarmen igo ziren. 2022an, ordea, ekoizpenak behera egin zuen apur bat (-% 0,3) eta ageriko kontsumoaren hazkunde-erritmoa % 6,1era jaitsi zen (aurreko ekitaldian % 16,2koa zen). Pneumatikoen eta birkautxutatuaren azpisektoreak eta pieza teknikoen (kautxu industriala) eta kautxuaren eraldatuen azpisektoreak bilakaera ezberdina izan zuten.

Zehazki, Kautxuaren Industrialen Partzuergo Nazionalak emandako informazioaren arabera, 2022an 860.125 tonara jaitsi zen sektorearen Estatuko ekoizpena, hortaz, urte arteko -% 0,3ko jaitsiera txikia izan zuen. Ageriko kontsumoa, berriz, % 6,1 igo zen, 670.619 tonara arte.

Aitzitik, sektorearen fakturazioa dinamikoagoa izan zen eta % 18,2 hazi zen, 5.825,3 milioi eurora arte. Izan ere, gora egin zuten pieza teknikoaren azpisektorearen salmentek (% 14,2) eta, batez ere, pneumatiko eta birkautxutatuaren salmentek (% 20).

Kautxuaren eraldatze-sektore osoari dagokionez, sektoreko ekoizpena -% 0,3 bakarrik jaitsi zen eta sektoreko enplegua % 1,3 handitu zen. Testuinguru horretan, 2022an, kautxuaren sektore nazionalaren produktibitatea -% 1,7 murriztu zen, langile bakoitzeko 40,9 tonara arte.

Automobilgintza-sektoreak kautxuaren eraldaketa-industrian duen garrantzi nabarmena kontuan izanik, aipatzekoa da kapitulu honen amaieran (pneumatikoen eta

birkautxutatuaren azpisektorearen gaineko blokean) sektore horren azterketa labur bat egingo dugula.

**99. koadroa Kautxuaren eraldaketa-sektorearen oinarrizko datuak (1) Espainian**

*(Tm)*

| Kontzeptua | 2021 | 2022 | % Δ 22/21 |
|---|---|---|---|
| 1. Produkzioa | 863.107 | 860.125 | -0,3 |
| 2. Ageriko kontsumoa | 632.034 | 670.619 | 6,1 |
| 3. Esportazioa | 841.103 | 825.989 | -1,8 |
| 4. Inportazioa | 610.030 | 636.483 | 4,3 |
| 5. Saldo komertziala | 231.073 | 189.506 | -18,0 |
| 6. Esportazioaren batez besteko prezioa(2) | 4,09 | 4,69 | 14,9 |
| 7. Inportazioaren batez besteko prezioa(2) | 5,10 | 5,38 | 5,5 |
| 8. Esportazioa/Ekoizpena (%) | % 97,5 | % 96,0 | -1,5 |
| 9. Inportazioa/Ageriko kontsumoa (%) | % 96,5 | % 94,9 | -1,7 |
| 10. Enplegua | 20.774 | 21.053 | 1,3 |
| 11. Produktibitatea (1/10)(3) | 41,5 | 40,9 | -1,7 |

*(1): Honako hauek barne: EJSN 22.11 (pneumatikoak eta birkautxutatua) eta EJSN 22.19 (kautxuzko beste produktu batzuk: kautxuzko eta latexezko pieza teknikoa).*
*(2): Euro/kg.*
*(3): Tm/Enplegatu/urte.*
*Iturria: Kautxuaren Industrialen Partzuergo Nazionala.*

Kanpo-merkataritza aztertuz gero, bolumenari dagokionez, kautxuaren eraldatuen kanpoko salmentak -% 1,8 jaitsi ziren, 825.989 tonara arte. Kanpo-erosketak, berriz, % 4,3 hazi ziren, 636.483 tonara arte. Hala, merkataritza-superabita -% 18 jaitsi zen, 189.506 tonara arte.

Azpisektoreei dagokienez, pneumatikoen eta birkautxutatuaren esportazioek ez zuten ia aldakuntzarik izan (% 0,1), baina pieza teknikoen esportazioak -% 9,5 murriztu ziren. Aitzitik, inportazioen kasuan, pneumatikoen eta birkautxutatuaren inportazioak % 6,1 hazi ziren eta pieza teknikoarenak ia mantendu egin ziren (-% 0,1).

**100. koadroa Kautxuaren eraldatuen kanpo-merkataritza, azpisektore handien arabera**

*(Tm)*

| Produktua | Esportazioa | | | Inportazioa | | | Saldoa | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2021 | 2022 | % Δ 22/21 | 2021 | 2022 | % Δ 22/21 | 2021 | 2022 | % Δ 22/21 |
| Pneumatikoak eta birkautxutatua | 671.376 | 672.362 | 0,1 | 436.112 | 462.760 | 6,1 | 235.264 | 209.602 | -10,9 |
| Pieza teknikoa | 169.727 | 153.627 | -9,5 | 173.918 | 173.723 | -0,1 | -4.191 | -20.096 | 379,5 |
| **Guztira** | **841.103** | **825.989** | **-1,8** | **610.030** | **636.483** | **4,3** | **231.073** | **189.506** | **-18,0** |

*Iturria: Kautxuaren Industrialen Partzuergo Nazionala.*

Termino monetarioetan, aldakuntzak handiagoak izan ziren eta, kanpo-salmenten kasuan, alderantzizkoak. Hala, kautxuaren eraldatuen esportazioak % 12,8 igo ziren, eta inportazioak % 10,1.

**101. koadroa Kautxuaren eraldatuen kanpo-merkataritza, azpisektore handien arabera**

*(M euro)*

| Produktua | Esportazioa | | | Inportazioa | | | Saldoa | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2021 | 2022 | % ∆ 22/21 | 2021 | 2022 | % ∆ 22/21 | 2021 | 2022 | % ∆ 22/21 |
| Pneumatikoak eta birkautxutatua | 2.279,3 | 2.741,8 | 20,3 | 1.674,9 | 2.025,5 | 20,9 | 604,5 | 716,3 | 18,5 |
| Pieza teknikoa | 1.157,8 | 1.134,8 | -2,0 | 1.434,6 | 1.397,6 | -2,6 | -276,8 | -262,7 | -5,1 |
| **Guztira** | **3.437,1** | **3.876,6** | **12,8** | **3.109,5** | **3.423,0** | **10,1** | **327,7** | **453,6** | **38,4** |

*Iturria: Kautxuaren Industrialen Partzuergo Nazionala.*

Azterketa EAEko kautxuaren eraldatze-sektorera ekarrita, eta kautxuari eta plastikoari buruzko Eustaten Industria Ekoizpenaren Indizea (IPI) kontuan hartuta, 2022an -% 0,4 egin zuen behera IPIak (2021ean % 11 hazi zen; 2020an, berriz, -% 13,5 egin zuen behera, pandemiaren ondorioz).

Dena den, kanpoko trukeei dagokienez, EAEko kautxuaren eta manufakturen esportazioak eta inportazioak (1.590.569 eta 619.896 mila euro, hurrenez hurren) nabarmen igo ziren 2022an (% 15,5eko eta % 10,3ko hazkundeak, hurrenez hurren). Hala, kautxuaren eta manufakturen merkataritza-balantzaren saldo positiboa % 19,1 hazi zen.

Datu horiek Estatuko datuekin alderatuta, ikuspegi monetariotik, Estatuko guztizkoaren gaineko EAEko kanpo-merkataritzaren partaidetza apur bat igo zen esportazioen kasuan (2022an guztizkoaren % 41 eta aurreko ekitaldian, berriz, % 40,1), eta inportazioen kasuan egonkor mantendu zen (guztizkoaren % 18,1 2021ean zein 2022an).

## 8.3 PNEUMATIKOEN ETA BIRKAUTXUTATUAREN AZPISEKTOREA

Azterketa pneumatikoen eta birkautxutatuaren azpisektorera mugatuta, Kautxuaren Industrialen Partzuergo Nazionalaren arabera, 2022an -% 1,8 egin zuen behera sektoreko ekoizpenak, 660.888 tonara arte. Ageriko kontsumoa, berriz, % 3,1 hazi zen eta 451.286 tonatan kokatu zen.

Kanpo-merkataritzari dagokionez, 2022an bilakaera heterogeneoa izan zuen. Pneumatikoen eta birkautxutatuaren esportazioak ia mantendu egin ziren (% 0,1eko hazkundea), 672.362 tonatan. Inportazioak, berriz, % 6,1 hazi ziren, 462.760 tonara arte. Hala, esportatzeko joera % 101,7koa izan zen eta, inportatzekoa, % 102,5ekoa.

**102. koadroa** **Pneumatikoen eta birkautxutatuaren ekoizpena, kontsumoa eta kanpo-merkataritza**

*(Tm)*

| Kontzeptua | 2021 | 2022 | % ∆ 22/21 |
|---|---|---|---|
| 1. Produkzioa | 673.009 | 660.888 | -1,8 |
| 2. Esportazioa | 671.376 | 672.362 | 0,1 |
| 3. Inportazioa | 436.112 | 462.760 | 6,1 |
| 4. Ageriko kontsumoa | 437.745 | 451.286 | 3,1 |
| 5. 2/1 x 100 | % 99,8 | % 101,7 | 2,0 |
| 6. 3/4 x 100 | % 99,6 | % 102,5 | 2,9 |

*Iturria: Kautxuaren Industrialen Partzuergo Nazionala.*

Kautxuaren sektorearen eta automobilgintza-sektorearen arteko lotura estua kontuan izanda, azken horren bilakaera aztertuko dugu jarraian, labur. Automobilen eta Kamioien Fabrikatzaileen Espainiako Elkartearen (ANFAC) arabera, 2022an 958.813 ibilgailu matrikulatu zituzten, aurreko urtean baino -% 7,3 gutxiago. Ibilgailuen ekoizpena eta esportazioak (2.219.436 eta 1.932.629 unitate, hurrenez hurren), berriz, % 5,8 eta % 2,9 hazi ziren, hurrenez hurren.

**103. koadroa** **Ibilgailuen ekoizpena eta salmenta Espainian**

*(unitateak)*

| Kontzeptua | Produkzioa | | | Esportazioa | | | Matrikulazioak(1) | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2021 | 2022 | % ∆ 22/21 | 2021 | 2022 | % ∆ 22/21 | 2021 | 2022 | % ∆ 22/21 |
| Turismoak | 1.663.199 | 1.787.197 | 7,5 | 1.512.763 | 1.583.558 | 4,7 | 859.477 | 813.374 | -5,4 |
| Industria-ibilgailuak(2) | 434.934 | 432.239 | -0,6 | 365.093 | 349.071 | -4,4 | 172.628 | 142.981 | -17,2 |
| Autobusak eta autokarrak | 0 | 0 | -- | 0 | 0 | -- | 1.959 | 2.458 | 25,5 |
| **Guztira** | **2.098.133** | **2.219.436** | **5,8** | **1.877.856** | **1.932.629** | **2,9** | **1.034.064** | **958.813** | **-7,3** |

*(1): Matrikulazioen kontzeptua barne-salmentena baino zabalagoa da; saldu gabe edo stockean dauden ibilgailuak ere barne hartzen ditu. Turismoen matrikulazioen zifrak lur orotako ibilgailuen matrikulazioak ere aintzat hartzen ditu.*

*(2): Honako hauek barne hartzen ditu: pick-upa, traktokamioiak, industria-ibilgailu arinak eta astunak, furgonetak eta merkataritza-ibilgailu arinak.*

*Iturria: ANFAC.*

Azkenik, txosten honen aurreko edizioetan egindako lanari jarraipena emateko, Euskal Herrian kokatzen diren pneumatikoen fabrikatzaile nagusien inguruko aipamen labur bat egingo dugu: Michelin eta Bridgestone.

Michelinek hiru lantegi ditu Euskal Herrian: Gasteizen, Araian (Araba da, egiaz, haren zentro logistikoa) eta Lasarten (Gipuzkoa). 2022an 2.009 milioi euroko irabazi garbiak eskuratu zituen enpresa taldeak, aurreko ekitaldian baino % 8,9 handiagoak (2021ean 1.845 milioi euro). Hala, enpresa taldeak emaitza sendoak izan zituen, testuingurua kaotikoa izan arren, krisi sistemikoen eta tentsio geopolitiko handien ondorioz. Dena den, Euskal Herrian, 2022an jaitsi egin zen pneumatikoen eskaria (beste faktore batzuen artean, ibilgailuen ekoizpena murriztu zelako) eta Gasteizko lantegiak 2023an haren ekoizpena % 15



LABORAL kutxa

murriztuko dela aurreikusten du. Lasarteko lantegiak, berriz, ekoizpenaren % 28 inguruko jaitsiera aurreikusten du.

Bridgestonek bi lantegi ditu Euskal Herrian: Basaurin eta Usansolon. 2022an, enpresa taldeak 2.096 milioi euroko irabazi garbiak eskuratu zituen, aurreko ekitaldian baino -% 23,8 baxuagoak (2021ean 2.750 milioi euro). Izan ere, ziurgabetasun ekonomikoak eta geopolitikoak haren jarduerari eragin zion, lehengaien prezioek gora egin baitzuten. Basauriko eta Usansoloko lantegiei dagokienez, bietan (eta Estatuko gainerakoetan) jarduera eten egin zen 2022aren amaieran, ABEEE bidez, biltegietan stock gehiegi zegoelako eta aurreikusitako eskariak murriztu zirelako.

Hala, Euskal Herrian finkatuta dauden pneumatikoen fabrikazio-lantegiei eragin zien sektorearen egoera txarrak: eskariaren jaitsieraren ondorioz, stocka pilatzen ari da eta eskaerak falta dira.

# 9. SEKTORE ELEKTRONIKO-INFORMATIKOA

## 9.1 DAGOENEKO GURE ARTEAN DAUDEN ETORKIZUNEKO JOERAK [1]

Hasteko, sektorean mugarri garrantzitsuak ezartzen ari diren joera teknologiko nagusiak aurkeztuko ditugu. Honako hauek nabarmendu behar dira:

***Sareak, etorkizun digitalerako***

Egungo sareen belaunaldiak modu eraginkorrean konbinatzen ditu zuntz optikoa eta 5G-a, eta sektore ekonomiko guztien zeharkako digitalizazioa eta automatizazioa sustatzen ditu. Gainera, sareak (finkoa eta mugikorra) eta sistemak eraldaketa-prozesuan daude, malguagoak eta eraginkorragoak izateko, eta erabiltzailearen beharretara egokitzeko.

***Web3: Interneten tokenizazioa***

Etorkizuneko webguneek ez dute funtzionatuko zerbitzuen plataforma digitalen gainean, blockchainen gainean baizik. Hala, erabiltzaileen arteko zuzeneko harremanak (bitartekaririk gabeak) bermatuko dira. Alderdi horrek demokratikoagoa bihurtu behar luke sarea. Zentzu horretan, erabiltzaileak beren datu pertsonalen (haien nortasuna zehazten dutenak zein sareko interakzioen bidez sortzen direnak) jabeak izatea da Web3 teknologiaren oinarriko proposamena.

***Blockchain, kriptoaktiboak baino askoz gehiago***

Blockchainek aplikazio ugari ditu, eta horietako bat dira kriptomonetak (famatuenetako eta ezagunenetako bat). Dena den, ez dira erreferentziatzat hartu behar teknologia horren aurrerapen mailari eta osasun egoerari dagokienez.

***Adimen artifizial garden eta fidagarri baterantz***

2022aren amaieratik, "Chat GPT" txatbota izaten ari da produkturik nabarmenenetako bat. OpenAI enpresaren GPT-3 adimen artifizialeko lengoaia-ereduan oinarritzen da eta, gizakiaren idazketa simulatzen du, testuak sortzeko ikaskuntza sakona erabilita. Horrekin lotuta, 2022an lau motatako adimen artifizialak identifikatu ziren, nagusiki: datuetan, ereduetan, aplikazioetan eta gizakian oinarritutakoak.

---

[1] Azterlan honetan oinarrituta prestatutako informazioa: *"Gizarte Digitala Espainian 2023"*, Telefónica Fundazioak egina.

***4.0 industriatik 5.0 industriara***

4.0 industria modu eraginkorrean ezartzeko, enpresen ustez ezinbesteko konpetentzia digitalak dira honako hauek: datuen ezagutza eta erabilera, datuen analisia eta zibersegurtasunaren gaineko ezagutzak. Aldi berean, EBk beste pauso bat eman du eta 5.0 industriaren kontzeptua ezarri du. Hala, 4.0 industriaren ezaugarri hauei honako hauek gehitu zaizkie: pertsonei arreta jartzen diena, jasangarria eta erresilientea.

***Droneen sektorearen hazkundea***

Droneen erabilerak abantaila asko eta garrantzitsuak ekarri dizkie sarbide zaila duten lekuak edo instalazioak kontrolatu eta ikuskatu behar dituzten jarduerei. Zentzu horretan, honako arloetan ematen zaien erabilera nabarmendu behar da: *Nekazaritza*: laboreen hazkundearen jarraipena, ureztapenaren kudeaketa eta lursailaren ezaugarriak hautematea. *Obra zibila:* 3D jasotze topografikoak, indusketen kontrola, eraikuntzaren aurrerapen mailaren jarraipena eta ingurumenaren zaintza. *Mantentze-lanak*: irisgarriak ez diren eremuen ikuskapenak, aktiboen inbentarioa, ikusizko kanpo-azterketa eta barneko azterketa instrumentala. *Ingurumena*: isurpenak hautematea, debekatutako jardueren kontrola eta basoen kartografia. *Meatzaritza*: indusketen hasierako irekitzearen kontrola eta metaketen monitorizazioa. *Filmazioa*: altuera handitik filmatzea. *Aseguruak*: aseguratu beharreko aktiboen inbentarioa; iruzurraren prebentzioaren jarraipena; ingurunearen ezaugarriak aztertzea, arrisku potentzialak neurtzeko; eta jasandako kalteen ebaluazioa.

## 9.2 SEKTOREA EAEN[1]

Lehenik eta behin, aurten ere komeni da gogoratzea Euskal Herriko Ezagutzaren eta Teknologia Aplikatuen Industrien Elkarteak (GAIA) berrantolaketa bat egin zuela 2019an, lehentasunezko teknologia bideratzaileetan fokua jarrita. Ikuspegi berri horretan, azpisektore horietako lidergoa honako teknologietan espezialistak diren enpresei dagokie: Adimen Bisuala, Zibersegurtasuna, Gauzen Internet (IoT) eta Adimen Artifiziala.

GAIAk haren 40. urteurrenaren harira argitaratutako informazioaren arabera, 2022an 315 enpresa biltzen zituen taldeak, aurreko ekitaldian baino 15 enpresa gehiago. Ziurgabetasuna, tentsio geopolitikoak eta prezioen igoera izan ziren nagusi testuinguru hartan, baina trantsizio digitalaren, ekologikoaren eta sozioekonomikoaren bultzada ere bai.

[1] Euskal Herriko Ezagutzaren eta Teknologia Aplikatuen Industrien Elkarteak (GAIA) emandako informazioarekin osatu dugu atal hau. Elkarteko kide diren eta EAEko sektorearen egoera orokorra azaltzen duten enpresei dagokie atal honetako informazioa.

**104. koadroa Sektore elektroniko-informatikoko eta telekomunikazioen sektoreko enpresen bilakaera EAEn**

| Urtea | Enpresak |
|---|---|
| 2013 | 265 |
| 2014 | 245 |
| 2015 | 243 |
| 2016 | 254 |
| 2016* | 279 |
| 2017* | 258 |
| 2018* | 254 |
| 2019* | 267 |
| 2020* | 311 |
| 2021* | 300 |
| 2022* | 315 |

*(*): GAIA+AVIC.*
*Iturria: GAIA. Geuk egina.*

Sektoreko ekoizpena % 7,5 hazi zen 2022an, 6.153,3 milioi eurora arte. Hala, aurreko ekitaldian hasitako suspertzea (% 7ko hazkundea) baieztatu zen, 2020ko etenaren ondoren.

**105. koadroa Sektore elektroniko-informatikoko eta telekomunikazioen sektoreko ekoizpenaren bilakaera EAEn**

| Urtea | Produkzioa M eurotan | % Δ |
|---|---|---|
| 2013 | 2.702,1 | -1,5 |
| 2014 | 2.768,0 | 2,4 |
| 2015 | 2.909,0 | 5,1 |
| 2016 | 3.530,0 | 21,3 |
| 2016* | 4.742,0 | -- |
| 2017* | 4.958,0 | 4,6 |
| 2018* | 5.171,0 | 4,3 |
| 2019* | 5.352,0 | 3,5 |
| 2020* | 5.350,0 | 0,0 |
| 2021* | 5.724,0 | 7,0 |
| 2022* | 6.153,3 | 7,5 |

*(*): GAIA+AVIC.*
*Iturria: GAIA. Geuk egina.*

Sektorearen esportazioek % 9ko hazkundea izan zuten 2022an, eta 2.586,6 milioi eurora iritsi ziren. Covidaren ondoren merkatuak ireki izanak eta euroaren eta dolarraren arteko parekotasunak lagundu zioten hazkunde horri. Gainera, etorkizunean nazioartekotzeak handitzen jarraituko duela aurreikusten du GAIAk, espezializazioaren, sektoreko soluzioen lehiakortasunaren eta "datuen ekonomiaren" garapenaren ondorioz.

**106. koadroa Sektore elektroniko-informatikoko eta telekomunikazioen sektoreko esportazioen bilakaera EAEn**

| Urtea | Esportazioak (M euro) | % ∆ | Esportazioak/ Ekoizpena |
|---|---|---|---|
| 2013 | 1.076,8 | 2,3 | 39,8 |
| 2014 | 1.084,2 | 0,7 | 39,2 |
| 2015 | 1.117,0 | 3,0 | 38,4 |
| 2016 | 1.179,6 | 5,6 | 33,4 |
| 2016* | 1.966,0 | -- | 41,5 |
| 2017* | 2.045,4 | 4,0 | 41,3 |
| 2018* | 2.164,0 | 5,8 | 41,8 |
| 2019* | 2.350,0 | 8,6 | 43,9 |
| 2020* | 2.223,0 | -5,4 | 41,6 |
| 2021* | 2.373,0 | 6,7 | 41,5 |
| 2022* | 2.586,6 | 9,0 | 42,0 |

*(*): GAIA+AVIC.*
*Iturria: GAIA. Geuk egina.*

Sektoreko zifrak historikoak izan ziren eta, agertoki horretan, sektoreko enplegua % 7,1 hazi zen 2022an, 23.600 pertsona okupatura iritsi arte (1.562 kontratazio berri inguru). Ondoz ondoko zortzigarren urtez egin zuen gora profesional kopuruak; dena den, Klusterraren arabera, lan-eskaintzaren eta lan-eskariaren arteko desorekak mugatu egiten du sektorearen hazkundea.

**107. koadroa Sektore elektroniko-informatikoko eta telekomunikazioen sektoreko enpleguaren bilakaera EAEn**

| Urtea | Langileak | % ∆ |
|---|---|---|
| 2013 | 10.797 | -0,1 |
| 2014 | 10.564 | -2,2 |
| 2015 | 11.007 | 4,2 |
| 2016 | 11.447 | 4,0 |
| 2016* | 18.517 | -- |
| 2017* | 19.276 | 4,1 |
| 2018* | 20.030 | 3,9 |
| 2019* | 20.528 | 2,5 |
| 2020* | 20.732 | 1,0 |
| 2021* | 22.038 | 6,3 |
| 2022* | 23.600 | 7,1 |

*(*): GAIA+AVIC.*
*Iturria: GAIA. Geuk egina.*

I+G arloko inbertsioak 169 milioi eurora igo ziren 2022an. Hala, aurreko urtearekin alderatuta, hazkundea % 11koa izan zen. Sektoreak teknologia bideratzaileen (IoT, Adimen Artifiziala, Esperientzia Adimena eta Zibersegurtasuna) alde egindako apustu argiaren emaitza izan zen hazkunde hori, eta sektoreak eskaintzen dituen soluzio eta sistema guztietan teknologia horiek behar direla ohartu izanaren ondorioa.

Azkenik, etorkizunera begira, sektoreko teknologia eta balio-katea indartzeko beharra nabarmendu behar da sektoreak dituen erronken artean. Hala, lehentasuna du eskaintza

teknologikoa azkartzeak eta indartzeak, ETE-en eraldaketa digitala errazteko. Gainera, estrategikoa da Euskadin mikroelektronika indartzea, Europarekin lankidetzan. Abangoardiako hardwarea diseinatzea eta jabetza intelektuala babestea ahalbidetuko duten zerbitzu eta azpiegitura berriak sortu beharko lirateke horretarako.

# 10. ERAIKUNTZA

Pandemiaren ondorioek markatutako biurtekoaren ondoren, 2022an gerra-gatazka agertu zen, eta haren ondorioek ere eragina izan zuten eraikuntza-sektorean. 2021ean inoiz baino gehiago igo ziren materialen prezioak, eta horri aparteko agertoki inflazionista eta kostu energetikoaren igoera gehitu beharko zaizkio. Faktore horiek egoera konplikatuan utzi zuten sektorea. Hala, eta Eraikuntzako Behatokiak 2019ari buruz argitaratutako datuen arabera, eraikuntza-sektoreko kostuen indizea % 30 hazi zen materialen kontsumorako.

Hortaz, 2022an zehar lizitazio publikoa bultzatu arren, kontratu jakin batzuetan ez zegoen prezioak berrikusteko sistemarik, eta, ondorioz, horiek gauzatzea ez zen bideragarria. Fabrikazioan zein obren gauzapenean, bat-batean igo zen materialen eta kontsumitutako energiaren kostua, eta hori ez zetorren bat obra publikorako (eta pribaturako) zenbatetsitako kostuekin. Ondorioz, lizitazio asko esleitu gabe geratu ziren. Horrek guztiak eragina izan zuen azpiegituren garapenean, bereziki, oso beharrezkoak diren arloetan: garraioa, ura eta ingurumena. Etxebizitzen eraikuntzan ere izan zuen eragina, eta ekoizpenaren erritmoa baxuagoa zen eskaria baino.

Gainera, ziurgabetasun ekonomikoa gailendu zen, EBren laguntza finantzarioaren zuzkidura eskasa izan zen –EBren Next Generation Funtsen % 6,7 bakarrik bideratu ziren azpiegituretara– eta PERTE-ek atzerapenak eta exekuzio maila baxua izan zituzten. Horrek guztiak ez zion onik egin sektoreari. Hala, nabarmentzekoa da energia-azpiegituren aurreikuspenak onak direla, Europako laguntza finantzarioen programa berri bat jarri baitute martxan, REPowerEU. 2027ra bitartean 270.000 milioi euroko inbertsioa egingo da EBn, eta Espainiaren hasierako esleipena 2.600 milioi eurokoa da.

Horri guztiari enpleguaren erronka batu behar zaio. Langile kualifikatuen gabezia dago, eta horrek, batzuetan, atzeratu egiten ditu obrak gauzatzeko epeak. Sektoreko langileak zahartzen ari dira, eta ez dago belaunaldi-txandarik.

Hortaz, aurretik zituen zailtasunez gain, zailtasun berriak agertu zaizkio sektoreari. Horiek geldotu egiten dute sektorearen jarduera, eta etorkizunean jarduera hori asko baldintzatuko dute lizitazioek eta Next Generation Funtsen exekuzioak.

Hala, Estatuko Barne Produktu Gordinari % 4,8ko ekarpena egin zion eraikuntza-sektoreak 2022an, Balio Erantsi Gordin (BEG) gisa neurtuta. Hala, urte arteko % 3,8ko igoera izan zuen BEGak, baina ez zen 2019ko mailara iritsi.

Gauzak hala, 2022ko ekitaldiko datuak aztertuta, ikusi daiteke sektorearen bilakaera hobea izan zela Euskal Herrian, Estatuan baino. Aztertutako bost adierazleetatik lautan,

Euskal Herriak bilakaera hobea izan zuen: enplegua, zementuaren ageriko kontsumoa, lizitazio ofiziala eta hasitako etxebizitzak. Sektoreko jardueraren pultsua neurtzea ahalbidetzen dute adierazle horiek.

Zehatzago esanda, eta Euskal Herrian sektoreak izandako bilakaerari erreparatuta, 2022an asko hazi ziren lizitazio ofiziala (+% 32,4), enplegua (+% 11,7) eta, neurri txikiagoan, zementuaren ageriko kontsumoa (+% 1,8) eta hasitako etxebizitzak (+% 0,6). Hala, Euskal Herrian bilakaera negatiboa izan zuen adierazle bakarra amaitutako etxebizitzena izan zen. Horien bolumena 2021ekoa baino % 14,7 baxuagoa izan zen.

**108. koadroa Eraikuntza-sektorearen adierazle batzuen bilakaera**

*(% Δ)*

| Kontzeptua | Euskal Herria | | Espainia | |
|---|---|---|---|---|
| | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 |
| Biztanleria okupatua | -5,1 | 11,7 | 3,8 | 2,3 |
| Zementuaren ageriko kontsumoa (*) | 10,6 | 1,8 | 11,7 | -0,8 |
| Amaitutako etxebizitzak | 6,6 | -14,7 | 8,2 | -4,9 |
| Hasitako etxebizitzak | -0,6 | 0,6 | 29,9 | -5,7 |
| Lizitazio ofiziala | 64,2 | 32,4 | 63,0 | 23,4 |

*(*): Oficemen-eko Ipar Eremuko (Aragoi, Nafarroa, EAE eta Errioxa) bazkideen zementuaren itxurazko kontsumoari egiten dio erreferentzia.*

*Iturria: Guk geuk egina, EIN, Seopan eta Oficemen datuetatik abiatuta.*

Analisia Estatura eramanda, bilakaera positiboa izan zuten lizitazio ofizialak (+% 23,4) eta enpleguak (+% 2,3). Aldiz, behera egin zuten zementuaren ageriko kontsumoak (-% 0,8), amaitutako etxebizitzek (-% 4,9) eta hasitako etxebizitzek (-% 5,7), neurri batean edo bestean.

Erreferentziazko gainerako adierazleei dagokienez, EAEren kasuan, mantendu egin zen 2021eko hobekuntza, eta 2022an hobera egin zuten berriz ere. Hala, Obra Zibilak izan zuen urte arteko aldakuntzarik handiena (+% 19,9), ondoren Ekoizpen Indizeak (+% 8,3) eta gero Etxegintzak (+% 6,5). Okupatutako langileen indizeak ere bilakaera positiboa izan zuen (+% 1,1), baina txikiagoa.

**109. koadroa Eraikuntzaren Indize Koiunturala (EAE).**

***(% Δ)***

| Kontzeptua | 2020 | 2021 | 2022(*) |
|---|---|---|---|
| Okupatutako langileen indizea | -2,0 | 0,5 | 1,1 |
| Ekoizpen-indizea | -8,1 | 7,8 | 8,3 |
| Etxegintza | -8,4 | 8,4 | 6,5 |
| Obra zibila | -6,1 | 4,3 | 19,9 |

*(*): Behin-behineko datuak.*

*Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Indize Koiunturala (EIK)(2010eko oinarria).*

Analisia lizitazio ofizialera mugatuta, datuek erakusten dutenez, haren balioak nabarmen igo ziren aztertutako eremu guztietan. Hala, azken 10 urteetan lizitatutako bolumenik handiena eskuratu zuen Estatuak. 2022an ia 30.000 milioi eurokoa izan zen lizitazioen guztizko balioa, urte arteko % 23,4ko hazkundea izan ondoren. 2021ean izandako hazkunde are handiagoari (+% 63) batu zitzaion hura.

Euskal Herrian ere hazi egin zen lizitatutako bolumena 2022an (+% 32,4; 2021ean +% 64,2), eta 2.754,8 milioi eurora iritsi zen. Gainera, hiru lurralde historikoetan egin zuen gora lizitazioak: Gipuzkoan (+% 10,5), Araban (+% 21,0) eta, batez ere, Bizkaian (+% 65,1). Bilakaera horiek apur bat aldatu zuten Euskal Herriko lizitazioen mapa. Bizkaiaren ekarpen erlatiboa handitu egin zen (2021ean % 33,4koa zen eta 2022an % 41,6koa) eta Gipuzkoarena txikitu (% 31,2tik % 26,0ra). Nafarroaren (% 19,8tik % 18ra) eta Arabaren (% 15,7tik % 14,3ra) partaidetzak, berriz, oso gutxi aldatu ziren.

**110. koadroa Administrazio zentralaren, autonomikoaren eta tokikoaren arteko lizitazio ofizialaren banaketa**

*(M euro)*

| Eremua | 2021 | | | | 2022 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Zentrala | Autonomikoa | Tokikoa | Guztira | Zentrala | Autonomikoa | Tokikoa | Guztira |
| Araba | 78,4 | 149,5 | 98,0 | 326,0 | 19,0 | 182,4 | 193,1 | 394,5 |
| Bizkaia | 67,6 | 120,7 | 506,5 | 694,7 | 108,5 | 527,9 | 510,7 | 1.147,1 |
| Gipuzkoa | 80,7 | 286,5 | 281,5 | 648,7 | 113,3 | 196,7 | 406,5 | 716,5 |
| EAE | 226,6 | 556,7 | 886,1 | 1.669,3 | 240,8 | 907,0 | 1.110,3 | 2.258,0 |
| Nafarroa | 16,2 | 247,3 | 147,8 | 411,3 | 73,1 | 284,6 | 139,1 | 496,8 |
| Euskal Herria | 242,8 | 803,9 | 1.033,9 | 2.080,6 | 313,9 | 1.191,6 | 1.249,3 | 2.754,8 |
| Espainia | 7.899,2 | 6.839,1 | 8.960,6 | 23.698,9 | 8.036,6 | 9.944,2 | 11.262,0 | 29.242,8 |

*Iturria: Seopan.*

Agente inbertitzaile bakoitzaren bilakaerari dagokionez, Estatuan Administrazio Autonomikoak izan zuen hazkunderik handiena (+% 45,4), jarraian Tokiko Administrazioak (+% 25,7) eta, distantzia handira, Administrazio Zentralak, 2021eko balioak baino apur bat altuagoekin (+% 1,7). Horren guztiaren ondorioz, Estatuko lizitazioen mapa nahiko orekatua izan zen. Tokiko Administrazioari zegokion lizitatutako guztizkoaren % 38,5, Administrazio Autonomikoari % 34 eta Administrazio Zentralari % 27,5.

Euskal Herriaren kasuan ere Administrazio Autonomikoak izan zuen lizitatutako bolumenaren urte arteko hazkunderik handiena (+% 48,2). Administrazio Zentralak eta Tokiko Administrazioak, berriz, antzeko igoerak izan zituzten (+% 29,3 eta +% 20,8, hurrenez hurren). Horren guztiaren ondorioz, Administrazio Zentralaren pisu espezifikoa (% 11,4) askoz ere txikiagoa zen beste bi administrazioena baino: Tokiko Administrazioak % 45,4 eta Administrazio Autonomikoak % 43,3.

**111. koadroa. Lizitazio ofizialaren urtetik urterako aldakuntza eta administrazioen arteko banaketa (2022)**

| Eremua | % | | | | % ∆ 22/21 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Zentrala | Autonomikoa | Tokikoa | Guztira | Zentrala | Autonomikoa | Tokikoa | Guztira |
| Araba | 4,8 | 46,2 | 48,9 | 4,8 | -75,8 | 22,0 | 96,9 | 21,0 |
| Bizkaia | 9,5 | 46,0 | 44,5 | 9,5 | 60,6 | 337,4 | 0,8 | 65,1 |
| Gipuzkoa | 15,8 | 27,4 | 56,7 | 15,8 | 40,5 | -31,3 | 44,4 | 10,5 |
| EAE | 10,7 | 40,2 | 49,2 | 10,7 | 6,3 | 62,9 | 25,3 | 35,3 |
| Nafarroa | 14,7 | 57,3 | 28,0 | 14,7 | 350,5 | 15,1 | -5,9 | 20,8 |
| Euskal Herria | 11,4 | 43,3 | 45,4 | 100,0 | 29,3 | 48,2 | 20,8 | 32,4 |
| Espainia | 27,5 | 34,0 | 38,5 | 100,0 | 1,7 | 45,4 | 25,7 | 23,4 |

*Iturria: Seopan.*

Lurraldeen arabera, eta Nafarroarekin hasita, Administrazio Zentralaren lizitazioa izugarri hazi zen (+% 350,5), Administrazio Autonomikoak hazkunde apalagoa izan zuen (+% 15,1), eta Tokiko Administrazioarena murriztu egin zen (-% 5,9). Bizkaiaren kasuan Administrazio Autonomikoak izan zuen sekulako igoera (+% 337,4), Administrazio Zentralak ere hazkunde nabarmena izan zuen (+% 60,6) eta Tokiko Administrazioaren zenbatekoa ez zen aldatu (+% 0,8). Gipuzkoan, Tokiko Administrazioaren eta Administrazio Zentralaren lizitazio-gaitasuna antzeko proportzioan hazi ziren (+% 44,4 eta +% 40,5, hurrenez hurren). Autonomikoa, berriz, dezente murriztu zen (-% 31,3). Araban, Tokiko Administrazioak izan zuen hazkunderik handiena (+% 96,9), eta Administrazio Autonomikoak ere bilakaera positiboa izan zuen (+% 22). Administrazio Zentralaren balioek, ordea, behera egin zuten aurreko ekitaldiarekin alderatuta (-% 75,8).

Hala, administrazio bakoitzaren hazkundea ezberdina izan zenez, lizitazio-maparen banaketa aldatu egin zen. Administrazio Autonomikoa eta Tokiko Administrazioa izan ziren lizitazio-jarduera bultzatu zutenak, hiru lurralde historikoetan lizitatutako guztizkoaren % 80 biltzen baitzuten bien artean.

Zehatzago esanda, Araban % 95,1eko ekarpena egin zuten Administrazio Autonomikoak (% 46,2) eta Tokiko Administrazioak (% 48,9). Hortaz, Administrazio Zentralaren ekarpena askoz ere txikiagoa zen (% 4,9). Agertoki bera izan zen Bizkaian. Administrazio Autonomikoaren (% 46,0) eta Tokiko Administrazioaren (% 44,5) artean estali zuten lizitazio-jardueraren zatirik handiena (% 90,5), eta gainerako % 9,5a zegokion Administrazio Zentralari. Gipuzkoan, lizitazio-maparen osaera ezberdina zen. Tokiko Administrazioak zuen pisu erlatiborik handiena (% 56,7), eta jarraian, Administrazio Autonomikoak (% 27,4). Bien artean, % 84,2ko ekarpena egiten zuten, eta Administrazio Zentralaren % 15,8k osatzen zuen. Nafarroako Foru Erkidegoari dagokionez, Administrazio Autonomikoa (% 57,3) zegoen lizitazio-maparen buruan, eta, distantzia handira, Tokiko Administrazioa (% 28,0) eta Administrazio Zentrala (% 14,7).

Lizitazio ofizialak obra motaren arabera izandako bilakaerari dagokionez, joera nagusia goranzkoa izan zen, salbuespen batzuekin. Euskal Herrian, batez ere, Etxegintzaren segmentuan izan zen hazkundea (+% 92,0 eta % 45,7ko pisu espezifikoa). Izan ere, gora egin zuen Gizarte-ekipamendura (+% 97,8 eta lizitatutako guztizkoaren % 25,6) eta Gainerako etxegintzara (+% 117,9 eta % 14,2) bideratutako jarduerak. Etxebizitzen kasuan, lizitatutako bolumenaren hazkundea xumeagoa izan zen (+% 35,9 eta % 5,9). Analisia Estatura eramanda, han ere gora egin zuen Etxegintzak (+% 34,4), eta lizitatutako guztizkoaren % 38,9 zegokion. Izan ere, gora egin zuten honakoei egindako ekarpenek: Etxebizitzak (+% 21,2 eta % 3,6ko partaidetza), Gizarte-ekipamendua (+% 24,5 eta % 21,8) eta Gainerako etxegintza (+% 59,9 eta % 13,4).

**112. koadroa  Lizitazio ofiziala obra motaren arabera (2022)**

| Obra mota | Euskal Herria | | | Espainia | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | M euro | % ∆ 22/21 | % | M euro | % ∆ 22/21 | % |
| Etxebizitzak | 163,6 | 35,9 | 5,9 | 1.066,8 | 21,2 | 3,6 |
| Gizarte-ekipamendua | 704,8 | 97,8 | 25,6 | 6.385,7 | 24,5 | 21,8 |
| Gainerako etxegintza | 391,5 | 117,9 | 14,2 | 3.911,5 | 59,9 | 13,4 |
| Etxegintza, guztira | 1.259,8 | 92,0 | 45,7 | 11.364,0 | 34,4 | 38,9 |
| Garraioak | 858,7 | 11,2 | 31,2 | 9.199,9 | -1,7 | 31,5 |
| Urbanizazioak | 390,2 | 0,6 | 14,2 | 4.588,0 | 46,5 | 15,7 |
| Hidraulikoak | 190,5 | 27,1 | 6,9 | 3.416,9 | 61,5 | 11,7 |
| Ingurumena | 55,6 | -51,5 | 2,0 | 674,0 | 6,2 | 2,3 |
| Obra zibila, guztira | 1.495,0 | 5,0 | 54,3 | 17.878,8 | 17,3 | 61,1 |
| GUZTIRA | 2.754,8 | 32,4 | 100,0 | 29.242,8 | 23,4 | 100,0 |

*'turria: Seopan.*

Obra zibilari dagokionez, Euskal Herrian gora egin zuen obra mota horretarako lizitatutako bolumenak, baina Etxegintzaren kasuan baino askoz gutxiago (+% 5,0, eta Etxegintzaren kasuan +% 92). Hala ere, guztizkoari ekarpen apur bat handiagoa egin zion Obra zibilak (% 54,3). Estatuan, lizitatutako Obra zibilaren bolumenak partaidetza handiagoa zuen (% 61,1), haren balioak % 17,3 hazi baitziren 2021arekiko.

Datuetan sakonduz, eta Euskal Herriari dagokionez, partida guztien ekarpena hazi zen, ingurumenaren partida izan ezik: nabarmen jaitsi zen (-% 51,5) eta haren ekarpena oso txikia izan zen (% 2). Pisu espezifikorik handiena garraio-azpiegiturek izan zuten (% 31,2) eta horien ekarpena handitu egin zen (+% 11,2), baita obra hidraulikoena (+% 27,1 eta % 6,9ko kuota) eta urbanizazioena ere (+% 0,6 eta % 14,2). Estatuan, obra hidraulikoen lizitazioek izan zuten urte arteko hazkunderik handiena (+% 61,5). Urbanizazio arloko obren lizitazioek ere hazkunde nabarmena izan zuten (+% 46,5), eta txikiagoa ingurumen arlokoek (+% 6,2). Aldiz, behera egin zuten garraio arloko obrei egindako ekarpenek (-% 1,7), aurrekontu handieneko partida izan arren (% 31,5).

Aintzat hartutako eremu geografiko bakoitzean lizitazio-jarduerak izandako ibilbidea jasotzen dute atxikitako grafikoek, denbora-ikuspegi zabalago batetik. Argi ikusten da lizitazio ofizialak behera egin zuela 2020an, eta 2017an hasitako hazkunde-ibilbidea eten zela. Azken biurtekoan suspertu egin da jarduera, eta azken urteetako bolumenik handienak lizitatu ziren 2022an.

**19. grafikoa Lizitazio ofiziala**




*Iturria: Seopan*

Sektorearen analisiarekin jarraituz eta etxebizitzen bilakaerari dagokionez, 2022an murriztu egin zen hasitako etxebizitzen kopurua Estatuan (-% 5,7). Hala, 107.213 etxebizitzako erroldarekin amaitu zen 2022a. Etxebizitza libreak ziren gehienak

(96.996 libre eta 10.217 babestu). Dena den, bi segmentuek egin zuten behera (-% 22,4 eta -% 3,5). Euskal Herrian analisi bera eginda, egoera hobea izan zen, eta aurreko urteko hasitako etxebizitzen bolumen ia berarekin amaitu zen 2022ko ekitaldia (7.652; +% 0,6): 5.201 etxebizitza libre (-% 3,8) eta 2.451 babestu (+% 11,5).

Lurraldeka aztertuta, hiru lurralde historikoetan hazi egin zen hasitako etxebizitza babestuen kopurua eta murriztu egin ziren libreak. Aldiz, Nafarroan aurkakoa gertatu zen. Hala, hasitako etxebizitza babestuen kopurua hazi egin zen Araban (+% 35,4), Bizkaian (+% 23,4) eta Gipuzkoan (+% 66,4), eta jaitsi egin zen hasitako etxebizitza libreen kopurua (-% 13,4, -% 13,0 eta -% 2,3). Araban eta Bizkaian nahiko homogeneoa da modalitateen araberako banaketa, baina Gipuzkoan ez, etxebizitza libreen ehunekoa askoz ere handiagoa baita (% 64,8). Bestetik, Nafarroan apur bat hazi zen hasitako etxebizitza libreen kopurua (+% 2,6), eta mota horretakoak izan ziren 10 etxebizitzatik 9. Etxebizitza babestuen kopurua, berriz, nabarmen jaitsi zen (-% 64,3).

Hori guztia kontuan hartuta, EAEn 5.058 hasitako etxebizitza zeuden (+% 7,1): 2.258 babestu eta 2.800 libre. Eta Nafarroan 2.594 etxebizitza: 2.401 libre eta 193 babestu.

**113. koadroa Hasitako eta amaitutako etxebizitzak***

*(etxebizitza kopurua)*

| Eremua | Kontzeptua | Hasitako etxebizitzak | | | Amaitutako etxebizitzak | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 2020 | 2021 | 2022 | 2020 | 2021 | 2022 |
| Araba | Babestuak | 191 | 328 | 444 | 122 | 122 | 240 |
| | Libreak | 491 | 485 | 420 | 327 | 306 | 511 |
| Bizkaia | Babestuak | 911 | 928 | 1.145 | 218 | 783 | 804 |
| | Libreak | 1.258 | 1.320 | 1.149 | 1709 | 1735 | 905 |
| Gipuzkoa | Babestuak | 217 | 402 | 669 | 222 | 212 | 521 |
| | Libreak | 1.375 | 1.260 | 1.231 | 1354 | 1302 | 917 |
| EAE | Babestuak | 1.319 | 1.658 | 2.258 | 562 | 1.117 | 1.565 |
| | Libreak | 3.124 | 3.065 | 2.800 | 3.390 | 3.343 | 2.333 |
| Nafarroa | Babestuak | 605 | 541 | 193 | 558 | 360 | 243 |
| | Libreak | 1.954 | 2.340 | 2.401 | 1.498 | 2.160 | 1.810 |
| Euskal Herria | Babestuak | 1.924 | 2.199 | 2.451 | 1.120 | 1.477 | 1.808 |
| | Libreak | 5.078 | 5.405 | 5.201 | 4.888 | 5.503 | 4.143 |
| Espainia | Babestuak | 11.569 | 13.171 | 10.217 | 9.038 | 9.567 | 9.114 |
| | Libreak | 75.930 | 100.504 | 96.996 | 77.531 | 84.091 | 79.935 |

*(*): Behin-behineko datuak. 2023ko uztailaren 7ko datuak.*

*Iturria: Sustapen Ministerioa. Espainiako Gobernua. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza. Sustapen eta Etxebizitza Saila. Nafarroako Gobernua. EIN.*

Amaitutako etxebizitzen analisiari dagokionez, Estatuan 89.049 etxebizitza zenbatu ziren: 9.114 babestuak eta 79.935 libreak. Urte arteko ia % 5eko jaitsiera izan zuten bi kategoriek. Euskal Herrian, 2022an amaitutako 5.951 etxebizitza zenbatu ziren (-% 14,7). Libreek behera egin zuten (-% 24,7 eta % 69,6ko partaidetza), eta babestuek gora (+% 22,4

eta % 30,4ko kuota). Nafarroan amaitutako 2.053 etxebizitza zenbatu ziren 2022an (-% 18,5), eta 10etik ia 9 libreak ziren (-% 16,2).

Bestetik, Araban, 2021ean baino askoz ere amaitutako etxebizitza gehiago erregistratu ziren (+% 75,5); izan ere, gora egin zuten etxebizitza babestuek (+% 96,7 eta % 32ko partaidetza) zein libreek (+% 67,0 eta % 68ko pisu espezifikoa). Gipuzkoan, etxebizitza libreek hazkunde handia izan zuten (+% 145,8), eta libreek behera egin zuten (-% 29,6). Dena den, etxebizitza libreei dagokie jardueraren zatirik handiena (% 63,8). Azkenik, Bizkaian, jarduerak bilakaera negatiboa izan zuen. Amaitutako 1.709 etxebizitza zenbatu ziren, aurreko urtean baino % 32,1 gutxiago, etxebizitza libreen bilakaeraren ondorioz (-% 47,8). Aldiz, babestuek hazkunde txiki bat izan zuten (+% 2,7). Bi segmentuen pisua oso antzekoa da.

### 20. grafikoa Amaitutako etxebizitza kopurua




*Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza. Ingurumen, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Departamendua. Nafarroako Gobernua. EIN.*

### 114. koadroa Birgaitze babestuaren arloko lanak EAEn*

| Urtea | Birgaitutako etxebizitza kopurua | Birgaitutako lokal kopurua | Emandako diru-laguntzak (eurotan) |
|---|---|---|---|
| 2021 | 9.947 | 540 | 24.767.792 |
| 2022 | 33.626 | 6.653 | 29.096.726 |
| Δ %22/21 | 238,1 | 1.132 | 17,5 |

*(*): Dirulaguntza jaso duten etxebizitzen eta birgaitutako lokalen kopurua. Behin-behineko datuak.*
*Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Etxebizitzen birgaitzeari dagozkion zifrak aztertuta, 2022an hazkunde handia izan zuen jarduerak EAEn. Emandako dirulaguntzak nabarmen igo ziren (+% 17,5) eta ia 30 milioi eurora iritsi ziren. Hala ere, birgaitutako etxebizitza eta lokalen kopuruak izan zuen hazkunderik handiena.

**115. koadroa Eraikuntzan lanean ari den biztanleria**

*(m pertsona)*

| Eremua | 2020 | 2021 | 2022 | % ∆ 22/21 |
|---|---|---|---|---|
| Araba | 4,9 | 4,8 | 3,7 | -23,3 |
| Bizkaia | 31,9 | 28,3 | 31,9 | 12,6 |
| Gipuzkoa | 14,4 | 11,8 | 15,0 | 26,8 |
| EAE | 51,2 | 44,9 | 50,6 | 12,5 |
| Nafarroa | 15,6 | 18,5 | 20,2 | 9,6 |
| Euskal Herria | 66,8 | 63,4 | 70,8 | 11,7 |
| Espainia | 1.244,1 | 1.291,5 | 1.321,0 | 2,3 |

*Iturria: EIN. Biztanleria Aktiboaren Inkesta (2011ko oinarria).*

Sektoreko langile kopuruari dagokionez eta BAI (Biztanleria Aktiboaren Inkesta) inkestaren informazioa kontuan hartuta, lurralde guztietan gora egin zuen langile kopuruak, Araban izan ezik. Araban, biurteko egonkor baten ondoren, enpleguak okerrera egin zuen (-% 23,3). Hala, Nafarroan (+% 9,6), Bizkaian (+% 12,6) eta, batez ere, Gipuzkoan (+% 26,8) asko hobetu ziren erregistroak, aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

Hori guztia kontuan hartuta, 2022an 70,8 mila pertsonak lan egiten zuten eraikuntzan Euskal Herrian, aurreko ekitaldian baino % 11,7 gehiagok. Estatuan, berriz, langile kopurua 1,3 milioi pertsonakoa zen, urte arteko % 2,3ko hazkundearen ondoren.



LABORAL kutxa

**21. grafikoa** **Eraikuntzan lanean ari den biztanleria**




*Iturria: EIN. Biztanleria Aktiboaren Inkesta (2011ko oinarria).*

**116. koadroa Eraikuntzako lehengaien prezioen bilakaera**

| | 1. taldea | 2. taldea | 3. taldea | 4. taldea | 5. taldea |
|---|---|---|---|---|---|
| Urteko indizeak | | | | | |
| 2020 | 103,2 | 105,5 | 102,7 | 104,3 | 102,8 |
| 2021 | 105,3 | 115,2 | 106,4 | 104,9 | 112,1 |
| 2022 | 126,4 | 136,5 | 115,2 | 113,9 | 123,1 |
| *% Δ, urtetik urterakoa* | 20,0 | 18,4 | 8,2 | 8,6 | 9,8 |

*1. taldea: agregatu, zementu, kare, hormigoi, mortero, zeramika, aurrefabrikatuak, igeltsua eta eratorritakoak*
*2. taldea: altzairua, egurra, sintetikoak, asfaltikoak, kautxua, beira laua, beira barnehutsa, egur-arotzeria, metal-arotzeria, burdineria*
*3. taldea: balbulak eta txorrotak, erradiadoreak eta galdarak, klimatizazioa eta aireztapena, etxetresna elektrikoak, elektrikoak ez diren etxetresnak, gailu eta osagarri elektrikoak, kable elektrikoak*
*4. taldea: beira-zuntza, zuntz optikoa, argiztapenerako gailuak, su-itzalgailu eta maukak, detektagailu eta alarmak, igogailuak, atezainak eta antenak, megafonia, elektronika, lehergailuak*
*5. taldea: pinturak, berniz eta mastikak, lauza zeramikoak, harri apaingarria, sukaldeko altzariak, kobrezko hodiak, plastikozko hodiak, zuntz-zementuzko hodiak, zeramikazko komun-ontziak*
*Iturria: EIN, Eraikuntzako prezioen eta askotariko materialen indizea (oinarria 100=2015eko urtarrila).*

Azterketarekin aurrera eginez, lehengaien eta eraikuntza-materialen kostuei dagokienez, prezioek gora egin zuten aztertutako bost taldeetan. 1. taldeak (agregatuak, zementua, karea, hormigoia, morteroa, zeramika, aurrefabrikatuak, igeltsua eta igeltsutik eratorritakoak) eta 2. taldeak (altzairua, egurra, sintetikoak, asfaltikoak, kautxua, beira laua, beira barnehutsa, egur-arotzeria, metal-arotzeria, burdineria) izan zuten igoera handiena, eta horrek, zalantzarik gabe, ondorioak izan zituen sektoreko jardueraren garapenean.

**117. koadroa Eraikuntzako lehengaien-materialen prezioen urte arteko hazkundea (2022ko martxoa-2021eko martxoa), taldearen arabera**

*Δ %*

| 1. taldea | | 2. taldea | | 3. taldea | |
|---|---|---|---|---|---|
| Agregatuak | 11,2 | Altzairua | 33,4 | Balbulak eta txorrotak | 8,9 |
| Zementua | 14,1 | Egurra | 17,8 | Erradiadoreak eta galdarak | 15,7 |
| Karea | 40,1 | Sintetikoak | 18,3 | Klimatizazioa eta aireztapena | 5,7 |
| Hormigoia | 14,2 | Asfaltikoak | 10,1 | Etxetresna elektrikoak | 7,6 |
| Morteroa | 13,7 | Kautxua | 8,1 | Etxetresna ez-elektrikoak | 7,1 |
| Zeramika | 15,6 | Beira zapala | 19,6 | Gailu eta osagarri elektrikoak | 5,4 |
| Aurrefabrikatuak | 13,8 | Beira barnehutsa | 23,3 | Kable elektrikoak | 6,5 |
| Igeltsua | 40,1 | Egur-arotzeria | 17,8 | | |
| Igeltsutik eratorritakoak | 16,8 | Metal-arotzeria | 15,6 | | |
| | | Burdineria | 13,9 | | |
| **4. taldea** | | **5. taldea** | | | |
| Beira-zuntza | 10,1 | Pinturak | 14,6 | | |
| Zuntz optikoa | 6,5 | Bernizak eta mastikak | 15,6 | | |
| Argiztapenerako gailuak | 3,6 | Lauza zeramikoak | 5,0 | | |
| Su-itzalgailuak-mahukak | 6,7 | Harri apaingarria | 7,8 | | |
| Detektagailuak eta alarmak | 28,7 | Sukaldeko altzariak | 5,0 | | |
| Atezainak eta megafonia-antenak | 1,1 | Kobrezko hodiak | 18,3 | | |
| Igogailuak | 6,6 | Plastikozko hodiak | 13,8 | | |
| Elektronika | 2,2 | Zuntz-zementuzko hodiak | 0,0 | | |
| Lehergailuak | 11,5 | Zeramikazko komun-ontziak | 14,6 | | |

*Iturria: EIN, Eraikuntzako prezioen eta askotariko materialen indizea (oinarria 100=2015eko urtarrila).*

Prezioen igoera orokorra izan zen, baina azkenaldiko bilakaera (2022ko martxoa-2023ko martxoa) xehetasunez aztertuta, ikus daiteke kareak eta igeltsuak izan dutela igoerarik handiena (+% 40,1 biek), eta jarraian altzairuak (+% 33,4), alarma-detektagailuek (+% 28,7) eta beira barnehutsak (+% 23,3). Horiez gain, beste 22 materialek % 10 eta % 20 arteko hazkundeak izan dituzte.

**118. koadroa Eraikuntzako kostuen indizearen bilakaera (EAE)**

| | Indizea | | | ∆ % | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2020ko abe. | 2021eko abe. | 2022ko abe. | 2020ko abe./ 2019ko abe. | 2021eko abe./ 2020ko abe. | 2022 ko abe./ 2021eko abe. |
| Kostuak, guztira | 106,3 | 112,2 | 121,8 | 1,0 | 5,6 | 8,6 |
| - Etxegintzako kostuak | 106,4 | 111,9 | 121,2 | 1,2 | 5,2 | 8,3 |
| - Obra zibileko kostuak | 105,6 | 113,6 | 124,3 | -0,3 | 7,6 | 9,4 |
| Lehengaien prezioa guztira | 105,7 | 112,9 | 123,4 | 0,8 | 6,8 | 9,3 |
| -Eraikuntzako lehengaien prezioa | 105,9 | 112,5 | 122,7 | 1,1 | 6,2 | 9,1 |
| -Obra zibileko lehengaien prezioa | 104,8 | 114,6 | 126,6 | -0,9 | 9,4 | 10,5 |
| Esku-lanaren kostua | 108,2 | 110,2 | 116,7 | 1,9 | 1,8 | 5,9 |

*Iturria: EUSTAT, Eraikuntzako kostuen indizea (oinarria 100=2015eko urtarrila).*

Era berean, EAEn gora egin zuen eraikuntzako kostuen indizeak kasu guztietan, aurreko ekitaldian bezala, baina indar handiagoz. Hala, guztizko kostuak % 8,6 hazi ziren eta lehengaien prezioa % 9,3 garestitu zen. Halaber, joera bera izan zuten esku-lanaren kostuek, 2021ekoak baino % 5,9 handiagoak izan baitziren.

Hortaz, eta etorkizunera begira, sektoreko langile kopurua hazi bada ere, sektorearen jarduera zailtzen duten hainbat mehatxu daude. Nagusiena, zalantzarik gabe, materialen kostuaren etengabeko hazkundea da, eta horri energiaren kostuaren hazkundea gehitu behar zaio. Gainera, azken hori, obrarako kontratu publikoetako prezioak berrikusteko ezohiko sistematik kanpo geratu zen. Hortaz, argi-ilunak ditu egungo agertokiak: lizitazio publikoaren datuak hamarkadako onenak dira, baina esleitu gabe geratzen diren lizitazioen kopurua orain arte ikusi gabea da; enplegua hazi da, baina ez dago belaunaldi-txandarik; laguntzen pakete handia dago aurreikusita, baina ez dira formalizatzen, etab. Hala, Seopanen aurreikuspenen arabera, 2023an % 4 haziko da sektoreko ekoizpena.

# 11. SEKTOREEN ANALISI EKONOMIKOA ETA FINANTZARIOA

## 11.1 SARRERA

Kapitulu honetan Euskal Herriko industria-sektoreak aztertuko ditugu, analisi finantzariorako erabili ohi diren bi tresnaren bidez: ratio bidezko analisia eta funtsen iturrien eta erabileren egoera. Horretarako, sektore bakoitzeko kontabilitate-egoerari buruzko informazioa –balantzeak eta emaitzen kontuak– bildu dugu.

Sarreraz gain, kapitulu honek hiru atal nagusi ditu. Lehenengo atala metodologikoa da. Oinarri gisa erabilitako informazioa zehazten du, eta analisirako bi tresnak aplikatzeko erabilitako irizpideak azaltzen ditu. Bigarren atalean, ratioen piramidearen aplikazioa azaltzen da, eta, hirugarrenean, funtsen iturrien eta erabileren egoera. Hala, Euskal Herriko industria-sektoreen azterketa ekonomiko-finantzarioa egingo dugu; sektoreen arteko alderaketa egingo dugu, baita Estatuko egoerarekiko alderaketa ere. Horretarako, piramideko ratio nagusiak eta batez besteko inbertsio-diruzaintzak (cash-flow libreak) hartuko ditugu kontuan. Dena den, sektore bakoitzaren ratioen piramideak eta funtsen iturrien eta erabileren egoerak ere gehituko ditugu, bai Euskal Herrikoak, bai Estatu osokoak.

## 11.2 METODOLOGIA

**Datu-bankua**

Piramidea egiteko, kontabilitate-egoerari buruzko oinarrizko datuak behar dira: aztertu beharreko sektore bakoitzaren balantzeak eta emaitzen kontuak. Horretarako, Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentralak galdetegi bidez jasotako informazioa hartu dugu oinarritzat, tratatu beharreko informazioa homogeneoa izan zedin. Galdetegi horiek enpresa kolaboratzaileek erantzun dituzte, bai Euskal Herrikoek (eskaera zehatza egin zaie egoitza soziala EAEn edo Nafarroan duten enpresei), bai Estatu osokoek (Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentralak egindako urteroko txostenetako informazioa erabili dugu).

Kontuan izan behar da Balantzeen Zentralaren azken informazio-basea t-2 urtekoa dela (gainera, datu-base bakoitzak dagokion urteko eta aurreko urteko informazioa izaten du). Ondorioz, oinarritzat hartu dugun informazioak urtebeteko atzerapena du txosten honi dagokion urtearekiko.

Zehazki, txosten hau egiteko erabilgarri dagoen azken basea 2021ekoa da, eta 2020ari eta 2021ari dagokien informazioa eskaintzen du.

Industria-jardueraren sektorekako banaketari dagokionez, Balantzeen Zentralaren CB-52 sailkapen berria erabili dugu industria-sektoreen informazio-eskaera egiteko. Sailkapen hori, bestalde, 2009ko Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionala (EJSN-2009) kontuan hartuta eguneratu dute. Sailkapen horrek honako sektore hauek bereizten ditu (19 sektore):

- Elikagaien, edarien eta tabakoaren industriak
- Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza
- Zuraren eta kortxoaren industria, altzariak, saskigintza eta espartzugintza izan ezik
- Papergintza
- Arte grafikoak eta euskarri grabatuen erreprodukzioa
- Koke-fabrikak eta petrolio-finketa
- Industria kimikoa
- Farmazia-produktuen fabrikazioa
- Kautxuzko produktuen eta plastikoen fabrikazioa
- Produktu mineral ez-metalikoen fabrikazioa
- Metalurgia; burdinazko eta altzairuzko produktuen eta ferroaleazioen fabrikazioa
- Produktu metalikoen fabrikazioa, makineriarena eta ekipoena izan ezik
- Produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioa
- Material eta ekipo elektrikoen fabrikazioa
- Beste ezein lekutan sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa
- Ibilgailu motordunen, atoien eta erdi-atoien fabrikazioa
- Bestelako garraio-materialen fabrikazioa
- Altzarien fabrikazioa eta beste manufaktura-industria batzuk
- Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa

Euskal Herriari dagokionez, 2021eko datu-basean aipatutako 19 sektore horietatik 13 sektoreren inguruko informazioa dago eskuragarri. Honako sektore hauen inguruko informazioa ez dago eskuragarri: ehungintza, jantzigintza eta larrugintza, zuraren eta kortxoaren industria, altzariak, saskigintza eta espartzugintza izan ezik, arte grafikoak eta euskarri grabatuen erreprodukzioa, koke-fabrikak eta petrolio-finketa farmazia-produktuen fabrikazioa; eta produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioa; Sektore horietan 5 enpresa kolaboratzaile baino gutxiago daudenez, datuak ez daude eskuragarri estatistika-sekretua dela-eta). 2020an 14 sektoreren gaineko informazioa zegoen eskuragarri; ez zegoen daturik hauen gainean: ehungintza, jantzigintza eta larrugintza; arte grafikoak eta euskarri grabatuen erreprodukzioa; koke-fabrikak eta petrolio-finketa; farmazia-produktuen fabrikazioa; eta produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioa. Hala, dagokion urtean eskuragarri dauden sektoreak batuta kalkulatzen da industria-sektore osoaren guztizkoa (bai Euskal Herrian, bai Estatuan).

Azkenik, kontuan izan behar da enpresek beren borondatez ematen dituztela sektore bakoitzaren azterketa egiteko erabiltzen diren datuak. Hori dela eta, ezerk ez du bermatzen datu-baseak denboran zehar irautea, ezta egindako azterketak sektorean inferentziaren bat egiteko balio estatistikoa duenik ere.

## Ratioen piramidea[1]

*Abiapuntuko datuak: balantzea eta emaitzen kontua*

Piramidea egiteko abiapuntuko informazio gisa, oinarrizko kontabilitate-egoerak erabili ditugu: emaitzen kontua eta balantzea. Informazio hori oso modu sinplean azaldu dugu. Izan ere, aztertutako sektoreen inguruko ikuspegi orokorra eskaintzea da helburua. Azterketa sakonagoa egin ahal izateko eta ondorio sakonagoa ateratzeko, gehiago xehatutako informazioa behar da, eta edukietan aberatsagoa dena.

Emaitzen kontuari dagokionez, honako taula honetan ageri den egitura erabiliko dugu:

| | | |
|---|---|---|
| + | Ustiapeneko ohiko diru-sarrerak | V |
| - | Kostu aldakor operatiboak, ordainketarekin | CV |
| - | Kostu finko operatiboak, ordainketarekin | CF |
| - | Amortizazioak (eta, oro har, ordainketarik gabeko kostu operatiboak) | AM |
| - | Interesak | I |
| ± | Ezohiko emaitzak | RE |
| - | Sozietateen gaineko zerga | IS |
| = | Mozkin garbia | BN |

Balantzearen pasiboari dagokionez, kostu esplizitua duten kanpoko funtsak eta ondare garbia bereiziko ditugu (2007 KPO kontabilitate-plan berriaren arabera). Aktiboari dagokionez, berriz, aktibo finkoa (aktibo ez-korrontea) eta aktibo zirkulatzaile garbia (aktibo korronte garbia) hartuko ditugu kontuan. Aktibo zirkulatzaile garbia kalkulatzeko, aktibo zirkulatzaileari kentzen zaizkio berezko pasiboak (negozioaren jardunak berak sortutako pasiboak, hala nola administrazioarekin amortizatzeko geratzen diren saldoak) eta kostu inplizitua duten pasiboak (hala nola hornitzaileekin amortizatzeko geratzen diren saldoak; saldo horien kostua ordainketa bizkorragatiko deskontu gisa kalkula liteke finantzaketari uko eginez gero). Honako taula honetan ikus daiteke hori guztia:

<table>
<tr><td>AKTIBO ZIRKULATZAILE GARBIA</td><td>EPE LABURREKO KANPOKO FUNTSAK KOSTU ESPLIZITUAREKIN</td></tr>
<tr><td rowspan="2">AKTIBO FINKOA</td><td>EPE LUZEKO KANPOKO FUNTSAK</td></tr>
<tr><td>ONDARE GARBIA</td></tr>
</table>

[1] Gómez-Bezares, F., J. A. Madariaga eta Javier Santibáñez (1999): "Algunas reflexiones y novedades acerca de la pirámide de ratios", *Boletín de Estudios Económicos*, 167.zenbakia, 1999ko abuztua; 329-359 orrialdeak.

Proposatutako ratioen piramidea aurkeztu aurretik, kontzeptu interesgarri batzuk azalduko ditugu.

*Leverage operatiboa*

Mozkin operatiboaren (finantza-kostuak eta zergak kontuan hartu gabe) eta "saldutako euro bakoitzeko marjina gordinaren" arteko erlazioa jasotzen du. Erabiliko den formulaziora iristeko, nomenklatura gehigarri batzuk behar dira:

MB = Marjina gordina. Ohiko diru-sarreren eta kostu aldakorren arteko diferentzia (amortizazioa kostu finkotzat hartuko dugu):

$$MB = V - CV$$

MBP = Saldutako euro bakoitzeko marjina gordina. Marjina gordinaren eta salmenten zifraren arteko zatidura. Saldutako euro bakoitzak uzten duen marjina adierazten du, kostu aldakorrak soilik ordaindu ondoren:

$$MBP = \frac{MB}{V}$$

BAII = Interesen eta zergen aurreko mozkina. Ohiko diru-sarreren eta kostu operatiboen (aldakorrak eta finkoak, ordainketarekin eta ordainketarik gabe) diferentzia konparatzearen emaitza da:

$$BAII = V - CV - CF - AM = MB - (CF + AM)$$

VPM = Itopuntuko salmentak. Kostu operatiboak (aldakorrak eta finkoak, ordainketarekin eta ordainketarik gabe) estaltzeko beharrezkoa den salmenta-zifra da, eta bat dator BAII = 0 egiten duen salmenta kantitatearekin. Kostu aldakorrak salmentekiko linealak direla pentsatuz gero (MBP salmenta-mailarekiko independentea izanik), honako hau dugu:

$$BAII = 0 = MB - (CF + AM)$$

$$MB = (CF + AM)$$

$$\frac{MB}{V} \cdot V = MBP \cdot V = (CF + AM)$$

$$V = VPM = \frac{CF + AM}{MBP}$$

Eta, era horretan, leverage operatiboaren formulaziora iritsiko ginateke:

$$BAII = MB - (CF + AM) = \frac{MB}{V} \cdot V - MBP \cdot VPM = MBP \cdot V - MBP \cdot VPM$$

$$BAII = MBP \cdot (V - VPM)$$

Hortaz, saldutako euro bakoitzeko marjina gordina handitzea lortzen bada (kostu finkoak konstante mantenduz), interesen eta zergen aurreko mozkina handitzea lortzen da (apalankamendu-efektua).

*Leverage finantzarioa*

Funts Propioetan inbertitutako euro bakoitzeko errentagarritasunaren, aktiboaren errendimenduaren, kanpoko funtsen kostuaren eta zorpetzearen arteko erlazioa neurtzen du. Formulazio matematikoa lortzeko, kontzeptu batzuk definitu behar dira:

t = Zerga-tasa

BAIdI = Interesen aurreko eta zergen ondorengo mozkina.

$$BAIdI = BAII \cdot (1-t) = (V - CV - CF - AM) \cdot (1-t)$$

Bestalde, ekitaldian ezohiko emaitzarik ez dagoela aintzat hartuta[1], BAIdI-i zergen interes garbiak kenduz lortzen da mozkin garbia:

$$BN = BAIdI - I \cdot (1-t)$$

Jarraian, leverage finantzarioaren formulazioan agertuko diren hiru ratio definituko ditugu:

r = Errendimendu operatiboa. Aktiboan inbertitutako euro bakoitzeko lortutako errentagarritasun garbia da, nola finantzatzen den kontuan hartu gabe. Kontuan hartu behar da aktiboaren zenbatekoa bat datorrela aktibo zirkulatzaile garbiaren eta aktibo finkoaren baturarekin:

$$r = \frac{BAIdI}{ACN + AF}$$

i = Kanpoko finantzaketaren kostu garbia, kostu esplizituarekin. Kanpoko funtsen hornitzaileek eskatutako errendimendua da, dagozkion interesen ordainketak sozietateen gaineko zergan eragiten duen zerga-aurrezkia kenduta:

$$i = \frac{I(1-t)}{FACP + FALP} = \frac{I(1-t)}{FA}$$ [2]

[1] Aurrerago jorratuko dugu ezohiko emaitzek sorrarazten duten arazoa.

[2] FA izena erabiliko dugu FACP eta FALPen batura laburtzeko. Nolanahi ere, gogoratu FACPk kostu esplizitudun epe laburreko kanpoko funtsei egiten diela erreferentzia, eta ez epe laburreko kanpoko funts guztiei.

e = Ondare garbian inbertitutako euro bakoitzeko lortutako errendimendu ekonomikoa.

$$e = \frac{BN}{PN}$$

Aurrekoa abiapuntutzat hartuta, leverage finantzarioaren formulazioa osa daiteke. Hona hemen adierazpena:

$$e = r + (r - i)\frac{FACP + FALP}{PN} = r + (r - i)\frac{FA}{PN}$$

e = Errendimendu operatiboa + Leverage finantzarioa

Ondorengo taulan, sektore bakoitzerako aplikazio praktikoan erabiliko dugun ratioen oinarrizko piramidea ikus daiteke.



Goi-erpinean, ondare garbian inbertitutako euro bakoitzeko errentagarritasuna ageri da, eta aktiboaren errendimenduaren eta leverage finantzarioaren batura gisa deskonposatuta dago. Ondoren, batugai horiek nola osatzen diren azaltzen du adar bakoitzak. Ikus daitekeenez, aktiboa eta pasiboa, hots, inbertsioa eta finantzaketa bereizten ditu piramideak. Azken batean, "r" ratioak aktiboaren errendimendua neurtzen du, finantzatzeko modua edo finantza-egitura kontuan hartu gabe. Eskuineko adarrak, berriz, leverage finantzarioaren bidez finantzaketak ondare garbian inbertitutako euro bakoitzeko errendimenduari egiten dion ekarpena kalkulatzen du.

Beste kontu bat ere aipatu beharra dago: piramidearen analisian ezohiko emaitzak nola tratatuko ditugun. Normalean, emaitza horiek errepikatzen diren ala ez aztertzen da enpresetan aplikatutako analisian. Emaitzak errepikakorrak eta, beraz, aurreikusteko modukoak badira, piramidearen "r" mailan txerta daitezke, aktiboaren errendimendu bakarra kalkulatuta edo bi kalkulatuta: ohiko errendimendua eta ezohiko errendimendua.

Dena den, emaitzak errepikakorrak diren ala ez zehazteko ezintasunaren aurrean, sektorekako azterketa egiteko garaian, atal honen amaieran jasotako irudian agertzen den soluzioa erabiliko dugu sektore bakoitzerako. Hau da, "e" mailan txertatuko ditugu, eta ondare garbian inbertitutako euro bakoitzeko hiru errentagarritasun mota bereiziko ditugu: ohikoa –e1–, berezko ezohikoa –e2– eta zerga-eraginari lotutako ezohikoa –e3–. Arrazoi sendo bat dugu azken adar hori erabiltzeko: zerga sektorialen (T) zifren agregatuak e1 ratioa distortsiona dezake. Sektorearen berezko negozioari lotutako errentagarritasuna jasotzen du e1 ratioak. Horregatik, % 28,5eko batez besteko zerga-tasa komuna ezarri diegu sektore guztiei, eta tasa horrekiko diferentziak e3 adarrera eraman ditugu.

Kapituluaren amaieran, aztertutako industria-sektore guztietako ratioen piramideak erantsi ditugu, Euskal Herrikoak zein Estatu osokoak, 2020. eta 2021. urteei dagozkienak. Dena den, eraginkortasun-arrazoiak direla-eta, piramideko ratiorik garrantzitsuenak baino ez ditugu aukeratu hurrengo atalean azalduko dugun ekonomia- eta finantza-azterketa sektoriala egiteko.

Zehazki, ondare garbiaren errentagarritasun-ratioak (e) hautatu ditugu Euskal Herriko industria-sektoreen analisirako, ohikoak (e1) zein ezohikoak (e2 eta e3). Ondoren, ondare garbiaren ohiko errentagarritasunaren osagaien azterketa xehea egin dugu, hau da, aktibo garbiaren errentagarritasunarena (r, eta haren osagaiak: BAIdI/V eta V/(AF+ACN)) eta leverage finantzarioarena ((r-i) x (FA/PN)) eta haren osagaiena: (r-i) eta FA/PN). Azkenik, Euskal Herriko eta Estatuko industria-sektoreen arteko alderaketa egiteko, ondare garbiaren ohiko errentagarritasuna (e1) eta horren osagaiak hartu ditugu kontuan: aktibo garbiaren errentagarritasuna (r) eta leverage finantzarioa ((r-i) x (FA/PN)).


e
e3
+
e1
+
e2
T(t=0,285)-T(t efectivo)
÷
PN
REdI
÷
PN
RE
x
(1-t)
r
+
$(r-i)\frac{FA}{PN}$
$\frac{BAIdI}{V}$
x
$\frac{V}{AF+ACN}$
(r-i)
x
$\frac{FA}{PN}$
BAIdI
÷
V
÷
AF+ACN
r
-
i
FA
÷
PN
(I-t)
x
BAII
I(I-t)
÷
FA
V-VPM
x
MBP
I
x
(1-t)
V
-
VPM
CF+AM
÷
MBP
MB
÷
V
V
-
CV

### Funtsen iturrien eta erabileren egoera[1]

Analisirako bigarren tresna, alderdi finantzarioan oinarritzen da. Hau da, funtsen kutxa edo fluxuak hartzen ditu kontuan, ratioen piramideak ez bezala. Ratioen piramideak mozkinean oinarritutako azterketa ekonomikoa egiten du. Ondorengo taulan, funtsen iturri eta erabileren egoeraren aurkezpen orokorra ageri da. Ikus daitekeenez, funtsen iturri eta erabileren egoera hiru kontzepturen kalkuluan oinarrituta dago:

- TINV: t urteko Inbertsio Diruzaintza, sektoreko aktiboak liberatzen duen euro kopuruarekin bat datorrena –haren premiei erantzun ondoren, eta nola finantzatzen den kontuan hartu gabe–. "Free cash-flow" izen anglosaxoiaz ezagunagoa da. Erraz kalkulatzen da: ohiko eragiketetan (GFO) sortutako euroei ezohiko eragiketetan (GFE) sortutakoak gehitu behar zaizkie, eta, ondoren, aktibo zirkulatzaile garbian eta ibilgetuan egindako inbertsioak kendu.
- TFA: t urteko Kanpoko Funtsen Diruzaintza, sektorearen eta kanpoko funtsen hornitzaileen arteko erlazioaren ondorioz sortzen diren funtsen sarrera eta irteeren arteko diferentzia adierazten duena.
- TPN: t urteko Ondare Garbiaren Diruzaintza; aurrekoaren kontzeptu berdina da, baina ondare garbiari aplikatua.

Hiru kontzeptuen baturak –urte jakin baterako– zero izan behar du. Azken batean, aktiboak euroak liberatzen baditu (TINV>0), kanpoko funtsen eta/edo ondare garbiaren hornitzaileek eraman dutelako da. Aktiboak bere kabuz bere premiei erantzuterik izan ez badu, kanpoko funtsen eta/edo ondare garbiaren hornitzaileek dagokien diru kopurua jarri beharko dute. Laburtuz, balioa zero izateak finantza-egoera orekatua dela esan nahi du, baina inola ere ez du esan nahi sektorea osasuntsu dagoenik.

Jarduera-sektoreetarako proposatutako eskema orokorra aplikatzeko garaian, kontuan hartu behar da ratioen piramidean zerga agregatuen zifrak nola tratatu diren. Hala, % 28,5eko tasa orokorra ezarriko dugu, eta jasandakoarekiko diferentziak aldi horretan izandako funtsen ezohiko sorkuntzara (GFE) eramango ditugu. Aipatzekoa da, halaber, TPNa diferentziaren bidez kalkulatzen dela, abiapuntuko informazioak ez baitu aukerarik ematen beste era batera egiteko.

[1] Gómez-Bezares, F., J. A. Madariaga eta Javier Santibáñez (2002): "El estado de fuentes y empleos de fondos: una herramienta imprescindible en el análisis financiero", *Harvard – Deusto Finanzas & Contabilidad*, 49. zk., iraila-urria, 2002, 18-28 or.

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | $+ V_t$ | Ohiko salmentak |
| | | $- C_t$ | Kostu operatiboak, ordainketarekin |
| | | $- AM_t$ | Amortizazioa |
| | | $= BAII_t$ | Interesen eta zergen aurreko mozkina |
| | | $* (1-t)$ | Zerga-eragina (t = zerga-tasa = 0,285) |
| | | $= BAIdI_t$ | Interesen aurreko eta zergen ondorengo mozkina |
| | | $+ AM_t$ | Amortizazioa |
| | | $- IF_t$ | Alegiazko diru-sarrerak (ustiapenen + ibilget. lanen dirulaguntzak) |
| | $+ GFO_t$ | | Funts operatiboak sortzea |
| | | $+ RE_t$ | Ezohiko emaitzak |
| | | $* (1-t)$ | Zerga-eragina (t = 0,285) |
| | | $= REdI_t$ | Ezohiko emaitzak, zergen ondoren |
| | | $+EF_t$ | Zerga-ondorioa: (0,285 – t efektiboa) * Zergen aurreko mozkina |
| | $+ GFE_t$ | | Ezohiko funtsak sortzea |
| | | $+ ACN_{t-1}$ | Hasierako aktibo zirkulatzaile garbia |
| | | $- ACN_t$ | Amaierako aktibo zirkulatzaile garbia |
| | $- \Delta ACN_t$ | | Aktibo zirkulatzaile garbia areagotzea |
| | $- INV_t$ | | Aktibo finkoan inbertitzea (Δ AF garbia +AM- Ibilget. lanak) |
| $+ TINV_t$ | | | Diruzaintzaren fluxua, inbertsio-erabakiak |
| | $+ EFA_t - AFA_t$ | | Jaulkipena den kanpoko funtsen amortizazioa, kostuarekin |
| | | $+ I_t$ | Kanpoko funtsen interesak |
| | | $* (1-t)$ | Zerga-eragina (t = 0,285) |
| | $- (1-t) * I_t$ | | Funtsak kentzea, interesengatik |
| $+ TFA_t$ | | | Diruzaintzaren fluxua, finantzaketa-erabakiak kanpoko funtsekin |
| $+ TPN_t$ | | | Diruzaintzaren fluxua, finantzaketa-erabakiak ondare garbiarekin (Δ PN-BN + ustiap. dirulaguntzak) |
| = 0 | | | = 0 |

Bestalde, aurrez aipatu dugun moduan, sektore baten inguruko informazioa ematen duen enpresen laginak ez du zertan denboran zehar berbera izan behar. Hortaz, urte ezberdinetarako multzo homogeneo bat eratze aldera, sektore bakoitzeko funtsen iturrien era erabileren batez besteko egoera azalduko dugu. Batezbestekoa kalkulatzeko, kontzeptu bakoitzaren eta lagina osatzen duten enpresa kopuruaren arteko zatiketa egin dugu

Kasu honetan ere, kapituluaren amaieran, aztertutako industria-sektore guztietako funtsen iturrien era erabileren egoerak erantsi ditugu, Euskal Herrikoak zein Estatu osokoak, 2020. eta 2021. urteei dagozkienak. Dena den, funtsen iturrien eta erabileren egoeraren analisi sektorialari eskainitako azken atalean, eraginkortasun-arrazoiengatik, baliorik esanguratsuenak baino ez ditugu kontuan hartu: TINV, TFA eta TPN.

**119. koadroa Espainiako Bankuko Balantzeen Zentraleko enpresa laguntzaileen kopurua**

| SEKTOREA | Euskal Herria 2021 | Estatua 2021 |
|---|---|---|
| Nekazaritzako elikagaiak | 32 | 517 |
| Papera | 6 | 85 |
| Kimika | 12 | 204 |
| Kautxo eta plastikoa | 11 | 138 |
| Beste produktu mineral ez-metaliko batzuk | 5 | 110 |
| Metalurgia | 21 | 88 |
| Produktu metalikoak | 49 | 310 |
| Material eta ekipo elektrikoa | 8 | 62 |
| Beste makineria eta ekipo batzuk | 19 | 214 |
| Ibilgailu motordunak | 17 | 105 |
| Beste garraio-material batzuk | 5 | 36 |
| Altzarien fabrikazioa | 6 | 130 |
| Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa | 8 | 104 |
| **Industria, guztira** | **199** | **2.103** |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.*

## 11.3 RATIOEN PIRAMIDEA

2021ko ekitaldiaren gainean eskuragarri dauden azken datuen arabera, eta ondare garbiaren errentagarritasunari (e) dagokionez, Euskal Herriko industria-sektoreen artean dauden alde hauek nabarmendu behar dira:

- 2021ean honako sektore hauek izan zuten ondare garbiaren errentagarritasunik handiena: metalurgia (% 17,9), altzarien fabrikazioa (% 17,6), makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (% 15,1) eta kimika (% 10,1).
- Sektore hauetako ondare garbiaren errentagarritasuna ere industriako batezbestekoa (% 4,5) baino altuagoa izan zen baina ez aurrekoena bezain altua: de produktu metalikoak (% 8,1), ibilgailu motordunak (% 6,8), papera (% 6,0), makinaria eta ekipoa (% 5,9), beste garraio-material batzuk (% 5,8) eta kautxoa eta plastikoa (% 4,8).
- Azkenik, gainerako sektoreen ondare garbiaren errentagarritasuna batezbestekoa baino baxuagoa izan zen: beste produktu mineral ez-metaliko batzuk (% 0,5), nekazaritzako elikagaiak (-% 3,9), eta material eta ekipo elektrikoak (-% 16,1).

Bestalde, Ondare garbiaren errentagarritasun horren analisia eginez gero, ohikoa (e1), berezko ezohikoa (e2) eta zerga-eraginari lotutako ezohikoa (e3) bereizita, 2021 ekitaldiko honako alderdi hauek azpimarra daitezke:

- Espero zitekeen bezala, ondare garbiaren errentagarritasuna, batez ere, ohiko errentagarritasunean (e1) oinarritzen da. Ezohikoek (e2 eta e3), berriz, osagarri gisa jokatzen dute.
- Batetik, aipatzekoa da honako sektoreek ondare garbiaren ohiko errentagarritasun (e1) maila positiboa eskuratu zutela: makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (% 17,3), altzarien fabrikazioa (% 16,7) eta metalurgia (% 11,0), sektore horiek industriaren batezbestekotik (% 5,4) gora geratu ziren, modu argian. Bestetik, material eta ekipamendu elektrikoen sektoreak (-% 5,1) maila negatiboa eskuratu zuen, industriaren batezbestekotik oso urrun.
- Ondare garbiaren ezohiko errentagarritasunari (e2) dagokionez, sektore hauek eskuratutako errentagarritasun maila baxua nabarmentzen da beste produktu mineral ez-metaliko batzuk (-6,2%), material eta ekipo elektrikoa (-% 6,1), eta nekazaritzako elikagaiak (-% 5,3), sektore horiek industriaren batezbestekotik (-% 1,8) behera geratu ziren. Beste aldean kokatu zen metalurgia; haren errentagarritasuna nabarmendu egin zen, sektore guztien artean positibo bakarra izan zelako, % 4,8koa.
- Azkenik, nabarmentzekoa da sektore gehienek zerga-eraginari lotutako ondare garbiaren ezohiko errentagarritasun (e3) altua lortu zutela, batezbestekoa (% 0,8) baino askoz handiagoa: altzarien fabrikazioa (% 4,5), papera (% 3,4), makineria eta ekipoak (% 3,3), metalurgia (% 2,1), beste garraio-material batzuk (% 1,9), makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (% 1,4) eta kimika (% 1,1).

**120. koadroa** **Ondare garbiaren errentagarritasuna Euskal Herriko industria-sektoreetan**

| SEKTOREA | e (%) | | e1 (%) | | e2 (%) | | e3 (%) | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 |
| Nekazaritzako elikagaiak | -7,8 | -3,9 | 14,5 | 3,0 | -20,8 | -5,3 | -1,5 | -1,5 |
| Papera | 5,1 | 6,0 | 4,3 | 2,6 | -0,5 | 0,0 | 1,4 | 3,4 |
| Kimika | 7,5 | 10,1 | 6,5 | 9,2 | 0,2 | -0,2 | 0,8 | 1,1 |
| Kautxua eta plastikoa | 16,9 | 4,8 | 13,0 | 5,2 | -0,9 | -1,1 | 4,8 | 0,7 |
| Beste produktu mineral ez-metaliko batzuk | 0,1 | 0,5 | 10,2 | 5,7 | -8,7 | -6,2 | -1,4 | 0,9 |
| Metalurgia | -11,6 | 17,9 | -1,9 | 11,0 | -5,2 | 4,8 | -4,6 | 2,1 |
| Produktu metalikoak | 3,0 | 8,1 | 4,3 | 7,9 | -3,7 | -0,3 | 2,4 | 0,5 |
| Material eta ekipo elektrikoa | -17,7 | -16,1 | -4,4 | -5,1 | -7,5 | -6,1 | -5,9 | -4,9 |
| Beste makineria eta ekipo batzuk | 5,9 | 5,9 | 4,7 | 3,1 | -0,5 | -0,4 | 1,7 | 3,3 |
| Ibilgailu motordunak | 6,1 | 6,8 | 5,9 | 6,8 | -0,4 | -0,3 | 0,6 | 0,3 |
| Beste garraio-material batzuk | -1,7 | 5,8 | 5,8 | 7,3 | -6,4 | -3,4 | -1,1 | 1,9 |
| Altzarien fabrikazioa | 8,6 | 17,6 | 8,2 | 16,7 | -1,5 | -3,6 | 1,9 | 4,5 |
| Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa | 5,5 | 15,1 | 9,1 | 17,3 | -4,3 | -3,5 | 7,0 | 1,4 |
| **Industria, guztira** | 0,4 | 4,5 | 5,3 | 5,4 | -4,7 | -1,8 | -0,3 | 0,8 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.*

Ondare garbiaren errentagarritasuna (e) aztertu ondoren (ohikoa –e1– zein ezohikoa –e2 eta e3–), ondare garbiaren ohiko errentagarritasunaren (e1) osagaien analisi zehatzagoa egingo dugu: aktibo garbiaren errentagarritasuna (r) eta leverage finantzarioa ((r-i) x (FA/PN)).

**121. koadroa Aktibo garbiaren errentagarritasuna Euskal Herriko industria-sektoreetan**

| SEKTOREA | r (%) | | BAIdI / V (%) | | V / (AF + ACN) | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 |
| Nekazaritzako elikagaiak | 5,5 | 2,2 | 4,9 | 1,6 | 1,137 | 1,339 |
| Papera | 2,8 | 1,9 | 3,0 | 1,6 | 0,912 | 1,218 |
| Kimika | 5,6 | 8,0 | 5,7 | 5,4 | 0,974 | 1,497 |
| Kautxua eta plastikoa | 9,1 | 3,1 | 9,6 | 1,9 | 0,941 | 1,625 |
| Beste produktu mineral ez-metaliko batzuk | 7,3 | 3,9 | 16,1 | 7,8 | 0,453 | 0,498 |
| Metalurgia | 0,1 | 6,8 | 0,1 | 3,7 | 1,708 | 1,862 |
| Produktu metalikoak | 3,3 | 5,8 | 4,0 | 5,5 | 0,807 | 1,061 |
| Material eta ekipo elektrikoa | -0,5 | -0,3 | -0,9 | -0,6 | 0,586 | 0,544 |
| Beste makineria eta ekipo batzuk | 4,0 | 3,2 | 3,4 | 2,5 | 1,164 | 1,258 |
| Ibilgailu motordunak | 5,0 | 5,3 | 1,6 | 2,2 | 3,218 | 2,373 |
| Beste garraio-material batzuk | 3,6 | 4,1 | 4,4 | 4,7 | 0,815 | 0,877 |
| Altzarien fabrikazioa | 5,8 | 12,5 | 4,1 | 8,0 | 1,411 | 1,568 |
| Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa | 5,9 | 10,7 | 3,9 | 4,1 | 1,523 | 2,615 |
| **Industria, guztira** | **3,6** | **3,5** | **3,2** | **3,0** | **1,121** | **1,176** |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.*

Lehenik eta behin, aktibo garbiaren errentagarritasunari (r) dagokionez, Euskal Herrian 2021en aztertutako industria-sektoreei buruzko alderdi hauek aipatu behar dira:

- Orokorrean, 2021en ere funts propioen errentagarritasunaren osagai nagusia aktibo garbiaren errentagarritasuna izaten jarraitu zuen. Izan ere, leverage finantzarioaren garrantzia txikiagoa da (aurrerago sakonago aztertuko dugu hori).
- 2021en honako sektore hauek izan zuten aktibo garbiaren errentagarritasunik handiena: altzarien fabrikazioa (% 12,5) eta makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (% 10,7). Bost sektore kokatu ziren batez besteko aktibo garbiaren errentagarritasunetik (% 3,5) behera: beste makinaria eta equipo batzk (% 3,2), kautxua eta plastikoa (% 3,1), nekazaritzako elikagaiak (% 2,2), papera (% 1,9), eta material eta ekipo elektrikoa (- % 0,3).
- Aktibo garbiaren errentagarritasuna osatzen duten elementuei dagokienez, BDIdI/V ratioa (irabaziaren pisua interesen aurretik eta zergen ondoren, ustiapeneko ohiko diru-sarreren gainean) aztertuko dugu lehenik eta behin. Hala, sektore hauek eskuratutako maila altua nabarmendu behar da: altzarien fabrikazioa (% 8,0) eta beste produktu mineral ez-metaliko batzuk (% 7,8), batezbestekotik (% 3,0) oso gora. Aitzitik, batezbestekotik oso behera kokatu ziren makinaria eta ekipoak (% 2,5), ibilgailu motordunak (% 2,2), Kautxua eta plastikoa (% 1,9), Nekazaritzako elikagaiak eta papera (% 1,6), eta Material eta ekipo elektrikoa (-% 0,6).



LABORAL kutxa

- Azkenik, Ustiapeneko ohiko diru-sarreren eta aktibo garbiaren arteko erlazioa neurtzen duen V/(AF+ACN) ratioari dagokionez, nabarmentzekoa da honako sektore hauek lortu zuten maila altua makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (2,615), ibilgailu motordunak (2,373) eta metalurgia (1,862). Sektore guzti hauek, batezbestekoaren (1,176) gainetik kokatu ziren. Beste muturrean sektore gehienak kokatu ziren. Horien artean material eta ekipamendu elektrikoa (0,544) eta beste produktu mineral ez-metaliko batzuk (0,498).

**122. koadroa Leverage finantzarioa Euskal Herriko industria-sektoreetan**

| SEKTOREA | (r - i) x (FA / PN) (%) | | (r - i) | | FA / PN (%) | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 |
| Nekazaritzako elikagaiak | 9,0 | 0,9 | 0,037 | 0,007 | 240,1 | 127,9 |
| Papera | 1,5 | 0,7 | 0,017 | 0,008 | 86,4 | 83,7 |
| Kimika | 0,9 | 1,1 | 0,047 | 0,067 | 18,8 | 17,0 |
| Kautxua eta plastikoa | 4,0 | 2,1 | 0,084 | 0,021 | 47,6 | 99,0 |
| Beste produktu mineral ez-metaliko batzuk | 2,9 | 1,8 | 0,053 | 0,025 | 54,5 | 73,2 |
| Metalurgia | -2,0 | 4,2 | -0,024 | 0,049 | 82,1 | 86,0 |
| Produktu metalikoak | 1,0 | 2,1 | 0,018 | 0,042 | 59,5 | 51,1 |
| Material eta ekipo elektrikoa | -3,8 | -4,8 | -0,016 | -0,013 | 235,0 | 366,0 |
| Beste makineria eta ekipo batzuk | 0,7 | -0,1 | 0,010 | -0,001 | 70,9 | 72,9 |
| Ibilgailu motordunak | 0,9 | 1,5 | 0,037 | 0,040 | 24,8 | 37,0 |
| Beste garraio-material batzuk | 2,2 | 3,1 | 0,017 | 0,021 | 128,1 | 150,7 |
| Altzarien fabrikazioa | 2,4 | 4,2 | 0,044 | 0,107 | 55,2 | 39,0 |
| Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa | 3,3 | 6,6 | 0,043 | 0,089 | 75,6 | 73,4 |
| **Industria, guztira** | **1,7** | **1,9** | **0,018** | **0,018** | **94,2** | **105,0** |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.*

Leverage finantzarioaren analisiari dagokionez ((r - i) x (FA / PN)), 2021. urtean honako alderdi hauek azpimarra daitezke Euskal Herriko industria-sektoreetan:

- Leverage finantzarioak, oro har, pisu txikia du aktibo garbiaren errentagarritasunean, ondare garbiaren errentagarritasuna zehazteko orduan. Testuinguru horretan, nabarmentzekoa da makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (% 6,6) sektorean eskuratu duten maila altua, industria-sektoreko batezbestekoa (% 1,9) baino askoz altuagoa. Batezbesteko mailatik behera, eta balio negatiboarekin, honako sektore hauek aurkitzen dira: makinaria eta ekipoa (-% 0,1), eta, bereziki material eta ekipo elektrikoa (-% 4,8).
- Leverage finantzarioaren osagaiak kontuan izanda, eta aktibo garbiaren errentagarritasunaren eta kostu esplizitua duen kanpoko finantzaketaren kostu garbiaren (r-i) arteko ezberdintasuna aztertuta, azpimarratzekoa da sektore hauek lortutako maila: Altzarien fabrikazioa (0,107) eta Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (0,089), industria-sektoreko batez besteko mailatik (0,018) gora kokatu ziren biak. Aitzitik, batezbestekoaren azpitik eta balio

negatiboekin sektore hauek baino ez ziren kokatu: material eta ekipo elektrikoa (-0,013) eta makinaria eta ekipoak (-0,001).

- Azkenik, zorpetze maila neurtzen duen FA/PN ratioari dagokionez (kanpoko funtsek ondare garbian duten eragina), bereziki, sektore hauek nabarmendu ziren, eskuratutako maila altuagatik: material eta ekipamendu elektrikoak (% 366,0, 2020an erregistratutakoan baino askoz altuagoa, % 235,0) eta beste garraio-material batzuk (%150,7%), baita ere bataz bestekoaren gainetik (% 105,0). Aitzitik, beste muturrean kokatu ziren kimika (% 17,0), altzarien fabrikazioa (% 39,0) eta ibilgailu motordunak (% 37,0), batezbestekoa baino nahiko ratio baxuagoekin. Nolanahi ere, aipatzekoa da sektore gehienak (10) batez besteko zorpetze mailatik behera kokatu zirela.

**123. koadroa Euskal Autonomia Erkidegoko industria-sektoreen eta Estatuaren arteko alderaketa, 2021**

| ALDERDIA | e1 (%) | | r (%) | | (r - i) x (FA / PN) (%) | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Euskal Herria | Estatua | Euskal Herria | Estatua | Euskal Herria | Estatua |
| Nekazaritzako elikagaiak | 3,0 | 8,5 | 2,2 | 5,5 | 0,9 | 3,1 |
| Papera | 2,6 | 4,5 | 1,9 | 3,7 | 0,7 | 0,8 |
| Kimika | 9,2 | 16,2 | 8,0 | 12,0 | 1,1 | 4,1 |
| Kautxua eta plastikoa | 5,2 | 20,1 | 3,1 | 12,2 | 2,1 | 8,0 |
| Metalezkoak ez diren veste produktu mineral batzuk | 5,7 | 5,6 | 3,9 | 4,0 | 1,8 | 1,6 |
| Metalurgia | 11,0 | 8,1 | 6,8 | 5,6 | 4,2 | 2,5 |
| Produktu metalikoak | 7,9 | 11,8 | 5,8 | 8,7 | 2,1 | 3,0 |
| Material eta equipo elektrikoa | -5,1 | 9,1 | -0,3 | 4,4 | -4,8 | 4,8 |
| Makineria eta tresneria b.i.s.g. | 3,1 | 10,9 | 3,2 | 8,0 | -0,1 | 2,9 |
| Ibilgailu motordunak | 6,8 | 4,9 | 5,3 | 3,3 | 1,5 | 1,7 |
| Beste garraio-material batzuk | 7,3 | 11,4 | 4,1 | 3,7 | 3,1 | 7,8 |
| Altzarien fabrikazioa | 16,7 | 9,8 | 12,5 | 7,5 | 4,2 | 2,3 |
| Makineria eta tresneria konpontzea eta instalatzea | 17,3 | 10,9 | 10,7 | 5,6 | 6,6 | 5,3 |
| **Industria, guztira** | **5,4** | **9,3** | **3,5** | **6,0** | **1,9** | **3,3** |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*

Amaitzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko industria-sektoreen egoera ekonomiko-finantzarioaren eta Estatuaren arteko alderaketari dagokionez, honako hauek nabarmendu behar dira:

- Metalurgia, Motordun ibilgailuak, Altzarien fabrikazioa eta Makinen eta ekipoen konponketa eta instalazioa sektoreek, 2021ean, funts propioen errentagarritasun tipikoa (e1) Estatu osokoa baino handiagoa dute, gainerako sektoreekin gertatzen ez den bezala.
- Gauza bera gertatzen da Metalurgia, Motordun ibilgailuak, Beste garraio-material batzuk, Altzarigintza eta Makineria eta ekipoen konponketa eta instalazioa sektoreetarako aktibo garbiaren errentagarritasunaren kasuan (horietan funts propioen errentagarritasun tipikoak Estatu osoko maila gainditzen du). Leverage

finantzarioaren kasuan, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan ere handiagoa da honako sektore hauetan: Beste produktu mineral ez-metaliko batzuk, Metalurgia, Altzarien fabrikazioa, eta Makinen eta ekipoen konponketa eta instalazioa.

**22. grafikoa Ondare garbi tipikoaren errentagarritasuna eta haren osagaiak (aktibo garbiaren errentagarritasuna eta leverage finantzarioa) Euskal Herriko industria-sektoreetan, 2021**




*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*

23. grafikoa Euskal Herriko industria-sektoreetako ondare garbi tipikoaren (e1) errentagarritasunaren alderaketa, Estatu osoarekin alderatuta, 2021




*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*

## 11.4 ITURRIEN EGOERA ETA FUNTSEN ERABILERA

Azterketa egiteko, eskuragarri dauden 2021 ekitaldiko azken datuak izan ditugu kontuan, baita inbertsio-diruzaintza (TINV) ere. Inbertsio diruzaintza bat dator aktiboak liberatzen duen euro kopuruarekin, haren premiei erantzun ondoren eta nola finantzatzen den kontuan hartu gabe (free cash-flow). Hala, desberdintasun esanguratsuak topatu ditugu Euskal Herriko industria-sektoreen artean. Zehazki, aipatzekoak dira alderdi hauek:

- 2021en inbertsio-diruzaintza handiena izan zuen sektorea beste garraio-material batzuk da (69,27 milioi euro enpresako), eta jarraian metalezkoak ez diren beste produktu mineral batzuk (13,24) sektorea, biak industria-sektorearen batezbestekotik (0,86 milioi euro enpresako) gora.
- Batezbestekotik gertuago eta balio positiboetan, honako sektore hauek kokatu ziren: makinaria eta ekipoa (9,29), ibilgailu motordunak (5,99), papera (3,17), produktu metalikoak (1,88) eta nekazaritzako elikagaiak (1,85). N Ez zen gauza bera gertatu material eta equipo elektrikoarekin (-84,14) eta metalurgiarekin (-1,15). Horiek balio negatiboetan kokatu ziren, eta industria-sektoreko batezbestekotik oso behera.

**124. koadroa Iturrien egoera eta funtsen erabilera Euskal Autonomia Erkidegoko industria-sektoreetan**

*(M euro)**

| ALDERDIA | TINV | | TFA | | TPN | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 |
| Nekazaritzarako elikagaiak | -2,99 | 1,85 | 3,09 | -3,25 | -0,10 | 1,40 |
| Papera | 8,92 | 3,17 | -0,69 | -1,57 | -8,23 | -1,60 |
| Kimika | 0,63 | 0,28 | 0,49 | -0,35 | -1,11 | 0,07 |
| Kautxua eta plastikoa | 0,25 | -0,19 | 5,02 | 0,00 | -5,27 | 0,19 |
| Metalezkoak ez diren beste produktu mineral batzuk | 31,69 | 13,24 | -31,58 | -7,34 | -0,12 | -5,90 |
| Metalurgia | 3,21 | -1,15 | -5,88 | 4,26 | 2,67 | -3,11 |
| Produktu metalikoak | -6,10 | 1,88 | 4,11 | -1,42 | 1,99 | -0,46 |
| Material eta equipo elektrikoa | -129,39 | -84,14 | 95,57 | 83,76 | 33,82 | 0,38 |
| Makineria eta tresneria b.i.s.g. | -3,66 | 9,29 | 5,78 | -5,48 | -2,12 | -3,81 |
| Ibilgailu motordunak | -0,30 | 5,99 | -0,73 | -2,50 | 1,03 | -3,50 |
| Beste garraio-material batzuk | -25,46 | 69,27 | 22,09 | -8,10 | 3,37 | -61,17 |
| Altzarien fabrikazioa | 0,30 | 1,08 | 1,48 | -2,12 | -1,77 | 1,04 |
| Makineria eta tresneria konpontzea eta instalatzea | -1,04 | -0,05 | 0,90 | 0,21 | 0,14 | -0,15 |
| **Industria, guztira** | **-6,56** | 0,86 | 5,49 | 1,69 | 1,07 | -2,56 |

*(*): Batez besteko sektorialak.*
*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*

Sektorearen eta kanpoko funtsen hornitzaileen arteko erlazioaren ondorioz sortzen diren funtsen sarrera eta irteeren arteko diferentzia adierazten duen kanpoko funtsen diruzaintzari (TFA) erreparatuz gero, ondorengo hauek aipatu behar dira:

- Material eta ekipamendu elektrikoen (83,76)) eta metalurgia (4,26) sektoreek izan zuten saldo handiena, biak ere industriaren batez besteko saldotik (1,69 milioi euro, enpresako) oso gora. Gainerako sektore gehienak batezbestekotik behera kokatu ziren eta, bereziki, beste garraio-material batzuk (-8,18), beste produktu mineral ez-metaliko batzuk (-7,34) eta material eta ekipoa (-5,48).

Azkenik, sektorearen eta ondare garbiaren hornitzaileen arteko erlazioaren ondoriozko funtsen sarrera eta irteeren arteko diferentzia adierazten duen ondare garbiaren diruzaintzari (TPN) dagokionez, honakoak aipatu behar dira 2021ari buruz:

- Nekazaritzako elikagaien sektoreak izan zuen saldorik altuena, enpresako 1,40 milioi eurokoa. Hala, gainerako sektoreetatik urrun kokatu zen, eta industriaren batezbestekotik (-2,56 milioi euro enpresako) oso gora.
- Nabarmentzekoa da, nekazaritzako elikagaien sektoreaz gain, beste bost sektorek baino ez zutela saldo positiboa izan: altzarien fabrikazioa (1,04), material eta ekipo elektrikoa (0,38), kautxua eta plastikoa (0,19) eta kimika (0,07). Gainerakoek saldo negatiboa izan zuten, eta, bereziki, honakoak nabarmendu ziren: beste garraio-material batzuk (-61,17), metalezkoak ez diren beste produktu mineral batzuk (-5,90), eta Makineria eta tresneria (-3,81).

**125. koadroa Euskal Autonomia Erkidegoko industria-sektoreen eta Estatuaren arteko alderaketa, 2021**

*(M euro)**

| ALDERDIA | TINV | | TFA | | TPN | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Euskal Herria | Estatua | Euskal Herria | Estatua | Euskal Herria | Estatua |
| Nekazaritzarako elikagaiak | 1,85 | 6,61 | -3,25 | 0,11 | 1,40 | -6,72 |
| Papera | 3,17 | 4,18 | -1,57 | -3,18 | -1,60 | -1,00 |
| Kimika | 0,28 | 7,43 | -0,35 | 0,86 | 0,07 | -8,28 |
| Kautxua eta plastikoa | -0,19 | 2,55 | 0,00 | 0,25 | 0,19 | -2,80 |
| Metalezkoak ez diren beste produktu mineral batzuk | 13,24 | 1,43 | -7,34 | 1,33 | -5,90 | -2,77 |
| Metalurgia | -1,15 | -9,52 | 4,26 | 10,34 | -3,11 | -0,82 |
| Produktu metalikoak | 1,88 | 1,79 | -1,42 | -2,21 | -0,46 | 0,42 |
| Material eta ekipo elektrikoa | -84,14 | -4,46 | 83,76 | 12,30 | 0,38 | -7,84 |
| Makineria eta tresneria b.i.s.g. | 9,29 | 2,12 | -5,48 | -0,71 | -3,81 | -1,42 |
| Ibilgailu motordunak | 5,99 | -1,11 | -2,50 | 1,01 | -3,50 | 0,10 |
| Beste garraio-material batzuk | 69,27 | 40,52 | -8,10 | -28,81 | -61,17 | -11,71 |
| Altzarien fabrikazioa | 1,08 | 0,57 | -2,12 | -1,09 | 1,04 | 0,53 |
| Makineria eta tresneria konpontzea eta instalatzea | -0,05 | -1,99 | 0,21 | 2,00 | -0,15 | -0,01 |
| **Industria, guztira** | 0,86 | 3,28 | 1,69 | 0,05 | -2,56 | -3,33 |

*(*): Bataz besteko sektorialak.*
*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*

Azkenik, Euskal Herriko industria-sektoreetako funtsen iturri eta erabileren egoeraren eta Estatukoaren arteko alderaketari dagokionez, honako alderdi hauek aipatu behar dira 2021. urtean:

- 2021en, beste urte batzuetan ez bezala, sektore askok inbertsio-diruzaintza (TINV) negatiboa izan zuten. Sektore hauetan bakarrik izan zen inbertsio-diruzaintza handiagoa Euskal Herrian, Estatuan baino: metalurgia, produktu metalikoak, makinaria eta tresneria, ibilgailu motordunak, beste garraio-material batzuk eta Makineria eta tresneria konpontzea eta instalatzea. Aztertutako gainerako sektoreetan aurkakoa gertatu zen.
- Kanpoko funtsen diruzaintzari (TFA) dagokionez, Euskal Herriko sektore gehienek diruzaintza txikiagoa izan zuten Estatukoek baino. Hala ere, material eta ekipo elektrikoen sektorea nabarmentzen da bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoan besteren funtsen diruzaintza Estatukoa baino askoz handiagoa duelako.
- Azkenik, ondare garbiaren diruzaintzari (TPN) dagokionez, antzeko zerbait pasatu zen, eta sektore gehienek Estatuan baino ondare garbiaren diruzaintza txikiagoa izan zuten Euskal Herrian. Zentzu horretan, kasu honetan nekazaritzako elikagaien, kimikaren, kautxu eta plastikoaren eta material eta ekipamendu elektrikoaren sektoreak nabarmendu behar dira, hauen ondare garbiaren diruzaintza Estatuan erregistratutakoa baino askoz handiagoa baita.

**24. grafikoa** **Iturrien egoera eta funtsen erabilera Euskal Herriko Erkidegoko industria-sektoreetan, 2021**

*(M euro)**




*(*): Sektoreko batez bestekoak.*
*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*

**25. grafikoa** **Euskal Herriko industria-sektoreetako inbertsio-diruzaintzako fluxuaren alderaketa, Estatu osoarekin alderatuta, 2021**

*(M euro)**




*(*): Sektoreko batez bestekoak.*
*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*

**126. koadroa** **Elikagaien, edarien eta tabakoaren industriaren sektoreko ratioen piramidea**




*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*

**127. koadroa Paper-industriaren sektoreko ratio-piramidea**




*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*

### 128. koadroa Industria kimikoaren sektoreko ratioen piramidea




*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*

**129. koadroa Kautxuzko produktuen eta plastikoen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea**




*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*

**130. koadroa Bestelako produktu mineral ez-metalikoen fabrikazioaren sektoreko ratioen piramidea**




*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*



LABORAL kutxa

**131. koadroa Metalurgia sektoreko ratioen piramidea; burdin, altzairu eta ferroaleaziozko produktuen fabrikazioa**




*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*

**132. koadroa** **Produktu metalikoen fabrikazioaren sektoreko ratio-piramidea, makineria eta ekipoa izan ezik**




*Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala. Geuk egina.*
Foru Erkidegoaren kasuan, Estatuarekiko egin daitekeen alderaketa partziala da. Izan ere, metodologia homologagarria duen informazioa atzerapen handiagoz baino ezin da lortu, eta txostenaren mugetatik kanpo geratzen da. Dena den, gobernu autonomikoak beste adierazle batzuk ematen ditu, eta horiek aukera ematen dute joerak norabide berekoak diren ikusteko. Nekazaritza-azpisektoreari eta abeltzaintza-azpisektoreari buruzko kapituluetan, produktuei, prezioei, hedadurei, tona kopuruei eta nekazaritzako makineriari buruzko informazio gehiago emango dugu.

Lehenengo ezberdintasuna honakoa da: Nafarroan BEGak ez zuen okerrera egin; aitzitik, hamarkadako hazkunde portzentualik handiena izan zuen, % 5,2koa. Hala, 3 urtez, 2018 eta 2021 urteen artean, geldi egon ondoren, aipatutako hamarkadaren hasieran baino hazkunde handiagoa izan zuen adierazleak. Dena den, ekonomiaren gainerako eremuak

gehiago hazi dira eta nekazaritzako jarduera ekonomikoen kuota % 2,7koa izan da, 2011z geroztiko baxuena.

Horren guztiaren arrazoia, logikoa den moduan, prezioen igoera da. Kasu askotan, Foru Erkidegoko "Coyuntura Agraria"-ren iazko buletinean ikus zitezkeen igoerekin kateatu dira aurtengo igoerak. Nafarroan, Estatuan baino pisu ekonomiko handiagoa izan zuten zerealek eta bazkek, termino erlatiboetan, eta, hain zuzen ere, kategoria horien balioa asko hazi zen: % 39,1 eta % 33,65, hurrenez hurren. Zerealean kasuan, aurreko urteko igoerari batu zitzaion hazkundea, aurreko urtean % 31,3 hazi baitzen balioa. Bazken kasuan, berriz, lehen aldiz hazi zen balioa neurri horretan. Are igoera ikusgarriagoa izan zuten industria-laboreek, azukre-erremolatxa produktu nagusia izanik: % 37,7 eta % 46,5eko balioaren hazkundeak azken bi urteetan. Gora egiten hasi ziren kategoria izarrak: barazkiak (+% 10,4) eta patatak (+% 10,8). Aldiz, frutak geldi mantendu ziren (+% 3,3) eta, harrigarriki, oszilazio handia izan zuen berriz ere ardoak (-% 14,2), oraingoan beherantz, 2021ean igoera handia izan ostean.

Nekazaritzako BEGen arabera EAEren eta Nafarroaren arteko alderaketa bat eginez gero, bi erkidegoen arteko proportzioak berrezarri egin zirela antzeman daiteke, Covid-19aren zero urtean, 2020an, EAEn balioek behera egin ondoren.

**31. grafikoa** **Balio erantsi gordinaren bilakaera, nekazaritza-sektoreko faktoreen kostura**

*(M euro)*




*Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila (Eusko Jaurlaritza).*

Hori guztia kontuan hartuta, Nafarroan % 25,3 garestitu zen nekazaritza-adarra –Estatuan baino askoz ere gehiago–. Animalia-adarra % 23,2 garestitu zen, hau da, Estatuko hazkundearen antzekoa izan zuen. Baso-produktuak, berriz, % 35,7 garestitu ziren. Hala, adar guztiak kontuan hartuta, igoera +% 24,5ekoa izan zen. Abeltzaintza-

adarraren barruan, % 20 eta % 30 artean garestitu ziren behi-esnea, behi-haragia, txerrikia, hegazti-haragia eta untxi-haragia. Eta oilo-arrautzak are gehiago garestitu ziren, % 33. Indize kateatuak erabilita, ikus daiteke txerrikiaren eta untxi-haragiaren prezioa igo dela gehien azken urteetan, batez beste. Bestetik, hegazti-haragia izan da goranzko joera orokorrera batzen gehien berandutu dena (Estatuan gertatu bezala).

Datu mota hauek erakusten dutenez, landare-produktuen kasuan, azken bi urteetan gora egin dute zerealek eta indartsu suspertu dira industria-laboreak. Beste kategoria batzuk atzean geratu dira igoera orokorreko joerari dagokionez, eta ardoak bestelako bilakaera izan du, oszilazio gehiagorekin.

**Nekazaritzako elikagaien kanpo-merkataritza**

Erreferentziazko urtearen hurrengo urtearen erdialdean Nafarroarentzat eskuragarri dauden beste adierazle batzuk honakoak dira: landare-produktuen, animalia-produktuen eta horiek prozesatzen dituen industriaren kanpo-merkataritzari dagozkienak. Kasu honetan ere, urtea ezohikoa izan zela erakusten duten zantzu batzuk daude. Hala, testuinguruko gorabeherek inpaktua izan zuten Nafarroako nekazaritzako elikagaien inportazioen eta esportazioen arteko balantzaren bilakaeran.

Portaerarik ezohikoena landare-adarrak izan zuen. Esportazioen goranzko bilakaera jarraitua eten egin zen eta inportazioek igoera handia izan zuten, hainbat ekitalditan zehar jaitsiera apalak izan ondoren. Nekazaritzari buruzko kapituluan aipatu dugun moduan, Ukrainako aleen eskaintzak inpaktua izan zuen merkatuetan, eta merkeago saldu behar izan ziren aleak. Animalia-adarraren kasuan, inportazioek zein esportazioek ezohiko hazkundea izan zuten, aurreko urtean bezala. Hala, azpisektore honen merkataritza-balantza positiboa izan zen. Dena den, landare-adarraren eta industria-adarraren superabitak askoz ere handiagoak ziren. Landare-adarraren kasuan, esan dugunaren ondorioz, balantzeak okerrera egin zuen. Industria-adarraren kasuan, ezohiko jaitsierak izan zituen 2021ean, eta aurreko urteetako goranzko joera hartu zuen 2022an berriz ere. Industria-adarrak nekazaritza-adarra gainditu zuen, esportazioei dagokienez, eta alderantzizkoa gertatu zen inportazioen kasuan. Aldiz, abeltzaintza-adarra atzean gelditu zen bi kasuetan.

Nekazaritzako elikagaiek guztizko esportazioen gainean zuten kuotaren eta guztizko inportazioen gainean zuten kuotaren arteko arrakala handitu egin zen. 2020ra arte kuota horiek antzekoak ziren, eta orain ehuneko 4 puntu handiagoa da, gutxi gorabehera, esportazioei dagokiena.

**158. koadroa Nekazaritzako elikagaien kanpo-merkataritza. Euskal Herria**

*(M euro)*

| Muga-zerga atala | Eremua | Esportazioak 2021 | Esportazioak 2022 | Inportazioak 2021 | Inportazioak 2022 |
|---|---|---|---|---|---|
| Animalia biziak eta animalia-erreinuko produktuak | EAE | 244,7 | 357,6 | 434,5 | 395,5 |
| | Nafarroa | 254,1 | 311,5 | 178,2 | 144,2 |
| | Euskal Herria | 498,8 | 669,1 | 612,7 | 539,7 |
| Landare-erreinuko produktuak, gantzak eta olioak | EAE | 411,2 | 658,4 | 530,6 | 620,6 |
| | Nafarroa | 629,3 | 653,7 | 261,2 | 267,3 |
| | Euskal Herria | 1.040,5 | 1.312,1 | 791,8 | 887,9 |
| Elikagaien industrietako produktuak | EAE | 845,8 | 996,5 | 359,9 | 357,8 |
| | Nafarroa | 609,5 | 645,9 | 259,6 | 227,6 |
| | Euskal Herria | 1.455,3 | 1.642,4 | 619,5 | 585,4 |
| Nekazaritzako elikagaien sektorea | EAE | 1.501,7 | 2.012,5 | 1.325,0 | 1.373,9 |
| | Nafarroa | 1.492,9 | 1.611,1 | 699,0 | 639,1 |
| | Euskal Herria | 2.994,6 | 3.623,6 | 2.024,0 | 2.013,0 |
| Nekazaritzako elikagaien sektoreak esportazio-inportazioen guztizkoan duen partaidetzaren % | EAE | 5,8 | 6,2 | 6,6 | 8,7 |
| | Nafarroa | 15,5 | 15,1 | 12,8 | 13,8 |
| | Euskal Herria | 8,4 | 8,4 | 7,9 | 9,8 |

*Iturria: Eustat eta Nafarroako Estatistika Institutua, Aduanen Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.*

EAErako datu baliokideak ere baditugu eskura. Hala, bi lurraldeen balantza bateratua eraiki dezakegu. Arlo honetako datuak, egituraz, ezberdinak izan ohi dira EAEn eta Nafarroan, baina, gainera, 2021ean eta 2022an handitu egin zen bien arteko arrakala. Antzeko portaera izan zuen bakarra abeltzaintza-sektorea izan zen. 2022an, ezohiko hazkundea izan zuten inportazioek zein esportazioek –Nafarroan 2 ekitalditan egin zuten gora datu horiek–.

Nekazaritza-azpisektorean, aitzitik, Nafarroan ezohiko hazkundea izan zuten inportazioek, eta esportazioak geldi mantendu ziren. EAEn, berriz, 2 ekitalditan zehar, askoz ere hazkunde handiagoak izan zituzten inportazioek zein esportazioek. EAEn, gainera, biurteko honetan gauza bera gertatu da industria adarrean, baina neurri txikiagoan. Ezberdintasun txiki bat baino ez zen izan: esportazioak antzeko neurrian hazi ziren industria-adarrean zein landare-adarrean; aldiz, inportazioek hazkunde askoz ere handiagoa izan zuten landare-adarrean, eta askoz txikiagoa industria-adarrean.

EAEko merkataritza-balantzari dagokionez, abeltzaintza-azpisektorearen kasuan adierazleak geldi daramatza ia bost urte, defizitean. Landare-adarraren defizitak ia hamarkada bat darama okerrera egiten, eta industria-adarraren superabitaren hazkunde-erritmoa handitu egin da. EAEko zifrek duten pisua dela eta, Euskal Herri osoko balantzaren deskribapena EAEkoaren antzekoa da. Hala ere, Euskal Herriko balantzaren kasuan, nekazaritzako elikagaien guztizkoaren balantza superabitean dago, eta ez defizitean, Nafarroako balantzaren (superabitean dagoena) ekarpenaren ondorioz.



LABORAL kutxa

## Biztanleria okupatua

Enpleguaren datuek ere urtea ezohikoa izan zela erakusten dute. Dena den, Nafarroaren kasuan aplikatu daiteke hori, eta ez EAEren edo Estatuaren kasuan, hemen aukeratu dugun adierazleari bakarrik erreparatzen badiogu. Biztanleria Aktiboaren Inkestak lehen sektoreari buruz emandako hiruhilekoko datuak dira, zehazki, ekitaldi bakoitzaren erdialdekoak, hau da, bigarren hiruhilekokoak. BAIk Espainiarako emandako datuak bat datoz azken urteetako joerarekin, baina ez da hala gertatzen Nafarroako 2022ko datuarekin. Azken hamarkadetan Nafarroan izandako beheranzko joera orokorra ez da azkartu, baina aurtengo datuaren arabera, badirudi larriagotu egin dela. Inkesta osoan bezala, kontuan izan behar da laginen tamaina dela eta, fidagarritasun handiagoa dutela Estatuko datuek, Nafarroaren gisako lurralde txikiago bateko datuek baino.

**159. koadroa Enplegua lehen sektorean***

*(m pertsona)*

| Urtea | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | EAE | Nafarroa | Euskal Herria | Espainia |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2013 | 4,6 | 7,6 | 3,2 | 15,4 | 15,5 | 30,9 | 753,1 |
| 2014 | 3,0 | 6,2 | 4,4 | 13,6 | 13,4 | 27,0 | 739,3 |
| 2015 | 1,8 | 6,2 | 2,5 | 10,5 | 9,4 | 19,9 | 740,4 |
| 2016 | 3,7 | 5,4 | 1,9 | 11,0 | 9,8 | 20,8 | 760,2 |
| 2017 | 3,8 | 7,7 | 3,8 | 15,3 | 10,1 | 25,4 | 832,6 |
| 2018 | 3,2 | 2,9 | 2,8 | 8,9 | 14,2 | 23,1 | 822,5 |
| 2019 | 3,4 | 4,2 | 3,4 | 11,0 | 12,5 | 23,5 | 809,3 |
| 2020 | 3,6 | 2,2 | 2,6 | 8,4 | 9,6 | 18,0 | 763,4 |
| 2021 | 1,3 | 6,7 | 1,4 | 9,4 | 9,2 | 18,6 | 811,1 |
| 2022 | 2,0 | 6,2 | 2,0 | 10,2 | 6,9 | 17,1 | 789,3 |

*(*): Urte bakoitzeko ekaineko datuak eskaini ditugu, sektoreko enpleguaren urtarokako bilakaera aztertzeko adierazgarriagoak direla uste dugulako.*
*Iturria: EIN. Biztanleria Aktiboaren Inkesta.*

Baina, fidagarritasunaz harago, beste faktore askok ere azaldu dezakete 2022ko ekainean landa eremuko langileen kopuru askoz ere eskasagoa zenbatu izana. Egungo testuinguruan, nekazaritzako kanpaina batzuen egutegia asko aldatu daiteke. Gainera, era askotako gorabeherak gertatzen ari dira, eta horrek askoz ere gehiago eragin diezaioke lurralde txikiago bateko guztizkoari, Espainiaren gisako lurralde handiago bati baino. Izan ere, lurralde handiago batean, ezohiko igoerak eta jaitsierak elkarren artean konpentsatzeko askoz ere aukera gehiago daude.

Langileen erabilera masiboa egiten duten nekazaritzako jardueretako lana, neurri handi batean, aldi baterako kontratazioaren bidez egiten da. Kontratazio horiek hiruhilekoko datuak neurtzen diren datetatik gertu edo urrun egiteak, asko aldatu ditzake datuak. Hortaz, zuhurragoa da datuen epe luzeko bilakaera aztertzea.

Hain zuzen ere, 2022ko hirugarren eta laugarren hiruhilekoetako datuek beheranzko joera erakusten dute, baina 2022ko ekaineko balioa muturrekoa da, nahiko ezohikoa.

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako datuak ohiko tartean kokatu ziren. Urte bakoitzeko ekaineko datuak aztertuta, Arabako eta Gipuzkoako datuak progresiboki behera egiten ari direla ikus daiteke. Dena den, lurralde hauetan ere nahikoa aldatzen da egoera lehenengo bi hiruhilekoetan, datu hobeekin. Estatuko datua ere oso egonkortuta dago duela ekitaldi askotatik.

**32. grafikoa Enpleguaren bilakaera lehen sektorean***

*(m pertsona)*




*(*): Urte bakoitzeko ekaineko datuak eskaini ditugu, sektoreko enpleguaren urtarokako bilakaera aztertzeko adierazgarriagoak direla uste dugulako.*

*Iturria: EIN. Biztanleria Aktiboaren Inkesta.*

## 2. NEKAZARITZA-AZPISEKTOREA

Azpisektore honetan, kostuek eragin handia izan zuten prezioen igoeran, nekazariek zuzenean jasotako prezioetan barne, eta hori izan zen ekitaldiko gertaera nagusia. Era berean, nabarmentzekoa da kategoria gehienetan behera egin zuela ekoizpenak, Nafarroan baino neurri handiagoan EAEn, datuek erakusten dutenez. Estatuan, aldiz, kantitateen adierazle agregatuak ez zuen ia aldakuntzarik izan. Eusko Jaurlaritzaren HAZI erakundeko behatokiaren arabera, urte zaila izan zen erkidegoko nekazarientzat. Izan ere, erkidegoko ustiategiak, batez beste, txikiagoak dira Nafarroakoak baino. Gainera, alterazio meteorologikoek ere eragin handiagoa izan zuten EAEn.

Dena den, nabarmendu beharrekoa da barazkien ekoizpenak egoerari eutsi ziola eta EAEko mahastiek izurriteen arazoa gainditu zutela, aurreko kanpaina zapuztu zuena. Gainerako kategorien kasuan, EAEko datuek erakusten dutenez, tona kopurua asko murriztu zen, eta prezioak asko igo ziren. Nafarroan ere gertatu ziren bi horiek, baina modu apalagoan.

Pandemiaren eta haren murrizketen ondoren, 2022ko otsailean nazioarteko merkatuak asaldatu ziren Ukrainako gerraren ondorioz. Horrek energiari eragin zion, modu zuzenean, eta nekazaritza-sektoreak energia kantitate handiak kontsumitzen ditu. Horrez gain, hornigaiei eta produktu jakin batzuen eskaintzari eta eskariari ere eragin zien. Zerealena izan zen gehien nabarmendu zen kategoria, Errusiak okupatutako lurraldeek zerealen kuota handia baitzuten mundu mailan.

Hori gutxi balitz, gero eta nabarmenagoak dira lehorteak, laboreen urteko kanpaina bakoitzeko fase meteorologikoen distortsioak eta aurretik iragarri ezin diren fenomenoak, hala nola bero-boladak, horren ondoriozko izurriteak edota prezipitazio puntual eta bortitzak. Horiek nabarmenagoak izan ziren 2022an 2021ean baino, eta hainbat eremuri eragin zieten, EAEri eta Nafarroari barne.

Hori guztia gure erkidegoetako nekazarien ohiko arazoei batu behar zaie: merkatuen arteko lehian gero eta aldakorragoak diren joeretara egokitu beharra; elikadura-ohituren eta estrategia komertzialen aldaketak; ustiategien belaunaldi-txanda; langileak eskura izatea; edota teknologia berriak aplikatu beharra, errendimendua hobetzeko, ureztapena optimizatzeko, landareen gaixotasunak prebenitzeko, etab. Berrikuntza eta teknologia funtsezkoak dira arazoen zerrenda luzeari aurre egiteko, bereziki, 2022an larriagotu ziren arazoei.

Produktu gehienen kasuan, merkatuek kostuen igoerak xurgatzen dituzte eta prezioetara pasatzen dituzte. Kasu askotan, babestuta egoten dira prezioak, tokiko ekoizpenaren antolaketa onaren eta kalitateagatiko bereizketaren ondorioz. Dena den, eskaintza gutxi

dagoelako prezioak igotzen direnean eta emaitza oso positiboak lortzen direnean, batzuetan, egoera zapuztu egiten da beste lurralde batzuetatik inportazio merkeagoak sartzen direnean, bereziki, elikagaien industriak sustatuta.

Orokorrean, esan daiteke produktu tradizionalek haien indarra eta espazioa mantendu zituztela. Eta joera berriek, ekoizpen naturalaren eta zero kilometroaren, askotariko dietaren eta tradizio gastronomikoaren edo ekoizpen ekologikoaren aldekoek, mesede egiten diote jasangarritasunari eta horietako gehienen eskariari, nahiz eta denek ez duten hazkunde jarraitua. Elikagaien industriak irteera komertzialak topatzen dituenean, edo prozesatzeko, aurkezteko eta kontsumitzeko formula berritzaileak edo dibertsifikatuak topatzen dituenean, produktu horiek nolabaiteko hazkundea izan ohi dute.

Bestela, hemen aztertutako produktuen zerrendan, oso ohikoa da kantitateen eta prezioen urte arteko aldakuntzak izatea. Aldakuntza horiek oso handiak izaten dira epe laburrean, baina askoz ere txikiagoak epe luzean. Labore bakoitzaren kanpaina bakoitzean faktore askok eragiten dute eta tona kopurua asko aldatzen da. Dena den, askotariko landareak daude eskuragarri, gero eta teknologizatuagoak dauden institutu publikoen edo erdipublikoen laguntzarekin. Horri esker, ekoizleek hainbat estrategia eta txandakatze ezarri ditzakete, esperimentuak egin ditzakete eta produktu batzuk beste batzuez ordezka ditzakete nolabaiteko azkartasunez. Hori ongi ikusten da taulako epe luzeko bilakaeretan.

## 2.1 EKOIZPENAK, AZALERAK ETA ERRENDIMENDUAK

Nafarroako nekazaritzan garrantzia du Erriberako barazkien ekoizpenak. Aurreko urtean gehieneko historikoa lortzeko gai izan zen, ekoitzitako tona kopurua zela eta. Eta hori 2021ean, Covid-19aren pandemiak eragindako antolaketa eta logistika arloko gorabeherek zaildutako urte batean. 2022an, aldiz, ezin izan zen errekorra errepikatu eta ekoitzitako barazkien kopurua apur bat jaitsi zen (-% 2,5), baita erkidegoko nekazaritzari buruzko aldizkari nagusiak haren laginean aztertutako produktuen kategoria guztietan ere, industria-laboreen kasuan izan ezik.

Nafarroako laginak kategorien arabera multzokatzen ditu ekoizpen nagusiak. Haren arabera, tona kopuruak behera egin zuen honako kategoria hauetan: zerealak (-% 11,1), lekaledunak (-% 28,4), tuberkuluak (-% 32,5; gainera, azalera -% 14,9 murriztu zen), bazkak (-% 8), barazkiak (-% 2,5, nahiz eta hektarea kopurua % 12,4 hazi zen), fruta-arbolak (-% 24,7), mahastiak (-% 3,8) eta olibadiak (-% 13,6). Industria-laboreak izan ziren salbuespen bakarrak (+% 31,7 eta azalera +% 23,1), batez ere, azukre-erremolatxa. Hala, kategoria guztiak bateratuta, tona kopurua -% 7,9 jaitsi zen eta hedadura % 0,3 hazi zen.

EAEren kasuan, makromagnitude osoen datuak ditugu eskura (ez taula bateko agregatuak, Foru Erkidegoan bezala). Hala, 2022an honakoa ikus daiteke: nekazaritzako tona kopurua -% 7,7 murriztu zen; zerealak -% 35,6, lekaledunak -% 32,7, patata -% 30,6, erremolatxa -% 18,7, beste industria-labore batzuk +% 14,4, barazkiak +% 1,7, fruta -% 10 eta mahastia +% 8,7. Hortaz, Nafarroarekin alderatuta, zerealak askoz gehiago murriztu ziren, eta erremolatxak eta mahastiek joera ezberdina izan zuten.

**160. koadroa Euskal Herriko nekazaritza-ekoizpen adierazgarrienak***

*(m Tm)*

| Produktua | 2021 | 2022 | % ∆ 22/21 | % Euskal Herria / Espainia 2022 |
|---|---|---|---|---|
| Zerealak | | | | |
| – Garia | 559,6 | 434,2 | -22,4 | 7,1 |
| – Garagarra | 358,7 | 322,5 | -10,1 | 4,8 |
| – Oloa | 90,2 | 64,6 | -28,4 | 8,0 |
| – Artoa | 198,7 | 185,0 | -6,9 | 4,9 |
| Bazka-laboreak | | | | |
| – Artoa | 229,0 | 243,8 | 6,5 | -- |
| – Alpapa | 216,9 | 206,9 | -4,6 | 2,7 |
| Barazkiak | | | | |
| – Zainzuria | 7,3 | 6,9 | -6,0 | 11,3 |
| – Letxuga | 21,0 | 21,8 | 3,7 | 2,3 |
| – Espinaka | 18,8 | 20,1 | 7,0 | 22,6 |
| – Tomatea | 186,1 | 186,4 | 0,1 | 5,1 |
| – Piperra | 34,0 | 39,1 | 15,1 | 2,6 |
| – Orburua | 12,6 | 9,5 | -24,9 | 4,7 |
| – Azalorea | 35,9 | 25,4 | -29,2 | 14,1 |
| – Brokolia | 59,8 | 70,4 | 17,8 | 14,9 |
| – Tipula | 32,5 | 23,8 | -26,7 | 2,1 |
| – Leka | 14,8 | 11,9 | -19,4 | 8,9 |
| – Ilar berdea | 29,4 | 18,3 | -37,6 | 15,7 |
| Fruta-arbolak | | | | |
| – Sagardo-sagarra | 13,2 | 9,0 | -31,5 | 11,6 |
| – Mahai-sagarra | 13,9 | 9,2 | -33,6 | 2,2 |
| – Udarea | 16,0 | 12,9 | -19,5 | 5,2 |
| – Mertxika | 6,3 | 6,4 | 1,3 | 1,1 |
| – Arbendola | 3,7 | 2,7 | -26,5 | 1,4 |
| Ardoa eta muztioa (m Hl) | 1.352,5 | 1.387,5 | 2,6 | 3,8 |
| Patata | 71,3 | 56,7 | -20,4 | 2,9 |
| Azukre-erremolatxa | 117,7 | 117,3 | -0,3 | 8,0 |

*(*): Balioespenak. Iturriak: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa. Coyuntura Agraria-ren buletina. Nafarroako Gobernua. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua*

Azpisektoreko batez besteko prezioen indize orokorra % 19,9koa izan zen, eta garestitze orokortuak izan ziren honako hauetan: zerealak % 39,7, lekaledunak % 10,5, patata % 47,6, erremolatxa % 19,3, beste industria-labore batzuk % 8,6, barazkiak % 20,8, fruta % 16,7 eta mahastiak % 11,6. Hala, balioaren balantzeak honakoak izan ziren: denak batera kontuan hartuta +% 10,7, zerealak -% 9,9, lekaledunak -% 25,6, patata % 2,5, erremolatxa -% 3, beste industria-labore batzuk % 24,2, barazkiak % 22,9, fruta % 5,1 eta mahastiak % 21,3.

Nekazaritzako guztizko ekonomikoaren gaineko kuotarik handiena mahastiek (% 37,2) izan zuten, eta hazkunde orokorraren bi heren inguruko ekarpena egin zuten. Jarraian barazkiak (% 26,8) kokatu ziren, eskuratutako hobekuntzaren beste herenaren erantzuleak. Zerealek % 19,3ko kuota izan zuten, frutak % 6koa, patatak % 3,4koa, beste batzuek % 3,1ekoa, beste industria-labore batzuek % 1,6koa, lekaledunek % 1,6koa eta azukre-erremolatxak % 1,1ekoa. Gutxi gorabehera, Nafarroako taulako kategoria bakoitzarekin aldera ditzakegu datu horiek, eskema oso desberdina izan arren. Nafarroan honako produktu hauek hartzen dira kontuan: bazkak (% 36,1), zerealak (% 34,5), barazkiak (% 20,8), mahastiak (% 4,1), industria-laboreak (% 1,8), fruta-arbolak (% 1,2), olibadiak (% 0,8), tuberkuluak (% 0,4) eta lekaledunak (% 0,2). Hortaz, agerikoa da mahastien pisu erlatiboa askoz ere handiagoa dela EAEko guztikoaren gainean (hedadura txikiagoa izan arren, Arabar Errioxan zentratuta) eta, zerealena, askoz ere handiagoa Nafarroan, batez ere, erdiko eremuan.

Aurreko taulan, bi lurraldeetako tona kopurua bateratu dugu, eta hurrengo taulan azalerak bateratuko ditugu. EAE eta Nafarroako ekoizpenari dagokionez, honako hauek murriztu ziren gehien: oloa, garia, azalorea, orburua, tipula, ilarrak eta lekak, sagarra, udarea, arbendola eta patata. Hazkunderik esanguratsuenak, berriz, herrialdeko barazkirik ugarienetako bik izan zituzten: brokoliak eta piperrak.

**161. koadroa Euskal Herriko produktu esanguratsuenekin landatutako azalera***

*(ha)*

| Produktua | 2021 | 2022 | % ∆ 22/21 | % Euskal Herria / Espainia 2022 |
|---|---|---|---|---|
| Zerealak | | | | |
| – Garia | 108.880 | 104.089 | -4,4 | 4,8 |
| – Garagarra | 84.036 | 81.044 | -3,6 | 3,4 |
| – Oloa | 18.531 | 17.646 | -4,8 | 3,8 |
| – Artoa | 16.828 | 17.529 | 4,2 | 5,5 |
| Bazka-laboreak | | | | |
| – Bazka-artoa | 5.547 | 6.456 | 16,4 | -- |
| – Alpapa | 5.547 | 5.251 | -5,3 | 2,4 |
| Barazkiak | | | | |
| – Zainzuria | 1.840 | 1.723 | -6,4 | 13,4 |
| – Letxuga | 898 | 973 | 8,3 | 3,2 |
| – Espinaka | 886 | 998 | 12,6 | 20,9 |
| – Tomatea | 2.578 | 2.288 | -11,3 | 5,1 |
| – Piperra | 1.079 | 1.129 | 4,6 | 5,1 |
| – Orburua | 938 | 986 | 5,1 | 6,8 |
| – Azalorea | 1.792 | 1.287 | -28,2 | 16,7 |
| – Brokolia | 5.295 | 5.530 | 4,4 | 18,6 |
| – Tipula | 457 | 372 | -18,6 | 1,7 |
| – Leka | 1.371 | 1.233 | -10,1 | 17,0 |
| – Ilar berdea | 3.550 | 3.031 | -14,6 | 17,9 |
| Patata | 1.982 | 1.870 | -5,7 | 2,9 |
| Azukre-erremolatxa | 1.133 | 1.131 | -0,2 | 4,6 |

*(*): Balioespenak. Iturriak: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa. Coyuntura Agraria-ren buletina. Nafarroako Gobernua. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua*

*Oharra: Ez ditugu sartu mahastizaintzaren eta fruta-arbolen azalerei buruzko datuak, horien argitalpenaren nahitaezko maiztasun mugatuagatik (bost urtetik behin).*

Azalerari dagokionez, bi aldakuntza nabarmendu ziren: bazka-artoa landatzeko erabilitako azaleraren hazkundea eta tomateen hedaduraren murrizketa. Bi horien tona kopuruek ez zuten aldakuntza deigarririk izan. Tomateen kasua bereziki esanguratsua da. Izan ere, altuerako garapen handia duten instalazioetan ekoizten den barazkia da, hortaz, oso positiboa da lursailak asko murriztu arren ia ekoizpen maila bera mantendu ahal izatea. Hori lotuta egon daiteke 2021ean eragin zion izurritearekin.

Kasu gehienetan, zenbaketen emaitza askoz ere altuagoa da Nafarroan, produktu batzuen kasuan izan ezik, hala nola patata, sagardo-sagarra edo erremolatxa. Horiek gailenagoak dira EAEn. Ministerioaren estatistikak aukera ematen du Estatuko guztizkoaren gaineko kuotak kalkulatzeko, eta adierazle horretan aipatu ditugun azken biak nabarmentzen dira, baina, batez ere, zainzuriak, azaloreak, brokoliak, ilarrak eta, besteen gainetik, espinakak. Azalerari dagokionez, lekak gehitu behar zaizkie. Horiek denek bi digituko ehuneko kuota dute.

EAEko eta Nafarroako tona kopuru bateratuen epe luzeko azterketa eginez gero, gariaren eta garagarraren jaitsiera handiak nabarmentzen dira; garagarrak ondoz ondoko bigarren urtez egin zuen behera; gariaren kasuan, antzeko jaitsiera izan zuen urte bakar batean,

baina datua ez zen irten azken hamarkadako gorabeheren tartetik, garagarraren kasuan ez bezala. Bazka-artoaren (gora egin zuen aldi horretan) edo alpaparen (etengabe jaisten jarraitzen du, argi eta garbi) portaera ezberdina da. Artoak, dituen kontsumo-erabilera guztiak aztertuta, goranzko joera orokorra du. Lagineko beste produktu batzuen epe luzeko bilakaeraren datuak lauagoak dira. Patatak eta erremolatxak behera egin zuten berriz ere, eta gutxieneko zifrak eskuratu zituzten EAEren eta Nafarroaren datu bateratuetan. Mahastiek, berriz, gora egin zuten apur bat.

Fruta-arbolen kasuan, produkturik ugarienek (udarea eta mahairako sagarra) gorabehera handiak izaten dituzte eta beheranzko joera argia (urte honetan, gehiago). Sagardotarako sagarraren joera ere oso gorabeheratsua da, baina goranzkoa (dena den, 2022an indarrez murriztu zen hau ere). Mertxikak ere jaitsiera handia izan du epe luzean, eta uniformeagoa (baina 2022an gelditu egin zen jaitsiera). Eta arbendolaren bilakaera lauagoa izan da, eta goranzkoa, apur bat bada ere.

Barazkien artean, brokoliak igoera handia izan zuen hamarkadaren lehen zatian, gero behera egin zuen hainbat urtez, eta 2022an suspertu egin zen. Piperrak gora egin du bigarren urtez, eta hamarkadaren hasieran izandako igoera handia hartu du berriz ere. Azaloreak igoera ikusgarria izan zuen orain dela bi urtera arte, eta azken bi urteetan asko jaitsi da. Tipula eta ilar berdea ere asko jaitsi ziren 2022an, lehen urtez. Aitzitik, orburuak eta lekak hainbat ekitalditan egin dute behera; aurretik goranzko fasea izan zuten horiek ere, baina ez aurreko kasuetan bezain ikusgarria.

EAEko eta Nafarroako azalerak bateratuta, nabarmendu beharrekoa da brokoliaren hedadurak hazten jarraitu zuela; ilar berdearen azaleraren hazkundea gelditu egin zen eta asko jaitsi ziren honakoen hedadurak: azalorea, erremolatxa edo garagarra. Produktu gehienen bilakaerak egonkorragoak dira.

Aipatutako iturrietan azaleren eta tona kopuruaren datuak eskura izateak aukera ematen du ratioak kalkulatzeko eta errendimenduaren adierazle gisa interpretatzeko, baita ministerioak emandako Espainiako datuekin alderatzeko ere. Kasu batzuetan, aldeak handiak dira Estatuarekin alderatuta, adibidez, piperraren, oloaren edo erremolatxaren kasuan, eta neurri txikiagoan letxugaren kasuan. Kasu batzuetan, batez ere, lurralde bakoitzean gailentzen den landaketa edo espezie motaren araberakoa da desberdintasuna, adibidez, piperraren kasuan, barietate ugari dituelako. Beste kasu batzuetan, baliteke Euskadiko edo Nafarroako ustiategiak intentsiboagoak izatea eta dedikazio sakonagoa ahalbidetzea, hedadura oso handiak dituzten Estatuko laboreen kasuan baino.

2022an, nabarmentzekoa da EAEn eta Nafarroan gehieneko ratioa eskuratu zutela piperrak eta tomateak, orain arte eskuragarri dauden datuekin alderatuta. Gehienekoa

eskuratzeko bidean ziren beste labore batzuek, berriz, geldialdia izan zuten adierazle honetan, hala nola erremolatxak edo tipulak.

**162. koadroa Nekazaritza-produktu esanguratsuenek lortutako errendimenduak***

*(Tm/ha)*

| Produktua | Euskal Herria | | Espainia | |
|---|---|---|---|---|
| | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 |
| Zerealak | | | | |
| – Garia | 5,1 | 4,2 | 3,9 | 2,8 |
| – Garagarra | 4,3 | 4,0 | 3,5 | 2,8 |
| – Oloa | 4,9 | 3,7 | 2,3 | 1,8 |
| – Artoa | 11,8 | 10,6 | 12,8 | 11,9 |
| Bazka-laboreak | | | | |
| – Bazka-artoa | 41,3 | 37,8 | 37,0 | -- |
| – Alpapa | 39,1 | 39,4 | 38,1 | 34,8 |
| Barazkiak | | | | |
| – Zainzuria | 4,0 | 4,0 | 4,6 | 4,7 |
| – Letxuga | 23,4 | 22,4 | 31,2 | 30,2 |
| – Espinaka | 21,2 | 20,2 | 18,5 | 18,7 |
| – Tomatea | 72,2 | 81,4 | 84,7 | 80,9 |
| – Piperra | 31,5 | 34,6 | 68,3 | 69,4 |
| – Orburua | 13,4 | 9,6 | 14,5 | 13,8 |
| – Azalorea | 20,1 | 19,8 | 23,0 | 23,4 |
| – Brokolia | 11,3 | 12,7 | 16,8 | 15,9 |
| – Tipula | 71,1 | 64,1 | 55,4 | 50,2 |
| – Leka | 10,8 | 9,7 | 18,4 | 18,4 |
| – Ilar berdea | 8,3 | 6,1 | 7,3 | 6,9 |
| Patata | 36,0 | 30,3 | 32,9 | 30,5 |
| Azukre-erremolatxa | 103,9 | 103,8 | 65,8 | 59,0 |

*(*): Balioespenak. Iturriak: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa. Coyuntura Agraria-ren buletina. Nafarroako Gobernua. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua*

## 2.2 NEKAZARITZAKO PREZIOAK

Gaur egun, prezioen adierazleak dira sektoreen kezka ekonomikoaren iturria. Nekazaritza da sektore adierazgarrienetako bat, "erosketa saskia" deritzona aldagai ekonomiko kritikoa delako. Nekazaritzan erabiltzen diren kontsumigarrien prezioek gora egin dute, lehen sektorearen egoera orokorrari buruzko kapituluan xehetasun gehiagoz azaltzen den moduan, eta horren ondorioz, elikagaien prezioek gora egin dute modu orokortuan eta erabat ezohikoa den moduan. Ukrainako gerrak merkatuetan eragindako asaldurak eragin du hori, bereziki, baina aurretik ere baziren hainbat ageriko zantzu, merkatu energetikoen aldaketen harira edo pandemiak mundu mailan eragindako disfuntzio logistikoen harira.

Estatu eta erkidego mailako iturriek prezioen hainbat indize eskaintzen dituzte, baina, produktuz produktu baloratu ahal izateko, Nafarroako “Coyuntura Agraria” buletina da jarraipen zehatzena egiten duen estatistika, hortaz, Foru Erkidegoko merkatuen datua hartu dugu erreferentzia gisa.

2021ean taula honetako zazpi produkturen prezioek izan zuten bilakaera negatiboa, eta 2022an 4k baino ez. Horietako bi ardo motak dira, eta beste biak fruta-arbolak. Gainera, horietako bat gero eta gehiago erabiltzen da edarien industriarako. Honako hauek dira: ardo zuria, ardo beltza, sagarra eta udarea. Dena den, azken horren beheranzko aldakuntza oso txikia da. Fruten portaera berezia izan zen. Izan ere, urtea inflazionista izan arren, udarearen garestitzea gelditu egin zen, sagarraren prezioa behera egiten hasi zen eta mertxikarena, indar handiz hazten ari zena, 2022an ez zen horrenbeste igo. Arbendola oso gutxi garestitu zen, aurreko urteetan gorabehera handiak izan ondoren.

Hortaz, igoeren kasuan, aurreko urtean hasitako igoerekin kateatu ziren 2022ko igoerak, barazki garrantzitsu batzuen kasuan izan ezik. Adibidez, tomatearen, piperraren edo brokoliaren prezioa ez zen oraindik igo 2021ean, baina bai 2022an. Gauza bera gertatu zen sasoi erdiko patatarekin edo lekekin. Ardo beltzaren kasuan, prezioak errebote handia izan zuen. Izan ere, 2021ean asko igo zen, eta 2022an % 19,2 jaitsi zen.

Zerealak eta bazkak askoz ere gehiago garestitu ziren barazkiak edo tuberkuluak baino. Aldiz, fruta-arbolek egonkortasun handiagoa izan zuten, taulako adibideetan ikus daitekeenez. 2022ko adierazgarriena, zalantzarik gabe, zereal guztien garestitzea izan zen. Prezioek gora egin zuten bigarren urtea izan arren, hazkunde-erritmoa hazi egin zen. Gariaren, garagarraren, oloaren eta artoaren prezioak elkarren oso antzekoak izan ziren. Horien bilakaera ia aldi berekoa izan ohi da, eta are berdinagoa izan zen 2022ko agertokian: 30-35 zentimo inguru kilo bakoitzeko. Bazken adierazle gisa, alpapari jarriko diogu arreta. Orain arteko urte arteko hazkunderik handiena izan zuen (eskura ditugun datuak kontuan hartuta), baina ez zen oso goian kokatu, eta joan den hamarkadaren lehen erdian eskuratutako gehienekoen inguruan geratu zen.

Tomatea (% 24,3ko igoera handia) edo piperra izan ziren gehien garestitu ziren barazkietako batzuk. Laginean aztertutako barazkien artean, hainbatek igoerak izan dituzte 4 ekitalditan zehar, gutxi gorabehera. Tona kopuru handieneko barazkiak, brokolia eta tomatea, egonkortuta zeuden aldi horretan prezioari dagokionez, baina 2022an hazkunde txikiak izan zituzten. Antzeko zerbait gertatu zen ilarren, leken edo tipulen kasuan.

Beste produktu batzuek portaera aldakorragoa izan dute aurretik, eta 2022an igoera handia izan zuten: piperra, letxuga edo orburua. Pisuarekiko kotizazio maila altuena duen produktua zainzuria da eta 2022an asko igo zen haren prezioa, baina 2017an eta 2018an eskuratutako prezio askoz altuagoen erdibidean geratu zen.

**163. koadroa Nekazaritza-produktu esanguratsuenen prezioak(*)**

| Produktua | Nekazariek jasotako prezioak (euro/100 kg) | | |
|---|---|---|---|
| | 2021 | 2022 | % ∆ 22/21 |
| Zerealak | | | |
| – Garia | 24,09 | 34,83 | 44,6 |
| – Garagarra | 23,01 | 32,17 | 39,8 |
| – Oloa | 20,81 | 32,03 | 53,9 |
| – Artoa | 25,17 | 31,80 | 26,3 |
| Bazka-laboreak | | | |
| – Alpapa | 12,76 | 16,87 | 32,2 |
| Barazkiak | | | |
| – Zainzuria | 231,91 | 273,01 | 17,7 |
| – Aza (burua) | 28,15 | 31,40 | 11,5 |
| – Letxuga | 69,16 | 73,07 | 5,7 |
| – Espinaka | 63,33 | 65,18 | 2,9 |
| – Tomatea | 12,26 | 15,24 | 24,3 |
| – Piperra | 76,34 | 86,93 | 13,9 |
| – Orburua | 80,20 | 84,57 | 5,4 |
| – Azalorea | 46,00 | 46,60 | 1,3 |
| – Brokolia | 55,70 | 59,80 | 7,4 |
| – Tipula | 15,52 | 18,29 | 17,8 |
| – Leka | 39,47 | 47,16 | 19,5 |
| – Ilar berdea | 25,65 | 27,09 | 5,6 |
| Fruta-arbolak | | | |
| – Sagarra | 52,86 | 48,48 | -8,3 |
| – Udarea | 66,26 | 66,18 | -0,1 |
| – Mertxika | 84,12 | 88,71 | 5,5 |
| – Arbendola | 106,27 | 108,45 | 2,1 |
| Ardoa (euro/Hl) | | | |
| – Ardo zuri berria | 87,60 | 82,21 | -6,2 |
| – Ardo beltz berria | 75,83 | 61,28 | -19,2 |
| Patata (sasoi erdikoa) | 34,58 | 36,28 | 4,9 |
| Patata (berantiarra) | 31,15 | 35,50 | 14,0 |

*(*): Balioespenak. Iturria: Coyuntura Agraria-ren buletina. Nafarroako Gobernua. Landa Garapeneko, Toki Administrazioko eta Ingurumeneko Departamentua.*

# 3. ABELTZAINTZA-AZPISEKTOREA

Ibilbide oso luzeko sektore garrantzitsua da abeltzaintza, batez ere, lurraldearen iparraldeko erdian, baina gero eta zailtasun handiagoak ditu eta 2022ko datuek aldaketa nabarmenak erakusten dituzte. Kapitulu honetan landuko ditugun adierazle askok agertoki berria erakusten dute: hainbat neurketaren arabera, ekitaldi hau aurrekoen oso ezberdina izan da; beste neurketa batzuetan aurreko urtean hasitako joera luzatu da, kostuen igoera handiak eraginda; eta, beste datu multzo batzuetan, larriagotu egin dira aurretik antzeman zitezkeen jaitsierak.

Kasu guztietan, atzean dagoen faktore nagusia kostuen igoera da, elikagaiena eta energiarena, funtsean. Hori lotuta dago merkatuen eraldaketa-egoerarekin. Covid-19aren pandemia indarrean zegoela gorabeherak izan zituzten merkatuek, baina, batez ere, Ukrainako inbasioa hasi ondoren. Ekoizpen elektrikoaren merkatua eta zerealak izan ziren kaltetuen artean nabarmenenak, adierazleen taula honetan inpaktua izan zuten aldaketak azaltzeko orduan. Produktu askoren prezioek gora egin zuten, hala nola esnearenak. Aurrez, ekitaldi askotan, esnearekin lotutako ekoizpen-negozioaren kostu gorakorrak prezioetara eramateko zailtasunak izan zirela erakusten zuten datuek.

Aurreko ekitaldietako beste aldaketa batzuk monitorizatuta, hala nola txerri-azienden igoera Nafarroan edo behi-aziendaren hilketen gorakada, 2022a ezohiko urtea izan zela ikus daiteke, eta adierazleen gainean ondorio ezberdinak izan zituela, aipatutako moduan: txerri-aziendaren kasuan, buru kopuruaren hazkundea gelditu egin zen. Behi-azienden hilketari dagokionez, kopurua hazi egin zen ondoz ondoko laugarren urtez, baina hazkundea ez zen izan aurreko urtekoa bezain handia. Beste hainbat adibide ere ikusiko ditugu, 2022a hainbat zentzutan inflexio-puntua izan zela erakusten dutenak.

Orokorrean, negozioa nahiko egonkortuta zegoen eta urtetik urtera ez zuen aldaketa handirik izaten. Hortaz, azken berriek are garbiago uzten dute ziklo berri baten aurrean gaudela, eta sektorearen gaineko ziurgabetasun maila dezentea dela. Gainera, polemika handiak izan ziren abeltzaintzak aldaketa klimatikoan duen inpaktuaren gainean, isurtzen dituen berotegi-efektuko gasak direla eta. Aldi berean, aurrekoarekin lotuta, eztabaida dago gizakiak haragiaren kontsumoa murriztearen egokitasunari buruz eta animalien ongizateari buruz, batez ere, makroetxaldeak direla eta. Horiek gero eta presentzia handiagoa dute gertuko lurraldeetan.

Estatuan, abeltzaintzako ekoizpena % 22,5 hazi zen, aurreko urtean (% 3,8) baino askoz ere gehiago. Prezioen igoerak (% 24,3) eragin zuen ekoizpenaren gorakada, eta ez kantitateek (izan ere, azpisektorean kantitateak -% 1,5 murriztu zirela kalkulatzen da). Pentsuen guztizko gastuak, batez beste, urteko % 4ko hazkundea izan du urte askotan zehar. 2021ean, berriz, % 14,2 hazi zen pentsuen gastuen partida, eta 2022an % 33. Izan

ere, pentsua % 35,1 garestitu zen azken urte horretan. Balioaren hazkundeak honakoak izan ziren Estatuan: % 20,7 haragia eta abereak, orokorrean; % 29,6 behi-haragia; % 19,4 txerrikia; % 20 zaldi-haragia; % 7,9 ardikia eta ahuntz-haragia; % 21,3 hegaztiak; eta % 28,6 animalia-produktuak (% 25 esnea eta % 43,7 arrautzak).

Abere-ustiategi batzuek energia asko kontsumitzen dute, eta energia % 52,4 garestitu zen (2022ko Estatuko datua, nekazaritza- eta abeltzaintza-sektore osorako, eta lubrifikatzaileen partidarekin batera kalkulatuta).

Horrek guztiak inpaktu handia izan zuen kostuak preziora igarotakoan, batez ere, behi-haragiaren, txerrikiaren edo esnearen azpisektoreetan. Dena den, bigarren kasuan, epe luzeko joera zen, eta indartu egin zen. Hala, Estatuan, animalia-produktuen kantitate fisikoek beste urte batzuetan baino aldakuntza txikiagoak izan zituzten, orokorrean. Horrek adieraz dezake merkaturatuko zutena zehatz-mehatz neurtzen eta planifikatzen saiatu zirela, bitarteko kontsumoen igoera onartu ondoren.

Abeltzaintza-azpisektorearen kanpo-merkataritzaren datuek erakusten dutenez, azken biurtekoan ezohiko hazkundea izan dute inportazio- eta esportazio-datuek, nekazaritzaren egoera orokorrari buruzko kapituluan zehazten den moduan. Nafarroan, 2022an, inportazioa zein esportazioa % 50 baino gehiago hazi ziren, 2020arekin alderatuta. EAEn esportazioak % 56,4 hazi ziren, eta inportazioak % 31,5.

EAEren kasuan, eskuragarri daude kantitatearen, prezioaren eta balioaren aldakuntzak, kategoriaren arabera sailkatuta. Honako hauek dira: Tona kopuruari dagokionez, abeltzaintzako amaierako ekoizpena -% 5,5 murriztu zen; behi-haragia -% 10,4; ardikia -% 0,6; txerrikia % 18,9 hazi zen; behi-esnea -% 5,9 murriztu zen, ardi-esnea -% 1,4 eta oilo-arrautzak -% 8,1. Aitzitik, prezioen kasuan, igoerak orokorrak izan ziren. Abeltzaintzako ekoizpenaren prezioak, orokorrean, % 27,8 igo ziren; behi-haragiaren prezioa % 20,3; ardi-haragiarena % 8,5; txerrikiarena % 13,8; behi-esnearena % 29,7; arrautzena % 60,6; ardi-esnearena % 3,5; eta beste abere-produktu batzuena, % 24,1. Hala, balioaren aldakuntza guztiak ere positiboak izan ziren: abeltzaintza-azpisektore osoan % 20,8; behi-haragian % 7,8; ardikian eta ahuntz-haragian % 7,8; txerrikian % 35,3; behi-esnean % 22,1; arrautzetan % 47,5; ardi-esnean % 2,1; eta beste animalia-ekoizpen batzuetan % 23,5.

Nafarroan, hilero argitaratzen den Coyuntura Agraria-ren buletinaren arabera, sektoreko prezioak % 23,2 garestitu ziren. Haragi nagusien prezioak % 20 eta % 30 artean igo ziren, eta arrautzena % 33. Nafarroan, era berean, bazken ekoizpenaren balioaren hazkundea nabarmendu behar da, % 33,6koa izan baitzen. Haragirik garestienetako batzuen kasuan izan ezik (arkumea, antxumea...), 2022ko gainerako igoerak handiak izan ziren, orokorrean. Kasu batzuetan igoera ezohikoagoa izan zen beste batzuetan baino, epe luzeko ikuspegia

kontuan hartuta. Igoerarik ezohikoena esnearena izan zen, baina izan ziren ohiz kanpoko beste garestitze batzuk ere, hala nola untxiarena edo oilaskoarena.

## 3.1 ABELTZAINTZA-ERROLDA

Nafarroako eta EAEko behi-azienden kopurua antzekoa da. Aldiz, Nafarroako ardi-azienden kopurua EAEkoaren bikoitza da eta, txerri-azienden kasuan, Foru Erkidegoko kopurua ia 25 aldiz handiagoa. Ahuntz-azienden kasuan, berriz, ale gehiago daude EAEn.

Nafarroako abeltzaintza-erroldan berritasun deigarri bat izan zen: ardi-azienden buru kopurua urtean -% 1,4 eta -% 3,6 artean murriztu izan zen hamarkada oso batean zehar, baina 2022an -% 8,9 murriztu zen. Txerri-azienden kopurua, grafikoan ikus daitekeen moduan, ardi-azienden kopurua baino txikiagoa zen aspaldi, baina 2022an haren bikoitza izan zen, buru kopuruari zein kuotari dagokienez. Hala ere, txerri-azienden bilakaera ez da lineala izan, ardi-azienden jaitsieraren kasuan ez bezala. Jauzi handiak emanez hazi da txerri-azienden kopurua, eta % 20tik gorako igoerak izan zituen 2010ean, 2014an, 2016an edo 2021ean. 2022an % 1,6 baino ez zen hazi; behi-azienden kopurua -% 2,4 jaitsi zen (oso egonkortuta dago eta 15 urtean % 6,5 baino ez da hazi) eta ahuntz-azienden kopurua % 7,5 hazi zen, aurreko urtean (% 11,9) baino zerbait gutxiago. Bi hazkunde horiek izan dira 2012az geroztiko handienak.



LABORAL kutxa

**164. koadroa Abeltzaintza-errolda (urte bakoitzeko azaroaren 30ean)**

*(abelburuak)*

| Eremua | Urtea | Behi-azienda | Ardi-azienda | Ahuntz-azienda | Txerri-azienda |
|---|---|---|---|---|---|
| EAE | 2017 | 137.339 | 239.265 | 27.438 | 34.895 |
| | 2018 | 134.611 | 229.795 | 26.695 | 35.773 |
| | 2019 | 136.126 | 219.080 | 26.058 | 35.801 |
| | 2020 | 136.502 | 217.300 | 26.801 | 36.053 |
| | 2021 | 133.917 | 213.788 | 27.351 | 36.965 |
| | 2022 | 127.739 | 210.041 | 27.841 | 34.697 |
| Nafarroa | 2017 | 122.293 | 498.116 | 13.010 | 650.250 |
| | 2018 | 122.566 | 480.251 | 12.947 | 610.897 |
| | 2019 | 120.170 | 475.306 | 13.012 | 650.029 |
| | 2020 | 123.450 | 467.020 | 12.755 | 685.605 |
| | 2021 | 123.384 | 460.620 | 14.270 | 828.608 |
| | 2022 | 120.404 | 419.842 | 15.354 | 841.662 |
| Euskal Herria | 2017 | 259.632 | 737.381 | 40.448 | 685.145 |
| | 2018 | 257.177 | 710.046 | 39.642 | 646.670 |
| | 2019 | 256.296 | 694.386 | 39.070 | 685.830 |
| | 2020 | 259.952 | 684.320 | 39.556 | 721.658 |
| | 2021 | 257.301 | 674.408 | 41.621 | 865.573 |
| | 2022 | 248.143 | 629.883 | 43.195 | 876.359 |
| Espainia | 2017 | 6.465.747 | 15.963.106 | 3.059.731 | 29.971.357 |
| | 2018 | 6.510.592 | 15.852.525 | 2.764.790 | 30.804.102 |
| | 2019 | 6.600.333 | 15.478.615 | 2.659.112 | 31.246.043 |
| | 2020 | 6.636.428 | 15.439.218 | 2.651.041 | 32.676.652 |
| | 2021 | 6.922.951 | 15.081.347 | 2.589.761 | 34.454.090 |
| | 2022 | 6.455.125 | 14.452.585 | 2.463.451 | 34.073.380 |
| Euskal Herria/Espainia % | 2022 | -6,8 | -4,2 | -4,9 | -1,1 |

*Iturria: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila (Eusko Jaurlaritza).*

EAEn, ardi-azienden jaitsieraren erritmoa ez zen aldatu (-% 1,8). Behi-azienden jaitsierak, leunagoa baina jarraitua denak, ordea, beherakada esanguratsua izan zuen (-% 4,6), duela 15 urtez geroztiko handiena, gutxienez. Eta txerri-azienden kopuruak behera egin zuen (-% 6,1), 2011z geroztik lehen aldiz. Ahuntz-azienden kopurua % 1,8 hazi zen.

Espainiaren gaineko kuotari dagokionez, Euskal Herriaren kuota handitzen ari da txerri-aziendaren kasuan, epe luzean, oszilazioekin; ahuntz-azienden kasuan, hazkundea progresiboa eta lineala da; behi-aziendaren kasuan, kuota oso egonkor mantendu da, eta ardi-aziendaren kasuan jaisten ari da. Hala ere, oraindik ere ardi-azienda da kuotarik handiena duena.

Estatuan ere ezohiko bi aldakuntza izan ziren, azken hamarkadekin alderatuta. Izan ere, aurrez aipatu bezala, 2022a ezohiko urtea izan zen abeltzaintzari dagokionez. Txerri-azienden kopurua jaitsi egin zen 2012az geroztik lehen aldiz (-% 1,1), eta behi-azienden kopurua 2013az geroztik lehen aldiz (gainera, 2007az geroztiko jaitsierarik handiena izan

zuen, -% 6,8koa). Gainera, ardi-azienden jaitsiera (-% 4,2) 2014az geroztiko handiena izan zen eta, ahutz-aziendena (-% 4,9) 2018az geroztiko handiena. Ziur asko, egoera zailaren aurrean eta kostuen igoeraren gaineko ziurgabetasunaren aurrean, animaliak hiltzea edo gutxiago ekoiztea erabaki dute aurten ustiategi batzuek.

## 3.2 ABERE-EKOIZPENA ETA EMAITZA EKONOMIKOAK

### Esne-ekoizpena eta emaitza ekonomikoak

Behi-esnearen ekoizpenak ere ezohiko bilakaera izan zuen: Gipuzkoako eta EAEko guztizkoek 2011z geroztiko urte arteko jaitsierarik handienak izan zituzten, -% 7,7 eta -% 6,1, hurrenez hurren. Bizkaian jaitsi zen ekoizpena gehien (-% 9, eskuragarri dugun datu multzoko jaitsierarik handiena), eta Araban -% 1,3 egin zuen behera (2016az geroztiko jaitsierarik handiena). Nafarroaren kasuan, lehen aldiz jaitsi zen 2017tik, baina -% 1,6 baino ez.

**165. koadroa Esne-ekoizpena**

*(m litro)*

| Urtea | Eremua | Behia | Ardia | Ahuntza | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| 2020 | Araba | 51.065 | 2.974 | 198 | 54.237 |
| | Bizkaia | 58.594 | 1.559 | 574 | 60.727 |
| | Gipuzkoa | 72.431 | 5.349 | 171 | 77.951 |
| | EAE | 182.090 | 9.882 | 943 | 192.916 |
| | Nafarroa | 246.329 | 14.564 | 200 | 261.093 |
| | Euskal Herria | 428.419 | 24.446 | 1.144 | 454.009 |
| 2021 | Araba | 51.391 | 2.940 | 294 | 54.625 |
| | Bizkaia | 57.702 | 1.525 | 639 | 59.865 |
| | Gipuzkoa | 70.241 | 5.258 | 200 | 75.699 |
| | EAE | 179.334 | 9.723 | 1.133 | 190.190 |
| | Nafarroa | 247.830 | 15.905 | 368 | 264.103 |
| | Euskal Herria | 427.164 | 25.628 | 1.144 | 454.293 |
| 2022 | Araba | 50.725 | 2.897 | 362 | 53.984 |
| | Bizkaia | 52.529 | 1.644 | 658 | 54.831 |
| | Gipuzkoa | 65.120 | 5.330 | 204 | 70.654 |
| | EAE | 168.374 | 9.871 | 1.223 | 179.468 |
| | Nafarroa | 243.892 | 16.935 | 388 | 261.215 |
| | Euskal Herria | 412.266 | 26.806 | 1.611 | 440.683 |

*Iturria: Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila (Eusko Jaurlaritza). Nafarroako Gobernua. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua*

Nafarroan, ardi-esnearen litro kopurua aurreko urtean baino apur bat gutxiago igo zen (% 6,5), eta ahuntz-esnearen ekoizpena, minoritarioena dena, % 5,4 hazi zen (aurreko urtean baino askoz ere gutxiago, aurreko urtean % 83,7 hazi baitzen). Behi-esnearen ekoizpenak goranzko jauzia egin zuen 2014-2015 artean eta, horren ondoren, hazkundea

oso geldoa izan da; ardi-esnearen kasuan ere 2015ean egin zuen azken jauzi esanguratsua, 2021ean goranzko beste ziklo bat hasi zuen arte. Ahuntz-esneak beheranzko joera izan zuen hamarkada batez, 2020 arte, eta orain 2010eko mailaren antzekoa eskuratu du.

EAEko 3 lurraldeetan, behi-esnearen bolumena elkarren oso antzekoa izan da azken hamarkadetan eta oso egonkortuta egon da; ez da Nafarroakoaren gisako jauzirik izan. Ardi-esnearen ekoizpena ere ia guztiz egonkortuta dago EAEn 2016tik, 2013 eta 2016 artean Gipuzkoan nolabaiteko gorakada izan ondoren. EAEko ahuntz-esnearen ekoizpena, gutxi gorabehera, Nafarroakoaren hirukoitza da.

Esnearen erabilerari dagokionez, EAEko datuen arabera, behi-esne gehiena zentraletara saltzen dute; hazkuntzarako erabilerak beheranzko joera du, eta 2022an aurreko urte gehienetan baino gehiago egin zuen behera. Ustiategietan pertsonen kontsumorako egiten den erabilerak beheranzko joera lineala du, eta gazta egiteko edo zuzeneko salmentarako erabilera egonkortuta daude. Ardi-esnearen kasuan, bolumen bera erabiltzen da gazta egiteko zein zentralei saltzeko.

**166. koadroa EAEn ekoitzitako esnearen erabilera**

*(m litro)*

| Erabilera | 2020 | 2021 | 2022 | % ∆ 22/21 |
|---|---|---|---|---|
| **Behi-azienda** | **182.089** | **179.334** | **168.374** | **-6,1** |
| – Zekor-hazkuntza | 4.662 | 4.563 | 4.216 | -7,6 |
| – Pertsonen kontsumoa ustiategian | 1.140 | 1.094 | 1.038 | -5,1 |
| – Zuzeneko salmenta kontsumitzaileei | 3.469 | 3.589 | 3384 | -5,7 |
| – Salmenta esne-zentralei | 172.818 | 170.088 | 159.736 | -6,1 |
| **Ardi-azienda** | **9.882** | **9.723** | **9.871** | **1,5** |
| – Gazta | 4.715 | 4.572 | 4.715 | 3,1 |
| – Pertsonen kontsumoa ustiategian | 34 | 32 | 33 | 2,8 |
| – Zuzeneko salmenta kontsumitzaileei | 456 | 444 | 452 | 1,7 |
| – Salmenta esne-zentralei | 4.678 | 4.674 | 4.715 | 0,9 |
| **Guztira** | **191.971** | **189.057** | **178.245** | **-5,7** |
| – Zekor-hazkuntza | 4.662 | 4.563 | 4.216 | -7,6 |
| – Gazta | 4.715 | 4.572 | 4.715 | 3,1 |
| – Pertsonen kontsumoa ustiategian | 1.174 | 1.126 | 1.071 | -4,9 |
| – Zuzeneko salmenta kontsumitzaileei | 3.925 | 4.033 | 3.836 | -4,9 |
| – Salmenta esne-zentralei | 177.496 | 174.762 | 164.451 | -5,9 |

*Iturria: Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila (Eusko Jaurlaritza).*

**167. koadroa Esnea ekoizten duten eliteko behi-ustiategi batzuek osatutako lagin baten emaitzak**

| Kontzeptua | Lurgintza (Gipuzkoa) | | Lorra (Bizkaia) | | Abere (Araba) | | INTIA-ITG (Nafarroa) | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 |
| **Datu teknikoak** | | | | | | | | |
| – Lagineko ustiategi kopurua | 29 | 27 | 56 | 49 | 40 | 39 | 40 | 34 |
| – Behi kopurua | 1.680 | 1.511 | 4.038 | 3.646 | 4.612 | 4.670 | 5.553 | 4.906 |
| – Ha. NAE/ustiategi | 27,2 | 28,4 | 33,4 | 34,8 | 73,6 | 76,6 | 56,5 | 65,2 |
| – Behi/ustiategi | 57,9 | 56,0 | 72,1 | 74,4 | 115,3 | 119,7 | 138,8 | 144,3 |
| – Behi/ha. | 2,1 | 2,0 | 2,2 | 2,1 | 1,6 | 1,6 | 2,5 | 2,2 |
| – Ekoizpen- eta bazka-gastuak (euro/ha) | 404,31 | 621,42 | 261,68 | 261,68 | 597,37 | 750,52 | 682,3 | -- |
| **Prezioak eta etekinak** | | | | | | | | |
| – Esnearen prezioa (euro/1.000 litro) | 466,21 | 577,00 | 365,39 | 470,00 | 360,55 | 458,00 | 354,7 | 456,9 |
| – Esne-ekoizpena litro/behi | 8.523 | 8.669 | 9.112 | 9.016 | 10.200 | 10.280 | 10.138 | 10.287 |

*Iturria: EAEko lurralde bakoitzeko nekazaritzako eta abeltzaintzako zentro kooperatiboek eta Nafarroako Teknologien eta Nekazaritzako Elikagaien Azpiegituren Institutua Elkarte Anonimoak (INTIA, ITG dibisioa) eskainitako estatistikak.*

4 lurraldeetan, etxaldeen laginak hartzen dituzten agentziak edo institutuak daude. Zehazki, esne-jardueraren kasuan, denentzako datuak daude. Behatutako ustiategi kopuruak behera egin zuen 2022an, batez ere, Nafarroan eta Bizkaian. Gipuzkoan ere behera egin zuen, argi eta garbi, eta neurri txikiagoan Araban. Araba eta hari dagokion erakundea, Abere, nabarmentzen dira, laginean jasotako ustiategietako behi kopuruak gora egin zuelako. Aldiz, behera egin zuten Lurgintza, Lorra eta INTIA-ITG-ren datuek.

Ustiategi bakoitzeko hektarea kopuruaren hazkundea Nafarroan izan zen nabarmenena, zalantzarik gabe. Eta abelburu bakoitzeko litro kopuruaren igoera ere gainerako lurraldeetan baino jarraituagoa da Nafarroan. Ustiategi bakoitzeko abelburu kopuruak ere erritmo azkarragoan egin zuen gora han. Aldiz, Gipuzkoa bereizi egin zen gainerakoen igoeretatik, adierazle horrek behera egin baitu lurraldean bi urtez. Hektarea bakoitzeko behi kopuruari dagozkion ratioak egonkorragoak dira epe luzera 4 lurraldeetan. Arabako laginean ezohikoa izan zen ekoizpen- eta bazka-gastuen igoera eta, Gipuzkoako laginean ere bai, bat-batean.

Litro bakoitzeko prezioaren igoera ohikoa da laginketa hauetan, ñabardura batekin: Gipuzkoan prezioak gora egin zuen ondozko ondoko bigarren urtez. Hain zuzen ere, lurralde honetan hazkundea txikiagoa izan zen 2022an (% 23,8koa, eta aurreko urtean % 32,1ekoa). Gainerako lurraldeetan hazkundea % 27 eta % 29 artekoa izan zen. Aldakuntza horiek guztiz ezohikoak dira, eta horien aldean txikiak dirudite azkeneko aldakuntza esanguratsuek, 2013koek, % 6 eta % 10,5 artekoak izan baitziren haiek aztertutako lurraldeetan.

INTIA Nafarroako Teknologien eta Nekazaritzako Elikagaien Azpiegituren Institutuko Berrikuntza, Teknologia eta Kudeaketa Sailak egiten duen eta ezagutzera ematen duen urteroko laginketa xeheari esker, ustiategi horietan zer gertatzen ari den jakin dezakegu. Behi-esnea edo ardi-esnea ekoizten duten ustiategien batezbesteko ekonomikoen jarraipena egiten du INTIAk. Esnetarako ardien kasuan, Aberek ere ematen ditu datuak (Araba).

Nafarroan, esnetarako behien kasuan 34 ustiategi aztertu ziren, aurreko urtean baino 6 gutxiago, eta duela hamarkada bateko kopuruaren erdia baino zerbait gehiago. Sektorearen kontzentrazioa gero eta altuagoa dela ikus daiteke, ustiategi bakoitzeko langile kopurua edo batez besteko abelburu kopurua duela 10 urte baino ia % 50 handiagoak baitira. Esnearen batez besteko ekoizpena ere hazten ari da pixkanaka, eta jauzi nabarmena eman du ustiategi bakoitzeko hektarea kopuruak: urtean % 15,5era arteko hazkundea.

Baina berritasun nagusiak ratio ekonomikoetan ikus daitezke: urte askoan lehen aldiz, behi esnea nabarmen garestitu dela ikus daiteke estatistika honetan, % 28,8. Aldi berean, gastuen hazkundea azkartu egin da: elikadura-gastuak % 38,2 hazi dira, gastu aldakorren guztizkoa % 33,6 hazi da, guztizko gastuak % 29,8 eta gastu finkoak % 22,7. Lau kasuetan, hazkunde-zifrak aurreko biurtekoko hazkundeen hirukoitzak izan ziren, gutxi gorabehera.

Aldi berean, guztiz ezohikoa den aldaketa batekin, dirulaguntzak, egonkortuta zeudenak, hirukoiztu egin ziren; hala, produktu gordina % 34,3 hazi zen (aurreko bi hazkundeen ia laukoitza) eta guztizko diru-sarrerak % 39 hazi ziren (ia boskoitza). Hala, amaierako marjina garbia bikoiztu egin zen (+% 109) eta, dirulaguntzak kenduta, aurrerapena % 78,5ekoa litzateke. Aurreko urteetan behera egin zuen apur bat. Abelburu bakoitzeko eta gizakiaren lan-unitate bakoitzeko marjina garbiaren ratioak ere bikoiztu egin ziren.

Jauzi horiek modu esponentzialean hazi ziren 2022an, baina gastu aldakorrek zein diru-sarrerek hazkundeak izan zituzten aurreko 6 ekitaldietan zehar, ongi definitutako bi urteko 3 fasetan, eta fase bakoitzean aurrekoan baino hazkunde handiagoarekin. Dena den, marjinaren jaitsiera jarraitua eta pixkanakakoa izan zen bost urtez eta, 2022an, dirulaguntzei esker, posible izan zen amaierako emaitza haztea.

Printzipioz, badirudi posible izaten ari dela kostuak preziora pasatzea, baina testuingurua oso berezia da, eta zalantzak argitzeko lagin gehiago aztertu beharko dira datozen urteetan. Marjina garbiaren (dirulaguntzekin) eta produktu gordinaren arteko ratioa % 11,9tik % 18,5era pasatu zen, eta, dirulaguntzak kontuan hartu gabe, jauzia % 9,1etik % 12,1era artekoa izango litzateke.

**168. koadroa ABEREk eta INTIA-ITGk kudeatutako ardi-esne ustiategien batez besteko emaitza ekonomikoak**

| Kontzeptua | ABERE | | INTIA-ITG | |
|---|---|---|---|---|
| | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 |
| **Datu tekniko-ekonomikoak** | | | | |
| – Ustiategien laginak | 24 | 22 | 26 | 24 |
| – Eskulana (GLU) ustiategiko | 1,8 | 1,8 | 1,9 | 1,9 |
| – Ardi kopurua ustiategiko | 368 | 339 | 361 | 376 |
| – Azalera Ha. | 75,6 | 85,9 | 25,5 | 23,7 |
| – Esne-ekoizpena (litro/ardi) | -- | -- | 163 | 161 |
| – Esnearen prezioa (euro/1.000 litro) | -- | -- | 1.498,15 | 1.567,00 |
| **Ekoizpena eta emaitzak (euro)** | | | | |
| Produktu gordina | 121.976 | 106.789 | 103.500 | 109.896 |
| - Elikadura-gastuak | 31.846 | 32.125 | 30.796 | 38.491 |
| - Gastu aldakorrak | 17.945 | 10.848 | 10.742 | 9.826 |
| = Marjina gordina | 72.184 | 62.682 | 68.509 | 78.859 |
| + Diru-laguntzak | 25.451 | 35.410 | 6.546 | 17.280 |
| + Beste diru-sarrera batzuk | 5.406 | 2.865 | -- | -- |
| - Gastu finkoak eta langileenak | 56.555 | 49.186 | 40.481 | 42.893 |
| = Marjina garbia | 46.486 | 51.771 | 28.028 | 35.966 |
| **Emaitza unitarioak (euro)** | | | | |
| – Marjina garbia / ardia | 126,32 | 152,72 | 77,59 | 95,77 |
| – Marjina garbia / GLU | 25.825,60 | 29.583,27 | 14.522,22 | 18.929,47 |

*Iturria: Abere eta Nafarroako Teknologien eta Nekazaritzako Elikagaien Azpiegituren Institutua (INTIA, ITG dibisioa).*

Nafarroako esnetarako ardien kasuan, amaierako ratio hori alderatzeko, aipatu beharrekoa da errentagarritasunaren adierazleak, dirulaguntzekin, % 27,1etik % 32,7ra egin zuela jauzi; dirulaguntzarik gabe, behera egingo zukeen, % 20,8tik % 17ra. Hau da, dirulaguntzekin, 2018az geroztiko daturik onena izan zen, baina, dirulaguntzarik gabe, 2014az geroztiko txarrena izango zatekeen, aurreko urteetako datuekin sortutako datu multzo homologagarriaren arabera.

Nafarroako azpisektore honetan ezohiko igoera izan zuen prezioak, baina esnetarako behien kasuan baino askoz ere txikiagoa (% 4,6 eta % 28,8). Gastu finkoak, apurka behera egiten ari zirenak, berriz ere igo ziren. Gastu aldakorrak, pixkanaka hazten ari zirenak, azeleratu egin ziren apur bat. Guztizko gastuak geldi zeramatzan 2 urte, eta igo egin zen. Produktu gordina, berriz, apur bat baino ez zen hazi, aurretik zuen goranzko erritmo neurridunaren aurrean, eta ez zuen konpentsatu kostuen igoera.

Arabako esnetarako ardien kasuan, produktu gordinaren eta ustiategi bakoitzeko guztizko gastuen batezbestekoak Nafarroakoen oso antzekoak izan ziren. Izan ere, 2022an berdintzeko joera izan zuten Arabako eta Nafarroako datuek, Arabako ustiategien joera Nafarroakoen alderantzizkoa izan zelako. Produktu gordinak behera egin zuen, gastuek baino intentsitate handiagoz (aldakorrak zein finkoak). Marjina Nafarroako kasuan baino apur bat gehiago okertu zen, eta dirulaguntzek ezohiko hazkundea izan zuten, Nafarroako kasuan bezala; halere, Arabako kasuan, abiapuntuko batezbestekoa



LABORAL kutxa

askoz ere altuagoa zen. Arabako lagineko gastuek eta diru-sarrerek hazkundea izan zuten aurreko urtean, 2022an Nafarroakoek izandakoaren antzekoa.

**Haragi-ekoizpena: emaitza ekonomikoak**

Ustiategien haragi-ekoizpenari dagokionez, Araban behi-haragiari buruzko datuak daude eskuragarri, eta Nafarroan behi-haragiarenak zein ardi-haragiarenak.

Nafarroan, aurreko urteetan bezala, okerrera egin zuten behi-haragiaren eta ardi-haragiaren negozioen emaitzek, baina, gainera, 2022an aurreko urteetan baino askoz ere okerragoak izan ziren emaitzak. Mota bateko zein besteko ustiategi bakoitzak, batez beste, 20.000 euro galdu zituen jarduera honetan. Kasu batzuetan, beste jarduera batzuei esker konpentsatu zituzten galerak, adibidez, esnearen salmentaren bidez. Hain zuzen ere, bi jardueren kasuan, defizita egiturazkoa da duela hamar urte baino gehiagotik, dirulaguntzak kontuan hartu ezean. Dirulaguntzak aintzat hartuta ere, haragitarako ardiek galerak izan zituzten 2013an eta 2019an, eta haragitarako behiek 2013az geroztiko urte guztietan, 2014an eta 2017an izan ezik; urte horietan nolabaiteko hazkundea lortu zuten.

Azken 4 urteetan, defizita nahiko txikia izatea lortu dute behi-haragiaren negozioan, dirulaguntzei esker. Aurreko 3 urteetan, egiturazko defizitaren eta dirulaguntzen zifrak egonkor mantendu ziren. 2022an, berriz, marjina negatiboa okertu egin zen eta dirulaguntzak moldatu egin ziren, hortaz, amaierako galeren marjina 2019az geroztikoaren antzekoa izan zen.

Behi-haragiaren kasuan ez bezala, ustiapenaren defizita okertzea ezohikoa izan zen ardi-haragiaren kasuan. Ustiategi bakoitzaren batez besteko zifrak haragitarako behien kasuan bezain txarrak izan ziren. Era berean, kasu honetan ere gora egin zuten dirulaguntzek, eta batez besteko amaierako marjina irabazien langa baino apur bat gorago kokatu zen, hau da, balio positiboetan.

Aurreratu dugun moduan, abereen elikadura-gastuak igo izanak okertu zuen egoera. Kostuen igoeraren zati bat prezioan jasanarazi zuten, baina esnearen kasuan baino askoz ere neurri txikiagoan. Txahalaren edo arkumearen prezioak geldi zeuden duela ekitaldi askotatik. 2021ean arkumea % 22,7 garestitu zen, baina 2022an beste % 8,3 baino ezin izan zen hazi. Behi-haragiaren kasuan, 2022an eman zuen jauzi esanguratsua (2021ean +% 3,9 eta 2022an +% 19,8). Hala ere, ezin izan zen urtea koadratu. Izan ere, ardi-haragiaren kasuan, elikadura-gastuak % 23,3 igo ziren; beste gastu aldakor batzuk, harrigarriki, are gehiago igo ziren, % 30,9; gastu finkoak % 12,9; eta produktu garbia, dirulaguntzarik gabe, % 4,9 baino ez. Dirulaguntzak % 67,1 hazi ziren.

Behi-haragiaren kasuan, prezioak gora egin zuen arren, dirulaguntzen aurreko produktu gordinak behera egin zuen (-% 0,3), baita gastu finkoek ere (-% 4,4). Hala ere, ez zen

posible izan gastuen igoera orokorra konpentsatzea (+% 6,7); kasu honetan, elikadura-gastuak igo ziren batez ere (+% 16,5), beste gastu aldakor batzuk baino gehiago (+% 4,3). Hori guztia kontuan hartuta, haragitarako ardien kasuan, dirulaguntzarik gabeko marjina garbiaren eta produktu gordinaren arteko ratioa -% 29koa izango zatekeen, eta laguntzekin eremu positibora heldu zen (% 1). Haragitarako behien kasuan, laguntzarik gabe -% 25,1ean geratuko zatekeen, eta, laguntzekin, galera txikiagoa izan zen, -% 5,2koa.

**169. koadroa Abere eta INTIA-ITGren kudeaketa tekniko-ekonomikoaren kontrolpean dauden haragitarako behi- eta ardi-ustiategien emaitzak**

| Kontzeptua | ABERE | | INTIA-ITG | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Haragitarako behiak | | Haragitarako behiak | | Haragitarako ardiak | |
| | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 |
| **Datu tekniko-ekonomikoak** | | | | | | |
| – Ustiategien laginak | 66 | 72 | 19 | 18 | 27 | 23 |
| – Eskulana (GLU) | 0,9 | 0,9 | 1,0 | 1,0 | 1,2 | 1,3 |
| – Behi/Ardi kopurua ustiategiko | 63,69 | 66,62 | 66 | 59 | 739 | 757 |
| – Azalera Ha. | 97,8 | 103,85 | 36,6 | 34,5 | 42,5 | 47,8 |
| – Txahal/arkume ekoizpena, kg. behi/ardiko(*) | -- | -- | 231,8 | 223,7 | 19,4 | 19 |
| – Txahal/arkume salneurria kiloko | -- | -- | 3,98 | 4,77 | 4,43 | 4,80 |
| **Ekoizpena eta emaitzak (euro)** | | | | | | |
| – Produktu gordina | 44.551 | 53.708 | 79.670 | 79.401 | 68.746 | 72.090 |
| - Elikadura-gastuak | 23.119 | 33.931 | 43.491 | 50.682 | 40.659 | 50.117 |
| - Gastu aldakorrak | 4.458 | 8.161 | 14.281 | 14.889 | 10.226 | 13.382 |
| = Marjina gordina | 16.973 | 10.337 | 32.445 | 29.561 | 30.834 | 30.267 |
| + Diru-laguntzak | 28.215 | 46.026 | 10.547 | 15.731 | 12.974 | 21.676 |
| - Gastu finkoak eta langileenak | 29.813 | 29.967 | 35.291 | 33.729 | 26.162 | 29.526 |
| = Marjina garbia | 23.973 | 29.231 | -2.845 | -4.167 | 4.672 | 741 |
| **Emaitza unitarioak (euro)** | | | | | | |
| – Marjina garbia behia/ardia | 376,40 | 438,78 | -42,81 | -70.93 | 6,32 | 0.98 |
| – Marjina garbia GLU | 23.201 | 31.773 | -2.787 | -4.311 | 4.473 | 679 |

*(*): Haragi kiloak: Behi-haragi kiloak, kanalean. Ardi-aziendaren kasuan, kiloak bizirik.*

*Iturria: Abere eta Nafarroako Teknologien eta Nekazaritzako Elikagaien Azpiegituren Institutua, Elkarte Anonimoa (INTIA, ITG dibisioa).*

Arabako laginari dagokionez, esnetarako ardien kasuan ikusi bezala, egoera orokorra Nafarroakoaren antzekoa izan zen. Kasu honetan, ordea, dirulaguntzak handiagoak izan ziren, eta posible izan zen marjina koadratzea. Marjina negatiboa izan da, Nafarroako laginean bezala, aztertutako aldi guztietan, hau da, hamarkada batean baino gehiagoan. Hala ere, Arabaren kasuan emaitzak ez dira hain negatiboak izan aipatutako dirulaguntzak batu aurretik. Azpisektore honetan gorakada handia izan zuten dirulaguntzek 2022an. Hala, marjina garbia hasiera batean 20.000 euro inguruko galera zen ustiategi bakoitzeko (Nafarroako haragitarako ardien edo haragitarako behien kasuan gertatutakoaren antzera), baina, dirulaguntzei esker, irabaziak eskuratu zituzten eta, gainera, aurreko urteetakoak baino handiagoak. Arabako lagina eta Nafarroako lagina epe luzean aztertuta, ikus daiteke Arabako produktu gordinak joera duela pixkanaka gora egiteko.



LABORAL kutxa

Aldiz, Nafarroan, ohikoagoak izan dira jaitsierak, urte batzuetan igoera handiak izan arren, adibidez, 2021ean. 2022an Nafarroako batezbestekoa geldi mantendu zen, eta Arabakoa igo egin zen.

**170. koadroa INTIA-ITGren kudeaketa tekniko-ekonomikoaren kontrolpean dauden txerri-ustiategien emaitzak**

| Kontzeptua | Txerrikumeen ekoizpena(1) | | Ziklo itxia(2) | |
|---|---|---|---|---|
| | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 |
| **Ezaugarri tekniko-ekonomikoak** | | | | |
| – Aztertutako ustiategi kopurua | 7 | 6 | 14 | 14 |
| – Urdanga kopurua ustiategiko | 187 | 194 | 516 | 477 |
| – Urdanga bakoitzeko saldutako txerrikumeak | 25 | 24 | 1 | 1 |
| – Urdanga bakoitzeko saldutako txerri gizenduak | 0,3 | 0,4 | 21 | 22 |
| – Urdanga bakoitzeko saldutako txerriak, guztira | 25 | 24 | 22 | 23 |
| – Saldutako txerrikumeen batezbesteko pisua (kg) | 23,3 | 20,2 | 12,5 | 10,1 |
| – Saldutako txerri gizenduen batezbesteko pisua (kg) | 116,7 | 115,7 | 112,6 | 112,1 |
| – Saldutako txerrikume + txerri gizendu kopurua | 4.689 | 4697,0 | 11.495 | 11.045 |
| – Txerrikumearen batezbesteko salneurria (euro) | 49,0 | 49,99 | 32,92 | 36,63 |
| – Txerri-kiloaren batezbesteko salneurria (euro) | 1.20 | 1,41 | 1,20 | 1,49 |
| – GLU guztira | 1,24 | 1,46 | 3,7 | 3,4 |
| **Emaitza ekonomikoak (euro)** | | | | |
| – Produktu gordina | 245.542 | 256.484 | 1.578.217 | 1.777.127 |
| • Gastu aldakorrak | 173.365 | 211.316 | 1.239.551 | 1.461.411 |
| – Marjina gordina | 72.176 | 45.157 | 338.666 | 315.715 |
| • Gastu finkoak | 63.261 | 71.079 | 311.789 | 310.679 |
| – Marjina garbia | 8.915 | -25.912 | 26.877 | 5.036 |

*(1): 2022an 3 ustiategik 21,37 kg-ko pisua zuten txerrikumeak ekoizten zituzten, eta 3 ustiategik titia kendutako 7,46 kg-ko txerrikumeak saltzen zituzten.*

*(2): Ustiategi horiek saltzen duten % 80 baino gehiago txerri gizendua da.*

*Iturria: Nafarroako Teknologien eta Nekazaritzako Elikagaien Azpiegituren Institutua, Elkarte Anonimoa (INTIA, ITG dibisioa).*

Nafarroako txerrikiaren arloan, INTIA-ITGk ziklo osoko 14 ustiategiri egiten die jarraipena. Era berean, txerrikumeen salmentan aritzen diren 6 ustiategiren jarraipena ere egiten du, negozio minoritarioagoa izan arren. Txerrikiaren kasuan, emaitzak behi-haragiaren edo ardikiaren kasuan baino hobeak izan ohi dira azkenaldian, baina 2022a ez zen urte positiboa izan. Bestetik, hemen ez da dirulaguntzarik erregistratzen, eta hori alde handia da. Txerrikiaren prezioa % 17,5 hazi zen, baina ez zen ehuneko bereziki altua izan, 2019an % 19 igo baitzen. Txerrikumeen prezioa, berriz, % 2,1 baino ez zen hobetu.

Hala, behi-esnearen azpisektorean ez bezala, ezin izan zuten kostuen igoera osoa prezioetan jasanarazi. Ondorioz, jarduera nagusia, txerri helduen salmenta, kontuak koadratzera eta batez besteko gutxieneko irabazi bat izatera mugatu zen. Aldiz, txerrikumeen negozioak galerak izan zituen, datuak eskuragarri daudenetik lehen aldiz. Haren marjinak goranzko joera zuen 2019ra arte, baina ordutik jaisten joan da etengabe; izan ere, gastu finkoek behera egin duten arren, gastu aldakorrak asko hazi dira. Ziklo itxiari eragiten dioten gastu aldakorrak ere izugarri hazi dira azken hirurtekoan, ordura arte

nahiko egonkorrak izan ziren arren. Hain zuzen ere, ustiategi bakoitzaren batez besteko gastu aldakorrak 2019an baino % 125 altuagoak izan ziren.

### Abereen hilketa

Haragiarekin lotutako azpisektoreen zailtasun ekonomikoak ikusita, hiltegietan hildako abereen tona kopuruaren jarraipena egingo dugu orain, hain zuzen ere, aztertu ditugun espezieenaz gain, hegaztiena, zaldi-aziendena eta untxiena. Sektorearen indarra baloratzeko orduan, zuhurtziaz aztertu behar dira kantitate-adierazle hauek. Izan ere, kontuan hartu behar da posible dela abereak lurralde batean haztea eta beste batean hiltzea.

Esaterako, txerrikiak hazten jarraitzen du Nafarroan, abelburu kopuruari dagokionez, eta, ikusi dugun moduan, txerrikia ekoizten duten ustiategi kopurua esanguratsua da. Hala ere, espezie horren hilketaren zifrak oso txikiak dira. Izan ere, duela urte batzuk, txerrien hilketa-jarduera esleitu egin zen. Handik denbora gutxira, behi-aziendak hiltzeko gaitasuna handitzen hasi zen, eta joera hori mantendu egin zen 2022an ere. Apustu deigarria da, Nafarroako haragitarako behien ustiategien egoera zaila ikusita. Hegaztien tona kopuruak jarraitu zuen handiena izaten, alde handiarekin. Aurreko urteetan asko hazi ondoren, azken ekitaldietan murrizten ari zen hazkundea. 2022an hazkunde-ibilbideari ekin zion berriz; untxiak kontrako aldakuntza izan zuen, eta, hala, aurreko biurtekoko igoera konpentsatu zuen. Zaldi-azienden kasuan, Nafarroak Estatuaren gainean duen kuota oso handia da eta azken bosturtekoan zifrak egonkortu egin dira, hamarkada batez asko hazi ondoren.

**171. koadroa Euskal Herrian hildako aziendaren kanaleko pisua**

*(Tm)*

| Urtea | Behi-azienda | Ardi-azienda | Ahuntz-azienda | Txerri-azienda | Zaldi-azienda | Hegaztiak | Untxiak | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2013 | 21.067 | 4.217 | 30 | 37.607 | 2.596 | 102.444 | 4.323 | 172.284 |
| 2014 | 19.715 | 4.093 | 44 | 37.706 | 2.655 | 103.667 | 4.423 | 172.303 |
| 2015 | 12.461 | 3.868 | 44 | 34.827 | 3.359 | 103.518 | 4.612 | 162.689 |
| 2016 | 18.029 | 4.071 | 42 | 23.379 | 3.532 | 116.739 | 4.440 | 170.233 |
| 2017 | 17.808 | 3.741 | 63 | 3.318 | 3.765 | 112.612 | 4.105 | 145.412 |
| 2018 | 18.117 | 3.825 | 60 | 3.551 | 3.328 | 125.866 | 4.282 | 159.028 |
| 2019 | 19.438 | 3.575 | 54 | 3.291 | 3.775 | 118.535 | 3.681 | 152.349 |
| 2020 | 22.152 | 3.428 | 50 | 3.305 | 3.828 | 111.515 | 4.477 | 148.755 |
| 2021 | 25.802 | 3.008 | 55 | 3.556 | 3.362 | 110.253 | 4.618 | 150.652 |
| 2022 | 28.155 | 2.885 | 46 | 3.619 | 3.607 | 119.568 | 3.850 | 161.729 |
| % Euskal Herria/Espainia 2022 | 3,8 | 2,4 | 0,4 | 0,1 | 43,4 | 7,3 | 9,4 | 2,1 |

*Iturria: Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila (Eusko Jaurlaritza). Nafarroako Gobernua. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua*



LABORAL kutxa

EAEko zifrak txikiagoak dira. Hegaztien kasuan, zifrek gorantz egiten jarraitzen dute, neurrian. Behi-azienden kasuan, ez zen antzeman Nafarroan ikusitako ekoizpenaren hazkunderik, eta hilketa kopuruak behera egin zuen (jaitsiera txikia izan zen, baina esanguratsua, datu multzo honen jaitsiera lineala dela eta). Bestetik, ardi-azienden, untxiaren eta txerri-azienden kasuan izandako igoera txikiak gelditu egin ziren.

Hiltzen den espezie bakoitzaren egoera islatzen du grafikoak, 1990eko masekin alderatuta; 1990eko datua 100 balioaren baliokidea da estatistika honetan. Hegaztien ekoizpena orduan baino askoz ere handiagoa da Euskal Herrian gaur egun, eta hori da daturik adierazgarriena. Era berean, behi-haragiak eta hegaztiek pixkanaka gora egiten jarraitzen dutela ikus daiteke, eta ardi-haragiak behera egiten jarraitzen duela.

**33. grafikoa** **Euskal Herriko abere-ekoizpena, espezieen araberako bilakaera**

*(Indizea 1990=100)*




*Iturria: Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila (Eusko Jaurlaritza). Nafarroako Gobernua. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua*

# 4. BASOGINTZAREN AZPISEKTOREA

Elikadurarekin lotutako helbururik ez duen lehen sektoreko ekoizpen-jarduerarik garrantzitsuena da basogintza, alde handiarekin, eta EAEn presentzia nabarmena du. Basogintzak presentzia handiagoa du EAEn, Nafarroan baino. Izan ere, baso-habitataren proportzio handiagoa du EAEk (guztizkoaren % 68,5 dela kalkulatzen du 2021eko EAEko basoen inbentarioak). Era berean, EAEn handiagoak dira egurra lantzen duten industrien dentsitatea eta garapena; horien artean daude altzarien industria, paperaren industria, eraikuntza edo bioenergia. Euskadiko Egurraren Behatokiaren 2022ko txostenaren arabera, egurrarekin lotutako balio-kateari dagokio manufaktura-industriaren BPGaren % 5,6 eta enpleguaren % 9,6. Era berean, EAEko guztizko enpleguaren % 2,4 dagokio.

2021ean ekoizpen maila normaltasunera itzuli izana zen berritasun nagusia. Izan ere, Covid-19ak eragindako murrizketa logistikoek eta, batez ere, espezie nagusiaren, insignis pinuaren, banda marroiaren gaixotasunak markatu zituzten aurreko bi urteak. Ekitaldi hartan aurreikusi bazitekeen ere, 2022ko ezaugarri aipagarriena prezioen ezohiko igoera izan zen. Igoera hori bat etorri zen lehen sektoreko eta beste sektore batzuetako igoerekin eta inflazioaren egoera makroekonomikoarekin. Eusko Jaurlaritzak, Haziren bidez, prezioak % 22,2 igo zirela kalkulatu du (aurreko urtean % 16,7). Aurreko urteetan, aldiz, urte arteko aldakuntzak txikiak izan ohi ziren. Gainera, Nafarroako Gobernuaren estatistika baten arabera, 2022an basogintzako ekoizpenak izan zuen garestitzea are handiagoa izan zen (% 35,7).

Gainera, Eusko Jaurlaritzaren aurrerapen-estatistikaren arabera, EAEko basogintzak % 15,8ko pisu ekonomikoa zuen 2022an, nekazaritzako amaierako ekoizpenaren (landareena eta animaliena) guztizkoaren gainean, hau da, 2001az geroztiko pisurik handiena. Urteko ekoizpena, eurotan, % 21,8 hazi zen 2021az geroztik, eta 2020ko datua baino % 90,2 handiagoa izan zen. Baldintza normaletan ohikoa den moduan, 2022an ere radiata edo insignis pinuari zegokion balioaren % 75 inguru. Insignis egurraren balio monetarioak urte arteko % 27ko hazkundea izan zuen eta, gainerako egurrenak, % 7,9koa. Ekoitzitako guztizko kantitatea -% 0,3 murriztu zen; insignis pinuaren kasuan, % 1,5 hazi zen ekoitzitako kantitatea; eta gainerako espezieen kasuan, -% 5,1 egin zuen behera.

Adierazle horiez gain, ekoitzitako kantitateei buruzko informazio zehatzagoa ematen du mozteko lizentziekin lotutako adierazleak, kantitateak metro kubikotan adierazten dituenak. EAEko 3 lurraldeetako diputazioek ematen dute aipatutako informazioa. Hortaz, aurrez aipatutako salmenta-kalkuluek (euroak edo kantitatea) ematen duten informazioaren ezberdina ematen du. Izan ere, lizentziaren edo baimenaren gertakarian edo unean oinarritzen da, ez egurraren salmentan. Hala, baliteke baimena eta salmenta ekitaldi desberdinetan gertatzea eta, hortaz, ekitaldi desberdinetan erregistratzea.

**172. koadroa EAEn egurra mozteko lizentziak**

*(m3 a.g. = metro kubiko, azal eta guzti)*

| Urtea | Eremua | Koniferoak | Hostotsuak | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| 2020 | Araba | 53.095 | 22.162 | 75.257 |
| | Bizkaia | 869.151 | 140.527 | 1.009.678 |
| | Gipuzkoa | 689.583 | 6.974 | 696.557 |
| | EAE | 1.611.829 | 169.662 | 1.781.491 |
| 2021 | Araba | 101.309 | 25.991 | 127.301 |
| | Bizkaia | 957.614 | 204.203 | 1.161.818 |
| | Gipuzkoa | 911.823 | 18.971 | 930.794 |
| | EAE | 1.970.749 | 249.166 | 2.219.913 |
| 2022 | Araba | 123.651 | 19.630 | 143.281 |
| | Bizkaia | 1.043.141 | 189.304 | 1.232.444 |
| | Gipuzkoa | 737.437 | 19.482 | 756.919 |
| | EAE | 1.904.229 | 228.415 | 2.132.644 |

*Iturria: Hazi erakunde instrumentala, Eusko Jaurlaritza.*

Gehien mozten den espeziea insignisa edo radiata da, hau da, konifero nagusia, eta Bizkaian eta Gipuzkoan botatzen da. Bizkaian esanguratsua da bigarren mailako zuhaitzen, hostotsuen, mozketa. Ondorioz, Bizkaia lehen postuan egon ohi da moztutako bolumenari dagokionez eta, batez ere, eukaliptoen landaketen garapenari dagokio hori.

Espeziearen eta lurraldearen araberako datuek ez zuten urte arteko aldakuntza handirik izan 2021etik 2022ra. Guztizkoaren jaitsiera (-% 3,9) Gipuzkoako koniferoen mozketaren murrizketarekin (-% 28) lotu daiteke, ia osorik. Jaitsiera hori oso ezberdina izan zen gainerako aldakuntzekin alderatuta, baina, printzipioz, bat zetorren azken urteetako urte arteko gorabeherekin.

Pandemia-urteek eta pinudien gaixotasunak eragindako beheraldiaren ondoren, 2009 eta 2018 artean erregistratutako igoera handien ondorengo mailaren antzekora itzuli dira datuak. 2009an ekoizpena oso urria izan zen Euskadin, eta 2018an oso altua, faktore koiunturalak medio. Lehenengo kasuan, eskaria hurbileko merkatuetan eskuragarri zegoen egur kantitate handira zuzendu zen, arrazoi meteorologikoak zirela eta. Bigarren kasuan, EAEn egur asko bota behar izan zuten, ordurako hedatuta zegoen gaixotasunak egurraren kalitatea hondatu aurretik aprobetxatzea komeni zelako.

**173. koadroa EAEn egurra mozteko lizentziak**

*(m3 a.g. = metro kubiko, azal eta guzti)*

| Espeziea | 2021 | 2022 | % ∆ 22/21 |
|---|---|---|---|
| – Pinu gorria | 2.076 | 3.584 | 72,6 |
| – Larizio pinua | 58.400 | 92.577 | 58,5 |
| – Pinaster pinua | 28.638 | 41.737 | 45,7 |
| – Halepensis pinua | 25 | 80 | 221,3 |
| – Radiata pinua (insignis) | 1.754.784 | 1.630.184 | -7,1 |
| – Beste konifero batzuk | 126.825 | 136.066 | 7,3 |
| **Koniferoak, guztira** | **1.970.748** | **1.904.229** | **-3,4** |
| – Makala | 1.876 | 4.352 | 132,0 |
| – Eukaliptoa | 208.101 | 198.864 | -4,4 |
| – *Querqus* | 22.388 | 10.791 | -51,8 |
| – Beste hostotsu batzuk | 16.801 | 14.409 | -14,2 |
| **Hostotsuak, guztira** | **249.166** | **228.415** | **-8,3** |
| **GUZTIRA** | **2.219.914** | **2.132.644** | **-3,9** |

*Iturria: Hazi erakunde instrumentala, Eusko Jaurlaritza.*

Sektoreko elkarte batek erabilgarri dauden izakinen gaineko gutxi gorabeherako datuak eman ditu. % 35,2 dagokio insignis pinuari, hau da, urtero izan ohi diren mozketen proportzioaren erdia baino gutxiago, egungo masa biziaren arabera. Bestalde, espezie hostotsu nagusia pagoa da, eta zurgaien bolumenaren ia % 15 dagokio; hala ere, eukaliptoa baino askoz ere gutxiago erabiltzen da.

Egungo jarduera jasangarria da. Horren adierazgarri, iturri honen kalkuluen arabera, 71 milioi metro kubiko egur baino gehiago dago EAEn, 7 cm-tik gorako diametroa duten zuhaitzak kontuan hartuta. Urtero, diametroa hazi ahala, zuhaitzen kopurua 3 milioi baino gehiago hazten da. Aldiz, moztutako zuhaitzen batezbestekoa baxuagoa da azken urteetan, 2 milioi ingurukoa.

2022ko basoko inbentarioaren arabera, landatutako basoen azalera zerbait handiagoa da oraindik ere baso naturalena baino. Era berean, hostotsuen hedadura koniferoena baino apur bat handiagoa da EAEn. Izan ere, insignis pinuaren lekua berreskuratzen joan dira zuhaitz hostotsuak. Horien artean daude baso misto atlantikoa (bertako habitat mota nagusia, nabarmendu beharrekoa) osatzen duten zuhaitz hostotsuak eta eukaliptoa bera. Azken hori da bigarren espezie nagusia, mozketei dagokienez, azkar hazten delako. Batez ere, Bizkaiko kostaldeko eremuan ikus daiteke. Radiata edo insignis pinuak (koniferoen artean) eta eukaliptoak (hostotsuen artean) dituzten ezaugarriak direla eta, errazagoa da horiek modu intentsiboan ustiatzea, bete espezie batzuk baino.



LABORAL kutxa

# 5. ARRANTZA-SEKTOREA

## 5.1 IKUSPEGI OROKORRA

EAEko lehen sektorearen ekoizpen ekonomikoaren hamarren bat inguru dagokio arrantza-sektoreari. Haren jarduera arrainen eraldaketa-sektorera joaten da, prozesatuen eta kontserben azpisektoreetan banatuta. Gipuzkoak pisu handiagoa du lehen azpisektorean, eta Bizkaiak bigarrenean.

Euskaditik urrun, hainbat ozeanotan, lan egiten duten atunontzi izoztaile handien alturako arrantzari dagokio bolumen ekonomikorik garrantzitsuena. Bakailaoa arrantzatzen duten antzeko ontziak gehitu behar zaizkie horiei. Azpisektore horrek duen pisuaren adierazgarri, Estatuko arrantza-ontzien % 2,2 baino ez dira Euskadikoak, baxurako eta alturako ontziak batuta, baina guztizko tonajeari (EGT) dagokionez % 26,4ra iristen da; Galizia bakarrik du aurretik.

Arrantza osoaren diru-sarrera ekonomikoen bosten bat inguru dagokio baxurako arrantzari. Freskoko altura ere badago; tarteko modalitatea da, izozkailurik erabiltzen ez duena, eta guztizkoaren gaineko ehuneko txikiagoa dagokio, % 5 ingurukoa.

**174. koadroa Euskal Herriko ontzidiaren egitura**

| Sektorea | Urtea | Unitate kopurua | Potentzia (ZP) | EGT* | Tripulatzaile kopurua |
|---|---|---|---|---|---|
| Altura | 2019 | 44 | 146.618 | 53.794 | 1.019 |
| | 2020 | 44 | 147.340 | 55.066 | 950 |
| | 2021 | 44 | 147.340 | 55.066 | 947 |
| | 2022 | 41 | 138.059 | 51.457 | 905 |
| Baxura | 2019 | 154 | 48.858 | 10.030 | 1.126 |
| | 2020 | 153 | 48.220 | 9.904 | 1.118 |
| | 2021 | 149 | 48.257 | 10.014 | 1.135 |
| | 2022 | 145 | 45.878 | 9.490 | 1.041 |
| Euskal Herria, guztira | 2019 | 198 | 195.477 | 63.824 | 2.145 |
| | 2020 | 196 | 195.560 | 64.969 | 2.068 |
| | 2021 | 193 | 195.597 | 65.080 | 2.082 |
| | 2022 | 186 | 183.937 | 60.947 | 1.946 |

*(*): Erregistro Gordineko Tonak.*
*Iturria: HAZI. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila (Eusko Jaurlaritza).*

Ontzidiaren adierazle nagusiak ontzi kopurua, tripulazioa, potentzia eta tonajea dira. Orokorrean, beheranzko joera apala nagusitzen da sektore eta adierazle guztietan. Alturako sektorea alde handiarekin nagusitzen zaio baxurako sektoreari, salmentei, potentziari eta tonajeari dagokienez; aldiz, ontzi kopuru askoz ere txikiagoa du. Bestetik, antzeko langile kopurua dute biek, alturako sektorea apur bat beherago kokatzen bada ere.

## 5.2 BAXURAKO ARRANTZA

Kapitulu honetan sektorearen datuak monitorizatuko ditugu, nagusiki, baxurako datuak oinarritzat hartuta. Izan ere, alturako datuak urtebeteko atzerapenarekin argitaratzen dira. Batez ere, baxurako 6 arrain-espezie nagusiak eta 5 portu nagusiak hartuko ditugu erreferentzia gisa: Bizkaian, Bermeo eta Ondarroa; eta Gipuzkoan, Getaria, Pasaia eta Hondarribia. Horietako lonjek eskaintzen dituzte baxurako daturik esanguratsuenak.

2022a suspertze-urtea izan zela esan daiteke. 2018an bereziki altuak izan ziren jarduera-datuak, baina ondorengo 3 urteetan behera egin zuten eta kezka handia gailendu zen sektorean, hainbat zailtasunen ondorioz. Sortutako arazoen artean, pandemia nabarmentzen da, 2020an hankaz gora jarri baitzuen arrantza-jardueraren egutegia, konfinamenduaren asterik larrienetan. Horrez gain, beste konplikazio logistiko ugari eragin zituen, eta 2021ean ere oraindik hauteman zitezkeen konplikazio horiek.

Bestetik, baxurako arrantza, nagusiki, antxoaren eta hegaluzearen arrantza-aldiei esker mantentzen da. Interes baxuagoko beste arrain batzuk ere arrantzatzen dira, ordezko gisa (berdela, txitxarroa eta sardina), eta legatzak alturako arrantzan du presentzia, nagusiki (batez ere, Pasaian). Neguaren amaieran, batez ere, aipatu ditugun balio gutxiagoko espeziak arrantzatzen ditu ontzidiak eta, udaberrian, antxoaren denboraldia irekitzen da. Hegaluzea, berriz, udan eta udazkenean arrantzatzen da.

Bi arrantza-aldi nagusiek jaitsierak izan zituzten ondoz ondoko hainbat ekitalditan –2022an gora egiten hasi ziren–, arazo biologikoen edo arrantza-kuoten murrizketaren ondorioz; kuoten murrizketak, batez ere, suspertze biologikoarekin lotuta zeuden. Antxoaren kasuan, EAEko ontziek gero eta zailtasun handiagoak dituzte behar adinako neurria duten aleak aurkitzeko, hau da, kontserba-industriari interesatzen zaizkionak. Hegaluzeak, antxoaren harrapakariak, desplazamendu geografikoak izan ditu; baliteke desplazamendu horiek aldaketa klimatikoarekin lotuta egotea. Bi espezie horiek debeku edo muga handiak izan zituzten orain dela urte batzuk, baina dagoeneko gaindituta daude; aurreko garaietan gehiegi arrantzatu izanak eragin zituen debeku eta muga horiek. Aldiz, azken urteetako aldaketak, antza, aldaketa biologikoek eragin dituzte; hain zuzen ere, aldaketa horietara egokitu behar dute Europak ezartzen dituen kuotek. Hegaluzearen kasuan, arrantza-asteak gero eta gehiago laburtzen ari ziren. 2022an, ordea, urrira arte luzatu zen arrantza-aldia.

Hala ere, epe laburrean lehorreratu arren, azken urteetan prezio onean saldu ahal izan dute hegaluzea eta kasu askotan denboraldia salbatu die sektoreko eragileei, antxoarekin eta beste arrain batzuekin izandako arazoak konpentsatu dituelako. Berdela izan ohi da ordezko arrain nagusia. Baldintza normaletan, tona asko izaten dira eskuragarri, baina ez da hain estimatua. 2019an eta 2021ean denboraldi txarrak izan zituen eta, 2020an pandemiarekin izandako arazoak kontuan hartuta, urte zailak izan dira sektorearentzat.

2022an suspertu egin zen, baina oraindik ere ez ziren hauteman ahal izan Eusko Label izendapenaren eraginak; datorren ekitaldirako aurreikusten da izendapena. Bestetik, txitxarroaren egoera biologikoa ez da ona eta kuotak murrizten ari dira. Sardinaren arrantza, berriz, beheraka joan da, neurri batean, lehentasunezko espezieen egoera hobetu izanaren ondorioz.

Azken ekitaldi hauetako beste arazoetako batzuk Brexita –ur britainiarren gaineko eskubideen birmoldaketak aldaketak eragin ditu kuoten kalkuluan– eta erregaien garestitzea izan dira. Azken horrek zuzenean eragin zien itsasontziei –batez ere, arrainen migrazio-ibilbideen aldaketen ondorioz urrutiago joan behar zutenean–. Gainera, 2022an zeharka ere eragin zien, errepide bidezko banaketa egiten zuten garraiolarien greba bat arrantza-aldien aldi gorenarekin bat etorri zelako.

Urte hauetan –2022an gutxiago–, EAEko itsasontziek urrutiagoko eremuetan arrantzatu behar izan dute antxoa, eta arrantzatutakoaren zati bat Euskaditik kanpo saldu behar izan dute, Kantauri itsasoko lonjetan. Han tamaina eta prezio hobeak eskuratu dituzte. EAEko portuetan ere lehorreratzen dute arraina beste eremu eta herrialde batzuetako ontziek, eta horiekiko lehia ere arazoa bilakatzen da batzuetan. Dena den, 2022an horrek ez zuen oztopatu kuotak bete ahal izatea eta arrantzatutako tonajeak saldu ahal izatea.

2022an arazo horiek guztiak arindu egin ziren. Horrez gain, urteko albisterik onena honako hau izan zen: testuinguru inflazionista batean, kostuen igoera nolabaiteko malgutasunez bereganatzen ari da merkatu hau, arrainaren kontsumoaren epe luzeko joera beheranzkoa den arren. Ia produktu guztien prezioa igo zen eta, orokorrean, gutxiago arrantzatuta diru-sarrerak handitu ahal izan zituzten.

## Baxurako ontzidia

**175. koadroa EAEko baxurako ontzidia, portuen arabera (2022)**

| Portua | Unitate kopurua | Potentzia (ZP) | EGT | Tripulatzaile kopurua |
|---|---|---|---|---|
| – Hondarribia | 30 | 14.332 | 3.238 | 329 |
| – Getaria | 24 | 10.366 | 2.288 | 245 |
| – Orio | 5 | 4.110 | 714 | 61 |
| – Pasaia | 15 | 2.120 | 406 | 62 |
| – Donostia | 3 | 240 | 26 | 6 |
| GIPUZKOA, GUZTIRA(*) | 77 | 31.168 | 6.672 | 6 |
| – Bermeo | 33 | 8.483 | 1.737 | 169 |
| – Zierbena | 5 | 864 | 175 | 30 |
| – Armintza (Lemoiz) | 5 | 291 | 40 | 12 |
| – Lekeitio | 6 | 1.424 | 211 | 29 |
| – Ondarroa(*) | 9 | 2.325 | 401 | 56 |
| – Santurtzi(*) | 7 | 1.323 | 254 | 42 |
| BIZKAIA, GUZTIRA(*) | 68 | 14.710 | 2.818 | 338 |
| EAE, guztira | 145 | 45.878 | 9.490 | 1.041 |

*(*): Estatistika-sekretua gordetzeko, Bilboko (1) eta Plentziako (2) itsasontzien datuak Santurtziko datuekin (7) bateratu ditugu. Era berean, Mutrikuko (Gipuzkoa) (2) datuak Ondarroakoekin (Bizkaia) (7) bateratu ditugu, hurbilen duen portuko datuekin. Lurralde historiko bakoitzeko guztizkoei eragiten die horrek.*
*Iturria: HAZI. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila (Eusko Jaurlaritza).*

Baxurako ontzidiarekin eta haren adierazleekin jarraituz, deigarria da 2022an tripulazioak % 8,3 murriztu izana; joan den hamarkadako jaitsierarik handiena da. Gipuzkoako portuetan handiagoa izan zen jaitsiera (hauen beherakada % 9,5koa da), Bizkaiko portuetan baino (% 5,6). Bizkaiko beherakada, batez ere, Ondarroari egokitu zitzaion (-% 22,2); gainerako portuetan ez zen ia aldaketarik izan. Aldiz, Gipuzkoako 4 portu nagusietan, hau da, Hondarribian, Getarian, Orion eta Pasaian, % 13ko, % 7,2ko, % 4,7ko eta % 4,6ko jaitsierak izan zituzten, hurrenez hurren. Tripulatzaile kopuruaren kuota (potentziaren eta tonajearen banaketaren antzekoa da) Hondarribian (% 31,6) eta Getarian (% 23,5) izan zen handiena. Jarraian, Bermeo (% 16,2), Pasaia (% 6), Orio (% 5,9) eta Ondarroa (% 5,4) kokatu ziren. Kontuan izan behar da, lehen aipatu dugun moduan, arrantza-kanpainek gorabeherak dituztela egutegian, eta baliteke langile kopuruaren urteko neurketa egin zuten unean, 2022an, jarduera maila baxuko une batekin bat etorri izana.

Hain zuzen ere, ontzi kopuruak aldaketa txikiak izan zituen. Bi ontzi gutxiago zeuden Ondarroan; bat gutxiago Hondarribian, Getarian eta Pasaian; eta bat gehiago Orion. Hondarribian 2016 eta 2019 artean izandako goranzko joera apaldu egin zen. Aitzitik, Bermeok 2015era arte izandako beherakada handia konpentsatzen joan zen; hain zuzen ere, Bizkaiko portuetatik kendutako jardueraren zati bat Bermeora joan da. Hori dela eta, ontzi-kuotaren buruan kokatu zen (% 22,8). Hala, hirugarren urtez Hondarribia gainditu zuen (% 20,7). Getaria (% 16,6) eta Pasaia izan ziren hurrengoak (% 10,3).



LABORAL kutxa

Langile kopuruari eta ontzi kopuruari dagozkien kuoten arteko aldeek agerian uzten dute Bizkaian (bereziki, Bermeon) baxurako ontzi txikiak gailentzen direla, hainbat motatakoak. Izan ere, aldeak daude leku batean eta bestean gailentzen diren arrantza-tekniken artean ere. Gipuzkoan inguraketa eta horrekin lotutako beste teknika batzuk gailentzen dira. Bizkaian, berriz, pisu handiagoa dute arte xeheak deritzenek. Gainera, 2022an areagotu egin zen aldea: langile kopuruari dagokionez, adibidez, inguraketa eta horrekin lotutako beste teknika batzuk (beita bizia, xaxiangoa, kazakoa) % 86,5tik % 89,5ra igo ziren Gipuzkoan; Bizkaian, berriz, % 41,5etik % 33,7ra jaitsi ziren.

**176. koadroa EAEko baxurako ontzidia, modalitatearen arabera, 2022**

| Modalitatea | Unitate kopurua | Potentzia ZP | EGT | Tripulatzaile kopurua |
|---|---|---|---|---|
| – Inguraketa, Beita bizia eta Xaxiangoa/Kazakoa(*) | 47 | 28.353 | 6.271 | 629 |
| – Arte xeheak, Artefaktuak eta Zapo-sarea(*) | 25 | 1.976 | 272 | 63 |
| – Tretza | 5 | 839 | 129 | 11 |
| GIPUZKOA, GUZTIRA | 77 | 31.168 | 6.672 | 703 |
| – Inguraketa, Beita bizia eta Xaxiangoa/Kazakoa(*) | 15 | 5.172 | 1.009 | 114 |
| – Arte xeheak, Artefaktuak eta Zapo-sarea(*) | 39 | 5.435 | 1.056 | 141 |
| – Tretza | 14 | 4.103 | 753 | 83 |
| BIZKAIA, GUZTIRA | 68 | 14.710 | 2.818 | 338 |
| EAE, guztira | 145 | 45.878 | 9.490 | 1.041 |

*(*): Estatistika-sekretua gordetzeko, inguraketa eta arte xeheak erabiltzen dituzten ontziekin multzokatu ditugu modalitate minoritarioetako ontziak. Halaber, Bilboko (1) eta Plentziako (2) itsasontzien datuak Santurtziko datuekin (7) bateratu ditugu. Era berean, Mutrikuko (Gipuzkoa) (2) datuak Ondarroakoekin (Bizkaia) (7) bateratu ditugu, hurbilen duen portuko datuekin. Lurralde historiko bakoitzeko guztizkoei eragiten die horrek.*

*Iturria: HAZI. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila (Eusko Jaurlaritza).*

**Baxuran lehorreratutako arrantza**

Tonajeari eta salmenta-bolumenari (eurotan) dagozkien datuek EAEko baxurako ontziek EAEko lonjetan lehorreratutakoa bakarrik hartzen dute aintzat. Badira beste lonja batzuetara egiten diren salmentak, kanpokoek EAEko lonjetan egiten dituzten salmentak eta beste banaketa-kanal batzuk ere. Baina kofradia eta merkatu horietako datuek jarraitzen dute adierazgarrienak izaten.

2022. urtean gutxieneko zifretara itzuli zen arrain-tonajea. Orokorrean, tonajea % 4,7 murriztu zen, Gipuzkoako datuaren ondorioz (-% 14,4). Bizkaian, aldiz, % 7,4 hazi zen lehorreratutako masa. Hala, azken hamarkadan lehen aldiz, Gipuzkoan baino tona gehiago lehorreratu ziren Bizkaian. Dena den, balio ekonomikoari dagokionez, salmentak Bizkaiko portuetan baino % 86 handiagoak izan ziren Gipuzkoako portuetan, lehorreratutako askotariko espezieen ondorioz, grafikoan ikus daitekeen moduan. Hegaluze kiloaren prezioa –batez ere, Hondarribian eta Getarian lehorreratzen da– eta legatzaren eta beste espezie batzuen prezioa (biak oso kontzentratuta daude Pasaian) askoz altuagoak dira gainerako espezieenak baino. Hain zuzen ere, hegaluzeari dagozkio Gipuzkoako lonjetako salmenten % 62; Bizkaian, berriz, % 22,7koa da ehuneko hori.

Euskadi mailan, hegaluzearekiko mendekotasuna % 48,3koa da, eta 2021ean % 50etik gorakoa izatera iritsi zen. 2022an, garestitze orokorrari esker, antxoaren eta berdelaren salmenta suspertu egin zen.

Hala, Euskadi osoko salmentak % 16,2 hazi ziren, Bizkaikoak % 22,4 eta Gipuzkoakoak % 13,2. Tona kopuruari dagokionez, jaitsiera izan zen, interes txikiagoa duten ordezko arrainen (berdela, sardina, txitxarroa) arrantza murriztu zelako. Bizkaia salbuespena izan zen, berdelaren tona kopurua berreskuratu zuelako.

**34. grafikoa Baxurako ontzidietatik lehorreratutako arrantzaren balioa (mila €), espezieen eta portuen arabera, 2022**




*Iturria: HAZI. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila (Eusko Jaurlaritza).*

2021eko ordena berari jarraituz, Getaria kokatu zen salmenten zerrendaren buruan (EAEko guztizkoaren % 28,3); ondoren, Ondarroa (% 24), Pasaia (% 19,4), Hondarribia (% 17,3) eta Bermeo (% 10,7) kokatu ziren. Lekeitioren pisua, berriz, ia ezerezean geratu zen, % 0,1ean.

Azken hamarkadan zehar, Getaria eta Ondarroa txandakatu egin izan dira balioari dagokion zerrendaren lehen postuan, urteko 25 eta 30 milioi arteko balioekin. Hondarribia eta Pasaia ere txandakatu egin izan dira bigarren postuan, 15 eta 20 milioi arteko balioekin. Eta Bermeo hirugarren postuan egon ohi da, 5 eta 10 milioi artean. Tona kopuruaren kuotari dagokionez, Ondarroa aurrean kokatzen da beti, % 35 inguruko kuotarekin; Getaria egonkorrago, % 25aren inguruan; Hondarribia % 15 eta % 20 artean balantzan; Pasaia % 10 eta % 15 artean; eta Bermeo apurka suspertzen, duela 10 urte ez baitzen apenas % 5era heltzen, eta 2022an aurreko biak gainditu zituen % 13,9arekin.

Hondarribian, Ondarroan eta Getarian tona kopuruak beheranzko joera orokorra izan du azken hamarkadan zehar –baina gorabehera handiekin–. Balioari dagokionez, berriz, garai

baxua izan zuten joan den hamarkadaren hasieran (antxoaren eta hegaluzearen arazo biologikoen ondorioz, batez ere), balio gorena 2017 inguruan, gutxieneko balioak 2020an eta 2021ean, eta suspertzea 2022an. Pasaia eta Bermeo gainerakoak baino beherago kokatu izan dira bi magnitudeen kasuan, eta haien bilakaerak linealagoak izan dira.

**177. koadroa Baxurako ontzidiaren bidez lehorreratutako arrantza, guztira**

| Lurraldea | 2021 | | 2022 | | %∆ 22/21 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Tm | (m euro) | Tm | (m euro) | Tm | (m euro) |
| Gipuzkoa | 16.449 | 38.758 | 14.078 | 43.855 | -14,4 | 13,2 |
| Bizkaia | 13.132 | 19.261 | 14.099 | 23.573 | 7,4 | 22,4 |
| EAE | 29.581 | 58.019 | 28.177 | 67.428 | -4,7 | 16,2 |

*Oharra: Kofradietako salmentak.*
*Iturria: HAZI. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila (Eusko Jaurlaritza).*

Bermeoko portua da guztizko tona kopuruaren gainean berdelaren pisu handiena duena, baina urterik gehienetan, balioari dagokionez, hegaluzea izan da haren salmenta nagusia; urte batzuetan antxoaren aldeko apustua ere egin du, bigarren aukera gisa. 2022an gehieneko balioa eskuratu zuen arrain horrek, baina, salmentei dagokienez, aurreko bien oso atzetik kokatu zen.

Lekeitioko magnitudeak asko jaitsi dira azken biurtekoan. Bertako portuan berdelaren pisua nabarmentzen zen, guztizko tona kopuruaren gainean, baina errendimendu ekonomiko handiena ematen zuena “gainerako espezieak” multzoa zen, eta beste arrain batzuetara ere jo izan zuten puntualki (hegaluzea, sardina, txitxarroa...).

Getariaren lehentasuna eta diru-sarrera nagusia hegaluzea izan da eta, jarraian, antxoa. Hamarkadaren hasieran, hegaluzearen garai baxuan, garrantzi handiagoa izan zuen antxoak, ordezko beste arrain batzuekin batera, bereziki, sardina. Azken urteetan, antxoarekin dauden arazoak direla eta, hegaluzearen aldeko apustua gailendu da.

Hondarribiaren kasuan, konbinazioa Getariakoaren antzekoa da eta hegaluzearen alde egiteko joera are nabarmenagoa izan da.

Ondarroan, aitzitik, oso hegaluze gutxi lehorreratu izan dute, eta antxoarekin lan egin izan dute, nagusiki. Antxoa gutxiko garaietan (esaterako, aztertutako hamarkadaren hasieran eta amaieran, aipatu ditugun arrazoiengatik) ordezko beste arrain batzuk ere lehorreratu izan dituzte. Era berean, portu honetan beste portuetan baino gehiago antzeman dituzte EAEtik kanpoko lonjetan antxoa asko saldu izan duten urteetako ondorio puntualak. 2022an suspertzen hasi zen produktu hau.

**178. koadroa Baxurako ontzidietatik lehorreratutako arrantza osoa, portuen arabera, 2022**

*(Tm)*

| Kontzeptua | Guztira | % | Espezie nagusiak | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Antxoa | Hegaluzea | Txitxarroa | Legatza(1) | Sardina | Berdela (2) | Beste batzuk(3) |
| – Hondarribia | 3.588,7 | 12,1 | 221,7 | 2.393,7 | 0,7 | 5,9 | 26,0 | 940,6 | 213,4 |
| – Pasaia | 2.901,4 | 9,8 | 132,1 | 357,9 | 118,9 | 523,4 | 908,1 | 861,1 | 1.067,3 |
| – Getaria | 6.274,9 | 21,2 | 759,4 | 3.737,7 | 112,1 | 0,1 | 631,4 | 1.034,3 | 32,3 |
| – Ondarroa | 10.335,1 | 34,9 | 3.184,6 | 643,6 | 549,1 | 20,1 | 1.456,3 | 3.781,3 | 700,1 |
| – Lekeitio | 26,4 | 0,1 | 0 | 0,5 | 0,2 | 2,9 | 0 | 8,3 | 14,5 |
| – Bermeo | 3.727,9 | 12,6 | 1051,3 | 668,9 | 27,5 | 40,2 | 10,1 | 1.848,9 | 81,3 |
| – Bizkaiko beste batzuk | 10,0 | 0,1 | 1,0 | 0 | 1,0 | 5,0 | 0 | 0 | 3,0 |
| GIPUZKOA, GUZTIRA | 12.765,1 | 43,2 | 1.113,1 | 6.489,4 | 231,7 | 529,4 | 1.565,5 | 2.836,0 | 1.313,0 |
| BIZKAIA, GUZTIRA | 14.099,5 | 47,7 | 4.236,9 | 1.312,9 | 577,8 | 68,1 | 1.466,4 | 5.638,5 | 798,9 |
| EUSKAL HERRIA, GUZTIRA | 26.864,5 | 90,9 | 5.350,0 | 7.802,3 | 809,5 | 597,5 | 3.031,9 | 8.474,4 | 2.111,9 |
| *Gipuzkoako %* | | | 8,7 | 50,8 | 1,8 | 4,1 | 12,3 | 22,2 | 10,3 |
| *Bizkaiko %* | | | 30,1 | 9,3 | 4,1 | 0,5 | 10,4 | 40,0 | 5,7 |
| *Euskal Herriko %* | | | 19,9 | 29,0 | 3,0 | 2,2 | 11,3 | 31,5 | 7,9 |

*(1): Legatza, merlenka eta tarteko legatza sartzen dira hemen.*
*(2): Berdela eta betaundia sartzen dira hemen.*
*(3): Barne hartzen ditu hegalaburra eta gainerako espezieak.*
*Iturria: HAZI. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila (Eusko Jaurlaritza).*

Pasaiako lehentasunak legatza eta “gainerako espezieak” izan dira tradizionalki, baina legatzaren baxurako arrantzak behera egin du hamarkada ia osoan, argi eta garbi. Hasiera batean berdelarekin eta sardinarekin ordezkatu zuten, baina azkeneko urteetan alde batera utzi ahal izan dituzte. Hori posible izan da, Pasaiako lonjan “gainerako espezieak” multzoarekin eskuratzen duten balioak konstantea izaten jarraitzen duelako, eta horrek pisu handia du.

Espezializazio horiek lurraldearen arabera aztertuta, aurrez aipatu bezala, desberdintasun handiak daude. Gipuzkoako baxurako arrantzan pisu handia du hegaluzeak. Bizkaian, berriz, askoz mendekotasun handiagoa dute berdelarekiko eta antxoarekiko. EAE osoan, baxurako salmenten % 48,3 hegaluzearenak izan ziren 2022an. Oso urruti geratu ziren berdela (% 18,6), beste espezie batzuk (% 13,5), antxoa (% 9,5), sardina (% 4,4), legatza (% 3,9) eta txitxarroa (% 1,7). Aitzitik, 2013an % 36,2ko ehunekoa eskuratu zuen antxoak adierazle honetan, eta sardinak % 17,2koa 2014an.



LABORAL kutxa

**179. koadroa Baxurako ontzidietatik lehorreratutako arrantzaren balioa, portuen arabera, 2022**

*(m euro)*

| Kontzeptua | Guztira | % | Espezie nagusiak | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Antxoa | Hegaluzea | Txitxarroa | Legatza[1] | Sardina | Berdela[2] | Beste batzuk[3] |
| – Hondarribia | 19.114,66 | 28,3 | 187,00 | 10.044,28 | 0,63 | 34,70 | 14,42 | 1.225,29 | 156,84 |
| – Pasaia | 11.663,17 | 17,3 | 295,42 | 1.232,56 | 180,10 | 2.321,46 | 1.118,57 | 1.349,45 | 6.580,60 |
| – Getaria | 13.078,16 | 19,4 | 828,36 | 15.945,85 | 163,33 | 0,99 | 520,00 | 1.386,98 | 268,16 |
| – Ondarroa | 16.197,79 | 24,0 | 3.892,49 | 2.670,69 | 787,63 | 93,57 | 1.309,35 | 5.962,12 | 1.480,95 |
| – Lekeitio | 82,91 | 0,1 | 0,37 | 2,37 | 0,14 | 6,46 | 0,37 | 9,79 | 64,16 |
| – Bermeo | 7.243,73 | 10,8 | 1.187,61 | 2.683,88 | 30,26 | 180,48 | 15,59 | 2.618,83 | 527,07 |
| – Bizkaiko beste batzuk | 46,92 | 0,1 | 0,73 | 0,60 | 2,56 | 25,30 | 0,73 | 0,56 | 18,26 |
| GIPUZKOA, GUZTIRA | 43.854,99 | 65,0 | 1.310,78 | 27.222,69 | 344,06 | 2.357,15 | 1.652,99 | 3.961,72 | 7.005,60 |
| BIZKAIA, GUZTIRA | 23.570,35 | 35,0 | 5.081,20 | 5.357,54 | 820,58 | 305,81 | 1.326,03 | 8.591,31 | 2.090,44 |
| EUSKAL HERRIA, GUZTIRA | 67.425,34 | 100,0 | 6.391,97 | 32.580,23 | 1.164,64 | 2.662,96 | 2.979,02 | 12.553,03 | 9.096,04 |
| *Gipuzkoako %* | | | 3,0 | 62,1 | 0,8 | 5,4 | 3,8 | 9,0 | 16,0 |
| *Bizkaiko %* | | | 21,6 | 22,7 | 3,5 | 1,3 | 5,6 | 36,4 | 8,9 |
| *Euskal Herriko %* | | | 9,5 | 48,3 | 1,7 | 3,9 | 4,4 | 18,6 | 13,5 |

*(1): Legatza, merlenka eta tarteko legatza sartzen dira hemen.*
*(2): Berdela eta betaundia sartzen dira hemen.*
*(3): Barne hartzen ditu hegalaburra eta gainerako espezieak.*
*Iturria: HAZI. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila (Eusko Jaurlaritza).*

Espezieek hamarkadan zehar izan dituzten joerak askotarikoak izan dira, magnitude horiek aztertzen baditugu. Hegaluzeak gutxieneko zifra larriak eskuratu zituen 2014an, tona kopuruari zein balioari dagokienez, 3.000 tona inguru lehorreratu zituzten EAEko lonjetan, gero hazi egin zen kopurua eta 8.000 tona inguruan egonkortu da azken lau urteetan, EAEri esleitutako kuotarekin bat etorriz. Balioa askoz ere azkarrago igo da eta 2022an deigarria izan zen balioaren hazkundea, tona kopurua murriztu arren.

2012an 7.000 tona antxoa inguru lehorreratu zituzten; 2017an, debekualdia amaitutakoan, 17.000 tona ingurura igo zen zifra hori eta 2020an jaitsiera bortitza izan zuen, 3.000 tonatik behera kokatu baitzen –zifra horrek ez du barne hartzen Kantauri itsasoko mendebaldeko portuetan lehorreratutakoa–. Ondoren, suspertzen hasi zen. Jaitsiera handi hura larriagoa izan zen balioari dagokionez, azken urteetan prezioak behera egin baitu ale helduagoak lortzeko arazoak direla eta; izan ere, ale helduagoak eskatzen dituzte kontserba-enpresek.

**180. koadroa Antxoaren eta hegaluzearen arrantza-aldien bilakaera**

| Kontzeptua | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Antxoa** | | | | | |
| – Lehorreratzeak (Tm) | 15.112,1 | 13.284,9 | 2.584,1 | 3.540,0 | 5.350,0 |
| – Batez besteko prezioa (euro/kg) | 1,29 | 1,30 | 1,13 | 0,94 | 1,19 |
| – Balioa (mila euro) | 19.427,26 | 17.231,40 | 2.917,76 | 3.318,00 | 6.391,97 |
| **Hegaluzea** | | | | | |
| – Lehorreratzeak (Tm) | 8.448,0 | 7.968,7 | 7.924,4 | 8.142,0 | 7.802,3 |
| – Batez besteko prezioa (euro/kg) | 3,58 | 3,51 | 3,61 | 3,57 | 4,18 |
| – Balioa (mila euro) | 30.281,97 | 27.944,38 | 28.618,73 | 29.070,00 | 32.580,23 |

*Oharra: Kofradietako salmentak.*
*Iturria: HAZI. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila (Eusko Jaurlaritza).*

Arrantza-aldiak dira biak, udaberrian eta udan ontzidia okupatuta mantentzen dutenak. Aurreko hilabeteetan, ontzidiak berdela arrantzatzen du, batez ere, eta sardina eta txitxarro apur bat ere bai, zuhurtziagatik. Izan ere, arrantza-aldiak aurrerago iristen dira, eta gero eta ziurgabetasun gehiago izaten dira, 2022an egoera normaltasunera itzultzen hasi bazen ere. Hamarkadan zehar, berdelak gorabehera handiak izan ditu tona kopuruari dagokionez, baina beti mantendu da kopuru altuetan, 10.000 tonatik gertu, eta 10 milioiko balioaren inguruan. "Beste espezie batzuk" taldea ere egonkorra da, baina haren tona kopurua askoz ere txikiagoa da berdelarena baino. Aldiz, balioari dagokionez antzeko kopuruetan kokatzen dira. Bestetik, sardina, txitxarroa edota baxurako legatza beste espezieen azpitik kokatzen dira eta, gainera, haien tona kopuruak zein balioak behera egin dute; sardinaren tona kopuruari dagokionez, jaitsiera oso handia izan da.

Lehorreratze- eta salmenta-datuetatik eratorritako batez besteko prezioei dagokienez, ratioak oso ezberdinak dira multzoaren arabera. Hegaluzeak, baxurako legatzak eta "beste batzuk" taldeak osatzen duten multzoak kiloko 4 eta 4,5 euro arteko prezioa izan zuen 2022an. Aldiz, antxoak, sardinak, txitxarroak eta berdelak osatzen duten multzoak kiloko 1 eta 1,5 euroko prezioa izan zuten urte hartan, batez beste.

Lehenengo taldearen barruan, 3 kategoriek antzeko prezioa izan zuten, legatzaren prezioak behera egin zuelako eta hegaluzearen eta "beste batzuk" kapituluaren prezioak asko igo zirelako. "Beste batzuk" taldea oso ezberdina da Bizkaian (kiloko 2,6 euro inguruko ratioa) eta Gipuzkoan. Izan ere, Gipuzkoan, "beste batzuk" multzoan sartzen diren espezieak desberdinak dira, eta prezioa askoz ere altuagoa da; ondorioz, Bizkaiko ratioaren bikoitza dagokio. Prezio baxueneko multzoan, espezie guztien prezioek egin zuten gora. Antxoaren kasuan berezia izan zen igoera, hamarkadan zehar hainbat aldiz merkatu ondoren gora egin baitzuen. Gainerakoen kasuan, orokorrean, aurretik ere gora egiten ari ziren prezioak.



LABORAL kutxa

35. grafikoa Antxoaren eta hegaluzearen arrantza-aldiak







*Oharra: Kofradietako salmentak.*
*Iturria: HAZI. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila (Eusko Jaurlaritza).*

## 5.3 ALTURAKO ARRANTZA

Lehorreratzeen eta salmenten datu baliokideen jarraipena egitea zailagoa da alturako arrantzaren kasuan, datuak ez daudelako hain eskuragarri. Atzerapen handiagoz argitaratu zituzten datu horiek, eta espezializatutako enpresak ematen dituzte datuak, ez kofradiek eta lonjek. Dena den, aztertu ditugun portu batzuek badute alturako arrantza. 24 atunontzi-izoztaileen kasuan, denak Bermeori atxikita daude. Hori da, alde handiarekin, EAEko arrantzaren jarduera ekonomiko nagusia. Oso urruti arrantzatzen duten ontziak dira, esaterako, Ekialdeko Pazifikoan edo Indiako Ozeanoan. Atuna da EAEko arrantzaren espezie izarra, haren 5 barietateekin: atunzuria (hegaluzea), hegalaburra, atun argia, atuntxikia eta atun monja.

Bakailaoa arrantzatzen duten bi itsasontziek Artikotik gertuago dauden latitudeetan lan egiten dute, eta Pasaiari atxikita daude. Altura handiko azpisektorearen parte dira horiek ere. Bestetik, alturako gainerako sektorea (freskoko altura deritzona) osatzen duten 15 itsasontziak Ondarroan daude erregistratuta. Horiek ez dute hain urruti arrantzatzen, eta ez dute arraina ontzian bertan izozten.

2022ari buruz eskuragarri dauden datuak ontzidiaren tamainari buruzkoak dira. Atunontzi izoztaileei dagokienez, 2022an 2 ontzi gutxiago zituzten, 2021ean 26 ontzi zenbatu baitzituzten. Jarduera honetan jauzi handia eman zuten 2018an, 18 ontzitik 25era pasatu baitziren.

Bakailao-ontziak 2 dira 2015etik. Dena den, 2017an 3 ontzi erregistratu ziren EAEn, eta hamarkadaren hasieran 6. 2022an hazkunde handia izan zen potentziari dagokionez, baina tona kopurua ez zen igo. Hortaz, badirudi ontzi baten edo bi ontzien motorizazioa hobetu zutela. Tripulazioarekin lotutako datuak atunontzien datuekin bateratu ditugu, estatistika-sekretua gordetzeko. Bi azpisektoreak kontuan hartuta, 33 langile gutxiago zeuden 2022an; guztira, 717.

Ondarroako freskoko altura, berriz, gutxieneko zifretan dago ontzi kopuruari, tona kopuruari eta tripulazioari dagokienez. 2022an ontzi bat gutxiago zegoen, hau da, 15 ontzi; eta 9 langile gutxiago, hau da, 188. Hamarkadan zehar jaitsiera handia izan da: 2011n 28 ontzi eta 329 tripulatzaile zenbatu ziren azpisektore honetan.

**181. koadroa Euskal Herriko alturako ontzidiaren egitura, 2022**

| | Unitate kopurua | Potentzia ZP | EGT | Tripulatzaile kopurua |
|---|---|---|---|---|
| - Altura handia - atunontzi izoztaileak | 24 | 124.303 | 46.717 | (*) |
| - Altura handia - bakailao-ontziak | 2 | 5.084 | 1.650 | (*) |
| - Altura handia, guztira | 26 | 129.387 | 48.367 | 717 |
| - Freskoko altura | 15 | 8.672 | 3.091 | 188 |
| **Altura, guztira** | **41** | **138.059** | **51.458** | **905** |

*(*): Estatistika-sekretua gordetzeko, bakailao-ontzien langile kopuruaren datua atunontzi izoztaileen datuarekin bateratu dugu freskoko altura handiari dagokion guztizkoan.*

*Iturria: HAZI. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila (Eusko Jaurlaritza).*



# 5.ZERBITZUAK

# 1. IKUSPEGI OROKORRA

2022an % 5,5 hazi zen Estatuko BPGa. Testuinguru horretan, Euskal Herrian % 4,4 eta Nafarroan % 4,3 egin zuen gora.

Hirugarren sektorea bere osotasunean aintzat hartuta, 2022an % 4,7 hazi zen EAEn, % 5,2 Foru Erkidegoan eta % 6,5 Estatuan (aurreko ekitaldian, % 5,8, % 6,1 eta % 6ko igoerak, hurrenez hurren).

Horretara iritsita, txosten honen aurreko edizioetan bezala, komeni da gogora ekartzea sektorearen heterogeneotasunak zaildu egiten duela sektore osoa batera aztertzea. Hala ere, enplegua da adierazle egonkorrenetako bat. Horrekin lotuta, aipatzekoa da 2022an hirugarren sektoreko okupazio-tasa % 3 igo zela EAEn, % 5,5 Nafarroan (% 3,5 Euskal Herri osoan) eta % 3,6 Estatuan.

# 2. HEZKUNTZA

## 2.1 UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN IKASLEEN BILAKAERA

2022/2023 ikasturteko datuak aztertuta, aurreko ikasturteko beheranzko joera (-% 0,8) sendotu egin zen Euskal Herrian. Hala, unibertsitatekoak ez diren ikasleen matrikulazioak behera egin zuen berriz ere (-% 0,4). Hala, 478.190 ikasle zeuden unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan, 2021/2022 ikasturtean baino 1.715 gutxiago. Testuinguru horretan, Haur Hezkuntzako matrikulazioaren jaitsiera nabarmentzen da (-% 3,0). Jaitsiera handiagoa izan zen aurreko urteetan baino, eta, ezinbestean, goragoko hezkuntza mailetan ere islatuko da pixkanaka. Era berean, Lehen Hezkuntzako matrikulazioak ere behera egin zuen berriz (-% 1,1). Aldiz, positiboa izan zen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH), Batxilergoko eta Heziketa Zikloetako matrikulazioaren bilakaera (+% 2,0, +% 0,1 eta +% 1,3, hurrenez hurren).

### Haur Hezkuntza

Haur Hezkuntzako datuei eta matrikulazioari dagokienez, 2022/2023 ikasturtean 95.293 ikasle zenbatu ziren Euskal Herrian, aurreko ikasturtean baino 2.939 ikasle gutxiago (-% 3,0). 2022/2023 ikasturtean beherakada handiagoa izan zuen matrikulazio pribatuak, publikoak baino (-% 4,2 eta -% 2,1). Eta sare publikoan ikasle gehiago zeuden (% 57).

**182. koadroa Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Haur Hezkuntza**

| Eremua | 2021/2022 ikasturtea | | | 2022/2023 ikasturtea | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Publikoa | Pribatua | Guztira | Publikoa | Pribatua | Guztira |
| Araba | 7.715 | 4.782 | 12.497 | 7.496 | 4.496 | 11.992 |
| Bizkaia | 18.812 | 18.502 | 37.314 | 18.230 | 17.655 | 35.885 |
| Gipuzkoa | 13.387 | 12.125 | 25.512 | 12.981 | 11.712 | 24.693 |
| EAE | 39.914 | 35.409 | 75.323 | 38.707 | 33.863 | 72.570 |
| Nafarroa | 15.564 | 7.345 | 22.909 | 15.614 | 7.109 | 22.723 |
| Euskal Herria | 55.478 | 42.754 | 98.232 | 54.321 | 40.972 | 95.293 |

*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.*

Azterketa EAEra mugatuta, hiru lurralde historikoetan egin zuen behera Haur Hezkuntzan matrikulatutako ikasle kopuruak, jaiotza tasaren jaitsiera progresiboarekin bat etorriz. Bizkaian 35.885 ikasle zeuden matrikulatuta, bi sareen artean nahiko modu homogeneoan banatuta (% 50,8 publikoan eta % 49,2 pribatuan). Halere, matrikulazioaren jaitsiera handiagoa izan zen zentro pribatuetan (-% 4,6), publikoetan baino (-% 3,1). Gipuzkoan 24.693 ikasle zeuden Haur Hezkuntzan matrikulatuta. Lurralde horretan ere behera egin zuen matrikulazioak (-% 3,2), bai hezkuntza publikoan (-% 3,0), bai pribatuan (-% 3,4). Sare publikoaren pisua apur bat handiagoa zen (% 52,6). Araban 11.992 ikasle zeuden matrikulatuta Haur Hezkuntzan, eta 10etik 6k sare publikoa aukeratu zuten (% 62,5). Bi

sareek izan zuten jaitsiera, baina sare pribatuaren kasuan nabarmenagoa izan zen (pribatuak -% 6 eta publikoak -% 2,8). Nafarroari dagokionez, 22.723 ikasle zeuden Haur Hezkuntzan. Sare publikoak ikasle gehiago jaso zituen (% 68,7) eta ikasleen bolumena mantentzea lortu zuen (+% 0,3). Ikastetxe pribatuetan, berriz, % 3,2 murriztu zen ikasle kopurua.

Hala, 2022/2023 ikasturtean, EAEn 72.570 ikasle zeuden Haur Hezkuntzan matrikulatuta, aurreko ikasturtean baino 2.753 gutxiago. Nafarroako Foru Erkidegoan 22.723 ikasle matrikulatu ziren, aurreko ikasturtean baino 186 gutxiago.

**183. koadroa Euskalduntze maila Haur Hezkuntza**

*(%)*

| Eremua | 2021/2022 ikasturtea | | | | | 2022/2023 ikasturtea | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | A | B | D | X | Guztira | A | B | D | X | Guztira |
| Araba | 2,8 | 27,3 | 69,9 | 0,1 | 100 | 2,8 | 25,9 | 71,2 | 0,1 | 100 |
| Bizkaia | 1,7 | 19,5 | 77,8 | 1,0 | 100 | 1,2 | 19,5 | 78,4 | 0,9 | 100 |
| Gipuzkoa | 1,9 | 3,0 | 95,1 | 0,0 | 100 | 1,8 | 3,3 | 95,0 | 0,0 | 100 |
| EAE | 1,9 | 15,2 | 82,4 | 0,5 | 100 | 1,6 | 15,0 | 82,9 | 0,5 | 100 |
| Nafarroa* | 15,6 | 1,3 | 27,0 | 56,1 | 100 | 15,2 | 1,3 | 27,8 | 55,7 | 100 |
| Euskal Herria | 5,1 | 12,0 | 69,4 | 13,5 | 100 | 4,9 | 11,8 | 69,7 | 13,6 | 100 |
| Pribatua | 4,6 | 25,4 | 57,1 | 13,0 | 100 | 4,2 | 25,5 | 57,2 | 13,1 | 100 |
| Publikoa | 5,5 | 1,6 | 79,0 | 13,9 | 100 | 5,4 | 1,4 | 79,1 | 14,1 | 100 |

*Oharra: Hezkuntza-ereduen eta zentro motaren araberako ikasleen banaketa Euskal Herri osoari dagokio.*
*A: Hezkuntza gaztelaniaz; euskara beste irakasgai bat baino ez da.*
*B: Irakaskuntza elebiduna.*
*D: Hezkuntza euskaraz; gaztelania beste irakasgai bat baino ez da.*
*X: Euskararekin inolako harremanik ez duen hezkuntza.*
*(*): Nafarroaren kasuan, euskararekin inolako harremanik ez duen hezkuntzari ofizialki G deitzen zaio.*
*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.*

Ikastetxeetan presente dauden hizkuntza ereduen araberako ikasleen banaketari dagokionez, D ereduaren pisua nabarmendu zen (Hezkuntza euskaraz; gaztelania beste irakasgai bat baino ez da), hazten jarraitu baitzuen, bereziki, EAEn. Hala, Bizkaian, Haur Hezkuntzako ikasleen % 78,4 matrikulatu ziren aipatutako irakaskuntza ereduan, % 19,5ek B eredua (Irakaskuntza elebiduna) aukeratu zuten, eta oso ikasle gutxi matrikulatu ziren A ereduan (Hezkuntza gaztelaniaz; euskara beste irakasgai bat baino ez da) eta X ereduan (Euskararekin inolako harremanik ez duen hezkuntza): % 1,2 eta % 0,9 hurrenez hurren. Gipuzkoan, D eredua historiako gehieneko balioetara gerturatu zen (% 95), ordezkaritza txikia duten gainerako ereduen kaltetan. Araban, ikasleen % 71,2 matrikulatu ziren D ereduan; % 25,9, B ereduan, eta % 2,8, A ereduan. X ereduaren ordezkaritza, berriz, oso txikia izan zen (% 0,1). Aitzitik, Nafarroan, Haur Hezkuntzako ikasleen erdiek baino gehiagok aukeratu zuten X eredua (% 55,7), % 27,8 D eredua hautatu zuten eta % 15,2k A eredua. B ereduaren ordezkaritza eskasa izan zen (% 1,3).



LABORAL kutxa

Gauzak hala, EAEko euskalduntze maila (D eredua gehi B eredua) gehieneko balioetara hurbildu zen (% 97,9). Nafarroan, aldiz, adierazle hori % 29,1era jaitsi zen. Hala, Euskal Herri osoko tasa % 81,5koa izan zen.

### Lehen Hezkuntza

Lehen Hezkuntzako datuak aztertuz gero, Euskal Herrian 166.524 ikasle matrikulatu ziren 2022/2023 ikasturtean, aurreko ikasturtean baino % 1,1 gutxiago. Balio absolutuetan, 1.802 ikasle gutxiago matrikulatu ziren. Aurreko ikasturtean bezala, ikasle gehiago jaso zituen sare publikoak (% 55,4), baina bi sareek antzeko bilakaera izan zuten (-% 1,0 eta -% 1,1).

**184. koadroa Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Lehen Hezkuntza**

| Eremua | 2021/2022 ikasturtea | | | 2022/2023 ikasturtea | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Publikoa | Pribatua | Guztira | Publikoa | Pribatua | Guztira |
| Araba | 12.533 | 8.372 | 20.905 | 12.346 | 8.288 | 20.634 |
| Bizkaia | 31.302 | 31.770 | 63.072 | 30.912 | 31.360 | 62.270 |
| Gipuzkoa | 21.387 | 20.469 | 41.856 | 21.036 | 20.077 | 41.113 |
| EAE | 65.222 | 60.611 | 125.833 | 64.294 | 59.725 | 124.019 |
| Nafarroa | 28.040 | 14.453 | 42.493 | 28.028 | 14.477 | 42.505 |
| Euskal Herria | 93.262 | 75.064 | 168.326 | 92.322 | 74.202 | 166.524 |

*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.*

Haur Hezkuntzaren kasuan bezala, Lehen Hezkuntzan ere matrikulazioak behera egin zuen aztertutako lurralde guztietan, Nafarroan izan ezik; azken horretan mantendu egin zen. Hala, Bizkaitik hasita, 2022/23 ikasturtean 62.270 ikasle zenbatu ziren guztira, bi sareen artean modu orekatuan banatuta. Jaitsiera ere berbera izan zen bi sareetan (-% 1,3 ingurukoa). Gipuzkoan 41.113 ikasle matrikulatu ziren eta sare publikoaren pisua apur bat handiagoa izan zen (% 51,2). Bilakaerari dagokionez, irakaskuntza pribatuak bilakaera okerragoa izan zuen (-%1,9) publikoak (-% 1,6) baino. Araban 20.634 ikasle matrikulatu ziren Lehen Hezkuntzan. Sare publikoak jaitsiera handiagoa izan zuen (-% 1,5) pribatuak (-% 1,0) baino. Halere, sare publikoak ikasle gehiago jaso zituen (% 59,8).

Bestalde, Nafarroa izan zen maila honetan matrikulazioa mantentzea lortu zuen lurralde bakarra. 42.500 ikasle inguru matrikulatu ziren, eta urte arteko aldakuntza sumagaitza izan zen ia. Testuinguru horretan, sare publikoak pisu handiagoa izan zuen (% 65,9) pribatuak baino (% 34,1).

**185. koadroa Euskalduntze maila Lehen Hezkuntza**

*(%)*

| Eremua | 2021/2022 ikasturtea | | | | | 2022/2023 ikasturtea | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | A | B | D | X | Guztira | A | B | D | X | Guztira |
| Araba | 4,4 | 32,6 | 62,9 | 0,0 | 100 | 4,3 | 31,8 | 63,9 | 0,1 | 100 |
| Bizkaia | 3,2 | 22,4 | 72,8 | 1,6 | 100 | 3,1 | 21,4 | 73,9 | 1,6 | 100 |
| Gipuzkoa | 2,5 | 4,8 | 92,7 | 0,0 | 100 | 2,5 | 4,4 | 93,0 | 0,0 | 100 |
| EAE | 3,2 | 18,3 | 77,8 | 0,8 | 100 | 3,1 | 17,5 | 78,6 | 0,8 | 100 |
| Nafarroa | 19,0 | 0,2 | 26,3 | 54,4 | 100 | 18,6 | 0,2 | 26,2 | 55,0 | 100 |
| Euskal Herria | 7,2 | 13,7 | 64,8 | 14,4 | 100 | 7,1 | 13,1 | 65,2 | 14,6 | 100 |
| Pribatua | 7,0 | 27,9 | 51,0 | 14,1 | 100 | 6,8 | 27,0 | 51,8 | 14,4 | 100 |
| Publikoa | 7,3 | 2,3 | 75,9 | 14,5 | 100 | 7,3 | 1,9 | 76,0 | 14,8 | 100 |

*Oharra: Hezkuntza-ereduen eta zentro motaren araberako ikasleen banaketa Euskal Herri osoari dagokio.*
*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.*

Lehen Hezkuntzako euskalduntze tasari dagokionez, D ereduak gora egiten jarraitu zuen EAEn, bereziki, Gipuzkoan: 10 ikasletik 9k (% 93) aukeratu zuten hizkuntza eredu hori. Bizkaian eta Araban ere D ereduak gora egin zuen eta ikasle gehienek aukeratu zuten (% 73,9 eta % 63,9, hurrenez hurren); B eredua izan zen hurrengo aukera (% 21,4 eta % 31,8); eta, azkenik, distantzia handira, A eredua (% 3,1 eta % 4,3). X eredua Araban (% 0,1) eta Bizkaian (% 1,6) bakarrik zegoen, eta haren pisua oso txikia izan zen. Nafarroako Foru Erkidegoari dagokionez, X eredua izan zen gora egin zuen bakarra, eta ikasleen erdiak baino apur bat gehiago hartu zituen (% 55). D ereduak (% 26,2), A ereduak (% 18,6) eta B ereduak (% 0,2) osatu zuten mapa.

Horren guztiaren ondorioz, EAEko euskalduntze tasa % 96,1era igo zen. Nafarroan, berriz, % 26,4ra jaitsi zen. Hala, Euskal Herriko osoko euskalduntze tasa % 78,3koa izan zen.

### Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)

Azterketarekin jarraituz eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari (DBH) dagokionez, 2022/23 ikasturtean 118.557 ikasle matrikulatu ziren Euskal herrian, aurreko ikasturtean baino 2.286 gehiago (+% 2). Sare publikoko matrikulazioaren igoera nabarmendu zen (+% 2,9). Sare pribatuak, berriz, hazkunde txikiagoa izan zuen (+% 1). Gainera, ikastetxe publikoek ikasle gehiago jaso zituzten (% 51,2).

**186. koadroa Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. DBH**

| Eremua | 2021/2022 ikasturtea | | | 2022/2023 ikasturtea | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Publikoa | Pribatua | Guztira | Publikoa | Pribatua | Guztira |
| Araba | 6.849 | 6.863 | 13.712 | 7.152 | 7.015 | 14.167 |
| Bizkaia | 19.553 | 23.838 | 43.391 | 19.948 | 24.033 | 43.981 |
| Gipuzkoa | 14.741 | 15.492 | 30.233 | 15.031 | 15.676 | 30.707 |
| EAE | 41.143 | 46.193 | 87.336 | 42.131 | 46.724 | 88.855 |
| Nafarroa | 17.847 | 11.088 | 28.935 | 18.557 | 11.145 | 29.702 |
| Euskal Herria | 58.990 | 57.281 | 116.271 | 60.688 | 57.869 | 118.557 |

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

Lurraldeen arabera, datuek erakusten dutenez, DBHko matrikulazioak gora egin zuen lurralde guztietan. Bizkaian 43.981 ikasle matrikulatu ziren 2022/23 ikasturtean, aurreko ikasturtean baino % 1,4 gehiago. Sare publikoak (+% 2,0) hazkunde handiagoa izan zuen, eta sare pribatua nahiko egonkor mantendu zen (+% 0,8). Dena den, azken horrek jaso zituen ikasle gehien (% 54,6). Gipuzkoako emaitzak antzekoak izan ziren. 30.707 ikasle matrikulatu ziren DBHn eta ikastetxe publikoek bilakaera hobea izan zuten pribatuek baino (+% 2 eta +% 1,2). Testuinguru horretan, sare pribatuaren kuota apur bat handiagoa izan zen (% 51,1). Araban, DBHko ikasle kopurua 14.167koa izan zen, eta sare publikoak hazkunde handiagoa izan zuen pribatuak baino (+% 4,4 eta +% 2,2). Hala, sare publikoaren pisu erlatiboak alde txiki bat erregistratu zuen sare pribatuarekiko (% 50,5). Nafarroari dagokionez, azken ikasturtean 29.702 ikasle zenbatu ziren DBHn, gehienak ikastetxe publikoetan (% 62,5). Gainera, ikastetxe publikoetan igoera handiagoa izan zuen matrikula kopuruak (+% 4; eta irakaskuntza pribatuan +% 0,5).

Hala, 2022/23 ikasturtean EAEn 88.855 ikasle matrikulatu ziren DBHn, aurreko ikasturtean baino 1.519 gehiago. Nafarroan, aldiz, 29.702 ikasle matrikulatu ziren, aurreko ikasturtean baino 767 gehiago.

**187. koadroa Euskalduntze maila DBH**

*(%)*

| Eremua | 2021/2022 ikasturtea | | | | | 2022/2023 ikasturtea | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | A | B | D | X | Guztira | A | B | D | X | Guztira |
| Araba | 11,7 | 34,2 | 54,0 | 0,0 | 100 | 11,6 | 33,5 | 54,8 | 0,0 | 100 |
| Bizkaia | 6,4 | 26,2 | 66,1 | 1,3 | 100 | 5,8 | 26,0 | 66,7 | 1,5 | 100 |
| Gipuzkoa | 2,6 | 8,5 | 88,9 | 0,0 | 100 | 2,5 | 7,4 | 90,1 | 0,0 | 100 |
| EAE | 5,9 | 21,3 | 72,1 | 0,6 | 100 | 5,6 | 20,8 | 72,9 | 0,8 | 100 |
| Nafarroa | 7,8 | 0,0 | 24,6 | 67,5 | 100 | 7,6 | 0,0 | 23,9 | 68,5 | 100 |
| Euskal Herria | 6,4 | 16,0 | 60,3 | 17,3 | 100 | 6,1 | 15,6 | 60,6 | 17,7 | 100 |
| Pribatua | 8,4 | 29,5 | 46,3 | 15,8 | 100 | 7,8 | 29,1 | 47,0 | 16,0 | 100 |
| Publikoa | 4,5 | 2,9 | 73,9 | 18,8 | 100 | 4,4 | 2,7 | 73,6 | 19,4 | 100 |

*Oharra: Hezkuntza-ereduen eta zentro motaren araberako ikasleen banaketa Euskal Herri osoari dagokio.*

*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.*

Ikasleen banaketari dagokionez, hizkuntza ereduaren arabera, D ereduak nagusi izaten jarraitu zuten Bizkaian (% 66,7), Araban (% 54,8) eta, batez ere, Gipuzkoan (% 90,1). B eredua bigarren postuan kokatu zen; % 26ko ordezkaritza izan zuen Bizkaian, % 33,5ekoa Araban eta % 7,4koa Gipuzkoan. A ereduak, bestetik, nolabaiteko presentzia mantendu zuen Araban, % 11,6ko kuotarekin. Bizkaian % 5,8ra jaitsi zen eta, Gipuzkoan, % 2,5era. X eredua Bizkaian baino ez da eskaintzen eta hondarreko pisua izan zuen (% 1,5). Nafarroan, bestalde, X ereduak du pisu handiena (% 68,5). Jarraian, D eredua (% 23,9) kokatzen da eta, pisu espezifiko askoz ere txikiagoarekin, A eredua (% 7,6).

Horren guztiaren ondorioz, Euskal Herrian DBHko euskalduntze maila % 76,2koa izan zen: EAEn % 93,7koa eta Nafarroako Foru Erkidegoan % 23,9koa.

**36. grafikoa Unibertsitatekoak ez diren ikasleen matrikulazioen bilakaera Euskal Herrian**

**Haur hezkuntza + Lehen hezkuntza + DBH**




(Indizea 81-82= 100)

**Batxilergoa + Lanbide Heziketa (Oinarrizkoa + Erdi-mailakoa + Goi-mailakoa)**




*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.*

### Erdi-mailako irakaskuntza

*Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi Mailakoa eta Goi Mailakoa.*

Arreta erdi-mailako irakaskuntzan eta, zehazki, Lanbide Heziketan jarrita (Oinarrizkoa, Erdi Mailakoa eta Goi Mailakoa), Euskal Herriko ikasle kopuruak gora egin zuen berriz (+% 1,3), eta guztira 56.320 ikasle matrikulatu ziren, aurreko ikasturtean baino 705 gehiago.

Bi sareetan igo zen ikasle kopurua, baina sare publikoan neurri handiagoan (+% 1,8; eta pribatuan +% 0,5). Halaber, sare publikoak jaso zuen ikasle gehien (% 60,5).

**188. koadroa Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi Mailakoa eta Goi Mailakoa**

| Eremua | 2021/2022 ikasturtea | | | 2022/2023 ikasturtea | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Publikoa | Pribatua | Guztira | Publikoa | Pribatua | Guztira |
| Araba | 3.775 | 2.878 | 6.653 | 3.746 | 2.880 | 6.626 |
| Bizkaia | 10.395 | 10.606 | 21.001 | 10.553 | 10.761 | 21.314 |
| Gipuzkoa | 10.987 | 5.930 | 16.917 | 11.278 | 5.914 | 17.192 |
| EAE | 25.157 | 19.414 | 44.571 | 25.577 | 19.555 | 45.132 |
| Nafarroa | 8.302 | 2.742 | 11.044 | 8.482 | 2.706 | 11.188 |
| Euskal Herria | 33.459 | 22.156 | 55.615 | 34.059 | 22.261 | 56.320 |

*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.*

Datuetan sakonduz eta EAEri dagokionez, Lanbide Heziketako ikasle kopurua % 1,3 hazi zen, eta matrikulazio publikoak izan zuen bilakaerarik onena (+% 1,7; pribatuak +% 0,7). Gipuzkoako matrikulazioaren kasuan, bilakaera bera izan zen. 17.192 ikasle matrikulatu ziren Lanbide Heziketan, horietako % 65,6 sare publikoan. Hala, sare publikoak gora egin zuen (+% 2,6) eta pribatuak, berriz, ez zuen hazkunderik izan (-% 0,3). Bizkaian 21.314 ikasle matrikulatu ziren, eta bi sareek bilakaera bera izan zuten (+% 1,5). Sare pribatuaren pisua apur bat handiagoa izan zen (% 50,5). Gainerako lurralde historikoetan ez bezala, Araban % 0,4 egin zuen behera matrikulazioak, sare publikoaren bilakaerak (-% 0,8 eta ikasleen % 56,5) baldintzatuta. Hala, irakaskuntza pribatuan erregistratutako hazkunde txikia (+% 0,1) ez zen nahikoa izan beheranzko joera alderantzikatzeko. Bestetik, Nafarroan, Lanbide Heziketako ikasle kopurua % 1,3 hazi zen, ikastetxe publikoetan gora egin baitzuten matrikulek (+% 2,2); ikasleen % 75,8 jasotzen ditu sare publikoak. Arlo pribatuko matrikulazioak, berriz, behera egin zuen (-% 1,3).

Ondorioz, EAEn 2022/23 ikasturtean 45.132 ikasle matrikulatu ziren Lanbide Heziketan, aurreko ikasturtean baino 561 gehiago. Nafarroan 11.188 ikasle matrikulatu ziren, aurreko ikasturtean baino 144 gehiago, eta sare publikoan pilatu zen hazkundea.

**189. koadroa Euskalduntze maila**
**Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi Mailakoa eta Goi Mailakoa**

(%)

| Eremua | 2021/2022 ikasturtea | | | | | 2022/2023 ikasturtea | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | A | B(*) | D | X | Guztira | A | B(*) | D | X | Guztira |
| Araba | 70,8 | 19,8 | 9,4 | 0,0 | 100 | 66,9 | 22,6 | 10,5 | 0,0 | 100 |
| Bizkaia | 65,0 | 21,9 | 13,1 | 0,0 | 100 | 63,0 | 22,2 | 14,8 | 0,0 | 100 |
| Gipuzkoa | 41,4 | 19,1 | 39,5 | 0,0 | 100 | 41,8 | 17,4 | 40,8 | 0,0 | 100 |
| EAE | 56,9 | 20,5 | 22,6 | 0,0 | 100 | 55,5 | 20,5 | 24,0 | 0,0 | 100 |
| Nafarroa | 0,0 | 0,0 | 7,3 | 92,7 | 100 | 0,0 | 0,0 | 8,2 | 91,8 | 100 |
| Euskal Herria | 45,6 | 16,4 | 19,6 | 18,4 | 100 | 44,5 | 16,4 | 20,9 | 18,2 | 100 |
| Pribatua | 59,3 | 17,0 | 11,4 | 12,4 | 100 | 57,6 | 18,1 | 12,2 | 12,2 | 100 |
| Publikoa | 36,5 | 16,1 | 25,0 | 22,4 | 100 | 35,9 | 15,3 | 26,6 | 22,2 | 100 |

*Oharra: Hezkuntza-ereduen eta zentro motaren araberako ikasleen banaketa Euskal Herri osoari dagokio.*

*(*): Batxilergorako eta Lanbide Heziketarako, A eta D ereduak baino ez daude legez, baina A ereduko talde batzuek irakasgai batzuk euskaraz ematen dituzte, eta modalitate hori, A eredu indartu gisa ezagutzen dena, B eredura hurbil daiteke.*

*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.*

Euskalduntze mailari dagokionez, Lanbide Heziketako hizkuntza mapak ez du antzik beste ikasmailetakoekin. Hala, Araban eta Bizkaian A eredua gailendu zen (% 66,9 eta % 63, hurrenez hurren), gero B eredua kokatu zen (% 22,6 eta % 22,2) eta, azkenik, D eredua (% 10,5 eta % 14,8). Gipuzkoan gehiago banatu ziren ikasleak: % 41,8 A ereduan matrikulatu ziren, % 40,8 D ereduan eta % 17,4 B ereduan. Nafarroan, X eredua gehieneko zifretara hurbildu zen (% 91,8), eta D ereduak osatu zuen mapa, % 8,2ko kuotarekin.

Hortaz, EAEn irakasmaila horretako euskalduntze tasa % 44,5ekoa izan zen eta Nafarroan % 8,2koa. Hortaz, Euskal Herri osoko euskalduntze tasa % 37,3koa izan zen.

## Batxilergoa

Batxilergoko matrikulazioaren bilakaerari dagokionez, Euskal Herrian 41.496 ikasle matrikulatu ziren 2022/23 ikasturtean. Hala, egonkortasuna nabarmendu zen, matrikula kopurua ez baitzen ia hazi (+% 0,1; 35 ikasle gehiago). EAEn matrikulazioak behera egin zuen ikastetxe publikoetan (-% 1,5) eta gora ikastetxe pribatuetan (+% 1,3). Ondorioz, ikastetxe pribatuek pisu handiago izan zuten eskolen mapan (ikasleen % 52,4). Nafarroako egoera nahiko egonkorra izan zen eta matrikulazioak urte arteko % 0,5eko hazkundea izan zuen, sare pribatuak gora egin baitzuen (+% 1,2). Sare publikoak, berriz, ez zuen aldaketarik izan (% 0,0).



LABORAL kutxa

**190. koadroa Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Batxilergoa**

| Eremua | 2021/2022 ikasturtea | | | 2022/2023 ikasturtea | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Publikoa | Pribatua | Guztira | Publikoa | Pribatua | Guztira |
| Araba | 2.562 | 2.391 | 4.953 | 2.676 | 2.449 | 5.125 |
| Bizkaia | 7.705 | 8.730 | 16.435 | 7.455 | 8.760 | 16.215 |
| Gipuzkoa | 5.480 | 5.769 | 11.249 | 5.386 | 5.904 | 11.290 |
| EAE | 15.747 | 16.890 | 32.637 | 15.517 | 17.113 | 32.630 |
| Nafarroa | 5.287 | 3.537 | 8.824 | 5.287 | 3.579 | 8.866 |
| Euskal Herria | 21.034 | 20.427 | 41.461 | 20.804 | 20.692 | 41.496 |

*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.*

Datuak lurraldearen arabera aztertuta, eta Bizkaiarekin hasita, 2022/23 ikasturtean 16.215 ikasle matrikulatu ziren Batxilergoan, aurreko ikasturtean baino % 1,3 gutxiago, sare publikoko matrikulazioaren beherakadak (-% 3,2; eta guztizkoaren % 46) eta sare pribatuaren hazkunde apalak (+% 0,3) baldintzatuta; azken horren hazkundea ez zen nahikoa izan beherakada konpentsatzeko. Diagnostiko bera Gipuzkoarentzat. Sare pribatua indartu egin zen (% 52,3), ikasle kopuruak gora egin zuelako (+% 2,3). Sare publikoan, berriz, behera egin zuen matrikulazioak (-% 1,7). Guztira, 11.290 ikasle matrikulatu ziren Batxilergoan. Araban 5.215 ikasle matrikulatu ziren Batxilergoan. Hala, 2022/23 ikasturtean bi sareetan igo zen matrikulazioa, baina hazkundea handiagoa izan zen sare publikoan (+% 4,4 eta +% 2,4); aldi berean, publikoak partaidetza handiagoa izan zuen (% 52,2). Sare publikoak Batxilergoko 10 ikasletik 6 jaso zituen Nafarroan, eta haren zifrak ez ziren aldatu aurreko ikasturtearekiko. Sare pribatuko matrikulazioa, berriz, apur bat hazi zen (+% 1,2).

Hala, EAEn 32.630 ikasle matrikulatu ziren Batxilergoan, aurreko ikasturtean baino 7 gutxiago. Nafarroan, berriz, 8.866 matrikulatu ziren, aurreko ikasturtean baino 42 gehiago.

**191. koadroa Euskalduntze maila Batxilergoa**

*(%)*

| Eremua | 2021/2022 ikasturtea | | | | | 2022/2023 ikasturtea | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | A | B | D | X | Guztira | A | B | D | X | Guztira |
| Araba | 35,3 | 10,9 | 53,8 | 0,0 | 100 | 33,5 | 12,2 | 54,3 | 0,0 | 100 |
| Bizkaia | 29,5 | 5,5 | 63,3 | 1,6 | 100 | 29,3 | 5,8 | 63,3 | 1,5 | 100 |
| Gipuzkoa | 15,2 | 5,2 | 79,6 | 0,0 | 100 | 14,1 | 6,4 | 79,5 | 0,0 | 100 |
| EAE | 25,5 | 6,3 | 67,5 | 0,6 | 100 | 24,7 | 7,0 | 67,5 | 0,8 | 100 |
| Nafarroa | 3,8 | 0,0 | 25,6 | 70,6 | 100 | 3,6 | 0,0 | 25,4 | 70,9 | 100 |
| Euskal Herria | 20,8 | 4,9 | 58,5 | 15,7 | 100 | 20,2 | 5,5 | 58,5 | 15,8 | 100 |
| Pribatua | 31,1 | 8,9 | 43,7 | 16,3 | 100 | 29,8 | 9,9 | 44,1 | 16,2 | 100 |
| Publikoa | 10,9 | 1,1 | 73,0 | 15,1 | 100 | 10,7 | 1,2 | 72,8 | 15,3 | 100 |

*Oharra: Hezkuntza-ereduen eta zentro motaren araberako ikasleen banaketa Euskal Herri osoari dagokio.*

*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.*

Hizkuntza ereduaren araberako banaketari dagokionez, Batxilergoan D eredua nabarmendu zen EAEn (% 67,5), eta X eredua Nafarroan (ikasleen % 70,9). Gipuzkoan eta Bizkaian D eredua mantendu zen buruan (ikasleen % 79,5 eta % 63,3, hurrenez hurren). A eredua izan zen hurrengoa, % 14,1eko eta % 29,3ko kuotekin, hurrenez hurren. Gainerako ereduen pisua, berriz, oso eskasa izan zen. Araban hizkuntza ereduen mapa orekatuagoa izan zen. Ikasleen erdiak D ereduan matrikulatu ziren (% 54,3), heren bat (% 33,5) A ereduan eta gainerako % 12,2ak B ereduan.

Horren guztiaren ondorioz, euskalduntze tasa % 74,5ekoa izan zen EAEn eta % 25,4koa Nafarroan. Hala, Euskal Herriko euskalduntze tasa % 64koa zen.

## 2.2 UNIBERTSITATEKO IKASLEEN BILAKAERA

2022/23 ikasturtean berriz ere gora egin zuen unibertsitateko ikasle kopuruak (+% 2,3). Izan ere, Euskal Herriko eskaintza osatzen duten bost unibertsitateetan egin zuen gora matrikulazioak, neurri handiagoan edo txikiagoan. Hala, 68.043 ikasle matrikulatu ziren bi unibertsitate publikoetan (Euskal Herriko Unibertsitatea EHU eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa) eta hiru pribatuetan (Nafarroako Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea).

Unibertsitate bakoitzaren pisuari dagokionez, EHU nabarmendu zen, Euskal Herriko ikasleen erdiak baino zerbait gehiago (% 51,4) jaso baitzituen. Jarraian, honakoak kokatu ziren, antzeko pisu erlatiboekin: Deustuko Unibertsitatea (% 14,2), Nafarroako Unibertsitatea (% 14) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa (% 12). Azkenik, Mondragon Unibertsitateak osatu zuen hezkuntza mapa (% 8,4).

Lurraldearen arabera, Bizkaiak buruan egoten jarraitu zuen, jasotzen duen unibertsitateko ikasle kopuruari dagokionez: ikasle guztien % 39,5. Gipuzkoa (% 25,9), Nafarroa (% 24,5) eta Araba (% 10,1) izan ziren hurrengoak.

**192. koadroa Ikasleen eta irakasleen bilakaera Euskal Herriko unibertsitateetan**

| Unibertsitatea eta lurraldeak | Ikasleak | | Irakasleak | |
|---|---|---|---|---|
| | 21/22 ikasturtea | 22/23 ikasturtea(*) | 21/22 ikasturtea | 22/23 ikasturtea(*) |
| **Euskal Herriko Unibertsitatea** | **34.955** | **35.002** | **5.665** | **5.834** |
| Araba | 6.766 | 6.840 | 1.007 | 1.045 |
| Bizkaia | 19.408 | 19.323 | 3.227 | 3.312 |
| Gipuzkoa | 8.781 | 8.839 | 1.431 | 1.477 |
| **Nafarroako Unibertsitatea** | **9.249** | **9.527** | **1.065** | **1.104** |
| Nafarroa | 8.239 | 8.508 | 920 | 962 |
| Gipuzkoa | 1.010 | 1.019 | 145 | 142 |
| **Nafarroako Unibertsitate Publikoa** | **7.826** | **8.137** | **1.064** | **1.147** |
| Nafarroa | 7.826 | 8.137 | 1.064 | 1.147 |
| **Deustuko Unibertsitatea** | **9.147** | **9.675** | **2.138** | **2.428** |
| Bizkaia | 7.245 | 7.578 | 1.818 | 2.078 |
| Gipuzkoa | 1.902 | 2.097 | 320 | 350 |
| **Mondragon Unibertsitatea (1)** | **5.321** | **5.702** | **626** | **656** |
| Gipuzkoa | 5.321 | 5.702 | 626 | 656 |
| **Guztira** | **66.498** | **68.043** | **10.558** | **11.169** |
| Araba | 6.766 | 6.840 | 1.007 | 1.045 |
| Bizkaia | 26.653 | 26.901 | 5.045 | 5.390 |
| Gipuzkoa | 17.014 | 17.657 | 2.522 | 2.625 |
| EAE | 50.433 | 51.398 | 8.574 | 9.060 |
| Nafarroa | 16.065 | 16.645 | 1.984 | 2.109 |

*(*): Behin-behineko datuak.*

*Iturria: EHU, Nafarroako Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea eta irakaskuntzaren estatistika.*

Irakasleei dagokienez, guztizko plantilla asko igo zen. Hala, irakasle kopurua % 5,7 hazi zen eta 11.169 irakasle izatera iritsi ziren. Unibertsitate guztietan egin zuen gora irakasle kopuruak. Zehatzago esanda, Euskal Herriko Unibertsitateak 5.834 irakasle zituen, hau da, % 3,0ko hazkundea izan zuen. Nafarroako Unibertsitateak ere antzeko bilakaera izan zuen (+% 3,7) eta 1.104 irakaslera iritsi zen. Bestetik, Mondragon Unibertsitatean urte arteko % 4,8 hazkundea izan zuen irakasle kopuruak, eta 656 irakasle izan zituen. Hazkundea handiagoa izan zen Nafarroako Unibertsitate Publikoan (+% 7,8) eta Deustuko Unibertsitatean (+% 13,6), eta 1.147 eta 2.428 irakaslera heldu ziren.

Jarraian, Euskal Herriko unibertsitateetan ikasleek izandako bilakaeraren xehetasunak aurkezten dira.

193. koadroa Ikasleen banaketa UPV/EHUn

| Lurralde historikoa | 21/22 ikasturtea | 22/23 ikasturtea(*) | % | % Δ aurreko urtean |
|---|---|---|---|---|
| **Araba** | **6.766** | **6.840** | **100,0** | **1,1** |
| Farmazia Fakultatea | 1.276 | 1.261 | 18,4 | -1,2 |
| Filologia, Geografia eta Historia Fakultatea | 2.094 | 2.139 | 31,3 | 2,1 |
| Irakasleen UE | 1.105 | 1.128 | 16,5 | 2,1 |
| Industria Ingeniaritza Teknikoko UE | 824 | 838 | 12,3 | 1,7 |
| Gizarte Laneko UE | 538 | 529 | 7,7 | -1,7 |
| Enpresa Zientzien UE | 464 | 480 | 7,0 | 3,4 |
| Jarduera Fiskoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatea | 465 | 465 | 6,8 | 0,0 |
| **Bizkaia** | **19.408** | **19.323** | **100,0** | **-0,4** |
| Zientziak eta Teknologia Fakultatea | 2.653 | 2.607 | 13,5 | -1,7 |
| Arte Ederren Fakultatea | 1.188 | 1.171 | 6,1 | -1,4 |
| Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea | 2.586 | 2.539 | 13,1 | -1,8 |
| Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea | 2.410 | 2.390 | 12,4 | -0,8 |
| Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea | 2.315 | 2.349 | 12,2 | 1,5 |
| Industria Ingeniaritzako eta Telekomunikazioetako GET | 1.692 | 1.744 | 9,0 | 3,1 |
| Enpresa Ikasketen UE | 817 | 798 | 4,1 | -2,3 |
| Erizaintzako UE (Leioa) | 667 | 675 | 3,5 | 1,2 |
| Irakasleen UE | 1.964 | 1.987 | 10,3 | 1,2 |
| Lan Harremanen E. | 560 | 544 | 2,8 | -2,9 |
| Industria Ingeniaritza Teknikoko UE | 1.590 | 1.545 | 8,0 | -2,8 |
| Meatze Ingeniaritza Teknikoko UE | 252 | 250 | 1,3 | -0,8 |
| Nautikako GET | 210 | 216 | 1,1 | 2,9 |
| Zuzenbide Fakultatea. Bizkaiko atala | 504 | 508 | 2,6 | 0,8 |
| **Gipuzkoa** | **8.781** | **8.839** | **100,0** | **0,7** |
| Zientzia Kimikoen Fakultatea | 323 | 326 | 3,7 | 0,9 |
| Zuzenbide Fakultatea | 882 | 874 | 9,9 | -0,9 |
| Informatika Fakultatea | 676 | 720 | 8,1 | 6,5 |
| Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea | 1.075 | 1.054 | 11,9 | -2,0 |
| Psikologia Fakultatea | 1.055 | 1.025 | 11,6 | -2,8 |
| Arkitekturako GET | 686 | 728 | 8,2 | 6,1 |
| Enpresa Ikasketen UE | 997 | 973 | 11,0 | -2,4 |
| Irakasleen UE | 1.101 | 1.111 | 12,6 | 0,9 |
| Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE | 287 | 298 | 3,4 | 3,8 |
| Donostiako Unibertsitate Politeknikoa | 1.196 | 1.230 | 13,9 | 2,8 |
| Erizaintzako UE | 503 | 500 | 5,7 | -0,6 |
| **Guztira** | **34.955** | **35.002** | **100,0** | **0,1** |

*(*): Behin-behineko datuak.*
Iturria: UPV/EHU.

Euskal Herriko Unibertsitatearekin (EHU) hasiko dugu unibertsitateen azterketa. 2022/23 ikasturtea 35.002 ikaslerekin (+% 0,1; 47 ikasle gehiago) itxi zuen, hiru campusetan banatuta.

Bizkaiko campusak jaso zuen EHUko matrikulazioaren % 55,2. Hala ere, azken ikasturtean apur bat jaitsi zen matrikulazioa (-% 0,4) eta 19.323 ikasle matrikulatu ziren, aurreko ikasturtean baino 85 gutxiago.

2022/23 ikasturtean 14 fakultatetatik 8tan egin zuen behera ikasle kopuruak, aurreko ikasturteko balioekin alderatuta. Zehatzago esanda, Zientzia eta Teknologia Fakultateak



LABORAL kutxa

(ikasleen % 13,5 jasotzen ditu) % 1,7ko jaitsiera izan zuen ikasle kopuruan. Antzeko bilakaera izan zuten Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateak (% 13,1eko pisu espezifikoa eta -% 1,8) eta Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateak (% 12,4ko kuota eta -% 0,8). Dena den, urte arteko aldakuntzari dagokionez, honakoek izan zituzten jaitsiera handienak: Lan Harremanen E. (-% 2,9 eta % 2,8ko partaidetza), Industria Ingeniaritza Teknikoko UE (-% 2,8 eta % 8ko partaidetza), Enpresa Ikasketen UE (-% 2,3 eta % 4,1eko kuota) eta Arte Ederren Fakultatea (-% 1,4 eta % 6,1ko pisu espezifikoa). Halaber, Meatze Ingeniaritza Teknikoko UEko matrikulazioak ere joera bera izan zuen eta apur bat jaitsi ziren matrikulak (-% 0,8); % 1,3ko partaidetza zuen.

Honako hauek bilakaera hobearekin itxi zuten ikasturtea: Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (+% 1,5); Industria Ingeniaritza eta Telekomunikazioen GET (+% 3,1); eta Irakasleen UE (+% 1,2). Hiruren artean, Bizkaiko campuseko matrikulazioaren herena bildu zuten (% 12,2, % 9 eta % 10,3, hurrenez hurren). Honakoek ere bilakaera positiboa izan zuten: Erizaintzako UE, Nautikako GET eta Zuzenbide Fakultatea (+% 1,2, +% 2,9 eta +% 0,8, hurrenez hurren), baina horien pisu erlatiboak txikiagoak ziren (% 3,5, % 1,1 eta % 2,6, hurrenez hurren).

Gipuzkoako campusa era berean aztertuta, hango eskaintza osatzen duten 11 fakultateak kontuan hartuta, matrikula kopuruak gora egin zuen apur bat (+% 0,7), eta 8.839 ikaslera iritsi ziren (guztizkoaren % 25,3).

Hala, matrikula kopuruen igoerak apur bat handiagoak izan ziren jaitsierak baino. Honakoetan izan ziren hazkunderik handienak: Informatika Fakultatea (+% 6,5) eta Arkitektura GETa (+% 6,1), biek % 8 inguruko pisuarekin. Gipuzkoako campuseko pisu handieneko bi fakultateetako ikasle kopuruak ere bilakaera positiboa izan zuen: Donostiako Unibertsitate Politeknikoan (% 13,9ko partaidetza) eta Irakasleen UEn (% 12,6) % 2,8ko eta % 0,9ko hazkundeak erregistratu zituzten. Halaber, ikasle kopuruak gora egin zuen Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko UEn (% 3,4ko partaidetza) eta Zientzia Kimikoen Fakultatean (% 3,7ko pisu espezifikoa), baina hazkunde ezberdinak izan zituzten (+% 3,8 eta +% 0,9).

2022/23 ikasturtean matrikula kopurua murriztu zuten Gipuzkoako campuseko fakultateei dagokienez, hauek nabarmentzen dira: Psikologiko Fakultatea (-% 2,8), Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea (-% 2) eta Enpresa Ikasketen UE (-% 2,4). Ikasleen % 11 inguru jaso zuen bakoitzak. Azkenik, Zuzenbide Fakultatean eta Erizaintzako UEn apur bat jaitsi zen ikasle kopurua (-% 0,9 eta -% 0,6). Gipuzkoako campuseko ikasleen % 9,9 eta % 5,7 zegokien horiei.

Azkenik, Arabako campusak osatzen du EHUko eskaintza, 6.840 ikaslerekin (guztizkoaren % 19,5). Hiru campusen artetik bilakaera onena izan zuen Arabakoak, urte arteko % 1,1eko hazkundea izan baitzuen matrikula kopuruak. Arabako campuseko 7 fakultatetatik 4tan

egin zuen gora ikasle kopuruak, eta bereziki esanguratsua izan zen Filologia, Geografia eta Historia Fakultateko matrikulen hazkundea (+% 2,1); ikasleen ia heren bat jaso zuen (% 31,3). Bilakaera positiboa izan zuten Irakasleen Fakultateak (+% 2,1), Industria Ingeniaritza Teknikoko UEk (+% 1,7) eta Enpresa Zientzien UEk (+% 3,4); horien pisu erlatiboak oso ezberdinak dira (% 16,5, % 12,3 eta % 7).

Aitzitik, 2022/23 ikasturtean ikasle kopuruak behera egin zuen Farmazia Fakultatean (-% 1,2), hau da, Arabako campuseko ikasle gehien jasotzen dituen bigarren fakultatean (% 18,4); eta behera egin zuen Gizarte Laneko UEn ere (% 1,7ko jaitsiera eta % 7,7ko pisu erlatiboa). Aldiz, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatean ikasle kopurua ez zen aldatu; ikasleen % 6,8 jasotzen ditu fakultate horrek.

Nafarroako Unibertsitateari dagokionez, izaera pribatua duena, 2022/23 ikasturtean 9.527 ikasle jaso zituen Nafarroako campusaren (8.508 ikasle) eta Gipuzkoako campusaren (1.019 ikasle) artean.

**194. koadroa Ikasleen banaketa Nafarroako Unibertsitatean**

| Lurralde historikoa | 21/22 ikasturtea | 22/23 ikasturtea(1) | % | % Δ aurreko urtearekiko |
|---|---|---|---|---|
| **Nafarroa** | **8.239** | **8.508** | **100,0** | **3,3** |
| Zuzenbidea | 819 | 823 | 9,7 | 0,5 |
| Medikuntza | 1.191 | 1.180 | 13,9 | -0,9 |
| Filosofia eta Letrak | 503 | 566 | 6,7 | 12,5 |
| Komunikazioa | 641 | 651 | 7,7 | 1,6 |
| Hezkuntza eta Psikologia | 948 | 957 | 11,2 | 0,9 |
| Zientziak | 691 | 751 | 8,8 | 8,7 |
| Farmazia eta Nutrizioa | 731 | 743 | 8,7 | 1,6 |
| Arkitektura | 558 | 605 | 7,1 | 8,4 |
| Teologia | 128 | 110 | 1,3 | -14,1 |
| Ekonomia eta Enpresa Zientziak | 1.301 | 1.354 | 15,9 | 4,1 |
| Idazkaritza eta Administrazioa | 533 | 544 | 6,4 | 2,1 |
| Erizaintza | 195 | 224 | 2,6 | 14,9 |
| **Gipuzkoa** | **1.010** | **1.019** | **100,0** | **0,9** |
| Industria Ingeniaritza | 1.010 | 1.019 | 100,0 | 0,9 |
| **Guztira(2)** | **9.249** | **9.527** | **100,0** | **3,0** |

*(1): Behin-behineko datuak.*
*(2): Horiez gain, doktoregoko 1.057 ikasle eta masterreko 665 ikasle daude Nafarroan eta Gipuzkoan.*
*Iturria: Nafarroako Unibertsitatea.*

Nafarroako campusarekin hasita, matrikulazioa % 3,3 igo zen azken ikasturtean; izan ere, eskaintza osatzen duten 12 fakultatetatik 10etan egin zuen gora matrikula kopuruak. Hortaz, Medikuntza Fakultateko (-% 0,9) eta Teologia Fakultateko (-% 14,1) ikasleen kopurua bakarrik murriztu zen. Dena den, horien pisu espezifikoa oso ezberdina zen (Nafarroako campuseko ikasleen % 13,9 eta % 1,3, hurrenez hurren).

Hala, bilakaera positiboa izan zuten fakultate hauetako matrikulek: Filosofia eta Letrak (+% 12,5), Zientzia Fakultatea (+% 8,7), Arkitektura (+% 8,4) eta Ekonomia eta Enpresa



LABORAL kutxa

Zientziak (+% 4,1). Horien pisu espezifikoa % 6,7, % 8,8, % 7,1 eta % 15,9koa zen, hurrenez hurren. Era berean, gora egin zuen fakultate hauetako matrikula kopuruak: Idazkaritza eta Administrazioa - ISSA (+% 2,1), Farmazia eta Nutrizioa (+% 1,6), Komunikazioa (+% 1,6), Hezkuntza eta Psikologia (+% 0,9) eta Zuzenbidea (+% 0,5). % 6,4, % 8,7, % 7,7, % 11,2 eta % 9,7ko partaidetzak zituzten horiek, hurrenez hurren. Dena den, urte arteko hazkunderik handiena Erizaintza Fakultateak izan zuen (+% 14,9). Halere, fakultaterik txikiena da, Teologiakoarekin batera (ikasleen % 2,6).

Gipuzkoako campusa Ingeniaritza Fakultateko ikasleek bakarrik osatzen dute, 1.000 ikaslek baino apur bat gehiagok, eta aldakuntza oso txikia izan zuen (+% 0,9).

**195. koadroa Ikasleen banaketa Nafarroako Unibertsitate Publikoan (UPNA)**

| Fakultateak eta Unibertsitate Eskolak | 21/22 ikasturtea | 22/23 ikasturtea(1) | % | % Δ aurreko urteare kiko |
|---|---|---|---|---|
| Nekazaritza Ingeniaritzen GET | 732 | 798 | 9,8 | 9,0 |
| Industria Ingeniaritza eta Telekomunikazioen GET | 2.125 | 2.152 | 26,4 | 1,3 |
| Osasun Zientzien Fakultatea | 1.018 | 1.121 | 13,8 | 10,1 |
| Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea | 1.123 | 1.070 | 13,1 | -4,7 |
| Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea | 1.949 | 2.077 | 25,5 | 6,6 |
| Zientzia Juridikoen Fakultatea | 623 | 652 | 8,0 | 4,7 |
| Ekonomia eta Enpresa Zientzien/Zientzia Juridikoen Fakultatea(2) | 230 | 231 | 2,8 | 0,4 |
| Nekazaritza ingeniaritzen/Ekonomia eta Enpresa zientzien GET(3) | 26 | 36 | 0,4 | 38,5 |
| **Guztira(4)** | **7.826** | **8.137** | **100,0** | **4,0** |

*(1): Behin-behineko datuak.*

*(2): Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzaren eta Zuzenbidearen Gradu Bikoitzean matrikulatutako ikasleak jasotzen ditu.*

*(3): Datuen Zientzien eta Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzaren Gradu Bikoitzeko ikasleak jasotzen ditu.*

*(4): Horiez gain, masterreko 978 ikasle eta doktoregoko 505 ikasle daude Nafarroan.*

*Iturria: Nafarroako Unibertsitate Publikoa.*

Nafarroako Unibertsitate Publikoko (UPNA) matrikulazioaren bilakaerari dagokionez, ikasle kopurua % 4 hazi zen, eta 8.137 ikaslera iritsi zen.

2022/23 ikasturtean fakultate guztietan egin zuen gora ikasle kopuruak, Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatean izan ezik (-% 4,7 eta % 13,1eko partaidetza). Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatearen (+% 6,6) eta Osasun Zientzien Fakultatearen (+% 10,1) bilakaera nabarmendu ziren. Horiek ikasle asko biltzen dituzte (% 25,5 eta % 13,8), eta urte arteko aldakuntzarik handienak izan zituzten termino absolutuetan. Bestetik, Industria Ingeniaritza eta Telekomunikazioen GETeko (pisu erlatiborik handiena du, % 26,4koa) matrikulazioa apur bat igo zen (+% 1,3). Era berean, Nekazaritza Ingeniaritzen GETak (+% 9 eta % 9,8ko partaidetza), Zientzia Juridikoen Fakultateak (+% 4,7 eta % 8) eta Ekonomia eta Enpresa Zientzien eta Zientzia Juridikoen Fakultateak (+% 0,4 eta % 2,8) bilakaera bera izan zuten. Halaber, Nekazaritza ingeniaritzen/Ekonomia eta Enpresa zientzien GETeko

matrikulazioak gora egin zuen (+% 38,5), hortaz, 2021/2022 ikasturtean baino 10 ikasle gehiago matrikulatu ziren; izan ere, partaidetza txikia du fakultate honek (% 0,4).

**196. koadroa Ikasleen banaketa Deustuko Unibertsitatean**

| Lurralde historikoa | 21/22 ikasturtea | 22/23 ikasturtea(1) | % | % Δ aurreko urtearekiko |
|---|---|---|---|---|
| **Bizkaia** | **7.245** | **7.578** | **100,0** | **4,6** |
| Zuzenbide Fakultatea | 942 | 953 | 12,6 | 1,2 |
| Teologia Fakultatea | 85 | 71 | 0,9 | -16,5 |
| Ingeniaritza Fakultatea | 1.196 | 1.363 | 18,0 | 14,0 |
| Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea | 1.410 | 1.391 | 18,4 | -1,3 |
| EUMBAM (DUri atxikitako zentroa) | 807 | 812 | 10,7 | 0,6 |
| Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea | 895 | 913 | 12,0 | 2,0 |
| Osasun Zientzien Fakultatea | 1.024 | 1.169 | 15,4 | 14,2 |
| Hezkuntza eta Kirol Fakultatea | 886 | 906 | 12,0 | 2,3 |
| **Gipuzkoa** | **1.902** | **2.097** | **100,0** | **10,3** |
| Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea | 555 | 483 | 23,0 | -13,0 |
| Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea | 769 | 773 | 36,9 | 0,5 |
| Zuzenbide Fakultatea | 87 | 103 | 4,9 | 18,4 |
| Ingeniaritza Fakultatea | - | 36 | 1,7 | - |
| Osasun Zientzien Fakultatea | 228 | 432 | 20,6 | 89,5 |
| Hezkuntza eta Kirol Fakultatea | 263 | 270 | 12,9 | 2,7 |
| Guztira(2) | **9.147** | **9.675** | **100,0** | **5,8** |

*(1): Behin-behineko datuak.*
*(2): Horiez gain, doktoregoko 172 ikasle eta masterreko 1.085 ikasle daude.*
*Iturria: Deustuko Unibertsitatea*

Deustuko Unibertsitateko matrikulazioaren bilakaera aztertuko dugu orain. 2022/23 ikasturtea oso positiboa izan zen, ikasle kopurua % 5,8 hazi baitzen. 9.675 ikasle matrikulatu ziren, aurreko ikasturtean baino 528 gehiago.

Bizkaiko campusak jaso zituen ikasle gehien (% 78,3), eta azken ikasturte honetan % 4,6 hazi zen bertako matrikulazioa. Pisu espezifiko handiena duten bi fakultateetako matrikulek egin zuten gora eta, batez ere, horrek bultzatu zuen Bizkaiko campusaren bilakaera positiboa. Ingeniaritza Fakultatea eta Osasun Zientzien Fakultatea dira horiek; % 18ko eta % 15,4ko partaidetzak dituzte, hurrenez hurren, eta horietako matrikulak % 14 inguru hazi ziren. Halaber, honako hauetan ere gora egin zuen ikasle kopuruak: Hezkuntza eta Kirol Fakultatea (+% 2,3), Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea (+% 2) eta Zuzenbide Fakultatea (+% 1,2), hiru fakultateek % 12 inguruko partaidetzarekin. Era berean, EUMBAMeko (Bizkaiko campusari atxikita dago) ikasle kopurua ere apur bat igo zen (+% 0,6); haren partaidetza % 10,7koa da.

Aitzitik, behera egin zuten Gizarte eta Giza Zientzien Fakultateko matrikulek (-% 1,3) eta Teologia Fakultatekoek (-% 16,5). Horiek, ordea, oso pisu erlatibo ezberdina izan zuten Bizkaiko campusean (% 18,4 eta % 0,9).



LABORAL kutxa

Gipuzkoako campuseko matrikulazioa % 10,3 igo zen 2022/23 ikasturtean, eta 2.097 ikasle matrikulatu ziren. Osasun Zientzien Fakultateko matrikulen bilakaera nabarmendu zen, hazkunde handia izan baitzuten (+% 89,5); hala, campuseko ikasleen % 20,6 bildu zituen. Halaber, honako hauetako ikasleen kopurua ere hazi egin zen, kasu batzuetan gehiago eta beste batzuetan gutxiago: Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea (handiena, campuseko ikasleen % 36,9 biltzen ditu; +% 0,5eko hazkundea), Hezkuntza eta Kirol Fakultatea (% 12,9; +% 2,7) eta Zuzenbide Fakultatea (% 4,9; +% 18,4). Horri guztiari Ingeniaritza Fakultate berria gehitu behar zaio; Gipuzkoako campusari 36 ikasle gehitu zizkion hark. Hala, testuinguru horretan, Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatean bakarrik egin zuen behera matrikulazioak (-% 13; % 23ko pisu erlatiboa).

**197. koadroa Ikasleen banaketa Mondragon Unibertsitatean**

| Fakultateak eta Unibertsitate Eskolak | 21/22 ikasturtea | 22/23 ikasturtea(1) | % | % ∆ aurreko urtearekiko |
|---|---|---|---|---|
| **Goi Eskola Politeknikoa** | **1.868** | **1.933** | **100,0** | **3,5** |
| Industria Antolaketako Ingeniaritza Gradua | 226 | 233 | 12,1 | 3,1 |
| Industria Elektronikoko Ingeniaritza Gradua | 199 | 183 | 9,5 | -8,0 |
| Informatikako Ingeniaritza Gradua | 171 | 182 | 9,4 | 6,4 |
| Ingeniaritza Mekanikoko Gradua | 416 | 399 | 20,6 | -4,1 |
| Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritza Gradua | 278 | 284 | 14,7 | 2,2 |
| Energiaren Ingeniaritza | 112 | 120 | 6,2 | 7,1 |
| Ingeniaritza Mekatronikoa | 223 | 259 | 13,4 | 16,1 |
| Prozesu Industrialetako Ekoteknologien Ingeniaritza | 90 | 86 | 4,4 | -4,4 |
| Ingeniaritza Biomedikoa | 153 | 147 | 7,6 | -3,9 |
| Industriari Aplikatutako Ingeniaritza Fisikoa | 0 | 40 | 2,1 | - |
| **Giza eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea** | **1.248** | **1.325** | **100,0** | **6,2** |
| Haur Hezkuntza Gradua | 338 | 347 | 26,2 | 2,7 |
| Lehen Hezkuntza Gradua | 683 | 737 | 55,6 | 7,9 |
| Ikus-entzunezko Komunikazio Gradua | 190 | 182 | 13,7 | -4,2 |
| Humanitate Digital Globalak (HDG) | 37 | 59 | 4,5 | 59,5 |
| **Enpresa Zientzien Fakultatea** | **1.795** | **2.030** | **100,0** | **13,1** |
| Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Gradua | 534 | 610 | 30,0 | 14,2 |
| Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza Gradua | 1.139 | 1.139 | 56,1 | 0,0 |
| Business Data Analytics Gradua | 122 | 168 | 8,3 | 37,7 |
| **Gastronomia Zientzien Fakultatea** | **410** | **414** | **100,0** | **1,0** |
| Gastronomia eta Sukaldaritza Arteak | 410 | 414 | 100,0 | 1,0 |
| **Guztira(2)** | **5.321** | **5.702** | **100,0** | **7,2** |

*(1): Behin-behineko datuak.*
*(2): Horiez gain, masterreko 822 ikasle eta doktoregoko 188 ikasle daude.*
*Iturria: Mondragon Unibertsitatea*

Unibertsitateei buruzko atalarekin amaitzeko, Mondragon Unibertsitateko matrikulazioaren bilakaera aztertuko dugu jarraian. 2022/23 ikasturtean 5.702 ikasle izan zituen, matrikula kopurua % 7,2 handituta.

Goi Eskola Politeknikoarekin hasiko gara. Unibertsitateko matrikulazioaren heren bat dagokio eta 2022/23 ikasturtean bilakaera positiboa izan zuen (+% 3,5): eskainitako 10 graduetatik 5etan gora egin zuen matrikulazioak. Hala, matrikula kopurua hazi egin zen

honako graduetan: Ingeniaritza Mekatronikoa, bi digituko hazkunde handiarekin (+% 16,1 eta ikasleen % 13,4); Ingeniaritza Informatikoa (+% 6,4 eta % 9,4); Energiaren Ingeniaritza (+% 7,1 eta % 6,2); Industria Antolaketako Ingeniaritza (+% 3,1 eta % 12,1) eta Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritza (+% 2,2 eta % 14,7). Industriari Aplikatutako Ingeniaritza Fisikoko gradu berria gehitu behar zaie horiei; 40 ikasle gehitu zizkion guztizkoari gradu berri honek.

Aitzitik, Goi Eskola Politeknikoaren ikasle kopurua murriztu zuten honako gradu hauek: Ingeniaritza Mekanikoa (-% 4,1), Industria Elektronikoko Ingeniaritza (-% 8), Prozesu Industrialetako Ekoteknologien Ingeniaritza (-% 4,4) eta Ingeniaritza Biomedikoa (-% 3,9). Horien partaidetzak oso ezberdinak izan ziren (% 20,6, % 9,5, % 4,4 eta % 7,6, hurrenez hurren).

Giza eta Hezkuntza Zientzien Fakultateari dagokionez, matrikulazioak gora egin zuen 2022/23 ikasturtean (+% 6,2) eta guztira 1.325 ikasle izan zituen (guztizkoaren % 23,2). Matrikulazioak gora egin zuen testuinguru horretan, Ikus-entzunezko Komunikazio Graduak baino ez zuen behera egin; % 13,7ko pisu erlatiboarekin, % 4,2ko beherakada izan zuen. Hortaz, matrikulazioak hobera egin zuen Lehen Hezkuntzako Graduan (+% 7,9; ikasleen % 55,6), Haur Hezkuntzako Graduan (+% 2,7; % 26,2ko pisu espezifikoa) eta Humanitate Digital Globalen Graduan (+% 59,5; matrikulen % 4,5).

Enpresa Zientzien Fakultatea da ikasle gehien biltzen dituena (% 35,6) eta 2022/23 ikasturtean, gainera, matrikulazioaren bilakaerarik onena izan zuen fakultatea izan zen (+% 13,1). Testuinguru horretan Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza Graduaren pisu erlatiboa nabarmentzen da, ikasleen erdiak baino gehiago biltzen baititu (% 56,1); dena den, aurreko ikasturteko matrikula kopuru bera izan zuen. Hortaz, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Gradua (+% 14,2) eta Business Data Analytics Gradua (+% 37,7) izan ziren matrikulak irabaztearen erantzuleak; ikasleen % 30 eta % 8,3 biltzen dituzte horiek, hurrenez hurren.

Gastronomia eta Sukaldaritza Arteen Graduak osatzen du Mondragon Unibertsitatearen eskaintza. Gradu honek, hazkunde txikia izan zuen (+% 1,0), eta 414 ikasle gehitu zizkion unibertsitateko ikasleen guztizkoari.



LABORAL kutxa

# 3. GARRAIOA

## 3.1. TRENBIDE BIDEZKO GARRAIOA

Trenbide bidezko garraioarekin hasiko dugu kapitulua. 2022an nabarmen igo zen bidaiari kopurua Euskal Herrian, pandemiak markatutako biurtekoaren ondoren. Hala, EuskoTreneko eta Renfeko bidaiariak batuta, bidaiari kopuruak urte arteko % 29,8ko hazkundea izan zuen, eta 41.912 mila bidaiari zenbatu ziren guztira, 2019an baino % 4 gehiago.

**198. koadroa Bidaiarien mugimendua***

| Urtea | Bidaiariak (m) | %Δ |
|---|---|---|
| 2018 | 38.798 | 9,3 |
| 2019 | 40.288 | 3,8 |
| 2020 | 26.795 | -33,5 |
| 2021 | 32.299 | 20,5 |
| 2022 | 41.912 | 29,8 |

*(*): Renferen datuak Bilboko eta Donostiako aldirietako bidaiarien zifrari dagozkio.*

*Iturria: Renfe eta EuskoTren.*

Datuetan sakonduta eta konpainia bakoitzaren jarduerari dagokionez, erreferentziazko bi tren operadoreen kasuan urte arteko hazkundea izan zen bidaiari kopuruan. Hala, Renferen kasuan, Bilboko aldirietako bidaiari kopurua % 40,1 igo zen, eta Donostiako aldirietakoa % 33,3. Biak aintzat hartuta, konpainiak 17.139 mila bidaiari garraiatu zituen 2022an (2021arekin alderatuta +% 37,5 eta 2019arekin alderatuta +% 4,3).

**199. koadroa Bidaiarien mugimendua konpainien arabera**

*(m)*

| Kontzeptua | 2020 | 2021 | 2022 | %Δ 22/21 |
|---|---|---|---|---|
| Renfe-Bilboko sarea | 6.572 | 7.727 | 10.825 | 40,1 |
| Renfe-Donostiako sarea | 4.095 | 4.735 | 6.314 | 33,3 |
| EuskoTren | 16.128 | 19.837 | 24.773 | 24,9 |
| **Guztira** | **26.795** | **32.299** | **41.912** | **29,8** |

*Iturria: Renfe eta EuskoTren.*

EuskoTreneko bidaiari kopuruak ere gora egin zuen (+% 24,9) eta 24.773 mila bidaiari izan zituen guztira ekitaldian zehar. Hala, Euskal Herriko operadore nagusi gisa zuen posizioa indartu zuen EuskoTrenek, bidaiarien % 59,1arekin, hau da, 2019an baino % 3,8 bidaiari gehiagorekin.

Halaber, aintzat hartu behar da EuskoTren multimodala dela eta errepide eta tranbia bidezko garraio-zerbitzuak dituela. Hala, 2022an, tranbia-zerbitzua nabarmen hazi zen, 9.255 mila bidaiarirekin (2021arekiko +% 19,2). Errepide bidezko garraioak ere urte arteko hazkundea izan zuen, 5.424 mila bidaiarirekin (+% 20,9).

Aurrez esandakoarekin lotuta, bi enpresen diru-sarrerak hazi egin ziren 2021arekin alderatuta, eta covidaren aurreko balioak gainditu zituzten. Hala, EuskoTrenek 27.560,91 mila euro bildu zituen 2022an, aurreko urtean baino nabarmen gehiago (+% 7,8). Renfek, berriz, hazkunde handiagoa izan zuen (+% 50,9), eta 12.638,6 mila euro bilduta itxi zuen ekitaldia.

**200. koadroa Bidaiarien garraioagatiko diru-bilketa**

*(m euro)*

| Kontzeptua | 2020 | 2021 | 2022 | %∆ 22/21 |
|---|---|---|---|---|
| Renfe* | 5.124,9 | 8.375,4 | 12.638,6 | 50,9 |
| EuskoTren** | 20.232,6 | 25.558,3 | 27.560,91 | 7,8 |
| **Guztira** | **25.357,5** | **33.933,7** | **40.199,5** | **18,5** |

*(*): Renferen datuak aldirietako bidaiariei bakarrik dagozkie.*
*(**): Trenaren zein tranbia eta autobusen diru-bilketa hartzen ditu barne. BEZik gabeko datuak.*
*Iturria: Renfe eta EuskoTren.*

Jatorria eta/edo helmuga Euskal Herrian duten merkantzien garraioari dagokionez, urteko balantzearen arabera, jarduerak okerrera egin zuen bi konpainien kasuan. Testuinguru horretan, Renfe mantendu zen erreferentziazko operadore gisa, 1.705 mila tona garraiatuta (-% 1,9). EuskoTrenek, 2021ean errekorra lortu ondoren (69,6 mila tona), zifra apur bat baxuagoarekin itxi zuen 2022a (-% 1,6). Zalantzarik gabe, merkantzien garraioan errepide bidezko garraioarekin lehiatzeko gai izango den alternatiba eraginkorrago, seguruago eta jasangarriago gisa ezartze aldera euskal operadoreak egindako apustu sendoa nabarmendu behar da.

**201. koadroa** **Jatorria eta/edo helmuga Euskal Herrian duten merkantzien bolumena(*)**

*(m Tm)*

| Kontzeptua | 2020 | 2021 | 2022 | %∆ 22/21 |
|---|---|---|---|---|
| Renfe | 1.664,3 | 1.737,3 | 1.705,0 | -1,9 |
| EuskoTren | 3,7 | 69,6 | 68,4 | -1,6 |
| **Guztira** | **1.667,9** | **1.806,9** | **1.773,4** | **-1,9** |

*(*): Edukiontziak salbu.*

*Iturria: Renfe eta EuskoTren.*

Enpleguari dagokionez, antzeko bilakaera izan zuten bi konpainiek; Renferen zein Eusko Trenen langile kopurua % 10 inguru hazi zen. Hala, 2022an, 1.262 langile zituen EuskoTrenek, 2021ean baino 121 pertsona gehiago. Renfek, berriz, aurreko urtean baino 62 langile gehiago izan zituen, eta 600 langileko mugatik gora mantendu zen, aurreko urteetan bezala.

**202. koadroa** **Trenbide bidezko garraioan enplegatutako langileak**

| Kontzeptua | 2020 | 2021 | 2022 | %∆ 22/21 |
|---|---|---|---|---|
| Renfe | 612 | 610 | 672 | 10,2 |
| EuskoTren | 1.150 | 1.141 | 1.262 | 10,6 |
| **Guztira** | **1.762** | **1.751** | **1.934** | **10,5** |

*Iturria: Renfe eta EuskoTren.*

### Bilboko Metroa

2020-2021 urteetan pandemiaren ondorioz bizitako ezohiko egoeraren ondoren, Bilboko Metroak nolabaiteko normaltasuna berreskuratu zuen. 2022an 80.377 mila bidaiarik erabili zuten garraiobide hori, 2021ean baino % 20,4 gehiagok. Dena den, hazkunde hori ez zen nahikoa izan covidaren aurreko balioak berdintzeko (-% 12,2).

**203. koadroa** **Bidaiarien mugimendua Bilboko Metroan**

| Urtea | Bidaiariak (m) | %∆ |
|---|---|---|
| 2013 | 87.133 | -0,6 |
| 2014 | 87.397 | 0,3 |
| 2015 | 87.536 | 0,2 |
| 2016 | 87.105 | -0,5 |
| 2017 | 88.172 | 1,2 |
| 2018 | 89.919 | 2,0 |
| 2019 | 91.570 | 1,8 |
| 2020 | 55.987 | -38,9 |
| 2021 | 66.780 | 19,3 |
| 2022 | 80.377 | 20,4 |

*Iturria: Bilboko Metroa.*

Eztabaidaezina da "normaltasunera" itzultzeak lagundu egin ziola bidaiarien mugimenduari. Izan ere, berrezarri egin ziren kultura eta aisialdi arloko jarduerak, aurrez-aurreko lan-jardunaldiak, azoka eta kongresu profesionalak eta pertsona kopuru handia biltzen duten beste ekitaldi asko. Hala, San Tomas eguneko azokan (abenduak 21) errekorra hautsi zen berriz ere, eta egun horretan izan ziren bidaiari gehien (356.710 joan-etorri). Hala, Black Friday (azaroak 26) egunari kendu zion lehen postua, egun horretan ere bidaiari asko izaten baitira.

Bilboko Metroaren sarea osatzen duten 42 geltokietan erregistratutako bidaiarien mugimenduari dagokionez, Enbor Komunean 23.557.644 bidaia egin ziren (guztizkoaren % 29,3), 2021ean baino % 19,9 gehiago. Beste behin ere, Zazpikaleak geltokia izan zen geltoki nagusia (3.739.513), bigarrena San Mames izan zen (2.906.823) eta Santutxu hirugarren postura jaitsi zen (2.860.466). Horiek guztiek bi digituko hazkundeak izan zituzten. Bilakaera bera izan zuten 1. lineak (Etxebarri-Plentzia) eta 2. lineak ere (Basauri-Kabiezes), urte arteko aldakuntza positiboekin. Areeta-Algorta (391.988 bidaia) eta Barakaldo-Gurutzeta (376.608) tarteak izan ziren bidaiari gehien jaso zituztenak.

Bilboko Metroan erabil daitezkeen txartelei dagokienez, haien ordezkaritza ez da asko aldatu. Hala, Creditrans txartelak jarraitu zuen gehien erabiltzen zena izaten: erabiltzaileen erdiek baino apur bat gehiagok (% 56,1). Aldi baterako txartelak (% 25), Gizatrans (% 12) eta urteko eta aldizkako txartelak izan ziren hurrengoak. Azken bi horien partaidetza ia hutsala izan zen: % 3 eta % 2, hurrenez hurren.

## 3.2. ERREPIDE BIDEZKO GARRAIOA

Errepide bidezko garraioa aztertzeko, ibilgailuen parkearekin hasiko gara. Trafiko Zuzendaritza Nagusiak (DGT) bildutako informazioaren arabera, Espainiako parkea 35.670.939 ibilgailuk osatzen zuten 2022an, aurreko ekitaldian baino % 1,4 gehiagok. Euskal Herriko parkea 1.897.240 ibilgailuk osatzen zuten, aurreko ekitaldian baino apur bat gehiagok (+% 0,7)

Informazioa lurraldearen arabera banatuta, Bizkaiak % 37ko pisu erlatiboa izan zuen 2022an, eta parkeak urte arteko hazkunde txikia izan zuen (+% 0,8). Gipuzkoak eta Nafarroak partaidetza berdina izan zuten (% 25,6 biek) eta, Arabak, pisu erlatibo txikiagoa (% 11,5). Horiek urte arteko hazkunde txikiak izan zituzten (+% 0,5, +% 1,0 eta +% 0,2). Dena den, covidaren aurreko erregistroak gainditu zituzten balio guztiek.

Ibilgailu motaren araberako bilakaerari dagokionez, ez zen aldaketa handirik izan. Espainian, espero zitekeen bezala, parkeko 10 ibilgailutik 7 turismoak ziren, aurreko ekitaldian baino % 1,1 gehiago. Presentzia handieneko bigarren kategoriak, kamioienak (guztizkoaren % 14,2), ere gora egin zuen (+% 0,5). Motozikletek, berriz, % 11,2ko ekarpen

erlatiboarekin, hazkunde handiagoa izan zuten (+% 3,6). Azken postuan kokatu ziren traktore industrialak (guztizkoaren % 0,7) eta autobusak (% 0,2), eta horiek ere apur bat egin zuten gora (+% 2,8 eta +% 1,4).

Lurraldeka, Bizkaia buruan kokatu zen bost ibilgailu motatik hirutan: kamioiak (% 33,8), autobusak (% 48,6) eta turismoak (% 38,6). Bestetik, motozikleten kategorian Gipuzkoa kokatu zen lehen postuan (% 34,9) eta, traktore industrialek kasuan, Nafarroak izan zuen pisurik handiena (% 35,7).

Parkearen bilakaerari dagokionez, motozikletek izan zuten urte arteko hazkunderik handiena (+% 3,9). Traktore industrialek (+% 1,4), turismoek (+% 0,3) eta autobusek (+% 2,4) ere gora egin zuten. Kamioiek, aitzitik, bilakaera negatiboa izan zuten ekitaldian (-% 0,3).

**204. koadroa Ibilgailuen parkea***

*(unitate)*

| Eremua | Kamioiak [1] | | Autobusak | | Turismoak | | Motozikletak | | Traktore industrialak | | Beste batzuk [2] | | Guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 |
| Araba | 28.935 | 28.684 | 510 | 532 | 160.357 | 160.406 | 17.588 | 18.048 | 1.530 | 1.509 | 8.936 | 9.200 | 217.856 | 218.379 |
| Bizkaia | 84.762 | 84.485 | 2.157 | 2.212 | 525.667 | 526.730 | 63.579 | 67.521 | 3.395 | 3.472 | 21.357 | 21.896 | 700.917 | 706.316 |
| Gipuzkoa | 60.467 | 60.228 | 943 | 961 | 333.564 | 334.031 | 66.316 | 67.861 | 3.397 | 3.432 | 19.044 | 19.614 | 483.731 | 486.127 |
| EAE | 174.164 | 173.397 | 3.610 | 3.705 | 1.019.588 | 1.021.167 | 147.483 | 153.430 | 8.322 | 8.413 | 49.337 | 50.710 | 1.402.504 | 1.410.822 |
| Nafarroa | 76.171 | 76.251 | 833 | 844 | 339.474 | 342.232 | 39.662 | 40.940 | 4.592 | 4.677 | 21.103 | 21.474 | 481.835 | 486.418 |
| Euskal Herria | 250.335 | 249.648 | 4.443 | 4.549 | 1.359.062 | 1.363.399 | 187.145 | 194.370 | 12.914 | 13.090 | 70.440 | 72.184 | 1.884.339 | 1.897.240 |
| Espainia | 5.052.669 | 5.076.024 | 64.451 | 65.382 | 24.940.071 | 25.223.768 | 3.866.162 | 4.007.251 | 238.493 | 245.103 | 1.017.914 | 1.053.411 | 35.179.760 | 35.670.939 |
| Euskal Herria/ Espainia % | 5,0 | 4,9 | 6,9 | 7,0 | 5,4 | 5,4 | 4,8 | 4,9 | 5,4 | 5,3 | 6,9 | 6,9 | 5,4 | 5,3 |

*(*): Behin-behineko datuak.*
*(1): Kamioiak eta furgonetak barne hartzen ditu.*
*(2): Beste ibilgailu batzuk, atoiak eta erdi-atoiak barne hartzen ditu.*
*Iturria: Trafiko Zuzendaritza Nagusia (DGT)*

Kamioien, traktore industrialen eta autobusen matrikulazio garbiari dagokionez, orokorrean, aurreko biurtekoan ikusitako joera errepikatu zen. Hala, Euskal Herrian okerrera egin zuten erreferentziazko adierazleek, Nafarroan izan ezik. Estatuan, berriz, alderantzizkoa izan zen bilakaera. Euskal Herrian, kamioien eta traktore industrialen matrikulazio garbiaren jaitsierak baldintzatu zituen emaitzak; 511 matrikulazio garbi gutxiago izan ziren, eta aztertutako lurralde guztiek izan zuten eragina jaitsiera horretan, neurri handiagoan edo txikiagoan, Nafarroak izan ezik. Espainian gora egin zuten matrikulazio garbiek, nabarmen (+30.896), kamioien eta traktore industrialen kasuan (+29.965) zein autobusen kasuan (+931). Bizkaian eta Gipuzkoan murriztu egin ziren matrikulazio garbiak (-145 unitate eta -186 unitate), baita Araban ere (-250). Nafarroan ez zen hori gertatu, eta adierazle horrek hobera egin zuen (+176).

**205. koadroa Kamioi, traktore industrial eta autobusen matrikulazio garbia***

*(unitate)*

| Eremua | Kamioiak eta traktore industrialak | | Autobusak | | Guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 |
| Araba | 221 | -272 | 29 | 22 | 250 | -250 |
| Bizkaia | -460 | -200 | -43 | 55 | -503 | -145 |
| Gipuzkoa | -450 | -204 | -1 | 18 | -451 | -186 |
| EAE | -689 | -676 | -15 | 95 | -704 | -581 |
| Nafarroa | -142 | 165 | 20 | 11 | -122 | 176 |
| Euskal Herria | -831 | -511 | 5 | 106 | -826 | -405 |
| Espainia | 22.229 | 29.965 | 1.037 | 931 | 23.266 | 30.896 |

*(*): Parkearen urte arteko aldakuntza.*
*Iturria: Trafiko Zuzendaritza Nagusia (DGT)*

Motorizazio-indizeak aztertuko ditugu orain, eta 1.000 biztanleko ibilgailuen indizearekin hasiko gara. 2022an ratioa igo egin zen aintzat hartutako lurralde guztietan. Euskal Herrian 1.000 biztanleko 661 ibilgailukoa izan zen tasa, Espainiakoa baino baxuagoa: 1.000 biztanleko 751 ibilgailu. Lurraldearen arabera, aztertutako lau lurraldeen artetik, Nafarroak izan zuen tasarik altuena: 1.000 biztanleko 732 ibilgailu. Gipuzkoan eta Araban 1.000 biztanleko 671 eta 653 ibilgailu zituzten, Bizkaian (1.000 biztanleko 615 ibilgailu) baino gehiago.

Bigarren adierazleari dagokionez (turismo bakoitzeko biztanle kopurua), ez zen inolako aldakuntzarik izan aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Euskal Herrian tasa mantendu egin zen: turismo bakoitzeko 2,1 biztanle; hala, Estatuko balioa baino zerbait altuagoa izan zen (1,9 biztanle turismo bakoitzeko). Aldi berean, Euskal Herriko batezbestekoa baino apur bat gorago kokatu ziren Bizkaia eta Gipuzkoa, turismoko 2,2 biztanlerekin. Tasa baxuagoak izan zituzten Arabak (turismoko 2,1 biztanle) zein Nafarroak (turismoko 1,9 biztanle).

**206. koadroa Motorizazio-indizeak**

| Eremua | Ibilgailuak/1.000 biztanle | | Biztanleak/Turismoa | |
|---|---|---|---|---|
| | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 |
| Araba | 653 | 653 | 2,1 | 2,1 |
| Bizkaia | 607 | 615 | 2,2 | 2,2 |
| Gipuzkoa | 666 | 671 | 2,2 | 2,2 |
| EAE | 633 | 639 | 2,2 | 2,2 |
| Nafarroa | 728 | 732 | 1,9 | 1,9 |
| Euskal Herria | 655 | 661 | 2,1 | 2,1 |
| Espainia | 742 | 751 | 1,9 | 1,9 |

*turria: Trafiko Zuzendaritza Nagusia eta guk geuk egina.*



LABORAL kutxa

Azterketarekin jarraitzeko, errepide bidezko merkantzien garraioari jarriko diogu arreta. EAEn 89.988 mila tona garraiatu zituzten ekitaldian zehar, hau da, jarduera % 2,6 hazi zen. Igoera horretan eragina izan zuen eskualde barruko garraioaren bilakaerak, hazi egin baitzen (+% 6,4). Eskualde arteko garraioa, berriz, ez zen hazi (-% 0,2). Nafarroan hazi egin zen garraiatutako merkantzien bolumena (+% 13,7) eta 47.799 mila tona garraiatu ziren. Eskualde barruko garraioak (+% 30) zein eskualde artekoak (+% 6) izan zuten eragina goranzko bilakaera horretan.

Hala, Euskal Herrian 137.787 mila tona merkantzia garraiatu ziren, aurreko ekitaldiko balioak baino % 6,2 gehiago. Estatuan, berriz, 1.239.011 mila tonara heldu ziren; hala, trafikoa % 2 murriztu zen. Hori guztia kontutan hartuta, merkantzien trafikoa hazi egin zen 2019ko erregistroekin alderatuta (+% 3 inguru bi kasuetan).

**207. koadroa Garraiatutako merkantziak, autonomia-erkidegoaren arabera. Eskualde barruko garraioa eta eskualde arteko garraioa, jatorri eta/edo helmugako autonomia-erkidegoaren arabera.**

*(m Tm)*

| Eremua | EAE | | Nafarroa | | Euskal Herria | | Estatua | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 |
| Eskualde barruko garraioa | 37.142 | 39.520 | 13.454 | 17.489 | 50.596 | 57.009 | 869.430 | 851.873 |
| Eskualde arteko garraioa | 50.569 | 50.468 | 28.593 | 30.310 | 79.163 | 80.778 | 394.853 | 387.138 |
| **Guztira** | **87.712** | **89.988** | **42.047** | **47.799** | **129.759** | **137.787** | **1.264.283** | **1.239.011** |

*turria: Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioaren Estatistika Buletina.*

Informazioa garraio motaren arabera banakatuko dugu, eta eskualde arteko garraioarekin hasiko gara. EAEn garraiatutako merkantzien guztizkoaren % 56,1 dagokio eskualde arteko garraioari, eta 2022an apur bat jaitsi zen haren jarduera (-% 0,2). Nafarroan bestelako joera izan zuen eskualde arteko garraioak, eta % 6 hazi zen; % 63,4ko ekarpena izan zuen. Eskualde barruko garraioari dagokionez, % 43,9ko ekarpen erlatiboa izan zuen EAEn, eta garraiatutako merkantzien bolumena % 6,4 hazi zen. Nafarroan, berriz, hazkunde nabarmena izan zuen (+% 30). Horren guztiaren ondorioz, Euskal Herrian % 12,7 hazi zen garraiatutako merkantzien bolumena, eskualde barruko garraioaren esparruan. Eta, eskualde arteko garraioaren kasuan, hazkundea % 2koa izan zen.

Errepide bidezko garraioaren gaineko kapituluaren ondorio gisa, EAEko hiriburuetan lan egiten duten hiru konpainien jarduera-adierazle nagusien bilakaera aurkeztuko dugu. Hauek dira hiru konpainia horiek: Bilbobus, DBUS eta Transportes Urbanos de Vitoria (TUVISA). Horrekin lotuta, aipatu beharrekoa da txosten hau egiteko unean (2023ko uztaila) ez genuela 2022ko ekitaldiari buruzko informaziorik TUVISAren gainean.

**208. koadroa Hiri-garraioa. Sektorearen oinarrizko datuak.**

| Kontzeptua | Bilbo 2021 | Bilbo 2022 | Donostia 2021 | Donostia 2022 | Gasteiz 2021 | Gasteiz 2022 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Sareko lineak (*) | 45 | 45 | 41 | 41 | 15 | -- |
| Luzera (km) | 723,7 | 720,7 | 557,5 | 557,5 | 236,0 | -- |
| Autobusen parkea | 141 | 141 | 142 | 140 | 85 | -- |
| Plantilla | 614 | 627 | 544 | 568 | 372 | -- |

*(*): Eguneko eta gaueko lineak barne hartzen ditu.*
*(--): Txosten hau egitean datuak ez zeuden eskuragarri.*
*Iturria: Transportes Colectivos S.A.; Cía. del Tranvía de San Sebastián, S.A.; Transportes Urbanos de Vitoria, S.A.*

Hori argi utzita, Bilbobus garraio-enpresarekin hasiko gara. Biurteko konplikatu baten ostean, pandemiaren aurreko zifrak berreskuratu zituen, progresiboki. 2022an enpleguak izan zuen bilakaerarik onena. Langile kopurua hazi egin zen, 13 langile berrirekin. Hala, guztira, 627 langile izan zituen enpresak 2022an. Autobusen parkeak eta linea kopuruak ez zuten aldakuntzarik izan (141 eta 45 unitate, hurrenez hurren). Sarearen luzera, berriz, apur bat jaitsi zen, 720,7 kilometrora.

DBUS enpresaren kasuan, 2022an hazi egin zen langile kopurua (+24), eta 568 pertsonak osatu zuten plantilla. Aldi berean, ez zen aldatu linea kopurua (eguneko 32 eta gaueko 9 linea), ezta aurreko ekitaldiko luzera ere (557,5 kilometro), flotan bi autobus gutxiago izan arren (140 unitate).

TUVISA enpresari dagokionez, 2021ean mantendu egin zen sareko linea kopurua: 15 linea, horietatik 10 egunekoak eta 5 gauekoak. Sarearen luzera handitu egin zen, 236 kilometrora arte. Enplegu-datuek nolabaiteko suspertzea erakusten dute. Izan ere, 14 langile gehiago izan zituen enpresak; guztira, 372 langile. Autobusen flotak, berriz, ez zuen aldaketarik izan: 85 unitate.

**209. koadroa Hiri-garraioaren bilakaera**

| Kontzeptua | Bilbo 2021 | Bilbo 2022 | Donostia 2021 | Donostia 2022 | Gasteiz 2021 | Gasteiz 2022 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Ibilitako km baliagarriak (m) | 6.289 | 6.304 | 6.925 | 6.989 | -- | -- |
| Garraiatutako bidaiariak (m) | 19.372 | 21.521 | 22.266 | 25.503 | 10.378 | -- |
| Diru-bilketa (m euro) | 8.764 | 8.887 | 15.351 | 15.348 | 4.807 | -- |
| Ustiapenaren emaitza (m euro) | -- | -- | -26.081 | -29.508 | -- | -- |
| Tarifak (euro) | 1,35/0,66 | 1,35/0,66 | 1,85 | 1,85 | 1,4/0,6 | -- |

*(--): Txosten hau egitean datuak ez zeuden eskuragarri.*
*Iturria: Transportes Colectivos SA; DBUS; Transportes Urbanos de Vitoria, SA.*

Bilbobusen ibilitako 6.304 mila kilometro baliagarri zenbatu ziren 2022an, aurreko ekitaldian baino 15 mila gehiago. Gainera, 21.521 mila bidaiari izan zituen (+% 11,1) eta 8.887 mila euro bildu zituen, 2021ean baino % 1,4 gehiago.

Analisi bera DBUSi aplikatuta, 2022an 6.989 mila kilometro erabilgarri egin zituen, 2021ean baino 64,3 mila gehiago, eta 25.503 mila bidaiari zenbatu ziren, aurreko urtean baino % 14,5 gehiago. Halaber, bildutako diru kopurua ia berdin mantendu bazen ere (15.348 mila euro), ustiapenaren emaitza -29.508 mila eurokoa izan zen.

TUVISAri dagokionez, ez dugu 2022ko informaziorik, baina adierazle nagusiak indartu egin zirela pentsa dezakegu, mugikortasunaren egoera hobea zela aintzat hartuta. Hala, 2021eko balantzeak (eskuragarri dugun azken urtea) erakusten du adierazle nagusiak suspertzen hasi zirela pixkanaka.

Zehazki, eta espero zitekeen moduan, garraiatutako bidaiari kopuruak aldakuntza positiboa izan zuen (+% 219,1) eta 10.378 mila pertsona garraiatu zituen (baieztapen ofizialik ez dagoen arren, ibilitako kilometro baliagarrien kopuruak gora egitea aurreikusten da). Konpainiaren adierazle nagusien hobekuntzarekin jarraituz, bildutako diru bolumena ere hazi egin zen, eta 4.807 mila euro jaso zituen enpresak guztira (+% 30,4); kopuru hori, oraindik, 2019koa baino askoz txikiagoa da.

## 3.3. ITSASO BIDEZKO GARRAIOA

Itsaso bidezko garraioari dagokionez, 2021ean munduko jarduera bere onera itzuli ondoren, 2022an behera egin zuen apur bat (-% 0,5), eta 2020ko mailaren antzekoa eskuratu zuen. Dena den, eta ANAVEren (Espainiako Ontzi Elkartea) informazioaren arabera, 2022an 11.905 mila tonara heldu zen mundu mailako itsasoko merkataritza; azken hamarkadako hirugarren erregistrorik onena izan zen.

**210. koadroa Itsaso bidezko munduko merkataritza**

*(M Tm)*

| Merkantziak | 2020 | 2021 | 2022 | % ∆ 22/21 |
|---|---|---|---|---|
| Solteko salgai solido nagusiak (1) | 3.204 | 3.276 | 3.214 | -1,9 |
| Petrolio gordina eta produktuak | 2.818 | 2.869 | 3.006 | 4,8 |
| Beste solteko salgai solido batzuk | 2.045 | 2.141 | 2.055 | -4,0 |
| Edukiontzietako kargak | 1.764 | 1.869 | 1.806 | -3,4 |
| Karga orokor konbentzionala | 903 | 940 | 938 | -0,2 |
| Beste solteko salgai likido batzuk (2) | 835 | 870 | 886 | 1,8 |
| **Guztira** | **11.569** | **11.965** | **11.905** | **-0,5** |

*(1): Ikatza, burdin-mea, alea.*
*(2): Gas likidotuak eta produktu kimikoak.*
*Iturria: Anave, Clarkson.*

Mundu mailako merkataritzaren datuak merkantzia motaren arabera aztertuta, bilakaera ezberdinak izan zirela ikus daiteke. Pisu handieneko partidatik hasita, hau da, solteko salgai solidoetatik (guztizkoaren % 27), horien trafikoa % 1,9 murriztu zen urtean zehar. Garrantzi handieneko bigarren partidak, hau da, petrolio gordinaren eta petrolio-

produktuen partidak, % 25,2ko ordezkaritza izan zuen eta apur bat hazi ziren haren balioak (+% 4,8).

Bestetik, guztizkoaren % 17,3 ordezkatzen zuten beste solteko salgai solido batzuek, eta balio negatiboekin itxi zuten urtea (-% 4), edukiontzietako kargak bezalaxe (-% 3,4). Karga orokor konbentzionalari dagokionez (guztizkoaren % 7,9), ia ez zen aldatu 2021arekiko (-% 0,2). Beste solteko salgai likido batzuek (guztizkoaren % 7,4), berriz, hazkunde apala izan zuten (+% 1,8).

**211. koadroa Espainiako itsas merkataritza**

*(m Tm)*

| Kontzeptua | 2021 | 2022 | % ∆ 22/21 |
|---|---|---|---|
| Esportazioak | 109.161 | 103.934 | -4,8 |
| Inportazioak | 197.892 | 214.458 | 8,4 |
| Kabotajea | 45.133 | 48.223 | 6,8 |
| **Guztira** | **352.187** | **366.616** | **4,1** |

*Iturria: Anave, Estatuko Portuak.*

Analisia Estatu mailara eramanda, Espainiako itsasoko merkataritzak nolabaiteko hazkundea izan zuen inportazioetan eta kabotajean, 2021eko ekitaldi konplikatuaren ondoren. Hala, 2022an 366.616 mila tona garraiatu ziren guztira, aurreko ekitaldian baino % 4,1 gehiago. Izan ere, kontuan hartutako hiru partidetatik bik urte arteko hazkundeak izan zituzten. Estatuko trafikoaren erdia baino gehiago (% 58,5) inportazioei zegokien eta horiek % 8,4 hazi ziren. Esportazioek (guztizkoaren % 28,3), berriz, % 4,8ko jaitsiera izan zuten. Kabotajearen kasuan ere, % 13,2ko pisu espezifikoarekin, inportazioek gora egin zuten eta balioak handituta amaitu zuen ekitaldia (+% 6,8).

Nazioarteko eta Estatuko merkataritzaren bilakaera aztertuta, 2022an Bilboko Portuan (Bizkaia) eta Pasaiako Portuan (Gipuzkoa) garatutako jardueraren balantzea egingo dugu jarraian.

Bilboko Portuaren analisiarekin hasita, Bizkaiko dartsenako itsasoko trafikoa partzialki suspertu zen (+% 5,1); guztira 32.889 mila tona garraiatu zituen, 2021ean baino gehiago, baina 2019an baino gutxiago (-% 7,6). Dena den, Euskal Herriko erreferentziazko portua izaten jarraitu zuen Bizkaikoak, eta jardueraren zatirik handiena jaso zuen (% 90,8).

Informazioa banatuta, ikus daiteke bi partida nagusiek, hau da, deskarga (% 65,8) eta karga (% 33,8) jarduerek, urte arteko hazkundeak izan zituztela (+% 6,1 eta +% 3,2). Testuinguru horretan, hornidurak, ia hondarreko presentziarekin (% 0,4), antzeko hazkundea izan zuen (+% 5,3).



LABORAL kutxa

**212. koadroa Euskal Herriko portu nagusietako trafikoa**

*(m Tm)*

| Kontzeptua | Bilbo 2020 | Bilbo 2021 | Bilbo 2022 | Pasaia 2020 | Pasaia 2021 | Pasaia 2022 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Deskargak | 19.466,2 | 20.416,5 | 21.659,1 | 1.792,7 | 2.211,6 | 2.097,5 |
| Kargak | 10.077,9 | 10.766,1 | 11.107,5 | 1.200,7 | 1.282,7 | 1.170,1 |
| Zuzkidura | 101,1 | 116,5 | 122,6 | 22,8 | 23,9 | 25,9 |
| Tokiko trafikoa | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| Arrantza | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 20,5 | 18,8 | 19,1 |
| **Guztira** | **29.645,1** | **31.299,0** | **32.889,2** | **3.036,6** | **3.537,0** | **3.312,5** |

*'turria: Bilboko Portuko Agintaritza. Pasaiako Portuko Agintaritza.*

Analisia Pasaiako Portura mugatuta, Gipuzkoako dartsenak 3.312,5 mila tona garraiatu zituen, 2021ean baino gutxiago (-% 6,4; 2019arekiko +% 2,1). Zehatzago esanda, deskarga-jarduerek, pisu erlatibo handienarekin (guztizkoaren % 63,3), jaitsiera izan zuen (-% 5,2). Eta karga-jarduerek ere (% 35,3) behera egin zuten (-% 8,7). Aldiz, horniduraren eta arrantzaren balioak % 8,4 eta % 1,6 hazi ziren, hurrenez hurren.

**213. koadroa Merkantzien guztizko trafikoaren osaera**

*(m Tm)*

| Kontzeptua | Bilbo 2020 | Bilbo 2021 | Bilbo 2022 | Pasaia 2020 | Pasaia 2021 | Pasaia 2022 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Petrolio-produktuak | 12.563,8 | 12.692,5 | 14.157,7 | -- | -- | -- |
| Merkantzia orokorra | 7.719,4 | 8.766,7 | 8.560,8 | 1.984,2 | 2.389,8 | 2.363,5 |
| Solteko salgai solidoak | 3.668,0 | 4.651,3 | 3.752,9 | 1.009,1 | 1.104,4 | 904,1 |
| Beste solteko salgai likido batzuk (*) | 5.592,9 | 5.072,0 | 6.295,2 | -- | -- | -- |
| Gainerakoak | 101,1 | 116,5 | 122,6 | 43,3 | 42,8 | 44,9 |
| **Guztira** | **29.645,1** | **31.299,0** | **32.889,2** | **3.036,6** | **3.537,0** | **3.312,5** |

**): Datua gas naturalaren eta beste solteko salgai batzuen baturari dagokio.*
*turria: Bilboko Portuko Agintaritza. Pasaiako Portuko Agintaritza.*

Bilboko Portuko merkantzien guztizko trafikoaren osaerari buruzko datuetan sakonduta, hazkundeak gailendu baziren ere, jarduera murriztu zuten merkantzia orokorrak eta solteko salgai solidoek (-% 2,3 eta -% 19,3). Petrolio-produktuek zuten ordezkaritzarik handiena (% 43) eta % 11,5 hazi ziren. Beste solteko salgai likido batzuek (% 19,1), berriz, % 24,1eko hazkunde nabarmena izan zuten. Gainerako partidek ere (% 0,4) bilakaera positiboa izan zuten, eta % 5,2ko hazkundea izan zuten.

Pasaiako Portuari dagokionez, presentziarik txikieneko partidek baino ez zuten areagotu haien jarduera (+% 4,9). Merkantzia orokorra izan zen ordezkaritza handieneko partida (% 71,4), eta beherakada txiki bat izan zuen (-% 1,1). Solteko salgai solidoen (guztira orokorraren % 27,2) balioak ere % 18,1 murriztu ziren urtean zehar.

**214. koadroa Kanpoko trafikoa eta kabotajea**

*(m Tm)*

| Kontzeptua | Bilbo 2020 | Bilbo 2021 | Bilbo 2022 | Pasaia 2020 | Pasaia 2021 | Pasaia 2022 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Inportazioa | 19.024,4 | 19.646,3 | 21.215,0 | 1.763,4 | 2.184,9 | 1.978,0 |
| Esportazioa | 8.855,0 | 9.649,4 | 9.639,8 | 1.200,5 | 1.282,6 | 1.166,5 |
| Kabotajea | 1.664,7 | 1.886,8 | 1.911,8 | 29,4 | 26,8 | 123,1 |
| **Guztira** | **29.544,1** | **31.182,5** | **32.766,6** | **2.993,3** | **3.494,3** | **3.267,6** |

*turria: Bilboko Portuko Agintaritza. Pasaiako Portuko Agintaritza.*

EAEko kanpo-merkataritzari eta kabotajeari dagokienez, eta bi portuen balantze bateratua aintzat hartuta, jarduera hazi egin zen (+% 3,9) eta 36.034,2 mila tona maneiatu zituzten –horietatik 32,8 mila tona Bilboko Portuari zegozkion–. Dena den, ez zituzten pandemiaren aurreko balioak gainditu. Inportazioek, % 64,4ko pisu erlatiboarekin, aurreko ekitaldiko erregistroak hobetu zituzten (+% 6,2). Dena den, esportazioek behera egin zuten apur bat (-% 1,1). Azkenik, kabotajeak izan zuen urte arteko bilakaerarik onena (+% 6,3), partaidetza-kuota txikiagoarekin (% 5,6).

Bilboko Portuari buruzko informazioan sakonduta, inportazioek (+% 8) eta kabotajeak (+% 1,3) bolumena igotzea lortu zuten 2022an. Ez zen hori gertatu esportazioen kasuan, apur bat jaitsi baitziren (-% 0,1). Hala, trafikoaren osaerak ez zuen aldakuntza handirik izan; inportazioei (% 64,7) eta esportazioei (% 29,4) dagokie jardueraren zatirik handiena.

Analisi hori bera Pasaiako Portura eramanda, kabotajeak hazkunde handia izan zuen (+% 359,4), ez ordea inportazioek (-% 9,5) eta esportazioek (-% 9), behera egin baitzuten biek. Horren guztiaren ondorioz, inportazioak kokatu ziren buruan, kanpo-trafikoaren % 60,5arekin; segidan esportazioak, % 35,7ko pisu espezifikoarekin eta, azkenik, kabotajea, % 3,8ko partaidetzarekin.

**215. koadroa Bilboko Portuaren kanpoko trafikoaren osaera. 2022**

*(m Tm)*

| Esportazioak | | Inportazioak | |
|---|---|---|---|
| Produktu kimikoak | 1.026,4 | Petrolio gordina | 9.755,2 |
| Beste mineral ez-metaliko batzuk | 895,2 | Gas naturala | 4.213,6 |
| Fuel-olioa | 838,0 | Produktu siderurgikoak | 1.588,7 |
| Beste petrolio-produktu batzuk | 814,3 | Soja-babak | 930,4 |
| Gasolina | 770,6 | Produktu kimikoak | 811,7 |
| Produktu siderurgikoak | 685,5 | Gasolioa | 481,8 |
| Beste batzuk | 4.609,7 | Beste batzuk | 3.433,5 |
| **Guztira** | **9.639,8** | **Guztira** | **21.215,0** |

*Iturria: Bilboko Portuko Agintaritza. Geuk egina.*

Esportazioen eta inportazioen informazioa merkantzia motaren arabera banakatuta, eta Bilboko Portuari dagokionez, produktu kimikoak (% 10,6ko partaidetza) eta beste mineral

ez-metaliko batzuk (% 9,3ko partaidetza) kokatu ziren buruan; beheranzko bilakaera izan zuten biek, baina neurri ezberdinetakoa (-% 1 eta -% 22,4). Era berean, behera egin zuten gasolinak (-% 29,3) eta produktu siderurgikoek (-% 9,7). Azkenik, beste petrolio-produktu batzuek (% 8,4) bilakaera oso ona izan zuten (+% 30), baita fuel-olioak ere, hazkunde esponentzialarekin (+% 1.077).

Inportazioei dagokienez, lehenengo bi posizioetan zeuden merkantziek, hau da, petrolio gordinak (kuotaren % 46) eta gas naturalak (% 19,9), oso bilakaera ona izan zuten (+% 30,5 eta +% 36,7). Produktu siderurgikoek, soja-babek eta produktu kimikoek ez zuten aipatutako joera izan, eta behera egin zuten 2022an (-% 8,6, -% 7,0 eta -% 7,2) Bestetik, gasolioak izan zuen urte arteko hazkunderik handiena (+% 1.650,8), haren ekarpena askoz ere txikiagoa izan arren (% 2,3).

**216. koadroa Pasaiako Portuaren kanpoko trafikoaren osaera. 2022**

*(m Tm)*

| Esportazioak | | Inportazioak | |
|---|---|---|---|
| Produktu siderurgikoak | 580,9 | Produktu siderurgikoak | 997,0 |
| Ibilgailuak eta horien piezak | 393,5 | Papera eta orea | 232,0 |
| Eraikuntza-materialak | 54,5 | Ongarri naturalak eta artifizialak | 146,0 |
| Burdina-txatarra | 45,5 | Pentsua eta bazkak | 122,0 |
| Beste mineral ez-metaliko batzuk | 26,0 | Zerealak eta horien irinak | 103,1 |
| Beste salgai batzuk | 66,2 | Beste salgai batzuk | 377,9 |
| **Guztira** | **1.166,5** | **Guztira** | **1.978,0** |

*Iturria: Pasaiako Portuko Agintaritza. Geuk egina.*

Analisia Pasaiako Portuko kanpo-trafikora mugatuta, jarduerak balio negatiboekin itxi zuen urtea, bai kanpora egindako salmenten kasuan (-% 9), bai kanpotik egindako erosketen kasuan (-% 9,5). Esportazioen jaitsieran eragin handia izan zuten produktu siderurgikoek (-% 13,5) eta eraikuntza-materialek (-% 21,2), portuko hiru produktu nagusietako bik. Aldiz, ibilgailuek eta piezek (guztizko esportazioen herena), burdina-txatarrak eta beste mineral ez-metaliko batzuek urtea positiboan ixtea lortu zuten, bi digituko urte arteko aldakuntzekin.

Inportazioei dagokienez, eta esportazioen atalean aipatutakoarekin bat etorriz, produktu siderurgikoak kokatu ziren buruan, kanpotik egindako erosketen erdia baino gehiago baitzegokien (% 50,4). Hala ere, horien trafikoaren bolumena apur bat murriztu zen (-% 4,8). Pentsuak eta bazkak (kuotaren % 6,2) eta zerealak eta horien irinak (% 5,2) batu zitzaizkien horiei; azken horien kasuan, % 20 behera jaitsi ziren.

Paperak eta oreak eta ongarri naturalek eta artifizialek, bien artean, karga guztien % 19ko pisu espezifikoa eskuratu zuten. Neurri oso ezberdineko hazkundeak izan zituzten (+% 1,5 lehenengoen kasuan eta +% 45,6 bigarrenen kasuan).

**217. koadroa Bilboko Portua. Herrialdeen araberako trafikoa, 2022**

(m Tm)

| Herrialdea | Deskargak | Kargak | Guztira |
|---|---|---|---|
| Estatu Batuak | 3.233,47 | 998,66 | 4.232,13 |
| Erresuma Batua | 1.609,29 | 1.625,16 | 3.234,45 |
| Errusia | 2.746,94 | 21,78 | 2.768,72 |
| Brasil | 2.172,76 | 373,90 | 2.546,67 |
| Espainia | 444,10 | 1.467,65 | 1.911,75 |
| Herbehereak | 491,38 | 1.293,68 | 1.785,06 |
| Mexiko | 1.554,59 | 137,22 | 1.691,81 |
| Belgika | 385,09 | 600,53 | 985,62 |
| Irlanda | 297,73 | 578,32 | 876,05 |
| Irak | 820,67 | 0,46 | 821,13 |
| Libia | 810,77 | 0,19 | 810,96 |
| Nigeria | 577,61 | 15,31 | 592,93 |
| Angola | 556,02 | 16,56 | 572,58 |
| Beste batzuk | 5.958,63 | 3.978,11 | 9.936,74 |
| **Guztira** | **21.659,07** | **11.107,53** | **32.766,59** |

*Iturria: Bilboko Portuko Agintaritza. Geuk egina.*

Kanpoko trafikoari buruzko informazioa herrialdearen arabera banakatuta eta Bilboko Portuarekin hasita, osaera nabarmen aldatu zen. AEB pasatu zen rankingeko lehen postura (guztizkoaren % 12,9), Errusia gaindituta (% 8,4). Tartean Erresuma Batua kokatu zen, bigarren postua mantenduta, trafiko osoaren ia % 10arekin. Horien atzetik kokatu zen Brasil (% 7,8); aurreko urtean zortzigarren postuan zegoen, eta 2022an laugarren postura igo zen. Espainia (% 5,8), Herbehereak (% 5,4) eta Mexiko (% 5,2) izan ziren hurrengoak. Ohiko merkatuek osatu zuten mapa, hala nola Irlandak edo Libiak, eta merkataritza-bazkide berriak ere batu zitzaizkien, esaterako, Irak, Nigeria edo Angola.

**218. koadroa Pasaiako Portua. Herrialdeen araberako trafikoa2022**

*(m Tm)*

| Herrialdea | Deskargak | Kargak | Guztira |
|---|---|---|---|
| Erresuma Batua | 257,57 | 398,11 | 655,68 |
| Herbehereak | 412,53 | 43,94 | 456,47 |
| Belgika | 185,65 | 246,69 | 432,34 |
| Suedia | 343,27 | 2,00 | 345,27 |
| Alemania | 218,94 | 41,39 | 260,33 |
| AEB | 69,59 | 56,16 | 125,75 |
| Espainia | 120,04 | 5,41 | 125,45 |
| Turkia | 4,10 | 118,89 | 122,99 |
| Finlandia | 72,22 | 3,62 | 75,84 |
| Errusia | 65,59 | 0,00 | 65,59 |
| Egipto | 59,48 | 2,98 | 62,47 |
| Kanada | 12,59 | 43,97 | 56,56 |
| Maroko | 24,90 | 28,97 | 53,87 |
| Beste batzuk | 251,02 | 177,97 | 428,98 |
| **Guztira** | 2.097,49 | 1.170,09 | 3.267,58 |

*turria: Pasaiako Portuko Agintaritza. Geuk egina.*

Pasaiako Portuko merkataritza-bazkide nagusiei dagokienez, Erresuma Batuak lehen postua mantendu zuen, merkataritza-fluxuen % 20arekin. Jarraian, Herbehereak (% 14), Belgika (% 13,2), Suedia (% 10,6) eta Alemania (% 8) kokatu ziren, 2021eko posizio berberetan. Seigarren postuan AEB zegoen (% 3,8); hazkunderik handiena izan zuen herrialdea izan zen, eta 5 postu aurreratu zituen. Jarraian, Espainia eta Turkia kokatu ziren, rankingean hainbat postu aurreratuta. Finlandia, Errusia, Egipto, Kanada eta Marokoren gisako herrialdeek osatu zuten mapa, % 2aren inguruko partaidetzekin.

**219. koadroa Bilboko Portua. Magnitude ekonomikoak**

*(m euro)*

| Kontzeptua | 2020 | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|
| Zerbitzuengatiko diru-sarrerak eta kanonak | 58.960 | 63.157 | Daturik ez |
| Gastu arruntak | 35.223 | 33.576 | Daturik ez |
| Amortizazioak | 29.957 | 28.415 | Daturik ez |
| Ustiapenaren irabazia | -1.716 | 5.872 | Daturik ez |
| Ekitaldiaren emaitza | 431 | 6.804 | Daturik ez |
| Cash Flow | 30.388 | 35.219 | Daturik ez |
| Ibilgetu materiala | 459.111 | 449.984 | Daturik ez |

*Iturria: Bilboko Portuko Agintaritza.*

Bilboko Portuko magnitude nagusiei dagokienez, 2021ean (txosten hau egiteko unean eskuragarri zegoen azken datua) berriz ireki ziren mundu mailako itsasoko fluxuak eta merkantzien trafikoa. Testuinguru horretan, negozio-zifra 63,1 milioi eurora igo zen, hau da, aurreko urtekoa baino % 7,1 handiagoa izan zen. Hala ere, covidaren aurreko balioak baino apur bat beherago kokatu zen oraindik ere. Kostuen partida nagusien emaitzak hobetu egin ziren, eta behera egin zuten gastu arruntek (-% 4,7) eta amortizazioek (-% 5,1).

Agertoki horren aurrean, Portuko Agintaritzak emaitza positiboen bidea hartu zuen berriro. EBITDA 34,3 milioi eurokoa izan zen, eta ustiapenaren irabazia 5,8 milioi eurokoa. Bestetik, zergen ondorengo irabazia 6,8 milioi eurokoa izan zen; hala, 35,2 milioi euroko kaxa sortu zuen, eta balantzea onbideratuagoa eta kapitalizatuagoa izatea lortu zuen.

Kapitulua amaitzeko, Bilboko Portuak inbertsioen arloan egindako jarduketa nagusiak eta ekitaldi honetan egindako jarduketak azalduko ditugu. Ekonomia suspertzeko Europako funtsak jasotzeak oxigenoa eman zion Portu Entitateari, bi urtez etengabeko murrizketak eta mugikortasunerako mugak jasan ondoren. Europako Batzordeak 26 milioi euro inguruko laguntza-lerro bat onartu zuen orain dela gutxi, honako arlo hauetan proiektu jasangarriak eta berritzaileak garatzeko: kaien elektrifikazioa, plaka fotovoltaikoen instalazioa, saneamendu-sareak edo deskarbonizaziorako hubak. Gainera, beste 34,6 milioi euro bideratuko ditu hainbat motatako inbertsioetara, han kokatuta dauden enpresa pribatu batzuen instalazioak handitzeko eta hobetzeko.

**37. grafikoa** **Merkantzien eta itsasontzien trafikoa Bilboko Portuan**







*Iturria: Bilboko Portuko Agintaritza.*

**38. grafikoa Merkantzien eta itsasontzien trafikoa Pasaiako Portuan**







*Iturria: Pasaiako Portuko Agintaritza.*

## 3.4. AIRE BIDEZKO GARRAIOA

2022an, AENAk argitaratutako informazioaren arabera, Estatuko aireportuek bidaiarien joan-etorria berreskuratu zuten, eta 2019an erregistratutako balioetara gerturatu ziren. Hala ere, oztopo ugari izan ditu sektoreak: Errusia eta Ukrainarekiko loturak bertan behera uztea, gerra-gatazka lehertu zenean; Ekialde Hurbilerako bideak irekitzeko geldotasuna eta erregaiaren kostuen igoera. Faktorek horiek atzeratu egin zuten sektoreko zifren erabateko suspertzea.

**220. koadroa Euskal Herriko aire bidezko garraioa***

| Urtea | Aireontziak | | | Bidaiariak (m) | | | Merkantziak (m) | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztira | % ∆ | Euskal Herria/ Espainia % | Guztira | % ∆ | Euskal Herria/ Espainia % | Guztira | % ∆ | Euskal Herria/ Espainia % |
| 2016 | 64.124 | 1,4 | 3,1 | 5.043,1 | 8,2 | 2,2 | 55.116,9 | 11,9 | 6,9 |
| 2017 | 68.033 | 6,1 | 3,1 | 5.505,5 | 9,2 | 2,2 | 62.445,9 | 13,3 | 6,8 |
| 2018 | 72.563 | 6,7 | 3,2 | 6.105,3 | 10,9 | 2,3 | 63.396,9 | 1,5 | 6,3 |
| 2019 | 74.998 | 3,4 | 3,2 | 6.643,8 | 8,8 | 2,4 | 65.473,1 | 3,3 | 6,1 |
| 2020 | 36.672 | -51,1 | 3,3 | 1.901,7 | -71,4 | 2,5 | 64.719,1 | -1,2 | 8,2 |
| 2021 | 47.473 | 29,5 | 3,1 | 2.977,3 | 56,6 | 2,5 | 73.003,8 | 12,8 | 7,3 |
| 2022 | 69.706 | 46,8 | 3,1 | 5.920,9 | 98,9 | 2,4 | 74.311,6 | 1,8 | 7,4 |

*(*): 2022ko behin-behineko datuak.*
*Iturria: AENA.*

Euskal Herriko lau aireportuen jarduera modu bateratutan aztertuta, erreferentziazko hiru adierazleen ohiko jarduera maila partzialki berreskuratu zen. Loiu (Bilbo), Noain (Iruñea), Donostia (Hondarribia) eta Foronda (Vitoria-Gasteiz) dira lau aireportuak, eta bilakaera ezberdinak izan zituzten. Horrekin lotuta, nabarmentzekoa da Hondarribiko aireportuak eta Forondako aireportuak alde handiarekin gainditu zutela 2019ko bidaiari kopurua, eta zifra historikoak izan zituzten biek.

Hori esanda, jarduera osoa kontuan hartuta, aireontzien trafikoak urte arteko hazkunde handia izan zuen 2022an (+% 46,8), baina ez zen 2019ko bolumenera heldu (-% 7,1). Bidaiariei dagokienez, 2022an hazkunde handia izan arren (+% 98,9), ez zen 6 milioi bidaiariko langa gainditu; 2018-2019 biurtekoan bai, muga hori gainditzea lortu zen. Aldiz, merkantzien garraioa apur bat igo zen 2022an (+% 1,8), eta 2021eko hazkundeari (+% 12,8) batuta, aise gainditu ziren covidaren aurreko balioak. Gauzak hala, 2022an 69.706 eragiketa burutu ziren guztira, ia 6 milioi bidaiari garraiatu ziren eta 74.311 mila tona merkantzia garraiatu ziren.



LABORAL kutxa

**221. koadroa Aireportuko aireontzien trafikoa***

*(unitate)*

| Kontzeptua | Bilbo | | Iruñea | | Donostia | | Gasteiz | | Euskal Herria | | Euskal Herria/ Espainia % | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 |
| **Trafikoa, guztira** | **26.429** | **44.919** | **5.244** | **5.865** | **3.119** | **5.579** | **12.681** | **13.343** | **47.473** | **69.706** | **4,0** | **3,1** |
| Barnekoa | 19.435 | 28.501 | 4.931 | 5.356 | 2.531 | 4.583 | 6.194 | 6.333 | 33.091 | 44.773 | 5,8 | 5,7 |
| Nazioartekoa | 6.994 | 16.418 | 313 | 509 | 588 | 996 | 6.487 | 7.010 | 14.382 | 24.933 | 2,3 | 2,2 |

*(*): 2022ko behin-behineko datuak.*
*Iturria: AENA.*

Sektoreko magnitude nagusietan sakonduta eta aireontzien trafikoarekin hasita, Euskal Herriko lau aireportuek bi digituko urte arteko hazkundeak erregistratu zituzten. Hala, erreferentziazko aireportuarekin hasiko gara, Loiurekin (Euskal Herriko trafiko osoaren % 64,4). Ekitaldian zehar % 70 hazi zen lanean aritu ziren aireontzien kopurua; izan ere, bilakaera ona izan zuten barne-trafikoak (+% 46,7) zein nazioartekoak (+% 134,7). Gasteizko aireportuak, % 19,1eko ordezkaritzarekin, jarduera areagotzea lortu zuen (+% 5,3), gora egin baitzuten trafiko nazionalak (+% 2,3) eta nazioartekoak (+% 8,1). Hala, 2019ko mailatik gora kokatu zen aireportu bakarra izan zen. Bestetik, Iruñeko aireportuak % 8,4ko partaidetza izan zuen eta haren trafikoa hobetu egin zen (+% 11,9), batez ere, nazioarteko trafikoaren bilakaeraren ondorioz (+% 62,6); barneko trafikoak hazkunde txikiagoa izan zuen (+% 8,7). Azkenik, guztizko trafikoaren gaineko % 8ko partaidetzarekin, Donostiako aireportua nabarmendu zen gainerako aireportuen aurrean, barne-trafikoak izandako bilakaerari esker (+% 81,1); nazioarteko trafikoaren hazkunde-tasa apur bat txikiagoa izan zen (+% 69,4).

**222. koadroa Merkantzien trafikoa, aireportuen arabera***

*(Tm)*

| Kontzeptua | Bilbo | | Iruñea | | Donostia | | Gasteiz | | Euskal Herria | | Euskal Herria/ Espainia % | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 |
| **Trafikoa, guztira** | **472** | **672** | **2,3** | **7,2** | **0,1** | **0,0** | **72.529** | **73.633** | **73.004** | **74.311** | **7,3** | **7,4** |
| Barnekoa | 226 | 281 | 0,5 | 0,7 | 0,1 | 0,0 | 18.852 | 18.996 | 19.079 | 19.277 | 17,8 | 16,6 |
| Nazioartekoa | 246 | 391 | 1,8 | 6,5 | 0,0 | 0,0 | 53.677 | 54.637 | 53.925 | 55.034 | 6,0 | 6,2 |

*(*): 2022ko behin-behineko datuak.*
*Iturria: AENA.*

Merkantzien mugimenduari dagokionez, Gasteizko aireportuak hartu zuen Euskal Herriko merkantzien trafiko ia osoa. Kontuan izan behar da merkantzien garraiora zuzendutako aireportua izan dela tradizioz. Bestetik, azken urteetan ez da eten hegaldi komertzialen bultzada. 2022an hazkunde txiki bat izan zuen (+% 1,5) jarduera osoak (% 99,9 Foronda), barneko segmentuaren (+% 0,8) eta nazioarteko segmentuaren (+% 1,8) bilakaerari esker.

**223. koadroa Bidaiarien trafikoa, aireportuen arabera***

*(m)*

| Kontzeptua | Bilbo | | Iruñea | | Donostia | | Gasteiz | | Euskal Herria | | Euskal Herria/ Espainia % | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 |
| **Trafikoa, guztira** | **2.581** | **5.129** | **113** | **172** | **155** | **383** | **128** | **235** | **2.977** | **5.921** | **2,5** | **2,4** |
| Barnekoa | 2.004 | 3.316 | 110 | 165 | 154 | 379 | 100 | 154 | 2.368 | 4.015 | 4,5 | 4,9 |
| Nazioartekoa | 577 | 1.813 | 2 | 7 | 1 | 4 | 28 | 81 | 609 | 1.906 | 0,9 | 1,2 |

*(*): 2022ko behin-behineko datuak.*
*Iturria: AENA.*

Euskal Herriko aireportuetan izandako bidaiarien trafikoa aztertuko dugu orain, eta Donostiako aireportuarekin hasiko gara. 2022ko balantzea oso ona izan zen eta bidaiari kopurua izugarri hazi zen (+% 147,1); nazioarteko osagaia (+% 218,1) zein osagai nazionala (+% 146,1) hazi ziren. Joera bera izan zuen Loiuko aireportuak (+% 98,7), eta nazioarteko segmentuak hazkunde handiagoa izan zuen (+% 214,3) segmentu nazionalak baino (+% 65,5). Noainen (+% 52,8) eta Forondan (+% 83,2) nazioarteko segmentuaren bilakaera nabarmendu zen (+% 187,5 eta +% 188,1); merkatu nazionalaren hazkundea, aldiz, txikiagoa izan zen (+% 49,9 eta +% 53,9).

**224. koadroa Aireportuko trafikoaren hazkundea (2022/2021)***

| Aireportua | Bidaiariak | | Aireontziak | | Merkantziak | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Mila | % ∆ | Unitateak | % ∆ | Tm | % ∆ |
| Bilbo (Loiu) | 2.548 | 98,7 | 18.490 | 70,0 | 200 | 42,3 |
| Iruñea (Noain) | 59 | 52,8 | 621 | 11,8 | 5 | 218,2 |
| Donostia (Hondarribia) | 228 | 146,9 | 2.460 | 78,9 | 0 | -100,0 |
| Gasteiz (Foronda) | 107 | 83,2 | 662 | 5,2 | 1.104 | 1,5 |
| **Euskal Herria** | **2.944** | **98,2** | **22.233** | **46,8** | **1.307** | **1,8** |

*(*): 2022ko behin-behineko datuak.*
*Iturria: AENA.*

Kapitulu hau amaitzeko, Euskal Herriko erreferentziazko 4 aireportuetako berritasun nagusiak azalduko ditugu jarraian.

Loiuko aireportutik hasita, berrikuntza arloan pauso bat ematea lortu zuen. Izan ere, Estatuko lehenengo hegazti-radarra instalatu eta martxan jarri zuen, aireko eragiketen segurtasuna indartzeko apustu argia eginda. Hala, Europako erreferentziazko aireportuen parera iristea da helburua, teknologiarik aurreratuenen erabilerari dagokionez. Giltzarriak diren lotura eta ibilbide batzuk berrezarri eta hedatu zituzten, eta, gainera, kostu baxuko operadore berriak iritsi ziren aireportura. Horrek guztiak lagundu egin zuen Bizkaiko aireportuaren jarduera guztiz suspertzen.

Donostiako aireportuari dagokionez, inoiz baino bidaiari kopuru handiagoarekin itxi zuen urtea, neurri handi batean, aireportuko airelinea berriek eskaintzen dituzten lotura berriei

esker. Honako hauek dira Iberiaren ohiko eskaintzari (Madril-Bartzelona) batu zitzaizkion airelineak: Volotea, British Airways eta Binter. Halaber, Cellnex telekomunikazioen enpresak orain dela gutxi egindako iragarpena nabarmendu behar da: 5G sare pribatu bat ezarriko du. Haren gainean hainbat jarduketa garatuko dira, segurtasunaren, monitorizazio aurreratuaren eta datuen tratamenduaren arlokoak. Europa mailako proiektu aitzindaria da, aireportu-agintaritza ugariren kudeaketa-ereduetan mugarria izango dena.

Bestetik, Forondako aireportuarentzat urte historikoa izan zen, bidaiari kopuruari zein garraiatutako tona kopuruari dagokienez. Hainbat faktorek izan zuten horretan eragina, esaterako: charter hegaldien eta lotura erregularren gero eta eskaintza zabalagoa (gehienak Ryanair-enak); logistika-zentro handi bat, non DHL, Fedex edo UPS bezalako erreferentziazko enpresek haien eragiketa-basea duten; edo urteko 365 egunetan egunez eta gauez lan egitea ahalbidetzen dion H24 lizentzia berreskuratu izana. Horrez guztiaz gain, AENAren inbertsio bat jaso zuen Arabako aireportuak orain dela gutxi, 16 milioi eurokoa (azken hamarkadako zenbatekorik handiena), errodaje-kaleetan eta hainbat plataformatan berritze-lan sakonak egiteko konpromiso sendoarekin.

Iruñeari dagokionez, Noainek azken 10 urteetako hirugarren markarik onena lortu zuen bidaiari kopuruari dagokionez. Bi hub-etara (Madril eta Bartzelona), Kanarietara eta Balear uharteetara egindako hegaldiek aireportuaren jarduera bultzatu zuten, Lufthansa operadoreak Frankfurtera zuen lotura galtzea kolpe handia izan bazen ere. Gainera, ondoz ondoko hirugarren urtez, Europako Aireportu Onenaren saria eman zioten Nafarroako azpiegiturari, bi milioi bidaiari baino gutxiagoko kategorian, honako arloetan lan ona egiteagatik: higienea, langileen tratua edo segurtasun-kontroleko itxarote-denbora, beste batzuen artean.

# 4. TURISMOA

## 4.1. NAZIOARTEKO EGOERA

Pandemiaren biurtekoak (2020-2021) bereziki eragin zien pertsonen joan-etorriei, eta horrek zuzeneko eragina izan zuen turismo-mugimenduekin lotutako emaitzetan. Turismoaren Mundu Erakundearen arabera, 2022an nazioarteko 963 milioi turista iritsi ziren, aurreko bi urteetan baino askoz ere gehiago. Hala ere, oraindik ere ez gara iritsi 2019ko emaitzetara (-% 34,3). Normaltasun osoko azken urtea izan zen hura. Hala, 2022an partzialki leheneratu ziren sektoreko adierazle nagusiak, eta 2023ra atzeratu zen erabateko suspertzea, betiere normaltasun-baldintzak guztiz eskuratuz gero.

Hala, pandemia-egoeratik irten izanaren eta Errusiak Ukraina inbaditu izanaren ondorioek eragina izan dute egungo inflazio-prozesuan. Horrek, batetik, produktu turistikoen prezioa igotzea eragin du (garraiotik hasi eta hoteletako tarifetara) eta, bestetik, familiek eskuragarri duten errenta murriztu dute. Hori faktore negatiboa izan daiteke mugikortasun turistikorako (ez hainbeste 2022an, baina, egoerak irauten badu, 2023an eragina izan lezake).

**225. koadroa Nazioarteko turistak**

*Turistak, milioitan*

| Eremua | 2019 | 2020 | 2021 | 2022* | Merkatu-kuota 2022 (%) | % Δ 22/19 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **1.465** | **407** | **456** | **963** | **100,0** | **-34,3** |
| -Europa | 744 | 240 | 305 | 595 | 61,7 | -20,1 |
| -Amerika | 219 | 70 | 82 | 156 | 16,2 | -29,0 |
| -Asia eta Pazifikoa | 360 | 59 | 25 | 101 | 10,4 | -72,1 |
| -Afrika | 69 | 19 | 20 | 47 | 4,8 | -32,7 |
| -Ekialde Ertaina | 73 | 20 | 25 | 66 | 6,8 | -10,1 |
| | | | | | | |
| Europa* | | | | | | |
| -Ipar Europa | 84 | 24 | 22 | 72 | 7,4 | -14,3 |
| -Mendebaldeko Europa | 205 | 84 | 88 | 167 | 17,4 | -18,4 |
| -Erdialdeko/Ekialdeko Europa | 151 | 44 | 56 | 89 | 9,2 | -41,2 |
| -Hego Europa/Mediterraneoa | 304 | 88 | 139 | 267 | 27,7 | -12,3 |
| -Horietatik EB-27koak | 539 | 183 | 226 | 441 | 45,8 | -18,3 |

*(*): 2022ko behin-behineko datuak.*
*Iturria: Turismoaren Mundu Erakundea*

2022ko datuek erakusten dutenez, Europak suspertze ona izan zuen (-% 20,1), eta 2019arekiko aldea gehien murriztu zuen eremua zen, Ekialde Ertainaren atzetik (-% 10,1) –dena den, azken horren pisua askoz ere txikiagoa da kuantitatiboki–. Hortaz, urte arteko balantzea ona izan zen, 2019ko erregistroetara iritsi gabe.

Nazioarteko turisten etorreraren banaketa, merkatuaren arabera, mantendu egin zen. Hala, Europaren jarduera erabakigarria izan zen, munduko kuotaren % 61,7 egokitu baitzitzaion. Gainera, suspertzearen bilakaera positiboagoa izan zen Hego Europa/Mediterraneoan (-% 12,3) –munduko nazioarteko etorreren % 27,7 jaso zituen–, Ipar Europan (-% 14,3) eta Mendebaldeko Europan (-% 18,4). Horiek izan ziren 2019ko datuekiko alderik txikiena lortu zutenak. Emaitza horien aurrean, Erdialdeko/Ekialdeko Europa izan zen suspertze-prozesuan atzeratuen agertu zena (-% 41,2).

## 4.2. TURISMOA ESPAINIAN

**Eskari turistikoa**

Nazioarteko eskari turistikoak indarra berreskuratu zuen Espainian ere, baina pandemiaren aurreko balioetara iritsi gabe. Hala, suspertze handia erregistratu arren, 2022an nazioarteko 71,7 milioi bidaiari etorri ziren (garraiobide guztiak kontuan hartuta). Zifra hori askoz ere altuagoa da 2021ekoa baino (+% 129,8), baina 2019ko emaitza baino beherago jarraitzen du oraindik ere (-% 14,2).

2022ko bidaiarien jatorriari dagokionez, 2021arekin alderatzeak ez du pista handirik ematen. Izan ere, urte hartan mugikortasuna oso mugatuta zegoen eta, gainera, murrizketek ez zieten berdin eragin merkatu igorle guztiei. Dena den, 2022ko rankinga urrundu egin zen 2021eko ezohikotasunetik, eta urte “normaletako” osaeraren antzekoa izan zuen.

Hala, Erresuma Batuak berreskuratu zuen lehen postua, 15,1 milioi bidaiari baino gehiagorekin. Frantzia eta Alemania izan ziren hurrengoak, biak 10 milioi ingururekin. Herrialde eskandinaviarrak eta Italia kokatu ziren laugarren eta bosgarren postuetan, 4 milioi bidaiari baino gehiagorekin. Bost leku horietakoak izan ziren Estatura etorri ziren nazioarteko bidaiarien % 60,4. Ehunekoa 2019koaren bera da, baina balioa % 14,1 baxuagoa (2019an 50,3 milioi eta 2022an 43,3 milioi).

2019an eskuratutako emaitzekin alderatuta, nabarmentzekoa da Portugalgo eta Belgikako bidaiarien etorrera suspertu izana (-% 0,5), Herbehereen hazkundea (+% 6,5) eta, espero bezala, Errusiako bidaiarien jaitsiera handia (-% 97,6). Azkenik, kontuan izan behar da bi merkatu garrantzitsuren hobetzeko marjina: Erresuma Batua eta Alemania. Horiek

oraindik ere ez dira suspertu (-% 16,0 eta -% 12,5) eta garrantzitsuak dira biak, nazioarteko fluxuaren herena horiei baitagokie, ia modu jarraituan (2022an % 35,2).

**226. koadroa Espainiara datozen bidaiariak[1], jatorriaren arabera**

| Eremua | 2019 | 2020 | 2021 | 2022* | % ∆ 22/21 | % ∆ 22/19 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Erresuma Batua | 18.012.482 | 3.150.204 | 4.302.634 | 15.121.910 | 251,5 | -16,0 |
| Frantzia | 11.147.397 | 3.887.750 | 5.822.671 | 10.096.040 | 73,4 | -9,4 |
| Alemania | 11.158.022 | 2.391.437 | 5.208.894 | 9.768.600 | 87,5 | -12,5 |
| Herrialde eskandinaviarrak | 5.530.112 | 1.175.329 | 1.839.654 | 4.291.225 | 133,3 | -22,4 |
| Italia | 4.534.513 | 947.405 | 1.703.422 | 4.011.139 | 135,5 | -11,5 |
| Herbehereak | 3.684.260 | 918.361 | 2.048.854 | 3.923.089 | 91,5 | 6,5 |
| AEB | 3.324.870 | 403.438 | 797.842 | 2.801.476 | 251,1 | -15,7 |
| Belgika | 2.525.887 | 743.411 | 1.464.092 | 2.513.389 | 71,7 | -0,5 |
| Portugal | 2.428.789 | 755.229 | 1.193.649 | 2.415.936 | 102,4 | -0,5 |
| Irlanda | 2.177.592 | 328.629 | 631.314 | 2.089.464 | 231,0 | -4,0 |
| Suitza | 1.811.867 | 397.073 | 945.709 | 1.654.733 | 75,0 | -8,7 |
| Errusia | 1.314.079 | 146.647 | 131.182 | 31.528 | -76,5 | -97,6 |
| Europako gainerakoak | 6.441.422 | 1.692.074 | 2.991.449 | 6.265.623 | 109,5 | -2,7 |
| Amerikako gainerakoak | 3.767.276 | 900.445 | 1.069.422 | 3.557.937 | 232,7 | -5,6 |
| Munduko gainerakoak | 5.650.584 | 1.061.493 | 1.026.953 | 3.117.193 | 203,5 | -44,8 |
| **Guztira** | **83.509.152** | **18.898.925** | **31.177.741** | **71.659.282** | **129,8** | **-14,2** |

*(*): 2022ko datuak behin-behinekoak dira.*
*Iturria: EIN. Herrialdeen arteko bidaiarien mugimenduaren estatistika (Frontur).*

Eskari turistikoaren analisiarekin jarraituz eta hotelen sarearen informazioa[2] kontuan hartuta (sarreren % 77 eta gaualdien % 71 dagozkie hotelei), atzerriko eskaria nabarmen hobetu zela erakusten dute datuek.

Hala, Estatuko eta nazioarteko bidaiarien segmentuek hoteletan izandako hileko bilakaera eta urteko batez besteko bilakaera jasotzen dituen grafikoan argi ikusten da sektoreak 2020an eta 2021ean bizitako zailtasun-egoera; gainera, nazioarteko segmentuan are nabarmenagoa izan zen zailtasuna. Hain zuzen ere, bi profilek 2022an izan zuten bilakaera alderatuz gero, nazioarteko segmentua Estatukoa baino gutxiago hazi zen urteko lehen zatian. Dena den, udan eta udazkenaren lehen zatian (urria) indarra hartu zuen, eta bi segmentuetako bidaiarien bolumena ia berdina izan zen.

[1] Frontur-ek (Atzerritarren mugimendu turistikoaren estatistika), garraiobideen eta bidaiatzeko motibazioaren arabera, Espainian bizi ez diren eta ostatu mota guztiak erabiltzen dituzten bidaiarien fluxua jasotzen du, honako hauek barne: bigarren etxebizitzak, etxebizitza partikularrak, eta horiez gain, hotel-sareak, landa-ostatuak, apartamentu turistikoak edota kanpinak. Horiek dira kapitulu honetako aztergai nagusia.

[2] EIN Hoteletako okupazioaren galdetegia.

**39. grafikoa Bidaiari kopuruaren bilakaera, hilabeteka (Espainia, 2020-2022) Hotel-establezimenduak**




*Iturria: EIN. Hoteletako okupazioaren galdetegia*

Dinamika hori bera (ñabardurekin) izan zuten Estatuko eskaintza turistikoa osatzen duten gainerako ostatuek ere: eskariaren sasoiaren araberako portaera argia eta nazioarteko segmentuaren bultzada.

Hala, Estatuko ostatuen sareak ia 132,8 milioi bidaiari-sarrerarekin amaitu zuen 2022a, 2021eko balioak nabarmen gaindituta (+% 64,4) eta 2019ko emaitzetara asko hurbilduta (-% 1,7). Hotelen segmentuaren hobekuntza-erritmoa nabarmentzen da azken emaitza horretan, pertsonen 102,7 milioi sarrerarekin. Dena den, oraindik ez ditu berreskuratu covidaren aurreko balioak (-% 5,5); gainera, segmentu horren suspertzea erabakigarria da, duen pisu erlatiboa dela eta.

Gainerako eskaintza honela banatu zen: landa-turismoa –segmentu horrek gora egin zuen eta suspertze erlatibo ona izan zuen (-% 1,6), baina oso pisu txikia du (sarreren % 3,3)–, eta, ondoren, apartamentu turistikoak (+% 0,2; sarreren % 9,4), kanpinak (+% 14,5; % 7,2) eta aterpetxeak (+% 238,7; % 2,8). Azken horiek 2019ko sarrera kopurua gainditu zuten (eskaintza handitu izanak baldintzatutako emaitzak).

**227. koadroa Eskari turistikoaren bilakaera Espainian**

| Eremua | 2019 | 2020 | 2021 | 2022* | % ∆ 22/21 | % ∆ 22/19 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Bidaiariak (mila)** | **135.007** | **45.613** | **80.755** | **132.775** | **64,4** | **-1,7** |
| -Hotelak | 108.716 | 34.589 | 60.724 | 102.734 | 69,2 | -5,5 |
| -Landa-turismoa | 4.421 | 2.083 | 3.380 | 4.350 | 28,7 | -1,6 |
| -Apartamentu turistikoak | 12.479 | 4.218 | 7.525 | 12.503 | 66,2 | 0,2 |
| -Kanpinak | 8.304 | 4.489 | 7.622 | 9.506 | 24,7 | 14,5 |
| -Aterpetxeak | 1.087 | 234 | 1.504 | 3.682 | 144,8 | 238,7 |
| **Gaualdiak (mila)** | **469.814** | **144.677** | **259.580** | **451.591** | **74,0** | **-3,9** |
| -Hotelak | 342.996 | 92.223 | 172.807 | 320.794 | 85,6 | -6,5 |
| -Landa-turismoa | 11.726 | 6.315 | 9.779 | 11.957 | 22,3 | 2,0 |
| -Apartamentu turistikoak | 71.383 | 23.819 | 39.299 | 67.073 | 70,7 | -6,0 |
| -Kanpinak | 40.721 | 21.565 | 34.697 | 44.892 | 29,4 | 10,2 |
| -Aterpetxeak | 2.988 | 755 | 2.998 | 6.875 | 129,3 | 130,1 |
| **Batez besteko egonaldia** | | | | | | |
| -Hotelak | 3,2 | 2,7 | 2,8 | 3,1 | 0,3 e.p. | 0,0 e.p. |
| -Landa-turismoa | 2,7 | 3,0 | 2,9 | 2,7 | -0,1 e.p. | 0,1 e.p. |
| -Apartamentu turistikoak | 5,7 | 5,6 | 5,2 | 5,4 | 0,1 e.p. | -0,4 e.p. |
| -Kanpinak | 4,9 | 4,8 | 4,6 | 4,7 | 0,2 e.p. | -0,2 e.p. |
| -Aterpetxeak | 2,7 | 3,2 | 2,0 | 1,9 | -0,1 e.p. | -0,9 e.p. |

*(*): Behin-behineko datuak.*
*Iturria: EIN.*

Espero bezala, gaualdiek ere hobera egin zuten, baina neurri txikiagoan (gaualdien hobekuntza -% 3,9koa izan zen eta, sarrerena, -% 1,7koa). Hobekuntza-ratio txikiago horrek tarifa turistikoen igoeraren inpaktua erakutsi dezake eta, oro har, mugikortasun-tarifak (garraioa) igo izanaren inpaktua. Hotelek eta apartamentu turistikoek gainerako aukerek[1] baino emaitza okerragoak eskuratu zituzten gaualdiei dagokienez (-% 6,5 eta -% 6,0), eta bidaiarien sarrerei dagokienez ere (-% 5,5 eta +% 0,2) –printzipioz, gainerako aukerek prezio baxuagoa dute–.

Hala, oro har, ostatu-sareak haren jarduera berreskuratu zuen 2022an, eta urte “normaletako” antzeko batez besteko egonaldia izan zuen. Bidaien iraupena zerbait luzeagoa izan zen apartamentu eta kanpinetan (5 egun inguru), hoteletan baino (3 egun inguru). Hotelek askotariko bidaiariak jasotzen dituzte, eta horrek ere baldintzatzen ditu egonaldiak (adibidez, hirietako egonaldiak, orokorrean, laburragoak izaten dira hondartzetakoak baino).

[1] Zuhurtziagatik, estatistika honek ez du barne hartzen ostatu turistikoen sarea (plataformen bidez eskuragarri dagoena). 2022ko Espainiako Etxebizitza Turistikoei buruzko Txostenaren (FERVITUR) arabera, “kasuen % 41,6etan bidaiariek onartzen dute erabilera turistikoko etxebizitzen merkatua bakarrik arakatu zutela ostatua bilatzean, eta alde batera utzi zituztela gainerako ostatu-modalitateak. % 50,6k erabilera turistikoko etxebizitza bat aukeratu zuten, hotelen eskaintzarekin alderatu ondoren”.

**Eskaintza turistikoa**

Eskaintza turistikoari dagokionez, sektoreko adierazle nagusiek erakusten dutenez, urte arteko hazkunde handia izan zuen, baina kasu guztietan ez zituen eskuratu covidaren aurreko balioak. Hala, hotelen sarearen neurria ez zen berreskuratu (-% 5,5 establezimendu gutxiago), ezta landa-turismoaren eta apartamentu turistikoen neurria ere (-% 4,5 eta -% 3,2, hurrenez hurren). Aldiz gora egin zuen kanpinen eskaintzak (+% 3,6) eta asko igo zen aterpetxe kopurua[1] (1.147 establezimendu, eta 2019an 243).

Halaber, eskuragarri zeuden plazen eskaintza suspertu egin zen, eskariaren igoerarekin bat etorriz, eta asko gerturatu zen 2019ko balioetara. Hotelen sarearen bilakaera positiboa nabarmendu zen (-% 2,0). Bilakaera ona izan zuten apartamentu turistikoek (-% 4,5) eta landa-turismoak ere (-% 4,2), eta kanpinetako eskaintzak ez zuen ia aldaketarik izan –sarea handitu zen arren–. Hala, eskainitako plaza kopuru osoa ostatu motaren arabera multzokatuta, eskainitako plaza guztien % 55,2 hotelei zegozkien, % 18 inguru apartamentu turistikoei eta % 18 inguru kanpinei. Landa-turismoari eta aterpetxeei atxikitako plazen ekarpen erlatiboa askoz ere txikiagoa izan zen (% 5,9 eta % 2,4, hurrenez hurren).

Enpleguari egindako ekarpenari dagokionez, hotelen segmentua nabarmendu zen; 209.049 langile zituen, hau da, sortutako enplegu zuzenaren ia % 77. Hala, 2021arekiko (urte hartan kontuan hartu ziren plaza itxiak, eskaintzan sartu gabeak, zituzten establezimenduak) hazkunde handia izan zuen, baina ez zen iritsi 2019ko mailara.

[1] Zuhurtziaz hartu behar dira datu horiek; EINek ez du azalpenik jasotzen bilakaera horri buruz.

**228. koadroa Espainiako eskaintza turistikoaren bilakaera (urteko batez bestekoa)**

| Eremua | 2019 | 2020 | 2021 | 2022* | % ∆ 22/20 | % ∆ 22/19 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Establezimendu kopurua** | | | | | | |
| -Hotelak | 14.897 | 8.975 | 11.482 | 14.071 | 22,5 | -5,5 |
| -Landa-turismoa | 17.217 | 12.800 | 15.122 | 16.444 | 8,7 | -4,5 |
| -Apartamentu turistikoak | 132.539 | 77.342 | 105.383 | 128.300 | 21,7 | -3,2 |
| -Kanpinak | 774 | 527 | 720 | 802 | 11,3 | 3,6 |
| -Aterpetxeak | 243 | 127 | 792 | 1.147 | 44,8 | 371,9 |
| **Eskainitako plaza kopurua** | | | | | | |
| -Hotelak | 1.517.583 | 740.881 | 1.068.086 | 1.486.662 | 39,2 | -2,0 |
| -Landa-turismoa | 165.949 | 120.699 | 143.238 | 159.015 | 11,0 | -4,2 |
| -Apartamentu turistikoak | 507.816 | 306.271 | 408.418 | 484.847 | 18,7 | -4,5 |
| -Kanpinak (partzelaka) | 502.002 | 340.483 | 463.366 | 498.950 | 7,7 | -0,6 |
| -Aterpetxeak | 25.537 | 13.807 | 46.924 | 64.356 | 37,1 | 152,0 |
| **Langileak** | | | | | | |
| -Hotelak | 219.475 | 86.971 | 127.995 | 209.049 | 63,3 | -4,8 |
| -Landa-turismoa | 25.512 | 19.208 | 21.577 | 24.591 | 14,0 | -3,6 |
| -Apartamentu turistikoak | 28.499 | 14.402 | 19.870 | 28.719 | 44,5 | 0,8 |
| -Kanpinak | 7.233 | 4.601 | 6.528 | 7.847 | 20,2 | 8,5 |
| -Aterpetxeak | 1.840 | 1.024 | 2.754 | 3.667 | 33,1 | 99,3 |

*(*): Behin-behineko datuak.*
*Iturria: EIN. Hoteletako okupazioaren galdetegia*

Informazioa sakonduz, eskaintza turistikoari lotutako bi aldagaietatik abiatuta kalkulatutako ratioak aztertuko ditugu: eskainitako plaza kopurua eta lanpostuak dira aldagai horiek. Bi aldagaien kasuan, aintzat hartzen da establezimenduaren tamaina. Lehenengo adierazlearen kasuan, kanpinak zeuden buruan (622,3) eta, gero, hotelak (105,7), aterpetxeak (56,1), landa-ostatuak (9,7) eta apartamentu turistikoak (3,8). Dena den, agerikoa da ostatu mota bakoitzaren batez besteko tamaina oso ezberdina dela eta, orokorrean, ez dela alderatzeko modukoa.

Enpleguari egindako ekarpenari dagokionez, hotelen sarea askoz ere gorago kokatu zen gainerako ostatu-segmentuak baino: establezimendu bakoitzeko 14,9 langileko ratioa, batez beste. Dena den, kanpinak ere nabarmendu ziren (9,8 langile), baina kasu honetan lanpostuak iragankorragoak dira beste sareetan baino.

**229. koadroa Eskaintza turistikoaren bilakaera Espainian**

| Eremua | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | % ∆ 22/21 | % ∆ 22/19 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Plazak establezimendu bakoitzean** | | | | | | |
| -Hotelak | 101,9 | 82,6 | 93,0 | 105,7 | 13,6 | 3,7 |
| -Landa-turismoa | 9,6 | 9,4 | 9,5 | 9,7 | 2,1 | 0,3 |
| -Apartamentu turistikoak | 3,8 | 4,0 | 3,9 | 3,8 | -2,5 | -1,4 |
| -Kanpinak | 648,7 | 645,7 | 643,3 | 622,3 | -3,3 | -4,1 |
| -Aterpetxeak | 105,1 | 108,7 | 59,3 | 56,1 | -5,3 | -46,6 |
| **Enplegua establezimendu bakoitzean** | | | | | | |
| -Hotelak | 14,7 | 9,7 | 11,1 | 14,9 | 33,3 | 0,8 |
| -Landa-turismoa | 1,5 | 1,5 | 1,4 | 1,5 | 4,8 | 0,9 |
| -Apartamentu turistikoak | 0,2 | 0,2 | 0,2 | 0,2 | -- | -- |
| -Kanpinak | 9,3 | 8,7 | 9,1 | 9,8 | 8,0 | 4,7 |
| -Aterpetxeak | 7,6 | 8,1 | 3,2 | 3,2 | 0,0 | -57,8 |

*turria: EIN. Hoteletako okupazioaren galdetegia*

## Okupazio maila eta prezioen bilakaera

Jarduera suspertzearekin batera, okupazio mailaren adierazleak nabarmen hobetu ziren eta balio normalagoetara itzuli ziren. Hala, hotelen okupazio maila % 55,2koa izan zen, oraindik ere 2019koa baino ehuneko 3,2 puntu baxuagoa. Adierazle hori baxuagoa izan zen aintzat hartutako gainerako ostatu-segmentuetan, maiz gertatzen den moduan. Baina, gainera, kanpinek (ehuneko +2,8 puntu) eta landa-turismoak (ehuneko +1,1 puntu) bakarrik hobetu zuten haien okupazio maila 2019arekiko.

**230. koadroa Okupazio mailaren eta prezio-indizeen bilakaera Espainiako turismo-ostatuen sareetan (urteko batezbestekoa)**

| Eremua | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | ∆ 22/21 | ∆ 22/19 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Okupazio maila plaza kopuruko** | | | | | *(aldea ehuneko puntutan)* | |
| -Hotelak | 58,4 | 26,5 | 37,1 | 55,2 | 18,1 | -3,2 |
| -Landa-turismoa | 18,7 | 13,4 | 16,8 | 19,8 | 3,0 | 1,1 |
| -Apartamentu turistikoak | 37,1 | 16,9 | 23,0 | 36,1 | 13,1 | -0,9 |
| -Kanpinak (partzelaka) | 39,7 | 32,0 | 37,4 | 42,5 | 5,1 | 2,8 |
| -Aterpetxeak | 31,0 | 14,6 | 14,3 | 27,6 | 13,3 | -3,4 |
| **Prezio-indizea** | | | | | | *(%)* |
| -Hotelak | 112,2 | 103,1 | 109,7 | 128,2 | 18,5 | 16,0 |
| -Landa-turismoa | 142,1 | 141,1 | 145,4 | 155,8 | 10,3 | 13,6 |
| -Apartamentu turistikoak | 142,1 | 133,1 | 139,4 | 154,6 | 15,2 | 12,5 |
| -Kanpinak | 150,4 | 152,9 | 153,4 | 158,5 | 5,1 | 8,1 |
| -Aterpetxeak | Daturik ez | Daturik ez | Daturik ez | Daturik ez | -- | -- |

*Ed: ez dago daturik*
*Iturria: EIN. Hoteletako okupazioaren galdetegia*

Azkenik, prezioen igoera orokorrarekin bat etorriz, Prezio Indizeak ere gora egin zuen, eta ostatu-segmentu guztien prezioak igo ziren 2021arekin eta 2019arekin alderatuta. Hotelek izan zuten hazkunderik handiena (+% 18,5 eta +% 16,0, hurrenez hurren). Halaber,

hotelek eta apartamentu turistikoek 2022an izandako prezioen igoera handiagoa izan zen 2021arekiko, 2019arekiko baino. Izan ere, bi ostatu-segmentu horiek tarifak jaitsi zituzten 2020 eta 2021ean, eta hori ez zen gertatu gainerako osatu motetan.

## 4.3. TURISMOA EAEN

**Eskari turistikoa**

2022an EAEko turismo-jarduerak izandako emaitzak bat datoz, neurri handi batean, Estatuaren kasuan aipatu ditugun giltzarriekin. Dena den, EAEren kasuan agertokia hobea izan zen, oro har.

Hala, sektoreko bi adierazle handien (hoteletako bidaiariak eta gaualdiak, eskaintzaren funtsezko zati gisa) bilakaera aztertzeak aukera ematen du EAEko zein Estatuko jarduera neurtzeko eta, hala, bi lurraldeetako datuak alderatu ahal izateko.

2022an EAEn 3,34 milioi bidaiarik hartu zuten ostatu hoteletan, 2019an baino gehiagok (+% 4,9). Hala, EAEko emaitza orokorra hobea izan zen Estatukoa baino, hark balio negatiboa izan baitzuen (-% 5,5). Estatuko bidaiariak (+% 5,7) eta atzerriko turismoa (+% 3,8) hazi izanak eragin zuen emaitza hori. Estatuan okerragoa izan zen bi segmentu horien bilakaera (+% 0,9 eta -% 5,5). Halaber, gaualdien kasuan ere emaitza horiek errepikatu ziren (+% 2,8 eta -% 6,5). Bi segmentuek bilakaera hobea izan zuten EAEn (+% 3,2 eta +% 2,3), Estatuan baino (+% 0,2 eta -% 6,5).

**231. koadroa Hotelen sareko eskaera turistikoaren bilakaera, EAEn eta Estatuan (2022)**

| Kontzeptua | Bidaiariak | | Gaualdiak | | Batez besteko egonaldia |
|---|---|---|---|---|---|
| | 2022 | % ∆ 22/19 | 2022 | % ∆ 22/19 | 2022 |
| **EAE** | **3.340.493** | **4,9** | **6.442.631** | **2,8** | **1,93** |
| Estatuko egoiliarrak | 1.942.984 | 5,7 | 3.695.853 | 3,2 | 1,90 |
| Atzerriko egoiliarrak | 1.397.509 | 3,8 | 2.746.778 | 2,3 | 1,97 |
| **Estatua** | **102.734.760** | **-5,5** | **320.794.002** | **-6,5** | **3,12** |
| Estatuko egoiliarrak | 53.201.689 | 0,9 | 119.903.749 | 0,2 | 2,25 |
| Atzerriko egoiliarrak | 49.533.071 | -5,5 | 200.890.253 | -6,5 | 4,06 |

*Iturria: Eustat (Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta) eta EIN (Hoteletako okupazioaren galdetegia)*

Hortaz, EAEk eta Estatuak bilakaera ezberdina izan zuten. Izan ere, EAEk erakargarritasuna irabazi zuen helmuga gisa, eta horrek barne-eskariari (beste autonomia-erkidego batzuetatik etorritako jendea) eta nazioarteko segmentuaren bilakaera hobeari lagundu zien. Gainera, EAEk mendekotasun maila txikiagoa du bi merkatu handiekiko: Erresuma Batua eta Alemania. Bi horiekiko mendekotasunak

oztopatu egin zuen Estatuko eskaria suspertzea. Era berean, batez besteko eskariaren patroia ere ezberdina izan zen. Hoteletako egonaldiaren batez besteko iraupena askoz ere baxuagoa izan zen EAEn, Estatuan baino. Izan ere, Estatuan udako eta hondartzako turismoa gailentzen da, batez ere, eta horien iraupena luzeagoa izaten da.

Hala, EAEk 2022an 3,6 milioi bidaiari eta 7,4 milioi gaualdi izan zituen. Estatuko merkatua mantendu zen buruan, % 60 inguruko partaidetzarekin, bi adierazleen kasuan.

Horrekin lotuta, hainbat emaitza nabarmendu behar dira: lehenik eta behin, Madrilgo merkatuaren hazkundea, bidaiari kopurua eta gaualdi kopurua nabarmen hazi baitziren 2019arekiko (+% 14,8 eta +% 16,1). Kataluniak ere bilakaera ona izan zuen (+% 4,1 eta +% 5,2). Hala, bien artean, Estatuko bidaiari eta gaualdi guztien % 34 eta % 33 bildu zituzten. Bigarrenik, sarreren eta gaualdien % 40 inguru atzerriko merkatuari zegozkion. Ondorioz, EAEri ez diote horrenbeste eragiten atzerriko merkatuen gorabeherek. Dena den, Frantziako eta Amerikako merkatuek garrantzia dute eta bi merkatu horiek hazkunde handiak izan zituzten 2022an bidaiarien sarrerei (+% 25,8 eta +% 5,4) eta gaualdiei (+% 28,2 eta +% 7,4) dagokienez, 2019arekin alderatua.

**232. koadroa** **Jasotako bidaiari kopurua, gaualdiak eta batezbesteko egonaldia (EAE 2022). Jatorriaren arabera**

| Eremua | Bidaiariak | % | %∆ 22/19 | Gaualdiak | % | % ∆ 22/19 | Batez besteko egonaldia |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **GUZTIRA** | **3.651.240** | **100,0** | **6,1** | **7.412.754** | **100,0** | **5,6** | **2,0** |
| **Guztira Estatuan** | **2.170.975** | **59,5** | **6,9** | **4.393.890** | **59,3** | **6,0** | **2,0** |
| -EAE | 506.815 | 13,9 | 10,9 | 1.025.541 | 13,8 | 10,1 | 2,0 |
| -Madril | 430.611 | 11,8 | 14,8 | 789.125 | 10,6 | 16,1 | 1,8 |
| -Katalunia | 308.462 | 8,4 | 4,1 | 652.730 | 8,8 | 5,2 | 2,1 |
| -Andaluzia | 144.274 | 4,0 | 6,3 | 337.521 | 4,6 | 3,6 | 2,3 |
| -Valentziako Erkidegoa | 128.007 | 3,5 | 1,6 | 246.891 | 3,3 | 0,1 | 1,9 |
| -Gaztela eta Leon | 111.063 | 3,0 | -1,8 | 258.953 | 3,5 | -2,8 | 2,3 |
| -Galizia | 75.104 | 2,1 | -7,7 | 144.427 | 1,9 | -10,8 | 1,9 |
| -Nafarroa | 83.199 | 2,3 | 2,8 | 183.174 | 2,5 | 5,7 | 2,2 |
| -Aragoi | 84.829 | 2,3 | 16,9 | 138.299 | 1,9 | 17,8 | 1,6 |
| -Asturias | 65.564 | 1,8 | 2,0 | 123.705 | 1,7 | 0,3 | 1,9 |
| -Gaztela eta Mantxa | 50.455 | 1,4 | -0,2 | 115.164 | 1,6 | -7,7 | 2,3 |
| -Beste autonomia-erkidego batzuk | 182.590 | 5,0 | 2,2 | 378.358 | 5,1 | 1,0 | 2,1 |
| **Atzerrikoak guztira** | **1.480.265** | **40,5** | **4,9** | **3.018.864** | **40,7** | **5,0** | **2,0** |
| -Frantzia | 362.792 | 9,9 | 25,8 | 581.815 | 7,8 | 28,2 | 1,6 |
| -Amerika | 274.615 | 7,5 | 5,4 | 632.311 | 8,5 | 7,4 | 2,3 |
| -Alemania | 123.855 | 3,4 | -5,0 | 262.591 | 3,5 | -6,9 | 2,1 |
| -Portugal | 122.600 | 3,4 | -5,2 | 266.693 | 3,6 | 1,0 | 2,2 |
| -Erresuma Batua | 77.701 | 2,1 | -5,4 | 166.941 | 2,3 | -6,0 | 2,2 |
| -Italia | 67.204 | 1,8 | 27,1 | 132.797 | 1,8 | 19,1 | 2,0 |
| -Belgika | 52.024 | 1,4 | 30,2 | 99.378 | 1,3 | 25,3 | 1,9 |
| -EBko gainerakoak (1) | 231.342 | 6,3 | 16,1 | 496.318 | 6,7 | 12,5 | 2,2 |
| -Europako gainerakoak (2) | 77.478 | 2,1 | -2,5 | 170.529 | 2,3 | 0,8 | 2,2 |
| -Munduko gainerakoak | 90.655 | 2,5 | -38,9 | 209.492 | 2,8 | -32,1 | 2,3 |

*(1): EBko gainerakoak Austria, Bulgaria, Zipre, Danimarka, Eslovakia, Eslovenia, Estonia, Finlandia, Grezia, Hungaria, Irlanda, Letonia, Lituania, Luxenburgo, Malta, Polonia, Txekiar Errepublika, Errumania, Suedia eta Kroazia.*
*(2): Europako gainerakoak: EBkoak ez diren Europako herrialdeak.*
*Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta.*

Gauzak hala, EAEko emaitzak bat datoz hiru lurraldeekin, oro har, baina ñabardurekin. Zehazki, turismo-eskaerari dagokionez (hotelak, landa-ostatuak eta apartamentu turistikoak), Arabak eta Gipuzkoak hobekuntza handiak erregistratu zituzten 2019arekiko, bai bidaiarien sarreren kasuan (+% 8,1 eta +% 9,5), bai gaualdien kasuan (+% 6,1 eta +% 9,8). Bi adierazle horien emaitzak, aldiz, askoz ere baxuagoak izan ziren Bizkaian (+% 2,7 eta +% 1,6). Halaber, Araban eta Gipuzkoan nabarmen hobetu zen Estatuko (+% 6,2 eta +% 8,9, hurrenez hurren) eta atzerriko (+% 13,0 eta +% 10,2) bidaiarien sarrera kopurua, baita bi jatorrietako bidaiarien gaualdi kopurua ere (+% 5,8 eta +% 7,1 Arabaren kasuan, eta +% 9,6 eta +% 10,1 Gipuzkoan). Bizkaian, berriz, Estatuko jatorria zuten zifrak bakarrik hobetu ziren (+% 5,6 eta +% 3,1), eta atzerriko datuak ez ziren iritsi 2019ko erregistroetara (-% 1,6 eta -% 0,6). Funtsean, Arabako eta Gipuzkoako hotelek oso modu

positiboan amaitu zuten 2022a, eta Bizkaian baino askoz ere emaitza hobeak eskuratu zituzten.

**233. koadroa EAEko turismo-eskariaren bilakaera *(hotelak, landa-ostatuak eta apartamentu turistikoak)***

| Kontzeptua | Bidaiariak | | | Gaualdiak | | | Batez besteko egonaldia |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2022 | % ∆ 22/21 | % ∆ 22/19 | 2022 | % ∆ 22/21 | % ∆ 22/19 | 2022 |
| **Araba** | **497.408** | **42,7** | **8,1** | **1.006.761** | **35,2** | **6,1** | **2,02** |
| Estatuko egoiliarrak | 355.118 | 25,9 | 6,2 | 739.390 | 20,7 | 5,8 | 2,08 |
| Atzerriko egoiliarrak | 142.290 | 114,0 | 13,0 | 267.371 | 101,8 | 7,1 | 1,88 |
| **Bizkaia** | **1.658.858** | **60,5** | **2,7** | **3.244.627** | **58,2** | **1,6** | **1,96** |
| Estatuko egoiliarrak | 1.013.456 | 32,6 | 5,6 | 1.938.208 | 26,9 | 3,1 | 1,91 |
| Atzerriko egoiliarrak | 645.402 | 140,2 | -1,6 | 1.306.419 | 149,4 | -0,6 | 2,02 |
| **Gipuzkoa** | **1.494.974** | **50,2** | **9,5** | **3.161.366** | **51,2** | **9,8** | **2,11** |
| Estatuko egoiliarrak | 802.401 | 20,5 | 8,9 | 1.716.292 | 18,2 | 9,6 | 2,14 |
| Atzerriko egoiliarrak | 692.573 | 110,3 | 10,2 | 1.445.074 | 126,2 | 10,1 | 2,09 |
| **EAE** | **3.651.240** | **53,6** | **6,1** | **7.412.754** | **51,7** | **5,6** | **2,03** |
| Estatuko egoiliarrak | 2.170.975 | 26,8 | 6,9 | 4.393.890 | 22,3 | 6,0 | 2,02 |
| Atzerriko egoiliarrak | 1.480.265 | 122,7 | 4,9 | 3.018.864 | 133,1 | 5,0 | 2,04 |

*Iturria: Eustat.*

**40. grafikoa Bidaiarien eta gaualdien ekarpena hiru lurralde historikoetan**




*Iturria: Eustat.*

Hala, 2022an EAEko ostatu-sarean (hotelak, landa-ostatuak eta apartamentu turistikoak) erregistratutako bidaiarien sarreren % 13,6 eta gaualdien % 13,6 Arabari zegozkion; Gipuzkoari zegozkion % 40,9 eta % 42,6, eta Bizkaiari % 45,4 eta % 43,8, hurrenez hurren. 2019-2022 balantzeari dagokionez, momentuz, badirudi Gipuzkoak hobeto egin diola aurre azkenaldiko oztopoari (2020-2021 biurtekoa). Hala, EAEko turismo-jardueran lurraldeek duten parte-hartzeari dagokionez, haren posizioa hobetu zuen Gipuzkoak 2019arekiko

(bidaiarien % 39,7 eta gaualdien % 41,0). Baina, gainera, jatorriaren arabera, lurralde bakoitzaren ekarpena apur bat desberdina izan zen: Estatuko bidaiarien sarrera % 16,4, % 46,7 eta % 37,0koa izan zen Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarentzat, eta atzerriko bidaiarien sarrera % 9,6, % 43,6 eta % 46,8koa izan zen Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarentzat.

Lurralde bakoitzak EAEri egiten dion ekarpen erlatiboa ezberdina izatearen arrazoia lurralde bakoitzaren barne-osaeraren emaitza da. Hala, merkatuen araberako osaera hori Estatuaren aldera okertuta zegoen Araban (% 71,4 eta % 28,6, Estatuko eta atzerriko jatorria, hurrenez hurren). Bizkaian ere Estatukoa izan zen merkatu nagusia, baina bien arteko aldea ez zen hain handia (% 61,1 eta % 38,9), eta Gipuzkoan orekatuago zeuden (% 53,7 eta % 46,3). Gaualdien emaitzak antzekoak izan ziren. Gipuzkoan pisu apur bat handiagoa zuen Estatuko osagaiak, atzerrikoak baino (% 54,3 Estatukoak eta % 45,7 atzerrikoak). Bizkaian handiagoa zen aldea (% 59,7 eta % 40,3), eta Araban, berriz, oso nabarmena (% 73,4 eta % 26,6).

**41. grafikoa** **Bidaiariak eta gaualdiak, lurraldeen eta merkatu-segmentuen arabera (%) 2022**




*Iturria: Eustat.*

Hotelen jardueraren hileko bilakaera urtaroen araberakoa izan zen, ohiko moduan. Hala, uda garaian asko igo zen jarduera ia helmuga guztietan. 2022an, 2019arekin alderatua (pandemiaren aurreko urtea), urteko lehen bi-hiru hilabeteetako jarduera apur bat okerragoa izan zen. Halere, apiriletik eta maiatzetik aurrera hazkunde handiagoa izan zuen jarduerak, urrira arte.

42. grafikoa Bidaiari kopuruaren eta gaualdien hileko bilakaera, hoteletan (EAE, 2020-2022)




*Iturria: Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta (EUSTAT)*

## Eskaintza turistikoa

2022an 617 hotel zeuden, 2019an baino zifra altuagoa (14 establezimendu gehiago). 2019arekin egin behar da alderaketa, 2020ko eta 2021eko emaitzek establezimendu itxiak (pandemia) edo ireki berriak konbinatzen zituztelako. Hiru izar edo gehiagoko segmentuak hobera egin zuen (18 establezimendu gehiago) eta horrek eragin zuen irekitako establezimenduen sarea haztea. Aldiz, hiru izar baino gutxiagoko hotelen sarea murriztu egin zen (2 establezimendu gutxiago). Lurraldearen arabera, Araban 3 hotel gehiago zeuden, Bizkaian 6 gehiago eta Gipuzkoan 5 gehiago.

Dena den, ostatu motaren arabera, bilakaera ez zen berdina izan: hiru izar edo gehiagoko 18 establezimendu berrien artetik, 13 Gipuzkoakoak ziren eta gainerakoak Bizkaikoak (+3) eta Arabakoak (+2). Aitzitik, hiru izar baino gutxiagoko establezimenduen kasuan Bizkaia nabarmendu zen, 5 establezimendu gehiagorekin, eta Araban bat gehiago zenbatu zuten. Dena den, ez zuten lortu Gipuzkoako beherakada (8 establezimendu gutxiago) konpentsatzea. Hala, pisu erlatiboari dagokionez, hiru lurraldeetan, 10 establezimendutik 2k edo 3k hiru izar edo gehiago dituzte.

**234. koadroa Hotel-establezimenduen eskaintzaren bilakaera (EAEn eta lurraldeka), 2019-2022**

| Kontzeptua | Establezimendu kopurua | | | | Eskainitako plaza kopurua | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2019 | 2022 | % | Kopuruen arteko aldea 22/19 | 2019 | 2022 | % | % Δ 22/19 |
| **Araba** | **70** | **73** | | **3** | **1.528.178** | **1.683.879** | | **10,2** |
| -Hiru izar edo gehiago | 18 | 20 | 28,2 | 2 | 945.086 | 926.820 | 55,0 | -1,9 |
| -Izar bat edo bi eta pentsioak | 52 | 53 | 71,8 | 1 | 583.092 | 757.059 | 45,0 | 29,8 |
| **Bizkaia** | **231** | **237** | | **6** | **5.189.032** | **5.580.855** | | **7,6** |
| -Hiru izar edo gehiago | 58 | 61 | 25,1 | 3 | 3.505.711 | 3.799.819 | 68,1 | 8,4 |
| -Izar bat edo bi eta pentsioak | 173 | 178 | 74,9 | 5 | 1.683.321 | 1.781.036 | 31,9 | 5,8 |
| **Gipuzkoa** | **302** | **307** | | **5** | **4.208.405** | **4.679.406** | | **11,2** |
| -Hiru izar edo gehiago | 52 | 65 | 19,7 | 13 | 2.233.848 | 2.661.812 | 56,9 | 19,2 |
| -Izar bat edo bi eta pentsioak | 251 | 243 | 80,3 | -8 | 1.974.557 | 2.017.594 | 43,1 | 2,2 |
| **EAE** | **603** | **617** | | **14** | **10.925.615** | **11.944.140** | | **9,3** |
| -Hiru izar edo gehiago | 128 | 146 | 22,8 | 18 | 6.684.645 | 7.388.451 | 61,9 | 10,5 |
| -Izar bat edo bi eta pentsioak | 476 | 474 | 77,2 | -2 | 4.240.970 | 4.555.689 | 38,1 | 7,4 |

*Oharra: Hotel-establezimenduen urteko totalak hautatutako urtean gutxienez egun batez irekita egon diren establezimenduen kopurua ematen du.*
*Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta.*

Dena den, sare eta lurralde bakoitzean guztira eskainitako plazen araberako eskaintzak emaitza horiek argitzen dituzte, eta kalitatezko hotelen egitura dugula erakusten dute: EAEn eskainitako plaza gehienak (% 61,9) hiru izar edo gehiagoko hoteletan daude, bereziki, Bizkaian (% 68,1). Hala, lurralde bakoitzean eskainitako guztizko plaza kopuruaren egitura hiru izar edo gehiagoko segmentuaren eskaintzan oinarritzen da, eta hori ez dator bat establezimendu kopuruaren araberako egiturarekin.

Hotelen, apartamentu turistikoen eta landa-turismoaren baitako ostatu-eskaintza aurkezten du atxikitako koadroak, 2019ko eta 2022ko (bi urte normalizatu) establezimendu kopuruari eta eskainitako plazei dagokienez. 2022an, jarduera suspertu izanaren (eskainitako plaza kopurua) eta establezimendu berriak ireki izanaren ondorioz, egunean eskainitako plaza kopurua hazi egin zen aintzat hartutako hiru establezimendu moten kasuan.

Hala, Arabako ostatuen eskaintzan erregistratutako hazkundeari dagokionez, nabarmentzekoa da antzeko bilakaera izan zutela apartamentu turistikoetako (+% 14,2) eta hoteletako (+% 10,2) plazek, eta hazkunde txikiagoa landa-ostatuek (+% 6,8). Bizkaian, bestalde, beste bi lurraldeekin alderatuta, apartamentu turistikoetako plazen eskaintza asko hazi zen (+% 78,1), eta hazkunde erlatibo txikiagoa izan zuen hotelek (+% 7,6) eta landa-ostatuek (+% 1,8) eskainitako plaza kopuruak.



LABORAL kutxa

Azkenik, Bizkaian bezala, Gipuzkoan ere hazi egin zen apartamentu turistikoekin lotutako plazen kopurua (+% 58,3), eta hoteletako plazak ere nabarmen ugaritu ziren (+% 11,2).

Establezimendu motaren araberako batez besteko tamaina nahiko antzekoa da. Handienak hotelak dira (63, 64 eta 48 plaza establezimendu bakoitzeko, Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian). Plaza kopurua askoz txikiagoa da apartamentu turistikoetan (10-11 artean hiru lurraldeetan), eta are txikiagoa landa-ostatuetan (3,7 Araban eta 2 Gipuzkoan). Azkenik, lurralde bakoitzaren ekarpenari dagokionez, Arabak posizio erlatibo hobea zuen landa-ostatuetako eta apartamentu turistikoetako eskaintzari dagokionez, hotelen kasuan baino. Bizkaiak indartu egin zuen haren pisu erlatiboa eta hari zegozkion hoteletako plazen ia erdiak (% 46,7). Gipuzkoak, berriz, posizio orekatua zuen hiru sareetan (3-4 plaza), eta apartamentu turistikoen segmentuko pisu erlatiboa nabarmendu zen (% 47,3).

**235. koadroa EAEko eta lurralde historikoetako eskaintza turistikoaren bilakaera**

| Kontzeptua | Hotel-establezimenduak | | | Landa-ostatuak | | | Apartamentu turistikoak | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2019 | 2022 | % Δ 22/19 | 2019 | 2022 | % Δ 22/19 | 2019 | 2022 | % Δ 22/19 |
| **Araba** | | | | | | | | | |
| Establezimenduak | 70 | 73 | 4,3 | 99 | 104 | 5,1 | 253 | 290 | 14,6 |
| Plazak eguneko | 4.187 | 4.613 | 10,2 | 969 | 1.035 | 6,8 | 932 | 1.064 | 14,2 |
| **Bizkaia** | | | | | | | | | |
| Establezimenduak | 231 | 237 | 2,6 | 122 | 123 | 0,8 | 261 | 631 | 141,8 |
| Plazak eguneko | 14.217 | 15.290 | 7,6 | 1.237 | 1.259 | 1,8 | 923 | 1.644 | 78,1 |
| **Gipuzkoa** | | | | | | | | | |
| Establezimenduak | 302 | 307 | 1,7 | 181 | 188 | 3,9 | 273 | 692 | 153,5 |
| Plazak eguneko | 11.530 | 12.820 | 11,2 | 1.931 | 2.060 | 6,7 | 870 | 1.377 | 58,3 |
| **EAE** | | | | | | | | | |
| Establezimenduak | 603 | 617 | 2,3 | 402 | 415 | 3,2 | 787 | 1.613 | 105,0 |
| Plazak eguneko | 29.933 | 32.724 | 9,3 | 4.137 | 4.354 | 5,2 | 2.724 | 4.084 | 49,9 |

*(*): Irekitako establezimenduak. Urteko batez besteko emaitzak*
*Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta. Irekitako hotel-establezimenduak**

**43. grafikoa** **Lurralde bakoitzak EAEn eskainitako plazen guztizkoari egindako ekarpena ostatu motaren arabera, 2019an eta 2022an**




*Iturria: Eustat.*

**236. koadroa** **Batez besteko egonaldia eta okupazio maila, establezimendu motaren eta zonalde geografikoaren arabera.**

| Kontzeptua | Hotel-establezimenduak | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Batez besteko egonaldia | | | Okupazio maila; (plazak) | | |
| | 2019 | 2022 | aldea | 2019 | 2022 | aldea |
| **Araba** | **1,9** | **1,9** | **0,0** | **51,6** | **50,2** | **-1,4** |
| Gasteiz | 2,0 | 1,9 | -0,1 | 53,3 | 50,2 | -3,1 |
| Arabar Errioxa | 1,6 | 1,7 | 0,1 | 53,1 | 53,8 | 0,7 |
| Arabako gainerako zonaldeak | 1,8 | 1,7 | -0,1 | 42,2 | 45,4 | 3,2 |
| **Bizkaia** | **1,9** | **1,9** | **0,0** | **56,6** | **51,8** | **-4,8** |
| Bilbo | 1,9 | 1,9 | 0,0 | 61,7 | 55,8 | -5,9 |
| Bilboko metropoli-eremua (*) | 1,8 | 1,8 | 0,0 | 50,9 | 46,1 | -4,8 |
| Bizkaiko kosta | 2,1 | 2,0 | -0,1 | 51,2 | 45,7 | -5,5 |
| Bizkaiko barnealdea | 2,1 | 2,1 | 0,0 | 44,2 | 42,2 | -2,0 |
| **Gipuzkoa** | **2,0** | **2,0** | **0,0** | **60,4** | **57,8** | **-2,6** |
| Donostia | 2,1 | 2,0 | -0,1 | 67,3 | 62,8 | -4,5 |
| Donostiako metropoli eremua (*) | 2,0 | 2,0 | 0,0 | 47,3 | 48,8 | 1,5 |
| Gipuzkoako kosta (*) | 1,7 | 1,7 | 0,0 | 60,4 | 60,7 | 0,3 |
| Gipuzkoako barnealdea | 2,6 | 2,2 | -0,4 | 45,9 | 39,5 | -6,4 |

*(*): Hiriburuak ez dira sartzen.*
*Iturria: Eustat.*

EAEko hainbat eremutako hoteletako batez besteko egonaldiaren eta okupazio mailaren bilakaera jasotzen du atxikitako koadroak. 2022ko emaitzek erakusten dutenez, egonaldien patroia ez zen aldatu, eta pertsona bakoitzeko 1,9 gaualdiko atalasea gailendu zen, 2019arekiko ia aldaketarik gabe, nahiz eta eremu batzuetan zerbait txikiagoa izan.

Gipuzkoak izan zuen batez besteko egonaldirik luzeena (pertsonako 2 gaualdi), eta Donostiaren ratioa nabarmendu zen, beste bi hiriburuetakoa baino handiagoa zelako, eta kostaldeko eremuetakoaren antzekoa zelako.

Bestetik, orokorrean, 2019an baino baxuagoa izan zen okupazio maila 2022an, salbuespen gutxi batzuekin. Gipuzkoak (57,8) nahiko erraz gainditu zituen Arabako (50,2) eta Bizkaiko (51,8) emaitzak, eta zehazki, Donostia (62,8) eta Gipuzkoako kosta (60,7) izan ziren lurraldeko ratioak eta gainerako lurralde eta eremuetako ratioak nabarmen hobetu zituztenak.

**237. koadroa Hileko batez besteko tarifa (ADR) EAEko hotel-establezimenduetan, lurralde historiko eta kategorien arabera. Euroak**

| Kontzeptua | Hotel-establezimenduak | | | |
|---|---|---|---|---|
| | 2021 | 2022 | % ∆ 22/21 | % ∆ 22/19 |
| **Araba** | **73,2** | **81,2** | **10,9** | **12,1** |
| Hiru izar edo gehiago | 87,3 | 99,5 | 14,0 | 18,5 |
| Izar bat edo bi eta pentsioak | 55,3 | 57,6 | 4,2 | 9,5 |
| **Bizkaia** | **74,1** | **91,1** | **23,0** | **6,2** |
| Hiru izar edo gehiago | 86,2 | 105,2 | 22,1 | 7,6 |
| Izar bat edo bi eta pentsioak | 52,2 | 59,2 | 13,5 | 1,1 |
| **Gipuzkoa** | **100,5** | **113,1** | **12,5** | **3,1** |
| Hiru izar edo gehiago | 121,4 | 135,9 | 11,9 | 0,7 |
| Izar bat edo bi eta pentsioak | 73,6 | 79,6 | 8,1 | 3,3 |
| **EAE** | **84,6** | **98,7** | **16,8** | **5,7** |
| Lau eta bost izar | 141,3 | 169,0 | 19,6 | 9,8 |
| Hiru izar | 72,2 | 77,6 | 7,5 | 3,4 |
| Bi izar | 69,8 | 73,9 | 5,8 | 0,1 |
| Izar bat | 65,8 | 70,4 | 7,1 | 0,7 |
| Pentsioak | 54,7 | 62,7 | 14,6 | 4,8 |

*Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta.*

Batez besteko tarifari dagokionez, agertoki inflazionistak eragina izan zuen hoteletako zerbitzuen eskaintzan ere. Argi eta garbi, balioa 2021ean baino dezente handiagoa zen lurralde eta sare guztietan. Bizkaiko prezioen igoera nabarmendu zen (+% 23); igoera hura handiagoa izan zen Arabakoa (+% 10,9) eta Gipuzkoakoa (+% 12,5) baino, ehuneko hamar puntutik gorako aldearekin.

Aipatu dugun moduan, hotelen eskaintzak prezioak jaitsi zituen 2020an eta 2021ean, hortaz, jarduera oraindik ere normalizatu gabe zuen ekitaldi batekiko alderaketa da. Hala, 2019ko tarifekin alderatua, igoera nabarmen txikiagoa izan zen Bizkaian (+% 6,2) eta Gipuzkoan (+% 3,1), eta Gipuzkoako hiru izar edo gehiagoko hoteletan ia bazterrekoa izan zen igoera (+% 0,7).

Azkenik, Gipuzkoako hotelen batez besteko tarifak, bi kategorietan (135,9 € eta 79,6 €), altuagoak izan ziren Arabakoak (99,5 € eta 57,6 €) eta Bizkaikoak (105,2 € eta 59,2 €) baino. Pandemiaren aurretik ere horrelakoa zen prezioen patroia.

EAEko datuek segmentu bakoitzeko batez besteko tarifa aurkezten dute eta, ikus daitekeenez, zenbat eta maila altuagoa izan (izarrak), orduan eta errazagoa izan zen tarifa handitzea. Edo, beste ikuspegi batetik, maila altuko hotelek faktore hobeak dituzte merkatuan bereizteko, eta horrek erraztu egiten du prezioak igotzea, eskaintzaren erantzuna kaltetu gabe.

Sektoreko aurreikuspenei dagokienez, badirudi turismo-jarduera gora egiten hasi dela berriz, eta aurreikuspenak oso positiboak dira 2023rako. Dena den, inflazioaren bilakaera giltzarria izango da. Hala, 2023an zehar mundu mailan espiral inflazionista mantentzen bada, ziur asko, hazkundea txikiagoa izango da.



# 6.FINANTZA SEKTOREA

# 1. IKUSPEGI OROKORRA

2022an ere ziurgabetasunak izan ziren. Pandemiaren urtearen eta pandemiaren osteko urtearen ondoren, gerra-gatazkaren urtea etorri zen. Hala, hiru urtetan, dinamika ekonomiko-finantzarioez gaindiko faktoreek markatu zuten eragile sozialen agenda. Hori kontuan hartuta, urteko emaitza makroekonomikoak positiboak izan ziren neurri handi batean, baina 2022aren hasieran aurreikusitakoak baino okerragoak.

Energiaren prezioen aldakortasunak baldintzatu zuen urtearen bilakaera. 2021aren bigarren zatian gorantz egiten hasi ziren energiaren prezioak, ziztu bizian, eta gerra-gatazkak okertu egin zuen egoera. Egoera horrek eta pandemiaren osteko ekoizpenaren eraldaketen ondorioek azaltzen dute erregistratutako prezioen espirala, laurogeiko hamarkada erdialdetik ikusi gabea. Diru-agintaritzek (Fed eta EBZ) interes-tasak igo zituzten, suspertze ekonomikoa gelditu gabe tentsio inflazionistak jaisteko helburu zailarekin.

Igoerek erritmo eta maila ezberdinak izan zituzten AEBko eta Euroguneko merkatuetan. Ondorioz, kanbio-tasaren bilakaera positiboa izan zen Europako dibisarentzat 2021ean. Dena den, 2022ko bigarren erditik, erlazio hori parekatzen hasi zen –uztaila eta urria artean, nagusiki–, eta faktore hori esanguratsua izan zen nazioarteko merkatuetan (energiaren prezioak, esaterako). Datozen bi urteetan 1,06 inguruan mantentzeko joera izango duela aurreikusten da.

**44. grafikoa Kanbio-tasa: Euroa versus Dolarra***




*(*): Eguneko datuen hileko batezbestekoa.*
*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.*

Banku zentralek adi jarraitzen dute[1] eta 2023an interes-tasak berriro ere igoko dituztela aurreratu dute. Beste adierazle batzuen bilakaerari egokituko zaizkie igoera horiek, adibidez, enpresen konfiantzari. Hala, PMI adierazleak (manufaktura-industria eta zerbitzuak, EB-27n eta herrialdeen arabera) eta enpresen konfiantzaren adierazleak (Espainia, EIN) haien salmenta-aurreikuspenak hobetu dituzte 2023ko lehenengo hiruhilekoan, eta prezioen egonkortasun handiagoa eta enpleguaren hazkundea aurreratu dituzte, 2022aren itxieran iragarritakoarekin alderatuta.

2022an erregistratutako ziurgabetasunak burtsako indize nagusiei eragin zien, eta galera handiak izan zituzten haien kapitalizazioan. Horrek agerian utzi zuen merkatuen sentikortasuna. Dax-Xetra (-% 12,3) eta Eurostoxx 50 (-% 11,7) indizeen jaitsiera nabarmendu zen, eta Frantziako CAC (-% 9,5) eta IBEX-35 (-% 5,6) izan ziren hurrengoak. FTSE indize britainiarra, berriz, apur bat hobetu zen (+% 0,9). Ipar Amerikako merkatuek jaitsiera handia izan zuten, eta eten egin zen erregistratutako hazkundea –2020an gehieneko historikoak eskuratu zituzten, eta balioa handitu zuten–. Dow Jonesek izandako murrizketa nabarmentzen da (-% 8,8) eta, batez ere, Nasdaq Compositek izandakoa (-% 33,1). Nikkei indizeak ere galerak izan zituen (-% 9,4).

**238. koadroa Burtsa-indize nagusien bilakaera**

*(puntuak)*

| Urtea | Ibex-35 (Madril) | CAC-40 (Paris) | Dax-Xetra (Frankfurt) | FT-SE 100 (Londres) | Dow Jones (New York) | Nikkei (Tokio) | Eurostoxx 50 | Nasdaq Composite |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2020 | 8.073,7 | 5.551,4 | 13.718,8 | 6.460,5 | 30.606,5 | 27.444,2 | 3.552,6 | 12.888,3 |
| 2021 | 8.713,8 | 7.153,0 | 15.884,9 | 7.384,5 | 36.338,3 | 28.791,7 | 4.298,4 | 15.645,0 |
| 2022 | 8.229,1 | 6.473,8 | 13.923,6 | 7.451,7 | 33.147,3 | 26.094,5 | 3.793,6 | 10.466,5 |
| *Urte batetik besterako aldakuntza (%)* | | | | | | | | |
| 2020 | -15,5 | -7,1 | 3,5 | -14,3 | 7,2 | 16,0 | -5,1 | 43,6 |
| 2021 | 7,9 | 28,9 | 15,8 | 14,3 | 18,7 | 4,9 | 21,0 | 21,4 |
| 2022 | -5,6 | -9,5 | -12,3 | 0,9 | -8,8 | -9,4 | -11,7 | -33,1 |

*Oharra: Abenduaren 31n.*
*Iturria: Ekonomia Adierazleen datu-basea. Ekonomia eta Eraldaketa Digitaleko Ministerioa.*

Bestetik, Estatuko kreditu-erakundeen kopurua egonkortu egin zen (227 erakunde, bat gutxiago), baina 2008an (362) baino dezente gutxiago zeuden. Izan ere, murriztu egin ziren gordailu-erakundeak (190 erakunde, -4 erakunde). Zehazki, atzerriko erakundeak gutxitu ziren (80 erakunde, -4 erakunde), eta erakunde nazionalak egonkor mantendu ziren (110 erakunde). EFC/ECAOLek erakunde bat batu zuten 2022an (34 erakunde).

Gainera, bulego kopurua nabarmen jaitsi zen, 2008ko gehieneko kopuruaz geroztik erregistratutako murrizketa jarraituarekin bat etorriz eta, aldi berean, gizartearen

[1] Europako Batzordeak proposamen bat aurkeztu du (2023ko apirilaren 18an) bankuen krisiak kudeatzeko eta gordailuak bermatzeko esparrua indartzeko. Porrot egiten duten erakundeak (edozein neurri eta negozio-eredutakoak, txikienak barne) merkatutik modu ordenatuan atera daitezen antolatzea ahalbidetuko du proposamen horrek.

digitalizazioak bultzatuta. Horrekin lotuta[1], kultura digitalaren hedapena eta euskarri digital adimendunak eskura izatea lerrokatu egin dira finantza-eskaintza hibridoarekin (aurrez aurrekoa eta birtuala). Hala, pertsonen eskuragarritasuna ezin hobea da, eta gero eta produktu eta zerbitzu gehiago dituzte eskura (*finantza txertatuak*).

**239. koadroa Kreditu-erakundeak eta EFC**

*(erakunde kopurua)*

| Kontzeptua | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Erakunde kopurua. Guztira** | **238** | **232** | **226** | **228** | **227** |
| Gordailu-erakundeak | 198 | 195 | 191 | 194 | 190 |
| Espainiako gordailu-entitateak | 115 | 114 | 113 | 110 | 110 |
| EFC/ECAOL | 39 | 36 | 34 | 33 | 34 |

*Oharra: guztizkoarekiko aldea Kreditu Erakunde Ofizialei eta ESIS sistemikoei dagokie.*
*Iturria: Espainiako Bankua.*

Joera digital bikoitz hori argi ikusten da EAEko bulego-sarearen bilakaeran, ia erdira murriztu baitzen 2022an, 981 bulegora (-% 50,7). Erregistratuko jaitsiera are handiagoa izan zen Estatuko sarean (-% 61,4; 17.648 bulego), eta Nafarroan txikiagoa (-% 43,3 eta 406 bulego). Berregituraketa horrek zuzeneko inpaktua du sektoreko enpleguan, etengabe murrizten ari baita. Hala, finantza-jarduerei lotutako afiliazioa azken urteetako baxuena izan zen 2022an: 190.528, 7.946 eta 2.171 afiliatu Estatuan, EAEn eta Nafarroan, hurrenez hurren.

**240. koadroa Gordailu-erakundeak. Bulego kopurua**

*(bulego kopurua)*

| Urtea | EAE | Nafarroa | Espainia |
|---|---|---|---|
| 2018 | 1.314 | 485 | 26.011 |
| 2019 | 1.219 | 459 | 23.851 |
| 2020 | 1.148 | 452 | 22.299 |
| 2021 | 1.009 | 410 | 19.015 |
| 2022 | 981 | 406 | 17.648 |
| *2022/ 2008,%* | *-50,7* | *-43,3* | *-61,4* |

*Iturria: Espainiako Bankua.*

**241. koadroa Afiliazioa(1) finantza-jardueretan**

*(afiliatu kopurua)*

| Urtea | Finantza- eta aseguru-jarduerak | | | Finantza-jarduerak(2) | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | EAE | Nafarroa | Espainia | EAE | Nafarroa | Espainia |
| 2018 | 13.715 | 3.374 | 322.402 | 8.891 | 2.401 | 207.018 |
| 2019 | 13.585 | 3.254 | 319.956 | 8.730 | 2.265 | 203.131 |
| 2020 | 13.258 | 3.302 | 318.834 | 8.521 | 2.307 | 201.806 |
| 2021 | 12.808 | 3.276 | 312.246 | 7.946 | 2.198 | 188.449 |
| 2022 | 12.658 | 3.172 | 312.214 | 7.946 | 2.171 | 190.528 |
| *2022/ 2018,%* | *-7,7* | *-6,0* | *-3,2* | *-10,6* | *-9,6* | *-8,0* |

*(1) Urte bakoitzeko abenduaren 31n. Erregimen orokorra*
*(2) Aseguruak eta pentsio-funtsak izan ezik*
*Iturria: Gizarte Segurantza.*

[1] "La sociedad digital en España, 2022". Telefónica Fundazioa.

# 2. KREDITU-ERAKUNDEAK

## 2.1 KREDITUAREN BILAKAERA

### Kredituaren bilakaera Estatuan

2022an 2,9 bilioi euroko aktiboa izan zuten Estatuko kreditu-erakundeek, 2021ean baino apur bat baxuagoa (-% 0,3). Kreditu-partidak nagusia izaten jarraitu zuen, baina desapalankamendu finantzarioko nolabaiteko prozesu bat hasi zuen azken ekitaldian. Hain zuzen ere, kontuan izan behar da 2020-2021 biurtekoan erregistratutako hazkunde handia[1]. Tarte horretan nabarmen hazi ziren eragile ekonomikoen kreditu-posizioak, bizitako egoeraren aurrean, baina zorra ez zen iritsi 2008-2013 aldian erregistratutako mailara, orduan, 2 bilioi eurotik gorakoa izan zen zorra[2].

Kreditu-saldo biziak behera egin bazuen ere (-% 4,2), 2,0 bilioitik gora kokatu zen oraindik ere, eta kreditu-erakundeen aktiboaren partida nagusia zen. Aldiz, jaitsi egin zen akzioei eta partaidetzei esleitutako balioa (-% 3,0), eta gora egin zuten akzioak eta partaidetzak ez diren baloreek (+% 15,9) eta sektorizatu gabeko aktiboek (+% 13,5). Bilakaera bateratu horrek azaltzen du kreditu-erakundeen aktiboak izandako jaitsiera orokor baxua (-% 0,3). Hala, kreditu-erakundeen aktiboaren osaera finkatu zen: kreditu-partidak osatu zuen aktiboaren zatirik handiena (guztizkoaren % 68,7); akzioak eta partaidetzak ez diren baloreak (% 12,5) eta sektorizatu gabeko aktiboak (% 10,8) izan ziren hurrengoak; eta, azkenik, akzioen eta partaidetzen taldea (% 8,0).

**242. koadroa Kreditu-erakundeen aktiboaren osaera**

*(M euro)*

| Kontzeptua | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **2.575.633** | **2.612.781** | **2.822.182** | **2.937.620** | **2.929.279** |
| Kredituak | 1.726.181 | 1.740.034 | 1.926.930 | 2.101.591 | 2.012.798 |
| Akzioak eta partaidetzak ez diren balioak | 326.042 | 316.424 | 345.785 | 315.636 | 365.811 |
| Akzioak eta partaidetzak | 236.416 | 252.012 | 250.781 | 242.290 | 235.028 |
| Sektorizatu gabeko aktiboak | 286.994 | 304.311 | 298.686 | 278.103 | 315.642 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

Kreditu-jardueraren xehetasunek erakusten dutenez, kreditu-sistemaren (-% 29,4) eta beste sektore egoiliar batzuen segmentuaren (-% 0,3) bilakaerak baldintzatu zuen erregistratutako jaitsiera (-% 4,2); izan ere, bi horiek pisu handia dute kredituan (% 15,9 eta

[1] Kredituak urte arteko % 10,7 eta % 9,1eko hazkundeak izan zituen 2020an eta 2021ean, hurrenez hurren.
[2] 2008an eskuratu zuten kreditu-saldo bizi handiena, 2.439.203 milioi eurokoa. Baina, 2009tik aurrera, haien balantzeak doitzen joan ziren kreditu-erakundeak. 2019an eten zen prozesu hura eta, batez ere, 2020an, covidak eragindako krisiaren ondoriozko finantza-beharrak zirela eta.

% 60,6, hurrenez hurren). Beste sektore ez-egoiliar batzuek (+% 14,0) eta Administrazio Publikoek (+% 0,6) gora egin zuten arren, ez zen nahikoa izan aurrekoen jaitsiera konpentsatzeko, pisu txikiagoa dutelako Estatuko kreditu-jardueran (% 19,5 eta % 4,1, hurrenez hurren).

Beste sektore egoiliar batzuen segmentuari (familiak eta enpresa ez finantzarioak) lotutako kreditu-saldo biziaren bilakaerak beherakada txiki bat izan zuen (-% 0,3). Eragiketa berrien suspertzea moteldu izanak eta desapalankamendu finantzarioaren gailentasunak eragin zuten emaitza hori. Horrekin lotuta, nabarmendu beharrekoa da aurreko biurtekoko zorra amortizatzen hasi zela –adibidez, ICO kredituen bidez[1]–. Ukrainako gerraren eta inflazioaren gorakadaren ondorio ekonomikoak arintzeko neurri berriak[2] ezarri arren, familiei eta enpresei zuzendutako kreditua egonkor mantendu zen[3], eta horrek agerian uzten du eragile ekonomikoek ziurgabetasunen aurrean duten erresilientzia.

**243. koadroa Kreditu-erakundeak. Kreditua agenteen arabera**

*(M euro)*

| Kontzeptua | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **1.726.181** | **1.740.034** | **1.926.930** | **2.101.591** | **2.012.798** |
| Kreditu-sistema | 211.861 | 190.494 | 328.166 | 452.347 | 319.260 |
| AP | 68.956 | 66.922 | 77.198 | 81.491 | 81.978 |
| Beste sektore egoiliar batzuk | 1.208.315 | 1.193.526 | 1.224.440 | 1.223.700 | 1.219.477 |
| Beste ez-egoiliar batzuk | 237.049 | 289.092 | 297.126 | 344.053 | 392.083 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

## Kredituaren jomuga Estatuan

Beste sektore egoiliar batzuei (familiak eta enpresak) emandako kreditua hauen bidez bideratzen da: merkataritza-kreditua (guztizkoaren % 4,5), eperako beste zordun batzuk[4] (% 87,5) eta beste mailegu batzuk (% 8,0) (barne hartzen ditu ageriko zordunak,

[1] Kreditu Ofizialeko Institutuaren (ICO) abalarekin emandako maileguak, Espainiako Gobernuak bultzatzen dituenak (8/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 17koa; eta 25/2020 Errege Lege Dekretua, uztailaren 3koa), enpresei eta autonomoei likidezia emateko eta haien inbertsio-proiektuei laguntzeko. Abalen lerro honen diru kopurua 140.000 milioi eurora artekoa zen, eta horietatik 107.187 milioi euro kudeatu ziren (guztizkoaren % 77), ICOk egindako azken jarraipen-txostenaren arabera (2022/06/30). EAEk eta Nafarroak 5.858 eta 1.723 milioi euroko abalak erregistratu zituzten, hurrenez hurren.

[2] Ukrainako gerraren ondorio ekonomikoei eta sozialei erantzuteko Plan Nazionalak 10.000 milioi euroko beste pakete bat gehitu zuen Estatuak abalatutako ICO kredituetan (6/2022 Errege Lege Dekretua) eta 5.000 milioi euroko lehen tarte bat aktibatu zen.

[3] ICOk argitaratutako Ukrainako Abalen Lerroaren gaineko azken jarraipen-txostenak (2023/03/31) erakusten duenez, eskatutako abalen zenbatekoa 1.294,5 milioi eurokoa izan da. Horietatik 84,6 milioi euro dagozkio EAEri, eta 63,8 milioi euro Nafarroari. Emaitza horren arabera, programako diru kopuru osoaren (10.000 milioi euro) % 10 inguru baino ez da erabili. Hortaz, Espainiako Gobernuak 2023ko abenduaren 31 arte luzatu du abal horiek eskatzeko epea.

[4] 2017az geroztik, Espainiako Bankuak ez du informazio bereizirik eskaintzen berme erreal batean oinarritzen diren kredituei buruz eta, horien barruan, hipoteka modalitatearen pean sinatutakoei buruz. Aldaketa hori Europar Batasuneko sailkapen-eredurako egokitzapena dela-eta gertatu da (Europako Banku Zentrala).

errentamendu finantzarioa eta kobrantza zalantzagarriko kredituak). Egitura hori egonkor mantendu zen.

Ekitaldiko bilakaerak erakusten duenez, familiei eta enpresei bideratutako kredituak izandako jaitsiera apala (-% 0,3) honakoetan kontzentratu zen: eperako beste zordun batzuk (-% 0,4) eta beste mailegu batzuk[1] (-% 7,8). Merkataritza-kredituak, berriz, hazkunde handia izan zuen (+% 16,7), baina haren hobekuntza ez zen nahikoa izan beste bi partidetan erregistratutako beherakadak konpentsatzeko. Horregatik murriztu zen apur bat kreditu pribatua.

**244. koadroa Kreditu-erakundeak. Kredituak, motaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk**

*(M euro)*

| Kontzeptua | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **1.208.315** | **1.193.526** | **1.224.440** | **1.223.700** | **1.219.477** |
| Merkataritza-kreditua | 48.723 | 50.561 | 42.162 | 47.169 | 55.056 |
| Eperako beste zordun batzuk | 1.037.809 | 1.034.061 | 1.077.559 | 1.070.780 | 1.066.951 |
| Beste mailegu batzuk | 121.783 | 108.904 | 104.719 | 105.751 | 97.470 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

Gordailu-erakundeen kreditu-saldo bizia 1,2 bilioi eurorekin itxi zen. Urte arteko nolabaiteko beherakada izan zuen (-% 0,6), behera egin zutelako ekoizpen-jardueren segmentuak (-% 1,5) eta, neurri txikiagoan, etxebizitzen erosketa eta birgaitzeak (-% 0,1) eta kontsumo iraunkorreko ondasunek (-% 0,3). Funtsean, datu globalek erakusten dutenez, amortizazio-osagaia gailendu zen emakida berrien gainetik. Ondorioz, posizio global garbia murriztu egin zen.

Horrekin lotuta, Bankuko Maileguei buruzko Inkestan[2] parte hartu zuten erakundeek berariaz adierazi zutenez, kreditua lortzeko baldintzak gogortu egin ziren 2022an zehar (familientzat eta ekoizpen-jarduerentzat). Dena den, eskaria apur bat geldotu zela ere aipatu zuten (familiena eta, batez ere, etxebizitzak erostearekin lotua; eta, neurri txikiagoan, ekoizpen-segmentuarena). Azkenik, kreditua apurka garestitzen ari dela ikusita –erreferentziazko tasek dagoeneko izandako igoerak eta iragartzen direnak kontuan hartuta–, 2023an kredituen dinamismoak antzeko erantzuna izango duela pentsa daiteke.

[1] Kobrantza zalantzagarriko kredituen beherakadarekin lotuta (-% 17,9). Ageriko zordunek (+% 2,4) eta errentamendu finantzarioak (+% 1,7), berriz, gora egin zuten.
[2] Espainiako Bankua, 2023ko urtarrila.

**245. koadroa** **Gordailu-erakundeak. Kreditua, jomugaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk**

*(M euro)*

| Kontzeptua | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **1.150.231** | **1.135.590** | **1.174.945** | **1.173.435** | **1.166.763** |
| Ekoizpen-jarduerak | 523.942 | 512.107 | 554.073 | 550.342 | 542.154 |
| Etxebizitzak erostea eta birgaitzea | 508.235 | 500.474 | 493.951 | 500.045 | 499.417 |
| Kontsumo iraunkorreko ondasunak | 35.418 | 42.635 | 49.727 | 49.688 | 49.545 |
| Beste kreditu batzuk | 82.636 | 80.374 | 77.194 | 73.360 | 75.647 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

Kredituaren egiturak erakusten duenez, ekoizpen-jardueretara bideratutako saldoa garrantzitsua da (guztizkoaren % 46,5), eta goranzko joera du. Familien zorrarekin osatzen da hura, bereziki, etxebizitzara bideratutakoarekin (% 42,8).

**45. grafikoa** **Gordailu-erakundeak. Kreditua, jomugaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk**




*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

### Kredituaren bilakaera EAEn eta Nafarroan

2022an, gordailu-erakundeek 86.356 milioi euroko kreditua eman zuten Euskal Herrian (saldo bizia), aurreko urtean baino apur bat gutxiago (-% 0,2). Izan ere, aldagai horrek behera egin zuen EAEn (-% 0,5), eta gora Nafarroan (+% 1,1); 69.903 eta 16.453 miloi euro eman zituzten, hurrenez hurren (% 80,9 eta % 19,1). Bestetik, Euskal Herriko kreditu-saldo biziak izandako urte arteko murrizketa (-% 0,2) txikiagoa izan zen Estatuan baino (-% 0,5). Hala, sendotu egin zen Euskal Herriak guztizko kreditu-saldoari egindako ekarpena (guztizkoaren % 6,9).

EAEko emaitzen xehetasunek erakusten dutenez, Arabari eta Gipuzkoari esleitutako saldoa murriztu egin zen (-% 6,7 eta -% 1,1), eta handitu egin zen Bizkaiari dagokiona

(+% 1,1). Gainera, EAEko kreditu-jardueraren zatirik handiena Bizkaiari zegokion[1] (% 59,1), eta Gipuzkoa (% 29,6) eta Araba (% 11,3) izan ziren hurrengoak.

**246. koadroa Gordailu-erakundeak. Kreditua, agenteen eta lurraldearen arabera**

*(M euro)*

| Lurraldea | Urtea | AP | BSE | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|
| **Araba** | 2020 | 1.240 | 7.442 | 8.683 |
| | 2021 | 1.204 | 7.256 | 8.460 |
| | 2022 | 825 | 7.071 | 7.895 |
| **Bizkaia** | 2020 | 5.806 | 35.489 | 41.295 |
| | 2021 | 6.728 | 34.128 | 40.856 |
| | 2022 | 7.017 | 34.281 | 41.297 |
| **Gipuzkoa** | 2020 | 1.103 | 19.074 | 20.178 |
| | 2021 | 1.505 | 19.432 | 20.937 |
| | 2022 | 1.528 | 19.182 | 20.710 |
| **EAE** | 2020 | 8.150 | 62.005 | 70.155 |
| | 2021 | 9.437 | 60.816 | 70.253 |
| | 2022 | 9.369 | 60.533 | 69.903 |
| **Nafarroa** | 2020 | 1.327 | 16.044 | 17.372 |
| | 2021 | 1.028 | 15.249 | 16.278 |
| | 2022 | 901 | 15.552 | 16.453 |
| **Euskal Herria** | 2020 | 9.477 | 78.049 | 87.527 |
| | 2021 | 10.466 | 76.065 | 86.531 |
| | 2022 | 10.271 | 76.085 | 86.356 |
| **Espainia** | 2020 | 74.357 | 1.174.945 | 1.249.302 |
| | 2021 | 78.919 | 1.173.435 | 1.252.354 |
| | 2022 | 79.811 | 1.166.763 | 1.246.574 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

Kontuan hartutako eremu guztietan, beste sektore egoiliar batzuei (familiak eta enpresak) zuzendutako kredituak pisu handia izan zuen: kreditu-saldoaren % 90 baino gehiago, eremu guztietan. Administrazio Publikoen segmentuak, berriz, pisu txikiagoa izan zuen; Bizkaian eta Araban erregistratu zuen ekarpenik handiena (guztizkoaren % 16,5 eta % 14,2, hurrenez hurren). Gainera, bilakaerak erakusten duenez, EAEn eta Nafarroan bilakaera hobea izan zuen beste sektore egoiliar batzuetara zuzendutako kredituak (-% 0,5 eta +% 2,0), Administrazio Publikoen segmentuak baino (-% 0,7 eta -% 12,4).

Atxikitako grafikoak baieztatzen duenez, beste sektore egoiliar batzuetara bideratutako kredituan desapalankamendu finantzarioa gailendu zen; izan ere, segmentu hori zorpetze maila murrizten ari da 2008ko finantza-krisiaz geroztik. Ia egiturazkoa den joera horren aurrean, 2020-2021 biurtekoan hazi egin zen familien eta enpresen kredituaren saldo bizia,

[1] Kontuz: ezin da zuzenean lurralde bakoitzeko agenteek emandako kreditu gisa hartu. Izan ere, entitateek lurralde bakoitzari egindako esleipenean oinarritzen da (bulegoen finkapenaren eta jardueraren araberakoa). Egoitzarekin lotura duten faktoreek ere eragina dute. Kredituaren lurraldekako banaketa honetan badirudi Bizkaiak neurriz kanpoko ordezkaritza duela, EAEko BPGari egiten dion lurralde-ekarpena kontuan izanda (% 50,9); Gipuzkoaren (% 33,4) eta Arabaren (% 15,8), ekarpenak txikiagoak dira. Hala, Bizkaiak pisu handiagoa du BPGan, emandako kredituan baino.

pandemiak sortutako ondorio ekonomikoak arintzeko. 2022an, ordea, behera egin zuen haren balioak, zuhurtziaren –ziurgabetasun-egoera eta espiral inflazionista– eta garestitzearen ondorioz. Hala, 2020-2022 hirurtekoa ezohiko egoeraz beteta egon zen, eta horien aurrean posizio erlatibo hobea erakutsi zuen sektore pribatuak, 2008ko krisiari baino askoz ere egoera finantzario hobearekin egin baitzion aurre oraingoari.

**46. grafikoa** **Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuei emandako kredituaren bilakaera**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*




*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

**Beste adierazle batzuk: hipoteken eraketa eta ibilgailuen matrikulazioa**

Familientzat oso garrantzitsuak diren bi inbertsio eremutan (etxebizitzak erostea eta birgaitzea, eta autoa erostea) erregistratutako bilakaera aztertuko dugu atal honetan. Etxebizitzen gaineko hipoteka berrien eraketari buruzko informazioak erakusten duenez, 2022an gora egin zuen higiezinekin lotutako jarduerak; 2021ean baino datu hobeak eskuratu zituen –2021eko datuak ere positiboak izan ziren, 2020an bizitako geldialdia hartu zuelako barne–, eta 2011tik ikusi gabeko mailara gerturatu zen.

Hala, hipoteka berrien eraketa areagotu egin zen Estatuan (+% 10,9) eta EAEn (+% 8,5); 463.817 eta 22.881 hipoteka eratu ziren, hurrenez hurren. Nafarroan, berriz, behera egin zuen jarduerak (-% 4,4), eta 4.964 hipoteka berri sinatu ziren. Dena den, urtearen bigarren zatian geldotu egin zen hazkundea. Hiru lurraldeetan, lehenengo seihilekoan baino hipoteka gutxiago sinatu zituzten. Izan ere, sei urte egoera negatiboan egon ondoren, Euriborrak gora egin zuen eta % 3,291ean itxi zuen 2022a. Hala, finantza-produktu honen kostuan islatu zen adierazle hori.

Agertoki horretan, 2022an Estatu osoan sinatutako hamar hipotekatik zazpik interes-tasa finkoa zuten (% 70,9). Interes-tasa aldakorreko modalitateak agertu zirenetik (90eko hamarkada erdialdean) eskuratutako ehunekorik altuena izaten jarraitzen du. Hala, ekitaldiko bilakaerak erakusten duenez, baliteke modalitatearen araberako egitura hori aldatzen aritzea: urtarrilaren eta abuztuaren artean, interes-tasa finkoarekin sinatutako hipoteken ratioa % 70etik gorakoa izan zen. Hurrengo hilabeteetan eta 2023aren hasieran, ordea, balio hori baino askoz baxuagoa izan zen ratioa.

**247. koadroa    Etxebizitzen gaineko hipoteka berrien eraketa**

| Kontzeptua | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022p |
|---|---|---|---|---|---|
| **Espainia** | | | | | |
| Hipoteka kopurua | 348.326 | 361.291 | 337.752 | 418.058 | 463.817 |
| Zenbatekoa guztira (milioi €) | 43.285 | 45.383 | 45.508 | 57.493 | 67.470 |
| *Batez besteko zenbatekoa (€)* | *124.265* | *125.615* | *134.738* | *137.523* | *145.467* |
| **EAE** | | | | | |
| Hipoteka kopurua | 18.169 | 18.961 | 19.252 | 21.098 | 22.881 |
| Zenbatekoa guztira (milioi €) | 2.555 | 2.734 | 2.848 | 3.319 | 3.671 |
| *Batez besteko zenbatekoa (€)* | *140.632* | *144.198* | *147.927* | *157.304* | *160.430* |
| **Nafarroa** | | | | | |
| Hipoteka kopurua | 4.739 | 4.508 | 4.201 | 5.190 | 4.964 |
| Zenbatekoa guztira (milioi €) | 514 | 519 | 488 | 640 | 652 |
| *Batez besteko zenbatekoa (€)* | *108.465* | *115.217* | *116.280* | *123.380* | *131.307* |

*p; behin-behineko datuak.*
*Iturria: Hipoteken Estatistika. EIN. Geuk egina.*

**47. grafikoa    Euriborraren bilakaera[1] (hamabi hilabetera)**




*(1) Hilabete bakoitzaren itxierako datua da.*
*Iturria: Europako Banku Zentrala. Geuk egina.*

2022an sinatutako hipoteka berrien guztizko zenbatekoa hazi egin zen Estatuan, EAEn eta Nafarroan (+% 17,4, +% 10,6 eta +% 1,8, hurrenez hurren). Hala, hipoteken

zenbatekoaren hazkundea handiagoa izan zen eratutako hipoteka kopuruaren hazkundea baino. Hala, sinatutako hipoteken batez besteko zenbatekoa hazi egin zen azken urtean EAEn (160.430 euro), Estatuan (145.467 euro) eta Nafarroan (131.307 euro). 2008an erregistratutako batez besteko balioen antzekoak eskuratu zituzten; hipoteken guztizko zenbatekoa eta sinatutako hipoteka kopurua, ordea, ez ziren 2008koen antzekoak izan.

Azkenik, eta hipoteken kostuak gora egin arren, 2022ko datuek oraindik ere ez dute erakusten atzera egin dutenik: lehenengo seihilekoan sinatutako hipoteken batez besteko balioa (144.569, 159.500 eta 131.226 euro Estatuan, EAEn eta Nafarroan) bigarren seihilekoan erregistratutakoa baino zerbait baxuagoa izan zen (146.035 eta 161.779 euro Estatuan eta EAEn; Nafarroan, berriz, oso antzekoa izan zen, 131.096 eurokoa). Hortaz, ikusi egin beharko da 2023an kostu finantzarioa handitzeak hipoteka berrien kontratazioari eta zenbatekoari eragiten dien.

Bestetik, 2022an aldaketa notarialak[1] izan zituzten hipoteken kopurua maila historiko altuan mantentzen da. Izan ere, interes-tasak modu argian gora egiten ari diren agertoki honek, hipoteka-maileguaren baldintzak berriro negoziatzera bultzatzen du, baldintzak hobetzeko. Hala, 2022an 113.243, 3.429 eta 522 hipoteka aldatu zituzten Estatuan, EAEn eta Nafarroan, aurreko urtean baino apur bat gutxiago. Dena den, kontuan izan behar da 2021. urtean asko igo zela aldatutako hipoteken kopurua.

**248. koadroa Aldaketa notarialak erregistratu dituzten etxebizitzen gaineko hipotekak**

*(Hipoteka kopurua)*

| Kontzeptua | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022p |
|---|---|---|---|---|---|
| Espainia | 48.446 | 39.543 | 65.692 | 207.381 | 113.243 |
| EAE | 1.379 | 1.218 | 1.448 | 3.415 | 3.429 |
| Nafarroa | 305 | 184 | 215 | 1024 | 522 |

*bb; behin-behineko datuak.*
*Iturria: Hipoteken Estatistika. EIN. Geuk egina.*

2022an hasitako hipoteka-betearazpenak[2] apur bat murriztu ziren 2021arekin alderatuta, baina pandemiaren aurreko zifrak gainditu zituzten hiru eremuetan. Horrek agerian uzten du familia eta eragile batzuek, egoera zaurgarrienetan daudenek, zailtasunak dituztela hipoteka-maileguarekin lotutako betebeharrak betetzeko. Hala, 2022an, 14.148, 177 eta 75 hipoteka-betearazpen erregistratu zituzten Estatuan, EAEn eta Nafarroan, hurrenez

[1] Hauei egiten die erreferentzia: nobazioa (hipoteka kontratatu ondoren egiten den eta kontratua berriro negoziatzeko aldeen borondateen akordio berri bat eskatzen duen edozein aldaketa), hartzekodunaren subrogazioa (banketxez aldatzea, eta, beraz, kontratuak baldintza berriak izatea) eta zordunaren subrogazioa (hipotekaren titularra aldatzea, titular berriaren onarpenarekin; kontratuaren baldintzetan aldaketak egon daitezke edo ez). Hauek dira egindako aldaketen alderdi nagusiak: epea, zenbatekoa, erreferentzia mota eta/edo aplikatutako diferentziala.

[2] Hipoteka baten karga ezarrita duen ondasun higiezin baten salmenta agintzen duen prozedura exekutiboa, zordunak hipotekan ezarritako betebeharrak ez betetzeagatik.

hurren. Dena den, zifra horiek askoz baxuagoak ziren[1] aurreko krisian erregistratutakoak baino, bi arrazoi handirengatik: batetik, eragileen egoera finantzario garbia hobea delako eta, bestetik, horretarako ezarritako neurriei (luzamenduak) esker[2] eta enpleguari eusteko ezarritako neurriei (ABEEEak) esker. Izan ere, pandemiaren (2020-2021) ondorioak eta interes-tasen igoeraren (2022) ondorioak arintzen lagundu zuten horiek.

**249. koadroa Hipoteka-betearazpena hasita duten etxebizitza partikularrak**

*(Etxebizitza kopurua)*

| Kontzeptua | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022p |
|---|---|---|---|---|---|
| Espainia | 9.041 | 7.382 | 9.692 | 15.138 | 14.148 |
| EAE | 89 | 72 | 113 | 225 | 177 |
| Nafarroa | 51 | 33 | 56 | 85 | 75 |

*bb; behin-behineko datuak.*
*Iturria: Hipoteka Betearazpenen Estatistika. EIN. Geuk egina.*

Ibilgailu berrien matrikulazioa ez zen hobetu[3], hainbat arrazoirengatik, esaterako: erdieroaleak hornitzeko zailtasunak, energiaren eta erregaien prezioen igoera, motorizazioari buruzko zalantzak eta parkea berritzeko neurri fiskalak, beste batzuen artean. Funtsean, ziurgabetasun-egoera gailendu zen, eta horrek ibilgailu berria erosteko erabakia baldintzatzen jarraitu zuen. Ondorioz, matrikulazio-zifrak jaitsi egin ziren 2022an Estatuan (-% 38,4; 813.396 unitate), EAEn (-% 47,4; 21.948 unitate) eta Nafarroan (-% 52,2; 6.329 unitate), 2018an eskuratutako gehieneko balioekin alderatuta.

Bestetik, bigarren eskuko ibilgailuen merkatuaren garrantzia nabarmendu behar da. Izan ere, 2022an, bigarren eskuko 2,3 turismo saldu ziren Estatuan turismo berri bakoitzeko. Ratio hori 3,1 eta 4,5 bigarren eskuko ibilgailukoa izan zen EAEn eta Nafarroan, hurrenez hurren.

---

[1] Eskuragarri dauden datuen arabera, 2014an 44.939 hipoteka-betearazpen hasi zituzten Estatuan, eta 2015ean 39.151. EINek ez du lehenagoko informaziorik argitaratzen.

[2] 2020an eta 2021ean aplikatu ziren hipoteka-luzamenduak. Eta, 2022ko azaroan, Espainiako Gobernuak 19/2022 Errege Lege Dekretua onartu zuen, ohiko etxebizitzen gaineko hipoteka-maileguen interes-tasen igoera arintzeko Jardunbide Egokien Kodea ezarri zuena. Hiru ildotan jarduten du: familia zaurgarrien tratamendua hobetzea, zaurgarritasun-arriskuan dauden klase ertaineko familientzako jarduketa-esparru berri bat irekitzea eta kredituen amortizazio aurreratua eta interes-tasa aldakorreko hipotekak tasa finkora aldatzea erraztea.

[3] Gainera, sektoreko aurreikuspenak okertu egin ziren, 830.000 unitate inguruko bolumena aurreikusten baitzen. Bilakaera txar hori, neurri batean, honen ondorioa izan zen: "abenduko jaitsiera (-%14,1), ibilgailuak kontzesionarioetara garraiatzeko zailtasunekin lotuta; ondorioz, milaka auto portuetan geldi mantendu ziren, eta atzeratu egin zen erosleentzako entrega" (Anfac).

**250. koadroa Ibilgailuen matrikulazioaren bilakaera. Turismoak**

*(Unitate kopurua)*

| Kontzeptua | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|---|---|
| Espainia | 1.321.437 | 1.258.251 | 851.210 | 859.477 | 813.396 |
| EAE | 41.701 | 39.763 | 30.262 | 24.716 | 21.948 |
| Nafarroa | 13.243 | 11.449 | 8.381 | 7.229 | 6.329 |

*Iturria: Anfac. Geuk egina.*

### Berankortasunaren bilakaera

2022an berriz jaitsi zen kobrantza zalantzagarriko kredituen epigrafeari dagokion balioa. Hortaz, beheranzko joera jarraitua mantendu da 2014az geroztik. Hori bat dator sektore pribatua osatzen duten eragile guztien (familiak eta enpresak) desapalankamendu finantzarioko prozesuarekin, kaudimen ekonomiko handiagoarekin, enpleguarekin eta ekoizpen-jarduerarekin. Hala, berankortasun-ratioa[1] % 3,5era jaitsi zen eta 2008az (% 3,3) geroztiko mailarik baxuena erregistratu zen, kobrantza zalantzagarriko kredituen saldoak urte arteko beherakada handiagoa (-% 18,4) izan zuelako guztizko saldo biziak baino (-% 0,6).

**251. koadroa Gordailu-erakundeak. Zalantzazkoen edo berankortasunaren guztizko tasaren bilakaera. Beste sektore egoiliar batzuk**

*(M euro)*

| Urtea | Zalantzazko kobrantzak | Kredituak | (Zalantzazkoak/Kredituak) x100 |
|---|---|---|---|
| 2018 | 67.199 | 1.150.228 | 5,8 |
| 2019 | 54.301 | 1.135.590 | 4,8 |
| 2020 | 52.224 | 1.174.945 | 4,4 |
| 2021 | 49.378 | 1.173.435 | 4,2 |
| 2022 | 40.276 | 1.166.763 | 3,5 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

Jarduera-sektore guztietan egin zuen behera berankortasun-tasak. Industria eta zerbitzuak nabarmendu ziren, horiek izan baitzuten ratiorik baxuena (% 3,9 eta % 4,1). Eraikuntza-sektorearen[2] kasuan, zalantzagarrien ratioa bikoitza izan zen (% 8,1), baina asko hobetu zen 2013an eskuratutako gehieneko balioarekin alderatuta (% 35,3).

Zerbitzuen sektorearen barruan, ostalaritza[3] nabarmendu zen (% 8,0), hark izan zuelako berankortasun-ratiorik altuena, eta zalantzagarrien ratioa handitu zuen bakarra izan

[1] Ordaindu gabeko edo kobrantza zalantzagarriko kredituen ehunekoa, emandako finantzaketa osoari dagokionez.

[2] Sektore honek kalte handia jasan zuen 2008ko krisialdiaren aurreko kreditu-hedapenagatik eta jarduera horren ondorengo gainbeheragatik (aktiboen balio-galera, salmenten beherakada, enpresa-likidazioak, etab.).

[3] Asko kaltetu zuen pandemiaren inpaktuak (itxierak, ordutegiaren eta edukieraren mugak...).



LABORAL kutxa

zelako, 2021arekin alderatuta (ehuneko +0,3 puntu). Honako hauek izan ziren hurrengoak: merkataritza eta konponketak (% 5,6), beste zerbitzu batzuk (% 4,2), garraioa eta biltegiratzea (% 4,0) eta higiezinekin lotutako jarduerak (% 3,7). Berankortasun-ratiorik baxuena finantza-bitartekarien jarduerei egokitu zitzaien (% 0,3).

Familien kasuan ere, zalantzagarrien ratioa jaitsi egin zen eta % 3tik behera kokatu zen, baina aldeak izan ziren kredituaren helburuaren arabera. Etxebizitzak erostearekin eta birgaitzearekin lotutako berankortasuna (% 2,1) izan zen baxuena, eta beste kreditu eta mailegu batzuen taldeari egokitu zitzaion erregistrorik altuena (% 5,5); azken horrek barne hartzen ditu kontsumorako eta beste helburu batzuetarako kredituak.

Dena den, familiei zuzendutako bi kreditu-segmentuen kasuan, berankortasun-ratioa etengabe jaisten ari da, eta 2008ko krisiaren aurreko mailara gerturatzen. Emaitza hori asko baldintzatzen du enpleguaren bilakaerak: 2022an bilakaera positiboa izan zuen eta 2023ko lehenengo hiruhilekoan (martxoa) maximo historikoak eskuratu ditu Gizarte Segurantzako afiliazioan, esaterako.

**252. koadroa Gordailu-erakundeak. Zalantzazkoen edo berankortasun-tasaren bilakaera, kredituaren helburuen arabera. Beste sektore egoiliar batzuk**

*(Guztizkoaren gaineko % zalantzagarriak)*

| Kontzeptua | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Zalantzazkoak guztira** | **5,8** | **4,8** | **4,4** | **4,2** | **3,5** |
| **Ekoizpen-jarduerak** | **7,0** | **5,5** | **5,1** | **4,8** | **4,3** |
| Nekazaritza eta arrantza | 6,3 | 6,0 | 5,5 | 5,2 | 4,9 |
| Industria | 6,3 | 5,6 | 4,9 | 4,5 | 3,9 |
| Eraikuntza | 14,4 | 12,0 | 9,2 | 8,4 | 8,1 |
| Zerbitzuak | 6,7 | 5,1 | 4,8 | 4,6 | 4,1 |
| *Higiezinak* | *8,9* | *5,2* | *4,9* | *4,1* | *3,7* |
| *Finantzak (ez banka)* | *0,2* | *0,2* | *0,3* | *0,4* | *0,3* |
| *Merkataritza eta konponketak* | *9,2* | *8,5* | *7,0* | *6,4* | *5,6* |
| *Garraioa eta biltegiratzea* | *5,3* | *4,8* | *4,3* | *5,0* | *4,0* |
| *Ostalaritza* | *7,9* | *5,8* | *5,4* | *7,7* | *8,0* |
| *Beste zerbitzu batzuk* | *7,2* | *5,3* | *5,8* | *5,1* | *4,2* |
| **Beste helburu batzuk / familiak** | **4,8** | **4,1** | **3,9** | **3,6** | **2,8** |
| Etxebizitzak erostea eta birgaitzea | 4,0 | 3,3 | 3,0 | 2,8 | 2,1 |
| Beste batzuk | 8,9 | 8,0 | 7,8 | 7,5 | 5,5 |
| **Gainerakoak** | **7,5** | **6,0** | **3,8** | **5,2** | **2,3** |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

Kobrantza zalantzagarriko kreditu-saldoa jaitsi egin zen ekoizpen-jarduera guztietan, baita familien segmentuan ere. Pandemiako biurtekoan ere mantendu zuten jaitsiera. Hala, kobrantza zalantzagarriko kredituaren erdia baino zerbait gehiago (guztizkoaren % 57,3) ekoizpen-jarduerei dagokie eta, batez ere, zerbitzuen sektoreari (% 39,3). Aldi berean, familien ekarpena ere esanguratsua da (% 42,1).

**253. koadroa** **Gordailu-erakundeak. Zalantzazko kredituaren bilakaera, helburuen arabera. Beste sektore egoiliar batzuk**

(M euro)

| Kontzeptua | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Zalantzazkoak guztira** | **67.199** | **54.301** | **52.224** | **49.378** | **40.276** |
| | | | | | |
| **Ekoizpen-jarduerak** | **36.725** | **28.302** | **27.986** | **26.508** | **23.075** |
| Nekazaritza eta arrantza | 1.310 | 1.275 | 1.217 | 1.170 | 1.097 |
| Industria | 6.397 | 5.473 | 5.168 | 4.749 | 4.126 |
| Eraikuntza | 3.932 | 2.914 | 2.408 | 2.143 | 2.029 |
| Zerbitzuak | 25.086 | 18.640 | 19.192 | 18.446 | 15.822 |
| *Higiezinak* | *8.299* | *4.559* | *4.023* | *3.340* | *2.768* |
| *Finantzak (ez banka)* | *162* | *136* | *185* | *217* | *195* |
| *Merkataritza eta konponketak* | *6.657* | *6.366* | *5.829* | *5.245* | *4.660* |
| *Garraioa eta biltegiratzea* | *1.582* | *1.432* | *1.513* | *1.876* | *1.365* |
| *Ostalaritza* | *2.014* | *1.545* | *1.885* | *2.523* | *2.411* |
| *Beste zerbitzu batzuk* | *6.373* | *4.601* | *5.757* | *5.244* | *4.422* |
| **Beste helburu batzuk / familiak** | **29.505** | **25.337** | **23.805** | **22.356** | **16.938** |
| Etxebizitzak erostea eta birgaitzea | 20.127 | 16.374 | 14.789 | 13.915 | 10.723 |
| Beste batzuk | 9.378 | 8.963 | 9.016 | 8.441 | 6.215 |
| **Gainerakoak** | **969** | **662** | **433** | **514** | **263** |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

## 2.2 GORDAILUEN BILAKAERA

### Estatuko kreditu-erakundeetako gordailuak

Pandemiaren biurtekoan, gordailuetako saldoak gora egin zuen[1], sortutako ziurgabetasunaren eta gastu-erabakiak aurrera eramateko mugen ondorioz ("aurrezpen behartua"). 2022an, berriz, jaitsi egin zen (-% 2,5), logikoki, eta 2,1 bilioi euroan kokatu zen saldoa. Dena den, erregistratutako bilakaeran alde handiak izan ziren bezero-segmentuaren arabera. Izan ere, kreditu-sistemari esleitutako saldoak behera egin zuen (-% 41,0) –ia erdira murriztu zen haren gordailuetako balioa–, baita Administrazio Publikoenak ere (-% 1,0). Aldiz, beste sektore egoiliar batzuek hazkundea mantendu zuten (+% 1,1), eta aurrezpen esanguratsua egin zuten.

Bilakaera horren ondorioz, kreditu-erakundeetako pasiboaren osaera apur bat aldatu zen: handitu egin zen beste sektore egoiliar batzuen ekarpena (% 65,4tik % 67,9ra) eta beste sektore ez egoiliar batzuena (% 11,3tik % 16,2ra); aldiz, mantendu egin zen Administrazio Publikoen pisua (% 4,5), eta kuota galdu zuen kreditu-sistemak (% 18,8tik % 11,4ra).

[1] Kontuan izan behar da ez dagoela pasibo-posizioetako aurrezkiaren neurri osorik; hortaz, gordailu-figuretarantz bideratzeaz gain, beste inbertsio-xede batzuetara lekualdatu ahal izan dira, hala nola funtsetara, baloreetara edo beste forma batzuetara (higiezinak, esaterako).

**254. koadroa Kreditu-erakundeak. Gordailua, eragileen arabera**

*(M euro)*

| Kontzeptua | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **1.836.493** | **1.848.536** | **2.059.571** | **2.177.660** | **2.122.526** |
| • Kreditu-sistema | 287.839 | 253.978 | 369.741 | 409.433 | 241.691 |
| • AP | 71.785 | 69.445 | 80.754 | 96.988 | 96.028 |
| • Beste sektore egoiliar batzuk | 1.212.837 | 1.259.938 | 1.369.548 | 1.425.055 | 1.441.212 |
| • Beste ez-egoiliar batzuk | 264.033 | 265.174 | 239.526 | 246.183 | 343.595 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

Beste sektore egoiliar batzuen gordailuen urte arteko bilakaera positiboa izan zen (+% 1,1), baina pandemiaren biurtekoan izandakoa baino txikiagoa (+% 8,7 eta +%4,1, 2020an eta 2021ean). Ziur asko, inflazioaren gorakadak eta ziurgabetasunak eragina izan zuten horretan –familiek eta enpresek aurrezteko gaitasun txikiagoa zuten– eta, batez ere, mugikortasunerako mugen amaierak eta, hortaz, gastuak izan zuten eragina. Hain zuzen ere, aurrezki erako edo ageriko posizioen saldoa hazi egin zen (+% 2,3) –horiek dira likidoenak–. Aldiz, behera egin zuten eperako gordailuek (-% 6,7) eta beste batzuk partidak[1] (-% 11,5); beheranzko joerarekin jarraitu zuten bi kasuetan, aurrezki-modalitate horien errentagarritasuna oso txikia edo ia ezerezekoa delako, nahiz eta erakundeek ez zieten erreferentziazko tasen igoera haien bezeroei aplikatu.

Hortaz, aurrezki erako edo ageriko gordailuen ekarpena indartu egin zen (guztizkoaren % 89,8); 2008an, gordailuen saldoaren heren bat baino ez zegokien (% 30,8). Aldiz, pisua galdu zuten eperako gordailuek (% 7,6, eta 2012an % 52,6) eta beste batzuen taldeak (% 2,6, eta 2007an % 20,9); bien kasuan, oso ekarpen txikia egin zuten 2022an.

**255. koadroa Kreditu-erakundeak. Gordailua, moten arabera. Beste sektore egoiliar batzuk**

*(M euro)*

| Kontzeptua | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | **1.212.837** | **1.259.938** | **1.369.548** | **1.425.055** | **1.441.212** |
| • Agerikoa edo aurrezkia | 931.257 | 1.021.213 | 1.164.411 | 1.264.798 | 1.293.722 |
| • Eperakoa | 231.450 | 196.656 | 160.440 | 117.220 | 109.395 |
| • Beste batzuk | 50.130 | 42.069 | 44.697 | 43.037 | 38.095 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

[1] Barne hartzen ditu aktiboen aldi baterako lagapena, aktiboen transferentziagatik eratutako pasiboak, finantza-pasibo hibridoak eta mendeko gordailuak.

## Gordailuen bilakaera EAEn eta Nafarroan

Euskal Herrirako eskuragarri dagoen informazioak gordailu-erakundeek kudeatzen dituzten gordailuei egiten die erreferentzia[1] eta 2022an, Euskal Herrian zein Estatuan[2], igo egin zen horien saldoa (+% 1,8 eta +% 1,4). Bi kasuetan, datuen segidako erregistrorik altuena eskuratu zuten: 118.898 eta 1.506.442 milioi euro, hurrenez hurren. Dena den, bi eremuen kasuan, 2022an erregistratutako igoera txikiagoa izan zen pandemiaren biurtekoan izandakoa baino. Jarduera ekonomikoa, nolabait, normalizatzen ari dela adierazten du horrek, baina inflazioaren igoerak baldintzatuta, eragile ekonomikoek zuhurtziaz jokatzen baitute egungo ziurgabetasunaren aurrean. Hala, sendotu egin zen Euskal Herriko gordailuek Estatuko gordailuen guztizkoan duten pisua (% 7,9).

EAEko zein Nafarroako gordailuek egin zuten gora eta, hortaz, Euskal Herrikoek ere bai. Urte arteko hazkundea izan zuten (+% 1,5 EAEn eta +% 2,8 Nafarroan), eta horien gordailuetako saldoa 97.644 eta 21.253 milioi eurora iritsi zen, hurrenez hurren. Lurralde historikoaren arabera, Arabako (+% 2,2) eta Bizkaiko (+% 1,8) igoerak nabarmendu ziren; Gipuzkoa (+% 0,8), berriz, egonkor mantendu zen. Dena den, lurralde historikoen ekarpena[3] ezberdina izan zen: Bizkaia (guztizkoaren % 53,3) eta Gipuzkoa (% 32,2) nabarmendu ziren, eta Arabaren (% 14,5) pisu erlatiboa txikiagoa izan zen.

Kontuan hartutako eremu guztietan, gordailu gehienak beste sektore egoiliar batzuei dagozkie (% 90 baino gehiago), eta Administrazio Publikoek pisu txikiagoa dute. Hortaz, batez ere, sektore pribatuak baldintzatu zuen gordailuen guztizkoaren bilakaera. Aintzat hartutako eremu guztietan, gordailuen saldoak gora egin zuen, eta Nafarroako hazkundea nabarmendu zen (+% 4,4). Aitzitik, Administrazio Publikoek bilakaera ezberdina izan zuten eremuaren arabera: behera egin zuten Nafarroan (-% 28,2), Gipuzkoan (-%2,9) eta Estatuan (-% 0,7), eta gora egin zuten Araban (+% 8,3), Bizkaian (+% 5,1), EAEn (+% 5,3) eta Euskal Herrian (+% 2,1).

---

[1] Kreditu-erakundeen azpitaldea, bankuek, aurrezki-kutxek eta kreditu-kooperatibek osatua.

[2] Aurreko atalean, gordailuen bilakaerak kreditu-erakundeei egiten die erreferentzia (-% 2,5), eta horregatik da ezberdina Estatuari dagokion emaitza.

[3] Ezin da zuzenean lurralde bakoitzeko agenteek egindako gordailu gisa hartu. Izan ere, entitateek lurralde bakoitzari egindako esleipenean oinarritzen da (bulegoen finkapenaren eta jardueraren araberakoa). Egoitzarekin lotura duten faktoreek ere eragina dute. Gordailuaren lurraldekako banaketa honetan badirudi Bizkaiak neurriz kanpoko ordezkaritza duela, EAEko BPGari egiten dion lurralde-ekarpena kontuan izanda (% 50,9); Gipuzkoaren (% 33,4) eta Arabaren (% 15,8), ekarpenak txikiagoak dira. Hala, Bizkaiak pisu handiagoa du BPGan, gordailuen saldoan baino.

**256. koadroa** **Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuen eta administrazio publikoen gordailuak.**

*(M euro)*

| Lurraldea | Urtea | AP | BSE | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|
| Araba | 2020 | 1.321 | 11.532 | 12.853 |
| | 2021 | 2.375 | 11.442 | 13.817 |
| | 2022 | 2.572 | 11.553 | 14.125 |
| Bizkaia | 2020 | 4.149 | 45.731 | 49.880 |
| | 2021 | 6.212 | 44.917 | 51.130 |
| | 2022 | 6.531 | 45.531 | 52.062 |
| Gipuzkoa | 2020 | 638 | 28.717 | 29.355 |
| | 2021 | 757 | 30.456 | 31.213 |
| | 2022 | 736 | 30.722 | 31.457 |
| EAE | 2020 | 6.108 | 85.980 | 92.088 |
| | 2021 | 9.345 | 86.815 | 96.160 |
| | 2022 | 9.839 | 87.806 | 97.644 |
| Nafarroa | 2020 | 988 | 19.614 | 20.602 |
| | 2021 | 990 | 19.684 | 20.674 |
| | 2022 | 711 | 20.543 | 21.253 |
| Euskal Herria | 2020 | 7.096 | 105.595 | 112.690 |
| | 2021 | 10.335 | 106.499 | 116.834 |
| | 2022 | 10.549 | 108.349 | 118.898 |
| Espainia | 2020 | 79.416 | 1.329.870 | 1.409.286 |
| | 2021 | 96.329 | 1.390.015 | 1.486.344 |
| | 2022 | 95.644 | 1.410.799 | 1.506.442 |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

**48. grafikoa** **Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuen gordailuak**

*(Urte arteko aldakuntza-tasa)*




*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

## Aurrezkiaren beste adierazle batzuk

Gordailuei buruzko informazioa osatzeko, errenta gordin erabilgarriak, aurrezki gordinak eta familien aurrezki-tasak[1] Estatuan[2] izandako bilakaera aurkeztuko dugu. 2022an nabarmen murriztu zen Espainiako familien aurrezkia. 2021arekin alderatuta, ia erdira murriztu zen (-% 46,0), 58.457 milioi eurora. Zifra hori 2019koa (63.624 euro) baino baxuagoa da eta oso urruti dago pandemiaren biurtekoan eskuratutako gehieneko zifretatik; orduan, 100.000 milioi euroko muga gainditu zuen. Hala, 2021ean % 13,7koa izan zen aurrezki-tasa, eta 2022an % 7,2ra jaitsi zen (ehuneko -6,5 puntu).

Alde batetik, emaitza honek erakusten duenez, jarduera ekonomikoa berraktibatu egin zen eta nolabaiteko normaltasuna itzuli zen 2020an bizitako etenaren ondoren. Hala, familien kontsumoa igo egin zen (2021ean eta 2022an +% 8,2 eta +% 11,5) eta haien aurrezkia murriztu egin zen (-% 19,5 eta -% 46,0, hurrenez hurren). Beste aldetik, ordea, agerian geratu da prezioen gorakada orokorraren inpaktua, azken hamarkadetan ez bezalakoa baita inflazioa[3], eta horrek murriztu egiten du familien aurrezteko gaitasuna[4]. Hala, familien errenta gordin erabilgarriaren hobekuntza[5] (+% 3,6) txikiagoa izan da prezioen igoera baino (+% 8,4), eta horrek murriztu egiten du familien aurrezteko marjina.

**257. koadroa Familien errenta gordin erabilgarria eta aurrezkia**

*(M euro)*

| Kontzeptua | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|---|---|
| Errenta gordin erabilgarria | 743.554 | 780.912 | 765.671 | 789.318 | 817.536 |
| Aurrezki gordina | 41.249 | 63.624 | 134.543 | 108.338 | 58.457 |
| *Aurrezki-tasa (%)* | *5,5* | *8,1* | *17,6* | *13,7* | *7,2* |

*Iturria: EIN. Espainiako Kontabilitate Nazionala. Kontu ez-finantzarioak. Geuk egina.*

## Interes-tasaren, kostuaren eta ordainketaren bilakaera

Aipatu dugun moduan, egungo agertoki inflazionistaren ondorioz, moneta-erakundeek (EBZ eta Fed) igo egin dituzte erreferentziazko interes-tasak. Hala, asko aldatu dute haien moneta-politika, inflazioaren gorakadari eusteko helburuz. Euriborra (hamabi hilabetera) % 1,1era igo zen 2022an (urteko batezbestekoa), sei urtez negatibo mantendu ondoren (2016tik), eta 2009-2012 aldian erregistratutako mailara gerturatu zen (% 1-% 2 inguru),

[1] Familiei buruzko eta familien zerbitzura dauden irabazi-asmorik gabeko erakundeei buruzko informazioa hartzen du barne.
[2] Informazio hori ez dago eskuragarri EAEren eta Nafarroaren kasuan, baina horien egoera islatzen duela uste dugu.
[3] KPI orokorra % 8 baino altuagoa izan zen 2022an (urteko batezbestekoa) Estatuan (+% 8,4), EAEn (+% 8,0) eta Nafarroan (+% 8,8).
[4] EINen arabera, 2022an familiek egindako aurrezkia ez zen nahikoa izan sektoreko inbertsioa finantzatzeko. Hala, sektoreko kapitalaren transferentzien saldoa kontuan hartuta, familiek 1.753 milioi euroko finantzazio beharra izan zuten 2022an (2021ean 57.636 milioi euroko finantzaketa-gaitasuna izan zuen sektoreak).
[5] Familien Errenta Gordin Erabilgarria honela kalkulatzen da: Errenta Gordina gehi transferentzia arruntak (errentaren edo ondarearen gaineko zergak, kotizazio sozialak, prestazio sozialak eta beste batzuk).

baina 2007-2008ko erregistroetara iritsi gabe (% 4tik gora). Dena den, aipatu beharrekoa da 2023aren hasieran % 3,5ekoa zela Euriborra (lehenengo hiruhilekoko batezbestekoa).

**49. grafikoa Euriborraren bilakaera[1] (hamabi hilabetera)**

*(%)*




*(1) Urteko batezbestekoa*
*Iturria: Europako Banku Zentrala. Geuk egina.*

**258. koadroa Kreditu-erakundeak. Familietarako[2] eta sozietate ez-finantzarioetarako eragiketa berriei aplikatutako interes-tasak (TEDR)[1]**

*(%)*

| | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|---|---|
| FAMILIETARAKO MAILEGUAK ETA KREDITUAK[2] | | | | | |
| – Etxebizitza[3] | 1,99 | 1,69 | 1,51 | 1,38 | 2,91 |
| – Kontsumoa[3][4] | 6,92 | 6,66 | 6,32 | 6,10 | 7,13 |
| – Beste helburu batzuk[3] | 3,27 | 3,04 | 2,77 | 2,44 | 4,78 |
| SOZIETATE EZ-FINANTZARIOETARAKO MAILEGUAK ETA KREDITUAK. | | | | | |
| – Zorpekoak | 1,74 | 1,56 | 1,44 | 1,55 | 2,68 |
| – 250.000 €-ra arteko kredituak[3] | 2,05 | 1,87 | 1,87 | 1,69 | 3,53 |
| – 250.000 eta 1.000.000 € arteko kredituak[3] | 1,50 | 1,40 | 1,51 | 1,29 | 3,36 |
| – 1.000.000 € baino gehiagoko kredituak[3] | 1,53 | 1,23 | 1,37 | 1,04 | 3,26 |
| FAMILIEN GORDAILUAK[2] | | | | | |
| – Agerikoak | 0,03 | 0,03 | 0,01 | 0,02 | 0,04 |
| – Eperakoak[3] | 0,05 | 0,04 | 0,02 | 0,06 | 0,64 |
| • 1 urte arte | 0,05 | 0,02 | 0,01 | 0,01 | 0,42 |
| • 2 baino gehiago | 0,17 | 0,18 | 0,15 | 0,03 | 1,05 |
| SOZIETATE EZ-FINANTZARIOEN GORDAILUAK | | | | | |
| – Agerikoak | 0,08 | 0,07 | 0,01 | 0,03 | 0,11 |
| – Eperakoak[3] | 0,37 | 0,38 | 0,01 | 0,45 | 1,60 |
| • 1 urte arte | 0,39 | 0,36 | 0,01 | 0,45 | 1,60 |
| • 2 baino gehiago | 0,74 | 0,92 | 0,13 | 0,55 | 0,79 |

*(1) TEDR: Definizio mugatuko tasa efektiboa, hau da, komisiorik gabeko UTB.*
*(2) Familiak eta familien zerbitzura dauden irabazi-asmorik gabeko erakundeak.*
*(3) Batez besteko tasa haztatua, produktu desberdinei dagokienez, epearen arabera. Abenduaren 31n.*
*(4) 2010eko maiatzetik, kreditu-txartelen bidez emandako kreditua ere sartzen da.*
*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.*

Familia eta gizarte ez-finantzarioentzako eragiketa berrietan aplikatutako interes-tasak laburtzen ditu atxikitako taulak, eta agerian uzten du 2022an erregistratutako igoera handia, batez ere, maileguen eta kredituen osagaian. Igoera hori, ordea, ez zen neurri berean eman aurrezki-posizioetan, ordainsari urria izan baitzuten (% 0-1 ingurukoa).

**Hezkuntza digitalaren garrantzia eskuragarritasun finantzarioan**

Azkenik, eta jarduera finantzarioaren balantze honi itxiera emateko, orain dela gutxi egindako emaitzak[1] jaso ditugu. Txostenaren arabera, azken bi hamarkadetan nabarmen handitu da pertsonen digitalizazio maila, finantza-erakundeekin duten harremanari dagokionez. Zehazki, eskatzen dituzten finantza-zerbitzuak eskuratzeko kreditu-txartela eta online bankua erabiltzen dituztela aipatzen du txostenak.

Emaitzek Espainiako familien guztizkoari egiten diete erreferentzia, baina EAEko eta Nafarroako familietara estrapolatu ditzakegu, neurri handi batean, pertsonen ezaugarriak (adina, hezkuntza maila eta errenta) direlako jokabide-patroiak baldintzatzen dituztenak.

Zehazki, txostenak ondorioztatzen duenez, nabarmen hedatu da bankuko txartelak izatea eta erabiltzea, bereziki, hezkuntza maila eta errenta baxuena duten familien artean. Dena den, familien % 20k oraindik ere ez dute txartelik, edo ez dute erabiltzen. Halaber, online bankuaren erabilera igo egin da, baita hezkuntza maila txikiena duten familien artean ere (noizbehinkako erabilera), baina alde handiak daude familiako buruaren adinaren arabera, eta arrakala digitala apur bat handitu da.

[1] "Heterogeneidad en el uso de los medios de pago y la banca online: un análisis a partir de la encuesta financiera de las familias (2002-2020)". Espainiako Bankua, 2023ko martxoa. Familiei egindako Inkesta Finantzarioaren emaitzetan oinarrituta; 2020an argitaratu zen azken aldiz.

## 3. INBERTSIO KOLEKTIBOKO ERAKUNDEAK

Estatuan erregistratutako Inbertsio Kolektiboko Erakundeen (IKE) ondareak 331.966 milioi euroko saldoarekin itxi zuen 2022a: zifra horrek urte arteko % 7,2ko jaitsiera izan zuen, baina 2021ean azken hamarkadako errekorra lortu zen (357.581 milioi euro). Hortaz, 2012az geroztiko bigarren ekitaldirik onena izan zen 2022an, eta erraz gainditu zuen 300.000 milioi euroren langa.

2022an modu etengabean igotzen hasi ziren erreferentziazko interes-tasak (Euriborra). Kreditu-produktuen kostuan islatu zen igoera hori, baina ez gordailuen ordainsarian; izan ere, agertoki horretan, ordainsaria ia nulua izan zen. Ordainsariaren diferentzial onuragarria izan da inbertsio mota hauen alderdi erakargarrietako bat. Gordailuen ordainsaria eta Zor Publikoan egindako inbertsio zuzena hobetuta, murriztu egin daiteke diferentzial hori.

Bestetik, izena emandako erakundeen kopuruak jaisten jarraitzen du (2.675; -% 29,9). Azken hamarkadako kopururik txikiena da, eta 2011ko erakunde kopuruaren (5.460 erakunde) ia erdia. Emaitza horrek baieztatzen duenez, jarduera berriz dimentsionatu da eta inbertsio eta/edo aurrezki modalitate honek heltzen jarraitu du, 124 milioi euroko batez besteko ondarearekin (2011n 28,8 milioi eurokoa baino ez zen).

IKE-en ondarearen zatirik handiena Inbertsio Funtsei dagokie (311.466 milioi euro, % 93,8). Gainera, jaitsiera txikiena izan zuen inbertsio-modalitatea izan zen (-% 4,1), Kapital Aldakorreko Inbertsio Sozietateekin (-% 44,3) eta inbertsio libreko IKE-en IKE-ekin (-% 11,1) alderatuta. Bi horiek duten ondare-bolumena txikiagoa da (15.864 eta 741 milioi euro, hurrenez hurren), hortaz, IKE-en guztizkoan duten pisua oso mugatua da. Inbertsio libreko IKE-en igoera nabarmendu zen (+% 9,9); horien ondarea 3.894 milioi eurora igo zen, oso pisu txikia izan arren.

Kapital Aldakorreko Inbertsio Sozietateek[1] (-% 52,1) eta inbertsio libreko IKE-en IKE-ek (-% 20,0) behera egin zuten, eta Inbertsio Funtsen (+% 2,2) eta inbertsio libreko IKE-en (+% 26,0) igoera ez zen nahikoa izan jaitsiera horiek konpentsatzeko. Horregatik egin zuen behera erakunde kopuruak (-% 29,9). Hala, erakundeen erdiak Inbertsio Funtsak ziren (1.484), SICAVak kokatu ziren gero (1.091) eta, neurri txikiagoan, inbertsio libreko IKE-ak (92) eta inbertsio libreko IKE-en IKEak (8).

---

[1] Iruzur fiskalaren aurkako prebentzio-neurriei eta borrokari buruzko uztailaren 9ko 11/2021 Legearen bidezko arau-aldaketaren ondorioz, akziodunek gutxienez 2.500 euroko partaidetza izan behar dute eta gutxienez 100 partaide izan behar dira (aurrez ere bazegoen baldintza hori) aurreko zerga-erregimenaz baliatzen jarraitu ahal izateko; erregimen horren arabera, % 1eko zerga ordaintzen zuten sozietateen gaineko zergan eta inbertsio-funtsetan. Lege-aldaketa horren ondorioz, 2022an SICAVen % 50ek baino gehiagok baja eman zuten CNMVen erregistroan eta 2023an likidazio-prozesu horrek jarraitzea espero da. Izan ere, araudiaren arabera, 2023ko ekainaren 30ean amaitzen da SICAVak erregistrotik ezabatzeko epea.

Hala, batez besteko ondarerik handiena Inbertsio Funtsei dagokie (210 milioi euro). Ondare dezente txikiagoa dagokie SICAVei (14,5 milioi euro), inbertsio libreko IKE-ei eta inbertsio libreko IKE-en IKE-ei (42,3 eta 92,7 milioi euro).

**259. koadroa** **Finantza arloko Inbertsio Kolektiboko Erakundeen ondarea eta kopurua**

| Kontzeptua | Ondarea (M euro) | | Erakunde kopurua | |
|---|---|---|---|---|
| | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 |
| Inbertsio-funtsak (IF) | 324.701 | 311.466 | 1.452 | 1.484 |
| Inbertsio-sozietateak (SICAV) | 28.502 | 15.864 | 2.280 | 1.091 |
| Inbertsio libreko IKE[1] (ILIKE) | 3.543 | 3.894 | 73 | 92 |
| Inbertsio libreko IKE-en IKE[1] | 834 | 741 | 10 | 8 |
| **Guztira** | **357.581** | **331.966** | **3.815** | **2.675** |

*(1) Inbertsio libreko IKEak bi motatakoak izan daitezke, aktiboetan modu zuzenean (inbertsio libreko IKEak) edo inbertsio libreko beste IKE batzuen bidez (inbertsio libreko IKE-en IKEak) inbertitzen duten kontuan hartuta. Funts edo sozietate erakoak izan daitezke bi motak.*

*Iturria: CNMV.*

## HIF eta SICAVen ondarearen banaketa

Inbertsio Funtsen eta SICAVen ondarearen osaera zehazten du atxikitako taulak. Bi inbertsio motak garrantzitsuak dira inbertsio finantzarioen zorroan (% 93,5 eta % 77,8). Pisu txikiagoa dute diruzaintza-segmentuan (% 5,9 eta % 18,7) eta zordunen eta hartzekodunen saldo garbian (% 0,6 eta % 3,5). 2022an murriztu egin zen ondarea (-% 4,1 eta -% 44,3), batez ere, inbertsioen zorroaren balioa jaitsi egin zelako (-% 2,8 eta -% 52,0). Zordunen eta hartzekodunen saldo garbiak gora egin zuen (+% 34,1 eta +% 86,6) eta diruzaintzak bilakaera ezberdina izan zuen (-% 22,7 eta +% 19,6), baina hori ez zen nahikoa izan aipatutako jaitsiera konpentsatzeko.

Inbertsioen zorroa da Inbertsio Funtsen eta SICAVen inbertsioaren helmuga nagusia. Inbertsioen zorroaren barruan, gora egin zuen IFen barne-zorroak (+% 7,4), hazi egin zirelako zorraren balio adierazgarriak (+% 17,9) eta beste batzuen taldea (+% 35,7). Kanpo-zorroa, berriz, murriztu egin zen (-% 5,0), inbertsio kolektiboko erakundeek (-% 21,7) eta ondare-tresnek (-% 10,7) ondarea galdu zutelako. SICAVei dagokienez, barne-zorroa (-% 26,7) zein kanpo-zorroa (-% 56,0) murriztu ziren, zorro bakoitza osatzen duten inbertsio-segmentuek jaitsiera orokorra izan baitzuten. Ondare-tresnen jaitsiera nabarmendu zen (-% 49,8 eta -% 49,6 barne-zorroan eta kanpo-zorroan, hurrenez hurren).

Oro har, nazioarteko segmentuaren pisuak hazten jarraitu zuen, eta hari zegokion zorroaren zatirik handiena, bai Inbertsio Funtsetan (% 79,8), bai SICAVetan (% 79,1). Duela hamarkada bat ez en horrelakorik gertatzen (% 20,2 eta % 20,9, hurrenez hurren, 2011n).



LABORAL kutxa

**260. koadroa** **Inbertsio-funtsen eta -sozietateen ondare-banaketa**

*(M euro; balio efektiboa)*

| Kontzeptua | Inbertsio-funtsak(1) | | | Inbertsio-sozietateak | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2021 | 2022 | %∆ 22/21 | 2021 | 2022 | %∆ 22/21 |
| **Ondarea** | **324.701** | **311.466** | **-4,1** | **28.502** | **15.864** | **-44,3** |
| **Finantza-inbertsioen zorroa(2)** | **299.435** | **291.188** | **-2,8** | **25.730** | **12.350** | **-52,0** |
| Barne-zorroa | 54.717 | 58.740 | 7,4 | 3.525 | 2.584 | -26,7 |
| Zorraren balio adierazgarriak | 35.648 | 42.044 | 17,9 | 734 | 774 | 5,3 |
| Ondare-tresnak | 6.829 | 6.113 | -10,5 | 1.634 | 820 | -49,8 |
| Inbertsio kolektiboko erakundeak | 11.397 | 9.928 | -12,9 | 1.067 | 950 | -11,0 |
| Kreditu-erakundeetako gordailuak | 627 | 432 | -31,2 | 19 | 1 | -92,7 |
| Eratorriak | 169 | 159 | -5,6 | 0 | -1 | 90,4 |
| Beste batzuk | 47 | 64 | 35,7 | 71 | 39 | -44,7 |
| Kanpo-zorroa | 244.715 | 232.444 | -5,0 | 22.203 | 9.764 | -56,0 |
| Zorraren balio adierazgarriak | 95.132 | 110.174 | 15,8 | 2.684 | 1.807 | -32,7 |
| Ondare-tresnak | 46.255 | 41.321 | -10,7 | 7.158 | 3.605 | -49,6 |
| Inbertsio kolektiboko erakundeak | 103.090 | 80.593 | -21,8 | 12.335 | 4.326 | -64,9 |
| Kreditu-erakundeetako gordailuak | 0 | 0 | - | 0 | 0 | 4,0 |
| Eratorriak | 238 | 356 | 49,6 | 8 | 8 | -4,7 |
| Beste batzuk | 1 | 0 | -24,5 | 17 | 17 | -0,3 |
| Zalantzazko inbertsioa, inbertsio berankorra edo auzipeko inbertsioa | 4 | 4 | 11,7 | 2 | 3 | 42,8 |
| **Diruzaintza** | **23.951** | **18.515** | **-22,7** | **2.476** | **2.963** | **19,6** |
| **Zordun/hartzekodun garbiak** | **1.315** | **1.763** | **34,1** | **295** | **551** | **86,6** |

*(1) Hortik kanpo daude inbertsio libreko IKEak (ILF eta ILIKEF). Helburuko bereziko konpartimentuen datuak guztizkoetan sartuta daude, baina ez dute bokaziorik. Hori dela eta, bokazioen batura ez dator bat guztizkoekin.*
*(2) Interesak txertatuta daude epigrafe guztietan.*

*Iturria: CNMV.*

### HIFen tipologia

Higigarrietako Inbertsio Funtsak (HIF) bost talde handitan bereizten dira, barne hartzen dituzten finantza-produktuen arabera –monetarioa, errenta finkokoa, errenta aldakorrekoa, beste funts batzuk eta funts orokorrak–; horiek, aldi berean, hamasei aldaeratan banatzen dira, inbertsio-orientazioaren arabera. Hiru aldagaik izandako bilakaera zehazten du atxikitako taulak: funts kopurua, partaideen kopurua eta ondarea.

Gehienak errenta aldakorrekoak (631 funts) edo errenta finkokoak (462 funts) dira eta, bi kasuetan, 2021eko erregistroak hobetu zituzten 2022an (+38 eta +17 funts). Funts orokorrek ere gora egin zuten (291 funts, +28 funts), moneta-segmentua egonkor mantendu zen (2 funts) eta beste batzuen taldeak behera egin zuen (298 funts; -8 funts). Inbertsio-orientazioaren arabera, nazioarteko osagaia nabarmendu zen (516 funts) errenta aldakorreko funtsetan, eta euroa (292 funts) errenta finkoko funtsetan. Partaideen kopurua[1] 16,1 milioira igo zen (+% 1,9); izan ere, gora egin zuten ia segmentu guztiek, errenta finkoak izan ezik (-% 3,2). Hala ere, osagai nagusi gisa mantendu zen errenta finkoa (6,6 milioi partaide), eta errenta aldakorra izan zen hurrengoa (5,7 milioi).

[1] Mantentzen dituen kontratuen kopurua adina aldiz zenbatzen da partaide bakoitza.

Azkenik, HIFen ondarearen zatirik handiena errenta finkoko funtsetan (131.170 milioi euro) eta errenta aldakorreko funtsetan (77.063 milioi euro) banatzen da, eta biek urte arteko jaitsiera izan zuten (-% 2,7 eta -% 12,1, hurrenez hurren). Horrek azaltzen du, neurri handi batean, HIFen ondare-bolumena galdu izana (-% 4,1).

**261. koadroa** **Higigarrietako Inbertsio Funtsen (HIF), partaideen eta ondarearen banaketa[1,2], zorroaren osaeraren arabera**

| Kontzeptua | Funts kopurua | | Parte-hartzaile kopurua | | Ondarea (M €) | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 | 2021 | 2022 |
| Monetarioa[3] | 2 | 2 | 82.730 | 120.118 | 4.459 | 5.237 |
| Errenta finkoa (euroa)[3] | 203 | 228 | 4.150.416 | 4.346.790 | 71.832 | 83.034 |
| Errenta finkoa (nazioartekoa) | 61 | 63 | 1.242.950 | 1.072.364 | 12.132 | 10.290 |
| Errenta finko mistoa (euro) | 71 | 64 | 569.001 | 411.701 | 17.761 | 10.254 |
| Errenta finko mistoa (nazioartekoa) | 110 | 107 | 890.003 | 804.478 | 33.109 | 27.592 |
| Errenta aldakor mistoa (euro) | 31 | 29 | 51.993 | 24.521 | 1.824 | 933 |
| Errenta aldakor mistoa (nazioartekoa) | 161 | 177 | 669.353 | 672.197 | 26.317 | 23.315 |
| Errenta aldakorra (euro) | 94 | 86 | 778.138 | 836.711 | 8.280 | 7.226 |
| Errenta aldakorra (nazioartekoa) | 307 | 339 | 3.882.184 | 4.156.864 | 51.222 | 45.589 |
| Kudeaketa pasiboa[3] | 88 | 93 | 505.514 | 596.475 | 12.500 | 15.935 |
| Errendimendu finko bermatua | 43 | 49 | 77.430 | 141.717 | 2.347 | 5.455 |
| Errendimendu aldakor bermatua | 111 | 101 | 263.926 | 208.838 | 8.049 | 6.298 |
| Berme partziala | 3 | 1 | 1.117 | 350 | 46 | 9 |
| Itzulketa absolutua | 61 | 54 | 659.411 | 658.722 | 7.231 | 6.582 |
| Globalak | 263 | 291 | 1.989.428 | 2.067.594 | 67.591 | 63.717 |
| Bokaziorik gabe | 2 | 0 | 2.963 | 0 | 1 | 0 |
| **FIM, guztira** | **1.611** | **1.684** | **15.816.557** | **16.119.440** | **324.701** | **311.466** |

*(1) Helburuko bereziko konpartimentuen datuak guztizkoetan sartuta daude, baina ez dute bokaziorik. Hori dela eta, bokazioen batura ez dator bat guztizkoekin.*

*(2) Interesak txertatuta daude epigrafe guztietan.*

*(3) 2019ko bigarren hiruhilekoaz geroztik, 1/2019 Zirkularrak ezarritako definizio berrietara egokitzen dira bokazioak. "Monetario" kategoriak Merkatu Monetarioko Funtsen (FMM) lau mota hartzen ditu barne, aipatutako zirkularrak definitzen dituenak; gaur egun, "Likidazio-balio aldakorreko merkatu monetarioko funts estandarra" motako funtsak bakarrik daude erregistratuta. "Errenta Finkoa Euro" kategoriak barne hartzen ditu Errenta Finkoa Euro berria eta Epe Motzerako Errenta Finkoa Euro; eta "Kudeaketa Pasiboko IKE" kategoriak barne hartzen ditu indize bati erantzuten dioten IKEak eta bermatu gabeko errentagarritasun-helburuak dituzten IKEak.*

*Iturria: CNMV.*

**50. grafikoa** **Higigarrietako Inbertsio Funtsen lau taldeak bereizten dituzten hiru aldagaien urte arteko bilakaera**

*(urte arteko aldakuntza-tasa , 2022/2021)*




*Iturria: CNMV. Geuk egina.*

# 4. BURTSA-MERKATUA

Munduko burtsa-indize nagusien kapitalizazioak galera handiak izan zituen 2022an, gerra-gatazkaren ondorioekin lotutako ziurgabetasun-egoera handiaren eraginez eta agertoki horrek prezioen igoeran izandako inpaktuaren eraginez. Azken hamarkadetan ikusi gabeko agertoki inflazionista horren aurrean, erreferentziazko interes-tasak igo zituzten[1] eta murriztu egin zituzten munduko ekonomia nagusien aurreikuspenak, hazkunde ekonomikoari eta enpleguaren hazkundeari dagokienez.

Hala, 2021ean asko hazi zen burtsa-jarduera, baina 2022ko bilakaerak agerian utzi zuen merkatuen sentikortasuna honakoen aurrean: seinale txarrak, tasen igoera eta, batez ere, banku zentralen likideziaren amaiera. Horrek guztiak eragina izan zuen, eta Europako indizeen urte arteko jaitsierak eragin zituen. Dax-Xetra (-% 12,3) eta Eurostoxx 50 (-% 11,7) indizeen jaitsiera nabarmendu zen, eta Frantziako CAC (-% 9,5) eta IBEX-35[2] (-% 5,6) izan ziren hurrengoak. FTSE indize britainiarra, berriz, apur bat hobetu zen (+% 0,9).

**262. koadroa Burtsa-indize nagusien bilakaera**

*(puntuak)*

| Urtea | Ibex-35 (Madril) | CAC-40 (Paris) | Dax-Xetra (Frankfurt) | FT-SE 100 (Londres) | Dow Jones (New York) | Nikkei (Tokio) | Eurostoxx 50 | Nasdaq Composite |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2019 | 9.549,2 | 5.978,1 | 13.249,0 | 7.542,4 | 28.538,4 | 23.656,6 | 3.745,2 | 8.972,6 |
| 2020 | 8.073,7 | 5.551,4 | 13.718,8 | 6.460,5 | 30.606,5 | 27.444,2 | 3.552,6 | 12.888,3 |
| 2021 | 8.713,8 | 7.153,0 | 15.884,9 | 7.384,5 | 36.338,3 | 28.791,7 | 4.298,4 | 15.645,0 |
| 2022 | 8.229,1 | 6.473,8 | 13.923,6 | 7.451,7 | 33.147,3 | 26.094,5 | 3.793,6 | 10.466,5 |
| *Urte batetik besterako aldakuntza (%)* | | | | | | | | |
| 2019 | 11,8 | 26,4 | 25,5 | 12,1 | 22,3 | 18,2 | 24,8 | 35,2 |
| 2020 | -15,5 | -7,1 | 3,5 | -14,3 | 7,2 | 16,0 | -5,1 | 43,6 |
| 2021 | 7,9 | 28,9 | 15,8 | 14,3 | 18,7 | 4,9 | 21,0 | 21,4 |
| 2022 | -5,6 | -9,5 | -12,3 | 0,9 | -8,8 | -9,4 | -11,7 | -33,1 |

*Oharra: Abenduaren 31n.*
*Iturria: Ekonomia Adierazleen datu-basea. Ekonomia eta Eraldaketa Digitaleko Ministerioa.*

Ipar Amerikako merkatuek galera handiak izan zituzten[3], eta ordura arteko hazkundea eten zuten –2020an, gehieneko historikoak eta (gainera) balioaren hazkundeak–. Dow Jones indizearen jaitsiera (-% 8,8) eta, batez ere, Nasdaq Composite indizearen –izaera teknologikokoa– jaitsiera (-% 33,1) nabarmendu ziren; azken indize horrek goranzko joera jarraitua izan zuen hazken hamabi hilabeteetan zehar. Azkenik, Japoni0ako Nikkei indizeak ere galerak izan zituen (-% 9,4), joera orokorrarekin bat eginez.

---

[1] Erreserba Federalak zazpi aldiz igo zituen interes-tasak 2022an zehar, eta urtearen itxieran % 4,25 eta % 4,5 artekoak ziren. 2023aren hasieran, berriz, interes-tasak berriro igo dira, % 4,75-% 5,0 tartera (2023ko martxoan). Europako Banku Zentralak ere igo zituen interes-tasak 2022an (lau igoera), % 2,5era arte, eta 2023aren hasieran % 3,5ean zeuden (2023ko martxoan).
[2] Espainiako indizeak jaitsiera txikiagoa izan zuen, bankuen sektoreak (interes-tasen igoeren onuradun nagusia) eta energiaren eta zerbitzu publikoen sektoreek bilakaera hobea izan zutelako.
[3] Inflazioa arintzeko Feden moneta-politika erasokorrarekin lotuta, batez ere.



LABORAL kutxa

**51. grafikoa** **Burtsa-indize nagusien bilakaera**

*(100 oinarria = 2021/12/31)*




*Iturria: Ekonomia Adierazleen datu-basea. Ekonomia eta Eraldaketa Digitaleko Ministerioa.*

Aintzat hartutako burtsa-indize guztiek ibilbide bera izan zuten 2022an, eta agerian utzi zuten ekitaldian zehar gertatu ziren gertaeren inpaktua. Adibidez, Errusiaren eta Ukrainaren arteko gerraren hasierak (otsailean) okertu egin zuen burtsa-merkatuen jarduera. Aurrerago jarduera apur bat suspertu bazen ere, moneta-erakundeek inflazioaren gorakada arintzeko aplikatutako interes-tasen ondoz ondoko igoerek eten egin zuten hobekuntza hura. Urtearen amaieran zerbait hobetu zen egoera, munduko ekonomiek hobera egin zutelako –2022rako aurreikusitako hazkunde ekonomikoaren gaineko iragarpen txarrak hobetu zituzten– eta interes-tasetan aplikatutako igoeren desazelerazioa aurreikusten zelako[1].

Nasdaq Composite da salbuespena, etengabeko galera-profilarekin[2]. Hala, 2022aren itxieran azken urteetako baxuena izan zen indizea. Elementu partekatuei berariazko elementu batzuk batu behar zaizkie, adibidez, sektoreko hazkunde-aurreikuspenak ez betetzearekin lotutako albisteak, enpresa bereizgarrietako kaleratzeak eta aro baten amaieran gauden uste orokorra (Silicon Valley Banken porrotak are gehiago indartu zuen uste hori). Faktore horiek azaltzen dute indizearen bilakaera txarra.

---

[1] 2022ko ekainaren eta azaroaren artean, oinarrizko 75 puntuko lau igoera egin zituen Fedek interes-tasetan, eta aplikatutako azken igoerak oinarrizko 50 puntukoa (abenduan) eta 25 puntukoa (2023 otsailean eta martxoan) izan dira. Halaber, Europako Banku Zentralak oinarrizko 75 puntuko bi igoera egin zituen (irailean eta azaroan) eta aplikatutako azken igoerak oinarrizko 50 puntukoak izan dira (2022ko abenduaren eta 2023ko martxoaren artean).

[2] Gainera, pandemian zehar aldatu ziren ohitura batzuen normalizazioak baldintzatu egin zuen (telelana, bideokonferentziak, eduki digitalak…).

## 4.1 IKUSPEGI OROKORRA

### Lehen mailako eta jaulkipeneko merkatuak

Estatuko merkatuari dagokionez, 2022ko jaulkipen garbien eta salmenta-eskaintza publikoen bolumena 36.603 milioi eurokoa izan zen, 2020-2021 biurtekoan erregistratutako zifra baino askoz ere txikiagoa –orduan 100.000 milioi eurotik gorakoa izan zen–, baina 2018ko bolumenaren antzekoa (31.135 milioi euro) eta 2019koa baino apur bat baxuagoa (54.795 milioi euro).

Ziurgabetasun maila handiak asko okertu zuen errenta aldakorreko lehen mailako merkatuen jarduera, bai Espainian, bai nazioartean. Hala, akzioak ez diren baloreek (-46.379 milioi euro) eta akzio kotizatuek eta ez-kotizatuek (-22.552 milioi euro) jaitsierak izan zituzten, eta balio negatiboekin itxi zuten ekitaldia.

Zehazki, akzioak ez diren baloreen negoziatutako bolumena murriztu egin zen finantza-erakundeen (-39.977 milioi euro) eta sozietate ez-finantzarioen (-19.787 milioi euro) kasuan. Aldiz, igo egin zen Administrazio Publikoekin lotutako saldoa (+13.385 milioi euro), Administrazio Zentralaren igoerari esker. Bestetik, behera egin zuten akzio kotizatuek eta ez-kotizatuek, kapitala zabaltzearekin lotutako segmentuak behera egin zuelako (-21.297 milioi euro); salmenta-eskaintza publikoek ere behera egin zuten, neurri txikiagoan (-1.255 milioi euro).

**263. koadroa Akzioak ez diren baloreak, finantza-tresna deribatuak izan ezik. Inbertsio-funtsetako partaidetzak eta akzioak. Jaulkipen garbiak eta salmenta-eskaintza publikoak**

*(M euro)*

| Kontzeptua | 2020 | 2021 | 2022 | Urte batetik besterako aldakuntza 21/20 | Urte batetik besterako aldakuntza 22/21 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Akzioak ez diren baloreak[1]** | **135.512** | **91.136** | **44.757** | **-44.376** | **-46.379** |
| – Finantza-erakundeak | 27.011 | 12.694 | -27.283 | -14.317 | -39.977 |
| Finantza-erakunde monetarioak | 17.996 | 30.831 | -11.048 | 12.835 | -41.879 |
| Bestelako finantza-bitartekariak | 9.015 | -18.137 | -16.235 | -27.152 | 1.902 |
| – Administrazio Publikoak | 97.607 | 64.904 | 78.289 | -32.703 | 13.385 |
| Administrazio zentrala | 100.367 | 61.199 | 79.342 | -39.168 | 18.143 |
| Autonomia-erkidegoak | -2.760 | 3.905 | -832 | 6.665 | -4.737 |
| Tokiko udalbatzak | 0 | -200 | -221 | -200 | -21 |
| – Sozietate ez-finantzarioak | 10.894 | 13.538 | -6.249 | 2.644 | -19.787 |
| **Akzio kotizatuak eta ez-kotizatuak** | **5.506** | **14.398** | **-8.154** | **8.892** | **-22.552** |
| – Kapitala zabaltzea. Funtsen ekarpena | 4.538 | 12.675 | -8.622 | 8.137 | -21.297 |
| Finantza-erakundeak | 989 | 7.318 | -3.962 | 6.329 | -11.280 |
| Sozietate ez-finantzarioak | 3.586 | 6.760 | -4.728 | 3.174 | -11.488 |
| – Salmenta-eskaintza publikoak | 968 | 1.723 | 468 | 755 | -1.255 |
| **Jaulkipen garbiak eta salmenta-eskaintza publikoa, guztira** | **141.018** | **105.534** | **36.603** | **-35.484** | **-68.931** |

*(1) Finantza-tresna deribatuak izan ezik. Balio nominalak.*
*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.*



LABORAL kutxa

### Bigarren mailako merkatuak Burtsak

Errenta aldakorreko bigarren mailako merkatuak ere behera egin zuen, baina errenta aldakorreko lehen mailako merkatuak baino neurri txikiagoan. Hala, 2022aren amaieran 362.602 milioi eurokoa zen negoziatutako akzioen bolumena, aurreko urtean baino % 4,1 baxuagoa. Burtsa arteko Lotura Sistemak (SIBE) kudeatutako operatiboek ere behera egin zuten. Gainerako operatiboak, berriz, egonkor mantendu ziren, baina horien pisua oso txikia da.

Sektore elektrikoaren (-% 8,8) eta gainerako jardueren (-% 16,6) jaitsierak eragin zuten akzioen bigarren mailako merkatuan erregistratutako beherakada. Banku-sektorean (+% 10,1), eraikuntzan (+% 5,0) eta komunikazioan (+% 32,2), berriz, gora egin zuen negoziatutako bolumenak. Dena den, igoera horiek ez zuten konpentsatu jardueraren beherakada orokorra.

Negoziatutako bolumenaren zatirik handiena banku-sektoreari (% 27,2) eta gainerako jarduerei (% 40,2) dagokie. Sektore elektrikoa (% 16,4), komunikazioa (% 10,4) eta eraikuntza-sektorea (% 5,7) dira hurrengoak. Banaketa hori nahiko egonkor mantendu zen, baina apur bat handitu zen sektore elektrikoaren eta gainerako jardueren ekarpena.

**264. koadroa Burtsa-merkatua. Negoziatutako bolumenen balio efektiboa (akzioak)**

*(M euro)*

| Tituluak | 2020 | 2021 | 2022 | %∆ 22/21 |
|---|---|---|---|---|
| Akzioak (SIBE, Espainiako Burtsa arteko Lotura Sistema) | 429.358 | 377.661 | 362.122 | -4,1 |
| Bankuak | 98.390 | 89.661 | 98.736 | 10,1 |
| Elektrikoak | 79.190 | 65.043 | 59.325 | -8,8 |
| Eraikuntza | 26.595 | 19.662 | 20.639 | 5,0 |
| Komunikazioa | 49.846 | 28.448 | 37.600 | 32,2 |
| Gainerakoak | 175.337 | 174.848 | 145.821 | -16,6 |
| Gainerako akzioak (Korro Sist. Kont.) | 480 | 480 | 480 | 0,0 |
| Madrilgo burtsa | 360 | 360 | 360 | 0,0 |
| Bartzelonako burtsa | 120 | 120 | 120 | 0,0 |
| Bilboko burtsa | 0 | 0 | 0 | 0,0 |
| Valentziako burtsa | 0 | 0 | 0 | 0,0 |
| **Akzioak, guztira** | **425.170** | **378.141** | **362.602** | **-4,1** |

*Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.*

Bestetik, Espainiako burtsa-merkatuaren lurrunkortasuna apur bat igo zen 2021arekin alderatuta. Hala, VIBEX[1] indizearen arabera, 2022an % 21,3koa izan zen urteko batezbestekoa; 2021ean, berriz, % 17,4koa. Zehazki, lurrunkortasun inplizitua % 19koa zen urtearen hasieran, baina otsailean eta martxoan gora egin zuen, Ukrainako gerraren hasierak sortutako ziurgabetasunaren ondorioz. Dena den, apirilaren eta irailaren artean, maila normalagoetara itzuli zen eta, azaroan eta abenduan zehar, beheranzko joera argia izan zuen. Hala, 2022aren amaieran % 17tik behera kokatu zen.

[1] Espainiako burtsa-merkatuan kotizatutako lurrunkortasun inplizitua neurtzen du adierazle honek, MEFFen negoziatutako IBEX-35 indizearen gaineko aukerak erabilita, 30 eguneko denbora-tarte konstante batean.

**52. grafikoa VIBEXen lurrunkortasun-indizea***




*(*) Kotizatutako lurrunkortasun inplizituaren bilakaera islatzen du VIBEX® indizeak, MEFF merkatuko IBEX 35® indizearen gaineko aukeretan, 30 eguneko denbora-tarte konstante batean.*

*Iturria: Espainiako Burtsak eta Merkatuak (BME)*

## Bigarren mailako merkatuak: Errenta Finkoa

Errenta finkoko Estatuko merkatuaren bilakaerak erakusten duenez, zor publikoan negoziatutako bolumenak urte arteko jaitsiera izan zuen (-% 12,0) eta 79.075 milioi euroan kokatu zen. Hiru jarduera-segmentuek egin zuten behera. Bonu eta obligazio bereiziek (-% 41,9) eta ez-bereiziek (-% 5,1) izandako jaitsiera nabarmendu zen, baita Altxorraren Letrek izandakoa ere (-% 37,4). Hala, errenta finkoko bigarren mailako merkatua 2019koaren (78.999 milioi euro) antzeko mailara itzuli zen. Haren egituran, bonu eta obligazio ez-bereiziak nabarmentzen dira (guztizkoaren % 85,7) eta, ondoren, Altxorraren Letrak (% 10,7) eta bonu eta obligazio bereiziak (% 3,6).

**265. koadroa Errenta finko publikoaren bigarren mailako merkatuan negoziatutako bolumenak: Estatuaren zorra (1)**

*(M euro)*

| Kontzeptua | 2020 | 2021 | 2022 | %∆ 22/21 |
|---|---|---|---|---|
| **CADE sistema - ARCO sistema (2)** | **80.036** | **89.851** | **79.075** | **-12,0** |
| – Bonu eta obligazio ez-bereiziak | 67.276 | 71.441 | 67.766 | -5,1 |
| – Bonu eta obligazio bereiziak | 3.877 | 4.872 | 2.830 | -41,9 |
| – Altxorraren Letrak | 8.884 | 13.539 | 8.480 | -37,4 |

*(1): Eskurako, eperako eta berrerosteko eragiketa-negoziazioen eguneroko zifren batez bestekoa. 2017az geroztik, araudi-aldaketa dela-eta, errenta finko pribatuko merkatuek ez dituzte argitaratu negoziazioaren gehiengoaren datuak (sistemako erabiltzaileen arteko salerosketa zuzenak).*

*(2): 2017an, Espainiako Bankuaren Idazpenen Zentralaren (CADE) lehengo sistemaren kudeaketa Espainiako Burtsa eta Merkatuen Taldearen esku geratu zen, ARCO izenarekin, eta Europako T2S sistemarekin homologatu zen.*

*Iturria: Altxor Publikoaren hileroko estatistikak. Ekonomia eta Enpresa Ministerioa.*

Espainiako deribatuen merkatuak (MEFF) 32,1 milioi kontratuko bolumena erregistratu zuen, 2021ean eskuratutako zifraren antzekoa (-% 0,2). Izan ere, finantza-aukeren igoerak (+% 5,0) konpentsatu egin zuen geroko finantzarioen jaitsiera (-% 5,1). Dena den, gerokoen negoziazioak IBEX-35aren gainean izandako hazkundea (+% 3,5) nabarmendu zen, baita banakako akzioen gaineko aukeretan izandako hazkundea ere (+% 6,6).

**266. koadroa Geroko Finantzarioen eta Aukera Finantzarioen Espainiako Merkatua**

*(mila kontratu)*

| Kontzeptua | 2020 | 2021 | 2022 | %∆ 22/21 |
|---|---|---|---|---|
| **Geroko finantzarioak, guztira** | **16.874** | **16.607** | **15.759** | **-5,1** |
| – Indizeen gaineko gerokoak (IBEX) | 5.906 | 5.261 | 5.446 | 3,5 |
| – Akzioen gaineko gerokoak | 10.968 | 11.346 | 10.314 | -9,1 |
| **Aukera finantzarioak, guztira** | **21.830** | **15.555** | **16.337** | **5,0** |
| – Indizeen gaineko aukerak (IBEX) | 2.437 | 1.489 | 1.344 | -9,7 |
| – Akzioen gaineko aukerak | 19.393 | 14.066 | 14.993 | 6,6 |
| **MEFF, guztira** | **38.704** | **32.162** | **32.097** | **-0,2** |

*(*): Egindako eragiketak*
*Iturria: BME (Espainiako Burtsak eta Merkatuak)*

## 4.2 BILBOKO BURTSA

Bilboko Burtsaren indize orokorrak 1.310,47 punturekin amaitu zuen 2022a. Zifra hori 2021ean erregistratutako zifra baino apur bat baxuagoa (-% 6,2) izan zen (1.397,35 puntu), munduko burtsa-indize nagusiek izandako errentagarritasunaren galerarekin bat etorriz. Urteko azken egunean, indizearen balioa gutxieneko 1.309,51 punturen eta gehieneko 1.321,07 punturen artean mugitu zen. Urte arteko jaitsiera izan arren, Bilboko burtsak 2020aren itxierako datua gainditu zuen (1.291,18 puntu).

**267. koadroa Bilboko Burtsaren Indize Orokorra. Azken balioa, maximoa eta minimoa**

| Urtea | Azkena | Maximoa | Minimoa |
|---|---|---|---|
| 2016 | 1.489,50 | 1.542,97 | 1.283,77 |
| 2017 | 1.577,50 | 1.748,99 | 1.479,05 |
| 2018 | 1.330,08 | 1.337,44 | 1.323,12 |
| 2019 | 1.485,36 | 1.488,93 | 1.481,62 |
| 2020 | 1.291,18 | 1.298,11 | 1.290,87 |
| 2021 | 1.397,35 | 1.399,37 | 1.390,08 |
| 2022 | 1.310,47 | 1.321,07 | 1.309,51 |

*Oharra: Oinarria 2000, 1999ko abenduaren 31koa.*
*Iturria: Bilboko Burtsa.*

Hileko bilakaerak erakusten duenez, 2022an zehar apur bat okerrera egin zuen burtsa-indizeak, eta irailean erregistratu zen indizearen baliorik baxuena (1.177,90 puntu). Dena den, apur bat hobetu zen urtearen azken zatian, baina ez zen maiatzeko gehieneko erregistrora iritsi; maiatzean 1.400 puntuak gainditu zituen (1.401,14 puntu).

**53. grafikoa Kotizazio Indize Orokorra Bilboko burtsa**




*Iturria: Bilboko Burtsa.*

Bestetik, Bilboko parkean Burtsa arteko Lotura Sistemaren bidez akzioetan erregistratutako kontratazioaren bolumenak urte arteko jaitsiera handia izan zuen (-% 22,0), eta azken urteetako mailarik baxuenean kokatu zen, 64.979 milioi eurorekin. Hala, beheranzko joera argia sendotu zen eta ondoz ondoko lau urtetan (2019-2022) 100.000 milioi euro baino baxuagoa izan zen kontratazioaren bolumena. Hain zuzen ere, 2022an erregistratutako jarduera 2015koaren (182.570 milioi euro) herena baino ez zen izan. Urte hartatik aurrera asko murriztu zen Bilboko Burtsako akzioen kontratazioaren bolumena (SIBE).

**54. grafikoa Bilboko Burtsako kontratazio-bolumena. Balio efektiboak***

*(M euro)*




*(*): Erosketak + salmentak.*
*Iturria: Bilboko Burtsa.*